

BERTSOLARITZAREN HISTORIA: HEDABIDERATZEA, ERAGILETZA ETA PROIEKTUA (1823-2018)

Ahots subalternoaren bizi-indarraren
testigantza bat

ERANSKINAK

Antxoka Agirre Maiora

DOKTORE TESIA

Zuzendariak: Txema Ramirez de la Piscina eta Simon Peña Fernandez



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Kazetaritza II Saila
Leioa, 2019

ERANSKINAK AURKIBIDEA

I.ERANSKINA: LEHEN TESTU HISTORIKOEN BILDUMA IRUZKINDUA

I.I IPARRAGIRREK XIX. MENDEAN IZANDAKO OIHARTZUN MEDIATIKOAREN NEURRIA

I.I.I Datu biografiko gutxi batzuk 11

I.I.II Prentsak bideraturiko itzulera 11

I.I.III Itzuli aurretik ere 13

I.I.IV Iparragirreraren ondorengo iparragirre 14

I.II ATZERRIKO BEGIRADA: IKERKETAK ETA BIDAIAK. 1860-

I.II.I Ikerketa: 'Neber die basken und ihre volkslied' *Wiener Zeitungen* (1860) 16

I.II.II Bidaiak: Bertso-saioa nahiago zezenketa baino, *Le Siéclen* (1864) 18

I.II.III Bidaiariak eta ikerlariak liburuetan 20

I.III LEHEN KRONIKAK: 1880-

I.III.I Lehengoa: Vinsonek *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* aldizkarian, frantsesez (1870) 22

I.III.II Lehengoa gazteleraz: Manterolak *Euskal-Errian* (1880) 24

I.III.III Lehengoa euskaraz: Otaegik *Euskal-Errian* (1880) 26

I.III.IV Lehengoa ingelesez: Websterrek *The Cornhill Magazinean* (1882) 28

I.IV FIKZIOA: 1880-

I.IV.I Juan Antonio Mogelen 'Peru Abarka' *Beti-Bat* egunkarian (1880) 30

I.IV.II Vicente Aranaren 'El bardo de Uribe' *El Aralaren* (1896) 34

I.IV.III Txomin Agirreren 'Iru erezi' *Euskalzale* astekarian (1898) 36

I.IV.IV Pedro Mari Otañoren 'Auntza larrera' *La Baskonia* aldizkarian (1903) 37

I.IV.V Pierre Lotiren 'Ramuncho' *ABC* egunkarian (1906) 38

•

II. ERANSKINA: TESTUEN HISTORIKOEN BIGARREN BILDUMA IRUZKINDUA

II.I EMAKUME BERTSOLARIAK PRENTSA HISTORIKOAN

- II.I.I Manuela Zubiaurre *Bertsolari* (1837-1916) 41
- II.I.II Emakumeak lehen kronikan eta elkarrizketen lehen aurrekarian 43
- II.I.III Lore Jokoetako normaltasuna ñabartuaz 45
- II.I.IV Mariasun Landaren 'Emakume bertsolari batekin elkarrizketan', *Anaitasuna* (1978) 47

II.II ATZERRIKO BEGIRADA II

- II.II.I Madril 51
- II.II.II Paris 53
- II.II.III Buenos Aires 55
- II.II.IV Mattin eta Xalbador *National Geographicen* 57

II.III FIKZIOA II

- II.III.I Geroz eta fikziozko testu gutxiago prentsan 58
- II.III.II Blasco Ibañezen 'L'intrus' *Le Populaire* (1935) 60
- II.III.III Robert Laxalten 'The basque troubadour', *Atlantic Monthly* (1963) 62
- II.III.IV Bernardo Atxagaren 'Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar harrigarriak', *Anaitasuna* (1973) 64

II.IV EUSKAL IDAZLEAK

- II.IV.I Gabriel Aresti 66
- II.IV.II Bernardo Atxaga 69
- II.IV.III Xabier Lete 72
- II.IV.IV *Continuuma* hemen ere: Lauaxetatik Sarrionaindiara 75

•

III. ERANSKINA: PRENTSAKO AIPUEN ITZULPENAK

III.I *JOURNAL DES VOYAGES, DÉCOUVERTES ET NAVIGATIONS MODERNES*, 'SOUVENIRS DU PAYS BASQUE ET DES PYRÉNÉES EN 1819 ET 1820' 78

III.II *GAZETTE DES TRIBUNAUX*: 'ASSASINAT COMMIS PAR MÉPRISE' (1828) 78

III.III *ALBUM PIRÉNÉEN-REVUE BÉARNAIS*, 'DES BASQUES ET DE LEUR POÉSIE' (1841) 80

III.IV *TRILBY*, 'CHANT BASQUES' (1844) 81

III.V *ARIEL*, 'AITOR/LÉGENDE CANTABRE' (1845) 82

III.VI *LA PRESSE*, 'FEUILLETON DE LA PRESSE/INTERNATIONAL PARIS-LONDRES' (1851) 82

III.VII 'NEBER DIE BASKEN UND IHRE VOLKSLIED' *WIENER ZEITUNG* AUSTRIARREAN (1860) 83

III.VIII *LE SIÈCLE*, 'QUELQUES PAS EN ESPAGNE' (1864) 84

| | |
|---|----|
| III.IX <i>REVUE DE LINGUISTIQUE ET DE PHILOLOGIE COMPARÉE</i> , 'CONCOURS DE POÉSIE BASQUE EN SARE EN 1869' (1870) | 85 |
| III.X <i>THE CORNHILL MAGAZINE</i> , 'FESTIVALS AMONG THE BASQUES' (1882) | 86 |
| III.XI EMAKUMEAK LEHEN KRONIKAN ETA ELKARRIZKETEN LEHEN AURREKARIAN | 87 |
| III.XII LORE JOKOETAKO NORMALTASUNA ÑABARTUAZ | 88 |
| III.XIII PARIS | 89 |
| III.XIV MATTIN ETA XALBADOR <i>NATIONAL GEOGRAPHIC</i> EN | 90 |
| III.XV BLASCO IBAÑEZEN L'INTRUS, <i>LE POPULAIRE</i> (1935) | 90 |
| III.XVI ROBERT LAXALTEN 'THE BASQUE TROUBADOUR', <i>THE ATLANTIC MOUNTLY</i> (1963) | 92 |

•

IV. ERANSKINA: FINALARI BURUZKO ESTALDURAREN AZTERKETA

| | |
|---|-----|
| IV.I KAZETARITZA GENEROEN ETA OHIKO BALIABIDEEN BILAKAERA | |
| IV.I.I Ikuspegi orokorra | 94 |
| IV.I.II Albistea | 95 |
| IV.I.II Kronika | 97 |
| IV.I.III Elkarrizketa | 100 |
| IV.I.IV Erreportajea | 103 |
| IV.I.V Iritzia | 104 |
| IV.I.VI Bestelakoak | 108 |
| IV.I.VII Ohiko baliabide batzuk | 108 |
| IV.II HIZKUNTZA HAUTUAREN BILAKERA | |
| IV.I.I Bilakaera orokorra | 111 |
| IV.I.II Erdarazko estalduraren bilakaera | 113 |
| IV.I.III Hizkuntza hautua eta kazetaritza generoen arteko loturak | 116 |
| IV.III ARGITALPEN NAGUSIEN EREDU EZBERDINAK | 117 |
| IV.IV BERTSO-KRITIKAREN GARAPENAREN INGURUKO EZTABAIDA | 123 |

•

V. ERANSKINA: ELKARRIZKETEN TRANSKRIPZIOAK

| | |
|--|-----|
| V.I JOXEAN AGIRRE. ZARAUTZ, 2017/IX/27 | 127 |
| V.II NIKOLAS ALDAI. HONDARRIBIA, 2017/IX/26 | 137 |
| V.III XABIER AMURIZA. BERRIZ, 2017/VIII/02 | 142 |
| V.IV AMETS ARZALLUS. ZARAUTZ, 2017/IX/21 | 148 |
| V.V ANDONI EGAÑA. ZARAUTZ, 2017/VII/26 | 154 |
| V.VI ESTITXU EIZAGIRRE. LASARTE, 2017/VII/19 | 161 |

| | |
|--|-----|
| V.VII ESTI ESTEIBAR. VILLABONA, 2017/VII/27 | 168 |
| V.VIII JOXERRA GARZIA. DONOSTIA, 2017/VII/26 | 182 |
| V.IX JEXUX MARI IRAZU. VILLABONA, 2017/IX/28 | 194 |
| V.X FELIX IRAZUSTABARRENA. VILLABONA, 2017/IX/19 | 200 |
| V.XI JOXE MARI IRIONDO. ZARAUTZ, 2017/VII/18 | 209 |
| V.XII MAIALEN LUJANBIO. HERNANI, 2017/VII/17 | 223 |
| V.XIII JON SARASUA. ARETXABALETA, 2017/X/06 | 233 |
| V.XIV XABIER SUKIA. DONOSTIA, 2017/VII/14 | 242 |
| V.XV BEÑAT ZAMALLOA. BILBO, 2017/IX/27 | 253 |
| V.XVI ARITZ ZERAIN. VILLABONA, 2017/IX/22 | 257 |

•

VI. ERANSKINA: BERTSOLARITZAREN HEMEROGRAFIA HISTORIKOA. ZERRENDA (1823-1979)

| | |
|--|-----|
| VI.I HEMEROGRAFIA HISTORIKOA ETIKETAK | 261 |
| VI.II HEMEROGRAFIA HISTORIKOA ZERRENDA | 262 |

| | |
|-------------------|-----|
| Lehenengoak | 263 |
| 1850eko hamarkada | 264 |
| 1860ko hamarkada | 266 |
| 1870eko hamarkada | 267 |
| 1880ko hamarkada | 272 |
| 1890eko hamarkada | 279 |
| 1900eko hamarkada | 288 |
| 1910eko hamarkada | 300 |
| 1920ko hamarkada | 306 |
| 1930eko hamarkada | 313 |
| 1940ko hamarkada | 328 |
| 1950eko hamarkada | 334 |
| 1960ko hamarkada | 346 |
| 1970eko hamarkada | 385 |

•

VII. ERANSKINA: BERTSOLARITZAREN HEMEROGRAFIA HISTORIKOA. DATUAK ETA GRAFIKOAK (1823-1979) [*Pendrivean*]

| |
|---|
| VII.I LORE JOKOAK. DATUAK ETA GRAFIKOAK (1845-1917) |
| VII.II EUZKO PIZKUNDEA. DATUAK ETA GRAFIKOAK (1918-1944) |
| VII.III FRANKISMO GARAIAN. DATUAK ETA GRAFIKOAK (1945-1979) |

•

**VIII. ERANSKINA: AZKEN ZIKLOKO EHBTN FINALEN ARRETA
MEDIATIKOAREN BILAKAERA. FITXAK (1980-2017) [*Pendrivean*]**

VIII.I 1980KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.II 1982KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.III 1986KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.IV 1989KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.V 1993KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.VI 1997KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.VII 2001EKO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.VIII 2005EKO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.IX 2009KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.X 2013KO TXAPELKETAREN FINALA

VIII.XI 2017KO TXAPELKETAREN FINALA

•

**IX. ERANSKINA: AZKEN ZIKLOKO EHBTN FINALEN ARRETA
MEDIATIKOAREN BILAKAERA. SINADUREN ACCES ZERRENDAK (1980-
2017) [*Pendrivean*]**

•

**X. ERANSKINA: AZKEN ZIKLOKO EHBTN FINALEN ARRETA
MEDIATIKOAREN BILAKAERA. DATUAK ETA GRAFIKOAK (1980-2017)
[*Pendrivean*]**

•

XI. ERANSKINA: *BERTSOLARI*. HUSTUKETA (1991-2018) [*Pendrivean*]

•

**XII. ERANSKINA: *BERTSOLARI*. DATUAK ETA GRAFIKOAK (1991-2018)
[*Pendrivean*]**

•

GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

41. grafikoa. Kazetaritza generoen bilakaera (1980-2017) 94
 42. grafikoa. Albistea finaletan (1980-2017) 95
 43. grafikoa. Kronika finaletan (1980-2017) 97
 44. grafikoa. Giro-kronika finaletan (1980-2017) 97
 45. grafikoa. Elkarrizketa finaletan (1980-2017) 100
 46. grafikoa. Finalisten soslaiak (1980-2017) 101
 47. grafikoa. Erreportajea finaletan (1980-2017) 103
 48. grafikoa. Iritzi Artikulua finaletan (1980-2017) 104
 49. grafikoa. Zutabeak finaletan (1980-2017) 105
 50. grafikoa. Umore grafikoa finaletan (1980-2017) 107
 51. grafikoa. Bertsoen transkripzioa (1980-2017) 109
 52. grafikoa. Porrak/Kinielak finaletan (1980-2017) 110
 53. grafikoa. Sinaduren hizkuntza hautuaren bilakera (1980-2017) 112
 54. grafikoa. Finaleko testuen hizkuntza hautuaren bilakera (1980-2017) 112
 55. grafikoa. Finalaren erdarazko estalduraren bilakera (1980-2017) 113
 56. grafikoa. Hizkuntza hautua eta kazetaritza generoak (1980-2017) 116
 57. grafikoa. Testuak eta sinadurak egunkariko (1980-2017) 118
 58. grafikoa. Sinadura esperientziadunak egunkariko (1980-2017) 119
 59. grafikoa. Zutabegileak eta Iritzi Artikulugileak egunkariko (1980-2017) 120
 60. grafikoa. Presentzia Iritzia Atalean egunkarika (1980-2017) 120
 61. grafikoa. Azalak egunkarika (1980-2017) 121
 62. grafikoa. Hizkuntza hautua egunkarika (1980-2017) 122
-
4. taula. Finaletako iritzi artikuluak sinadurak (1980-2017) 105
 5. taula. Finaletako zutabeak sinadurak (1980-2017) 106

I. ERANSKINA: LEHEN TESTU HISTORIKOEN BILDUMA IRUZKINDUA

I.I IPARRAGIRREK XIX. MENDEAN IZANDAKO OIHARTZUN MEDIATIKOAREN NEURRIAZ

I.I.I Datu biografiko gutxi batzuk

Iparragirrenen biografiarik osatu eta dokumentatuena Olaso eta Agirrenen ‘Iparragirre, Izena eta Izana, Retrato sin retoques’ da, *Iparragirre Erro-Urratsak* lan mardularen lehen liburukian jasoa. Bertatik bildu dira esanguratsuenak irizten diren zertzeladak.

Hamalu urterekin etxetik ihes egin zuen karlisten bandoan gerra egiteko, gerra honetan erakutsitako ausardiagatik eta jasandako zauriengatik (hiru aldiz zauritu zuten) Carlos V.ren ohorezko guardiako kide izendatu zuten eta gerra galduta, 19 urterekin, frantziara joan zen ihesi. Carlosen gortean egin zituen kontaktuak zirela medio garai hartan Pariseko operan tenore ezagunenetako bat zen Gilbert-Luis Duprezek hartu zuen bere Parisko etxean eta bertan erromantikoak irakurtzeko eta musikaren nozio kosmopolita batzuk bereganatzeko aukera izan zuen. 23rekin Paris atzean utzi eta bost urtean zehar batetik bestera ibili zen Frantzia, Austria, Suitza eta Italian zehar bere kitarrarekin euskaraz egiten zituen emanaldiekin bizimodua aterata. 1848ko iraultzarekin bat egin zuen berriro Pariseratuta eta urte hartan bertan Frantziako Tolosan atxilotu egingo dute, Napoleon IIIak debekatu berri zuen ‘Marsellesa’ abestu eta ‘desorden publiko larriak’ eragiteagatik. Hainbat kartzela pasa ondoren Britainia Handira erbesteratuko dute eta aitortu gabeko seme bat Frantzian utzita, Florentziako konpainia baten ikuskizunean hartuz aterako du bizitzeko. Manuel de Mazarredok, Esparterorekin bi aldiz Gerrako Ministro liberal izandakoa, Guardia Zibilaren buru eta euskal probintzietako Gobernadore, txunditurik gelditzen da emanaldi hauetako batekin eta Euskal Herrira itzultzeko baimena emango dio. 1851ean itzuliko da eta 1852an Manuel de Mazarredo berak Euskal Herritik erbesteratuko du Euskal Herriko Tolosan atxilotu ondoren, berriro ere bere abestiekin eragiten duen nahasmendua dela eta. Portugaldik pasa ondoren Madrilén finkatzen da eta 1853an Montera kaleko San Luis kafetegian eskainitako emanaldi batean egingo da ezagun ‘Gernikako Arbola’ abestia. 1855ean, Mazarredo gobernutik kendua, Euskal Herrira itzultzen da. Bere ospearen gailurrean aurkitzen da urte hauetan, bai herritarrek eta baita garaiko agintariek estimatzen dute, baina 1858an Ameriketara emigratzea erabakitzen du, Argentinan bera baino 20 urte gazteagoa den Angela Kerejeta alegiarrarekin ezkontzeko (Euskal Herrian ez zuten baimenik lortu)...

I.I.II Prentsak bideraturiko itzulera

1876an Foruen indargabetzearekin batera Zortzikoaren debekua¹ ezarri zen eta espreski galerazi nahi izan zen ‘Gernikako Arbola’ abestea. Debeku honek abestiaren egilearen inguruko arreta berpiztu zuen zenbaitengan: kasik hogeitau urte ziren Ameriketara joan zela, urte batzuk bai bere berririk ez zela eta Montevideon hil ote zenaren zurrumurrua zabaldu zen. Debekutik hilabete gutxira, ordea, Iparragirrek bertso batzuk helarazi zizkion Antonio Trueba kazetariari.

¹ Debekuaren berri ematen duen testu kuriozosa topatu da, Ricardo Becerro de Bengoak 1876ko otsailaren 18an, *El Periódico Para Todos* egunkarian argitaratua. George Whist izeneko lagun britainiar bati zuzentzen zaio ingelesezko hitzak tartekatuz: “Amigo mio: Me pregunta Vd. en su carta de ayer que qué cosa es esa que el gobernador de Vizcaya ha prohibido, cuyo nombre (zortcico) no encuentra Vd. en el Diccionario castellano. Por mal camino se ha ido para dar con ella (...) aquella cadencia armónica, admirablemente tocada con el silbo y el tamboril, que hizo exclamar a Vd, observador profundo e inteligente, en su idioma natal “*Julike that music*” (me gusta esa música) (...). Eta Iparragirrenen ‘Gernikako Arbola’-z ere gogoratuko da, noski: (...) con el mismo entusiasmo que Vds. cantan en el Reino-Unido su glorioso *God save the Keen*, del mismo modo resuena en las montañas euskaras ese bello zortcico”.

Truebak Madrilgo *La Paz* egunkarian kolaboratzen zuen, Miguel Jerónimo de Loredó Euskal Herritik erbesteraturiko bizkaitar foruzaleak sortu berria zuen egunkaria, eta 1876ko irailaren 16an, 'Iparraguirre' izenburupean gogotsu emango du berria: "El inspirado trovador vascongado cuyo nombre acabamos de escribir, y a quien tiempo hace dábamos por muerto, ¡vive todavía!".

Beste erbesteratu batek zuzenduriko egunkariak, bere ideia errepublikarregandik Argentinara ihes egin behar izan zuen Enrique Romero Jimenezen *El Correo Español*ek (Argentina) urriaren 28an jasoko du Madrilgo egunkariaren albistea, eta Iparragirreraren ezagunen batek irakurri eta Uruguaiako bere etxeraino eramango dio. Urretxuarrak eskutiz bat helaraziko du egunkari argentinarra, azaroaren 5ean argitaratuko dena. Bertan kontatzen du Uruguaiako Daca ibaiaren ertzean bizi dela, Argentinako mugatik gertu, artzain gisa eta auzokoen seme-alabei klaseak emanez ateratzen duela bizimodua, bederatzi seme-alaba dituela, oso pobreak direla eta Euskal Herrira itzuli nahiko luketela.

Bezperan Uruguaiako *El Progreso* egunkariak Argentinako *El Correo*ren urriko albistea jasotzen zuen Iparragirreraren aldeko diru bilketa hasteko deia eginez. *El Correo*ek azaroaren 5ekoan eskutitzaz gain deia ere argitaratu zuen eta biharamunean bertan egunkari berean diru bilketa horren ardura hartu nahi zuten hainbat lagun eskutitzak argitaratu ziren. Comisión Protectora de Iparraguirre zelakoa sortu zen hainbat ekimen martxan jarri zituena. *El Correo*ek hurrengo asteetan gaiari jarraipena egin zion, Buenos Aireseko *El Diario Español* batu zitzaion eta baita Uruguaiako egunkariaren bat ere. Iparragirreraren eskutitz berria argitaratu zuten, Uruguaitik Buenos Airesa nola aldatu zen kontatu zuten eta azkenik, 1877ko irailaren 25ean, nola Euskal Herrira abiatu zen, familia Uruguain utzita.

Euskal Herrian eta Madrilan ere eman zen bertsolariaren itzuleraren berri eta bake gizona zela azpimarratzeko bidali zituen eskutitz batzuk argitaratu ziren. Donostiara urriaren 24ean iritsi zen, sekulako ongi etorria egin zitzaion eta 'Nere etorrera lur maitera' estreinatzeke aprobetxatu zuen. Gabirian jarri zen bizitzen baina Tolosa, Urretxu, Beasain, Bilbo, Gasteiz... batetik bestera ibili zuten etengabe garaiko politikari, kazetari eta artista hainbatek²: "(...) no ha habido corazón generoso que no le haya llamado amigo, ni caseros que no le hayan abrazado, ni damas aristocráticas que no le hayan abierto las puertas de sus salones, ni literatos que no se hayan apresurado á saludarle", kontatzen zuen Becerro de Bengoak 1878ko otsailaren 26an *La Paz*en argitaraturiko testuan. Gutxira Madrilera abiatzen da eta bertako Erret-Antzokian egin zen emanaldi batean bere abesti batzuk nola eskaintzen zituzten ikusi ahal izan zuen. Berritoki ere Becerro de Bengoaren kronikak eskaintzen du aitonduta itzuliriko urretxuarraren eta sortzen zuen miresmenaren erretratu bikaina:

"Allí se vió efectivamente saludado, conmovido y cariñoso á los miles de corazones que repetían su nombre; allí apareció el encorvado cantor de las montañas, cuya barba blanca, cuyas canas, cuyo modesto y sencillo traje formaban sin duda, singular contraste con el recuerdo del gallardo y simpático mozo de negra y lustrosa abundante cabellera y larga barba, de colorada boina y airoso atavió de 'guizon' vasco, que las gentes habían conocido en las romerías del país (...) Los vascongados sintieron un orgullo legítimo al contemplar con qué entusiasmo Madrid distinguía y honraba á su 'versulari'."

Eta bere figuraren garrantzia azpimarratzen du, garaiko estiloan:

² *El Noticiero Bilbaíno, Revista Euskara, La Ilustración Católica, La Paz, Revista de las Provincias Euskaras, Diario de San Sebastián...* Guzti honen jarraipen zabala eskaini zuten medioek.

“Iparraguirre, cuyas canciones y cuyos himnos (porque sus famosos zortzicos lo son para nosotros) se cantan y se repiten en las aristocáticas viviendas, en las chabolas de los pastores, mineros y carboneros, en los campos floridos, en el mar airado, en la escuela, en el taller, en la boda, en las juntas, en los toros, y hasta en la soledad también, no merecía padecer y morir lejos de la tierra á quien honró (...) Si Iparraguirre, con el llanto en los ojos y el alma desgarrada hubiera de volver á América, no tendría derecho jamas ningún vasco-navarro ni á pronunciar su nombre, ni á repetir uno sólo de sus magníficos versos, ni á hablar de amor hácia la lengua, la poesía y la tierra euskara”.

Uruguain gelditu den familia Euskal Herriratzeko diru bilketari ekin zion Madrilgo *La Paz* egunkariak. Argentinan *Laurak Bat* aldizkaria ere ahalegin berari lotuko zitzaion. Becerro de Bengoak Aldundiei bertsolariarentzat pentsio bat eskatuko zien hainbat hedabideren bidez... Prentsak bere gain hartuko du itzulerari dagozkion alderdi guztiak bideratzeko ardura.

I.I.III Itzuli aurretik ere

Aztertu diren beste alor gehienetan bezala Iparragirre buruz prentsan topatu den lehen testua ere kanpotik etorri zen. *La Pressen* argitaratu zen, *Le Siéclerekin* batera Frantziako lehen egunkari handia, eta sinatzailea ere ez zen edozein izango: Théophile Gautier, garaiko kazetaririk ezagunenetako bat, kritikari ospetsuena, eta Victor Hugo, Honoré Balzac, Alejandro Dumas edo Charles Baudelaire oso gertuko izan zituen.

1851an argitaratu zen testua ‘Feuilleton de la Presse/International Paris-Londres’ izenburupean. Iparragirrek oraindik ez zuen ‘Gernikako Arbola’ sortu, hamabi urte ziren gerra galduta Europara ihesi joan zela eta hiru ‘Marsellesa’ abesteagatik Frantziatik erbesteratua izan zela. Londresen eskaintzen zituen bere emanaldiak Florentziako konpainia baten ikuskizunean txertaturik eta, hain zuzen, bertako kultur eskaintzaren errepaso egiten du Gautierren testuak.

Artikulu luzea da, hiriburu britainiarrean ikusi ahal izan dituen hainbat antzezlan eta opera iruzkintzen ditu, topatu dituen idazle eta abeslariak ere eskaintzen die tarte bat eta azken paragrafoan ekiten dio Iparragirrearen emanaldiari. Lerro gutxi dira, baina nahikoak urretxuarra edozerrekin ausartzen zen artista zela erakusteko³:

“En sortant de Baronian-Hall, nous entendimes le frou-frou d’une guitare indubitablement espagnole, et une voix vibrante et nerveuse que chantait les Toros de Puerto, une chanson bien connue qui fait sur nous l’effet du *Ranz des vaches* [suitsako abeltzainen abesti tradizionalak] sur les Suisses, et nous fûmes saisi d’un grand désir de quiller l’Angleterre. Celui qui raçlait ainsi le jambon était don Jose Yparraguirre, engage ainsi qu’Octave et d’autres chanteurs pour les concerts du Symposium. Nous le remerciames dans la langue de sa patrie du plaisir qu’il nous avait fait, et il nous recita des coplilas en andalou et en gitano qui nous firent donner au diable le Palais de Cristal, le charbon de terre et le sout, el nous donnèrent ceite nostalgie de Grenade, si connue des Mores expulsés d’Espagne.”

‘Gernikako Arbola’ sortu ondoren etorri ziren hurrengoak. *La España* egunkariak Madrilen eskainiriko hiru emanaldiren berri eman zuen 1855eko apirilean eta maiatzean. Ekainean Euskal Herrira doala iragartzen zuen egunkari berak, beste zenbaitek ere jasoko zuten berria, eta abuztuan Martin Sarasaterekin batera Donostian emandako kontzertuaz informatzen zuen.

³ Ik. itzulpena III.VI. azpipuntuan.

La España euskaldun batek zuzentzen zuen, Pedro Egaña gasteiztarrek. Justizia Ministro eta Gobernazio Ministro izandakoa, politikari garrantzitsua zen Madrilen eta kazetari gisa ibilbide oparoa zuen baita. Bere egunkariak 1855eko ekainaren 13an argitaraturikoa izango da Iparragirrerri eskainiriko lehen testu luzea, bere dimentsio mediatikoaren lehen harria jarriko duena. Bertan, ordurako Iparragirre ezaguna zela aipatzen da: “Mañana jueves sale para su país natal, deteniéndose algunos días en Burgos, el famoso cantor guipuzcoano don José María Iparraguirre (...)”. Eta ‘Gernikako Arbola’ren egile gisa aurkezten da: “(...) *Árbol de Guernica*, verdadera y magnífica inspiración en la cual el fuego poético del entusiasta montañés compite con el gusto músico más puro (...) pudiera llamarse el himno nacional de los vascongados”. Urretxuarraren deskribapen xehea ere eskaintzen da: “Iparraguirre, con su negra y luenga barba, ondeante cabello, ojos de fuego, gentil continente, solemne actitud y enérgicos movimientos, arrebatada y conmueve al auditorio (...)”. Euskal askatasunen ordezkari ere aitortzen zaio: “El genio del País Vasco, reciamente apegado al Fuero, a la ley vieja (legue sarrá que dicen ellos) respira (...) en aquellos vigorosos acentos que parecen elevar al cielo los fervorosos votos de un pueblo amante ciego de su libertad”. Eta Gauthierrek, atzerritar batek, goretsi badu aintzat hartu beharrekoa dela azpimarratzen du: “(...) críticos extranjeros, a cuya cabeza campea el célebre ex-folletínista de *la Presse*, Teófilo Gauthier, han caracterizado y elogiado con igual buena fe al modesto y gallardo joven que hace quince años recorre la Europa (...)”.

Argentinan eskaini zituen emanaldiek ere utzi zuten bere arrastoa Buenos Aireseko *El Nacional* eta *La Tribuna* egunkariak 1858ko azaroan idatziriko dozena erdi bat testutan, baina Pedro Egaña izango da, berriro ere mitoa hauspotu eta behin betiko prentsaren fokupean jarriko duena. 1864ko ekainean Espainiako Senatuan Foruen inguruan piztu zen eztabaidan hitzaldi luzea eskainiko zuen, Foruek euskal herritarren artean pizten duten sentimendua ilustratzeko Iparragirren historia kontatzen du, ondoren ‘Gernikako Arbola’ren arrakasta azaltzeko: “Señores: yo he concurrido á oír uno de esos cantos en aquellas montañas. Estaba anunciado que Iparraguirre cantaría la canción titulada ‘El árbol de Guernica’ (...) Concurrieron de todas las villas, pueblos y caserios circunvecinos, sobre 6.000 personas.” Gehiago ere badio:

“(...) se prosternaban la 6.000 boinas cual si fueran movidas por un resorte, ó heridas por una impresión magnetica, y se quitaban los sombreros (...) Señores: y luego se dice que los vascongados no quieren los fueros, cuando á un simple canto de una persona oscura, de un pastor convertido en músico, a la sola voz de ese hombre, repito, porque hablaba de los fueros, se movía apiñada la multitud, hincaba su rodilla en la tierra y levantaba al aire sus nervudos brazos para jurar como los antiguos cantabros morir por las santas leyes de sus padres!”.

Hurrengo egunetan sekulako zabalkundea izan zuen Egañaren hitzaldiaren testuak. *La Época*, *El Pensamiento Español*, *El Contemporaneo*, *La España*... Hemendik aurrera Iparragirrerren inguruko edozein informaziok prentsara sarbidea izango du, pertsonaia mediatiko bihurtu da.

I.I.IV Iparragirrerren ondorengo Iparragirre

Bere heriotzak sekulako oihartzuna izan zuen: *El Arga*, *La Iberia*, *El Noticiero Bilbaíno*, *La Unión Vasco-Navarra*, *El Globo*, *Euskal-Erria*, *Boletín histórico*, *Revista Euskara*, *Laurak Bat*, *El Anunciador Vitoriano*... Berriro ere Becerro de Bengoa izan zen testurik zapoetsuena, kasu honetan mingotsa, argitaratu zuena. *La Mañana* egunkariak apirilaren 7an argitaraturiko artikuluan itzuleraren ondoko desengainua azaltzen zuen:

“Iparraguirre llegó á su patria cuando ésta lloraba perdidas sus viejas y veneradas leyes: cuando se enjugaba las lágrimas de sangre que había vertido en la guerra civil. Halló al país triste, desengañado, sin entusiasmo, sin aliento y sobre todo pobre, muy pobre. La madre Euskaria ha sido saqueada por la guerra infame; sus arcas estaban exhaustas, su corazón velado por el luto. Poco valieron las excitaciones de los amigos del poeta: las diputaciones correspondieron á las solicitudes hechas en su favor con una exigua limosna. Se le concedió a Iparraguirre lo puramente necesario para que (...) no se muriera de hambre.”

Eta desengainu hori jotzen zuen heriotzaren iturburutzat:

“(...) su corazón no ha sido suficientemente fuerte contra el pesar (...) no ha podido dejar la patria por la familia, y volver al seno de ésta; se ha visto abatido por el infortunio y soltando su vieja guitarra y tirando su pluma, ha doblado para siempre su cabeza, feliz aún porque sus huesos iban á descansar en medio de la euskal erria.”

Heriotzaren ondoren, gertatu ohi den legez, dena dira gorazarreak eta asmo ederrak. Aldundiek lutozko adierazpen ofiziala egingo dute, mauseleo bat eraikitzeke diru bilketari ekiten diote *La Unión Vasco-Navarra* eta *El Argak*... Hamarkada bukatzerako kalea jarri zioten Donostian, eskultura altxa Urretxun eta bere biografian oinarritzen zen opera bat ere estreinatu zen (Juan Guimónnek konposaturiko ‘Iparraguirre’, Donostiako Zirko Antzokian 1889ko maiatzaren 4ean). Mendea bukatzerako Aldundiek pentsio bat esleitu zioten alargunari, bere gitarra objektu sinboliko gisa gordetzea erabaki zen...

Bizi zen artean, Egañak bere diskurtsoa eman zuenetik, mito bat izan bazen ere Iparragirrerren ondoren loratuko da Iparragirrerren mitoa. Prentsak zertzelada guzti hauen berri eman zuen, kasu gehienetan akuilari lanak bere gain hartuz. Zenbaitetan, polemikatxoak ere piztu ziren argitalpen ezberdinen artean, *Euskal-Erria* eta *Diario de Barcelonaren* artean urretxuarraren estatua dela eta sorturikoa kasu⁴. Eta mito bati dagokionez, pertsonaiaren inguruko fikzioa ere argitaratu zen⁵.

Mendea bukatu aurretik mitoaren oihartzunak Euskal Herriko mugak gaindituak ditu, erabat. *La Renaxensak* galegoz idazten du urretxuarrak eta *La Ilustració Catalanak* katalanez. Estatuko egunkari handietan ez ezik *Las Baleares*, *El Isleño*, *El Eco de Santiago* edo *El Guadalete* bezalako argitalpen periferikoetan ere irakur daitezke bertsolariaren gora beherak. Frantzian *Revue des Pyrénées et de la France Meridionale*, *Le Journal des Débats politiques et littéraires*, *L’Avenir des Pyrénées et des Landes* edo *Le Gaulois* interesatzen dira gaiaz.

⁴ Estatuari buruz topatu direnen zerrenda, Iparragirrek prentsan har zezaketen tokia ilustratzearen: *Euskal-Erria* (1890 uztaila-abendua), Antonio Arzac, ‘Iparragirre!’; *Euskal-Erria* (1890 uztaila-abendua) ‘Estatua’; *Euskal-Erria* (1890 uztaila-abendua), Antonio Arzac, ‘Al Diario de Barcelona’; *Euskal-Erria* (1890 uztaila-abendua), Antonio Arzac, ‘Satisfacción recibida’; *La Correspondencia de España* (1890/IX/30), Aguilar, ‘Escultura’; *El Avanzado : semanario de intereses morales y materiales* (1890/X/01), Aguilar, ‘Escultura’; *La España artística* (1890/X/08), Peña y Goñi, ‘La estatua de Iparraguirre’; *El Diario de Barcelona* (1890/X/09) ‘La estatua de Iparraguirre’. *La Ilustración española y americana* (1890/X/15) ‘La estatua de Iparraguirre’; *La Época*, (1891/X/02) Rodrigo ‘La estatua de Iparraguirre’.

⁵ 1884ko Euskal-Erriari Felix Ortiz y San Pelayo idazleak himnoaren sorkuntza unea birsortzen zuen ‘Episodio de un Bascongado’, esaterako: “(...) En el caso que lo encontramos viajaba por la bella y montañosa confederación Suiza y si mal no recordamos en el Canton de Berna (...) (...) á veces agobiado, no por el peso de su guitarra que esta jamás le cansaba; sino por el mucho camino que recorría, sentarse al pié de un árbol de robusto tronco y sobre cuyas salientes raíces encontraba dulce albergue cobijado por la ancha copa que solo permitía en su artística construcción el paso de algunos tímidos rayos del sol para que al chocar con las gotas de sudor que pausadamente caían de su frente, brilláran como perlas que engalanan las musas que tanto lo secundaron (...)”

Azkenik, mende berriarekin, *The Times*etik *El Telegrama del Rif*eraino topatu ahalko dira bardoari buruzkoak⁶.

Hurrengo urteetan prentsak bere ingurukoak ere hartuko ditu fokupean. Bere alargunaren heriotza albiste bihurtuko da, baita bere seme-alabek ozeanoaren beste aldean daramaten bizitza ere, eta beste hainbeste gertatuko da bere bizitzaren geografiarekin⁷. Bere jaiotzaren ehungarren urteurrenean hainbat ekitaldi antolatuko dira eta inguruko prentsa guztiak emango du ekitaldi hauen eta urretxuarraren figuraren berri: *Heraldo Alavés*, *Euskal-Esnalea*, *El Correo Español*, *El Pueblo Vasco*, *La Libertad*, *Euskalerrriaren Alde*, *La Hormiga de Oro*... baita Montevideoko *Euskal erria* aldizkariak ere. Hortik aurrera, pixkanaka, urretxuarrari buruzko liburuak hasiko dira pilatzen.

Bertsolaritzari neurri handi batean arrotza zaion mitoa izango da Iparragirrerena, bestelako eragile eta interesei erantzuten diena eta gerora ezagutuko ez duen oihartzun mediatiko bat lortuko duena. Baina aldi berean bertsolaritzaren hedabidetzea hauspotuko duena.

I.II ATZERRIKO BEGIRADA: IKERKETAK ETA BIDAIAK. 1860-

I.II.I Ikerketak: 'Neben die basken und ihre volkslied' *Wiener Zeitungen* (1860)

Wiener Zeitung, egun martxan daudenen artean munduko egunkaririk zaharrena da. 1703an abiarazi zen *Wienerisches Diarium* izenarekin, astean bi zenbaki argitaratuz eta nazioarteko berriak nahiz bertako nobleziaren bizitza sozialaren kronika ematera bideratua. 1780an jarri zitzaion egun daukan izena, 1812an kazeta ofizial izatera pasa zen, 1813tik egunkaria da eta 1857tik egunkari publiko gisa funtzionatu du.

Munduko egunkari dekanok bertsolaritzari tarte bat egin zion 1860 maiatzaren 3an, 22. orrialdean. Testuak "Neben die Basken und ihre Volkslied" zeraman izenburutzat ('Jarraian euskalduna eta bere abesti herrikoiak') eta Bon Adolph Wolfek sinatu zuen. Francisque Michel ikerlari frantziarrak 1857an argitaraturiko *Pays Basque sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique* liburu mardularen iruzkina da egunkariak eskaintzen duena. Testu luzea da eta Michelen ikerketa bezala nagusiki euskal baladei erreparatzen diena, baina bertsolaritza behin baino gehiagotan aipatzen duen paragrafo mardul bat ere badakar.

Jada aipatua den kontu bati heltzen zaio, esaterako, euskara olerkigintzarako hizkuntza egokia dela seinalatzen denean, baina azalpen zientifikoago bat ematen da eta euskal gramatikak egitura metrikoetarako egokitzapena errazten duela gaineratu⁸: "Das Escuara ist sanst einschmeichelnd, voll Harmonie und Wohlklang, es eignet sich daher ganz vorzüglich für die

⁶ *La Renaxensa : periódich de literatura, ciencias y arts* (1878/IV/30), 'Iparraguirre'; *La Ilustració catalana* (1889/V/15), F. Mattieu, 'L' Arbre de Guernica'. *El Isleño : Periódico científico, industrial, comercial y literario* (1890/X/08), Antonio Peña y Goñi, 'Iparraguirre'; *El Guadalete : periódico político y literario* (1893/IX/05) 'El himno eterno'; *Las Baleares : diario republicano* (1893/IX/06) 'El Guernicaco arbola'; *El Eco de Compostela* (1899/VII/01), José Martínez Carrillo, 'Con pluma ajena/El árbol de Guernica'. *Revue des Pyrénées et de la France Meridionale* (1891), Merimee, 'Notes de voyage au pays basque. Iparraguirre, l'Abre de Guernica et le château d'Arteaga', *Journal des Débats politiques et littéraires* (1893/VIII/30) 'Actualités/Le chant basque', *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* (1893/IX/02) 'L'hymne basque: Guernicaco arbola', *Journal des Débats politiques et littéraires* (1899/II/08) 'Au Pays Carliste', *Le Gaulois* (1900/X/02), Gheusi, 'Terre d'exil'. *The Times*, Educational supplement (1933/IX/21) 'Iparraguirre: el último bardo'; *El Telegrama del Rif* (1918/VI/30), 'El flamenquismo'

⁷ *Euskal erria : revista decenal baskongada del Uruguay* (1921/VII/20) 'Fallece la viuda de Iparraguirre'; *El Pueblo Vasco* (1921/VIII/21), Gregorio Mujika, 'La familia de Iparraguirre'; *Euskalerrriaren Alde* (1921/VIII/30), J. Agirre, 'La viuda de Iparraguirre y el oriental forzado'; *Argia* (1921/IX/18), Gregorio Mujika, 'Iparraguirre'ren emaztea'; *Euskal-Erria* (urtarrila-ekaina), Franzisko Lopez Alen, 'La Venta Zozabarro. Casa en donde murió el cantor del País Vasco, José Mº de Iparraguirre'; *El Noticiero Bilbaíno* (1924/I/08), Tomás Camacho, 'Trueba e Iparraguirre'...

⁸ Ik. Itzulpena III.VII azpipuntuan.

lyrische Dichtung. Herr Michel äußert sich darüber folgendermaßen. Der Mechanismus der Baskischen Sprache, ihre Versetzungen, ihre grammatikalischen Endungen erleichtern besonders den Versbau”.

Bertsolaritzaren transmisio naturalaren irudia ere zirriborrazten da:

“Hat ein junger Mensch eine lebhafte Einbildungskraft, einen Bolkssäuger zum Vater, oder eine Mutter, die häufig die Gesänge vergangener Zeiten wiederholt, so ivird er seinerseits bald zu singen anfangen. Bald wird er selbst Lieder ohne anderes Studium verfassen, dem Vogel gleich, der instinktmäßig die Arien des seine Brüt bewachenden Baters wiederholt”.

Ordura arte basati onaren figura azpimarratu bazen, neurri batean kontrakoa esatera dator baita, zehaztuz klase altuko jendeak ere hartzen duela parte bertsogintzan⁹:

“Die Volkssänger heißen bei den Basken ‘Coblacari’ und sind größtenteils, wie schon aus dem Borherge henden erhellt, Improvisatoren, häufig geschieht es aber auch, daß Personen aus den höheren Ständen sich bei festlichen Anlässen mit dem Verfertigen solcher leicht entstehenden Lieder beschäftigen”.

Gaitegiari ere erreparatzen zaio: “(...) dieser lyrischeil Volkspoesie, deren Vorwürfe wie bei allen Völkern vor Allem die Liebe, dann das Naturleben, fröhliche Geselligkeit und satyrische Züchtigung sozialer Laster und Untugenden bilden (...)”.

Erromantzeekin alderatzen da bertsoa, esanez euskarak ‘benetako’ erromantzeak ere badituela (‘espainiakoen parekoak’ dio) eta ‘Cantabrer’ balada edo ‘Urtabiscar’koa (sic) aipatuaz. Karlistetako bertsoak balada gisa sailkatzen ditu baita, eta hileta abestiek kategoria berezi bat osatzen dutela dio, korsikarren Boceriekin antzekotasunak omen dituen.

Bon Adolph Wolfi buruz ezin izan da ezer topatu, baina Francisque Michel (1809-1887) izen aski ezaguna da euskal ikerketaren alorrean. Lyonen jaioa, Bordeleko unibertsitateko ‘Literatura atzeritarren’ katedraren titular, alor ezin anitzagoak ikertu zituen ehundik gora lan argitaratuz, baina artxibo zaharretan sartu eta Erdi Aroko testuak erreskatatzea izan zen bere espezialitatea.

‘Chanson de Roland’ famatuaren jatorrizko bertsoia berak berreskuratu zuen Oxfordeko artxiboetatik 1835ean, eta urte berean Garay de Mongleveri irakurri zion euskal baladak bilduko zituen Mcpherson bat behar zela¹⁰, bazuen bada euskaldunen berri hamarkada horren bukaeran Bordeleko unibertsitateira iritsi zenerako. Behin bertan kokatua euskal kultura ikergaitzat hartuko du eta euskal ikerlariekin harremanetan jarriko da, besteak beste Jean Duvoisinekin, euskarazko testuen itzulpenarako ezinbesteko laguntzaile bihurtuko zaiona. ‘Pays Basque sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique’ izango da euskal kulturaren inguruan burutuko dituen lanen emaitzarik behinena: historia eta geografia, hizkuntza, euskal antzerkia, atsotitzak, sineskeriak, kontrabandoa, libertimenduak, bertako mineralak... etzuen ukitu gabeko gairik utzi.

Michelen lanak oihartzuna izan zuen garaiko prentsan, berak ere argitaratu zituen hainbat artikulu bere lanean oinarriturik, baina beti baladari eman izan zion protagonismo nagusia, eta bertsolaritzaren hemerografia historikoari ez zitzaion ekarpen gehiago egin.

⁹ Michelek esaten duena da koblakariak, ‘bardo profesional moduko batzuk’, direla ohikoan bertsoan egiten dutenak, baina zenbaitetan, beste gisa bateko jendea ere, apaizak eta medikuak esaterako, animatu daitezkeela (1857: 215).

¹⁰ Michel berak aitortzen du (1857: 212-213) artikulu hark jarri zuela euskal ikerketari begira, Osseanen editorearen loriarik ez duela bilatzen gaineratu arren: Garay de Monglaveren, *Journal de l’Institut historique*, Paris, 1835: 8. zbkia, 176 orr..

Salbuespen gisa 1866an *Revue de Gascogne* Jean Françoise Bladéren ‘Dissertation sur les chants heroiques des basques’ iruzkina topatu da. Iruzkin honek, *Wiener Zeitungekoak* ez bezala, kritika gordina egiten dio Michelen lanari eta bai egiten zaio aipamenei bat, bazterrekoa bada ere, bertolaritzari, bazterrekoa eta ezkorra:

“De vulgaires complaints d'amour, des histoires de pêcheurs, demigrants, de matelots, de maquignons et de contrebandiers, des myriologues analogues aux voceri de la Corse, des couplets de noce, des improvisations de coblacari sur de plats incidents de la vie réelle, voilà tout ce qu'on y trouve. Même (...) les plus chauds partisans de l'authenticité ou de l'antiquité des poésies guerrières (...) été forcés de convenir que, parmi les chants modernes des Basques, il n'en est pas qui méritent d'être cités.” (1866: 98-99)

Folklorista da Bladé (1827-1900) ere, frantziarra baita, ahozko tradizio gaskoian espezializatua, eta nabari zaio euskal kulturaren inguruan jantzia dagoela. Gaiari buruz aritutako hainbat egile aipatzen ditu, eta han eta hemen jaso izan diren aintzinako euskal bertsoen arrastoak seinatzen ditu, argudiaketa luze baten buruan Michelen lanean funtsezkoak ziren Altabizkarreko eta Kantabriarren baladak faltsuak direla ondorioztatzeko. Honela laburbiltzen du bere tesia:

“(...) je considère désormais la fausseté des chants héroïques des Basques comme démontrée : 1 ° par la facilité absolue ou relative qui permet de comprendre, au moyen de l'idiome actuel, clés poèmes censés composés il y a mille et deux mille ans; 2° par l'absurdité de l'hypothèse, qui, même avant l'essor de la poésie méridionale, accepte comme déjà fixés par l'écriture ces deux prétendus monuments d'une langue sans littérature ni existence officielles.” (1866: 111)

I.II.II Bidaiak: Bertso-saioa nahiago zezenketa baino, *Le Siècle* (1864)

Oscar Comettant (1819-1898) konpositore, piano-jotzaile eta bidaiari frantziarra izan zen. Hiru alor hauei eskaini zien bizitza, askotan hiruak uztartuaz. Honela, 1852tik 1855era bira amaigabe bat egin zuen Estatu Batuetan solista gisa piano kontzertuak eskainiz, bidaia hartan bertan hainbat pieza sortuaz eta bueltan bidaia hari buruzko bi liburu argitaratu. Erretiratzerako dozena batetik gora bidaia liburu (Estatu Batuak, Danimarka, Pirinioak, Australia, Ipar Poloa...), ehunka kontzertu, ehun bat musika pieza berri eta musikologiari buruzko hainbat lan egin zituen.

60. hamarkada hasieran Bordelen aurkitzen zen. Danimarkako bidaia luzea egin ondoren Pirinioen inguruak ezagutzeko proiektua ari zen prestatzen eta lagun batek Tolosara joatera gonbidatu zuen, bertako zaindariaren festak, San Juanak bizitzera.

Guzti hauek *Le Siècle*¹¹ egunkarian kontatu zituen Comettantek, 1864ko azaroaren 19an eta 20an ‘Quelques pas en Espagne’ izenburupean argitaratu zen bidaia kronikan. Lehen atalean Donibane Lohitzunetik Tolosara eginiko bidaia kontatzen du, Baiona, Ziburu, Behobia, Irun eta Hondarribia igarotzean ikusitakoak ekarriz. Kontrabandisten inguruko kontuak, euskal kantak abestu dituen emakume korua eta Ziburuko ijitoen dantzak dira deigarrien suertatu zaizkionak. Bigarren atala, aldiz, Tolosan topaturiko giro bikaina deskribatuaz hasten da. Laister okertuko zaizkio baina gauzak bidaiariari: bertako jendeak zezenketa ikustera joateko animatzen ditu, bere laguna prest dago, eta alkatearen gonbidapena ere iristen da atzeritar

¹¹ *La Siècle, journal politique, littéraire et d'économie sociale* (1836-1932) garai hartan itzal handiena zuen egunkaria zen Frantzian, 70.000 aleko tiradarekin. Bertako burgesiaren erreferente nagusi izan zen hainbat hamarkadatan, eta besteak beste Balzac-en eta Dumasen lanik garrantzitsuenak estreinatutako folletoi gisara.

ilustreentzat; Cometantek zalantza egiten du, animalien babeserako elkarte bateko kide baita, baina, bestelde, ez du inoiz zezenketarik ikusi, eta azkenean joatea erabakitzen du.

Hasiera batean grazia egiten dio kontuak, bertako musika, jendetza, toreroen 'paseilloa', arnasten den jai giroa... zirkoa dakarkio burura. Baina pikatzailea zezenari eztena sartzen hasi bezain pronto erabat damutuko da hartutako erabakiaz¹²:

“- Qu’avez-vous ? me dit l’alcade ; vous pâlissez.

- En effet, lui dis-je, je me sens mal au coeur.

On m’aida à faire quelques pas hors de la loge, et je pris un cordial qui ranima mes sens. Je ne pouvais contempler de sang-froid l’abominable spectacle d’une pareille course. L’exercice du picador, dans lequel l’homme ne court pour ainsi dire aucun danger, et dans lequel le cheval ne peut en aucune façon se défendre contre le taureau, n’a autre but que de donner en pâture à la férocité humaine le spectacle de la douleur”.

Rosseauk gizakia berez ona dela esaten duela gogoratzen du ironiaz eta beste zenbait filosofok Jainkoaren irudira egin dagoela defendatzen dutela. Umoreak gutxi iraungo dio, ordea, banderilleroen nahiz *matadore*aren lana baitatoz jarraian:

“Après cette scène d’abattoir par des bouchers en délire, la course continua par les exercices connus des banderilleros et du matador. Les exercices des banderilleros seraient gracieux si on ne savait que chaque dard s’enfonce d’un pouce et demi dans le cou du taureau (...)”

Zezenketa bukatu ondoren, Frantzian berehala debekatu behar liratekeela errepikatu ondoren, kafetegi batean sartzen dira bi lagunak gorputzaldi txarra uxatzera. Bertso-saio batekin egiten dute topo bertan, eta, euskara ulertzen ez badu ere, gustatu egiten zaio Comettanti:

“Pour dissiper le mal du tête que m’avait donné cette débauche de cruautés, mon ami l’avocat me conduisit à la promenade, où la vue de tant de belles *senoritas* me fit un peu oublier tant de pénibles impressions. Puis nous allâmes au café prendre un rafraîchissement (...) A une table, près de la nôtre, vinrent s’asseoir une demi-douzaine d’improvisateurs, bardes populaires qu’on appelle *coplacariacs*. Ils improvisent en basque, chacun à son tour, avec une merveilleuse facilité, une strophe assez longue sur un air donné. La langue basque est une langue des plus harmonieuses.”

Bertsolarien ikuskizunak euskarari buruz entzun dituen azalpenak eskaintzera darama:

“Cependant, d’après M. Fabre, elle est aussi riche, aussi expressive qu’elle est harmonieuse et originale. Elle marque par les terminaisons les divers cas des mots ; elle n’a qu’une déclinaison ; mais ce que se voit rarement dans toute autre langue, c’est que la plupart des prépositions s’incorporent à leur régime ; les verbes subissent même de légères variations suivant l’âge ou le sexe de la personne à qui l’on parle ou qui vous parle (...)”

Eta, nola ez, platerkada eder banaren aurrean bukatzen dute bi lagunak; ez dira erraz konformatzekoak, ordea:

“En sortant du café, nous allâmes manger le fameux *puchero*, qui se compose de choux, d’une espèce de saucisse, de boeuf bouilli et des inévitables *garbanzos*, sorte de pois chiche (...) le vin serait agréable s’il ne sentait pas

¹² Ik. Itzulpena III.VIII azpipuntuan.

horriblement la peau de beuc des outres où on l'enferme ; l'huile à manger fait regretter notre huile à quinquet (...)"

I.II.III Bidaiariak eta ikerlariak liburuetan

Lehenengoei dagokionez, XIX. mendean Euskal Herriari buruzko kontuak jasotzen dituzten bidaia liburu ugarien artean George Borrowren *The Bible in Spain* famatuan topatu da bertsolaritzari buruzko erreferentziarik esanguratsuen¹³. Borrow Londreseko Bible Societyren enkarguz Espainian batetik bestera ibili zen 1836etik 1840era protestanteen Testamendu Berria zabaltzen, eta bertan izandako bizipenekin osatu zuen liburuak, 1842an argitaratua, sekulako salmentak izan zituen bai Britaina Handian eta baita Estatu Batuetan ere, XIX. mendean zehar luzatu ziren hainbat berrargitalpenekin. Euskal Herriatik pasa zenean bertsolaritzari erreparatu zion, besteak beste, baina ez zuen oso toki onean utzi, esanez euskal poesia popularrak ez duela poesia izenik merezi, ez zuela ale aipagarri bakar bat bera ere bildu ahal izan: "(...) Los bascos son un pueblo cantor más que poeta. A pesar de la facilidad que su idioma presenta para la composición de versos, no han producido nunca un poeta con la más leve pretensión de nombradía (...)" (1921: 34).

Bertsoa gustatu ez arren, euskararekiko interesa bai erakutsi zuen, eta biblia protestantea zabaltzeko bere ahaleginean euskarazko itzulpen bat ere argitaratu zuen (*Evangelioa San Lucasen Guissan. El evangelio según San Lucas traducido al vascuence*, 1838). Eta bertsoa ez gustatu arren Iztuetaren lana ezagutzera behintzat iritsi zen, berriro ere balorazio ezkor bat eskaintzeko izan bazen ere:

"De esta música se han publicado algunos trozos en Donostian (San Sebastián), en el año 1826, editados por un tal Juan Ignacio Iztueta. Consisten en unas marchas rudas y emocionantes, a cuyos sonos créese que los bascos antiguos tenían la costumbre de bajar de sus montañas para pelear con los romanos y después con los moros. Al escucharlas llega uno con facilidad a creerse en presencia de un combate encarnizado. Oye uno las resonantes cargas de la caballería, el ludir de las espadas y el rebote de los cuerpos por los barrancos abajo.

Esta música va acompañada de palabras, pero qué palabras. ¡No puede imaginarse nada más estúpido, más trivial, más desprovisto de interés! Lejos de ser marcial, la letra refiere a incidentes cotidianos, sin conexión alguna con la música." (Borrow, 1921: 35-36)

Prentsan, eta mende bukaera aldera, bai izango dira ugariagoak bertsolaritza aipatzen duten bidaiariaren kontakizunak, eta Borrowrena baino iritzi positiboagoak zabalduko dituzte: Merimeek *Revue des Pyrénées et de la France Meridionale*an argitaraturiko 'Notes de voyage au pays basque. Iparragirre, l'Abre de Guernica et le château d'Arteaga' (1891), Dacek *Le Monden* jasotako 'Les fêtes basques de S. Jean de Luz' (1892)...

Bidaia kontakizunekin batera, esan bezala, ikerketa gisa argitaratu izan diren lanetan ere topa daiteke atzerriko begiradak bertsolaritzaz utzitako arrastorik. Ikerlari hauek, ordea, ez dira propio bertsolaritza aztertzeraz bertaratuko, euskal balada ikertzeraz baizik.

¹³ Victor Joseph Étienne Jouyren *L'hermite en province ou observations sur les moeurs et les usages français au commencement du XIX siècle* (1817), Thomas Roscoeren *The tourist in Spain* (1837), George Borrowren *The Bible in Spain* (1842), Richard Forden *A hand-book for travellers in Spain* (1845), Eugène Poitouren *Voyage en Espagne* (1869), Victor Hugoren *Pyrénées* (1890)... XIX. mendeko 20 egile zerrendatzen ditu Coro Rubiok (2000).

Europar XVIII mende hasieran nagusitu zen Erromantikoen kultura popularrarekiko interesak ordura arte menezatu, moldatu nahiz debekatu nahi izan zen guztia hartu zuen aintzat: Inauteriak, musika herrikoa, plazan egiten zen antzerkia, herriaren aintzinako praktika erlijiosoak... Nabarmen samar beste ezer baino gehiago interesatu izan zen alor bat, egon bazen, hori aintzinako baladana izan zen, ordea. Izan ere, baladek, narrazio epiko gisa, nazioaren historia islatzen zutela ulertzen zen: “Sir Walter Scott declaró que recopilaba baladas para contribuir ‘de alguna manera a la historia de mi tierra natal (...)’” (Burke, 1991: 52). Kontinente osoan ekiten zaien baladaren ehizari: Scotten *Minstrelsy of the Scottish Border* (1802), Daniloven *Drevnie Rossyskie Stikhotvoreniya* (1804), Görresen *Die Deutsche Volksbücher* (1807), Abrahamsonen *Udvalgte Danske Visen* (1812)...

Mende hasieran Wilhelm von Humboldt euskal baladen bilketara etorriko da Euskal Herrira hasiera batean, baina ez du Leloren kantua baino topatuko. 1935ean, ordea, Françoise Eugène Garay de Monglave idazle baionarrak Altabizkarreko kantua argitaratu du *Journal de l'Institut historique* aldizkarian, eta honen egiazkotasunaren inguruko eztabaidak zalaparta handia sortu du komunikabide espezializatuetan, hamarkadak iraungo dituen eta aldi berean euskal baladaren inguruko interesa elikatuz joango den zalaparta.

Sukar honek ikerlarien interesguneak gertu jarriko du bertsoaritza, eta baladaren azterketari loturiko zenbait ikerlari bat-batekoari erreparatzen hasiko zaio, Natalie Morel-Borotrak azaltzen duen bezala euskaldunen bereizgarri gisa seinatzen hasiko direlarik:

“Après la danse et la pelote, l'improvisation est en effet la spécificité basque qui commence à être relevée, à partir des années 1830. On peut ainsi en trouver la mention à l'article « Basques » de l'Encyclopédie des gens du monde (de Walckenaer 1834), l'Encyclopédie catholique (M. J. de, 1842), le Dictionnaire de la conversation (Garay de Monglave, E., édition de 1873 : pas mentionné en 1833), et chez certains auteurs : C. Fauriel (1836 : 525), A. Chaho (1979 [1836] : 126), A. Mazure (voir plus haut), Francisque-Michel (1857 : 214), etc.” (2000: 364-365).

Honela, Faurielek, esaterako, lerro mordoxka bat eskainiko dizkio 1836an argitaratu zen *Histoire de la Gaule méridionale sous la domination des conquérants germaniques* liburuan¹⁴. Claude Charles Fauriel (1772-1844) Greziako baladetan espezializaturiko ikerlaria zen (*Chants populaires de la Grèce moderne* argitaratu zuen 1824ean), Sorbonan Literatura atzeritarreko irakaslea, eta Leloren kantuari edo Beotibarko batailari buruzko bertsoen inguruan luze aritu ondoren garaiko euskal olerkigintzaz bere iritzia ematera animatu zen:

“Ce peuple est cependant doué d'une imagination très-vive, et il aime beaucoup la poésie. On y rencontre partout des hommes qui, à leur profession ordinaire de pâtres, de bergers, d'artisans, joignent celle de poètes improvisateurs, que l'on invite régulièrement aux réjouissances publiques, aux fêtes domestiques, aux mariages, aux baptêmes, pour y improviser des chants relatifs à la circonstance.” (1836: 526)

Inprobisazio hauek askotan entzun zituen jendeak balio gutxiak zirela esan omen zioten, baina Fauriel ez zen askorik fido hauen irizpidez: “(...) j'ai mes raisons pour croire que les mêmes personnes, qui pouvaient avoir raison en pariant ainsi de quelques-unes de ces improvisations, auraient parlé à peu près de même d'improvisations originales, inspirées et véritablement poétiques” (1836: 526).

¹⁴ Ik. ‘Fragment d'un ancien chant national basque’ izeneko ataltxoak, II liburukia, 525 orrialdea eta hurrengoak.

Paul Adolphe Mazurek (1799-1870) ere, Poitierseko Erret-Akademiako filosofiako irakaslea, 1839an argitaraturiko *Historie de Béarn et du Pays Basque* liburuan baladari eman zion protagonismo nagusia, baina eresiak ere aipatu zituen, eta baita bertsoaritzza ere:

“Le goût du chant si prononcé dans le pays Basque, l’existence d’une profession d’improvisateurs à qui on demande des chansons pour toutes les circonstances de la vie domestique, doivent rendre le choix fort difficile, parmi un si grand nombre de productions qui prétendent plus ou moins à la poésie.”
(1839: 518)

Zioen euskaldunen fisonomia, pelota edo dantzei buruzko azterketak ezagun egin zirela, baina olerkigintza honi erreparatu behar zitzaioela, euren barne mundua atzemateko modu gisa: “Mais il faudrait s’attacher à des choses plus intérieures, dans lesquelles l’homme se réfléchit avec plus de dignité, et qui mettent à découvert le titre le plus vivant d’un peuple généreux et libre” (1839: 519). Eta lan hori behar den bezala burutu ahal izateko euskalduna izan beharra ere azpimarratu zuen, urte batzuk lehenago Boucher de Crèvecœurrek bezala: “Mais pour suffire à cette tâche dans le pays Basque, il faut être Basque soi-même, aller écouter les Basques dans les gras paturages de Navarre, et surprendre le sens de leurs chansons” (1839: 520).

Fauriel edo Mazurek irekitako arrakala horretatik ikerlari atzerritar gehiago iritsiko dira XIX. mendean zehar bertsoaritzara. Jada aipatu den Francisque Michelek bi hamarkada geroago balada izango du arretagai nagusi, baina bertsoaritzari ere eskainiko dizkio orrialde mordoxka bat, edo mendearen bukaera aldera Julien Vinsonek nahiz Webster Wentworthek beste hainbeste egingo dute.

I.III LEHEN KRONIKAK: 1880 -

I.III.I Lehenengoa: Vinsonek *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* aldizkarian, frantsesez (1870)

Lore Jokoak Iparraldean bakarrik ospatu izan zirenean, 1851tik 1878ra, bertako prentsak antolatzen ziren ekitaldien berri emango du. Urtero antolatu ohi zituen D’Abaddiek eta ia urtero topa daiteke, *Le Messenger de Bayonnen* ez bada *Le Courrier de Bayonnen*, edo hemen ez bada *Impartial des Pyrénées*, *L’Avenir des Pyrénées et des Landes* edo *La Petite Gironden*, gaiari buruzko erreferentziaren bat. Bestalde, Jean-Louis Davanten arabera hasieratik izango du bapateko bertsoaritzak tarte bat bertan, urtero ospatu izan zela uler daitekeelarik: “Hastapenean, Urruñan, egun batekoa da usaian, pilota partida, bertso paper lehiaketa, bertsoarien ahozko saiora mugatuz. Saran ere egun bakarrekoa da gehienetan, baina bi ditu 1869an eta 1874an bederen. Gero hiruzpalau egunetara luzatzeko joera du, beraz edukiz aberastekoa ere” (2012: 97). Kasik urtero argitaratzen ziren testuetan, ordea, apenas egin zitzaizen aipamenik¹⁵ urtero ospatzen ziren bertso-saio horiei. Euskal kultura homologatu nahian, bertso jarrien lehiaketari, idatziari, emango zitzaion garrantzia guztia-

Salbuespen gisa, 1880ko hamarkadan Hegoaldeko prentsan loratu zen bertso kronikaren aurrekari bakarra topatu ahal izan da: Julien Vinsonek 1870ean *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* aldizkarian ‘Concours de Poésie Basque a Sare en 1869’ izenburuarekin argitaraturikoa. Aurrekari honek, ordea, egileari eta medioari erreparatzen bazaie, 80ko hamarkadan etorriko direnen izpirituarekin zerikurisi gutxi duela ikus daiteke: *Revue de*

¹⁵ *Le Messenger de Bayonnen*en 1855eko abenduaren 6ko alean Jean Duvoisinek bai egiten du bapateko saioaren aipamena, baina oso soila. Gainerakoan, garai hartako Lore Jokoen inguruan bildu ahal izan diren testuetan ez da aipamenik ere topatu. Hala ere, bertsoaritzaren hemerografia historikora bai gehitu dira, guztiek jorratzen baitute bertso-jarrien lehiaketa.

*Linguistique*¹⁶ aldizkari zientifiko bat da eta Vinson hizkuntzalari eta folklorista gisa ari da, aurreko hamarkadetatik datorren ikerlariaren tradizioan txertaturik. Hegoaldeko kronikak, aldiz, kultur aldizkarietan argitaratuko dira, eta testuen egileak kazetaritzat har daitezke.

Edozein kasutan, Vinsonen testuak ez dio kronika bat izateari uzten. Honela, tokia izenburutik bertatik zehaztu ondoren, data, ordua eta iraupena eskaintzen ditu, “La séance d’improvisation a commencé a quatre heures du soir le mardi 14 septembre; elle a duré trois heures entières”; publikoari ere erreparatzen dio, “Un grand nombre de curieux étaient massés sur la place (emplacement pour le jeu de paume) et sur les galeries où des sièges réservés étaient occupés par les autorités locales et par quelques étrangers privilégiés”; eta parte hartzaileen, ariketen eta gai jartzailearen berri ere ematen du, “Quatorze concurrents se sont présentés; succesivement, deux à deux, ils ont pris la parole, discutant l’un avec l’autre, sur les sujets que le président, M. d’Abbadie, leur indiquait à mesure”.

Azken buruz burukoaren kontakizuna dator ondoren eta hemen maila xeheago batera jaisten da, giroa, bertsoen dema eta bertsolariaren jarrerak zorroztasunez jasoaz:

“La prime a été partagée entre un cordonnier nommé Ibarra, de Jatxou, et une jeune fille, du vingt-cinq ans environ, qui a déclaré se nommer Maria Luisa Osollo ou Osorio, d’Ascain. Ils avaient lutté ensemble à la fin de la séance: on leur avait imposé l’obligation de se tutoyer. Il s’agissait d’une demande en mariage: la jeune fille, d’abord cruelle et farouche, s’est rendue, après une assez longue discussion, aux prières de l’amoureux. Les deux vainqueurs se sont présentés en se donnant le bras, devant les juges pour recevoir le montan du prix: la foule les a frénétiquement applaudis.”¹⁷

Saria jasotzera besotik helduta agertu ziren bi irabazle horiek Piarres Ibarrart Bettiri (1838-1919) Jatsukoa eta Mari Luixa Erdozio (1846-1925) azkaindarra ziren. Ibarrartek, lanbidez zapataria, hainbat sari irabazi zituen Iparraldeko Lore Jokoetan bai bat-batekoan bai jartzaile gisa, eta dezenteko sona bereganatu zuen bere bertsoak garaiko egunkarietan eta Manterolaren kantutegian argitaratu zirelarik. Erdoziok ere, Iparraldean ezagutzen den bapateko emakume bertsolari antzinakoena, laboraria ogibidez, bat-batekoan lehen saria lortuko zuen berriro 1875ean, hirugarrena 1884ean¹⁸.

Vinsoni deigarria zitzaion emakume bat bertsoetan ikustea: “Ile st assez rare que des femmes improvisent ainsi publiquement; jusqu’à present, on n’avait encore vu prendre part au concours qu’une jeune Espagnole de Fontarabie qui n’a plus paru depuis trois ans”¹⁹. Eta arreta gehiago jarri zion Erdozioren deskribapenari: “Mlle Osorio est assez jolie; très brune, de petite taille, vive et spirituelle, elle a plu à tous ses auditeurs: on a seulement regretté q’elle n’ait pas été plus émue”.

Kronista paristarra zen sortzez; kanpotik ekarritakoa izango da, beraz, lehen kronika hau ere, aurretik aipaturiko bidaiari eta ikerlari atzerritarrek ez bezala Vinson (1843-1926)

¹⁶ Aldizkari honek, H. Chavee eta Abel Hovelacquek sortua, 48 liburuki argitaratu zituen 1867tik 1916ra. Vinson bera zuzendari izan zen hainbat urtez.

¹⁷ Ik. Itzulpena III.IX azpipuntuan.

¹⁸ Ik. Bertsolariaren datu basea: <http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/988-piarres-ibarrart-bettiri> eta <http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/3771-maria-luixa-erdozio> [2018/III/02]

¹⁹ Bertsolariaren datu basearen arabera Vinsonek aipatzen duen Hondarribiko bertsolaria eta Bilintxen bertsoetan aipatzen den ‘Hondarribiko Joxepa’ pertsona bera izan daitezke. 1853ko Lore Jokoetan Hondarribiako emakume batek parte hartu zuela ere jakina da.

Ik BDB: <http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/1150-hondarribiko-joxepa> [2018/III/02]

euskaldunduriko egile bat izan arren. Izan ere, Baionako Basozain Nagusi postua atera zuen 1866an eta ordutik euskararen nahiz euskal gaien ikerketan murgildua zen buru belarri.

Bere *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* famatuaz gain (1891, 1897an osatua) euskarari, euskal folkloreari eta bertako historiari buruz dozenaka artikulua argitaratu zituen beste hainbeste mediotan, tartean Iparraldeko garaiko egunkarietan edo Euskaltzaindiaren *Revista Euskara* aldizkarian. Baina era berean garaiko euskaltzale ilustratu gehienak (Luis Luciano Bonaparte, Arturo Campion, Sabino Arana, Jose Manterola...) haserraraztea ere lortu zuen: Foruen aurkakoa zen, atzerakoiak zirelakoan; Vascoiberismoaren aldeko argudioen zientifikotasuna zalantzan jartzen zuen, eta baita euskal baladen inguruko ikerketarena ere... Euskal Herritik salbatzea merezi zuen bakarra euskara zela eta euskarak salbaziorik ez zuela, modernitatearekin uztartu ezinezkoa zelako, gaineratu izan zuen bere postura laburbiltzeko²⁰.

Lehen kronika honetan ikus daitekeenez, bertsolaritza ere ez zen libratu Vinsonen begirada garratzetik: "Les Basques ont une merveilleuse faculté d'improvisation: ils savent bien que souvent les idées sont médiocres, les rimes insuffisantes et les vers boiteux; mais cela se chante et l'on sait que la poésie, grâce à la musique, peut opérer prodiges".

Vinsonen testuak ez du jarraipenik izango hurrengo bi hamarkadatan; Labordek (1998) esan bezala, 90eko hamarkada arte ez da Iparraldean sinaturiko kronika gehiago argitaratuko. Tarte hori igarota, pixkanaka, ugarituz joango dira: *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* (1893/IX/22) 'Compte-rendu des fêtes basques d'Ustaritz'; *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* (1894/VIII/28) "Le concours d'improvisation fut fort original et réussi"...

I.III.II Lehenengoa gazteleraz: Manterolak *Euskal-Errian* (1880)

Dagoeneko ikusi da nola 1876tik aurrera Bilintxen eta Iparragirreraren inguruko gertaerei jarraipen zabala egin zioten Hegoaldeko egunkariak. Guztien artean *Diario de San Sebastián* nabarmenduko da, ez alferrik, Jose Manterola, ordurarte argitaraturiko euskal kantutegirik garrantzitsuenaren egilea, baitzen egunkariko zuzendari.

Manterola²¹ eragile garrantzitsu bat izan zen garaiko euskal kulturgintzan, eta bertsolaritzaren sustapenari ere heldu zion: "Manterolaren ikuspegia oso zabala izan zen, ideak argi eta garbi zituen, bere denborako beste euskaltzale batzuk bertsolaria menezuki erabiltzen zuten garaian, berak bertsolari saioak antolatzeari eman zion, sariak jarri ere bai, eta beretan epaimahaiko izan" (San Martin, 1984: 447). Gaztelerazko lehen bertso kronika ere bere eskutik etorri zen, berak zuzenduriko *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratua, 1880ko bigarren liburukian, 'Una fiesta euskara' izenburuarekin²². Urte hartako irailaren 26an Donostiako Antzoki Zaharrean buruturiko bertso-saioari bost orrialde luze eskaintzen zaizkio bertan. Emanaldiaren izaerak, antzoki handi batean burutua eta bertsoa baino eskaintzen ez duen kartelarekin,

²⁰ Vinsonek izandako polemikak, bere biografiaren inguruko zertzelada nagusiak eta *Revue Linguistique* buruzkoak Granja Pascualen artikulutik. Ik. GRANJA, J.J (1986): Julien Vinson, el euskera y una polémica del siglo XIX. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, XX. liburukia, 1. zbkia., 217-236 orr.

²¹ Manterola eta berak zuzenduriko aldizkariari buruzko azalpenak hurrengo gairako utzi dira, Lehen Pizkundeko lehen olatuan Lore Jokoen Hegoaldean izan zuten garapenean funtsezko eragile izan baitziren.

²² Badago zaharragoa den aleren bat mugan dagoena. 1879an, esaterako, *Revista Euskarak* Elizondoko lehen Lore Jokoen kontakizunean Pello Errota eta Jose Bernardo Otañoren arteko saioaren deskribapen labur bat eskaintzen du bertsolarien izenak, sariketaren emaitza eta publikoaren txaloak jasoz. Bi paragrafo baino ez ditu, ordea, eta jorrraturiko gaien nahiz botatako bertsoen arrastorik ere ez du jasotzen. 1879ko irailaren 8an *Diario de San Sebastián* Printzipal Antzokian urte hartan egindako saioari eskainiriko hiru paragrafoekin ere beste hainbeste gertatzen da. Eta 1880ko *Euskal-Erriaren* zenbaki berean, 'Fiestas euskaras en Bera' izenburupean, Manterolak sinatua baita, bi saiori buruzko hiruna paragrafo irakur daitezke, eta hemen bai ematen da bertsoen edukien nahiz gaien berri, baina edukia oso sakabanatua aurkitzen da festei buruzko kronika luzearen baitan... Hauek guztiak ez dira bertso kronikatzat hartu.

ikuskizun modernoaren parametroetan jartzen du bertso-saioa, eta testua ere propio bertso-saioa kontatzeko idatzitakoa izango da.

Atarikoekin ekiten dio tokia deskribatuaz, parte hartuko duten sei bertsolariak (Pedro Mari Elizegi *Pello Errota*, Juan Jose Alkain *Udarregi*, Joxe Bernardo Otaño, Juan Bautista Urkia *Gorriya*, Isidro Aranzegi eta Franzisko Etxeberria) zerrendatuaz, epaimahaiko kideekin beste hainbeste eginez, bertsolariak nahiz jendea nola eseri diren deskribatuaz, antolakuntzan aritutako Canuto Ignacio Muñozen sarrera hitzaldia osorik jasoaz, hasierako agurra epaimahaiko lehendakari gisa Alkain bertsolari beteranoari egokitu zaiola azalduz...

Saioarekin ere xehetasun maila horri eusten dio. Ariketa bakoitza esplikatzeko du, bakoitzean parte hartzen duten bertsolarien ordena zehaztu, edota entzulegoari gehien gustatu zitzaizkion bertsoaldiak zein izan ziren ere seinatuaz. Esaterako, Otaño eta Gorriyarena izan omen zen txalotuenetakoa:

“La sola presencia de Otaño y Gorriya despertó vivamente la curiosidad del público, que les conoce de antiguo, y su peroracion, ya grave, ya chispeante, delicada ó intencionada, fué interrumpida repetidas veces con grandes salvas de aplausos. Las estrofas mas sentidas y de mayor mérito, fueron indudablemente las que dedicaron á recordar los servicios y las virtudes del padre de uno de ellos (Otaño), antiguo y afamado bersolari, á quien tienen hoy arrinconado en el hogar la edad y los achaques (...)”

Hainbat kontu dakartza, baina berritzaileenak, ordura arte inongo testutan jaso gabeak, bertsolarien bertsokerari buruz egiten dituen erreferentziak dira. Honela, Otaño eta Gorriyaren ondotik datozen Pello Errota eta Udarregiren estiloa deskribatzera animatzen da, “Agudo, punzante y mordaz el primero, grave, sesudo y pausado el segundo, el contraste era completo (...)”, esaterako, eta Juan Jose Alkain *Udarregiren* kasuan soslai moduko bat osatzeraino sakontzen du gainera:

“(...) grave y sesudo de ordinario, intencionado cuando se le hiere, incansable en la lucha, que le presta cada vez mayores bríos, como el olor de la pólvora y el ruido del combate encienden el ánimo del guerrero, hábil en la polémica, con una gran dosis de esa gramática parda y esa filosofía práctica *sui generis*, que distingue á nuestros caseros, hasta con una entonacion especial, de oscuro colorido, puede ser presentado, por todo este conjunto de cualidades, como uno de los ejemplares mas tipicos que quedan de esta antigua raza de improvisadores populares.”

Udarregi bertsoaldi batean neurri ezberdineko doinu batera aldatu arren Pello Errotak arazorik gabe jarraitu ahal izan ziola kontatzen du, hurrengo ariketa, hamarreko haundikoa, eska daitekeen zailenetakoa dela, esperimendu gisa oinak emanda (‘pie forzado’ dio berak) ere aritu direla bertsolariak eta aise moldatu direla...

Eta egungo kroniken ikuspegitik exotiko samarra suertatzen den alderdiari erreparatzen dio:

“Hé aquí, ahora, un resumen del número de versos improvisados en la HORA Y MEDIA próximamente que duró la sesion: (...) que hacen un total de 150 estrofas, mas 31 con pié forzado, que suman un total de 1.810 versos. Es decir, sobre DOS VERSOS POR MINUTO. ¿No es esto admirable?”

Sari banaketaren ondotik, iluntzeko hamaiketarik aurrera Pello Errota eta Udarregik burutu zuten saioaren kontakizunarekin ixten du testua kazetari donostiarrak. Zehatzago esanda, azken saio horretan antzokiko giroak goia nola jo zuen deskribatuaz:

“Diremos únicamente para concluir, que terminado el programa oficial de la funcion, los bersolaris Pedro EliceGUI y Martin Udarregui se prestaron expontáneamente á una nueva sesion de improvisacion, que duró hasta despues de las doce, y en la que ambos disertantes demostraron sus especiales condiciones, produciendo verdadero entusiasmo en el público, que les escuchó con verdadero deleite, y les colmó de atronadores aplausos; obsequiándolos con abundantes cigarros y llenando la escena de boinas y de sombreros.”

Bistakoa da bertsolaritzak sekulako sua pizten zuela garai hartan. Garaiko kazetaritza estiloa puztu samarra ere bazen, eta norbaitek pentsa lezake Manterolaren hitzek joera hori izango ote zuten, baina Printzipal Antzokiko saioaren biharamunean ‘Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Sariak’ izenburupean *Diario de San Sebastián*en Pedro Soraluzek sinatzen duen testua irakurrita argi gelditzen da ezetz. Honena bai dela grina eta puztu beharra:

“Es la una de la noche y acabo de volver hace poco del *lunch* que varios jóvenes de esta Ciudad hemos ofrecido a los preclaros versolaris, que en el Teatro Principal, (que durante toda la noche ha estado atestado de gente, desde lo mas distinguido al último pescador) despues de la distribución de premios, nos han electrizado y entusiasmado con sus cantos, con sus dichos, con sus profecías, pues siempre los divinos vates han tenido la dicha de leer en el porvenir. Todo aquello me ha conmovido, me ha puesto en un estado tal que me es imposible dormir (...) El entusiasmo, el delirio, el paroxismo que hemos presenciado, nunca se borrará: baste decir que hemos asistido a la apoteosis de la madre Euskal-Erria y siempre sentiré el haber sido contenido en el palco, cuando el entusiasmo popular, y el no haber logrado soltar las coronas de laurel que adornabarn los nombres de Humbold y Larramendi, para saltar al escenario y coronar à los dos vates, el molinero de Asteasu y el *koblakari* de San Sebastián. Réstame el consuelo de haber sido el iniciador de aquella apoteosis, de aquel diluvio de sombreros, boinas, flores, cigarros, petacas, guantes etc., y de haber visto, lo que el gran Victor Hugo dice de nosotros: *Sois un pueblo de gigantes y por donde ha pasado el padre, pasará tambien el niño.*”

Hurrengo urtean *Euskal-Erria*n argitaraturiko gisako beste hiru kronikarekin eredia jarrita utziko du Jose Manteroa.²³

I.III.III Lehenengoa euskaraz: Otaegik *Euskal-Erria* (1880)

Euskarazko lehen bertso kronika ez ezik bertsolaritzaz euskaraz prentsan idatziriko lehenengoa ere bada Klaudio Otaegirena. Euskarazko kazetaritzak izandako atzerapena ez da salbuetsiko bertsolaritzari buruzko kazetaritzan. Alor honetan, bildutako testuetan ikusi ahal izan denez, lehenengo urratsak frantsesez emango dira, gaztelera ez da agertuko 50. hamarkadaren erdialderaino eta euskarak Hegoaldean Foruen galerarekin sortuko den kultur aldizkari sortari eta Iparraldean *Eskualduna* aldizkariari (1887an sortua) itxaron beharko die.

Kronikari dagokionean, ordea, gutxigatik izan arren, aurreratu egingo zaio gaztelari. Manterolaren kronikaren zenbaki berean aterako da Otaegirena, baina irailaren 2an sinatua dago eta Manterolarenak, irailaren 26an izan zen saioa, beranduago idatzia behar du.

Ez da kazetari donostiarrarena bezain konpletoa, horregatik, gerora eredu gisa funtzionatu zuelako, aipatu da hura lehenago; baina testu polita da Otaegirena ere.

²³ *Euskal-Erria* (1881 maiatza), Jose Manterola, ‘Variedades euskaras/Un concurso de improvisadores vascos’. Manterola, Jose *Euskal-Erria* (1881 iraila), Jose Manterola, ‘Fiestas euskaras de Irún/Concurso de bersolaris’; *Euskal-Erria* (1881 iraila), Jose Manterola, ‘Una fiesta euskara’.

‘Bertsolariak Ondarrabian’ darama izenburutzat, Manterolari zuzentzen zaion eskutiz gisa dago idatzia, eta saioaren atarikoekin ekiten dio honek ere:

“Ayuntamiento edo Batzarre argidotarrak, ezaguturik zeñen on dan antziñako jostaera egogiak berritza gaurko denbora naasi oetan, ekar erazi ditu bi bersolari obeenetakoak (...) Atzo goizean etorri ziran Udarregi eta Gorria, pozez beterik, gusto eman naiean, eta aurkeztu zitzaizkion Alkate jaunari, diosala egitera eta galdetzera zer punturen gañean, non eta nola nai zuen neurtutzea beren indarrak. Eranzun zien, ongietorria egiñaz, arratsaldeko iruretan izango zala jostaera ori eta orduan esango zitzaieela zeren gañean mintzatu bear zuten. Bereala zabaldu zan uri chit Noble, Leial, Suspar eta beti Piel onetan berri au, eta baserririk urrutienetatik bildu zan alako moduan jendea ezik kale ta eche guziak bete ziran berealase.”

Manterolarena antzoki dotorean egin zen bezala, balkoitik balkoira egindakoa izan zen hau:

“Biek leio banatan aurrez aur, asi ziran eskerrak emanaz Batzarre, kabildu eta jende guziari, eta aditzera eman zuten bazekitela Uri onek daukazkiela bere eskutarmak galanki apainduak, izandu zituelako lengo denboretan asko ume erne eta azkarrak, ala ichasoz nola idorrez, zekizkitenak bere bizia ematen erlijio eta libertadeen onean, eta aurrera ere, beren ustean, izango dutela ondorengoak aen antza (...)”

Eguerdian eta berriro ere iluntzean egin zen bigarren saio batean bertsotan esandakoen nondik norakoak jasotzen ditu kazetariak, eta baita jendearen erreakzioak ere, entzutera bi mila lagun bildu zirela zehaztu ondotik: “(...) Ez nezake ezan iñolaere emengo jendearen otsarea, chaloak eta irrintziak aipamen au aditzean bersolari aiñ egoki eta aion gordiñ aren aotik”. Librean egindako saioa da, Labordek esango lukeen bezala, bertsolaritza ikuskizun moderno gisa instituzionalizatu aurretiko ereduari jarraitzen diona, ez dago sariketarik, eta ondorioz ez dago gai-jartzaile, epaimahaiko, sari banaketa eta gisakoen aipamenik. Aitzitik, bertsoen zenbaketa badakar, bai goizeko saioarena eta baita arratsaldekoarena, Manterolaren abiadurari buruzko kalkuluen aurrekari gisa. Honela dio, adibidez, eguerdiko saioaz: “Ordu bat iraun zuen lendabiziko zall onek, eta denbora onetan bota zituzten, gelditu gabe eta supituan, 55.na berso, bakoitza zortzi oñekoa”. Bertso-saioaz bakarrik arduratzen den testua da Otaegirena, eta bukaeran, “Barka egidazu atrebentzi au, eta agindu zure adizkide ta serbitzariari” desenkusutzen zaio Manterolari bidalitako testuagatik. Litekeena da Otaegi izatea kazetari eta eragile donostiarra bertso kronikaren pistaren gainean jarri zuena.

Klaudio Otaegi²⁴ (1836-1890) zegamarrak, familia pobreakoa izanagatik, herriko organujole plaza atera zuen 14 urterekin eta Gasteizen magisteritza ikasi ondoren, 22 urterekin, irakasle plaza Hondarribian. Euskaltzale porrokatua izan zen eta bere maisutza lanetan haurrei doktrina euskaraz irakasteko metodo bat garatuaz hasi zen bidea eginez. Louis-Lucien Bonapartek bere berri izan zuenean laguntzaile gisa hartu zuen euskalkien inguruan eginiko hainbat ikerketetan landa-lanak egiteko. Bere aginduz hainbat itzulpen ere egin zituen eta harreman estua egitera iritsi ziren eta Atarratzeko famili noble bateko alabarekin ezkondu zenez ezkontz-anaia deitzen ziolarik honek.

Euskal-Erria aldizkarian bere sorreratik izan zen kolaboratzaile. Bertso-jarri ugari argitaratu zituen, euskarazko itzulpen batzuk eta baita kazetaritza testuren bat edo beste ere. Aldizkariako kolaboratzaile euskaldun gehienek euskaraz nahiz gazteleraz argitaratu ohi zuten, nagusiki bigarren honetan. Otaegik, ordea, denak euskaraz idatzi zituen. Ez zen kasualitatez izan, beraz,

²⁴ Ik. URKIZU, P.: AZURMENDI, X. (1991): Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890). Donostia: Etor.

euskarazko lehen bertso kronikaren egilea. Irekitako bideak, ordea, ez zuen jarraitzaile askorik izan tamalez. Jean Etxepare idazleak sinatuko du euskaraz idatziriko hurrengo bertso kronika, 25 urte beranduago: *Eskualdun Ona* (1905/VIII/11) ‘Baigorriko phestak’.

I.III.IV Lehenengoa ingelesez: Websterrek *The Cornhill magazinean* (1882)

Wentworth Webster britainiarra (1828-1907) apaiz anglikano gisa atera zuen bizibidea, baina goi mailako ikasketez horniturik, Oxforden *Master of Arts* titulua zuen eskuratua, folklorista gisa lan itzela egin zuen bere bizi guztian zehar²⁵. Munduan zehar bidaiatu ondoren Pirinioetan jarri zuten bere apaiz lanak betetzeko eta 1864tik aurrera Ipar Euskal Herrian kokatu zuen bere bizilekua. Berehala erakutsi zuen bertako kulturarekiko interesa, euskara ikasi eta 1865eko urtarrilerako Londreseko *Mac-Millan's Magazine*ren ‘A Basque Pastoral’ ikerlana sinatzen baitzuen Hurt anderearekin.

Euskal gaiei buruz *Basques Legends* (1877), *Grammaire Cantabrique Basque* (1900) eta *Les loisirs d'un Étranger au Pays Basque* (1901) liburuak argitaratu zituen. Britainia Handian, Estatu Batuetan, Frantzia nahiz Espainian argitaraturiko artikulua zerrenda amaigabea da, ordea, bere lanaren benetako neurria ematen duena²⁶. Bertako *intelligentsiarekin* oso harreman onak izan zituen (D’Abbadie, Manterola, Vinson, Urquijo...) Euskal Herriko garaiko prentsan ere (*Euskal-Erria*, *Euskalerraren Alde*, *Euskalzale*...) aritu izan zen kolaboratzaile lanetan. Ez da harritzekoa horrelako langile porrokatuak bertako jende ikasiaren artean jada oihartzun bat lortzen ari zen bertsolaritzari erreparatzea.

Vinson bezala ikerlari atzerritarren tradizioetik dator Webster, hark bezala metodo zientifikoa jarraitu ohi zuen hertsiki eta lanik gehienak aldizkari espezializatuetan argitaratu. Ingelesezko lehen kronika hau, ordea, aldizkari literario batean argitaratu zuen, Londreseko *The Cornhill Magazine*²⁷.

Bertso kronika baino zabalagoa da izenburutzat ‘Festival among the Basques’ daraman testua, urte hartan Saran jokatu ziren Lore Jokoak deskribatzera dator, eta hauen azterketak izan dezakeen interesa aipatuaz egiten du sarrera²⁸:

“The games and festivals of the modern Basques furnish, perhaps, the nearest approach in Western Europe to what may have been their grosser and more brutal features excepted the Olympic and Isthmian games of ancient Greece. Boxing, wrestling, chariot and horse racing have no place in the assemblies of the Basques. The Eisteddfod of Wales presents the literary side of these meetings ; the gathering of the Highlanders at Braemar, the athletic. But the Basques unite recreation of mind with that of body ; prizes are given equally for the best prose or verse composition, to the best improvisatore, to the successful ball-player, and to the athlete.”

²⁵ Ik. URKIZU, P. (2000b): Wentworth Webster. Bidegileak 18. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

²⁶ Adibide gisa, ingelesez bere lanen bat argitaratu zuten medioen kontaduria: *Anglican Church Magazine*, *Athenaeum*, *Cornhill Magazine*, *Encyclopaedia Britannica*, *English Historical Review*, *Fortnightly Review*, *Journal of the Gypsy Lore Society*, *Journal of the Anthropological Institute*, *Mac-Millan's Magazine*, *The Antiquary*, *The Swiss Anglican Magazine*, *The Journal of the Anthropological Institute of Great Britain*, *The Pyrenean*, *The Season*, *The Treasury of Languages*, *The Academy*... Gazteleeraz argitaraturikoen zerrenda laburragoa da, bere lanak frantsesez jaso zituztenena ez.

²⁷ *The Cornhill Magazine* (1860-1975) garai Victoriarrean modan jarri zirenen eredu aldizkaria izan zen, guzti haietatik salduena. Victoria erreginak ere argitaratu izan zuen bertan bere sorkuntzako testuren bat.

²⁸ Ik. itzulpena III.X azpipuntuan.

Eguraldiak urte hartako ekitaldi gehienak suspenditzea ekarri zuen, ordea, pilota partidak eta bertso-saioa baino ez dira jokatu. Bi orrialde eskainiko dizkio lehengoari eta hiru bigarrenari.

Abaddieren Lore Jokoen antolaketari erantzuten dio saioak, antzokian beharrezko frontoian ari dira, eta antolaketa modu horri buruzko xehetasun interesgarri batzuk eskaintzen ditu testuak. Esaterako, bertsolariak momentuan egiten zen deiari erantzuten diotela zehazten du:

“Hardly had the game of ball been concluded (...) when a fine old sailor (...) using his hands like a speaking-trumpet, summoned the improvisatore to a more gentle contest. First a blind old labourer, Anibar of Sare, appeared, led on by a boy (...) Then a pause and a murmur of disappointment began that there would be no other candidate ; but a curly-headed youth, Pelho of Cambo, came forward, and then a shout announced one of the most noted of the Spanish bersolari, Elicegni, el molinero (the miller) of Oyarzun, in Guipuzcoa; a labourer from Echalar, in Navarre, then stood up ; then Makharra of Souraide, and a man from Baigorri, whose heart, however, failed him before it came to his turn, made up the full list.”²⁹

Informazio dezente eskaintzen du saioaren antolaketa espazialari buruz; bertsolariak, frontoiko hormaren kontra, entzulegoarekiko ze altueratan dauden, epaimahaia bertsolarietarako eskuinera kokatzen dela... Epaimahaiko kideak aurkezten ditu, hauek jartzen dituzten gaiak ere zehazten ditu, eta baita bertsolari bakoitzak gai bakoitzaren gainean hartzen duen bidea azaldu ere. Berritasunik deigarriena, aurretik jaso diren kronikekin alderatuaz, bertsolarien gorputz espresioari egiten dion azpimarran legoke. Honela, esaterako, umore puntua ere nabari zaio Kanboko Pello gaztearen gorputz espresioa eta epaimahaiak jarri dion rolaren arteko kontraesana azaltzen duenean:

“(...) Anibar the blind defended the cause of "Sobriety" against young Pelho of Cambo, who maintained that of " Good Cheer" (...) Pelho looked horribly nervous, and squeezed his beret (cap) in his hands as if he were doomed under severest penalties to wring out the last drop of any moisture that might be in it. Very slowly he sang his first verse, looking anything but like an advocate of good cheer.”

Lasaitu eta azken buruzko burukora iristea lortzen du, ordea, Kanbokoak. Pello Errotaren aurka aritzea tokatuko zaio hemen. Bien gorputz espresioari erreparatuko dio berriro Websterrek:

“The molinero is a man of barely middle height, but of Herculean build, and he stood with arms folded across his broad chest, occasionally, during a pause, taking a hasty sip from a small wine skin proffered by his brother. Pelho, taller and slighter, crushed his cap in his right hand, and when singing swayed both arms to the tune in no ungraceful fashion. At the close of each of his first few verses he turned with an arch glance to see their effect on his opponent ; but he discontinued this when he found him always ready.”

Larri dabil gaztea Pello Errota handiaren aurrean, baina epaimahaiak berdinketa ezarri eta bertso *supporter*rek bero zorionduko dute: “(...) the successful competitors were hurried off to the mairie to receive the prize, Pelho being hugged and slapped and almost torn to pieces by his admiring friends”.

²⁹ Aipatzen dituen bertsolarietatik Pello Errota eta Martin Etxeto Diturbide, ezizenez *Anibar* direla identifikatu ahal izan da.

I.IV FIKZIOA: 1880-

I.IV.I Juan Antonio Mogelen ‘Peru Abarka’ *Beti-Bat* egunkarian (1880)

Hainbatek euskaraz idatziriko lehen eleberrizat jo ohi duena, Mogelen ‘Peru Abarka’, 1881ean argitaratu zen lehen aldiz liburu gisa, Julian Elizalderen Durangoko inprentan. *Euskal-Erria* aldizkariaren 1880ko uztaileko zenbakian, ‘Noticias bibliográficas’ deritzon testuan, 15. orrialdean, irakur daitekeenez, ordea, urtebete lehenago prentsan ikusi zuen argia:

“El *Beti-bat*, periódico de Bilbao viene publicando en sus folletines desde el 15 de Junio último, la interesante obra en bascuence bizcaino, escrita á principios del presente siglo, por el ilustrado presbítero D. Juan Antonio de Moguel, con el título de *El Doctor Peru-Abarca*, trabajo que permanecía inédito hasta la fecha, y que por rara coincidencia, habia comenzado tambien á dar á luz, en el número correspondiente al mes de Mayo la revista *El Ateneo*, de Vitoria.”

Beti-bat honen data horietako alerik ez da inon aurkitzen, baina *El Atenerorenak* bai topatu ahal izan dira. Gasteizko hilabetekarian, bosgarren zenbakian, maiatzaren 31ko datarekin, 65. orrialdetik 69. orrialdera ekiten zaio Mogelen testuaren hitzaurrea argitaratzeari. Beste hainbeste orrialde argitaratzen dira ekaineko, uztaileko eta abuztuko zenbakietan, baina irailekoan, 148. orrialdean jasotzen duen labur batean, bukatutzat ematen dute euren lana:

“Concluido en el número anterior el Prólogo de la notable obra póstuma El doctor Peru Abarca del presbítero Moguel, renunciamos por ahora á continuar la inserción de los diálogos en vascuence, que constituyen el cuerpo de la obra, por las razones siguientes que nuestros lectores sabrán estimar (...) Algun tiempo después de comenzar nosotros la publicación del curioso opúsculo del escritor vizcaino, un periódico político de Bilbao, tal vez estimulado por nuestro ejemplo ó quizás por mera coincidencia, empezó también la misma publicación, con otro manuscrito á la vista, habiéndola ya terminado merced á su carácter de diario (...)”

Beraz, *Beti-baten* ale horiek desagertutzat ematen diren arren, argi dago liburuaren lehen edizioaren aurretik osorik argitaratu zela bertan Mogelen lana³⁰. Eta badu bere garrantzia xehetasun honek ikerketa honetarako, euskal literaturaren historian hain garrantzitsua izan den testua prentsan bertsolaritzari buruz argitaraturiko ale zaharrenen bildumara ekartzeko modua ematen baitu. Izan ere, ‘Peru Abarka’ⁿ, bertsolaritzak pisu garrantzitsua du: sei elkarrizketek osatzen dute lana³¹ eta hauetatik hirutan agertzen dira bertsolaritzari eginiko erreferentziak.

Lehenengoan, Peru Abarkak eta Maisu Juanek tabernan nola elkar ezagutzen duten azaltzen digun elkarrizketan, goiko solairuan kantuan ari den agure mozkor bati entzuten dizkioten bertsoek hartzen dute orrialdeen herena. Honela hasten da:

³⁰ Lehen argitalpena *Beti-batekoa* izan zela berresten dute hainbat adituk (Arrue, 2008; Altzibar, 1990 eta Kaltzakorta, 2002) eta Jurgi Kintanak honela dio: “Bilbon, *Beti-bat* aldizkari karlistak, ‘Peru Abarca’ euskarazko eleberria argitaratzeari ekin zion atalka 1880an, mende bat lehenago Mogelek idatzitako obra hau publiko eginez. Hori izan zen Bilbon, nik dakidala behintzat, aldizkari batean atera zen euskarazko lehen testu luzea. Nolanahi ere, oker ez banago, *Beti-bat* aldizkarian ez zen sorkuntzazko euskal testu berririk agertu, bere ohiko edukia gaztelaniaz idatzita egonik.” (2005: 147).

³¹ Burkek aipatzen duenez gisa honetako eraikuntzak arrakasta handia izan zuten lehen modernitatean. Ahozkotasanaren eta idatziaren artean kokatzen ditu berak: “Para dar un último ejemplo de las interfaces entre los medios dirigiremos la atención a la relación entre oralidad e imprenta. Los textos impresos reproducían a menudo lo que Ong ha llamado «residuo oral», que son giros idiomáticos o construcciones gramaticales más apropiados al habla que a la escritura, al oído que a la vista. Los libros en forma de diálogo, populares en el periodo moderno temprano, desde ‘El cortesano’ (1528) de Castiglione a ‘El Solnino’ de Rameau (escrito en la década de 1760, aunque no se publicó hasta 1830) de Diderot, se nutrieron de los intercambios orales en patios, academias y salones” (1991: 59).

“MAISU JUAN: (...) Zer daantzut?... Kanteetan... Gagozan isillik zer dinuan... Peru, artu dozu goguan koplaxuba?

PERU: Ona. Aita semiak edanda dagoz/ama alabak jokuan;/ostera bere egongo dira/soñoko zaarrak kakuan.

MAISU JUAN: Nor ete da kantoria? (...)

PRAISKA: Aita seme batzuk juan dira sabaira, aita katu andijaz ta semia bere bai zerbaitakuan. Lo egiteko asmoz igon dabee, baña emon deutsa aguriak kantiari. Soñulari eder bat dozu ardaoz basa basa eginda”.

Maisu Juan, medikua, kaletar ikasiaren paradigma, txunditurik dauka bertsolariaren etorriak: “Berso asko irakurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan; baña ez berba gitxitan gauza geijago esan gura dabarik. Ai ostera kantauko baleu! Ai! Asi da... Gagozan issillik. Peru, artu goguan... Kantau ditu berso bi: zer dino?”. Txundiduratik haserririk sutuenera pasatzen da, ordea, pixkanaka: bertsoek diotena da agureak parranda batean erorikoa izan eta medikuarengana eraman zutela, Maisu Juan deitzen ziotela mediku hari, eta borrorotik gehiago zuela sendagiletik baino³².

‘Rusticus abnormis sapiens, crassaque Minerba’ (‘Baserritarra jakintsu bikaina eta Minerba jakintsua tentel hutsa’. Horazioren aipua darabil Mogelek hitzaurrean, horixe da lan osoaren planteamendua ere. Bertsolariak, ordea, Gabilondok azaltzen duenez eta jada aipatu den gisan, euskaldun onaren irudikapenetik ertzeraturiko herritar xehearen desbiderapena gorpuztuko luke: “In short, there is an underlying discourse that structures the narrative of Peru Abarka, which is neither modern nor anti-modern, but subaltern and non-modern; it only emerges in songs such as the one cited above” (2016: 175). Azken batean, Mogelena diskurtso moralizante bat izanik, bere ardurapean dauden herritarren subalternitatea markatzen du horrela: “The subaltern classes are neither modern nor anti-modern, but non-modern” (Gabilondo, 2016: 174). Gerora hainbeste joku emango duen parrandazalearen irudiarekin lotzen da, bada, bertsolaria, dakar horretarako, Maisu Juanen hitz hauetan bezala: “Badakit orain nor dan agure kantore au. Da ordi pusiga etxe guztija ondatu dabena; zoorrez beterik dago: tabernarik taberna dabill. Nosian bein darue banatuta, katubagaz duala, golpiak artuta”. Epaia ez da, ordea, irudi dezakeen bezain zorrotza, bertsolariaren maisutasunaren aurrean amore emanaz bukatuko baitu mediakuak: “Bai, Peru, ta nago ikaratuta, zelan gizon ordi batek atera leikezan alango bersuak, ta kantau ain klaru”.

Hirugarren elkarrizketan azaltzen da berriro bertsoa eszenan. Peruren baserrira bisitan joana da Maisu Juan eta haren seme Txominek hiriko eta baserriko saguen ipuina, abade batek irakatsia, bertsoan eskaintzen dio. Berriro ere baserrikoaren gorazarrea eta berriro ere zur eta lur kaletar eskolatua: “Txomintxu, ez juat inos enzun ipuin ain ederrik. Zelan baña imini dabee berso ain luzian? Ze plagak irakasten deutsee euskeraz koplak egiten? Asto bat naz ni. Ordi sats egiñak

³² Honela dio lehen bertsoak: “Egun baten gaba eginda / ninoian neure etxera / larrapastadatar bat eginda/ jo neban beeko bidera. / Jaso nenduben danau mankauta / bizkar azurra ausirik, / miñaren miñaz katu guztia/ beinguan niri igarorik.” Maisu Juan gehiagoren irrikitan: “Zetan parau ete zan Piestia? Nok osatu eban? Berso oneek geijaguen eske dagoz (...)”. Honela jarraitzen du, ordea, bigarrenak: “Ekarri eusten egun-sentijan / Maisu Juan Barberuba, / gurago neban neure albuhan / euki Gaiskin Diabruba.” Ez dio graziarik egiten entzuleari: “Ze diabru? Nungua da agure ordi kantore au?”. Bere herrikoa dela argitzen dio Peruk eta apuntatzeko hirugarren bertsoa: “Borreru arek birau nenduban / albo bateti bestera, / egon biar dau onek, zinuan, / begira gaur bazterrera. / Asi zan gero erremientak/ bere ziskuti ateraten, / otso bijotzaz barre eginda / an egozanai esaten. / Kangrenatzar bat jajoko jako / ondo ezpadogu sajeetan; / ezdira ez onlango heridak / bedartxubakaz osetan./ Jaurtigi neutsan ostikadiaz / ezarri neban lurrera / sartu eztedin Maisu Juane / nire etxian ostera.”

bere ateraten jitubek bersuak, eta ezin najaik bat bizitziaeren beian.”. Elkarrizketaren erdia hartzen du pasarteak.

Azkenik, bosgarren elkarrizketan, Peruren alabak dira lihioa lantzen ari diren bitartean Maisu Juani bertso sorta eskaintzen diotenak: “Ez da guretzat biargintza atsegingarrijagorik: alkarren leijan, miña berba egiteko askatuta daukagula, olgantzuan egotia (...) Gura dogunian kanteetan dogu geure soñuban. Batek ekiten deutsa zorzikuari, ta gero bestiak eranzutiari. Gura dozu enzun?”. Elkarrizketaren heren bat betetzen du oraingoan bertsoaren lilurak.

Euskal-Erria aldizkarian irakur zitekeenez Mogelen testua mende hasierakoa zen, argitaratu baino laurogei bat urte lehenago idatzia. Datu honek ere badu esangurarik: bertsolaritzaz prentsan topaturiko guztiak baina zaharragoa, Iztuetak bertsolaritzaren historiaren lehen lerroak idatzi baina lehenagotikoa, eta lehen lerro horiek kontatzen duten Villabonako desafioaren sasoi berekoa baita lana³³. Eta Iztuetak hamarkada batzuk geroago aipatzen dituen hainbat ideia garrantzitsu jasotzen dira bertan: bertsolaritzak jende eskolatu zenbaitengan eragiten duen lilura, eskolaturiko jendearen ustezko jakinduriaren gainetik legokeen bertsolari eskolatu gabearen azkartasuna, garaiko bertsolaritzaren maila eta hedapena... Irakurketa hori egiten du Joxe Azurmendik ere: “Mogelek, duda gabe, bertsolaritza Euskal Herrian ikasiena adina ezikasiena, gizonen nahiz emakumeen gauza, dela, erakutsi nahi digu (...) Baita euskaldunek, ordurako, bertsoan zer estimatzen zuten, agertu ere: (...) hitz gutxitan asko esatea eta kanta klarua” (1980: 142-143).

Juan Antonio Mogelek (1745-1804)³⁴ aita, Maisu Juan bezala, medikua zuen, eta hura bezala, ilustratua, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kide. Bera, Adiskideen Elkarteko kide baita, Filosofia eta Teologia ikasita, apaiztu egin zen 1770ean, eta markinako erretore izan zen 1788tik heriotzera arte. Garaiko apaiz apologisten korronteko kide izan zen, euskararen inguruko lan bat argitaratu zuen eta baita euskarazko katekesi bat ere, eta harreman estua izan zuen Humboldtekin, bera izan zelarik Leloren kantuen berri eman ziona. Galdua den euskal kantutegi baten egiletza ere aitortzen dio zenbaitek (Morel-Borotra, 2000 eta San Martin, 1984). Garaiko kultur giroan bazuen sona, beraz, eta bere heriotzean ‘Peru Abarka’ren eskuizkribua Zarauzko Frantziskotarren esku utzi zuenean hainbat kopia hasi ziren zabaltzen, argitaratzeko hainbat saiakera egin zirelarik. Testua 80 urte beranduago argitaratu zenean oihartzun berri bat hartu zuen, ordea, bere izenak eta lanak, euskal nortasunaren adierazletzat hartu eta garaiko iruditeriaren baitako elementu bihurtu zen Peru Abarka³⁵.

Gerora hainbat meritu aitortu zaizkio Mogelen lanari: esan bezala, euskarazko lehen eleberrizat hartzen du hainbatek (beste hainbatek trama nahikorik ez duela-eta Txomin Agirrerren lanetan jartzen du mugari hori), maila literario bikaina duela esan ohi da, bizkaiera literarioaren erabileran aintzindaritza aitortzen zaio, gerora hainbesteko indarra hartuko zuen euskal kostunbrismoaren lehen aletzat ere hartzen da... Euskal nortasun politiko modernoaren sorkuntza prozesuan izango zuen, ordea, pisurik eta garrantziarik gehien:

³³ Honela dio Altzibarrek: “1802ko otsailaren 26an egileak Vargas Ponce-ri idazten dion eskutitzean obra luze samar eta mintzagai askotarikoak erabiliz euskal hitzen garbitasun, aberastasun eta euskararen elokuentziarako iaotasuna erakusteko moldatuak dituen elkarrizketen berri ematen dio” (1990: 871). Peru Abarka ordurako idatzia zuela, alegia.

³⁴ Datu biografikoak Auñamendi Entziklopediako Arozamenaren artikulutik atera dira: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/moguel-urquiza-juan-antonio/ar-96511/#hasiera> [2018/III/25]

³⁵ Adibide gisa, Mogelen lana liburu formatuan argitaratu eta hiru urtetara, 1884ko urtarrileko *Euskal-Erria* aldizkarian Juan Eustaquio Delmasek sinaturiko ‘A una gorda otra mayor’ kontakizun laburra. Baserritar euskaldun langile eta neurritsuari zapatari andaluziar ahobero eskamilatsua kontrajartzen zaio bertan. Baserritarrak Peru Abarka du izena.

“Liburu bereziki garrantzitsua dela esango nuke zeren, bere kalitate literarioaz gain, idatzi zenean, hots, XIX. mendearen hasieran (1802), euskal gizartearen sektore guztiz zabalen proiektu politiko nagusia irudikatzen baitzuen argi eta garbi. Eta lehen aldiz argitaratu zenean, alegia, XIX. mendearen bukaeran (1880), esango nuke oraindik ere bertan irudikatzen den proiektu politiko eta sozialak sostengu bera edo oso antzekoa zeukala, nahiz eta haren formulazio klasikoa errotik aldatzeko zorian izan, foralismoak nazionalismora. Izan ere, Peru Abarkaren bi data horiek, idazketarena eta argitalpenarena, prozesu sozial baten bi muturrak konektatzen dituzte: foralismoaren lehen krisialdi latza, Frantziako Iraultzaren ondorioei zuzenean lotua, eta nazionalismoaren jaiotza, industrializazioaren hastapenei estekatua. Ikuspuntu horretatik begiratuta, eta bestelako kontsiderazio oro bazter utzirik ere, liburu enblematikoa da, gure herriaren historia modernoa laburbiltzeko balio dezakeena.” (Gartzia, 2011: 48-49)

Frantziako Iraultzatik ihes egindako elizgizonak etxean hartutakoa zen Mogel, eta modernitateak zekarren zentralismoak eragindako foruen aurkako lehen erasoak ere ezagutu zituen; hori zen ‘Peru Abarka’ren idazketaren testuingurua: “1801eko uztailean sinatu zen Frantziaren eta Erromako Aulki Santuaren arteko Konkordatua eta aurreko hamarkadako aztoramenduak iraganak zirela ematen zuen (...) ematen zuenean Iraultza gainditua zela eta gauzak poliki-poliki bere onera bihurtu behar zirela (...) Mogelek horretan lagundu nahi zuen, jakina” (Gartzia, 2011: 49). Honela, modernitatearen aurka mundu zaharrean gotortu beharra azpimarratu nahi izan zuen idazle eibartarrak: “(...) modernitatearen emaitza den zentralismoak egin zuen urradura, kontzientzi sortzaile izan zen eta ondorioz, Iraultzaren ondotik nagusitu nahi zuen gizarte berriaren gaitetik, mundu zaharraren (gizarte tradizionalaren) goralmena ekarri zuen” (Aldekoa, 1989: 10). Baserria, euskara eta fedea seinalatu zituen mundu horren oinarri gisa, baina baita aurremodernitateko formula ekonomikoak eta euskal kultura popularra ere:

“(...) garbi ikusi zuen Frantziako Iraultzaren ondorioa ez zela soilik politikoa (Foruen galera), aitzitik, mundu tradizionala oso-osorik jarriko zuela hankaz gora. Beraz, defentsa global bat planteatu zuen: erlijioa ez da nahikoa, euskarak lagundu behar dio, eta euskararekin batera, ekonomia tradizionalak: etxea, ola, lihoa... (...) badaude asmo kulturalak ere (...) kanta zaharrak, herri-ipuak (eta jakintsuen alegiak), atsotitzak... horiek dira jakintzaren zutabeak herritar xeheentzat, Mogelek behin eta berriro aipatuak eta goratuak.” (Gartzia, 2011: 50-51)

Baserria, euskara eta fedearen ‘hirutasun santuaz’, euskal gainegitura ideologikoa eta, ondorioz, bilakaera kulturala, hamarkada luzez izozturik utzi zuen formula gisa diardu Iñaki Aldekoak (2008). Eta idazle eibartarrak idatzitako ideiei, 80 urte geroago argitaratu zirenean, benetako pisua eman zioten mugimenduak ere seinalatzen ditu:

“Peru baserritarrarengan haragitzen den mundu idealizatu horrek aurrerago emango ditu bere emaitzak, jada erromantizismoz blaitutako mende luze baten igurtziak bereganatu duenean. Foruzaletasunaren, integrismoaren, karlismoaren eta nazionalismoaren imajinarioan (A. Campion, R. M. Azkue, T. Agirre, S. Arana) topos nagusia baserritarra izango da” (Aldekoa, 2008: 231).

Bere garaia eta testuingurua bezain pertsonaia konplexua izan zen Mogel. Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kide izanik, euskal ilustrazioaren baitakotzat har zitekeen, baina modernitatea etsaitzat zuenez, herri xeheari etzion kultura popularraz haraindiko ezagupiderik baliosten, jende eskolatuarentzat klasikoen ekarpenak baino etzitzen aintzat hartzen;

Inkiszioarekin arazoak izan zituen, epaiketa eta guzti, baina, aldi berean, zentsore lanetan ere aritu zen Inkiszioarentzat... Bere lanaz egin izan diren interpretazioetan ere kontraesanak topa daitezke³⁶. Hainbatek, Altzibar, Garate, Juaristi eta Apalategi aipatzen ditu Iñaki Aldekoak (2008), euskal erromantizismoaren lehen zantzu bat ikusten dute Mogelen proposamenean eta egiazki erromantizismoaren hainbat joerekin harremandu daitezke ‘Peru Abarka’ren baitako elementu batzuk: kultura popularrarekiko atxikimendua, ilustrazioaren irakaskuntzekiko mesfidantza, baserritarraren-basati onaren, apologia... Aldekoa (2008) berak, ordea, ukatu egiten du Mogelen izaera erromantikoa, Erromantizismoa modernitatearen bilakaera dela eta eibarkoak modernitatearen etena bilatzen zuela argudiatuz. Gartziak (2011), bere aldetik, ‘erreakzionario moderno’ gisa definitzen du idazlea. Eta saltsa horren erdian, Mogelen testuan hainbat orrialde beretzat hartuz, bertsolaritza.

I.IV.II Vicente Aranaren ‘El Bardo de Uribe’ *El Aralar* egunkarian (1892)

“Diriase, Ivan de Basábil, que vuelves de un funeral, y no de las fiestas de Bilbao, tan animadas y alegres. Estás más serio que el sepulturero de Gatika, que no se rie jamás, y en lugar de apresurarte á contarme lo que has visto y lo que has hecho en las fiestas, á mí que no he podido asistir á ellas, contestas a mis preguntas con monosílabos (...) Así decía el joven Leonel Terlíguiz á su amigo y compañero de la infancia Ivan de Basábil, más conocido en la comarca por el versolari de Uribe (...)”

Honela hasten da 1896ko uztailaren 17ko *El Aralar* egunkariaren lehen orrialdearen beheko erdian ‘El Bardo de Uribe’ folletoa. Bertsolari bat protagonistatzat duen lehen fikziozko zat hartu daiteke, Chahorenean narratzailea baitzen bertsolaria eta Mogelenean bigarren mailako pertsonaia. Gerora fikzioan bertsolariak gehiagotan aterako badira ere, protagonista gisa ikusi ahal izatea gutxitan gertatuko da. Ez behintzat horrelako lan luzeetan, folletoa abuztuaren 11raino luzatzen baita.

‘El Bardo de Uribe’³⁷ honek gerora izango duen oihartzuna ez da ‘Aitorren kondaira’k edo ‘Peru Abarka’k izandakoaren mailara inolaz ere iritsiko, eta horregatik ziurrenik, haiek baino exotikoagoa suertatzen da gaurko begiradatik. Bertsolaria ez da ‘Peru Abarka’ko bertsolari alproja edo ‘Aitorren kondaira’ko liderra, dontzeila baten maitasunagatik borrokatuko den zalduna baizik. Beraz, maiteminak behar du bere atsekabearen zioa, eta horrela azaltzen dio bere lagun Leoneli:

“Habilísimos bailarines llegados de Berriatúa y Busturia, habían dado principio á sus graciosas y complicadas evoluciones bajo la dirección de un gallardo mancebo de la casa de Arancibia (...) por todas partes resonaban los aplausos de la multitud, cuando hirió agradablemente mis oídos una voz de mujer, la voz más límpida y más argentina que he escuchado en mi vida, el acento más dulce que imaginar se puede, la pronunciación más correcta y cadenciosa posible. Aquella voz hizo vibrar de un modo extraño, pero gratísimo, todas las fibras de mi corazón.”

³⁶ ‘Peru Abarka’ lehen aldiz argitaratzeari kasik aldi berean ekin zioten bi medioak ere elkarrekiko antitetikoak ziren neurri handi batean: *El Ateneo científico, artístico y literario de Vitoria* (1870-1884) ilustratua hiriko akademiko liberalek sortu zuten bitartean, *Beti-bat Católico Intransigente* (1880-1883) karlista-tradizionalista Gustavo Cobreosek zuzentzen zuen, bigarren karlistadako altxamenduen buruetakoa.

³⁷ Izenburuan bardo badio ere ez dago zalantzan jartzetik bertsolari bati buruz ari denik. Izatez, oinoharra ere gehitzen du: “Poeta, improvisador. Lo mismo que coblakari”. Eta euskaraz egiten duela ere zehazten da.

Vicente de Arana³⁸ (1848-1890) idazle oso estimatua izan zen garai hartan Bilboko zirkulu literarioetan. *Revista de Vizcaya* (1885-1889) kultur aldizkaria sortu eta zuzendu zuen eta hainbat literatur lan argitaratu, tartean ‘Los últimos Iberos’ (1882) arrakastatsua³⁹. Sabino Aranaren lehengusua, adinez zerbait nagusiagoa, literatura foruzale victoriarra deitu izan zaionaren agerkari nagusizat hartzen da. Arzaren arabera, korronte honek, Bilboko oligarkiaren behar estetiko eta ideologikoetara egokituz, foruzaletasuna aldarrikapen politikotik aldendu eta zaldunen literaturaren tradizioan murgilduko luke:

“En la obra de Arana el repertorio foral se transforma en un catálogo de héroes con los que la nueva burguesía industrial bilbaína pueda emparentarse y de esta forma apropiarse no sólo del control político de las instituciones sino también de su propio simbolismo cultural (...) Para esta nueva burguesía industrial el imaginario foral pierde su carácter patriótico para convertirse en un mundo caballeresco que se le ofrece como un objeto de consumo (...)” (2012: 87-88)

Vicente de Arana bera pertsonaia erromantiko bat izan zen. Gaztetan Londresen duela bat izan zuen maitasun afera bategatik, Europan zehar emakume baten atzetik hainbat herrialde ere igarotakoa zen, eta mutilzahartuta, bere izaera arraro, kosmopolita eta maitaberak, hainbat txutxumutxu eragiten zuen Bilbon, tartean Sabino Aranak edo Migel de Unamunok idatzita utzitakoak. Erromantiko nordikoen jarraitzaile, Alfred Tennyson, Longfellow edo Sacher Masoch itzuli zituen gaztelerara, eta tradizioari jarraiki, zaldunen historietan aurkitu zuen bere tokia: “(...) los héroes fueristas de Vicente Arana se presentan (...) como cortesanos de modales refinados” (Arza, 2012: 88). Aranaren bertsolaria gisa honetako pertsonaia bat izango da eta Erromantikoaren kanonei jarraiki, ezinezkoa dirudien maitasun bat da liluratu duena:

“- ¡Lucía de Artibay! (...) En verdad, Ivan, te compadezco con toda mi alma. No hay de Castro-Urdiales á Aramayona, ni de Motrico á Lanestosa, una jóven cuya mano sea tan solicitada como la de la hermosa heredera de Artibay, y desgraciadamente no basta para obtenerla ser galan y apuesto, tener un bello rostro y una rizada cabellera, y saber componer lindas canciones. ¡Ah, pobre Ivan! No es lo mismo enloquecer á una sencilla campesina, como domeñar el altivo corazon de una orgullosa rica-hembra.”

Ez dago dena galduta, ordea. Neskari gustatu egiten zaio bertsolaria, “Me dijo que me conocia hacia mucho tiempo, que preferia mis canciones á cualesquiera otras, y me dio las gracias por la que en honor suyo habia compuesto”, eta bere aita aberatsak, neskaren eskua nahi duten guztien arteko gaitasun lehiaketa ireki bat antolatu du: “(...) deben presentarse cuantos aspiren á obtener la mano de Lucía, para mostrar en él su destreza en el manejo de las armas, sus habilidades de cualquier clase que sean, y la ciencia que atesoren”. Bertsolari zaldunari errimatzeke aukera aproposa iruditzen zaio, “(...) yo no soy hombre de guerra, sino coblakari, y, si me presento (...) como coblakari, y no como hombre de guerra, he de presentarme”.

Testu luzea da oso baina azkenean behintzat lehiaketara agertzen da Uribekoa, eta Chahoren bardoak bezala, baina bertsio bizkaitarrean, arbasoen batailak eta probintziaren sorrera bertsotan azaltzen ditu izugarritzko arrakasta lortuz: “(...) los jueces, por no contrariar á la multitud, dan al bardo de Uribe permiso para volver á cantar”. Maitasun historia bat kantatzen du orduan: “¡Cuantos corazones palpitan ruidosamente! ¡Cuántos ojos se llenan de lágrimas

³⁸ Elementu biografikoak bi iturritatik jasoak. Auñamendi entziklopediako Bernardo Estornés Lasaren artikulutik: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/arana-vicente-de/ar-2180/> [2018/III/26] Eta *Euskonews* aldizkariaren 147. zenbakiko ‘La otra estirpe de los Arana Goiri: Vicente de Arana (1848-1890)’ artikulutik: <http://www.euskonews.com/0470zbk/gaia47003es.html> [2018/III/26]

³⁹ Bertatik hartu zuen *El Aralar Diario Catolico-Fueristak* (1894-1897) folletoi gisa berrargitaratzeko.

(...) las doncellas que no han encontrado amante se proponen salir de tan triste y egoista soledad, y hasta los casi apagados ojos de los ancianos se iluminan (...)”. Aita aberatsak, beraz, ez du neskaren eskua bertsolariari eskaini besterik, eta bertsolariei bibaka amaitzen da testua: “¡Gloria al bardo de Uribe! Él es el orgullo de Vizcaya. ¡Dichoso el pueblo que tenga muchos bardos como él, llenos de amor á la patria y á sus hermanos!”

I.IV.III Txomin Agirreraren ‘Iru Erezi’ *Euskalzale* astekarian (1898)

Aipatu da nola hainbatek Txomin Agirre jotzen duten lehen euskal eleberrigiletzat, ‘Peru Abarka’k horretarako trama nahikorik ez duelakoan. Edozein kasutan bertsolaritzak presentzia du lehen euskal eleberrian, Agirreraren lehenengoan ere, ‘Auñamendiko lorea’ (1898) izenekoa, pasarte luze bat eskaintzen baitzaio. Eleberri hau Díaz Nocik ‘euskaraz egindako lehen aldizkari modernu’ (1995: 91) gisa definitzen duen *Euskalzale* astekarian argitaratu zen 1898ko urtarrilaren 20ko zenbakitik, irailaren 1eko zenbakira. Bertsolari bat protagonista duen hirugarren atala, izenburutzat ‘Iru erezi’ daramana, otsailaren 10ean argitaratu zen.

Txomin Agirrek (1864-1920) ondarruako familia pobre batean jaioa eta bizitza Zumaian kapilau gisa emandakoa, parte hartze aktiboa izan zuen garaiko euskal kultur mugimenduan: *Euskal Esnalea*, *RIEV*, *Ibaizabal*, *Euskal-Erria* edo *Euskalerrriaren alde* gisako argitalpenetan euskarazko testu ugariarekin kolaboratu zuen, harreman estua izan zuen garaiko kulturgile handiekin, Azkue, Campion edo Etxegarai besteak beste, eta Euskaltzain izatera ere iritsi zen. Gerora itzalik handiena utzi duen lana ‘Auñamendiko lorea’ (1898), ‘Kresala’ (1906) eta ‘Garoa’ (1912) trilogiarekin euskal eleberri modernoaren lehen bidegile gisa egin zuena izan zen, ordea. Euskal kostunbrismoaren gailur gisa hartzen da hirukoa.

‘Auñamendiko loreak’ baditu desberdintasunak, aitzitik, beste biek. Gailur horri baino ordurarte Campionek, Navarro Villosladak edo aipatu berri den Aranek jorratu zuten literatura erromantiko historikoari dagokio. Euskaldunak kristautu ziren garaiaz ari da, berriro ere euskal jatorriaz, kutsu mitiko batekin. López Antonen arabera eleberri hau literatur mailari dagokionean koska bat beherago aurkituko litzateke baina bertsolaritzari tokia egiten dion pasarte Agirreraren olerkigintzaren baitako piezari onenatariko bat omen da: “(...) sus más logrados poemas, entre los que merecen destacarse ‘Ichas aldian’ (1890), ‘Lañoa ta Griña’ (1911), ‘Agure Kanta’ (1896), ‘Iru Erezi’ y ‘Jesusen Biotzari neurtitzak’ (1897)” (1997: 130).

Frankoen kontra gerrara jo ala ez erabakitzekeo bilduak dira gizonak mendian. Gerrako kontuak entzun nahi dituzte bertsoetan, baina bertsolari nekatu batekin egiten dute topo, kontatzen denez, alargundu zenetik apenas abestu gabea: “Koblakaririk onenetakoa (...) Igarle baten antzera itz egiten bekian; iñoiz bere aotik urtendako itz gorituak euskaldun gudarrienak berotu oi zituan; baiña egun guztietan ezta gizona tentun batean egoten, da egun atan ezegoan Peru gizonen biotzak ausardituteko tentun (...)”.

Lehen bertsoaldia emazte hilari eskaintzen dio, hiru koplak, irekitzeko eta ixteko bere nekea agerian uzten duen puntua ekarriz: “Neure emazte Manu Mari / zeñek ein nau ni koblakari?”. Entzule batzuri etzaie gehiegi gustatu: “Iaizu ta edaizu, lagun zaarra, ta zeure naigabeok alde batera ichizuz. Sarrera ona egin dozu, beti legez, baiña bigunego edo (...) Ezgaikezuz geiegi oillotu, biar edo etzi iñoiz baño gogorrangoak izan beharko dogu-ta. Ea, esaiguzu gudarako erezi bat”. Honela, aberriaren aldeko mezuarekin ekiten dio bigarren bertsoaldiari eta, “¡Ori, ori, koblakaria (...) ainka ta zaunka, ikaratu ta zatitu ta jan egin bear ditugu prankotarrak oster bere.¡Aurrera Peru! ¡Aurrera, zarra!”, puztutzen dira animoak. Ameriketatik aguretuta itzuli zen Iparragirre hark bezala, gaztetako gerra kontuak ahaztu eta bakearen aldeko hautua eginez

bukatzen du, ordea, bertsoaldi luzea Peruk: “Gaur badakit ezta ondo/sentzun baga zaunk eitea/ ta bakean doianari/Ortz-azurrak ezartea”.

““¡Ori, ori!” “¡Ederto!” “¡Charto!” “¡Kanpora agurea!” “¡Aurrera, Peru!” Jaungoikoak daki zer zarata ta nasteak atera zituen Peruren jiran, azkenengo erezia amaitu ebanean (...)” zalapartatu da giroa gerraren aurka eta alde daudenen artean. Oraindik hirugarren bertsoaldia falta zaie, ordea, apaizaren mezua dakarrena: emaztea eta aberria asko maite dituen arren Jainkoa maite duela gehien bertsolariak. Bertsoaldi bakoitzean errepikaturiko galdera existentziala “Nere emazte Manu Mari/Jaunak ein nau ni koblakari” batekin itxi eta ezpainataratzera iritsi ez den sagardo basoa lurrean utzita badoa bertsolaria.

I.IV.IV Pedro Mari Otañoren ‘Auntza Larrera’ *La Baskonia* aldizkarian (1903)

Pedro Mari Otaño (1857-1910) bertsolariarik ezagun eta onentsuena izan zen mende artean. Bapatean ere aritu zen, baina ahots eskasa zuela eta nagusiki prentsan argitaratu zituen bertso paperek egin zuten ezagun. Bere olerki eta bertsoak biltzen zituzten ‘Zerbait’ (1895) eta ‘Alkar’ (1904) liburuek dezenteko sona izan zuen garaiko euskal kulturgileen artean, ‘Artzai mutilla’ (1906) operaren libretoa ere atondu zuen, eta euskara irakasle katedra bat ere egikaritu zuen bertako euskal diasporak eskainia.

Aurrerago ikusiko denez, Iparragirre eta Bilintxen ondotik bera izango da garaiko prentsak arretarik handiena eskainiko dion bertsolaria. Testu asko argitaratuko dira bere Ameriketako joan etorrien inguruan, eta berak ere testu asko argitaratuko ditu, nagusiki bertsoak. Bestelako testuekin ere animatuko da, ordea, salbuespen gisa, eta salbuespen horietako bat izango da 1903an Buenos Aireseko *La Baskonia* aldizkariaren 353. zenbakian argitaratu zuen ‘Auntza larrera’ ipuin laburra.

Baseri txiroko *Borda* bertsolaria eta auzoko baseri aberatseko Martolo maiorazgo lukurra dira protagonistak eta planteamendua sinplea da: bertsoan egiteari utzi eta baserriko lanetara serio lotzeko aholkatzen dio Martolok Bordari, hala egiten badu lagunduko duela aurrerantzean. Alegia, txindurria eta txitxarraren arteko kontrakotasun klasikoaren aldaera, bertsolaria txitxarra kantariarekin alderatuz:

“-Buruz azkarrak zeratelarik ¡zer umeak zeraten bersolari denak! eta zenbat eta ohea, ura ta umeago. Choriai jarraika dabillen umeak mandatuba berandu eguiten du beti, eta gueiencan gaizki. Burua bersoz beterik dabilkin guizonak maiz izango ditu esku utsak. Zerura beguira dabillanak, sarritan eguingo du estrapozu (...) Au, zuk, nik baño obeto dakizu, Borda. ¿Ezta eguia?”

Ipuina esanguratsua da, are gehiago egilea bertsolaria dela jakinda, eta are Pedro Mari Otaño bitarteko faltagatik bere sorterrira itzultzeko guraria bete ezinik hil zela gaineratzen bada:

“-¿Arrazoi otedu guizon orrek? Orain erortzen naiz kontura, eguiatz, ez dedala ezagutu bersolari aberatsik; eta lengo zarrakatik ere beti entzun izan det oso pobriak zirala. ¿Ez ote zaio Jainkuari bersorik gustatzen? ¿Edo au oteda sari bat diruaren orde ez ematen diguna? Biak eskatzea gueiegui litzake (...)”

Bordak Martolori tabernan botatako bersoaldi luzearekin bukatzen da, noski, ipuina. Ahalegindu da aholkua jarraitzen baina ez dio tristura eta nahasmendua baino ekarri; “Zure konsejuakin/burruka askotan,/naspillatu naiz joan dan/illabete ontan;/Iñon ezin bizirik/ez esna ez lotan;/ni lertuko nintzake/ez kantatzekotan”. Bertsolariari txitxarraren bizia dagokio; “Itotzeko bildurrez/uzteko urari/¿Nola esango zaio/arraiz bizkorrari?/¿Ez dadilla egaatu/uso azkarrari,/eta issildutzeko/ errechiñolari?”. Amuarrainak uretan behar du, uso eta arrainak hodeietan, otsoak sasia, satorrak lurpean, mitxirrikak argitan eta ahuntzak larrean.

Ozeanoaren beste aldean argitaratu arren⁴⁰, Otañoren ospearen eta diasporarekiko hartu emanak ongi funtzionatzen zuenaren seinale, berehala berrargitaratuko da Euskal Herrian ere, *Ibaizabal* aldizkariaren 1903ko abuztuaren 30eko zenbakian. *Euskal-Erria* aldizkarian Zamarripa y Urangak kritika ona egindo dio gutxira⁴¹ eta hurrengo urtean Otañoren lanik mardulenean, bere lanik onenak biltzen dituen ‘Alkar’ liburuan argitaratuko da.

I.IV.V Pierre Lotiren ‘Ramuncho’ *Abc* egunkarian (1906)

Honela dio 1906ko otsailaren 23ko *ABC*ren 11. orrialdeak:

“En el número de mañana, sábado, terminaremos la publicación de la novela ‘Abnegacion y Amor’. En el de pasado mañana, domingo’ empezaremos a publicar ‘Ramuncho’ novela original del insigne literato francés, Juan Viaud⁴², que firma sus trabajos con el ya universalmente conocido nombre de *Pierre Loti* (...) Esta novela no ha sido publicada aún en español (...)”⁴³

1897an argitaratu zuen ‘Ramuntcho’ Pierre Lotik⁴⁴ (1850-1923) eta ordurako idazle oso ezaguna zen. Frantziako Itsas Armadako ofiziala izanik, bizi erdia toki exotikoetara bidaiatuz igarora zuen eta testuinguru horietan oinarrituriko eleberriek sekulako sona eman zioten: Turkiako egonalditik ‘Aziyadé’ (1879), Senegalekotik ‘Le Roman d'un spahi’ (1881), Tahitikotik ‘Le Mariage de Loti’ (1882), Japonen bizi izandakoetatik ‘Madame Chrysanthème’ (1887)... Testuinguru exotikoak eta maitasun istoria erromantikoak, itxuraz autobiografikoak, ziren eleberri hauen osagai nagusi eta inpresionismoaren baitan kokatzen zen bere estiloa.

1891ean ezagutu zuen Euskal Herria, Akademia Frantseseko kide izendatu zuten urte berean (1888tik zen Goncourt Akademiako kide), Itsas Armadak Bidasoa ibaia zelatatzen zuen *Javelot* kanoiontzia bere ardurapean jartzean. Eta liluratu egin zuen euskal munduak, neurri handi batean Antoine D’Abbadieren anaia Charlesen emaztearen, Marie-Emilie-Augustine Coulomben, eskutik deskubritu zuena (Ramuntcho berari eskaintzen dio). Etxea erosi zuen bertan, euskal jazkera tradizionala bere egin zuen, pilotan jolasten ikasi zuen, eta bertako emakume batekin bi seme izan zituen.

Kontrabandista talde baten gorabeherak dira eleberriaren muina eta bertsolari batzuk, Iragola anaiak, talde horretako kide dira. Martxoaren 6an argitaratu zen bertsolaritzari protagonismorik gehien eskaintzen dion pasarte. Kontrabandisten burua bera jartzen du Lotik gai-jartzaile:

“—Vamos a ver —dijo Itchúa—, supongamos que tú, Marcos, eres un marino que quiere pasar la vida en el océano y busca en América la fortuna; tú, Joaquín, harás de labrador que prefiere no abandonar su aldea y la tierra de sus amores. Y alternando, primero uno, luego otro, discutiréis en estrofas de igual número de versos los placeres de vuestro oficio, cantándolas con la música del Hiru damatxo. Vamos, empezad.”

⁴⁰ Euskal diasporako argitalpen garrantzitsuenetariko bat izan zen *La Baskonia* (1893-1943). Pedro Mari Otañoren testu ugari argitaratu zituen, baita berari buruzkoak ere, bere itzulerarako diru bilketen edo bere euskarazko katedraren bultzatzaile nagusienetarikoa izan zelarik.

⁴¹ *Euskal-Erria*, 1903ko bigarren zenbakia, 217 or. ‘Auntza larrera/Para D. Pedro María Otaño’. De Zamarripa y Urange, P..

⁴² Julien Viaud da berez benetako izena, eta ez Juan Viaud ABCK dioen bezala. Loti ezizena, berriz, Tahitin egindako egonaldian jarri omen zion bertako erreginak.

⁴³ Otsailaren 25etik ekainaren 24ra bitartean argitaratu zituen ABCK ‘Ramuncho’-ren atalak. Eta bizpahiru egunean behin kupoiak ere ateratzen zituen azalean, kupoi guztiak biltzen zituenari liburua osatzeko tapak eskaintzen zitzaizkiolarik.

⁴⁴ Ik. Auñamendi Entziklopedia, Ainhoa Arozamenaren artikulua, helbide honetatik berreskuratua: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/viaud-julien/ar-128815/> [2018/III/27]

Deskribapen bikainak eskaintzen ditu idazle frantziarrak:

“Y los dos hermanos se miran, apenas vueltos el uno hacia el otro en el banco de encina en que se sientan; permanecen absortos un instante, durante el cual una imperceptible agitación de párpados, únicamente, revela el trabajo que hacen los cerebros (...) recuerdan, en su grave inmovilidad, los perfiles de ciertos rostros que se ven en las medallas romanas. Cantan con cierto esfuerzo de garganta, como el muecín en la mezquita, con tonalidades agudas. Cuando el uno concluye su tirada de versos, el otro, sin interrupción y sin vacilación, le responde; cada vez se animan más sus almas y se enardecen (...) Alrededor de la mesa de los contrabandistas vense ya muchas boinas. Son las de otros tantos caseros que escuchan con admiración las cosas dulces o filosóficas que los dos hermanos dicen, espontáneamente y sin abandonar las trabas de la cadencia y de la rima (...)”

Eta afizioaren nondik norakoez interesatzera ere ere iristen da:

“—Pero ¿cómo habéis aprendido eso —pregunta Ramuncho a los Iragola—, de dónde lo sacáis?

—¡Puach! —le contestó Marcos—, ya sabes que es cosa de familia. Nuestro padre y nuestro abuelo fueron improvisadores a quienes se oía con gusto en las fiestas del País Vasco, y nuestra madre era hija de un famoso «bertsolari» de Lesaca. Y todas las noches, al traer a casa los bueyes u ordeñar las vacas, nos ejercitamos en la improvisación, y lo mismo hacemos al amor de la lumbre en las noches de la invernada. Así, todos los días, y con gran placer, componemos versos sobre un tema que uno de los dos imagina...”

Bertsolaritza eta bertsolariak ez dira eleberri osoan zehar marrazten duen paisaia kostunbrista eta bukolikoaren baitako elementu bat baino. Honela, Marcos Irabola bertsolari gaztearekin, ezkondu berria, topo egin ondoren, honela dio, esaterako, pertsonaiaren psikologiaren zantzu batzuk eskainiz: “¡Que sencillos aquellos hombres y cuán naturales! ¡Eran los sabios y humildemente dichosos...! Ramuncho se separó de él (...) deseando (...) que a su camarada le acompañase la ventura en su pequeño hogar de pájaro imprevisor y sin cuidados”. Alegia, berriro ere basati onaren irudia, berriro ere basati onak gizon eskolatuari eragiten dion lilura⁴⁵.

Mende bat lehenagotik Erromantizismoaren joera garrantzitsu gisa gorpuztu zen izpiritu abenturazale eta bidaiaria, urruneko lurraldeetako exotismoaren eta primitibismoaren peskizian mugitzen zena, maisutasunez eraman zuen literaturara Pierre Lotik XIX. mende amaieran. Eta Erromantizismoak bigarren bulkada batean joera horri ekarri zion garapena, exotismo eta primitibismo hori gertuko⁴⁶ nekazal gizarteetan eta euren kultura popularrean deskubritzea ere beste hainbesteko arrakastaz eleberriratu ahal izan zuen ‘Ramuntcho’rekin.

Garai berean egina zuen bertako kleroak, aipatu diren hainbat arrazoirengatik, nolabaiteko euskal ruralismo hori izozturik kontserbatzeko apustua, eta apustu honek literatura arloan Mogelen ‘Peru Abarka’rekin euskal kostunbrismoaren lehen zirriborro bat ekarria zuen. Intelektual foruzaleak eta euren literatura ere oso hurbil zebiltzan lurralde hauetatik, eta ‘Ramuntcho’ argitaratu zenean bere lehen pausoak ematen ari zen euskal abertzaletasunak ere

⁴⁵ Honela dio Gabilondok: “In short, Loti turns Basque people into subaltern subjects: natural objects for the contemplation and amusement of the foreign French tourist” (2016: 205).

⁴⁶ Rochefortekoa zen Loti, Bordeletik 150 kilometro eskasera. Bere bizitzako azken hamarkadak Euskal Herrian bizitzen egin zituen denborarik gehienez, eta bertan hil zen.

euskal identitatearen erdigunean jarri zuen irudikapen hau. Beste hainbeste gertatzen da Lotiren garaikidea zen Txomin Agirrek euskarazko eleberrigintzan emaniko lehen urratsekin.

Ez zuen, beraz, ezer berririk asmatu idazle frantziarrak. Baina Lotiren ‘Ramuntcho’k, Euskal Herritik kanpora beste maila bateko oihartzun bat emango dio honi guztiari. Honela, eleberraren hainbat berrargitalpen egin ziren hurrengo hamarkadetan, nagusiki Frantzian eta Espainian, eta baita opera bat (Gabriel Piernéren ‘Ramuntcho, 1908) eta hiru filma (Jacques de Baroncellirena, Frantzia, mutua, 1919; René Barberisena, Frantzia, 1938; eta Pierre Schoendoerfferrena, Frantzia, 1958; hiruak ere ‘Ramuntcho’ izenburuarekin) estreinatu ere. Oihartzun honek atzerriko begiradan oso luze finkatuta geldituko zen euskal kulturaren irudikapenari literatur erreferente garrantzitsu bat eman zion⁴⁷.

Apalategik azaltzen du Lotiren lanak izan zuen hedadura:

“Loti universaliza el tema vasco, lo convierte en tema literario legítimo. La obra Ramuntcho se convierte en un tema de conversación que le permite al ciudadano vasco del final del siglo XIX y de principios del siglo XX conversar acerca de lo vasco con cualquier persona del mundo dotado de un bagaje literario normal para la época.” (2013: 607)

Eta Gabilondok honen eraginak izan duen jarraitasuna: “His most successful novel, Ramuntcho (Little Raymond, 1897) became the epitome of the new tourist representation of the Basque Country, one that has marked the northern Basque Country until our days” (2016: 201).

Jada aipatu da euskal irudikapenaren orientalizioan bertakoek nahiz atzerritarrek hartutako parte. Gabilondok Loti orientalizio horren erakusle argienetariko bat dela dio, euskal irudien eta Ekialdekoen arteko alderaketa literal mordo bat seinalatuz: “In this way, Basque churches become mosques, women sing Spanish songs impregnated with Arab tones, Basque language is compared to Mongolian or Sanskrit, and tolling the church bells is equated to the muezzins’ singing” (2016: 201). Hala ere bertsolariena da deigarrien suertatzen zaion alderaketa: “Perhaps the most striking comparison is that of Basque improvisational poets or bertsolaris with Muslim muezzins (...)” (id, 201).

Apalategi ere ez dabil kontu hauetatik oso urrun: “La cultura francesa es el sujeto que examina el objeto regional y le aplica el método costumbrista, creando la categoría cultural del exotismo interior” (2013: 606). Eta Gabilondok Peru Abarkako Maisu Jaunengan ikusten duen bikoizketa bera ikusten du Ramuntxorengan:

“(...) presenta la particularidad de ser el hijo de un padre extranjero al país. Esto lo dota de un alma doble – idea que, por cierto, en los años sesenta del siglo XX Jorge Oteiza va a conceptualizar para definir la situación identitaria vasca moderna (...) Es un personaje que siente el país como nadie, pero que al mismo tiempo lo ve desde el exterior (...)” (id, 607)

⁴⁷ Filmeetan, arakatu ahal izan deneraino behintzat, ez da bertsolaririk agertzen. Ez da harritzekoa, trama nagusian ez bertsolaritzak ez baitu inongo garrantziarik. Eleberrian, filmea baino askoz ere luze eta xeheagoa, aipaturiko bertso saioaz gain beste saio bat baino ez da jasotzen. Pilota partidu baten ondoren egiten dute saioa berriro ere Irabola anaiek, baina aurrekoa baino askoz ere modu arinagoan azaltzen da. ABCn 1906ko martxoaren 9an dago argitaratua.

II. ERANSKINA: TESTUEN HISTORIKOEN BIGARREN BILDUMA IRUZKINDUA

II.I EMAKUME BERTSOLARIAK PRENTSA HISTORIKOAN

Bertsolaritzaz 1823tik 1979ra bildu ahal izan diren 4159 testuetatik 24 dira emakume bertsolarien aipamenen bat egiten dutenak. Alegia, bildutakoaren %0,6a.

Topa daitezkeen erreferentzia apur horien analisisa tesian jorratu den bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren ziklo ezberdinetan sakabanaturik burutuko bagenu, ez liguke ezertarako emango, baina ikerketa alorra interesgarria dela deritzogu, azken urteotan emakume bertsolarien historia berreskuratzeke hainbat dei eta ahalegin egin baitira. Horregatik erabaki da bildu ahal izan dena ziklo ezberdinen baitan beharrean aparteko gai bat bezala eranskin honetan aztertzea.

Ikerketa lerro hau ireki zuen Carmen Larrañagak 1997an Eusko Ikaskuntzaren *Jentilbaratz* aldizkarian argitaratu zuen artikuluak ‘Del bertsolarismo silenciado’ darama izenburutzat. Horixe da emakumeen bertsolaritzaren ezaugarri historiko nagusia: isilarazia izan da mendeetan zehar. Eta burutu den ikerketak subalternitate horren zantzu esanguratsua eskaintzen du, aipaturiko %0,6eko presentzia hori. Emakumeei ez zitzairen tokirik egiten plazetan, eremu pribatuan, etxeko bilkuretan edo gisakoetan, bakarrik egin ahalko zuten bertsotan, eta prentsarekin ere, plazarik publikoena izanik, beste hainbeste gertatuko da.

Bildutako 24 testuko sorta horrek, ordea, isiltasunari urraturen bat egiteko modua eskaintzen duelakoan gaude. Jaso diren kontu gehienak ezagutzera emanak ziren dagoeneko. Beste batzuk, aldiz, ekarpen berriak dira. Esaterako, pixkanaka osatzen ari den emakume bertsolarien historia horretan gaurdaino ezezaguna zen izen bat: Manuela Frantziska Zubiaurre.

II.I.I Manuela Zubiaurre *Bertsolari* (1837-1916)

1935eko urtarrilaren 20an jokatu zen egungo txapelketa formatua estreinatu zuen Lehen Bertsolari Gudua. Jose Ariztimuño *Aitzolen* Euskaltzaleak Elkarteak eta Donostiako Euzko Gaztedik antolatu zuten lehen txapelketa hura, Lehen Euskal Pizkundearen bigarren olatua, abertzaletasun jeltzaleak harroturikoa, bere gorenean zela. Antolatzaileek, hedabideek bitartekari sozial gisa zuten garrantziaren jakitun, ahalegin berezia egin zuten txapelketaren komunikazioan, eta oihartzun polita lortu zuten garaiko prentsan: urtarrilaren 20 hartan bertan lehen orrian zekarten albistea *Argia* aldizkariak eta *El Día* nahiz *Euzkadi* egunkariek.

Argiaren azal horretan ageri da izenburutzat ‘Doña Manuela bertsolari’ daraman testua. Antonio Maria Labayenek sinatzen du, urtebete lehenago Tolosako alkate aukeratua izan zen EAJko politikari eta idazleak, eta honela ekiten dio testuari: “Ogeitamar urtetik gorako tolosarrak gure txikitan ezagutu gendun Doña Manuela *Bertsolari* zeritzen etxe oneko andre bat: Konfiteri bateko etxeokandrea zan”.

Mende hasieran *Bertsolari* izengoitiaz ezagutzen zen emakume hura bertsolaria izan ote zen galdetzen hasita, ordea, ezezkoarekin egiten du topo: “(...) ni baño zarragoai galdetu izan diet ea inoiz Doña Manuela ura bertsotan ari zala entzun izan zien; edota beste norbaitek ikusita entzute ori ote zuten. Ezetz erantzun didate, ‘bertsolarinekoak’ etxe artan bizi ziranak artzen zuten izengoitia omen zan (...)”. Eta ez da datu gehiago eskaintzen emakumearen inguruan, baina bai oroitzapen gozoa: “Doña Manuela *Bertsolari* lantegitik ekartzen zizkioten jan-kutizi eta ore usai gozodunen artean an egoten zan eserita (...) Gu berriz, mutil koskorrak, kale artatik pasatzerakoan beti gelditzen giñan leioko kristalari sudura pega-pega eginda, begi-luze

kremazko pastelai begiratuaz...”. Azkenik, testua emakume bertsolarien aldarri batekin amaitzeko: “(...) bertsolariak goratzeko gertu duten egun ontan, Doña Manuela *Bersolari* aitatu gabe ezin utzi zitekeela iruditu zait. Hainbeste bertsolari gizezkoen artean, andre baten izena bederik”.

Labayen ez zen edonor, ordurako idazle eta batez ere antzerkigile gisa ibilbide garrantzitsu bat egina zuen, gerora Euskaltzain ere izango zen, eta pentsa daiteke sinadura kultu baten sentsibilitate bereziari esker emango zela plantemandu hori. Ez da, ordea, emakume bertsolariei egun haietan emakume bertsolariei egiten zaien erreferentzia bakarra.

Bigarren aipamena Joseba Zubimendik dakar. 1934ko abenduaren 23an *Argian* lehen orriko albiste nagusi gisa jasotzen den ‘Bertsolariak bear ditugu’ artikuluan, txapelketan parte hartzeko deia egiten zaie bertsolariei, eta beste emakumezko bertsolari bati egiten zaio erreferentzia bertan, Manuelari buruz jasotakoak baino are soilagoa den arren: “Etorri errezeko bertsolari asko izan ditugu. Baita emakumezkoetan ere. An dago Ormaiztegi’ko baserri batean amonaxo bat, iñongo gizaseme bertsolariri barkatuko ez liokeena”.

Badirudi, beraz, gerraurreko eragile haien artean, gaiarekiko nolabaiteko sentsibilitate bat egon zitekeela. 1922an sorturiko Emakume Abertzale Batzak indar handia zuen 1930eko hamarkadaren erdialde hartarako eta izan liteke emakume haien eraginaren zantzu bat izatea.

Lau hamarkada beranduago argitaraturiko prentsako testu batean egingo dugu topo berriro Manuela izeneko tolosar batekin. *La Voz de España*k 1977ko ekainaren 7an dakarren artikulua Iñaki Linazasorok sinatzen du, eta estilo indartsuarekin jorratzen du istorioa, titularretik hasita: ‘Amores y desengaños de Jose Mari Iparragirre/Manuela Zubiaurre, le dijo: ‘Ez’...’.

Kazetariak Iparragirrerren biografiako pasarte ezezagun bat deskubritu duela dio, ‘Zugana Manuela’⁴⁸ bertso sorta famatua Manuela Zubiaurre tolosarrari eskainia dela, 1850eko hamarraldian neska ezagutu, hartaz maitemindu eta honek jaramonik ez ziola egiten ikusi ondoren sortua.

Gerora Jose Antonio Arana Martijak birritan (1983a: 102 eta 1983b: 126) berretsi du hipotesi bera, Zubiaurre 1837an jaio eta 1916an hil zela gaineratuz eta Iparragirre eta biek elkar ezagutu zuten urteak 1854a edo 1855a behar zuela seinatuz. Agirre eta Olasok ere aipatzen dituzte Manuelaren kalabazak (1999: 96) bertsoen sorburu gisa eta baita Juan San Martinek ere. Azken honek informazioa Fernando Artola *Bordarirengandik* jaso duela zehazten du eta Manuelaren izen osoa Manuela Frantziska dela argitu.

Iñaki Linazasorok egile hauek erreparatu ez dioten datu bat dakar, ordea, bere artikuluan:

“(...) conoció a una beldad tolosana llamada Manuela Zubiaurre, una de las pocas bersolaris femeninas que hemos tenido”. Eta tolosarraren biloben testigantza bidez berresten du emakumearen bertsotarako gaitasuna: “Escribía, imprimía y repartía entre sus amistades los ‘bertso paperak’. Con frecuencia improvisaba pareados, cuartetos y versos en la improvisación normal. Esta afición parece que ya lo cultivaba a sus dieciocho o veinte primaveras cuando dejó hecho un colador a Jose Mari”.

⁴⁸ Bost bertsoak osaturiko sorta da. Hona lehenengo biak: 1) Zugana, Manuela/ Nuanian pensatu/ Uste det ninduala/ Deabruak tentatu./ Ikusi beziñ ekiñ/ Naiz enamoratu/ Ojala ez baziñan/ Sekulan agertu. 2) Amorioz beterik/ Esperantza gabe,/ Zergatik egin ziñan/ Biotz onen jabe,/ Zuk esan biar zenduben/ Emendikan alde/ Egiyaz ez naiz ni/ Bizar dunen zale.

Soslai bat ere eskaintzen da: “Lola y Merche pincelan a su abuela como mujer de mucha vitalidad, jovial, cariñosa y simpática. Físicamente tenía los ojos claros, la nariz respingona (...) recibía con ilusión las fechas del carnaval tolosarra (...)”. Eta ‘Zugana Manuela’ ez ezik Iparragirreraren ‘Ume eder bati’ bertso sorta ere berari eskaini ote zion iradokitzen da: “Mis simpáticas interlocutoras suponen (...) el bohemio enamorado le dedicó ‘Nere maitiarentzat’, canción conocida como ‘Ume eder bat’ porque la primera vez que se vieron ambos fue en San Sebastián”⁴⁹.

Tolosarraren bertsorik ez zaie iritsi bilobei, baina nork eraman zituen badakite: “(...) he podido constatar que los ‘Bertso Paperak’, cartas y demás documentos se los regaló a don Pepe Azcue Zabala-Anchietta, médico tolosano que atendió a la octogenaria abuela en sus últimos achaques. ¿No se podrían encontrar estas reliquias?”. Mende hasieran eskuz aldaturiko bertso paper horien arrasto berririk ez zuen inork topatuko, ordea, ezta, tolosarra izan arren, Antonio Zavalak berak ere.

Artikuluak bertsolariaren argazkia badakar behintzat, Arana Martijak aipatzen dituen jaiotze eta heriotza data berak eskaintzen ditu (1837-1916) eta baita Labayenen artikuluekiko lotura gisa balio duen xehetasuna ere: “(...) ella casó en Tolosa con Vicente Arregui, titular de una pastelería”.

Antonio Maria Labayenek umetan gozotegian ezagutu zuen Doña Manuela Frantziska Zubiaurre da, bada, *Bersolari* izengoitia ez zetorkion, honi esan zioten bezala, sendiarengandik, tolosarra bertsolaria zelako baizik.

Joxepa Matea Zubeldia hil zenean bere alabek bere bertso paper guztiak erre zituztela kontatzen du Eizagirrek (2014: 13). Manuela bertsolaria ote zen galdetu zuenean Labayeni eman zioten ezezkoak ere jite berekoa dirudi: garaiko pentsaeraren arabera emakume bat bertsolaria izatea lotsagarria zenez, ingurukoek tapatu, isilarazi egiten zituzten.

Gutxieneko biografia eta soslai batekin ezagutzen den emakume bertsolari zaharrenetako bat litzateke Zubiaurre, zaharrena ez bada.

II.I.II Emakumeak lehen kronikan eta elkarrizketen lehen aurrekarian

Aurreko eranskinean azaldu da⁵⁰ prentsan argitaraturiko historiako lehen bertso kronika Julien Vinsonen 1870ean *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* aldizkarian argitaratu zuen ‘Concours de Poésie Basque a Sare en 1869’ testuak jasotzen duena dela. Eta bertan Maria Luixa Erdozio bertsolari azkaindarra dela protagonista nagusienetako bat. Aipatu da baita emakume bertsolari hark 1869ko Lore Jokoetako lehen saria irabazi zuela bat-batekoan Ibarat jatsuarrekin erdi bana, eta Vinson dezente harritu zuela emakume bat plazan bertsoan ikusteak. Gaineratu behar da Erdoziok (1846-1925), Iparraldean ezagutzen den bat-bateko emakume bertsolari antzinakoenak, berriro ere lehen saria irabaziko zuela 1875eko Sarako Lore Jokoetan eta hirugarrena 1884ean. Beraz, bertsolaria ez ezik puntako bertsolaria ere izan zela esan daiteke, gutxienez hamabost urtetako bertso ibilbidea egindakoa.

⁴⁹ Bertsoei erreparatuta loturaren bat iradoki daiteke. ‘Zugana Manuela’-ren azken bertsoak honela dio: Gabian ibilli naiz/ Guzizko ametsetan/ Donostian nengoela/ Andre Marietan;/ Eta ikusi nubela/ Erri artako plazan/ Erdiyan zebilela/ Manuela-txo dantzan. ‘Ume eder bati’-ko lehenengoak, aldiz, honela: Ume eder bat ikusi nuen Donostiako kalean./ hitz erditxo bat hari esan gabe nola pasatu parean?/ Gorputza zuan liraina eta oinak zebiltzan airean.../ Politagorik ez det ikusi nere begien aurrean. Eta bigarrenak: Aingeru zuri paregabea, Euskal Herriko alaba,/ usterik gabe zugana beti nere bihotzak narama:/ ikusi nahian beti hor nabil nere maitea, hau lana!.../ Zoratutikan hemen naukazu beti pentsatzen zugana.

⁵⁰ Ik. I.VI.I lehenengo: Vinsonen *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* aldizkarian, frantsesez (1870)

Emakume bertsolari baten jarduna jasotzen zuen kronika hau hamarkada bat aurreratu zitzaion bertso kronikak genero bezala izan zuen lehen garapenari. Bertsolariei eginiko elkarrizketekin ere berdin gertatuko da: generoa garatzen hasi baino askoz lehenagoko testu bat topatu da aurrekari goiztiartzat har daitekeena eta beste emakume bertsolari bat protagonista duena.

Basarri eta Txirritari egingo zaizkien lehen elkarrizketak baino 40 urte lehenago Marie Abbadiek Parisko *La Femme* aldizkarian 1896eko urtarrilaren 15ean argitaraturiko ‘La femme dans le Pays Basque’ artikulua ari gara. Euskal emakumeari buruzko lan luze honen baitan Marie Hargain eta Aña Etxegarairen arteko bertso-saioaren kronika jasotzen da, eta kronika osatzeko azken honekin izandako galde-erantzun sorta laburra txertatu:

“(…) lorsque Marie Argain et Anna Etchegoyen concoururent ensemble, elles remportèrent un véritable succès; à la plus grande joie des auditeurs, elles se disputèrent et s'emportèrent l'une contre l'autre, la lutte fut des plus animées Anna Etchegoyen fut couverte d'applaudissements. «Qu'avez-vous fait quand vous avez entendu qu'on vous applaudissait ? — J'ai fait bonjour avec la tête. — Et vous n'étiez pas intimidée ? — Oui, un peu en commençant, puis j'ai oublié d'avoir peur. » Tout cela très simplement dit, avec un éclair de fierté dans les yeux. « Après vous être disputées, vous ne vous en êtes pas voulu, Marie Argain et vous ? — Oh ! que non. Aussitôt que nous avons eu terminé notre dispute, nous n'avons plus été en colère et nous sommes redevenues bonnes amies comme auparavant. — Comment vous habillez-vous pour vous présenter en public ? — Nous mettons nos vêtements habituels, nous sommes comme toujours. M. le curé est là qui nous regarde et nous écoute; nous ne voudrions pas être remarquées et grondées.”⁵¹

Testu hau benetako harribitxia dela esan daiteke, garaiko prentsak elkarrizketetan ahots subalternoei tokia egitea erabat ezohikoa bait zen; eta garai hartan gizonezko bertsolariarena figura subalternoa bazen, emakumezkoarena zer esanik ez⁵².

Sinadurari erreparatu beharko zaio gertaturikoa ulertzeko, Marie Abbadie, Marie Emilie Augustine Coulomb (1837-1913) jaiotzez, militante feminista bat izan baitzen. Parisko familia aberats batean jaioa, Lore Jokoak sortu zituen Antoine Abbadieren anaia gazteenarekin, Charles Abbadierekin, ezkondu eta koinatuari erosi zion Baigorriko Etxauzia jauregian jarri zen bizitzen. Esan bezala, militante feminista bat izan zen, bai Frantzia mailan, Conseil National des Femmes Françaises erakundeko kide gisa eta bai nazioarte mailan, Congrès Internationales des Oeuvres Féminines delakoan parte hartuz. Eta euskal kulturarekiko ere interesa erakutsi zuen, Pierre Lotik ‘Ramuncho’ eleberri sonatua eskaini ziolarik Euskal Herriaren ezagutzan eskainiriko funtsezko laguntzagatik.

Bi bokazioak batu zituen *La Femme* aldizkarian argitaratu zuen artikulua sortan, euskal ohituen eta euskal emakumearen inguruko azalpenak uztartuz. Izatez, bertsolaritza bigarren artikulua batean ere aipatuko du, eta Etxegarai hirugarren batean ere ageri da euskal sehaska kanta baten iturri gisa.⁵³

⁵¹ Ik. Itzulpena III.XI azpipuntuan.

⁵² Ik. 5.4.4 Bertsolariei eginiko lehen elkarrizketak

⁵³ Aña Etxegarai 1897ko apirilaren 1eko zenbakian ageri da berriro, izenburutzat ‘Variétés/L’Enfant dans le Pays Basque’ daraman artikuluan, sehaska kanta baten iturri gisa, eta bertsolaritzari erreferentzia egiten zaio baita izenburu berarekin urte bereko martxoaren 15ean argitaraturiko artikuluan.

Etxegarairen elkarrizketa laburra eskaintzen duen artikuluan⁵⁴ askoz gehiago ere badakar Coulombek. Bi bertsolarien deskribapena egiten du, bakoitzaren adina, ogibidea, ikasketa maila, itxura fisikoa eta abar azalduaz. Eta emakume bertsolarien saioak normalizatzeko aldarria ere egiten du: “Pour assister aux improvisations, les habitants de la contrée arrivent par centaines ; la place est comble : les prêtres, les juges de paix, les maires, les grands propriétaires se mêlent à la foule. Tout se passe avec une extrême convenance ; la mise en scène ne manque pas d'une certaine solennité. Les concurrents récitent leurs vers sur une sorte de mélodie, leurs images, leurs expressions conservent en général le respect des convenances, et il est bien exceptionnel qu'on entende une plaisanterie déplacée ou un mot risqué. Il n'y a donc rien de choquant que des femmes prennent part à des jeux d'aussi bonne compagnie. C'est avant tout un divertissement national que les autorités civiles et religieuses se sentent tenues à consacrer par leur présence.”⁵⁵

Testu hau ulertzeko gakoak sinadurak ematen dizkigun bezala, isilarazitako emakume bertsolarien arazoa ere sinaduren generoaren datuak ere argitzen du neurri handi batean: 1823tik 1979ra prentsan bertsolaritzaz topatu diren 506 sinaduratatik 20 baino ez dira emakumeenak, alegia, %4 bat (horietatik lau bakarrik 1968 baino lehenago argitaratuak)⁵⁶.

II.I.III Lore Jokoetako normaltasuna ñabartuz

Vinsonen kronikan azaltzen den Maria Luixa Erdozio bezala puntako bertsolariak izan ziren Marie Abbadieren artikulua aipatzen dituen Lekorneko Aña Etxegarai (1873-1939) eta Marie Hargain (1860-1925) ezpeletarra. Etxegarai Kanbon 1894ean jokatu ziren Lore Jokoak irabazi zituen eta hirugarren saria eskuratu zuen 1896an; Hargainek, berriz, 1888an Kanbon nahiz 1895ean Ezpeletan lehen saria irabazi zuen, 1896an eta 1907an Kanbon hirugarren saria, eta 1894ean Hazparnen laugarren saria.

Elkarrekin aritu ohi ziren askotan, ibilbide luzekoak izan ziren bat-batekoan, bertso-jarriak ere sortu zituzten eta hainbat arrasto utzi zituzten garaiko prentsan. Honela, *L' Avenir* egunkariak 1894ko Jokoen kronikan Aña Etxegarai (Marie jartzen diote izena kasu honetan) bertsolari aparta dela dio (“Mlle Marie Etchegaray s'est révélée à Hasparren comme une improvisatrice hors ligne”), 1895ekoez *Euskal-Erria* aldizkariak eskaintzen duen testuan Hargainek erantzun egokia topatzeko dohain gairdiezina (“qui possède au plus haut point le don de la riposte heureuse”) eta arerioak poltsikoratzeko gaitasuna dituela (“Son dernier mot est toujours un écrasement pour son adversaire”), edota 1896koan garaitezintzat jotzen du (“l'invincible Marie Argain”), Etxegarai eta bien ironia nahiz buru-argitasuna azpimarratuz (“Ces deux femmes sont tour à tour spirituelles et ironiques”).⁵⁷

Eskualdunak 1894ko irailaren 21ean ‘Hasparren’ izenburuarekin argitaraturiko testua izan daiteke, Abbadierenaren ondotik, gehien luzatzen dena. Etxegarairi *Deabruaren Alaba* deitzen diotela ere seinatzen du: “Lehenbizikoa neskatcha gazte, 16 edo 17 urteko batek irabazi du

⁵⁴ Buenos Aireseko *La Baskonia* aldizkarian ere argitaratu zen pasarte honen gaztelarazko bertsioa: 1915/V/30. *La Baskonia*, 373-374 or.. ‘Dos improvisadoras’. Abbadie, M..

⁵⁵ Ik. III.XI itzulpena.

⁵⁶ Marie Abbadie, Juliana Arrizabalaga, Olga Ohlson eta Mercedes Egidazu dira 1968a baina lehen agertzen diren lauak. Zerrenda honakoek osatzen dute: Itziar Bikendi, Arantza Lasa, Lurdes Akesolo, Noelia Garcia Tombela, Mari Paz Zendoia, Maria Francisca Fernández Vallés, Emma Fernandez del Pino, Puri San Martin, Puri Gutiérrez, Beatriz Iraburu, Mariasun Landa, Maite Idirin, Perpetua Saragüeta, Elixabete Garmendia eta Ana Etxaide.

⁵⁷ Hauek dira erreferentzia zehatzak: *L' Avenir des Pyrénées et des Landes*, 1894/IX/22, ‘Fêtes d’Hasparren’; *Euskal-Erria*, 1895/VII, 278 or., ‘Jeux Floraux a Espelette’; *Euskal-Erria*, 1896/VII, 201 or., ‘Jeux Floraux a Cambo’.

(...) – Nola deitzen da? –Debrusa (...) Debruaren eta Debrusaren alaba zela zioten han haren herritarrek (...)”. Eta bi emakumeen arteko buruz-burukoa kontatzen du:

“Emazteki baten orde biga bagintuen hanchet, bat bertzea bezen erne, eta bieki mihia zalhu. Bigarrena Camboarra omen zen, berak erran duen bezala, haurrak etchen utzirik ethorria, kopla-primaren irabaztera (...) Buruz-buru ederki arizan dire, bat laborantzaren alde, bertzea zapataintzaren alde; zapatainak garhaitu du laboraria; ez errechki, baina garhaitu (...)”.

Hiru bertsolariok lorturiko sariak eta prentsan izandako oihartzuna ikusirik, XIX. mendearen amaiera aldera, eta Iparraldeko Lore Jokoetan nolabait emakume bertsolarien presentzia normalizatu bat eman zela suma liteke: “Antzeman daitekeenagatik, emakume bertsolarien parte-hartzea ohikoa zen, onartua, ez dirudi arraroa zenik gizon-emakumeek bertsoan egitea, ezta arrotz sentitzen zirenik ere eurentzat egunerokotasunean ohikoa zena egiten” (Lasarte, Alvarez Uria et al., 2016: 53-54). Normalizazio hori ñabartu beharra dago, ordea, Erdozio, Etxegarai eta Hargainen bertsoak goratzen duten testu hauetatik hasita. Honela, Eskualdunako testuak, esaterako, buruz-burukoan biak ederki ibili zirela azaldu ondoren, Etxegarairen, emakume baten, garaipenaren inguruko zalantzak mahaigaineratzen ditu: “Gero gizonkiak ere baziren; hetarik batek ereman du hirugarren prima, ‘zuhurtziak’ ederki mintzaturik. Zenbaiten gogora hari behar zioketen eman lehenbiziko prima. Bainan gizonak baitziren juje, beldurtu othe dire behaizkiak aphaltzen zituztela emazteak adi? Ez dakigu”. Edota *L’Avenir*reko kronistak ere aitortzen du emakume bertsolariaren nagusitasuna, baina ‘sexu ahularen’ garaipenak eragin dion harridura azpimarratuz: “Le concours d’improvisation basque nous ménageait une véritable surprise. Jusqu’a ce jour, le sexe fort avait seul l’apanage de ce genre littéraire; mais il est maintenant distancé par le sexe faible, qui monte sur les planches et improvise supérieurement”.⁵⁸ Kronista hauentzat behintzat, ez zen oso ‘normala’ emakume bertsolarien parte hartzea.

Badira garai hartan ere nagusi zen matxismoa modu gordinagoan azaleratzen duten testuak ere. Lore Jokoen inguruan topa daitekeen lehen testu luzeak, *Le Messenger de Bayonne* egunkariak 1853ko irailaren 13an eta 15ean ‘Variétés/Rapport sur le concours d’Urrugne’ izenburuarekin argitaratua, emakume bertsolari baten parte hartzea⁵⁹ bitxikeriatzat hartzen du, kartzelan idatzitako bertso jarriak aurkeztu dituen preso baten parte hartzearekin batera, emakume bertsolarien ertzekotasuna markatu nahian: “Un prisonnier vous a présenté cinquante strophes, où il semble vouloir, par la longueur de son chant, consoler les longues heures de ses ennuis: une femme est entrée en lice d’une façon toute virile, et non sans honneur”. Alderdi positibo gisa emakumea ‘gizontasunez’ eta ‘ohorez’ portatu dela azpimarratu ondoren, bertsoan gaizki egin duela dio, irabazi izan balu ere garaikur gisa ematen zen aginte makilarekin zer egin ez zuela jakingo (emakumea delako, suposatzen da) esanez errematatzeke: “car n’eussent été un langage basque trop parsemé de termes étrangers et une répétition de rimes trop monotone, vous n’auriez pas craint de remettre le redoutable bâton basque à des mains qui sans doute en ignorent l’emploi”.⁶⁰

Edota, Webster Wentworthek matxismo hori kronistez haratago ere ematen zela erakusten du 1882an Cornhill Magazine aldizkariaren 46. Zenbakian argitaratzen duen ‘Festival among the

⁵⁸ Ik. III.XII itzulpena.

⁵⁹ Vinsonen kronikan, ikusi denez, lehen urteetako Lore Jokoetan Hondarribiko emakume bertsolari batek parte hartu izanaren entzutea aipatzen da. Baliteke *Le Messager*ren testuan aipatzen den emakume hau bera izatea. Bestalde, Bertsolariaren Datu Basearen arabera Bilintxen bertsoetan aipatzen den ‘Hondarribiako Joxepa’ ere pertsona bera izan liteke. Ik BDB: <http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/1150-hondarribiko-joxepa>

⁶⁰ Ik. III.XII itzulpena.

Basques' artikuluan. Pello Errota garaile aterako den saio baten kronika luzea da testua eta emakume bertsolari bat gainerako bertsolariek bezala hitanoan beharrean zuka eginez abestera nola behartu zen kontatzen da bertan:

“On one occasion a girl appeared among the candidates at Sare, and hear, advocates of women's rights was at once unfairly handicapped by the jury, and ordered to compose in the familiar " thou " conjugation instead of the ordinary "you" form. She did it fairly well, but failed to obtain a prize”⁶¹.

Egoera Iparraldean hori baldin bazen, Hegoaldean eskasagoa zen. Urte haietan Hegoaldean ere ospatzen ziren Lore Jokoak eta saritutako emakume bakarraren erreferentzia topatu da, 1899ko Zumarragako Lore Jokoetan lehen saria Joxepa Inazi Azkunerri eman zitzaiola dioena⁶². Gainera honen inongo aipamenik ez dute egiten garaiko kronikek⁶³. Izatez, pare bat testu baino ez dira topatu garai honetan prentsan Hegoaldeko emakume bertsolariei buruz zerbait esaten dutenak. Batetik, Argentinako euskal diasporaren *La Baskonia* aldizkariak 1906ko abuztuaren 30ean argitaratu zuen ‘Amezketako jolasak’ artikulua. Emakume batek, Juliana Agirrezabalagak, sinatzen du eta Amezketako jaietan Vissenta izeneko panderojoleak eskainiriko kopia saioa aipatzen da bertan. Bestetik, 1902an Enrike Elizetxeak neska-zaharrei jarri zizkien bertsoak zirela eta Joxepa Antoni Aranberrik honekin eta jarraian ‘Kajista’ bezala sinatzen duen bigarren gizaseme batekin bertso jarrien bidez izandako polemika famatuan, Elizetxeak Aranberriren Xenpelarren iloba dela nabari zaiola aitortzen dion testua: “Ederki daude Joshepa Antoni eta milla ezker *Ibaizabalen* izenean. Progatu dezun berso abekin aurrekoan ondorengo zerala” (*Ibaizabal*, 1902/IV/11, 1 or., ‘Neskazarrari’, Enrike Elizetxea).

Ez dago gehiago.

Beraz, iradoki daiteke Erdoziok, Etxegaraik eta Hargainek plazan bere tokia lortu bazuten, ez zela izan Iparraldeko Lore Jokoetan emakume bertsolariekiko sentsibilitate normalizatuago bat ematen zelako, bertsolari onak eta emakume ausartak izan zirelako baizik.

II.I.IV Mariasun Landaren ‘Emakume bertsolari batekin elkarrizketan’ *Anaitasuna* (1978)

XIX. mende bukaeran salbuespena baziren, XX. mendean desagertu egingo ziren. Gerraurreko Pizkundean Labayen eta Zubimendiren aipamenez haratago ez da apenas beste aipamenik. Eta Frankismoak ez du isiltasun hau loditu baino egingo.

Diktaduraren urterik gordinenetan Iñaki Eizmendi *Basarriren* testu bat izango da emakume bertsolarien inguruan prentsan topa daitekeen bakarra. Alde batetik logikoa ere bada *Basarriren* sinadura, bera baita, alde handiarekin gainera, Frankismo garaian prentsan bertsolaritzari buruz gehien argitaratu zuena. Deigarria ere suertatzen da, ordea, Inaxi Etxaberen erantzuna izan zuten bertso jarriek erakusten duten bezala⁶⁴, zarauztarra ez baitzen emakumeen aurrerapenen oso lagun. Edozein modutan ‘Triunfo de las mujeres bertsolaris’ jarri

⁶¹ Ik. III.XII itzulpena baita.

⁶² Ik. BDBn. <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/4559-joxepa-inazi-azkune>.

⁶³ Topatu den kronikarik luzeenak Antonio Arzakek *Euskal-Erria* aldizkariaren urte hartako bigarren zenbakian ‘Fiestas euskaras de Zumarraga’ izenburuarekin argitaraturikoak *Txirrita*, *Pello Errota*, *Regino* eta *Otaño* aipatzen ditu Lore Joko haietan parte hartu zuten bertsolarien kartel gisa.

⁶⁴ ‘Aitonaren malkoak’ bertso sortan hauek dira azken biak: 5) Nobelak ondo irakurrita/ gabez zinetara irten/ Guraso zarrak negar egiñez/ sutondoan itxogiten./ Beren izkuntza bajutzat bota./ ta beste bat itzegiten./ Noizbait ezkondu, ta... asitakoan/ etxeke lanak egiten.../ Sua nolatan pizten dan ere/ askok ez dute jakiten. 6) Musu, betazal, ta gañontzeko/ margo ta autsez beteak./ Apainduri ta lujoz aberats./ eta maian arloteak./ Etxean falta izaten dira/ kanpora errez boteak./ Zorigaitzeko aundinai orrek/ ekarri ditun kalteak./ Egun onenak ikusi zitun/ gure Gipuzko maiteak!.

zion izenburua 1956ko urriaren 17an *La Voz de España*n argitaratu zuen artikuluari eta Arantzazuko frantziskotarrek antolaturiko bertso-jarrien lehiaketa baten berri eman zuen, gai bezala Ama Birginaren gorazarrea jarrita sariak bi emakumeri eman zitzaizkiela azalduaz:

“Examinados con todo detenimiento los trabajos de los nueve concursantes por el jurado clasificador, constituido por el Reverendo Padre Carmelo Hurria y el que esto escribe, coincidiendo exactamente en nuestras apreciaciones, acordamos conceder el primer premio de 500 pesetas a la señorita Ignacia Echave, de Oiquina, y mención honorífica a la producción de Sor Maria Ascensión Aldalur del convento de las Clarisas de Zarauz.”

Badirudi txapeladuna poztu egiten dela emakumeen garaipen honekin, jarraian bertsolari hauen bazterkeria matxista naturalizatu egiten duen arren: “Como apreciarán nuestros lectores, ha sido un pleno triunfo femenino. Siempre existieron en nuestro país mujeres bersolaris (...) No actúan por imperativos de sexo en los certámenes públicos de improvisadores, pero esto no quiere decir que no las haya”. Emakume bertsolarien txapelketa bat antolatu beharko litzatekeela proposatzera ere animatzen da: “Muchas veces hemos pensado lo interesante que sería el organizar un concurso en el que solo pudiesen participar mujeres bersolaris”. Eta buruan daukan horren xehetasunen bat ere ematen du: “Tenemos escritoras y poetisas inspiradas, y estas podrían ser las que integran el Jurado calificador”.

Emakumeak eta gizonezkoak bertsoan bakoitzak bere aldetik lehiatu beharrarena ideia arraroa suertatzen da, ez bada eskema matxistekin funtzionatzen duen jendarte baten baitan, baina borondate onenarekin ari da bertsolaria bere ustetan, eta sarituriko bi emakumeei bat-batean aritzeko gaitasuna ere aitortzen die: “Pese a que esta vez se trataba de un certamen escrito, pronto pudimos constatar que las autoras de los trabajos premiados eran bersolaris que lucirían mucho en los ejercicios instantáneos del verso improvisado”.

Basarrik aipatzen duen moduko emakume bertsolarien bat-bateko jarduneko txapelketarik ez da gauzatuko inoiz. Izatez prentsak hurrengo hamarkadetan emakume bertsolariei egingo dizkien aipamen bakanak bertso-jarrien lehiaketetan irabazitako sarien inguruko laburrak izango dira. Honela, *Aranzazu* aldizkariak *Basarrik* aipatzen zuen sariketaren berri emango du bi urte beranduago, 1971ean *Príncipe de Viana* aldizkariak Maria Jesus Baraiazarrak irabazitako saria aipatzen du, eta 1975ean, aldizkari berak, Luzia Goñiren bertsoei eskaintzen die tarte bat⁶⁵.

Arreta mediatiko gehiago jarri zitzaien bertsolarien emazteei emakume bertsolariei baino. Beste matxismo zantzu bat. Honela, esaterako, 1970eko hamarraldian ‘Bertsolarien emazteen eguna’ izeneko jaialdi bat antolatuko da hainbat urtez, prentsara ere iritsiko delarik⁶⁶. Edota Iparragirreraren emazteari testu gehiago eskainiko zaizkio prentsan Erdoziori, Etxegarairi eta Hargaini baino. Aldea are nabarmenagoa delarik urretxuarrari ezezkoa eman zion Manuela Zubiaurre *Bertsolarirekin* alderatzen badugu⁶⁷.

⁶⁵ Erreferentzia zehatzak: *Aranzazu*, 1958/IX/15, 244 or., ‘Arantzazu’ko Ama Oikia’n; *Príncipe de Viana*, 1971ko urtarrila, 2 or., ‘Euskal Olerti eguna Larrean’, Pedro Díez de Ulzurrun; *Príncipe de Viana*, 1975eko ekaina, 4 or., ‘Aizaroz’ko errekan’

⁶⁶ *Zeruko Argian* birritan argitaratu zituen gaiari buruzkoak Mikel Atxegak: 1975/III/16, 2 or., ‘Bertsolariak Martxoaren 19an galarreta pilotalekuan/Apirilaren 6an bertsolarien emazteen eguna’ eta 1975/IV/02, 2 or., ‘Bertsolari gazteak Gabirian/Bertsolarien emazteen eguna/Jaialdia Lasarten Apirilaren 20an’. Eta *Príncipe de Viana* ere eman zuen jaialdiaren berri: *Príncipe de Viana*, 1975 apirila, 4 or., ‘Bertsolarien emazten IV.gn eguna’, *Koldo*.

⁶⁷ Iparragirren alarguna, Anjela Kerexeta, pertsonaia ezagun bihurtuko da XIX. mende amaieran, elkarrizketa bat ere argitaratu zen Mourlane Michelenak egindakoa, eta 1920ko hamarraldiaren hasieran hainbat hedabidek

Garaiko giro nahiz pentsamendua hegemonikoaren pisua aitortu beharko zaie, bada, aringarri gisa *Basarriren* planteamenduei. Bertsozale Elkarteak garai hartako bertsolaritzaz argitaraturiko lan batean Inozentzio Olea eta Ataño bertsolariek azaltzen dute giro eta pentsamendu hori:

“EHBE: Garai hartako bertsolaritzan ez zen emakumerik. Zergatik uste duzue?

I. Olea: Orduan emakumea ez zen etxetik irteten. Ez zuen ia partaidetzarik gizaratean. Ez zen aintzakotzat hartua, ez gizonen aldetik, eta nik esan behar banu, ez beraien aldetik ere.

Ataño: Oso gaizki ikusia izango zen, tabernetan eta ibiltzea. Eta muga hori nork hautsi? Bestela, gaurko gisan, norbait ibiliko zen bertsotan, ziur. Baina orduan gizonak beren ohiturak zituzten eta emakumeek beste batzuk, oso desberdinak.

I. Olea: Lehen bertsotan aritzea desonra zen, tabernetan egiten zelako. Eta gehiago emakume batentzat, jendearen ustez, beste bizitza mota bat zegokiolako. Gaur, pixkanaka, hori gainditzen doa, zorionez.” (EHBE, 1993: 97)

Ikerketarako testu bilketa alor honetarako topaturiko azken testuak, benetako harribitxia, emakume bertsolari batek hau guztia nola bizi zuen, honek guztiak nola erasaten zion, kontatzen digu. Mariasun Landak sinatzen du lana, *Anaitasuna* aldizkarian argitaratu zen 1978ko abenduaren 15ean, eta ‘Emakume bertsolari batekin elkarrizketan’ darama izenburutzat. Sarrera hau egiten dio idazleak:

“Bertsolariak gizonetzkoak ohi dira. Emakume bertsolaririk ez dugu ezagutzen. Zergaitik? Ez ote du izan euskal emakumeak hortarako ahalmenik edo? Gizona plazara, emakumea etxera, hona hemen galdera horren erantzun bakarra. Zeren seguru asko, anitz bertso asmatu eta kantatuko zituzten emakumeek baina ez dute horik azaltzeko plaza edo sagardotegirik izan. Etxe barnean eta areago emakumeen kolkoetan, usteldu dira emakumeen bertso eta kantak”.

Eta honela azpimarratzen du lanaren xedea, subalternoari ahotsa ematekoa:

“Gaur, emakume bertsolari izengabeko horietako bat dugu aurrean. Berak esaten duenez, gizona izan balitz plazatan ibiliko litzateke. Baina geure euskal matxismoak zapuztu egin zituen neskatxa honen desioak eta nahiak. Bere bertsoak eskutan dauzkagula beragana jotzea pentsatu dugu emakumeen ahotsa behingoz plazaratzen hastea nahi genukeelako”.

1978a da, bi hamarkadatik gora pasatu dira Basarrik Frankismoaren urte ilunenetan *La Voz de España* bere artikulua argitaratu zuenetik. Euskal kulturgintza berri bat ekarri duen 1960ko hamarraldiko Bigarren Euskal Pizkundea eman da tartean, Europatik datozen haize berriek ere astindu dute euskal jendartea, eta hainbat mugimendu aurrerakoi loratu dira, baita feminismoa ere. Trantsizioaren azken urteak dira Espainian, badira bi diktadorea hil zela, eta bertsolaritza, inguratzen duen guztia bezala aro berri baten atarian aurkitzen da. Emakumearen argazkirik ez dakar, ordea, testuak, ezta izen abizenik ere. Garai horri hain berezkoak zaizkion askatasun promesak gorabehera nahiago izan du anonimotasunean gelditu.

emango dute bere heriotzaren berri. Ez da inoz horrelakorik gertatuko emakume bertsolari batekin: *Euskal erria* : revista decenal baskongada del Uruguay, 1921/VII/20, 9 or., ‘Fallece la viuda de Iparraguirre’; *Euskalerraren Alde*, 1921/VIII/30, 301 or. ; ‘La viuda de Iparraguirre y el oriental forzado’, J. Agirre; *Argia*, 1921/IX/18, 1 or., ‘Iparraguirre’ren emaztea’, Gregorio Mujika.

Zaletasuna handia izan duela kontatzen du emakumeak: “Askotan jarri ditut bertsoak, nahiz eta paperean gelditu ez... Neretzako bakarrik (...) oso barruan sentitzen dudalako (...) betidanik sumatu dut afizioa...”. Etxeko giroan bere inguruko emakumeek egiten zutela:

“(...) ezagutu ditut nik emakumeak oso ondo bertsoan egiten zutenak. Baina beti entzun diet etxean. Artazuriketak baserrietan, adibidez, jai kutsua zuen. Han abesten ziren bertsoak, kantu zaharrak eta ipuinak. Orduan, emakumeek, bertsoak gustatzen zitzaizkienek, han zeukaten posibilitate bat edo asmatzeko (...) Komentario asko, gizonen aldetik, entzun izan ditut: ‘Nola egiten duen bertsoan emakume honek, nahiz emakume izan!’”.

Plazan kantuan, ordea, inoiz ez ditu ikusi: “Inoiz ere ez. Eta ez dut uste askok ezagutu zuenik. Hori emakumeek ez zuten egiterik. Gizarte bat, matxista denean, kulturak ere matxista izan behar du. Zein emakume joaten zen sagardotegi edo taberna batetara? Emakumeak etxean, sukaldean...”. Eta entzule gisa gizonen pare ikustea gauza berria omen da: “(...) akordatzen naiz urte asko ez dela, segun zein orduan, gizonak bakarrik joaten zirela (...) bertsoaritzaz [plazakoa], gizonetzako gauza bat zen. Gizonek egina eta gizonetzako”.

Bera ausartu zen plazaren bat egitera: “Hamar urterekin, adibidez, plazaratu nintzen beste mutil batekin neure hauzoan... Pozik ateratzen nintzen ni orduan. Ez nuen lotsarik”. Baina koskortzen hasi zenean inguruak ez zion askorik lagundu: “Gabonetan, adibidez, neure osaba batekin, aitarekin, aritzen nintzen eta orduan berotzen ninduten. Hortik aparte, inoiz inork ez nau bertsoaritzazara bultzatu”. Eta inguru zabalagoan ere ez zuen babes gehiago topatu: “Inork ez dizu esaten, ‘ez ezazu hori egin’, baina gizarte osoak begiratu arraro batez begiratzen zaitu”.

14-15 urte bete arte erraztasuna zuela dio, eta aritzen zela, baina gerora utzi egin duela:

“Ni gogoratzen naiz, 14-15 bat urte arte, askoz ere erraztasun handiagoa nuela orain baino (...) Orduan bai, baserrian bizitzen nintzelako, eskolako bidean edo mendian nenbela zerbait egiten, edozein tokitan, banuen bertsoak kantatzea, jo eta ke aspertu gabe (...) Urtetan, ezer egin gabe uzten baduzu, prozesu hori moztzen baduzu, gero hasten zarenean, berriro zerbait egitea nahi duzunean, izugarritzko hutsunearekin aurkitzen zara” .

Eta pena ematen dio, jarraitu izan balu gai ikusten baitzen plazetan besteen pare aritzeko: “Ez dut zalantzarik jartzen, edade hortatik aurrera nik izan banu plazara irtetzeko posibilitaterik eta orduan behar nuen bultzadatxo bat izan, gaur seguru asko, plazetan ibiliko nintzateke”.

Mariasun Landarekin jarri gara herremanetan elkarrizketatua zein izan daitekeen argitu nahian. Berrogei urte beranduago Iñake Irastorza aktorearen izena agertu zaigu honela, plazan aritzeko gaitasuna beste alor batean bederen argi asko erakutsitakoa⁶⁸.

II.II ATZERRIKO BEGIRADA II

Luze eta zabal azaldu da nola XIX. mendean Europa hartu zuen sukar erromantikoak euskal kulturak Euskal Herritik kanpo pizten zuen interesa hauspotu zuen eta atzerriko begirada horrek euskal identitate modernoaren eraikuntzan izan zuen pisua seinalatu nahiz eraikuntza horretan bertsoaritzak izan zuen garrantzia azpimarratu den lan honetan zehar.⁶⁹

⁶⁸ ‘Goenkale’ nahiz ‘Brinkola’ telesailetan eta ‘Wazemank’ edo ‘Kontuz atsuak!’ saioretan parte hartu izan du telebistan. Hogeitabat filmetan ere aritu da lanean, tartean ‘Aupa Etxebeste!’, ‘Obaba’, ‘Kutxidazu bidea Isabel’, edota ‘Un tranvía en SP’ eta antzerkigintzan ere beste hogeitabat antzezlanetan hartu du parte.

⁶⁹ Ik. 3.2.2 Deskubrimendua: antropologoak eta bertsoariak, 3.3.2 Bertsoaritzaz ikur eta bitarteko

Bertsolaritzaren lehen hedabideratzean atzerriko begirada honek, euskal kulturaz interesatu eta euren ekarpenak prentsan argitaratu zituzten atzerriko ikerlari eta bidaiariek, izan zuen garrantziari ere tarte garrantzitsu bat eskaini zaio lehen eranskinean.⁷⁰

Bertsolaritzaz ari diren hedabideen artean Lore Jokoetan %78 izango dira atzerrikoak, Euzko Pizkundean %65 eta Frankismo Garaian %35. Datu hauen atzean bertako kazetaritzaren eta hedabide sarearen indartzea suma daiteke, euskarazkoen garapenaren ekarpen garrantzitsuarekin⁷¹. Baina Erromantizismoak kontinentean indarra galtzen duen neurrian kanpoko arretak behera egin duela nabarmena da baita.

Edozein modutan, lehen testuen bilduman jasotakoez gain bertsolaritzaz atzerrian argitaraturiko hainbat harribitxi topa daiteke gerora ere. Horrelako testu gutxien daukan zikloan ere, Frankismo Garaian, *Belfast News-Letter* eta *Nottingham Evening Post* bezain goiburu exotikoen ekarpenak jaso dira, edota *National Geographic* bezain medio prestigiotsu batenak. *Belfast News-Letter*rena eta *Nottingham Evening Post*ekoa oso zeharkako aipamena da: Bigarren Mundu Gerra bukatu berritan Churchillek Donibane Lohitzunera egindako bisitan harrera gisa bertsolari batek abestu ziola kontatzen dute.⁷² *National Geographic*enak mami gehiago dauka. Testu horren eta gisako beste zenbaiten iruzkinekin osatu dugu testuen bigarren bilduma honen hurrengo puntua.

II.II.I Madril

Madriren bertsolaritzaz argitaratzen diren prentsako testuen kopuruak ere behera egingo du XX. mendeak aurrera egiten duen eran, baina ez dio iturburu interesgarri bat izateari utziko.

Garai hartan gehien saltzen zen egunkari madrildarrak, *El Solek*, esaterako, gerra aurreko euskal pizkundearen urteetan jarraipentxo bat egiten dio gaiari, besteak beste Fernando Amezketarraren edo txapelketen berri emanez⁷³. Eta jada azaldu den gisan, 1920ko hamarraldian oso modan egon ziren aldizkari grafikoek ere jarri zioten arreta bertsolaritzari, *Estampan* hainbat lan topa daitekeelarik, tartean Txirritari egindako elkarrizketa⁷⁴.

Frankismo garaian *Hoja del Lunes de Madrid*, *Ya* edo *Ritmo* bezalako goiburuetan ere aurki daiteke bertsolaritzaren aipamenik, baina *ABC* izango da tarterik handiena eskainiko diona. 1965eko txapelketaren edo Manuel Lasarteren omenaldi baten berri emango du, esaterako, edo Auspoa saileko Bilintxi buruzko liburuaren iruzkina eskaini, baita Mitxelenari egindako elkarrizketatxoa edota toreatzaile bertsolari bati buruzko erreferentzia⁷⁵... 15 testu izango dira ziklo honetan; kopuru garrantzitsua⁷⁶.

⁷⁰ Ik. I.IV ATZERRIKO BEGIRADA: IKERKETAK ETA BIDAIK. 1860

⁷¹ Ik. Ziklo historiko bakoitzean 'EMANDAKO PAUSUAK ETA BILAKAERA' azpizuntuan hizkuntza hautuari eskainirikoak.

⁷² Hauek dira erreferentzia zehatzak: *Belfast News-Letter*, 1945/VII/13, 5 or., 'Mr. Churchill'; eta *Nottingham Evening Post*, 1945/VII/13, 1 or., 'The Three 'Bears'.

⁷³ 1919/VIII/06, 5 or., 'Navarra/Una fiesta francoespañola'; 1923/VII/23., 8 or., 'Informaciones de Iberoamerica/Homenaje a un versolari/Pedro Enbeita'; 1930/VIII/31, 2 or., 'Estampas de Vasconia/El Quevedo vasco: Pernando Amezketerra', *Beti Izan*; 1930/XII/19, 4 or., 'País Vasco/San Sebastián/Fallecimiento'; 1932/IX/25, 2 or., 'Renacimiento de la poesía vasca', Alfonso Rodríguez Aldave; 1934/IX/14, 1 or., 'Réplica a un abogado sobre la intimidación vasca'; 1935/I/23. 2 or., 'Tamborrada y versolaris'.

⁷⁴ Ik. 5.4.4.3 Txirritari elkarrizketa Estampan (1936).

⁷⁵ Ik. 6.5.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak.

⁷⁶ 1942/II/21, 10., 'El Ministro de Trabajo, Sr. Girón, en Bilbao'; 1952/VIII/12, 4 or., 'Mitos y fantasmagorías de los vascos'; Pedro, Rocamora; 1956/V/29, 44 or., 'Romería vasca'; 1958/VIII/17, 51 or., 'Sexta Corrida de la Semana Grande/Tarde tristoná'; 1958/IX/09, 32 or., 'Media corrida muy 'apañada', Antonio, Díaz-Cabañete; 1964/IX/09, 40 or., 'Pernando Amezketarra'; 1966/V/07. *Blanco y Negro* gehigarrian, 69 or., 'Vascongados y Navarra', Pío Baroja; 1965/I/02, 79 or., 'Campeonato de versolaris en San Sebastián'; 1968/V/02, 10 or., 'El 2

Sinadura ilustreren bat suma daiteke tartean. Frankismo garaikoko zikloari eskainiriko atalean Pedro Rocamorak, Francoren hirugarren gobernuan Propagandako buru eta liburuaren zentsuraren arduradun nagusi izandakoak, euskarazko zenbat lan argitaratzeko irekiriko arrakala aipatu da (Torrealdai, 2000: 56)⁷⁷, eta bertsolaritzari buruzko aipamenen bat ere egingo du prentsan:

“(…) solo los pueblos antiguos con aristocracia de milenios, llegan a la cumbre de lo mitológico si sus gentes aman de verdad la poesía (...) los vascos tienen las dos cosas: antigüedad de siglos y profunda sensibilidad lírica en su temperamento. La pervivencia del ‘bersolari’, el juglar irónico que repentiza en las fiestas o en los banquetes es símbolo del sutil espíritu poético del pueblo” (ABC, 1952/VIII/12, 4 or., ‘Mitos y fantasmagorías de los vascos’, Pedro, Rocamora)

José María de Areilza ere ez da edonor: Gerraurretik Falangearen sortzaileetako bat izana, gerraostean Bilboko alkate, Francorekin Argentinan, Estatu Batuetan eta Frantziako enbajadore, Arias Navaroren UCDko gobernuan Ministro eta 1980ko hamarraldian Aliantza Popularraren sortzaile izan zen. Castresanaren Iparragirri buruzko liburuaren iruzkinean, honela dio bertsolaritzaz:

“La vena poética del pueblo vascongado es a un tiempo sentimental e irónica. Si habéis escuchado alguna vez esos concursos de versolaris improvisadores en las fiestas de cualquier pueblo, o lugar, de Guipúzcoa o Vizcaya, os asombrará –aunque no entendáis la vieja lengua– la rapidez asombrosa de la versificación y las risotadas constantes del público, testimonio de los dardos humorísticos del poeta.” (ABC, 1971/XII/31, 3 or., ‘La otra tentación’, José María de Areilza)

Edota Pío Baroja idazleak ere ukitzen du gaia, kasu honetan ABCren gehigarrian:

“Yo no sabría definir de un modo sintético el carácter de los vascongados; sí sé que casi todos tienen un fondo guerrero, que casi todos en el campo tienen algo de bruma en su cerebro, que hablan poco, que peroran poco (...) Silenciosos, antisociales, los vascos cuando quieren entenderse con los demás, cantan. No ha habido un orador vascongado; el orador allí se ha convertido en músico ó en poeta, en el humilde versolari ó en el bardo Iparragirre.” (Blanco y Negro, 1966/V/07, 69 or., ‘Vascongados y Navarra’. Pío Baroja)

Rocamora madrildarra da, eta Areilza nahiz Baroja euskal herritarak, baina hiruetan nagusitzen da kanpoko begirada, bertsolariari edo euskaldunari buruz Madrilgo begietatik aritzeko hautua. Madrilgo egunkari batean argitaratzeko den testu batean logikoa ere izan daiteke bertakoen ikuspegiarekin bat egin dezakeen edukia eskaintzea, baina nagusikeria ere nabari zaie testuoi, hamarkada luzez euskal kulturaz egin den irudikapen esentzializatu eta orientalizatuaren jarraidura.

Zenbait pasartetan kanpoko begirada hori muturrera eramaten duen testu batekin ixten dugu errepeaso. Oscar de la Lama kazetariak dakar, ‘Bersolaris en el Valle de Oyarzun’

de mayo en la canción de un bersolari vasco-frances’, Jose María Iribarren; 1968/IX/15, 76 or., ‘Televisión/Deporte Vasco’; 1970/V/31, 8 or., ‘Bersolaris en el Valle de Oyarzun/Jose Miguel Michelena (campeón de bersolaris) ha actuado en dos mil quinientas justas’; Cesar De la Lama; 1970/IX/15, 28 or., ‘Homenaje guipuzcoano a don Nicolas Lasarte’, José Berruezo; 1971/XII/31, 3 or., ‘La otra tentación’, José María de Areilza; 1973, Blanco y Negro gehigarrian, ‘El ‘bersolari’, Luis Castresana; 1979/II/22, 39 or., ‘Escrito en euskera/’Indalecio Bizkarrondo-Bizitza eta Bertoak’, de Antonio Zavala’, Florencio, Martínez.

⁷⁷ Ik. 6.1.3 Arrakaletan ematuriko kulturgintza.

izenburuarekin, 1970eko irailaren 15ean. Bertso kronikaren hasierari, esaterako, danborrak bakarrik falta zaizkio tribu galdu baten erritua irudikatzeko:

“El hombre que está subido sobre la plataforma de madera canta alocadamente. Las gentes del valle de Oyarzun llenan la pequeña plaza de piedra, junto a la iglesia. El ‘sirimiri’ moja las ropas, que despiden olor a humedad. Muchachas de afilado perfil. Hombres de anchas espaldas. Viejos de faz congestiva y mirada apretada se agrupan hasta juntar sus cuerpos (...) Mientras el bersolari recita sus versos improvisados, fluidos, satíricos y precisos. Su voz suena en la mañana con precipitada estridencia. Rebota contra las fachadas de las casas cercanas. Como hace diez mil años. Como siempre, porque el vasco es la prehistoria de nuestro pueblo, y el bersolari su tradición oral más pura transmitida de boca en boca (...) Oirles es acercarse a épocas pasadas”.

Joxe Joakin Mitxelenaren deskribapena ere kurioa da, izenetik hasita: “José Miguel Michelena es corpulento. Sus labios se mueven carnosos. Cada palabra va acompañada de movimientos. Hay en él mucho de actor de drama antiguo”. Galdu samar aurkitzen da kazetaria: “Hay clamorosas expresiones. Aplausos. Frente a él otro cantor de versos contesta también improvisadamente. Inagotable fuente de regocijos. Incoherentes carcajadas y risas para el que nada entiende del idioma euskera” . Baina asmatzen du saioa bukatu ondoren bertsolariaren hitz batzuk jasotzen: “Nada de estudios. Viene de dentro. A los once años comencé a discutir en verso y me di cuenta que podía ser bersolari. Hacía poesía oral y también improvisaba lo que cantaba con ingenio, agudeza, ocurrencia, oportunidad y ‘chispa’...”

Egunkariko bi orrialde betetzen dituen erreportaje luzea da testua, bailarako hainbat argazkirekin eta Mitxelenaren beste pare batekin hornitua. Datu jakingarriak ere badakartza, Mitxelenak urtean hirurogeitamar plaza egiten dituela eta saioa 1.500 pezeta kobratzen dituela, esaterako. *Xenpelarren* eta *Patxi Bakaloren* berri ere ematen du, hauen bertso batzuk, jatorrizko euskarazkoa nahiz itzulpena, jasoaz, eta une hartako bost bertsolari handienak Basarri, Uztapide, Garmendia, Lizaso eta Mitxelena direla dio.

Bailarari buruzko hainbat xehetasun ere eskaintzen ditu, besteak beste aurrehistoriako mairubaratzak, Alfonso XI.ak emandako Foru berezia eta azken urteetan loratu den industria aipatuz. Eta bukatzeko, nola ez, euskaltasunaren inguruko gogoeta eskaintzen du. Bertsolaritzari buruzko garaiko sinadura jorien artean aurkitzen den Santiago Aizarna lagunari eskatzen dio iritzia. Gizon jantzia dela azpimarratzen da lehenengo, bailara galdu horretan bizi den gizon jantzia:

“(...) cultiva la ‘literatura ‘pánica’ desde que leyó ‘Homo Faber’ de Max Frisch. La soledad del valle cala en su alma. Esta imbuido en las obras de Camus. Muchas veces le he preguntado a Santiago Aizarna, ¿qué son los vascos para tí?”.

II.II.II Paris

Parisen bakanagoak izango dira bertsolaritzari buruz prentsak argitaraturiko testuak. Dena den *Paris-soir*, *France Illustration*, *Le Petit Journal* edo *L’Intransigeant* bezalako argitalpenetan topatu ahal izan dira ale batzuk.

Deigarrienak suertatu direnak, aipamen soilaz dezente urrunago iristen direlako, egile berak, François Duhourcauk, idatziriko bi testu izan dira: *L’Echo de Paris*en 1925eko abuztuaren 8an

argitaraturiko ‘La complainte de Poilo Malhereux’ eta *Le Figaron* 1932ko apirilaren 5ean ateratzen ‘Survivance de l’églogue antique’.

Duhourcau (1883-1951) Angersen jaio arren bizitzaren zatirik handiena Baionan egin zuen idazle eta historialaria izan zen, Auguste Furtado Saria (1922) eta Frantziako Literatur Akademiaren Sari Nagusia (1925) irabazi zituelarik. Lehen Mundu Gerran parte hartu zuen, urte askoan gerran parte harturiko frantziar idazleen elkarteko lehendakariorde izan zen, eta hainbatetan jorratu zuen gai hau bere lanetan, esaterako, *La guerre et la région de Bayonnaise* (1919) delakoan.

*L’Echo de Paris*eko artikuluan ere kontu horiei heltzen die. Azaroak 11 bat da eta gerrako beteranoen bilkura bat ospatu da Iparraldeko herririka batean. Gerrako kontuak oroitzen dituzte nostalgiaz eta ondoren etorri zen bake garaira moldatzeko izan dituzten zailtasunak azaltzen ditu idazleak. Erreboteko partidaren ondotik bazkaria dator, eta bazkalondoan bertsoetan hasten da bazkaltiarretako bat:

“Écoutons in chant de notre Basque qui se lève au milieu de ses compagnons: c’est à l’heureux sort de ceux qui restèrent aux Amériques que songe ce héros infortuné. Voici, fidèlement traduits par son camarade, président de section, les versets de sa douleur. La gravité chaleureuse et la mélancolie de la race basque, aiguës par les souffrances et de la guerre et de la paix, sont encloses toutes vives dans cette, complainte où, comme de coutume, un *koblakari* (trouvateur de couplets) populaire exprima l’âme collective avec des accents personnels. Lorsque viendra un Mistral euskarien, il recueillera, et sertira ce diamant aux feux sombres.”⁷⁸

Bertsolariak kantuan esandakoak jasotzen dira jarraian, bakarrizketa bat balitz bezala: gerrako zauriak, gudu-zelaitik itzuli zenerako hila zen aita agurtu ezin izana, egindako sakrifizioaren neurrigabea eta jasotako sariaren ezdeusa, joandako gaztetasuna... Kantua da bertsolariaren kontsolamendua, azken bertsoan azaltzen duenez kantuak malkoek baino hobeto adierazten baitute arimaren herstura: “- Chantons, chantons! Que nos voix – pleines de tristesse- mieux que des larmes disent – de nos âmes toute la détresse”.

Artikulu honetan bertsoa gerrako beteranoen hitz egiteko aitzakia baldin bazen, zazpi urte beranduago *Le Figaron* argitaraturikoan gai nagusi bihurtuko da. Duhorcauk sarrera luze bat egiten du bertan, Aintzinako Greziako Teokrito eta Virgiliorekin hasi eta Mistralen ekarpenetaraino, Lotiren ‘Ramuntchon’ agertzen diren bertsolarien pasarteak ere aipatuz⁷⁹.

Aurremodernitatearen azken arrastoekin lotzen ditu sorkuntza hau eta euskal komunitatea:

“Cette poésie populaire, à chants alternés, issue d’improvisations de circonstance ou des joutes de village, subsiste un peu partout en Europe, dans des cantons demeurés primitifs. Elle subsiste sur tout chez le peuple qui semble prédestiné à main tenir dans l’ère moderne les survivances de l’esprit antique, le vieux fonds indo-européen: les Basques.”

Nahiago ditu saio inprobisatuak Lore Jokoetan antolatzen diren lehiaketak baino: “Mieux que dans les concours de villages où l’inspiration est conventionnelle, c’est dans les improvisations suscitées par les circonstances que les faiseurs de couplets — koplariak — sous le choc de l’émotion ou dans le feu des banquets, livrent le meilleur d’eux-mêmes”. Eta Nafarroan ikusitako saio bat dakar gogora apaiz bat gai jartzaile zutela bi baserritarrek eskainirikoa, lur

⁷⁸ Ik. Itzulpena III.XIII azpipuntuan.

⁷⁹ Ik. I.VIII.V Pierre Lotiren ‘Ramuncho’ Abc egunkarian (1906)

batzuren inguruko jabetza umorez bustiriko bertsoen bidez ebatzi zuena. Edo Donibane Lohitzune inguruetan euren baserria saltzera behartuta aurkitu ziren bi anaiak bertsoen bidez adierazi zuten bizitza modernoarekiko arbuioa.

Ez du bertsolarien izenik ematen, ezta saioen data eta toki zehatzik ere. Fenomenoaren azalpen orokor bat ematea du xede, eta saioak bakarkakoak ere izan daitezkeela gaineratzen du jarraian, besteak beste, *L'Echo de Pariseko* artikuluan aipatzen zuen saioari berriro erreferentzia eginez:

“Mais, comme dans l'églogue antique, à la Virgile ou à la Théocrite, l'improvisation chez les paysans basques peut être un soliloque, le jaillissement solitaire d'une joie, d'un chagrin, un soir sur la route ou à la fin d'une fête de famille. Ainsi avons-nous entendu, au terme d'un banquet du 11 novembre (...) une autrefois, un jeune homme dire sa nostalgie et son espérance, à la fin du repas précédant son départ pour les Amériques ; une fois aussi, un ivrogne apostropher, en couplets étonnants d'ironie et de poésie, et sa mule s'impatientant au seuil de l'auberge et la pleine lune qui semblait le narguer, haute et froide dans le ciel de minuit.”

Azkenik, bertsolaritzari modernitatean bizirauten lagunduko liokeen euskal Mistral baten agerpena opa dio:

“On aimerait que fût né le Mistral basque qui épanouirait en églogues modernes les graines de poésie jetées à pleine voix par son peuple, de meuré arcadien, malgré le progrès, au cours de ses travaux, de ses fêtes et de ses jeux.”

II.II.III Buenos Aires

Euskal Herria hartzen duten bi estatuetako hiruburuez haratago, euskal diaspora ere, ikusi den bezala, bertsolaritzari buruzko prentsako testu ugariaren iturburu izan da, batez ere Lore Jokoen zikloan eta batez ere Buenos Airesetik. Buenos Airesen kokaturiko *La Baskonia*, diaspora horrek prentsan izango duen ispilu garrantzitsuena, esaterako, Lore Jokoetan bertsolaritzaz gehien argitaratuko hedabideen artean bigarrena izango da, eta baita Pedro Mari Otaño gehien argitaratuko duena ere⁸⁰.

Hiri horretan argitaraturiko bestelako testu bat ekarri da, ordea, bildumara, Roberto Arlt-ek 1935eko abenduaren 9an *El Mundo* egunkarian ‘Los bertsolariz. Improvisaciones a la manera de las payadas. La ironia cruel’ luzearekin eskaini zuena. Ez egunkaria eta egileak ez dute zerikusirik euskal diasporarekin, alde horretatik ez dira ezeren erakusgarri, baina egilearen eta testuaren kalitateak merezi dute.

Izan ere, Roberto Arlt (1900-1942) argentinarra bere herrialdeko idazle handietako bat izan zen. Julio Cortazarrek bere maisutzat zeukan eta egungo puntakoenek ere, Roberto Bolaño, Ricardo Pigliak edo Cesar Airak esaterako, euren miresmena eta oinordetza aitortu izan diote. Bizi izan zen bitartean, ordea, bere kazetari lanek egin zuten ezagun eta ez bere eleberriek edo antzezlanek. *El Mundon* 2000tik gora zutabe argitaratu zituen, eta astearteetan, Arlt-en testua argitaratzen zen egunean, egunkariaren salmentak bikoiztu egiten zirela esaten da.

Euskal Herrira 1935eko azaroan iritsi zen, eta hiru hilabete egin zituen bertan, aurretik Marokon eta Espainian egin bezala han eta hemen ikusitakoak bere zutaberako jasotzen. Garai

⁸⁰ Ik. 4.6.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak 4.4.5 Pedro Mari Otaño, ahoz baino, idatziz (1857-1910)

hartan erabat berritzailea zen estilo gordin, zorrotz eta bizia darabil bertsolariei buruz idazterakoan ere:

“La escena es breve. Un mozo de pantalón blanco y dedos achorizados (es obrero en una fábrica de papel) se dirige a una mesa, en cuya punta está sentado un viejo de pelo plateado, boina azul, boca rechupada. El anciano, que es guardavía en Durango, espera tranquilo, pero su continente es desdeñoso e irónico. Ni se digna a mirar al joven. El mozo, de perfil aguilucho, observa al viejo como un gallo antes de entrar en riña, se sienta en el extremo opuesto de la mesa y mirando abstraído el espacio, acompañándose de un canto sordo, comienza a recitar. El viejo, sin abandonar su cigarro, escucha despectivamente al joven. Cuando éste termina su estancia, el viejo sacude desdeñosamente la ceniza de su cigarro y también cantando, responde en verso vasco.”

Portugaleteko Batzokian ikusitako bertso-saioaz ari da. Ez du bi bertsolarien izenik jasotzen baina bertsoak itzultzen dizkiote eta saioan eskainiriko dialektika bai azaltzen du. Gerra lehertu aurreko hilabeteak dira, giro politikoki beroa da oso, eta horixe nabari da bertsolarien hitzetan:

“El joven dijo que ya era hora de abandonar los viejos poltrones y charlatanes y de marchar directamente por los gloriosos caminos revolucionarios. El viejo respondió (...) que antes de ir a la revolución es menester capacitar al pueblo, para que la masa no sea engañada por los dirigentes como ocurrió durante la guerra carlista (...) El joven contesta que si el pueblo perdió las guerras carlistas fue porque le traicionaron sus generales y que los generales siempre traicionan los intereses de la masa, esté o no capacitado el pueblo (...)”

Buenos Aireseko auzo txiroetako bizitza gogorraren kronista moduan trebatu zuen Arltek bere idazkera. Eragin hori eta xehetasunei zukua ateratzeko gaitasuna nabari zaizkio testuan:

“El mozo escucha nervioso, por la camisa entreabierta se ve la granulada y enrojecida piel de su pecho chorreando sudor, con los músculos tirantes (...) Los rivales no se miran; en torno a ellos se mueve una muchedumbre de cabezas cuadradas cubiertas de boinas, pecho descubierto, solapas de saco (...) el viejo canta sardónico y sonriente, arrugada la pata de gallo; su mirada se pasea irónica y victoriosa en redor. Por una ventana entreabierta se ve el muelle con el río de aguas amarillentas y su muro de piedra conteniendo la opulencia de un prado verde. Cuando el joven termina de recitar, sus compañeros, para evitarle la vergüenza de una retirada ante el viejo imperturbable y burlón, comienzan a tocar furiosamente el acordeón (...)”

‘Bertsolari’ terminoari alferrikako ‘z’ bat gehitzen dio baina ederki harrapatu du funtsezkoena:

“El *bertsolariz* le da forma poética, y repentinamente, a los más agudos estados emocionales que palpitan en la masa que le rodea (...) Maneja exclusivamente elementos de la vida real. El público exige de él un cumplimiento exacto de las leyes poéticas (...) Pertenece al pueblo; está tan identificado con sus sentimientos e ideas, que muchas veces la masa de oyentes escucha anticipadamente la respuesta de una estrofa. Su importancia dentro de la política regional es considerable. Mordaces y satíricos, soliviantan los pueblos (...)”

Eta ongi informatu da, artikulua errematatzeke Xenpelar, Imaz, Astarrate, Zapirian, Bilintx eta Fernando Amezketarra aipatzen baititu, bakoitzari buruzko xehetasun pare bat eskainiz. Azken honek Hirutasun Santuaren misterioaz galdetu zion erretoreari bertsotan emaniko erantzuna ere

jasotzen du, euskaraz: “Esango diot bada/ ejemplo batekin/ koloria, usaya/ saboriarekin/ ora or iru gauza/ sagar bakarrakin”.

Buenos Aires erdiak irakurriko ditu euskarazko hitz hauek biharamunean, euskal diasporak eta euskal diaspora ez denak, garaiko egunkari salduena baitzen *El Mundo* Argentinan, alde handiarekin gainera.

II.II.IV Mattin eta Xalbador *National Geographic*en

*National Geographic*ekoarekin itxiko dugu errepasoa, beste hainbat aipa bazitekeen ere ez baita topatu hau bezala mundu mailako prestigioa duen medio batean argitaraturikorik. Aurreko puntuan euskal diasporako egileen aurretik Arlt-en lana jarri ondoren, konpentsazio moduko bat ematen da gainera, kasu honetan sinatzen duena Robert Laxalt (1923-2001) baita, Kaliforniara emigraturiko euskal komunitatearen bigarren belaunaldikoa.

Ibilbide oparoko eta itzal handiko figura izan zen Laxalt: Nobelagile gisa oihartzun garrantzitsua lortu zuen AEB mailan, hain zuzen ere bere euskal familiaren inguruko kontakizuna ardatz zuten lanekin (1957an argitaraturiko ‘Sweet promised land’⁸¹, esaterako, *best-seller* bat izan zen eta hainbat hizkuntzatara itzuli zen⁸²); 1961ean University of Nevada Press argitaletxea sortu zuen eta bertako zuzendaria izan zen 1983 arte.; eta 1966. urtean, William A. Douglass eta Jon Bilbaorekin batera, Euskal Ikasketen Programa (*Basque Studies Program*) sortu zuen Renoko Nevadako Unibertsitatean.

Kazetari bezala ere puntaren puntan ibili zen, Pulitzer sarietarako bi izendapen jaso zituen, eta hainbat testu argitaratu zituen *National Geographic Magazine*en. Horietatik hiru dira Euskal Herriari lotzen zaizkionak: ‘Basque shepherders, lonely sentinels of the American West’ (‘Euskal artzainak, Amerika Mendebaldeko zentinelak’), *National Geographic Magazine*, 1966, 129. zbkia., 879-888 orr.; ‘Land of the ancient Basques’ (‘Antzinako euskaldunen lurra’), *National Geographic Magazine*, 1968, 134. zbkia., 240-277 orr.; eta ‘The enduring Pyrenees’ (‘Pirineo betierekoak’), *National Geographic Magazine*, 1974, 146. zbkia., 794-819 orr.. Aldizkariaren historia osoan beste bizpahiru gehiago baino ez dira argitaratuko.

Bigarrenean eskaintzen zaio tarte bat bertsoaritzari. Erreportaje luze bat dakar aldizkariak, ia berrogei orrialde hartzen dituena eta argazki bikainez jantzia, eta denetarikoa gaiak jorratzen ditu bapateko kantu inprobisatuz hitz egitera iritsi aurretik: euskal historia, euskal nortasuna, euskal hiriak, ontziolak, Bilboko portua, euskal bankarien familiak, Donostiako badia, euskara, San Ferminak, herri-kirolak, mahastiak eta ardoa, ihauteriak eta pastorala, arrantzaleak eta artzainak, euskal amona...

Bertsolaritzari buruzkoak 266. orrialdean dakartza. Orrialde bat eskaintzen dio, argazkirik gabe, eta sarrera oso soil bat eginez ekiten dio, bat-batekoa dela seinalatuz:

⁸¹ Joseba Gabilondok lan honen garrantzia azpimarratzen du bere euskal literaturaren historia sozialean: “This is perhaps the most powerful allegorical rendition of the Basque Country written after World War (...) In this novel, “true” Basque essence disappears and a more historical discourse, involving class, poverty, and migration emerges, as the ultimate Basque experience—a subaltern experience—any immigrant group can embrace. This experience also announces what a global Basque Country is meant to become years later.” (2016: 228)

⁸² Hainbat eleberri argitaratu zituen euskal diaspora eta Euskal Herria protagonistatzat zituztenak: ‘The violent land; tales the old timers tell’ (‘Lur biolentoa; zaharrek kontatzen dituzten ipuinak’), 1953; ‘Sweet promised land’ (‘Zin egindako lur maitea’), 1957; ‘In a hundred graves, a Basque portrait’ (‘Ehun hilobitan, euskal erretratu bat’), 1972; ‘A Cup of tea in Pamplona’ (‘Te katilua Iruñan’), 1985; ‘A Basque Hotel’ (‘Euskal hotela’), 1989...

“The Basque song reaches its highest stage with the troubadour, or bertsolari. To be a bertsolari, one must have an agile mind as well as a good voice. The troubadours are not only singers but on-the-spot improvisers of verse who compete with each other in song.”⁸³

Eta lehia dialektiko gisa funtzionatu ohi duela azpimarratuz:

“In these given encounters the bertsolari will argue any given subject—the good life of the sailor as compared to the mountaineer, the bachelor’s life against that of the married man, the Basque who has stayed in his homeland and the Basque who has gone abroad.”

Xalbador eta Mattinen arteko saio bati egiten dio erreferentzia jarraian, Baigorri burutua, bere bertsolari gustukoaren artean dauzkala seinatzen duelarik: “I watched two of my favorites, Xalbador and Mattin, dispute in song at a village feast in St. Étienne-de-Baïgorri in France”.

1965 eta 1966 artean Ipar Euskal Herrian bizi izan zen familia osoarekin, bere sustraia sakondu nahian, eta bertsolariak ezagutzeko abagunea ere izan zuela nabaritzen da. Argazki zehatza ateratzen die bi bertsolariari:

“Xalbador is a lean-faced Basque who affects in contest the pose of someone slightly tipsy. His beret is pushed back on his head, so that his lank hair falls over his forehead. His forte is an attitude of droll cynicism toward life.

Mattin is his opposite in every way. Short and round, he reminded me of Friar Tuck. But behind his jolly grin is a rapier mind.”

Eta saioarekin harturiko gozatuak utziko duen arrastoa aipatuz bukatzen du:

“It was an incredible performance. For nearly an hour they exchanged quatrains with dizzying speed. At the end it was impossible to know who had won out. But one thing was certain. The villagers who listened to them would have many delicate turns of phrase in the nuance-rich Basque language to relish for weeks afterward.”

Testuak ez du beste munduko sakontasun edo dizdirarik eskaintzen, ez bada bi bertsolarien soslaietan. Zirkulu bat ixten du, ordea: bertsolaritzak prentsan utzitako arrastorik zaharrena, Crévecoeurren ‘Souvenirs’, 1823an argitaratu zen, *Société de géographes, de voyageurs et de littérateurs français et étrangers* delakoak argitaratzen zuen *Journal des Voyages, découvertes et navigations modernes ou archives géographiques et statistiques du XIXe siècle* bidaia aldizkarian; eta 150 urte beranduago aldizkari horien eredu garatu eta arrakastatsua izango den *National Geographic*en ere lortuko du bere arrastoa uztea.

II.III FIKZIOA II

II.III.I Geroz eta fikziozko testu gutxiago prentsan

Lore Jokoei dagokien zikloan, ikusi den bezala, bertsolariak integratzen dituen fikziozko testua bertsolaritzaren presentzia mediatikoaren iturburu garrantzitsuenetako bat izango da. Gai nagusien zerrendan hirugarren tokian joango da, gisa honetako 75 testurekin, Lore Jokoei buruzko testuen eta bertsolari bati buruzkoen ondok.⁸⁴ Arrasto esanguratsua izan duten piezak

⁸³ Ik. III.XIV itzulpena.

⁸⁴ Ik. 4.6.3 Gertakari eta protagonista mediatikoak

izango dira gainera hauetako batzuk, egile garrantzitsuek sorturikoak. Lehen eranskinean iruzkindu dira hainbat:⁸⁵ Chahoren ‘Aitorren kondaira’, Mogelen ‘Peru Abarka’...

Ziklo hau ixtearekin, ordea, behera egingo du nabarmen genero honek. Lehen zikloan fikziozko 75 testu batu baziren, hurrengo hiruetan 24 izango dira guztira.

Gainbehera honen atzean folletoiaren gainbehera legoke. Prensan atalka argitaraturiko fikzio luzeari deitzen zaio folletoa eta XIX. mendean izan zituen generoak bere sorrera nahiz loraldia, erromantizismoaren eskutik, XX.an, mugimendu erromantikoa atzean gelditu ahala, bakantzen eta desagertzen joango delarik (Merlo-Morat, 2000: 607-609).

Ipuin laburrak eutsiko dio zerbait gehiago. Honela, 1920-1930eko hamarraldietan testu sorta polita topatu ahal izan da. Atal ezberdinetan aipatu izan den Luis Antonio de Vegak ‘Decir de bersolari’ eta ‘Okerra-etxea’⁸⁶ argitaratuko ditu. Lehenengoa karlistadetan zaurituriko bertsolari gazte baten heriotzarekin bukatzen da eta bigarrena beldurrezko kontakizun labur bat da: bertsolari bat aurkitzen da gauaren erdian zaldizko mamu batengandik ihesi ziztu batean dijoan zalgurdiko bidaiarien artean; bera da lasaitasunari eusten dion bakarra. *El Liberal* egunkarian ‘Pedrín El Versolari’ argitaratzen da, bertsolariaren ohiko irudi zirikatzaile eta arlotea emanez, edota *Excelsior* izeneko kirol kazetan ehizean dabiltzan bi bertsolari ageri dira (‘Cuentos de caza que parecen verdades’). Euskaraz, berebat, *Argiak* ‘Senar-emazte bertsolari’ak argitaratuko du eta *Eskualdunak* ‘Koblakari chaharrak’. Lenengoan emakume bertsolari bat ageri zaigu, tabernan egun batzuk egin ondoren etxerakoan bertsotan dagokion senarra haizea hartzera bertsotan bidaltzen duen emakumea: “Erri txiki baten bizi ziran senar-emazte bertsolari auk (...). Biyak elkarren antzekoak, zaletasunez eta izakeraz: Pello Joxepe’k baxoerdi bat artu orduko bertsuetan beriala ekin oi zion: bere emazte Juanatxo etzan makalagoa; ta itzetik-ortzera supituz erantzuna ematen yayoa zan”. *Eskualdunakoan* aitonduriko bertsolaria da protagonista.⁸⁷

Bestelako pieza batzuk ere topa daitezke garai honetan. Honela, Francis Jammes idazle frantziarraren ‘Les Robinsones basques’ eta ‘Janot poète’ eleberrietan berrargitalpenei buruzko iruzkinetan, (biak ere XIX. mende bukaeran idatziak baina 1920ko hamarraldian berrargitaratuak) bazkalondoko bertso-saio banaren eszenak aipatzen dira *Le Croix* eta *Le Journal des Débats politiques et littéraires* egunkarietan. Edo *Pichochet* gisa sinatzen duenak (‘Barkostar aper-gehiak egina’ gaineratzen zaio sinadurari) esperimentu berritzaile bat egiten du Gure Herrian, Etxahunen istoriaren birsorkuntza bat eginez, protagonistari dagokion gisan zuberotarrez idatzia⁸⁸:

“(…) Berri hau entzünik, harruak gañia hartürrik, eztitake Etchahun bortian egon: borün behera dua Barkocheatko bidian, beak eztaki ez nuat ez zertako, bena bere harraen ichilerazi nahiz. Ulhüntze heltzian Jaigiberri-Ibarra behera dua: huna Etchaunia, eta ahalago haren aizo lehena, Hegiphalia. Zerralü baten onduan jar eta so beha dago, bihotza hersi, bere etche-onduari so: kabaliak mithil batek hüschülättez hotsamaiten tü barnilat; borthakuak bere bazkaren

⁸⁵ Ik. I.I.VI Lehen agerpena fikzioan: Chaoren Aitorren kondairako bardoa (1845); I.VII FIKZIOA: 1880:

⁸⁶ Ik. 5.4.3.2 Prensako arrasto zaharrenen bila 6.1.1 De Vega: Txirritaren kronika sinatetik euskararen ehorzketa aldarrikatzera; eta 6.1.4 Bertsolaritzaren arrakala

⁸⁷ *La Voz*, 1925/VI/12, 7 or., ‘Decir de versolari’; De Vega, Luis Antonio; ‘Cuentos Españoles/Okerra-etxea’. De Vega, Luis Antonio; *Argia*, 1926/X/101 or., ‘Senar-emazte bertsolari’ak; *Excelsior*, 1929/VIII/25, 5 or., ‘Cuentos de caza que parecen verdades...’; *El Liberal*, 1926/X/26. 3 or., ‘Pedrín El Versolari’; *Eskualduna*, 1933/XII/08, 4 or., ‘Koblakari chaharrak’.

⁸⁸ *Le Croix*, 1925/VI/21, 4 or., ‘Les Robinsones basques/Jammes, Francis’, Charles Baussan; *Le Journal des Débats politiques et littéraires*, 1928/IX/08, 2 or., ‘Janot, poète/ par Jammes, Francis’, André Le Breton; *Gure Herria*, 1926 urria 632 or., ‘Etchahun’ (Etxahunekin fikzionatzen), *Picochet*.

beha dia kurrinkaz, ardiak arthegi onduan marrakaz barnilat nahiz, eta egürtegian ama chaharra egür hausten süiaren phizteko...” (*Gure Herria*, 1926 urria, 632 or., ‘Etchahun’, *Picochet*)

1940ko hamarraldian ez da deus topatu ahal izan. Eta 1950eko hamarraldian hiru pieza: bertsotan egiten uzten ez ziotelako tristuraz hiltzen den bertsolari baten inguruko ipuin triste bat, Javier Lizarrondok sinatua (‘Murio el bersolari’); Iparragirrek Londresen bizi izandako pasarte fikzionatu bat kontatzen duen testu laburra (‘Kochet Mariren bihotz ona’), eta Iparragirrekin izaniko elkarrizketa asmatu bat dakarren Eusebio Erkiagaren testua (‘Iparragirre’kin solasian’)⁸⁹. Hamarkada honetan argitaratuko da, baita, prentsako orrietan ez bada ere, bertsolari bati buruz gaurdaino idatzi den eleberri bakarra, Jon Etxaideren ‘Joanak-joan’ (1955). *Picochetek Gure Herrian* argitaraturiko ideiaaren ildo beretik ekingo dio hiru hamarkada beranduago: Barkoxeko bertsolariaren biografiaren birsorkuntza.

Hirurogeiko hamarkadadan bi izango dira, bertsolaritzaz prentsan argitaraturiko fikziozko testuak: Antonio Arrueren sinadurarekin Fernando Amezketarrekin izandako elkarrizketa asmatu bat jasotzen duena⁹⁰ eta Laxaltek asmatutako kontakizun laburra. Hirurogeitamarrekoan bakarra: Bernardo Atxagaren ‘Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar nagusiak’.

Azken bi hauei, Laxalt eta Atxagaren testuei, aparteko bat eskainiko zaie, genero honetan prentsa historikoan argitaraturiko azkenak ez ezik puntako kalitatea duten testuak direlako. Beste hainbeste egingo da *Le Populaire*rekin folletoi modura argitaratu zuen Blasco Ibañezen lan batekin ere. Bertsolaritza txertatzen duen azken folletoia litzateke hau, kalitatezkoa da baita.

II.III.II Blasco Ibañezen ‘L’intrus’, *Le Populaire* (1935)

Vicente Blasco Ibañez valentziarrak (1867-1928) ibilbide oso garrantzitsua osatu zuen idazle nahiz kazetari gisa. Politikari bezala ere itzal handia izan zuen, mende hasieran Alderdi Errepublikarraren buruzagi garrantzitsuenetariko bat eta 1920ko hamarraldian Primo de Riveraren diktaduraren oposizioeko figura erreferentzial bat izan zelarik.

Errepublikazalea, antiklerikala eta ezkertiarra, bere aktibismo politiko handieneko urteetan idatzi zituen eleberri sozialen ildoan kokatzen da ‘El Intruso’ (1904). Bertan Bilboren argazki orokor bat eskaintzen du, langileriaren (meatzeak, burdinolak eta ontziolak dira protagonista nagusi) bizipenei eta bizi baldintzei eta Jesuitek daukaten boterearen kritikari arreta berezia jarritz. Bertsolariak ere ageri dira pare bat pasarte luzetan.

1908an argitaraturiko ‘Sangre y arena’ eleberriarekin nazioarteko oihartzuna izaten hasiko da idazle gisa, eta aurretik argitaraturiko lanak ere hainbat hizkuntzataraz itzuliko dira, tartean ‘El Intruso’. Honela, bere liburuaren bidez egunkari alemaniar bateraino ere iritsiko dira bertsolariak, 1909an *Berliner Tageblatt* egunkariak liburuaz egiten duen iruzkinera zehatzago esanda: “Dann scharen sie sich um die Bersolari, um die Dorftröndel, die Sonntags von Ort zu Ort ziehen und aus dem Marktplatz einen Sängerkampfstreit veranstalten, und lassen sich die Kriegs-, und Liebeslieder Vorsingen, um dann begeistert in den Refrain mit einzustimmen” (*Berliner Tageblatt*, 1909/III/10’, 10 or. ‘Ein spanischer Zola’. Sigmar, Mehring)⁹¹

Nazioarteko fama horrek sekulako dimentsioak hartuko ditu 1916an argitaraturiko ‘Los cuatro jinetes del apocalipsis’ eleberriarekin. Ehundaka mila ale salduko ditu, eta 1920ko

⁸⁹ *Vida vasca*, 1952, 29. zbkia., 185 or., ‘Murio el bersolari...’, Javier Lizarrondo; *Herria*, 1952/VIII/28. 3 or., ‘Ichorio ederra/Kochet Mariren bihotz ona’; *Gernika*, 1953 uztaila, 24. zbkia, 163 or., ‘Iparragirre’kin solasian’, Eusebio Erkiaga.

⁹⁰ *Zeruko Argia*, 1964/IX/20, 4 or., ‘Fernando Amezketarra’rekin elkarrizketa’, Antonio Arrue.

⁹¹ Ik. III.XV itzulpena

hamarraldian Hollywoodek zinera eramango ditu bai eleberri hau eta baita ‘Sangre y arena’ ere Rodolfo Valentino aktore ezagunaren filma banatan. Ez da harritzekoa, beraz, 1935ean *Le Populaire* egunkari frantziar ezkertiarrek ‘L’Intrus’ folletoi gisa argitaratzea: Urtarrilaren 12tik apirilaren 7ra bitartean egunero 2 orrialdearen beheko erdia eskainiko zaio; bertsolariak martxoaren 22an eta 25ean argitaratuko dira. Bertsolarien presentzia duen azken folletoa izango da.

Blasco Ibañez 1903ko abenduaren 10etik 21era Euskal Herrian egin zuen egonaldian jasotakoak baliatu zituen eleberria idazteko. Egonaldi hartan Azpeitiara ere egin zuen bisita bat, Loiolako Santutegia ezagutzeko, eta hain zuzen, eleberrian protagonistak Azpeitiara eginiko bisitan agertuko dira bertsolariak:

“Les maisons d’Azpeitia étalaient sur toutes leurs portes de grandes plaques représentant le Sacré Coeur de Jésus (...) Dans toute la vallée paraissait survivre l’esprit religieux, tranquille et confiant du moyen âge, l’époque qui se préoccupa le moins de la foi (...) Près de la place le médecin vit que les gens s’arrêtaient devant un cabaret. A un balcon chantait un viellard, de si haute taille que son béret semblait toucher l’avant-toit.” (*Le Populaire*, 1935/III/22, 2 or., ‘L’intrus’, Vicente Blasco Ibañez, Vicente/Lafont, R. k itzulia)

Idazleak ederki deskribatzen du balkoitik balkoira ari diren bertsolarien jarduna eta euren inguruan sortzen den giroa:

“Dans la rue il s’était fait spontanément un grand silence, et le viellard, immobile et sérieux, continuant sa mélodie, avec une sorte de gravité sacerdotale. Quand i leu terminé sa dernière strophe en basque par une intonation aiguë, il y eut dans toute la foule assemblée une explosion de rires qui contrastait avec la gravité du chanteur. Mais les éclats de rire du public n’svaient pas encore cessé, quand résonna une nouvelle voix plus aiguë encore au balcon d’un autre cabaret, et Aresti vit un colosse qui chantait comme s’il répondait au viellard, pendant que celui-ci l’écoutait sans sourciller tout en préparant entalement sa réplique.”

Mende hasieran hainbesteko altuera zuen bertsolari zahar hori zein izan zitekeen ez dakigu. Izenik ez du ematen, eta, beraz, gero biko saioa lau bertsolarien arteko bihurtu eta arrakastarik handiena duena txiste berdeak egiten maisu bat den Bizkaiko sakristau zahar bat dela dionean, ez dago jakiterik Azpeitiara egin zuen bisitan benetan ikusitako saioa kontatzen ari ote den, edo dena asmatua den.

Gisako eskenak hainbatetan jaso ditugu lan honetan: Jendearen animoak, bertsolarien ardo trago luzeak... Baita bertsolariekiko eta haiek entzuten dituen euskaldungoarekiko nagusitasunezko posizio batean kokatzen den behatzailearen burutazioak ere:

“Aresti admirait la simplicité de foi de ce peuple enfant que accueillait avec des rires les plaisanteries et admirait les innocentes moqueries des versolaris incapables de faire la plus légère impression sur un citoyen. Dans cette saine gaieté le médecin retrouvait la gravité de l’homme des champs et son âme laquelle suffit la plaisanterie la plus insingifiante pour se réjouir. C’étaient des esprits neufs, éternellement puérils, qu, dès qu’ils se mettaient en mouvement, se divertissaient de n’importe quoi. Ils savaient que les versolaris étaient plaisants traditionnels, et il n’en fallait pas plus pour que tous se missent à rire même avant de comprendre ce que ceux-ci disaient.”

Edo bertsolarien bizitza bohemiorekiko erreferentziak ere: “Ces vagabonds vivaient de leurs vers, et en pleine vie rurale ils menaient l’existence indépendante de dure misère et de joyeux parasitisme qui est celle des artistes bohèmes dans grandes villes”.

Ez dio horregatik testu on bat izateari uzten, eta luzea, bertso-saio baten mekanikaren inguruan, edota bertsolariak erabiltzen dituzten gaien eta herritarren artean daukaten arrakastaren inguruan hainbat xehetasun eskaintzen dituena. Garai hartan zabalkunde handia izan zuen testu bat da gainera, arrakasta itzela izan zuen idazle batek sinatua.

II.III.III Robert Laxalten ‘The Basque Troubadour’, *The Atlantic Monthly* (1963)

Robert Laxalt jada aurkeztu dugu *National Geographic*en bertsolaritzari aipamena egiten zion testuaren egile gisa. Ez da hori, ordea, bertsolaritzaz argiratu zuen testu bakarra. Bere fikziozko lanetan ere jorratu zuen gaia. Bere ekarpena aztertu duen David Ríok honela dio, esaterako:

“Laxalt es plenamente consciente de la gran relevancia del factor oral en las tradiciones vascas. De ahí que en ‘In a Hundred Graves’ los elementos de carácter vocal ocupen un lugar de privilegio, imponiendo su dominio sobre la palabra impresa. En concreto la obra da fe de la importancia de las voces de los bertsolaris (trovadores) frente al escaso prestigio de los poetas en esta sociedad.” (Río, 2002:88)

Prentsan argitaraturiko fikzioan ere egingo dio tarte bat bertsolaritzari Laxaltek. Honela, 1963ko urrian hasi eta buka gaiari eskaintzen zaion harribitxia aterako da *The Atlantic Monthly* aldizkari estatubatuarrean: ‘The Basque troubadour’.

Kultur eta literatur aldizkari bat da *The Atlantic Monthly*, 1857an Bostonen sortua eta egun egoitza Washingtonen duena, garaian garaiko idazle estatubatuar entzutetsuenen lan motzen argitaratzaile eta hamarkada askoan salmentetan nahiz oihartzunean *New Yorker* handiari Estatu Batuetan itzala egin izan dion bakarra. Laxaltek bere lana argitaratu zuen garaian ere prestigio handiko argitalpena zen, eta suposa daiteke zabalkunde polita izango zuela. Izatez, Laxalten testuaren literatur kritika bat ere topatu ahal izan da 1963ko azaroaren 11ean *Reno Gazette* egunkariaren 8. orrialdean argitaratua.

Aldizkariaren hiru orrialde hartzen ditu lanak, eta hainbat ilustraziok janzen dute. Bigarren orrialdean behelainoan galduriko artalde bat eta herrixka bat ikus daitezke irudi banatan, eta lehenengoan, tamainaz handiena den ilustrazioan, jendez inguraturik taberna bateko barran bertsotan ari diren bi lagun, fondo beltzaren gainean ezpatazko duelu bat zirriborrotzen duen pentagrama bat ikus daitekeelarik. Ilustratzailearen izenik ez da ageri.

‘Pleasures and places’ darama azpitolutzat testuak eta bere lehengusuarekin Pirinioetan buelta bat eman ondoren bustita eta hozturik herrixka batetako tabernan aterbea bilatzen duen narratzaile amerikarraren ahotsa eskaintzen digu.

Ilustrazio nagusiak, esan bezala, ezpatazko duelu batekin alderatzen du bi bertsolarien arteko lehia, baina testua irakurrita, eta idazlea euskal jatorriko iparramerikarra dela jakinik, *western* batetako bi pistoladunen artekoaren traza hartu diogu gehiago.

Horra, esaterako, lehen bertsolari-pistoladunak, gauaren erdian, tabernan egiten duen sarrera:

“The door to the tavern opened and a figure came in out of the darkness, shaking the water from his umbrella. He wore the unmistakable garb of the shepherd, a wide beret, leggings wrapped tightly around his lower legs, and a long blue cape for a raincoat. His face was of the ancient Basque type, long

and razor-lean, and there was a pride almost to arrogance in his bearing. He waved in answer to the greetings and his black eyes flicked over the bar.” (*Atlantic Monthly*, 1963 urria, 136 or., ‘The Basque troubadour’, Robert Laxalt)⁹²

Edo bertsolariak begiradak gurutzatuaz tabernaren punta banatan jartzen direnekoa: “When his gaze came to the huge paysan standing beside us, it stopped. He nodded with dignity, hooked the handle of his umbrella into the collar of his cape, and walked to the other end of the bar”.

Begirada soilarekin desafioa onartu duen bertsolariaren deskribapena ere ez dabil *westernetako saloon* batean borrokarako gertu dagoen pistoladun gogorraren irudikapenetik: “I looked at the paysan standing next to us. He was hunched over the bar, but in an easy attitude of waiting. His eyes were crinkled in flesh, and there was a mischievous smile on his lips”.

Bera izango da lehenengo ‘tiro’ egiten lehena:

“The chill that coursed my back was not from the cold. Out of this burly giant came a tenor voice that was beautiful. Without looking up, an still hunched over the bar he began to sing a storu of a young shepherd fated to live forever in the cruel crags an swirling night mists of the high mountains (...) he coylod look down into the valley and see the warm light that peeped from the window of the house of a paysan, and contemplate all the familial joy and comfort that the light meant.”

Azoka eguna denez, taberna lepo dago, eta miresmenez animatzen dute artzaina: “When he finished, there was a roar of bravos for the paysan and mockery for the life of a shepherd. My cousin rubbed his hands together. ‘That was delicious. He is in good form tonight’”.

Artzaina ere *saloon* batetako pistola duelurako posturan jarriko da, literalki: “(...)he stood dramatically facing the villagers, with one hand holding the bar and the other cocked on his hip, so that his cape flared out behind him”. Eta kontraerasoari ekingo dio:

“For a moment it seemed that the shepherd was but adding to the paysan’s story. His song began with the young shepherd on his high rock, sorrowfully regarding the faraway light in the darkness. Then, with sudden resolve, the young shepherd decided to descend to the valley and peek through the window so that he could see the joys he was missing. Instead of the blissful scene he had expected, he saw an untidy kitchen, brawling children, and the final disappointment- the paysan’s wife beating him over the head with a broom for drinking too late with his comrades after market.”

Narratzailearen lehengusua nekazariaren aldekoa da, harroputzegi ikusten du artzaina:

“‘I think the shepherd has got your man on the run’. I whispered to my cousin.

‘He is not my man’, said my cousin offended. ‘I make it a practice to be impartial in these affairs. However, the shepherd takes himself too seriously for my taste. I think he fancies himself to be another Etchahoun.’”

Eta lehiak Etxahun eta Otxalde oso aspaldi batean izandakoa dakarkio gogora:

“‘I remember that name’, I said. ‘Once in America my faher sang the verses of a contest between Etchahoun and another man’.

⁹² Ik. III.XVI itzulpena

‘Ochalde’, my cousin said. ‘It was such a meetings as this. They were the best of their time. Etchahoun was from the mountains, and Ochalde from the valley land. They met in a tavern when they were very old. What they sang was good and it was remembered.’”

Etxahunen istorioa⁹³ kontatzen dio lehengusuak, emaztearen maitaleari beharrean, ilunpeak, nahastuta lagun on bati tiro egin zionekoa. Oso western batetako istorioa baita. Bitartean saioak aurrera darrai eta xehetasun guztiak jasotzen ditu testuak: bertsolarien aurpegiko keinuak, bertsoen bidez harilkatzen den istorioa, publikoaren animoak...

Bukaerak ere tonu horri eusten dio, baina adornurako gaitasuna gora behera egileak bertsolaritzaaren esentzia ongi ulertzen duela ere argi gelditzen da. ‘Nor izan da irabazlea?’ galdetzen dio narratzaileak lehengusuari: “‘That matters little’, he said. ‘If what they sang was important and beautiful enough, it will be remembered and sung again. If what they sang was unimportant’ he shrugged, ‘it was at least a diversion for a rainy night’”.

II.III.IV Bernardo Atxagaren ‘Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar harrigarriak’, *Anaitasuna* (1973)

Bernardo Atxagak ez du aurkezpenik behar eta *Anaitasunari* buruz hainbat kontu jaso dira lanean zehar⁹⁴. Testuari helduko zaio, bada, zuzenean.

Aurreko testuekiko erabat apurtzailea da asteasuarraren plateamendua, alegiazko ideia batean oinarritua, hildako bertsolarien batzar batzuren kontakizunari heltzen baitio:

“Zeruaren ertzeko bost izar gorriak itzaltzen direnean (Arkturo eta Betelgeuse lehendabizi, eta Aldebaran, Antares eta Pollux azkenik), ilundu egiten du zeharo, eta asko tristetzen da gaua. Orduan gehiago erretzen du suak, eta gehiago bustitzen urak. Denbora gelditu, eta ez da gehiago betetzen.

Gau horretan, gainera, ezkutuko indar sakonak libratu egiten dira, eta, hauen poderioz, euskal bertsolari hilezinek hitz egiteko aukera edukitzen dute.” (*Anaitasuna*, 1973/IV/15, 253. zbkia., ‘Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar nagusiak (I)’, Jose Irazu *Bernardo Atxaga*)

1973koa da testua, hain justu hamarkada luze batez Markinan urtero egin zen Bertsolarien Batzarra desegin zen urte berekoa.⁹⁵ Oso litekeena da, beraz, idazleak batzar hauen berri izatea, eta ipuinerako ideia hortik sortu izana. Kontuak kontu alegiazko batzarren aktak jaso ohi dituen idazkariaren ordezkari bezala kokatzen du narratzailea: “Batzar hauetako ohizko sekretarioaren eritasun bat dela medio, oraingoz nik hartzen dut esaten direnak gordetzeko eginkizuna, eta munduari azaltzekoa, izan dadila denon onerako, eta gaiztoen txarrerako”.

Asistentziaren kontrolerako egindako errepassoan bertsolaritzaaren historiaren ezagutza bat erakusten du idazleak:

“Arratsa iritxi zenerako, ailegatuak izanen ziren guttienez bostehun bertsolari. Han ikusi nituen Neolitiko garaietako batzuk, Erdi Harokoak (eta, hauen tartean, Santxo VII. Bortizari hainbeste gustatzen zitzaion Etxarriko Beltza),

⁹³ Ik. I.I.II Etxahunen epaiketen kronikak: ‘Assasinat commis par méprise’ (1828) eta I.I.III Bertsolari baten figuraz lehena: Jean Baptiste Chahok Etxahun (1838)

⁹⁴ Ik. 6.1.3 Arrakaletan ernaturiko kulturgintza; 6.4.3.4 Debekuak eta zigorrak: Azpillaga eta Lopategiren ausardia; 6.4.3.5 Barne arrakala: Loiola Irratiko sariketaren boikota; 6.4.4.2 1976 euskal prentsaren urtea; eta 6.5.2 Argitalpen eta sinadura nagusiak

⁹⁵ ik. 6.3.3 Markinako batzarrak: elkarte baten beharra eta ‘bertsolari’ aldizkari baten proiektua eta 6.4.3.5 Barne arrakala: Loiola Irratiko sariketaren boikota

Errenteriako Xenpelar, Musarro, Saiburu eta abar, Asteasuko Pello Errota eta Zakarra, zazpigarren mendeko Motxondo eta Usurbilgo Udarregi; bai eta ere Etxahun, Bordel eta iparreko beste zenbait bertsolari. Ez zen falta Muskariako Iruain, Fernando Katolikoak 1512. urte goibelean gartzelatu zuena, ez eta ere oraintsu joan zaizkigun Txirrita, Urretxindorra, Zepai eta beste anitz.”

Eta umorea egiteari ekiten dio hasiera horretatik: “Batzar hauetara beti azkena heltzen dena, Fernando Amezketarra omen da. Besteetan ez dakit, baina oraingoan behintzat bera ailegatu zen atzeraturik.”

Hildako bertsolariek euren batzarrerako gai nagusi gisa aukeratu dutena ere ez da alferrik jarritakoa: ‘Mundu honetako bizimodua’. Txirritak eskainiko ditu bertsoak, eta bere bertso jarrietako euskara imitatuz emango dio ukitu berezia Atxagak: “Itsasuan zer gertatzen dan/ ez al dezute ikusi/ txardin berriya eta antxua/ izurdiaren igesi/ azpiyan ezin aguantatuta/ gainera irten arazi/ an ere arrantzaliak pronto/ beren sare eta guzi/ anima salbo jende pobria/ gaur olaxe gara bizi”.

Bertsolari jantzienean hernaniarraren bertsoak iruzkintzen dituzte. Otañok, honela dio:

“Kontuan izan —esan zuen— bertso batek, ona izateko, gauza bat duela derrigorrezkoa, hori da, fantasiaren arintasuna, irudi eta imajen poetikoen bizkortasuna, kontrasteen sendotasun eta indarra. Erlea lorez lore ibiltzen ohi den bezala ibiltzen da bertsolaria ere, inongo ederrarekin gelditu gabe, gozoa laburki dastatuz. Alferrikako hitzak —hots, bertsoa ulertzeko behar beharrezkoak ez direnak— ez dira maiz aurkitzen bertso onetan. Joxe Manuelek botatakoa adibide da horretan.”

Txirritaren bertso gehiago dago, foruen galerari buruzkoa tartean, eta baita iruzkin gehiago ere, hernaniarraren poetika goraiatzeko duen Bilintxena, besteak beste. Eta batzarra bukatzeko ariketa barregarri bat aukeratzen dute:

“Nola giroa asko seriotu zen, Txirritaren ingurukoek «bertso txar bat egiteko» esan zioten, «ea horretarako gauza zen» (...) Bart arratsean Panplonan/ giñaden ferriyan/ Etumetako artzaiak/ sermoia debalde/ ernari jarri omen dek/ Aizarnan idiya/ ai zer esne eratea/ batere ez balu/ nere txapela tellatuan/ ala Jaungoikoa

Eta algara batean, batzarrari bukaera eman genion.”

Azken pasarte hau idazlearen inspirazio kolpe baten emaitza baino ez da izango ziurrenik, baina izan daiteke bertsolaritzaren historiari eginiko keinu bat ere. Izan ere, Dorronsorok (1981: 95) eta Zulaikak (2013a: 32-33) kontatzen duten bezala Xenpelarrek Justo bertsolariaren kontra Lezoko plazan buruturiko desafio famatuan bertso aldrebesenak nork bota izan bait zen dema⁹⁶.

⁹⁶ Honela kontatzen du pasarte historikoa Joanito Dorronsorok: “Garai hartan ba omen ziren bertsolari traketsak. Juxto eta Lonjinos izeneko bi behintzat. Bertso hain baldarrak kantatzen... eta jendeak txalo ugari jotzen ziela eta, zerbait berezia bazirela uste haiek ere... eta behin Juxtok Xenpelar sonatuari apustu egin omen zion, Lezon, Santa Kruz jaietarako: “ea nork botatzen zituen bertso aldrebesagoak” (1981: 95). Zulaikak, honela ematen dio jarraipena istorioari: “Xenpelar saiatzen omen zen, bai, Juxto imitatzen, baina hau bezain aldrebesa izaten zaila oso. Halako batean sekulako hau bota zuen Xenpelarrek: ‘Txantxangorri batenak/ sei libra tripaki/ txingurri batek berriz/ zazpi arto-jai./ Bayak iriña iyo./ errotak iralki./ ganibetak erre ta/ labiak ebaki.../ oyen madria nun dan/ Xenpelarrek daki’. Baina Juxtok honela erantzun: ‘Neguan otzak eta/ udan txingurriyak/ orbela ta zipotza/ denak ziyatuak./ Sugia ta ziraba/ dauzkat inguruan.../ beldur-beldurrak nago/ sartzeko mixtua’. Hura zen jendearen parrez sena galdu beharra! Hura hesteak bota beharra! Bertsolariek ez omen zuten jarraitzerik izan, jendea lurtean zilipurdika botata baitzebilan algara izugarrian. Horrela amaitu zen desafioa, garailerik ere ez eta azken bertso ere ez.” (2013a: 33)

Bigarren batzar baten akta ere jasoko du idazleak, berriro ere *Anaitasunan*, aurreko testua argitaratu eta hamabost egunera, errepikatuz:

“Zeruaren ertzeko bost izar gorriak ostera itzaldu zirenean, eta ura urago eta sua suago bihurtu zirela konturatu nintzenean, azkeneko lanak bukatu eta arin arinka abiatu nintzen batzarrera.

Bidean, Fernando Amezketarrarekin egin nuen topo, eta, honengatik, berandu nabilela susmatu nuen (...) Gertatu ere, uste bezala gertatu zen. Batzarra hasia zegoen, eta Patxi Bakalloren aldamenean eseri nintzen. Txintik ere atera gabe, zer gai genuen galdetu nion, zein bertsoz arituko ginen. «Matalasen hilketarenak zitiagu gai» erantzun zidan (...)” (*Anaitasuna*, 1973/V/31, 256. zbkia., ‘Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar harrigarriak (2)’, Jose Irazu *Bernardo Atxaga*)

Aurrekoan bertsoak Txirritak abestu bazituen oraingoan Etxahunen txanda izango da. Eta berriro ere bertsolariaren euskarari egiten dio keinu Atxagak:

“Piarres Topet «Etxahun» zuberotar bertsolariak kontatu zigunez (...) xorien xirulian kantore hau entzuten zuela iruditu zitzaion:

Urz'aphal bat ba dūgū herrian trixterik,/ Nigarrez ari dūzū kaloian barnetik,/ Bere lagūn maitiaz beit'izan iitzirik:/ Kuntsola ezazie, ziek adizkidik./ (Usapal bat ba dugu herrian trixterik,/ nigarrez ari zaigu kaiolan barnetik,/ bere lagun maiteak baitu utzi bakarrik:/ zuen kontsolapenaz ba dauka beharrik).

Matalas arras maitea zuen baten baten lanturuak ote? Etxahunek hori dio.”

Bertsolari gehiago ere animatuko da oraingoan. Idazlearen asmakuntza diren emakumezko bertsolaria, Miarriz Ahamil, eta Mieltxo Apala Otxagikoa. Bigarren honek gertaera misterioitsua aipatzen du, mezu politiko eta guzti:

“(…) bi hilabete izanen ez zituen haurtxo batek (ordurarte hitzik ere esan gabekoa, noski) eta bere aita-amen harridurako, bertso bat kantatu omen zuen. Hemen bukaera bakarrik dakart, zeren gurasoak ez baitziren lehen estrofez oroitzen, eta umetxoak ez baitzuen atzera kantatu. Hona hemen amaiera hori:

... jende pobreak edaten degu/ zazpi ontzitan ozpiña,/ euskaldunari gurutze askok/ ematen diote miña.”

II.IV EUSKAL IDAZLEAK

II.IV.I Gabriel Aresti

Lan honetan bertan nahikoa jorratu dira Gabriel Arestik (1933-1975) prentsaren bidez Basarriekin izandako polemikak⁹⁷. Polemika hauen harira *Zeruko Argian* 1963an bi txandatan argitaraturiko ‘Nire ofcinatik: Basarri bertsolariari’ nahiz ‘Basarri bertsolariari’ eta *Hierron* 1966an sinatu zuen ‘La sidrería y el convento / (O sobre cuál es la mejor escuela para un bersolari)’ dira poetak bertsolarietzaz zuen ikuspegi orokorra modu argienean adierazten duten prentsako artikulak: bertsolaria poeta herrikoia da, historikoki kritika sozial eta politikoa izan da bere funtzio nagusia, eta sagardotegiko bertsolaria gehiago gerturazten zaio esentzia horri Basarrik defendatzen duen bertsolari gorbata-dun-modernoaren zurikeria baino.

Bertsoaren zenbait alderdi neurtzeko ezinezkoak direla eta txapelketak zentzu handirik ez duela azaltzeko darabil itziartarrak adibide hau.

⁹⁷ 6.3.5.2 Arestirekin: poesiarekiko harremana eta sagardotegikoa vs. gorbata-duna II

Ahokotasunak Arestiren lanean izandako funtsezko garrantzia ere aipatu da (Gabilondo, 2009: 16-17; Gandara, 2015: 348), baita Bigarren Pizkundean ahokotasunari jarri zitzaion arreta berria eta honen ulerkera berritzaileetan bilbotarrak egindako ekarpena ere (Gandara, 2015: 350). Aipatu da 1965eko Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusian epaimahaiko ibili zela, eta Bizkaiko txapelketetan epaimahaiko nahiz antolatzaile lanak egin izan zituela. Amurizaren hitzen bidez aldarrikatu da alderdi hau: “Aresti bera ere asko ibili zen saioak antolatzen eta entzuten. Kronikak idazten ere bai. Nik beti erreibindikatu izan dut Arestik bertsolaritza alde egin zuen lana” (Amuriza, 2017). Eta Markinako bilkuretara joan zela ere badakigu, Iriondoren hitzetan dena hankaz gora jartzera azaltzen bazen ere (Iriondo, 2007).

Azaldutako guzti horiek⁹⁸ errepikatzen ez gara gehiago luzatuko. Prentsan bertsolaritza gehien argitaratu duen euskal idazlea da, ordea, Aresti, eta Basarriekin izandako polemikez haratago argitaraturikoek ere merezi dute aparteko bat.

Hamabi testu topatu zaizkio, askotarikoak eta guztiak ere interesgarriak. Testuen errebasoari ekin aurretik, ordea, deigarria suertatzen den datu bati erreparatu nahi zaio: Arestik, ezkertiarra eta euskaltzalea, mugimenduko prentsan, Bilboko *Hierron* falangistan, argitaratu zituen testu hauetako gehienak: “Gabrielek berak adierazten dio Norbert Tauer jaunari zein asmo daukan *Hierron* jarduteaz: ‘Nire herrikideen [Bilbori buruz ari dela uler daiteke] pentsamentu meharra zabaltzeko asmoarekin hamalau artikulu eskribitu nituen hemengo falanjist eguneroko batean, bertatik despedida eman zidaten arte” (Zelaieta, 2010: 242).

Bi goiztiarrenak Auspoan argitaraturiko liburuen iruzkinak dira. Lehenengoari Zavalaren ikerlari maila aitortuz ekiten dio: “Consideramos que en la actualidad el Padre Zabala es la primera autoridad existente en materia bersolarística, y más aún en el aspecto del llamado berso-papel o “papel de versos”, en la recogida de los cuales está empleando su sana juventud”. Eta bildumaren balioa azpimarratuz jarraitzen du:

“Esperamos que el Padre Zabala continúe con sus ánimos y no ceje hasta poner en nuestras manos todo el material que posee, el cual, si bien es de grandísima utilidad para los estudiosos de la lengua vasca, también presenta atractivos para quienes, conocedores únicamente del vascuence hablado, quieran regocijarse en temas amenos y bien llevados.”. (*Hierro*, 1962/IV/18, ‘Naste Borraste: Auspoa X’, Gabriel Aresti)

Zavalak martxan jarri zuenetik, urtebete eskas izan arren hamar liburu baditu jada bildumak, eta banan bana iruzkintzen ditu idazleak. Bildumaren balioa aitortu badu ere, kritika batek behar duen besteko zorrotzasunez: “Pero no se crea que todo es grano molido en la colección que comentamos”. Honela, Pepe Artolaren ‘Ustez laguna detan ta beste bertso asko’, esaterako, hutsaren hurrengotzat hartuko du: “Pepe Artola fue hijo de Ramón Artola, de quien heredó el apellido y seguramente la sangre, pero de forma alguna el genio, por lo cual no queremos dar nuestra opinión, ya que no la merece”. Victoriano Iraolaren ‘Oroitzak’, aldiz, gartsuki goratu:

“(…) gran literato, de una fuerza desacostumbrada, poseedor de todos los recursos del habla popular. Sus cuentos parecen únicamente humorísticos y aunque alguien diga que son chabacanos, nosotros encontramos su humor sumamente fino, reflejo exacto del modo de pensar de nuestro pueblo.”

Bigarren artikuluan, saileko hurrengo bi libururen kritika dakar. Nabari zaio kritikari ez ezik idazlea ere badela; honela ekiten dio Bilintxi buruzko liburuen iruzkinari:

⁹⁸ 6.4.2.2 Bertsolaritza alderdi berria berriro: Oteiza, Aresti eta Ez Dok Amairu

“Muchos que pasean por la parte vieja de San Sebastián se preguntarán (...) de quién será recuerdo el nombre de una estrecha calle, de una angosta callejuela, que parece no tener más vida que para brujas y borrachos. Llama la atención por lo raro de su nombre. *Vilinch.*” (Hierro, 1962/VI/27, ‘Dos números más de la colección Auspoa’, Gabriel Aresti).

Auspoako lanen bi iruzkinen ondotik bi bertso kronika datoz. Urte hartan jokatu zen Bizkaiko txapelketako Mungiaiko eta Markinako saioetan epaimahaiko aritu zen, eta bidaiak *Hierro*rako kronikak egiteko aprobetxatu zituen.

Kronika xeheak eskaintzen ditu, bertsolari bakoitzaren ahuleziak seinatzera ausartuz:⁹⁹

“Mientras Abel [Enbeita] nos pareció demasiado tímido, *Ichurri* [Pedro Ortuzar] nos pareció todo lo contrario. El primero mataba su buen oficio con su demasiada vergüenza, mientras el segundo dominaba al público con su buen cantar, su desparpajo, su gracia, ocultando detrás su falta de oficio (...)” (Hierro, 1962/VII/17, ‘Concurso de bersolaris en Mungía: ganó Juan Lopategui’, Gabriel, Aresti)

Ezagutza maila bat baduenak bakarrik eskain ditzakeen baieztapenak eginez:

“(...) el Jurado concertó un desempate, el cual consistió en una prueba verdaderamente apreciable, bonita de veras, nueva en las lides bersolarísticas, hija de la buena idea de nuestro estimado Alfonso Irigoyen, más definitiva, creemos, que las cuatro rimas, e indudablemente que la de seguir al punto, que fue la de dar el punto final del verso.”

Epaimahaiaren puntuaketaren inguruko sekretuak argituz:

“En esta parte Abel tuvo una actuación sobresaliente, que en puridad de concepto le hubiese valido la victoria sobre su contrincante si éste no le hubiese demostrado en las anteriores eliminatorias ser el mejor. En la forma de seguir el punto Abel y Lopategui estuvieron igualados, mientras que en el tema sobre el ferrocarril de Bilbao a Munguía, si Abel le echó más gracia, más salero, haciendo reír sanamente al público y al Jurado, Lopategui midió mejor los versos, enriqueció más la rima, el punto, cosa que si bien el público no apreció, sí estimó, y grandemente, el Jurado.”

Eta bertso onekin bertsozalerik sutsuenaren pare gozatuz:

“(...) el verso que cantó, el verso que improvisó allí, delante del público y el Jurado, fue uno de esos versos marmóreos, uno de esos versos que restarán en la memoria del pueblo (...) ‘Enamoratu egin nintzan ni/ bein udabarriko lorez/ oso dotore zegoalako/ goitik beraño kolorez/ ezkondu nintzan zoritxarreen/ biotz erdiko amorez/ nere gustua egin nuen da/ orain bizi naiz dolorez (...) Este solo verso le hubiese valido a un Chirrita, a un Xempelar, cualquier campeonato. También le valió a Lopategui el campeonato comarcal de Munguía (...)”

⁹⁹ Egun bertso kritika baterako pentsaezina den tonua ere badarabil zenbaitetan, bere izaera indartsuaren adierazle, ziurrenik: “(...) los de Marquina, más bersolaris, más divos; parece que no consideran muy necesario el ejercicio del ingenio. Buscan y rebuscan la “redondez” del verso, se afanan en enriquecer la rima, en entonar bien las músicas, en encajar bien dentro de ellas las palabras, en adoptar poses y posturas. El resultado de todo ello fue que buenos bersolaris que eran todos ellos, consiguieron llegar a aburrir el público (...)” (Hierro, 1962/VII/21, ‘Concurso de bersolaris en Marquina: venció José M. Arregui’, Gabriel, Aresti).

Deigarria suertatzen da, bestalde, nola testuak herri bakoitzaren historiako jakingarriekin osatzen dituen; baita bizipen eta gogoeta pertsonalekin aberastu ere:

“(…) Basilio Pujana, que con amabilidad nos condujo hasta Munguía en su brioso ‘Fiat’ (...) [Txorierrin barneratzean] es como reintegrarnos a una nueva Arcadia, alejarnos del humo de la ciudad, de la rectilinidad urbanística (...) Los mozos no son corbatistas, pero para adoptar un aire urbano se visten de modernos “nikis”, “ober-alls” y pantalones vaqueros”.

Idazlearen eskua berriro ere.

Baserrirekin izandako polemikez gain ‘Gernikako arbola’ren letraren egiletzaren inguruko eztabaida batean ere murgildu zen (*Txistulari*, 1965 abendua, 12 or., ‘Disentir acerca de la ilegítima paternidad de Iparraguirre sobre el himno vasco Gernikako Arbola’, Gabriel Aresti), eta bertsolari klasiko batzuren figurak jorratu zituen. Udarregiri eskaini zion lehena:

“(…) hacía una marca en la pared con un trozo de teja, y pasaba a componer la siguiente, así hasta el veinticinco o treinta que tenía cada composición suya. Cuando estaba ésta lista, solía subir desde la plaza de Usurbil hasta el caserío de Artícula-andi el organista, a quien, recordando por la particularidad de cada marca el verso que le correspondía, se las repetía una por una, para que éste las pusiera en alfabeto latino y los llevara a la imprenta.” (*Hierro*, 1966/VI/11., ‘La incógnita escritura de un poeta analfabeto’, Gabriel Aresti)

Fernando Amezketarrari bigarrena: “Gure bi literatur-tradizio eskribitu eta hitzeginen sintesi bat egin behar dugu, eta euskaldun jentearen ezpainetan jarri. Orduan, etzait dudarik kabitzen, Fernando Amezketarra ezta pailazo barregarri bat izanen, espada Euskalerraren aitajaun bat, Axularren halturakoa” (*Zeruko Argia*, 1964/IX/06,4 or., ‘Fernando errespetatu bear’, Gabriel Aresti).

Eta azkena bere bertsolaririk kuttunenari:

“Bai, ba dakit, euskaldun jakintsu jaun, neure antolojia edo erakusketa honetako portalean hain ‘kategoria’ gutiko bertsolari (poetaren gradoa ere ukatzen diezue) hau jartzen dudalako, kopeta ilunduko zaitzula, begitarteak beltzurituko zaizkizula; baina zu eta ene artean amildegi bat zabaltzen da: zu karrikaren beste galtzadan zaude, eta ni, berriz, hemengo aldean, herriak okupatzen duen galtzadan nago, Txiritarekin, bertsolariekin, bizimodua nekez eta dolorez aurrera ateratzen duen jende xehearekin. Horregatik, herriak menderik mende bere aukera egin duelako (...) neure erakusketa hau herriaren aukerarekin irekitzen dut, bertsolari batekin. Agian ez bertsolaririk hoberenarekin, baina bai bertsolariririk bertsolarienarekin, Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txiritarekin” (*Anaitasuna*, 1971/IV/15, 209 zbkia., ‘Euskal poesiaren erakusketa’, Gabriel Aresti)

II.IV.II Bernardo Atxaga

Bernardo Atxagak ez du Arestik bezainbeste testu argitaratuko gaiaz. Baina argitaraturiko horiek esanguratsuak behintzat badira.

Aipatu berri dira *Anaitasunan* argitaratu zituen ‘Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar harrigarriak’ izenburuarekin 1973an *Anaitasunan* argitaratu zituen bi piezak. XIX. Mendean Moglek edo Chahok egindakoek beste garrantzia eta dimentsio bat izan zuten arren, XX. mendean bertsolaritzaz prentsan egindako fikzio ariketa interesgarrienetako bat dira.

Urte berean, hilabete batzuk lehenago bertso kronika bat ere eskaintzen du asteasuarrak aldizkari berean. Taulatuaren prestaketa lanetatik hasten da kontatzen, zortzi aulki eta sei mikrofono jarri zituztela seinalatuz, aulkietan eseri ziren bertsolarien izenak zerrendatuz, eta mikrofonoen funtzionamendu egokia azpimarratuz: “Mikrofonoek —harrigarria bada ere— ondo funtzionatu zuten hasiera hasieratik” (1973/I/15. *Anaitasuna*, 247. zbkia.. ‘Bertsolari saio baten kronika arina’. Irazu, Jose *Bernardo Atxaga*).

Giroa eta publikoari buruzko erreferentziak, ohikoa baino tonu filosofikoago batekin osatzen ditu, eta aldarrikapenerako aprobeixatu:

“Ez dakit zenbat izanen ginen abenduaren 16an Hernanin gertatutakoak, eta zer estilotako jendea ginen ere zeharo inoratzen dut. Ez dakit zenbat nekazari eta zenbat kaletar ginen, zenbat zahar eta gazte (hogei edo ehun emakume ziren); eta azterketa sakon bat egiteko beharrezko diren beste anitz dato ere falta zaizkit. Bertsolaritzaren egoera larria ote da? Merezi du ahozko literatura honek inoren ardurarik? Jakin egin behar! Seguru asko, gauza bat falta da Euskal Herrian, honelakoak ezezik beste era askotako estudioak eginen lituzkeena: Euskal Unibertsitatea.”

Kuriosoa suertatzen da bestalde, 1880ko hamarraldian generoa estreinatu zuten Jose Manterola edo Klaudio Otaegiren bertso-kroniketan bezala, Atxaga bertsoa kronometratzen ikustea: “Lasartek, egun horretan, urteak betetzen zituen, eta Aranaldek lehen agurra botatzeko eskatu zion. Artikulu honen buru bezala jarri dugun bertso hori egiteko, leizatarrak 53 segundu egin zituen ene erlojuan. Lasai ibili zen, ez zedukan inongo presarik”. Haiek ez bezala txaloak ere kronometratuko ditu, gainera: “Eta txaloak 13 segundu barru luzatu ziren, jendea gozo zegoela erakutsiz”. Jarraian eragile baten omenaldi gisa antolaturiko saio honetakoak eta herriko jaietako saioetako txaloen pisua alderatzeko: “Herrietako festetan, bertsolariak jeneralean ez du izaten hain harrera atseginik. Jendea zutik dagoela, euri edo eguzkitan, hotz edo berotan, astuna izaten da publikoa bereganatzea, txaloa garestiagoa izaten da”.

Saioaren jarraipena ariketaz ariketa egin beharrean bertsolariz bertsolari egiten du, bakoitzaren bertsokeraren inguruko xehetasunen bat eskainiz eta zenbaitetan bere planteamendua bertso baten transkripzioarekin ilustratuz. Lasarteren malenkoniarako joera seinalatzen du, esaterako: “(...) maiz erabiltzen baititu ‘azkena ere ba datorkigu’, ‘behin hilko naiz’ eta tristura isurtzen duen beste hitz asko”; edo Muñoak umorerako daukan erraztasuna: “Ene ustez, erosoago ibiltzen da hau gai alai eta xelebreetan, eta publikoari erraz sorterazten dio algara (...) Bestalde, jendea pozez eta barrez lehertzen jartzeari oso eginkizun serioa deritzat egun, horrenbeste iluntasun tartean”; eta Koxme Lizasoren bizitasuna: “Etorrera onekoa da arras (gaia jarri eta hamar segundu gero, kantari hasten da; besteek hamabost edo hogeit hamar behar izaten dituzte). Bertsoak abiada haundian botatzen ditu (bi bertso neurtu nizekion eta bietan 30 segundu eskas egin zituen)”.

Imanol Lazkanori buruz honakoa dio:

“Imanol Lazkano kantuan aspalditikan ibili arren, ‘bertsolari gaztea’ bezala jotzen dute zenbaitek, eta arrazoirekin ene ustez. Azaltzen dituen grina eta kezketan, geure egoeraz jabetzeko moduan, uhin berriko bertsolaria nabari da. Ikus, bestela, ‘etxe batera zoaz eta zaunka hasten zaizu bertako zakurra’ gaiari lotuta, bigarren partean bota zuen bertsoa:

Egun argitan hau egiteko/ ba nuen nahiko bildurra/ ongi baineekin ba zetorrela/ nere gainera egurra/ Asmo onetan daramakit nik/ nere langintza apurra/ poliziana ez bazerade / ixildu zaitez zakurra.”

Edota argazki hau ateratzen dio Joxe Lizasori: “Jose Lizaso gizon galanta da. Honengatik bai esan dezakedala, kristorenak botatzen dituela. Lizasok —boza ederra, «zeta» eta «ese» bereizten ez dituela, lehen mailako bertsolaria— ezin daitekeela beti zigorraren menpean egon kontseilatzen du. Bertso ausartak bota zituen, paperean zentsuratuak izanen lirakeenak”.

Kritika politikoa eta soziala egiten duten bertsoak dira gehien interesatzen zaizkionak. Alderdi hori azpimarratzen du Imanol Lazkano eta Joxe Lizasorengan, edo baita Eugenio Igartzabal eta Joxe Agirrereren ekarpena baloratzerakoan ere.

Bertsolaritza soziala deritzonaren garaiak ziren, kontrakoak eta aldekoak zituen bertsogintza berri honek¹⁰⁰ eta azken hauen artean kokatzen zen idazle gaztea. Izatez, hilabete batzuk lehenago argitaratu zuen artikulua, ‘Bertsolaritzaz pentsatzen’ izenekoa, bertsolaritza sozial horren manifestu gisa baliatzeko modukoa begitantzen zaigu.

Anaitasuna baita, transformazio sozialerako tresna ezin egokiago gisa seinalatzen du bertsolaritza Asteasukoak. Horretarako kultura eta kontzientzia zabaltzeko ohiko bide gisa unibertsitatea, zinea, aldizkariak, antzerkia eta kantua aipatzen ditu lehenik. Eta zentsurak eta botereak hainbat oztopo jarriz bide hauek erabat blokeatuta dauzkala azaltzen du jarraian. Honela dio, zinearen kasuaz:

“(…) zinema, gizarte errepresibo honetan, zentsura eta galerazpenekin aurkitzen da, zerbait «esan» nahi duenean. Bestetan, berriz, filma berandu irixten zaio jendeari, batere gaurkotasunik ez duen garaian (eta, beraz, sistemarentzat arriskurik batere ez dadukanean). Zine klubetan bakan batzuk elkartzen dira (...) Filma alienatzaileek, ordea, gero eta medio hobeez jokatzeko dute (...)”. (*Anaitasuna*, 1972/V/15, ‘Bertsolaritzaz pentsatzen’, Jose Irazu *Bernardo Atxaga*)

Euskal kulturgintzak antzerkia eta kantuarekin lan on bat egiten asmatu duela ere aipatzen du, baina bertsolaritzaren bideari jarri nahi dio fokua:

“Ene ustez, bertsolariak dohai asko daduzka, lehen esan ditudan eginkizunak betetzeko. Alde batetik, zentsuratzen eta galerazten zailenetakoa da, edozein leku eta mementotan bota baititzake bere bertsoak. Oso herrikoia eta demokratikoa da, zeren behartsuenengana ere erraz hel eraz baitezake bere boza. Oso zuzena eta direktoa delako, erantzuna emateko guztiz aproposa da, problema sortu den tokian bertan kanta baitezake.”

Azken ondorio gisa forma artistikoa garaiari eta honen beharrei egokitu behar zaizkiola aldarrikatzeko:

“Jakina, bertsolaritza forma aparta izan arren, forma horren jabe den pertsona konkretua, eta beronek erabiltzen dituen gaiak, sentsibiltate, zorrotasun, jakituri eta ez dakit zer gabekoak baldin badira, forma horren efektibitatea zeharo galtzen da. Deustuan gaur ezin daiteke tomaterik bila; gaur ez dago santuen bizitza kontatzen ibiltzerik.”

Duela 45 urteko kontuak dira, Frankismoaren baitan gertaturikoak, baina bai suertatzen da apur bat deigarria gerora beti ortodoxia politikotik ahalik eta urrunen mantendu nahi izan duen idazlea kontsigna politikoaren aldarrikatzaile ikustea. 1994ean ETBk bertsolari gazteak zentsuratu zituenean, esaterako, fenomeno berarekiko distantziak markatzen zituen, umore puntuarekin:

¹⁰⁰ Ik. 6.4 HAUSTURA: PIZKUNDE BERRIA ETA BERTSOLARITZA SOZIALA (1968-1979), eta bereziki 6.4.3.4 Barne arrakala: Loiola Irratiko sariketaren boikota

“Espraia atera eta ‘Kalea guztiona da’ egin zuten pintada. Ikusgarria izan zen, baina ez zitzaidan ezer larria iruditu. Gero bertsoan oso gauza graziosoa esan zituzten; batean ‘desinformazio gehiago orduoro Euskadi Irratian’ bukatu zuen Unaiak (...) Publizitatetik bueltan Atxagaren elkarrizketa neukan eta oso majo zegoen, *sembrau*. Konturatzera, ordea, Maite lankidea azaldu zen Atxagaren atzean paper batean zuzendaritzaren aldetik mozteko agintzen zidatela idatzita zeukala. (...) Atxagari galdetu nion “Oso fuertea iruditu zaik bertsolari gazteena?” eta berak, gero Unai eta hauek asko mindu zituena erantzun zidan: “Fuerte? Ez, batere ez. Aukeran ortodoxoegiak, agian” (Garzia, 2017).

Eta 1973an argitaratu zuen bertso-saioari buruzko kronikan telebistari erreferentzia eginez bukatu zuen, hain justu:

“Eta berandu zen, etxerako bidean jarri ginenean. Bi ordu eta gehiago iragan genituen ederki asko. Entzun izan dut anitzetan, Andaluzian kitarra duten bezala, hemen bertsoa genuela, dibertitzeko garaian. Baina hori, hemen behintzat, telebistorik ez zen sasoiaren gertatzen zen. Ez nintzen gehiegi fijatu, baina irteeran ikusi nituen bertsozaleek ez zeramaten telebisioko ikusle orok izaten duen estigma edo markarik.”

II.IV.III Xabier Lete

Bertsolaritzari arreta berezia jarri zion beste euskal idazle garrantzitsu bat Xabier Lete da. Jada azaldu da Euskal Kantagintza Berriak ahozko euskal ondarearen berreskurapen eta berrerrabiltze abangoardistarekin egin zuen lan itzela, eta Letek mugimendu hartan izan zuen parte hartzea¹⁰¹. Bertsolaritza zaletasun, iturri eta langai garrantzitsu bat izango zen zuen gerora ere¹⁰², baina Frankismo garaiko urte haietan ere eskani zituen proiektu interesgarriak, ‘Gabon Txirrita’ antzezlanaren idatzi eta zuzentzea, esaterako.

Prentsan bertsolaritza gaitzat hartuz ere egin zuen bere ekarpena. Honela, zazpi testu topatu zaizkio 1974tik 1977ra bitartean *Zeruko Argia*, *Hoja del Lunes de San Sebastián*, edota *Garaian* argitaratuak¹⁰³. Guztiak hemen jorratzea ezinezkoa izanik, eta guztiak ere testu bikainak izan arren, *Zeruko Argian* argitaraturiko hiru testuren artean ikusi den loturari jarraiturik egingo da Leteren ekarpen honen zantzu bat emango duen bidea.

Honela, *Mendaro Txirristakari* eta *Kazkazuriri* eskainiriko testuei erreparatuz gero, antzeman daiteke Letek interes berezi bat baduela bazterreko bertsolariengan. Eta lehen eskuko informazioa maneijatzeko gai dela.

Mendaro Txirristakari buruz, esaterako, honela dio: “Ni mutilkozko nintzelarik, Oiartzungo enparantza nagusiko etxe batean bizi nintzen, eta igande goizetan zenbait aldiz enparantzaren kantoi batean –‘Killikupe’ deitzen zen arkupearen ertzean- petril batean igota gizon berezi eta

¹⁰¹ Ik. 6.4.2.2 Bertsolaritzari arreta berria berriro: Oteiza, Aresti eta Ez Dok Amairu eta 7.2.2 Tradizioa abanguardiararen bigarren pizkundean

¹⁰² Bertsolaritza beti izan zuen zaletasun, eta ekarpen ezberdinak egingo ditu, baina garrantzitsuena urte luzean landu eta ‘Berrehun urtez bertsoan’ izan daiteke. Zazpi diskoz osaturiko bilduma eskaini zuen 2001 urtean argitaratu zuen Xenpelar, Bilintx, Jean Baptiste Elizanburu, Etxahun Barkoxe, Pedro Mari Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador edota Lazkao Txiki haundiaren bertso sortarik aipagarrienak bilduz eta abestuz. Bestalde aipatzeko modukoa da baita, Jon Martin doktore tesia ari dela osatzen bertsolaritzak Leteregan eta Letek bertsolaritzarengan izandako eragina aztertuz.

¹⁰³ Hauek dira erreferentzia zehatzak: *Zeruko Argia*, 1974/I/13, ‘Bertsolari ala morroi’; *Zeruko Argia*, 1974/I/20, ‘Bertsolari baten filosofia. Oiartzungo Kazkazuri’; *Hoja del Lunes de San Sebastián*, 1974/XI/25, ‘Bilintx eta Juana Bixenta Olabe’; *Zeruko Argia*, 1974/XII/22, ‘Mendaro Txirristakari. Duke de Kilimon’; *Zeruko Argia*, 1976/VII/18, ‘Foruak eta bertsolaritza’; *Garaia*, 1976/X/07, ‘Vida cultural vasca/Xenpelar’; eta *Zeruko Argia*, 1977/X/30, ‘Iparragirre, artista euskalduna’.

xelebre samar bat ikusi ahal izaten nuen” (*Zeruko Argia*, 1974/XII/22, ‘Mendaro Txirristaka. Duke de Kilimon’, Xabier Lete)

Xehetasun nimiñoenak emateko gai da Oiartzungo poeta:

“Jendeak izengoitiz ‘Mendaro Txirristaka’ bezela ezagutzen zuen gizon hura, tipo pikaro eta arraro bat zen: gorputzez, ez oso haundi; argal xamarra, sobranteko koiperik gabe; begi bateko ikusmena galdua zuelarik, betaurreko lodi esmerillatu batekin ibili ohi zen, eta bertso paperetatik irakurritz kantatzeko betaurreko finago batzuk erabili ohi zituen aldiz”.

Testuingurua ere eskaintzen du:

“Gerla osteko puritanismo forzatu harek indartsu irauten zuenez gero, mezatatik ateratzen zen Oiartzuar jende serioari ez bide zitzaizkion Mendaroren molde arloak oso gogozko izango (eta gogozko baldin bazitzaizkion, disimulatu egin beharko zuen) (...) Horrela, kasik ahopean kantatu behar izaten zuen, eta hala ere goiz haietako batean Oiartzungo apaiz zahar eta kazike batek plazatik bidali zuen (...)”

Txirristakaren biografia¹⁰⁴ zirriborrotzen du, labur baina zehatz: Etxe txiro batean jaioa, hamaika seme alabaren artean bat gehiago izanik zazpi urte kunplitu gabe morroi bidali zutena, bere bizitzak sortzen zion desasoseguak eraginda 20 urterekin Kubako gerrara bolondres joandakoa... Eta bertsolariaren erretratu psikologikoa eskaintzen du, garai hartako irakurketen arabera tolestua:

“Euskal Herrian ezagutzen diren alproja famatu askoren azterketa soziologiko bat egingo bagenu, funtsean ekonomi arazoa eta sozial estrukturei doakiena beti tartean aurkituko genituzke (...) Alprojakeria, sozial balore ohiturazkoetatik kanpo ibiltzea, zinismoa, eta gainerako jarrerak, egoera latz eta gorrotagarri baten aurkako erreakzioak izan ohi dira (...) Baina Mendarok bere filosofia ‘plebeyo’ eta gaizki heziari umorezko aterabide bohemioa eman zion. Eta herriz herri bertso paperak saltzen hasi zen”

Txirristakaren bertsoekin ilustratzen du bere proposamen guztia.

Oso bestelakoa da ‘Bertsolari ala morroi’ artikulua. Gainerako testu guztietan bertsolari baten figuraren berrirakurketa eskaintzen badu, honakoan bertsolaritzari buruzko auzi orokorragoetan murgiltzen da: “Aspaldiko partez, buruan jiraka dabilkidan kezka bati heldu nahi nioke gaur. Galdera hau da: zer gertatzen da gaurko bertsolariekin? Zergatik bertsolariak beren ideia, uste eta sentimentuen adierazle izan beharrean, besteek agindutako gaien esale huts bihurtzen ditugu?”. (*Zeruko Argia*, 1974/I/13, ‘Bertsolari ala morroi’, Xabier Lete)

Planteaturiko galdera ez da, noski, bere postura azaltzeko bitarteko bat baino: “Bertsolaria, gure kondairan zehar, esateko zerbait eduki duen gizon poeta izan da. Eta esatekorik eduki ez badu, ez da hain bertsolari ona izan”.

Argudiaketari helduta, hasteko, bertsolari zakarrak eta finak bereizi eta azken hauek poesiatik gertuago leudekeela esatea hanka sartze bat dela iruditzen zaio: “Bertsolari zakar eta parrandazaleen artean guztiz bertsolari bikain eta artixtak izan dira, horra hor Txirrita. Txirritak, bertsoan ari zelarik, bere mundu bat bazuen, bere ikusmolde eta iritziak, bere estilo

¹⁰⁴ Ikerketa honetan berrogei urte lehenago bertsolari honi erreferentzia egiten zion testu bat topatu eta iruzkindu da, J.E Muñagorrik sinaturik 1932ko abenduaren 12an Madrilgo Estampa aldizkariak argitaratu zuen ‘Las festivias improvisaciones de los ‘bersolaris’. Ik. 5.4.3.2 Prentesako arrasto zaharrenen bila

eta moldea; ez zen besteren morroi (...). Eta jarraian ideia nagusia finkatzen du: “Orduan, bertsolari izatearen kakoa norberak bertsoen bitartez zerbait berezi eta berri esatearen baitan ikus badezakegu, oraingo eratzaille, gai-jartzaile eta bertsolari batzuk esan diezaidatela zer arraio egiten ari geran bertsolaria besteak jarritako gaien esale huts bezala erabiltzean”.

Ñabartzen du neurritz eta egoki jokatzen duten gai-jartzaile asko badagoela (Juan Mari Lekuona, Joxe Mari Iriondo eta Joxe Mari Aranalde aipatzen ditu), eta gai-jartzailearekin egindako saioak izan dezakeela abantailarik txapelketetan edo jaialdi handietan, baina gai libreko saioek merezi duten tokia aldarrikatzeko jaso du eraikuntza guzti hori:

“(...) bertsolarien gaurko zenbait jaialdi ikusteak pena ematen du: bertsolaria zeharo antzutua aurkitzen dugu (...) Nik nahiago dut behintzat noizpait bertsoan aspertzen banaiz, bertsolariak egun hartan txinparta gutxi izan dutelako aspertzea, ez eta gai-jartzaile ergel, sasi-jakintsu edo antuste baten gaiekin aspertzea baino.”

Ordudanik ehundaka iritzi mugiarazi duen kontua da txapelketak bertsogintzan izandako eraginarena, hamarkadak dira Amurizak gai librekoaren aldeko borroka planteatu zuela, baina Leterena arazoa planteatzen duen lehenengoetariko testu bat da, lehengo ez bada. Alegia, jada nahikoa ajatua dagoen auzi bati heltzen dion arren, berritzailea da bere garaian kokatuta.

Hala ere, ez da hau ‘Bertsolari ala morroi’ honetan gaurkotasan handiena duen musika. Beste zenbait paragrafotan Lete asko hurbiltzen zaie egun ‘autore bertsolaritza’ deritzonaren inguruan esaten direnei. Esaterako, honakoak antzekotasun nabarmenak ditu egungo zenbait bertsolari bere sorkuntzaren inguruan esaten dituztenekin:

“Bertsolariak berak esan behar ditu bere gauzak; berak aztertu behar du bere inguru, bai eta bere burua ere. Azterketa hortatik ondoren, iritzi eta sentipenak osatuz, berea duen espresio-bide hori ahalik eta nortasun haundienaz jantzi egin behar du. Irudimena, ideiak, imajiñak erabili egin behar ditu”.

‘Bertsolari baten filosofia. Oiartzungo Kazkazuri’ da hirukoa osatzeko aukeratu den artikulua. Izan ere, bi elementuak lotzen dira bertan, bazterreko bertsolariaren figuraren berrirakurketa eta Letek bertsolariaren inguruan garai hartan helarazi nahi duen mezua.

Horrela azpimarratzen du aipatu berri den ideia: “Bertsolariak, hasteko, bere mundu berezia aztertu egin behar du. Bere bizitzaz eta ingurukoenetaz iritzi nagusiak eduki behar ditu. Hau da: bertsolari-poeta izateko beharrezko den filosofia baten jabe izan behar du” (*Zeruko Argia*, 1974/I/20, ‘Bertsolari baten filosofia. Oiartzungo Kazkazuri’, Xabier Lete).

Eta horrela txertatzen du ideia hau Joxe Joakin Urbieta *Kazkazuriren* figuraren berrirakurketan:

“Kazkazurik, une berezi batetan, bere bizitzari begi-zeharka so egiten dio. Orduan bere burua ispillu batean bezain argi eta garbi ikusten du (gauza zailla). Eta oraindik zaillago den zerbait egiten du: bere burua den bezela onartu, eta bere buruari irri egin (...) Kazkazuri, beraz, ziniko sentimental bat da: fameliadun gurasoentzat oso ejemplu txarra. Baiña nortasun handiko bertsolari bat, eta hortan datza bere garrantziaren kakoa. Kazkazuri bere buruaz zerbait esaten ari den bezela, besterenaz ere zerbait esaten ari baita. Bizitzaz, bizitzaren garrantziaz eta nolakotasunez zerbait esaten ari baitzaigu: zerbait hori beltza da, baiña poesi eder bat da (...)”

Guzti hori esaten badu, testuan jasotako Kazkazuriren bertsoetan oinarriturik esaten du, noski.

II.IV.IV *Continuum*a hemen ere: Lauaxetak Sarrionaindiara

Batzuk badira fikzioaz haratago bertsoaritzaz prentsan argitaratu duten euskal idazleak. Gerraurreko poeta garrantzitsuenek, Lizardi, Orixe eta Lauaxetak, hainbat aipamen egin zizkioten, esaterako: Lizardik, zeharka bada ere, bidaia kronika batean (*Euzkadi*, 1929/XII/25, ‘Donapaleura joan-etorria’), eragile gisa buruturiko deialdian (*El Día*, 1930/I/30, ‘Euskal Olerri Jaia/Errenderiar jatorrei deia’), eta Aitzolekin euskal literaturak hartu beharreko bidearen inguruan izandako eztabaidan (*Argia*, 1932/II/21, ‘Bide berriak... Bide guziak?’ aipatzen du bertsoaritzaz; Orixe, ikusi den gisan¹⁰⁵, bere ‘Euskal literaturaren atze edo edesti laburra’ lanean gogoeta mamitsuren bat eskaintzen du gaiaz, eta urte mordoxka bat geroago bertso kronika bat ere argitaratuko du (*Herria*, 1947/X/16, 1 or., ‘Donibane Lohitzungo bertsoaketa’); eta Lauaxetak hainbat gogoeta garrantzitsu (*Euzkadi*, 1931/V/26, 5 or., ‘Azalpenak’) eta Kepa Enbeitaren figura jorratuko ditu, ikusi den bezala baita (*Euzkadi*, 1935/I/20, 1 or., ‘Ante la fiesta de hoy. ‘Maestro de bertsoaris’).¹⁰⁶

Hurrengo ziklokoak, Frankismoaren urteetan, Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga, Xabier Lete eta Mariasun Landa aipatu berri ditugu gaia jorratu zuten puntako idazle gisa, baina badago gehiago ere. Aurrekoen eta hauen tarteko belaunaldikoa, eta euskal literaturak gerraostean eman zituen lehen pausuetan protagonista garrantzitsua, berezia da, oso Jon Etxaideren kasua, esaterako. Aipatu den gisan Pierre Tope Etxahunen biografian oinarriturik ‘Joanak Joan’ eleberria argitaratu zuen 1955ean, baina ez zen hori bukatu Barkoxekoarekiko lotura: 16 artikulu argitaratu zituen prentsan bertsoariari buruz¹⁰⁷. Hori bai dela benetako pasioa.

Bestalde, Txirritari buruz (*Zeruko Argia*, 1963/III/24, ‘Txirrita, Ernaniko bertsoari iaioa’) eta 1967ko Euskal Herriko finalean Xalbadorri jo zizkioten txistuei buruz ere (*Anaitasuna*, 1967 iraila, 149. zbkia., ‘Gure lotsagarria’; eta *Herria*, 1967/VI/22, ‘Gure lotsagarria’) idatzi zuen idazle donostiarrak.

Idazle gehiago ere aipa zitekeen continuum hau ilustratzeko, baina nahiago izan da bi testuren arteko lotura egin: Lauaxetak 1935eko urtarrilaren batean *Euzkadin* argitaratu zuen ‘Ante la fiesta de hoy. ‘Maestro de bertsoaris’’, eta Joseba Sarrionaindiak 1978ko urriaren 15ean *Zeruko Argian* eskaini zuen ‘Kurutzia eta euskeriagaz’.

Bi testuek Kepa Enbeitaren figura jorratzen dute, baina lotura urrunago ere eraman liteke bi egileei erreparatzen badiegu: biak idazle gazteak ziren testua argitaratu zenean (Lauaxetak 29 urte zituen, Sarrionaindiak 20), biek euskal literaturari ekarpen garrantzitsua egingo zioten (Lauaxetak ordurako hainbat lan argitaratu zituen, Sarrionaindiarenak etortzeke zeuden), eta biak murgildu ziren buru-belarri euskal kulturgintzan eta euskal askatasunen aldeko borrokan.

¹⁰⁵ Ik. 5.3.1 Jarrera aldaketaren lehen zantzuak eta Mujikaren arrakasta

¹⁰⁶ 5.2.3 Bertso eskolen ideiarenean lehen zantzuak eta 5.2.4 Ideologiaren bozgorailu: Kepa Enbeitaren erudia

¹⁰⁷ Hau da zerrenda osoa: *Euzko-Gogoa*, 1957 uztaila, 73 or., ‘Etxahun’; *Egan*, 1962 ekaina, 3 or., ‘Etxahun’ en eriotz-eunurrenez’; *Zeruko Argia*, 1970/II/01, 7 or., ‘Erne! ‘Etxahun’ en bertsolak gipuzkeraz’ erosirik edo erostekotan zeran horrek, otoi! moztu eta gorde ezazu egillearen zuzenketa hau liburu barruan’; *Príncipe de Viana*, 1970 apirila, 2 or., ‘Euskal-Idazlariaren liburu berria: “Etxahun’ en Bertsoak’; *Egan*, 1970 ekaina, 56 or., ‘Etxahun’ en Ofizialarenak’; *BRVAP*, 1973 urria, 547 or., ‘Mendi’ko herrian’; *BRVAP*, 1975 urtarrila, ‘Igaran Sen Bladi’z’; *BRVAP*, 1975 uztaila, 31 zbkia., 409 or., ‘Khantoren Khantatzeko. Poesía compuesta por Pierre Topet-Etxahun en 1829’; *BRVAP*, 1976 urtarrila, 210 or., ‘Observaciones a Üdoi’ en Prozesaren khantoria’; *BRVAP*, 1976 uztaila, 519 or., ‘Khantore berria (1848)/Hegiluz’ en erosta-kanta’; *BRVAP*, 1977 urtarrila, 482 or., ‘Observaciones a ‘Bi Berseten Egitez’; *BRVAP*, 1977 uztaila, 482 or., ‘Observaciones a Phixta’ko Olha’; *BRVAP*, 1978 urtarrila, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 191 or., ‘Observaciones a ‘Ofizialarenak’; *BRVAP*, 1978 uztaila, 413 or., ‘Etxahun’ en bizitziaeren khantoria (1834)’; *BRVAP*, 1979 urtarrila, 97 or., ‘Observaciones a ‘Gaztalondo’ko neskatilak’’, eta *BRVAP*, 1979 uztaila, 327 or., ‘Belhaudi’ko Bortian’’.

Enbeitaren biografiaren ezagutza sakona erakusten dute baita bakoitzak bere testuan. Bertsolariaren ikasketa prozesuan jartzen du azpimarra Lauaxetak:

“Allá por los años de 1878 nació en Muxika, el 8 de septiembre. A los nueve años comenzó a acudir a la escuela, pero conocía de memoria el catecismo (...) Las manos finas del bertsolari de Muxika soportaron las ignominias del anillo (...) se rebeló contra tanta vergüenza y lanzó el anillo al tejado de la iglesia parroquial (...) Pero Enbeita, el domador de la estrofa vasca, no se acobardo. Con un buen vecino de su pueblo natal comenzó a estudiar las primeras letras.”

Sarrionaindiak, aldiz, jatorri xumeari eta bertsotan emandako lehen pausuei erreparatzen die:

“Zornotatik Gernikarako bidean eta Areatza baino lehen ezkererat da Usparitxa deritzan baserria. Hementxe jaio zen 1878ko irailaren 8an Enbeitatar Kepa (...) Enbeitatarak zazpi seme semealaba ziren eta soro-landetako lanez aparte beste ogibide etxetiar bat ere bazuten: otzara edo saskigintza. Otzarak eta saskiak saltzera Somorrostro, Gueñes eta Truzios alderat joan ohi ziren sarri heurenak eta hauzokoen otzarapiloak gurdian harturik (...) Gernikako astelehenetan bertso-paperak erosten omen zituen. Zugaztietarat lanean etorritako gipuzkoar batzurekin ere aritzen zen bertsotan (...) Honela tabernetan lehenengo eta jaietan gero trebetuz joan zen (...)”

Muxikarrak bertsolaritzari egindako ekarpena seinalatzen du Laukizkoak:

“Por todos los pueblos de Bizcaya, comenzando por primera vez en Bermeo, recorrió Gipuzkoa, Araba y Navarra (...) Su fama se extendió por toda Euzkadi. Ha contendido con Pello Errota, Txirrita, Eskurrua, Gaztelu, Prantxesa, Aizpiri, Aixarna, Alkain y otros diestros (...) Enbeita es el príncipe de nuestros bertsolaris. Tiene la forma popular, bellísima de un hombre culto, pero su inteligencia, ironía y hondura, en el pensar son netamente aldeanos”

Baita Iurretakoak ere:

“Azpiri gipuzkoarra izan zuen laguna, gero larrabeitiar Eustaki Erauskin, Betolaza begoñarra, Akain, Enbeitatar Imanol anaia (...) Urretxindorra plazetan aritzen zen bapateko bertsoetan, baina bertsolari eskolatua zen eta idazlanak argitaratzen zituen garaiko aldizkarietan (...) Bertsolaritzaren historian Kepa Enbeitaren figura garrantzitsua da, bera izan baitzen bertsolaritza nazionalistaren lehen gailurra.”

Hortik aurrera, ordea, ez dira ados jarriko. Lauaxetarentzat bertute bat da Enbeitak dogma sabindarrekiko eta elizarekiko erakusten zuen lotura estua: “Leyó con toda devoción los libros sagrados, pero sobre todo se dedicó a penetrar en el secreto de las enseñanzas sabinianas”. Eta mezu honen alde egindako ekarpenengatik eredutzat jartzen du, bertsolariaren omenezko busto bat egin behar litzatekeela proposatzeraino:

“Hoy, que ese reunirán varios bertsolaris de altura e ingenio, queremos que el ejemplo de Enbeita les sirva de alimento y de lección. Nadie como este buen bizkaino pudiera señalarles un camino. En su esbelta figura, tallada en mármol, se han hermanado las tendencias más opuestas, al parecer: la elegancia del poeta culto y la gracia irónica y rapidez del bertsolari (...) El primer Día del Bertsolari debe honrar a su más excelso representante (...) ¿Una colección de sus mejores improvisaciones? O mejor la colocación de su busto, regio busto labrado por Elgezua, en su pueblo natal.”

Sarrionaindiak, aldiz, dogma sabindarrei eta elizari astindu bat emateko baliatzen du testua, ñabardura azidoak nahiz esaldi mamitsuak tartekatuz eta oinarri gisa Enbeitaren bertsoetan islatzen den ideologia hartuz: “Euskara eta gurutzea dira Kepa Enbeitaren mezuaren zutabeak, topikorik errepikatuenak eta harmak (...) Euskal Herriko arazoak hala soluzionatuko bailiren... euskal gurutzada batetara deiarkatzen da Kepa Enbeita”. Bertsolariaren esentzialismoa eta idealizazioa ez zaizkio serioak iruditzen: “Bada, Euskal Herrian batez ere (non kastitate botoa arras hedatua den, bestalde), fetitxismo sesual moduko bat konzepto abstraktoekiko. Euskara pretendientez edo maitalez inguratua da aspaldidanik”. Idazleari gertuagokoa suertatzen zaio Txirrita, honen bertso batzuk ere jasotzen ditu artikuluaaren sarrera gisa, eta klase gatazka txertatzen du funtsezko aldagaia gisa:

“(...) normala da egun ere esaldi paternalista eta frentista topiko batzu entzutea, Kepa Enbeitak aspaldian esaten zituen tankerakoak (Euskalerriko anaiak danok/bat egin bear genduke/, ibili barik alkarren kaltez/bata bestiaz burruke...). Ez dira enteratzen lehen baldintza, anaiak izatea (interes berberak izatea, alegia) faltsoa dela eta, ondorioz, beste guztia ere ez dela erreala”.

Hemen ere continuuma beraz, eta hemen ere bi euskal pizkunderen arteko ezberdintasun ideologikoez irekitako arrakala.

III. ERANSKINA: PRENTSAKO TESTUEN ITZULPENAK

III.I *JOURNAL DES VOYAGES, DÉCOUVERTES ET NAVIGATIONS MODERNES, 'SOUVENIRS DU PAYS BASQUE ET DES PYRÉNÉES EN 1819 ET 1820'*

14. orrialdean hasten da bertsolaritzaekin. Mahaiaren bueltan eserita dagoen taldea aipatzen du, jan-edanak beroturiko giroa, eta bertsolaria altxatzean bat-batean nagusitu den isiltasuna:

“Baina eraman dezagun euskalduna bere plazeren eta jolasen eremura eta ikus dezagun une horietan nola erakusten duen bere irudimen distiratsua. Askotan, otordu baten poztasunaren erdian, berezko bizitasun naturala ardo on batek edota jaki gozoren batek kitzikatua, gizakiak bere izatea plazer hutsa dela sentitzen puntu horretan, gonbidatuetakoa bat inspiratuta sentitzen da, zutik jarri eta iskanbila isildu egiten da; isiltasunik sakonena nagusitzen da eta ordura arte aktore iskanbilatsu zirenak belarri erne bihurtzen dira”.

Bertsolariaren jarduna deskribatzen du, gako batzuk eskainiz eta ukitu literario bat emanaz:

“Abestu egiten du. Ahapaldiak bata bestearen atzetik datoz. Poesia modu natural batean jaiotzen da bere ezpainetatik. Bere kantua grabea eta neurritsua da; melodia, hitzak, dena inongo esfortzurik gabe sortzen da, bere irudimen aberatsak etenik gabe hornitzen du ideia berriez, bai gonbidaturen bat omentzen ari delako, edo baita herrialdeko kronika bere abestietarako testu gisa egokitzen zaiolako. Modu honetan ordu luzez abestuko du. Gainera, bertako beste norbait ere inspiraturik sentituko balitz artzainen arteko lehia dialektiko bat ezar daiteke eta ikuskizuna are interesgarriago bihurtuko da (...)”

Egun bereko iluntzean parean tokatu zaion saioaren kronikan azken puntuaren errepika aipatzen du eta bertsolariak tarte hori hurrengo bertsoa pentsatzeko baliatzen duela ere erreparatzen dio:

“(…) ate ondoan gelditu ginen arratsaldeko freskuraz eta iluntzearen edertasunaz gozatzen (...) mutil gazte talde handi baten baitatik kantuan ari zen gizaseme bat ikusi genuen. Bere bertsoak baserri baten atarian pilaturik zeuden neska batzuei zuzentzen zizkien baina kaleak banatzen zituen bi taldeek ez zuten elkarrengana hurbiltzeko zirkinik ere egiten. Neskek bertso bakoitzaren bukaera errepikatu egiten zuten koruan, eta hori egiten zuten bitartean bertsolariak bere euskal buruaren baitan hurrengo bertsoarako gaiak bilatzen zituen, horri ere berdina erantzungo zitzaizkion (…)

Hizkuntzaren ezezagutzak suposatzen dion muga aipatzen du Boucherrek, penaz, eta hitzotan berriro ere argi gelditzen da bat-bateko bertsolaritza ari dela:

“(…) Nola bota nuen faltan hizkuntzaren ezagutza inprobisazio horietako batzuk jaso ahal izateko. Izan ere, kantu hauek, otorduaren alaitasunak inspiratu zituenak bezala, ez zeuden aurretiaz prestatuta. Alferrik saiatu nintzen hitzen zentzua harrapatzen. Egileek eurek bukatu bezain pronto ahaztu dute abesturikoa eta honen zentzuaren berri eskatuko bagenie jada ez litzateke berbera izango (...)”.

III.II *GAZETTE DES TRIBUNAUX: 'ASSASINAT COMMIS PAR MÉPRISE' (1828)*

Testuak xehetasun osoz, luze eta zabal, aletzen du epaiketaren jazotakoa. Honela deskribatzen du bertsolaria bera eta epaiketaren sortu duen ikusmina:

“Arropa zarpail miserable batzuk apenas estaltzen zuten gizasemea eseri zen akusatuen aulkian. Hazpegi markatua, arnas aztoratua eta begirada bizia (...) barrena pasioak gainez zuela nabari zitzaion alde guztietatik: amodioaz eta bere ondorioez hitz egin zen, eragin dezakeen sukarrak. Emakumez beteak ikus zitezkeen epaiketa gela. Eszena tragiko bat mintzagai, zeloak osagai eta bizigarri zituena. Emozio indartsuak espero ziren. Itxaronaldiak pena merezi izan zuen (...)”. (Haritschelhar, 1969, 532).

Kontatzen da Dominique Etxegoien barkoxtarrak 1827ko maiatzaren 1ean gaueko 10etan bere etxe ondoan dagoen zubi batetik bueltan zetorrela tiro bat entzun zuela eta gutxira odol putzu batean etzanda aurkitu zela. Ez zuela inor ikusi. Auzokoek lagundu zutela. Gizon pakiosoa zela eta inork ez zuela ulertzen zer gertatu zen bere lagun on bat desagertu zen arte:

“(…) Etxegoienaren lagun min bat ez da zauritua bisitatzeraz azaltzen. Bere izaera bortitz eta oldarkorra ezaguna da inguruetan. Bere izena aipatu denetik mundu guztiak susmo bera dauka.

Etxahun da izen hori. Arima gartsua eta minberatasun gehiegizko bat ditu, bere gaztaroa gatazkatsua izan da eta denborak ezin izan ditu bere okerrak zuzendu. Bi urteko zigorra ezarri izan zitzaion berekin eztabaidan ari zen gizon bati aizkorakada bat emateagatik eta txanponak faltsifikatu izanagatik ere salaketa bat bazeukan”.

Berekin peoi gisa ari den lankide baten deklarazioak argi samar uzten du dena. Etxahun konbentziturak omen dago bere emazteak Egiapal izeneko maitale bat duela. Emazteak izandako haurretako bat maitalearena delakoan omen dago, ideia horrekin erabat obsesionatu bizi omen da. Egiapalaren etxea zubi ondoan aurkitzen da eta Etxahun galdezka ibili zen maiatzaren 1eko gau horretan honek Oloroneko feriara irten behar ote zuen. Estainua funditzen ere ikusi dute Etxahun eta Etxegoienaren zaurietatik estainua ateratu dute. Alegia, maitaleari beharrean lagun minari egin diola tiro, eta mendira ihes egin:

“(…) Larraineko mendietan ezkututzen da artzai zahar batek eskainitako aterpean. Bakardade horretan buruan bueltak ari zaizkion ideiak jasangaitz bihurtzen zaizkio (...) konturatzen da Egiapalaren egindakoa bere lagun Etxegoienaren ordaindu duela. Bere bihotza irekitzeko beharra sentituaz, artzain zaharrari bere desguzien historia kontatzen dio (...) bere maitasun suharrari buruzko kantu ilun bat sortzen du (...)” (Haritschelhar, 1969, 533).

(...)

Azkenik, armarik topatu ez zitzaionez, libre utziko dute bertsolaria, eta kronikaren azken paragrafoak aditzera ematen duenez epaiketako publikoak ere enpatia hori erakutsi zuen: “Egin zaion galderari Etxahun ez dela erruduna eta libre utzi behar dela erantzuten dio epaimahaiak. Erabaki hau oso gustura hartu du auditorioa betetzen duen publikoak bertan nagusitu den mugimenduak aditzera ematen duenez” (Haritschelhar, 1969, 537).

Libre gelditu izanagatik, ordea, bertsolariak ez dio justiziarekin arazoak izateari utziko eta bere epaiketaren kronika gehiago gehituko zaizkio bertsolaritzaren hemerografia historikoari. Etxahunen deskribapen bikainak eskaintzen dituzten paragrafoak idatziko dira berriro, 1845ean Journal des Landesek argitaraturiko hauek, esaterako:

“(…) Hegal zabaleko kapela, oskolez estaliriko kapa, bularretik behera luzatzen zaion bizarra, erlikiaz eta errosarioz hornituriko gerrikoa; erromes klasikoaren ikur guzti hauekin sartu da Pierre Topet audientziara (...)”

Lehendakari Jaunak Pierre Topet inguratzen duen kinkila guzti hau kanpoan uztera gonbidatzen du, Justiziaren Santutegiari zor zaion begirunea urratzen duelakoan, baina akusatuari oso nekeza suertatzen zaio agindua betetzea. Betaurrekoak jartzen ditu duintasunez eta zutik jarrita begirada ikusleen artetik paseatzen du, herriko plazan balego bezain lasai. Gendarme batek esertzera behartzen du (...)

Pierre Topetek ez du kondenatua izan nahi entzuna izan gabe. Bere mingainak kasik bere zangoek bezainbesteko aktibitatea dauka.

Lekuko bat aurkezten da eta juramentua bukatu aurretik ozen entzuten da akusatuaren aulkitik: “bera nire etsaia da!”. Hitza hartzen du eta deskribatu ezin daitekeen azentu betekin bere historia, edo hobe esanda bere eleberria, kontatzen hasten da (...) “Nire emazteak bost edo sei maitale zituen eta ermitau gisa erretiratzea erabaki nuen (...)” (Haritschelhar, 1969, 549-550).

III.III ALBUM PIRÉNÉEN-REVUE BÉARNAIS, ‘DES BASQUES ET DE LEUR POÉSIE (1841)

Testuak, aipatu den bezala, Boucher de Crèvecouerren lehenengo haren aipuak jasotzen ditu eta bertsolaritzari buruz gerora askotan errepikatuko den ideia luzatzen du, kasik berez ateratzen zaiola bertsoa euskaldunari:

“Gogoberotasuna da euskaldunak bereizten dituen ezaugarria; poeta da modu natural batean, abesteari ekiten dionetik. Berezkoa du gustua: irakaslerik gabe, leziorik jaso gabe, apenas adierazi diren berezko arauak jarraitzen ditu; sentimenduak gidatzen du; abesteari ekiten dio eta abesten duen bitartean sortzen du; beretzat ez da nekosoa, ez da lan bat; hoztasunik ez du ezagutzen eta figurarik grazios eta bikainenekin hornitzen du bere jarduna (...)”.

Jolasaren plazer soila aipatuko du, oso modu loratuan bada ere, bertsotarako motibazio gisa:

“Cantabroen ekintza famatuak etziren aberastasuna edo sona lortzearen burutuak izan. Askatasunari zioten maitasun soila zen borrokara zeramatzana. Euskal poetak ere ez du bertsoa ondasunak edo izen bat eskuratzeko sortzen. Abesten badu, pasioak bere hitza piztu duelako izango da; barrua hartu dion sua isuriko du basoan, animatu duen esperantza, tristatu duen malenkonia, eta bere abestiaren oihartzunak bakarrik erantzungo dio. Beretzat bakarrik abestuko du baina plazerrik handiena emango dio honek (...)”.

Euskararen bertsogintzarako egokitasuna ere seinalatzen du eta bertsolaritzari adjektibo mordo bat jartzera animatzen da:

“Poesia arinari dagokionean euskal herriak ez dio inbidiarik beste inori. Bere hizkuntza ezin hobeto egokitzen zaio bertsogintzari. Ez ditu inoiz erabiliko frantziarren artean ohikoak diren eta interesa zapuzten duten hitz handiusteko eta figura desproporzionatuak (...) Euskaldunen poesia funtsean goxoa, bixia, ilauna, figuratiboa eta tolesgabea da; pasioaren suaren garrak har ditzake, doinurik gozoenaren samurtasuna (...)”.

Azkenik, bertsogintzarako arauen aipamentxoa ere egiten du, baina gehiegi sakondu gabe:

“Euskaldunen poesiaren arauak, gutxi gora behera prosodia frantziarraren berdinak dira; baina normalean euren bertsoak hamabostetik hogeitabi silaba bitartean izaten dituzte eta oin bakoitzean errima berdina (...) Askotan euren abestiak elkarrizketa bidez osatzen dira, ez dute susmatzen duela hemeretzi mende Virgiliok jada esana zuela: ‘amant alterna camenoe’”

III.IV TRILBY, 'CHANT BASQUES' (1844)

'Voyage en Navarre'n, 1836an, bertsolarien aipamen dezente egin zituen, guztiak ere pisu gutxikoak izan arren, eta bi urte beranduago anaiak argitaratua zuen Etxahuni buruzko artikulua. Bertsolaritzarekiko igurtzia urrutitik zetorkion, bada, eta gogotsu heldu zion gaiari:

“Euskaldunak ditugu, egun, bat-bateko poesigintza populuarena den Europako nazio bakarra. Berezitasun honek garai honetako beste nehongo naziok ez dauzkan pribilegio historikoetan du funtsa: ez konkistak ez joputasunak ez die odola herri arrotzekin nahasi; beren mintzaira sortu zen lehen mendeetan bezain garbi eta aldatu gabea dute gorde; lanerako eta aisiarako tresnen sortzeak ez die ekarri antzinako azturen katea eten zezakeen neholako hondamenik: oraino nazio berria bada ere antzinasun handia ukanik, Euskaldunek naturatik hullan iraun dute, eta abantaila honi zor diote halako atrebentzia bat asmatzeetan eta eginkizunetan, bat-bateko poesigintzarako dohainean nabarmenki ageri dena.”

Propio azpimarratzen du kultura popularraz ari dela, kultura jaso gizarre handiekin, aberastasunarekin eta aisialdiarekin lotuz: “Populuaren poesiaz besterik ez dugu hitz eginen hemen. Literaturaren oldarra ez da gertatzen multzo sozial handietan baino, aberastasunaren eta astiaren altzoan.”. Eta euskal kulturaren garapen subalternoaren hipotesiaren zantzu bat duen planteamendua gaineratzen du:

“Gerlak atertu gabe erailik, bizi diren lurraren nolakoak pobreturik eta eskualde murriz eta helezin baten mugetan hertsirik, Euskaldunek ez dituzte zientziak eta arteak landu ahal izan beren mendietan (...) hogeita hamar mendetik honat milioi bat biztanle baino haboro inoiz eduki ez duen herri batez ari garelarik (...)

Baina non kausituko ditugu, Euskaldunetan ez bada, bat-bateko bertso grazios eta zorrotzak «tono-à-tono» harrigarritzko erraztasunaz sortzeko nahikoa barnealdia luketen artzain, laborari, eskolatu gabeko esku-langileak?”

Gerora hainbeste azpimarratuko den ideia dator ondoren, aurretik Boucher de Crèvecoeurrek bakarrik eta oso modu arinean aipatua: bertsolaritzaren dimentsio historikoa eta bertsolariak kronista gisa betetzen duen funtzioa. Menditarren gazeta da bertsoa:

“Euskal inprobisazioek poesia espekulatibo orok duen berezko ezaugarri historikoa dute; horregatik maite dituzte gehienik Menditarrek, kantuz osatu Kazeta bat daukate horrela. Xalotasun naif berberaz dira kantatuak drama politikoak eta bizi intimokoak, maila arrunteko gertatuak, pilota partida, amodiozko altekeria, galdu edo garaituriko bataila.”

Eta bilketaren beharra ere azpimarratzen du, kantutegiaren proiektua iragarritz:

“Gertatuak jin arau, egungo berriak ahantzarazi egiten du bezperakoa; eta Musa nazionalaren ekoizpenak, oroimen pribilegiatuen gogoan aldi batez egon ondoren, galdu egiten dira betikoz belaunaldi guti batzuen buruan.

Gure kantu nazionalen eta gure antzinako ahaireen naufragio handi hau eragozteko deliberatu gara argitalpen honen ateratzera (...)

(...)

Nazionaltzat hartzen du kantutegia birritan. Iztuetak bezala euskal kulturaren adiera nazionala azpimarratuko du beraz, hark bezala monumentu hitza erabiliz, baina irmotasun gehiagoz, euskal abertzaletasuna ere mahaigaineratuz:

“Uste dugu txalo patriotiko batean hartuko dutela gure asmo hau Erresuma bietako euskal probintziek. Haizu gara gure bilduma atzerritarrei ere eskaintzera, eredugarri bezala eta Europako biztanleria zaharrenetariko baten jitetasun poetiko eta musikalaren taupada duen monumentu gisa.”

III.V ARIEL, ‘AITOR/LÉGENDE CANTABRE’ (1845)

Eta testua bertsolariaren deskribapenarekin irekitzen da:

“Lara, kantabriar koblakaria, zeinari buruz Silio Italiko olerkariak deskribapen ederra egiten baitu bere epepeian, Gerla Punikoari buruzkoa, Barduliako Euskotarren edo Gipuzkoarren tribukoa zen (...) Lara, zeinak hogeita hamar urte baizik ez baitzituen, gerlarien lili izendatua zuten eta koblakariaren printze. Barduliarrak harro ziren haren edukitzeaz, eta beste tribuek, euskal federakuntzakoak, ezta Zuberotarren salbuespenarekin ere, ez zioten ezin konparatuzko kantari horri lehiakiderik ezagutzen (...)”

(...)

Euskaldunen aintzinako urrezko aro batean kokatzen da kondaira Gerekiz izeneko alegiazko mendialde batean. Gerra bat amaitu berri dute eta ilbeteko festa ospatzeko bildu dira tribu guztiak. Ospakizuna, noski, bertso-saioekin abiatzen da, historia nazionala gogorarazteko bertsoekin: “Lehenbiziko gaua nazio-historiaren orroitzapenari emana zitzaion, askatasunaren haritzpean zegoen taulada baten gainean batak besteen ondotik txandakatzen ziren koblakariak egina”. Ohiko tradizioa hautsiaz, bere merituengatik, Larari bakarka aritzeko aukera emango zaio, ondoren; berak asmatu ondoren kondaira bat kantatu nahi du honek: “Tribuko zaharrek Larari merezia bezain erakargarria zeukan saria eman zioten (...) koblakariak oro alde batera utzirik, biltzarra libertitzeko, hala nola jende aitzinean berak asmatu kondaira bat, Aitor zeritzana, deklamatzeko manatuz”.

Testuaren mamia kondairaren kontakizunak berak dakar baina ez dio horrek bertsolariaren paperari garrantziarik kentzen. Chahok behin eta berriro azpimarratuko du bere protagonismoa. Honela, azti eta igarle gisa aurkezten digu lehenengo: “Mitra distiratsu batekin estalia zuen burua, eta bere sorbaldetan dalmatika aberatsa jantzia zuen, aztien eta igarleen funtsezko soinekoa zena (...)”. Aipatu da 30 urteko gizon gazte bat dela, baina itxuraldatua ageri zaigu Lara, aztiaren jantziak soinean, bizar zuri eta guzti.

Aurrerago, bertsolaria ikusleen begietara lehen patriarka bera dela ere badio: “Eta, pauso serio eta dotorearekin, tauladaren bazterreraino aitzinatu zelarik (...) koblakariaren soinekoa apaintzen zuten broderia sinbolikoen dirdira zilarreztatuan, bakoitzak Aitorren irudia ikusi zuen, arbaso handia, aitalehena, Indoantlantida arrazako aita, eta Euskotarren seme zaharrena”.

Bertso-saio bati berezkoak zaizkion hainbat xehetasunetan ere sakontzen da: bertsolaria taulatura agertzen denean egiten zaion arrerako txalo zaparrada (‘bere agertzea txalotze orokor batekin agurtua izan zen;’), bertsoari ekin aurreko isiltasun sakratua (‘Jendearen arreta goienera zegoen. Haritzaren inguruan eta mendien gainean nagusi zen isiltasun liluragarrian...’), publikoaren harridura eta miresmen erreakzioak (‘eta haritzpean jarri aguretarik batzu erdizka altxatu ziren, harridurazko eta mirespenezko oihu batekin’)...

III.VI LA PRESSE, ‘FEUILLETON DE LA PRESSE/INTERNATIONAL PARIS-LONDRES’ (1851)

Artikulu luzea da, hiriburu britainiarrean ikusi ahal izan dituen hainbat antzezlan eta opera iruzkintzen ditu, topatu dituen idazle eta abeslariari ere eskaintzen die tarte bat eta azken

paragrafoan ekiten dio Iparragirreraren emanaldiari. Lerro gutxi dira, baina nahikoak urretxuarra edozerrekin ausartzen zen artista zela erakusteko:

“Baronian-Hall-etik irtetea ezinbestean espainiarra behar zuen gitarra baten hotsa entzun genuen, eta ‘Toros del Puerto’ kantu ezaguna abesten zuen ahots kartsu eta urduri bat. *Sanz des vachese* [Suitzako abeltzainen abesti tradizionalak] suitzarrengan sortzen duten eragin bera izan zuen geuregan eta Ingalaterra uzteko desio indartsu batek hartu gintuen. Octavio eta beste abeslari batzuk bezala Simposiuneko kontzertuetarako kontratatua dagoen Jose Yparragirre zen gitarra horrela jotzen zuena. Bere aberriko hizkuntzan eman genizkion eskerrak sortu zigun plazerragatik, eta andaluziarrez nahiz ijitoen hizkeran koplak batzuk abestu zizkigun Kristalezko Jauregia, ikatza eta garagardo beltza soberan geneuzkela pentsatzera eta Espainiatik kanporatu ziren mairuengatik hain ezaguna den Granadaren nostalgia sentitzera eramán gintuztenak.”

III.VII ‘NEBER DIE BASKEN UND IHRE VOLKSLIED’ *WIENER ZEITUNG* AUSTRIARREAN (1860)

Jada aipatua den kontu bati heltzen zaio, esaterako, euskara olerkigintzarako hizkuntza egokia dela seinalatzen denean, baina azalpen zientifikoago bat ematen da eta euskal gramatikak egitura metrikoetarako egokitzapena errazten duela gaineratu: “Euskara goxoa eta limurtzailea da, armonia eta sonoritatez betea, ezin hobeto egokitzen da poesia lirikora. Michel jaunak honela adierazten du: euskal hizkuntzaren mekanismoak, bere mugimenduek, bere bukaera gramatikalek bereziki errazten dute egitura metrikoa”.

Bertsolaritzaren transmisio naturalaren irudia ere zirriborratzen da:

“Gazte batek irudimen ernea eta, kanta popularrak abesten dituen aita bat, edo antzinako abestiak errepikatzen dituen ama bat baldin baditu, laster hasiko da bere kontura kantuan. Beste inolako ikasketarik gabe hasiko da kantuak sortzen, hegaztiekin gertatzen den bezala, kumeek ariak senez errepikatzen dituzten gisan.”

Ordura arte basati onaren figura azpimarratu bazen, neurri batean kontrakoa esatera dator baita, zehaztuz klase altuko jendeak ere hartzen duela parte bertsogintzan:

“Abeslari folklorikoei ‘Koblakari’ deitzen diete euskaldunek eta, aurrez argitu den gisan, gehienetan inprobisatzaileak izan ohi dira, baina askotan gertatu ohi da klase altuagoetako jendeak ere parte hartzea, festa giroan, garapen errazeko kantu horien sorkuntzan.”

Gaitegiari ere erreparatzen zaio: “(...) poesia popular horren kexuak nagusiki, herri guztietan gertatu ohi den modura, maitasunaren ingurukoak izan ohi dira, edota baserri bizitzaren ingurukoak nahiz bizio sozialak direla eta modu alai batean hauekin bat egin ala zirrikada satirikoa eskaintzen dutenak (...)”.

(...)

Salbuespen gisa 1866an *Revue de Gascogne* Jean Françoise Bladéren ‘Dissertation sur les chants heroiques des basques’ iruzkina topatu da. Iruzkin honek, Wiener Zeitungekoa ez bezala, kritika gordina egiten dio Michelen lanari eta bai egiten zaio aipamenen bat, bazterrekoa bada ere, bertsolaritzari; bazterrekoa eta ezkorra:

“Maitasun arrangura traukilak, arrantzale istorioak, migranteak, marinela, zaldi trafikariak eta kontrabandistak, Kortsikakoen antzeko hil kantak, eztei koplak, bizitza errearen inguruan koblakariak inprobisaturiko garrantzi gutxiko platerak, hori da dagoen guztia. (...) Gerla poemen benetakotasunaren edo antzinatasunaren defendatzaile sutsuenek ere (...) onartu behar izan dute euskaldunen kantu modernoaren baitan ez dagoela aipatzeko moduko ezer”. (1866: 98-99)

Folklorista da Bladé (1827-1900) ere, frantziarra baita, ahozko tradizio gaskoian espezializatua, eta nabari zaio euskal kulturaren inguruan jantzia dagoela. Gaiari buruz aritutako hainbat egile aipatzen ditu, eta han eta hemen jaso izan diren aitzinako euskal bertsoen arrastoak seinatu, argudiaketa luze baten buruan Michelen lanean funtsezkoak ziren Altabizkarreko eta Kantabriarren baladak faltsuak direla ondorioztatzeko. Honela laburbiltzen du bere tesia azken paragrafoan:

“(…) euskal kanta heroikoen faltsutasuna frogatutzat ematen dut orain: 1. egungo hizkuntzaren bitartez ustez duela mila edo 2000 urte idatziriko poemak erabateko erraztasunaz ulertzea onartzea ezinezkoa delako; 2. hegoaldean olerkigintza sortu baino lehen inoiz literaturarik eta izate ofizialik izan ez duen hizkuntza batean bi monumentu horiek idatzi izan zitezkeela dioen hipotesia onartezina delako”. (1866: 111)

III.VIII LE SIÈCLE, ‘QUELQUES PAS EN ESPAGNE’ (1864)

Hasiera batean grazia egiten dio kontuak, bertako musika, jendetza, toreroen ‘paseilloa’, arnasten den jai giroa... zirkoa dakarkio burura. Baina pikatzailea zezenari eztena sartzen hasi bezain pronto erabat damutuko da hartutako erabakiaz:

“- Zer gertatzen zaizu? esan zidan alkateak; oso zurbil zaude.
- Hala da, esan nion, bihotzeko eritasun bat daukat.

Kajatik kanpo pausu batzuk ematen lagundu zidaten [lehen lerroan jarri zituzten bi atzerritarak] eta nire zentzumenak berpiztu zituen ‘cordial’ bat hartu nuen. Ezin nuen gisa horretako ikuskizun ikaragarri higuinagarri bat odol hotzean ikusi. Pikatzailearen ariketan gizakiak ez du inolako arriskurik jasaten, baina zaldiak ez du zezenarekiko defendatzeko inolako modurik; ez da giza ankerkeria elikatzen duen sufrimenduaren gorazarre bat baino”.

Rousseauk gizakia berez ona dela esaten duela gogoratzen du ironiaz eta beste zenbait filosofok Jainkoaren irudira egina dagoela defendatzen dutela. Umoreak gutxi iraungo dio, ordea, banderilleroen nahiz *matadore*aren lana baitatuz jarraian:

“Harakin eldarniatuen suntsiketa eszena honen ondotik, ikuskizunak banderilleroen eta matadorearen ariketekin jarraitzen du. Banderilleroarenak graziosoak izango lirakeke ez balitz habete eta erdi dituen dardo bat hondoratzen duela zezenaren lepoan (...)”.

Zezenketa bukatu ondoren, Frantzian berehala debekatu behar lirakekeela errepikatu ondoren, kafetegi batean sartzen dira bi lagunak gorputzaldi txarra uxatzera. Bertso-saio batekin egiten dute topo bertan, eta, euskara ulertzen ez badu ere, gustatu egiten zaio Comettanti:

“Ankerkeria guzti horien pilaketak eragindako buruko mina uxatzeko nire laguna abokatuak paseo bat ematera gonbidatu ninduen eta ibilaldiak, hainbeste señorita polit ikusita, inpresio penagarri haiek ahaztea ekarri zidan. Gero, kafetegi batetara sartu ginen eta freskagarri bat eskatu (...) Gugandik hurbil dozena erdi bat inprobisatzaile edo bardo herrikoi, ‘coplariac’ deitzen zaie, herrikoi eseri ziren mahaira. Euskaraz inprobisatzen dute, txandan,

erraztasun harrigarritz eta doinu jakin bati jarraitzen dioten ahapaldi luze samarrak osatuaz. Euskal hizkuntza dagoen harmoniatsuenetakoa da. Ikerlariek apenas dakite ezer berari buruz”.

Bertsolarien ikuskizunak euskarari buruz entzun dituen azalpenak eskaintzera darama:

“Fabre anderearen arabera harmoniatsu eta berezi bezain aberats eta adierazkorra da euskara. Kasuak amaierekin markatzen ditu, deklinazio bakarra dauka, eta preposizioak hitzaren baitan integratzen dira, beste hizkuntzetan oso gutxitan ikusten den ezaugarria; aditzak ere aldaketa txiki batzuk izan ditzake hizketa-lagunaren adina edo generoaren arabera (...)”

Eta, nola ez, platerkada eder banaren aurrean bukatzen dute bi lagunek; ez dira erraz konformatzekoak, ordea:

“Kafetegitik atera ginenean puchero famatua jatera joan ginen. Aza, saltxitxa moduko bat, txahal haragi egosia eta garbantzuhaharagietatik, ilar hori moduko batzuk, osatzen dute (...) ardoa atsegina litzateke ez balitz berau gordetzeko erabiltzen duten ahutz larruaren zaporeak kutsatzen duela; olioak guk lanparetarako erabiltzen duguna dakarkit gogora (...)”

III.IX REVUE DE LINGUISTIQUE ET DE PHILOLOGIE COMPARÉE, ‘CONCOURS DE POÉSIE BASQUE EN SARE EN 1869’ (1870)

Edozein kasutan, Vinsonen testuak ez dio kronika bat izateari uzten. Honela, tokia izenburutik bertatik zehaztu ondoren, data, ordua eta iraupena eskaintzen ditu, “Inprobisazio saioa irailaren 14an, asteartea, arratsaldeko lauetan hasi zen eta hiru ordu luze iraun zuen”; publikoari ere erreparatzen dio, “Jende multzo handi bat bildu zen herriko plazan eta harmailtan (leku berean egiten dira esku pilota partidak ere) eta dauden eserlekuak herriko agintariak eta kanpoko gonbidatu bereziek hartu zituzten.”; eta parte hartzaileen, ariketen eta gai jartzaileen berri ere ematen du, “Hamalau partaide aurkeztu ziren, binaka hartu zuten hitza eta aritu ziren beren artean eztabaidan M. D’Abbadiek emandako gaien gainean”.

Azken buruz burukoaren kontakizuna dator ondoren eta hemen maila xeheago batera jaisten da, giroa, bertsoen dema eta bertsolarien jarrerak zorrotasunez jasoaz:

“Saria biren artean banatu zuten, Ibarra izeneko Jatsuko zapatagile baten eta 24 urte inguruko neskatxa baten artean. Neska Azkainekoa zen eta Maria Osollo edo Osorio dira bere izen-deiturak. Elkarrekin egin zuten azken norgehiagoka: hika egitera behartu zituzten eta ezkontza eskabide bat izan zen joratu zuten gaia. Hasieran lotsagabe hasi zen neska, zakar samar ere bai, baina eztabaida luzearen buruan eta mutilaren maitasun adierazpenei esker amore eman zuen. Bi irabazleak elkarri besotik helduta aurkeztu ziren epaimahaiaren aurrean saria jasotzera: jendeak eromen izugarriarekin egiten zien txalo.”

(...)

Vinsoni deigarria suertatu zitzaion emakume bat bertsotan ikustea: “Ez da ohikoa emakumeak jendaurrean inprobisatzen ikustea. Oraindainokoa Hondarribiko neska gazte bat baizik ez zuten ikusi hemen egiteko horretan, baina ondoko hiru urteetan ez da berriro agertu”. Eta arreta gehiago jarri zion Erdozioren deskribapenari: “Mademoiselle Osorio nahikoa polita da; beltzarana, gorputz txikikoa, bizia eta espiritualak; entzuleei asko gustatu zaie: sentiberagoa ez agertu izana deitoratu dute”.

(...)

Lehen kronika honetan ikus daitekeenez, bertsolaritza ere ez zen libratu Vinsonen begirada garratzetik: “Euskaldunek inprobisaziorako dohain miresgarria dute, nahiz eta, egia esan, erabiltzen dituzten ideiak motz samarrak izan, errimak kamutsak eta bertsoak hankamotzak. Baina kantatu egiten dituzte eta gauza jakina da musikarekin janzten denean poesiak mirariak egiten dituela”.

III.X THE CORNHILL MAGAZINE, ‘FESTIVALS AMONG THE BASQUES’ (1882)

Bertso kronika baino zabalagoa da testua, urte hartan Saran jokatu ziren Lore-Jokoak deskribatzera dator, eta hauen azterketak izan dezakeen interesa aipatuz egiten du sarrera:

“Euskaldun modernoan arteko joko eta jaialdiak dira agian, antzinako greziarren Olinpiadak eta joko Isthmikoak alde batera utzita, garai bateko gizartea izan zena modu gordin eta biluzi batean ikusteko hurbilketa onena (...) Galeseko Eisteddfodak jende arteko topaketen alderdi literarioaren adibide dira, Braemargo Highlandersen bilerak, bere aldetik, kirol topaketen. Euskaldunek, ordea, buruaren eta gorputzaren aisialdia elkartzen dituzte euren jaialdietan; bertso edo prosa idazle onenarentzat saria dago eta baita bat bateko bertsolari onenarentzat, pilota jokalaria onenarentzat edota atleta onenarentzat.”

(...)

Abaddieren Lore-Jokoen antolaketari erantzuten dio saioak, antzokian beharrean frontoian ari dira, eta antolaketa modu horri buruzko xehetasun interesgarri batzuk eskaintzen ditu testuak. Esaterako, momentuan egiten zen deiari erantzuten diote bertsolariek:

“Pilota jokoa amaitu berri zela (...) marinel zahar batek (...) bere eskuak tronpeta gisa erabilita, inprobisatzaileak norgehiagoka leunago batera deitu zituen. Lehenbizi, nekazari itsu bat agertu zen, Sarako Anibar, mutiko batek lagunduta (...) Ondoren, geldialdi bat egon zen eta jarraian etsipenezko murmurio bat entzun zen, beste aurkaririk ez zegoelakoan. Halere, Kanboko Pellok, ile kizkurdun gazte bat, pausu bat aurrera eman zuen eta ondoren, oihu batek hegoaldeko bertsolari famatuenetako baten berri eman zuen; Gipuzkoako Oiartzungo Elizegi Errotaria. Gero, Nafarroako Etxalarko langile bat altxa zen. Zuraideko Makharrak eta bere txanda iritsi aurretik bihotzak huts egin zion Baigorriko gizon batek osatu zuten zerrenda”.

Informazio dezente eskaintzen du saioaren antolaketa espazialari buruz; bertsolariak, frontoiko hormaren kontra, entzulegoarekiko ze altueratan dauden, epaimahaia bertsolariekiko eskuinera kokatzen dela... Epaimahaiko kideak aurkezten ditu, hauek jartzen dituzten gaiak ere zehazten ditu, eta baita bertsolari bakoitzak gai bakoitzaren gainean hartzen duen bidea azaldu ere. Berritasunik deigarriena, aurretik jaso diren kronikekin alderatuz, bertsolarien gorputz espresioari egiten dion azpimarran legoke. Honela, esaterako, umore puntua ere nabari zaio Kanboko Pello gaztearen gorputz espresioa eta epaimahaiak jarri dion rolaren arteko kontraesana azaltzen duenean:

“(...) Anibar itsuak, soiltasunaren kausa defendatzen zuen bitartean, Kanboko Pello gazteak alaitasunaren alde egiten zuen (...) Pellok ikaragarri urduri zegoela zirudien, bere txapela esku artean gogorki estutzen zuen ikaragarriko zigorra jaso izan balu bezala eta txapelari bertan legokeen azken hezetasun tanta atera nahiko balio bezala. Ondoren, oso poliki, bere bertsoa abestu zuen, alaitasunaren defendatzailea ezik beste edozer ematen zuela”.

Azken buruzko burukora iristea lortzen du, ordea, Kanboko Pellok. Pello Errotaren aurka aritzea tokatuko zaio hemen. Bien gorputz espresioari erreparatuko dio berriro Websterrek:

“Errotaria ez zen oso altua baina bai gorpuzkera sendokoa eta bere besoak bular zabalaren gainean gurutzatuta abesten zuen. Noizean behin, geldialdiren bat zenean, bere anaiak emandako zahatetik ardoari tragoren bat edo beste ematen zion baita. Pelhok berriz, altuagoa eta argalagoa bera, bere eskuineko eskuan txapela estutzen zuen eta abesterakoan besoak zabaltzen zituen modu dotore batean. Bere lehenengo bertsoak amaitzean zeharkako begirada bat botatzen zion aurkariari, esandakoak aurkariarengan zuen eragina ikusteko; baina egiteari utzi zion, Errotaria beti prest zegoela ikusita”.

Larri dabil gaztea Pello Errota handiaren aurrean, baina epaimahaiak berdinketa ezarriko du, eta bertso supporterrek bero zorionduko dute: “(..) Udaletxera bideratu zituzten irabazleak sariaren bila; Pellori bere lagun eta miresleek besarkada eta bizkarreko zapladak ematen zizkioten, ia pusketan egiteraino”.

III.XI EMAKUMEAK LEHEN KRONIKAN ETA ELKARRIZKETEN LEHEN AURREKARIAN ¹⁰⁸

Basarri eta Txirritari egingo zaizkien lehen elkarrizketak baino 40 urte lehenago Marie Abbadiek Parisko *La Femme* aldizkarian 1896eko urtarrilaren 15ean argitaraturiko ‘La femme dans le Pays Basque’ artikulua ari gara. Euskal emakumeari buruzko lan luze honen baitan Marie Hargain eta Aña Etxegarairen arteko bertso-saioaren kronika jasotzen da, eta kronika osatzeko azken honekin izandako galde-erantzun sorta laburra txertatu:

“(…) Marie Argain eta Anna Etchegoyen elkarrekin lehiatu zirelarik, arrakasta handia bildu zuten; entzuleen poza handienarentzat elkarren kontra haserretu ziren, gudu animatua izan zelarik. Anna Etchegoyen txaloz estali zuten. “Zer egin duzu txaloak entzun dituzunean? – Buruarekin agurtu ditut. – Ez zinen lotsatua? – Bai, pixka bat, baina abesten hasitakoan ahantzi dut.” Hori dena biziki sinpleki errana, harrotasun izpi batekin begietan. “Elkarren artean samurtu eta, elkarri aiher zinezten, Marie Argain eta zu? – Oh! Ezetz. Liskarra bukatu orduko, ez ginen gehiago haserre eta berriro lagun onak bilakatu gira, lehen bezala. – Nola beztitzen zarete publikoki agertzeko? – Gure usaiako jantziak ezartzen ditugu, beti bezala. Jaun erretorea hor da, begiratzen eta entzuten; ez guke ohatuak eta eresiatuak izan nahi”” (Femme, 1896/I/15, 13 or., ‘La femme dans le Pays Basque’, Abbadie Marie)

(...)

Artikulu berean¹⁰⁹ askoz gehiago ere badakar Coulombek. Bi bertsolarien deskribapena egiten du, baikoitzaren adina, ogibidea, ikasketa maila, itxura fisikoa eta abar azalduaz. Baita emakume bertsolarien saioak normalizatzeko aldarria ere:

“Inprobisazio hauek ikusteko, ehunka etorri ohi dira herriko biztanleak; plaza mukuru dago; apaizak, epaileak, etxe jabe handiak aurki daitezke tartean. Dena zuzentasunik handienarekin egiten da, eta ekintzak badu solemnitatea ere. Erabiltzen diren doinuak egokiak dira, irudiak eta esamoldeak errespetuzkoak, eta biziki arraroa da zerbait desegokia entzutea. Ez du, beraz, ezer asaldagarria

¹⁰⁸ Helbide honetan topaturiko itzulpena baliatu da: <http://www.bilketa.eus/fr/collections/textes-choisis/1616-deux-femmes-improvisatrices-marie-d-abbadie-d-arrast-1896> [2018/XII/15] Egokitzapen batzuk egin zaizkio.

¹⁰⁹ Buenos Aireseko *La Baskonia* aldizkarian ere argitaratu zen pasarte honen gaztelerazko bertsoa: 1915/V/30. *La Baskonia*, 373-374 or.. ‘Dos improvisadoras’. Abbadie, M..

emakumeek gisa honetako ekitaldian parte hartzea. Konpainia onean daude, autoritateen onarpena dute eta jolas nazionalen hartzeko parte”

III.XII LORE JOKOETAKO NORMALTASUNA ÑABARTUZ

Hiru bertsolariok lorturiko sariak eta prentsan izandako oihartzuna ikusirik, XIX. mendearen amaiera aldera, eta Iparraldeko Lore Jokoetan nolabait emakume bertsolarien presentzia normalizatu bat eman zela suma liteke: “Antzeman daitekeenagatik, emakume bertsolarien parte-hartzea ohikoa zen, onartua, ez dirudi arraroa zenik gizon-emakumeek bertsoetan egitea, ezta arrotz sentitzen zirenik ere eurentzat egunerokotasunean ohikoa zena egiten” (Lasarte, Alvarez Uria et al., 2016: 53-54). Normalizazio hori ñabartu beharra dago, ordea, Erdozio, Etxegarai eta Hargainen bertsoak goratzen duten testu hauetatik hasita. Honela, Eskualdunako testuak, esaterako, buruz-burukoan biak ederki ibili zirela azaldu ondoren, Etxegaraien, emakume baten, garaipenaren inguruko zalantza mahaigaineratzen ditu: “Gero gizonkiak ere baziren; hetarik batek ereman du hirugarren prima, ‘zuhurtzia’ ederki mintzaturik. Zenbaiten gogora hari behar zioketen eman lehenbiziko prima. Baina gizonak baitziren juje, beldurtu othe dire behaizkiaz aphaltzen zituztela emazteak adi? Ez dakigu”. Edota *L’Avenir*reko kronistak ere aitortzen du emakume bertsolariaren nagusitasuna, baina ‘sexu ahularen’ garaipenak eragin dion harridura azpimarratuz: “Euskal inprobisaketa lehiaketak egiazko ustekabea ekarri zigun. Gaurdaino, sexu indartsuak bakarrik zuen literatur genero horren abantaila; baina orain atzean utzi du sexu ahulak, taula gainera igotzen dena eta hobeki inprobisatzen duena”.

(...)

Badira garai hartan ere nagusi zen matxismoa modu gordinagoan azaleratzen duten testuak ere. Lore Jokoen inguruan topa daitekeen lehen testu luzeak, *Le Messenger de Bayonne* egunkariak 1853ko irailaren 13an eta 15ean ‘Variétés/Rapport sur le concours d’Urrugne’ izenburuarekin argitaratua, emakume bertsolari baten parte hartzea bitxikeriatzat hartzen du, kartzelan idatzitako bertso jarriak aurkeztu dituen preso baten parte hartzearekin batera, emakume bertsolarien ertzekotasuna markatu nahian: “Preso batek berrogeitamar ahapaldi aurkeztu ditu, eta badirudi berauetan bere espetxealdiaren ordu luzeak kontsolatu nahi dituela; emakume bat ere aurkeztu da lehiara eta nahikoa gizontasunez egin du, ez ohorerik gabe”. Alderdi positibo gisa emakumea ‘gizontasunez’ eta ‘ohorez’ portatu dela azpimarratu ondoren, bertsoetan gaizki egin duela dio, garaikur gisa ematen zen aginte makilarekin zer egin ez zuela jakingo (emakumea delako, suposatzen da) esanez errematatzeke: “(...) ez balitz atzerriko hitzez josiriko bertsoak eta errimen errepikapen monotonoegiagatik, bere eskuek, ez bairik gabe, erabiltzen ez dakiten euskal makila berari entregatu beharrezko kezka sortuko zatekeen”.

Edota, Webster Wentworthek matxismo hori kronistez haratago ere ematen zela erakusten du 1882an *Cornhill Magazine* aldizkariaren 46. zenbakian argitaratzen duen ‘Festival among the Basques’ artikuluan. Pello Errota garaile aterako den saio baten kronika luzea da testua eta emakume bertsolari bat gainerako bertsolariak bezala hitanoan beharrezko zuka eginez abestera nola behartu zen kontatzen da: “Behin, hautagaien artean neska bat agertu zen Saran, eta entzun, epaimahaiak modu bidegabe batean bere eskubideak zapaldu zituzkion, garaiko zukan abestu arazi zioten, ohikoagoa zen hikan egin beharrezko. Neskak nahiko ongi abestu zuen, baina ez zuen saririk jaso”.

III.XIII PARIS

*L'Echo de Paris*eko artikuluan ere kontu horiei heltzen die. Azaroak 11 bat da eta gerrako beteranoen bilkura bat ospatu da Iparraldeko herrixka batean. Gerrako kontuak oroitzen dituzte nostalgiak eta ondoren etorri zen bake garaira moldatzeko izan dituzten zailtasunak azaltzen ditu idazleak. Erreboteko partidaren ondotik bazkaria dator, eta bazkalondoan bertsoan hasten da bazkaltiaerretako bat:

“Entzun dezagun bere lagunak artetik altxa den gure euskaldunaren kantua : Ameriketara gelditu zirenen zoria da heroi dohakabe honek amesten duena. Saileko lehendakaria den lagunak itzuli ditu bere minaren bertsoak. Sufrimenduak, gerrak eta bakeak zorrotzuriko euskal arrazaren malenkonia gozoa; guzti hauek jasotzen ditu ohikoa den lez arima kolektiboan ñabardura pertsonalekin adierazten duen koblakariaren arrangurak. Euskal Mistral bat etortzen denean, su ilunekin eraldatuko du diamante hau.”

Bertsolariak kantuan esandakoak jasotzen dira jarraian, bakarrizketa bat balitz bezala: gerrako zauriak, gudu-zelaitik itzuli zenerako hila zen aita agurtu ezin izana, egindako sakrifizioaren neurrigabea eta jasotako sariaren ezdeusa, joandako gaztetasuna... Kantua da bertsolariaren kontsolamendua, azken bertsoan azaltzen duenez kantuak malkoek baino hobeto adierazten baitute arimaren herstura: “- Abes dezagun! Abes dezagun ! Tristuraz beteriko geure ahotsek malkoek baino hobeto adierazten baitute gure arimaren herstura guztia”.

(...)

Aurremodernitatearen azken arrastoekin lotzen ditu sorkuntza hau, eta euskal komunitatea:

“Herrietako lehiaketetan edo bat-batean sortzen diren txandakaturiko kantuen inprobisazio hauek bizirik diraute Europako eremu primitiboetan. Bizirik dirau aro modernora antzinako altxor indoeuroparra, aintzinako izpiritu horren azken adabakiak ekartzeko patua egokitu zaion ekartzea herri baten baitan : euskal herritarrak”

Nahiago ditu saio inprobisatuak Lore Jokoetako lehiaketak baino: “Herrietako lehiaketetan inspirazioa konbentzionalagoa izaten da. Hobeak izaten dira bat-batean sortzen diren saioak, koplariak, emozioen edo jan-edanaren eraginez, euren baitako onena ematen baitute”

(...)

Ez du bertsolarien izenik ematen, ezta saioen data eta toki zehatzik ere. Fenomenoaren azalpen orokor bat ematea du xede, eta saioak bakarkakoak ere izan daitezkeela gaineratzen du jarraian, besteak beste, *L'Echo de Paris*eko artikuluan aipatzen zuen saioari berriro erreferentzia eginez:

“Virgilio eta Tokritoren eglogetan gertatzen zen bezala, euskal nekazarien inprobisazioa bakarrizketa bat izan daiteke; bidean, kalean edo famili ospakizun baten amaieran bakarka egiten den pozaren edo tristuraren adierazpen bat. Halako bat entzun genuen azaroaren 11 batean ospatu zen bankete baten ondoren (...) aurretik, Ameriketara irten aurretik bera agurtzeko ospatu zen oturuntzan gazte batek nola emigrazioak eragiten zion nostalgia eta esperantzari abesten zion ikusia genuen; edo beste behin, mozkor bati entzun genizkion ironia eta poesiaz beteriko koplak; bentako atean, gauerdiko ilargipe hotzean, mandoa urduri zain zuen bitartean botatakoak”

Azkenik, bertsolaritzari modernitatean bizirauten lagunduko liokeen euskal Mistral baten agerpena opa dio:

“Egloga modernoetan loratuko litzatekeen euskal Mistral baten jaiotza ikusi nahi genuke, euskaldunak bere jai eta jolasetan poesia ahoz goiti boteaz hiltzear den Arkadia honi progresuaren aurka eusteko gai izan daitezten.”

III.XIV MATTIN ETA XALBADOR NATIONAL GEOGRAPHICEN

Bertsolaritzari buruzkoak 266. orrialdean dakartza. Orrialde bat eskaintzen dio, argazkirik gabe, eta sarrera oso soil bat eginez ekiten dio, bat-batekoa dela seinalatuz:

“Euskal kantuak bere puntu gorena bertsolariarekin harrapatzen du. Bertsolaria izateko adimen bizia eta ahots ona behar dira. Bertsolariak ez dira abeslariak bakarrik, momentuan inprobisatzen dute eta euren artean lehiatuz abesten dute.”

Eta lehia dialektiko gisa funtzionatu ohi duela azpimarratuz: Topaketa hauetan bertsolariak ezartzen dioten edozein gairi buruz argudiatu beharko du: arrantzalearen bizimodua menditarrarenarekin alderatuaz; ezkongabearen bizitza ezkonduarenaren kontra; bere lurrian gelditu den euskalduna eta atzerrira emigratu duena.

Xalbador eta Mattinen arteko saio bati egiten dio erreferentzia jarraian, Baigorrik burutua, bere bertsolari gustukoenen artean dauzkala seinalatzen duelarik: “Nire gustukoenetako bi ikusi nituen lehian Baigorri, Frantzian: Xalbador eta Mattin”

1965 eta 1966 artean Ipar Euskal Herrian bizi izan zen familia osoarekin, bere sustraian sakondu nahian, eta bertsolariak ezagutzeko abagunea ere izan zuela nabaritzen da. Argazki zehatza ateratzen die bi bertsolariei:

“Xalbador aurpegi liraineko euskaldun bat da, lehian apur bat txispatua dagoenaren posea hartzen duena. Txapela atzerantz jartzen du buruan, eta ilea erortzen kopeta gainean. Bere puntu indartsua bizitzarekiko zinismo jostari bat da.

Mattin erabat bestelakoa da zentzu guztietan, Txikia eta borobila, Friar Tuck gogorarazi zidan. Baina bere irribarre alaiaren atzean ezpata bat bezain zorrotza den adimen bat ezkututzen da.”

Eta saioarekin hartutako gozatuak utziko duen arrastoa aipatuz bukatzen du:

“Saioa ikusgarria izan zen. Ordubete batean zehar ez sinesteko abiada batean elkartrukatu zituzten bertsoak. Bukaeran ezinezkoa zen nor irabazi zuen sumatzea. Baina gauza bat bazen ziurra, bertan egon zirenek asteetarako zerekin gozatua izango zuten ñabarduretan oso aberatsa den euskal hizkuntzan entzundako haiek gogoratuaz.”

III.XV BLASCO IBAÑEZEN L'INTRUS, LE POPULAIRE (1935)

1908an argitaraturiko ‘Sangre y arena’ eleberriarekin nazioarteko oihartzuna izaten hasiko da idazle gisa, eta aurretik argitaraturiko lanak ere hainbat hizkuntzatar itzuliko dira, tartean ‘El Intruso’. Honela, bere liburuaren bidez egunkari alemaniar bateraino ere iritsiko dira bertsolariak, 1909an *Berliner Tageblatt* egunkariak liburuaz egiten duen iruzkinera zehatzago esanda: “Gero bertsolarien inguruan biltzen dira. Herriaren trobadore moduko batzuk dira

hauek, igandeetan batetik bestera ibili eta plazan abesti inprobisatuen lehiaketa bat antolatzen dutenak. Gerrari buruz abesten dute eta maitasunaren inguruan abesten dute eta herritarrak kartsuki batzen zaizkie errepikan” (*Berliner Tageblatt*, 1909/III/10’, 10 or. ‘Ein spanischer Zola’. Sigmar, Mehring)

(...)

Blasco Ibaññez 1903ko abenduaren 10etik 21era Euskal Herrian egin zuen egonaldian jasotakoak baliatu zituen eleberria idazteko. Egonaldi hartan Azpeitiara ere egin zuen bisita bat, Loiolako Santutegia ezagutzeko, eta hain zuzen, eleberrian protagonistak Azpeitiara eginiko bisitan agertuko dira bertsolariak:

“Azpeitiako etxe guztietan Jesuse Bihotzaren plaka handiak ikus zitezkeen (...) Erdi Aroko espiritu erlijiosu, lasai eta fidakorrak bailara osoan iraun zuela zirudien, fedeaz kezkarik gutxien izan zuen garaiko espiritua (...) Plazatik gertu jendea taberna baten inguruan bildu, talde trinko bat osatu eta gora begira jarri zela ikusi zuen medikuak. Balkoi batean agure bat kantuan hasi zen. Oso altua zen, bazirudien txapelarekin teilatu-hegala ukitzen zuela” (*Le Populaire*, 1935/III/22, 2 or., ‘L’intrus’, Vicente Blasco Ibañez, Vicente/Lafont, R.’k itzulua)

Idazleak ederki deskribatzen du balkoitik balkoira ari diren bertsolarien jarduna eta euren inguruan sortzen den giroa:

“Kalean isiltasuna nagusitu zen, eta agureak, erabat estatiko eta apaiz baten seriotasunarekin, bere kantuarekin jarraitu zuen. Intonazio altu batekin euskarazko azken ahapaldia bukatu zuenean, barre algaretan lehertu zen plaza osoa. Bertsolariak, aitzitik, aurpegikera serioari eusten zion. Artean barreak entzuten zirela, ahots berri bat entzun zen beste taberna baten balkoitik, aurrekoa baina are txorrotxagoa eta karrankariagoa. Arestik agureari erantzungo balio bezala abesten zuen gazte bat ikusi zuen; eta hark zirkinik egin gabe entzuten zion, mentalki kontraerasoa prestatzen zuen bitartean.”

(...)

Gisako eskenak hainbatetan jaso ditugu lan honetan: Jendearen animoak, bertsolarien ardo trago luzeak... Baita bertsolarietako eta haiek entzuten dituen euskaldungoarekiko nagusitasunezko posizio batean kokatzen den behatzailearen burutazioak ere:

“Hiriko norbaiti inolako zirrararik eragingo ez zioten bertsolarien txiste xalok haibesteko grazia egiten zien herri hura, herri ume hura, miretsi egiten zuen Arestik. Alaitasun sano honen atzean nekazariaren zuzentasuna ikusten zuen medikuak, bromarik soilenak ere alaitzeko balio dion nekazariaren arima soila. Espiritu berriak ziren, eternalki infantilak, martxan jarrita edozer gauzarekin dibertitzen zirenak. Bazekiten bertsolariak tradizioz graziosoak zirela eta nahikoa zitzaien hori denak barrez hasteko baita bertsolariaren hitzak ulertu baino lehenagotik ere.”

Edota bertsolarien bizitza bohemiarekiko erreferentziak: “Euren bertsoetatik bizi ziren arlote hauek, eta nekazal mundu baten erdian hiri handietako bohemiaren baitako artisten moduko bizitza bat zeramaten, independientea, behar gorrikoa eta bizkarroitasun alai batekoa”.

III.XVI ROBERT LAXALTEN 'THE BASQUE TROUBADOUR', *THE ATLANTIC MOUNTLY* (1963)

Horra, esaterako, lehen bertsolari-pistoladunak, gauaren erdian, tabernan egiten duen sarrera:

“Tabernako atea ireki zen eta irudi bat agertu zen ilunpetik, sartu bere aterkiko ura astinduaz. Zalantzarik gabe artzainarena zen janzkera zeraman: txapel zabala, galtzerdiak bere bernatan estu-estu bilduta eta euritarako kapa urdin eta luze bat. Bere aurpegia aitzinako euskaldunena zen, luzea eta zorrotza eta bere itxuran harrotasuna nabari zen, ia harrokeria. Besten agurrei eskuarekin agur eginaz erantzun zuen eta bere begi beltzekin taberna osoa gainbegiratu zuen.”
(*Atlantic Monthly*, 1963 urria, 136 or., ‘The Basque troubadour’, Robert Laxalt)

Edo bi bertsolari-pistoladunak begiradak gurutzatu eta bakoitza tabernaren punta banatan jartzen direnekoa: “Gure atzean zutik zegoen nekazaria ikusi zuenean, geratu egin zen. Buruarekin agurtu zuen, errespetuz, bere aterkiaren kirtena kapako lokarrian lotu zuen eta tabernaren beste puntaraino joan zen oinez”.

Begiradarekin desafioa onartu duen bertsolariaren deskribapena ere ez dabil *westernetako saloon* batean borrokarako gertu dagoen pistoladunaren iruditik: “Gure ondoan zutik zegoen nekazariari begiratu nion. Barraren gainean zegoen makurtua, itxaroten. Bere begiak erdi ezkutuan zituen aurpegi betean, eta bere ezipainetan irribarre maltzur bat marraztu zen”.

Bera izango da lehenengo ‘tiro’ egiten lehena:

“Nire bizkarra zeharkatu zuen hotzikara ez zen hotzagatik izan. Erraldoi indartsuaren ahotsa tenore ahots lodia eta ederra zen. Begiratu ere egin gabe, eta oraindik ere barran makurtuta, istorio bat abesten hasi zen. Patuak betirako goi mendi lanbrotsuetako haitz gogorretan bizitzera eramandako artzain gaztearena zen istorioa (...) bere zoriontasun une bakanak gau oskarbietan izaten zirela aipatu zuen; orduan, bailarara begiratzen zuen eta nekazari baten etxean argi goxoa zegoela ikusten zuen eta argi horrek familiako zoriontasuna eta erosotasuna adierazten zituela ikus zezakeen.”

Azoka eguna denez, taberna lepo dago, eta miresmenez animatzen dute artzaina: “Amaitu zuenean nekazariarentzat animo oihuak egon ziren eta artzain bizitzari burla egin zioten. Nire lehengusuak bere bi eskuak igurtzi zituen. “Oso ona izan da. Gaur gauean sasoi betean dago”.

Artzaina ere *saloon* batetako pistola duelurako posturan jarriko da, literalki: “(...) zutik jarri zen modu hunkigarri batean herritarren aurpegietara begira, esku batekin barra heltzen eta bestea bere gerrian jarrita; modu honetan kapa atzerantz erortzen zitzaion”. Eta kontraerasoari ekingo dio:

“Une batean bazirudien artzainak nekazariaren istorioariaren ildo berdinari jarraitzen ziola. Bere abestiaren hasieran artzain gaztea mendigaineko haitz gogorrean aurkitzen zen, ilunpetan eta triste. Gero, bat batean artzainak bailarara jaistea erabakitzen zuen eta argiturik zegoen nekazariaren etxeko leihotik begiratu, faltan botatzen zuen zoriontasuna ikusi ahal izateko. Berak espero zuen eszena zorionsuaren ordez, sukalde narras bat ikusi zuen, ordea, umeak borrokan eta, azkeneko desengainua, emaztea nekazariari erratzarekin joka, azokaren ondoren bere lagunekin beranduegi arte edaten gelditu izanagatik.”

Narratzailearen lehengusua nekazariaren aldekoa da, harroputzegi ikusten du artzaina:

“Nik uste artzaina zure gizona bezain ondo aritu dela’. Esan nion nire lehengusuari ahapeka.

‘Ez da nire gizona’ esan zidan lehengusuak, haserre. ‘Beti saiatu izan naiz horrelako kontuetan inpartziala izaten. Halere, nire gusturako artzainak bere burua serioegi hartzen du. Nik uste bere burua beste Etxahun bat bezala irudikatzen duela”

Eta lehiak Etxahun eta Otxaldek oso aspaldi batean izandakoa dakarkio gogora:

“Izen hori gogoan dut’ esan nion. ‘Behin Amerikan nire aitak Etxahun eta beste gizon baten arteko lehiako bertsoak abestu zituen’.

‘Otxalde’, esan zuen nire lehengusuak. ‘Gaurko topaketak bezalakoak izaten ziren. Bere garaiko onenak ziren. Etxahun menditarra zen eta Otxalde berriz bailara bateko nekazaria. Taberna batean egin zuten topo oso zaharrak zirela. Abestu zutena oso ona izan zen, gogoratzen den inoizko saiorik onena”.


Bukaerak ere tonu horri eusten dio, baina adornurako gaitasuna gora behera egileak bertsolaritzaren esentzia ongi ulertzen duela ere argi gelditzen da. ‘Nor izan da irabazlea?’ galdetzen dio narratzaileak lehengusuari: “Horrek ez du asko axola’, esan zuen. ‘Abestu dutena garrantzitsua eta behar beste ona izan bada, gogoratua izango da eta berriz abestua. ‘Abestu dutena ez bada garrantzitsua izan’, gaineratu zuen sorbaldak igota, ‘gutxienez gau euritsu baterako entretenimendua izan da”’.

IV. ERANSKINA: FINALARI BURUZKO ESTALDURAREN AZTERKETA

IV.I KAZETARITZA GENEROEN ETA OHIKO BALIABIDEEN BILAKAERA

IV.I.I Ikuspegi orokorra

Azken zikloaren oihartzunaren inguruko azpipuntuan azaldu den gisan¹¹⁰, Txapelketa Nagusiaren finalari buruzko testuek kazetaritza genero guztiak ukituko dituzte: Artikulua, Iritzi Grafikoa, Zutabea, Erreportajea, Elkarrizketa, Kronika, Albistea, Editoriala, Apuntea, Zuzendariari Eskutitza eta Hemeroteka. Genero garrantzitsuenek izandako bilakaera ikus daiteke hurrengo grafikoan.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Genero garrantzitsuenetan, kasu guztietan, testu kopuruak urterik urte gora egiten duenez, bilakaera ikusteko egokiagoa iruditu zaigu portzentajeak eskaintzea. Honela, urte bakoitzean urte horretan jasotako testu guztien gaineko portzentajea ematen du 41. grafikoak.

Portzentaje hauei erreparatuta, ikus daitekeen lehen gauza bi genero erabilienean artean posizio trukaketa da. Lehen hiru txapelketetan Albistea nabarmen gehiago, lau edo bost aldiz gehiago, argitaratzen da Elkarrizketa baino. 89ko txapelketatik aurrera, 2001 eta 2005eko salbuespenekin, Elkarrizketak izango dira gehiago. Gogora dezagun 86an aterako dela lehen gehigarri berezia, baina ez zekarrela finalista guztiei eginiko elkarrizketarik. 89ko txapelketan argitaratu zen gehigarrian finalisten elkarrizketak euren gertuko lagun banari eginiko elkarrizketekin osatu ziren, eta 93tik aurrera gehigarriak ugaritzen hasiko dira, *Egin/Gararena* ez ezik *Egunkaria/Berriarena* ere ohiko bihurtuko delarik.

Nabarmendu daitekeen bigarren ñabardura Kronikaren portzentajeak erakusten duen erregularatasuna da. Ia urtero %10a eta %15a bitarteko tarte horretan, edo oso gertu, kokatzen da. Izatez, kronikak toki finkoa du, biharamunean egunkariak finalaz egiten duen

¹¹⁰ Ik. 8.5.1 Emandako pausoak eta bilakaera. Bereziki 25. grafikoa.

kontakizuna, eta generoak testuen hazkunde orokorrarekin proportzionala den garapena bizi izan du. Batetik txapelketaren jarraipenaren oinarritzko *packean* sartzen da kronika hori eta urteen joanean oinarritzko jarraipen horretara egunkari gehiago animatu direnez kronikak biderkatu egin dira. Bestetik, jarraipen sakonagoa egiten duten egunkariak oinarritzko kronika horri beste batzuk gehituko dizkiote: eguneko kronikaren ondoan eduki xehatuagoa eskaintzen duten goizeko eta arratsaldeko kronikak, gaztelerazko bertsio laburtuak...


Erreportajeak bizi izandako bilakaera ere aipagarria da. Lehen zazpi txapelketetan, 1989koaren salbuespen bakarrarekin, testuen %3-5 bitartean kokatzen da erreportajeen proportzioa. Ez da proportzio altua, baina testu kopuruak izan duen hazkunde garrantzitsua kontutan hartuta, erreportajeen kopurua ere abiadura berean hazi dela ondoriozta daiteke. Azken hiru txapelketetan, ordea, erreportajeen portzentajea mantendu ez ezik, kasik bikoiztu egingo da %7-12 artean kokatzeraino. Biderkatze honek finalari buruzko kazetaritzaren sakontzeko borondatea uzten du agerian.

Azkenik, aipatu behar da Iritzi Artikuluaren eta Zutabearen bilakaerari erreparatuaz, bigarren hau gerturatzen joan zaiola lehenengoari. Lehengo txapelketetan hiru eta bost puntu artekoa izango da Iritzi Artikuluaren aldeko diferentzia. 2001ean zutabeak aurre hartuko dio, eta hurrengoetan oso diferentzia txikiak emango dira. Zutabearen sendotze honek, egunkariko kolaboratzaile finkoek bertsolaritzari arreta gehiago jarri izanak, gaiaren prestigiotzea seinalatzen du baita.

Bestalde, nabarmendu daiteke 1986ko txapelketan eta 2005ekoan, bien baturak gora egiten duela nabarmen. 86an %35, 1982an %20 zenean, eta 2005ean %30, 2001ean %19 zenean. Bakoitzak duen dimentsioagatik kasik aldera ezinak diren arren, bi txapelketa horietan iritziari bultzada berezi bat eman nahi izan zitzaiola ondoriozta daiteke, 86an lehen gehigarri berezi hartan, eta 2005ean antolakuntzaren eskutik, komunikazio aldetik ordura arte ez bezalako ahalegin bat eginaz eta zuzenean medioei kolaboratzaile eta iritzi emaileak eskainiz.

IV.I.II Albistea

Lehen hiru txapelketetan gehien jorratuko den generoa albistea izango da ezbairik gabe.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

1989an, ordea, *Eginen* gehigarriak finalista guztien elkarrizketak eta hainbat iritzi testu ekarriko dituzenez, behera egingo du nabarmen. Hurrengo hiru txapelketetan albisteen portzentajea %25 inguruan egonkortzen da da, eta azken hiruetan %20 inguruan.

Genero aniztasuna areagotzeak lehenengo eta bestelako generoak askoz gehiago lantzeak gero, ekarri dute albistearen portzentajeen beheranzko joera nabarmen hau. Genero hau jorratzen duten testuak, aldiz, hiru aldiz gehiago dira 2013an 80an baino.

Aipatu bezala iritzia eta informazioaren artean eta kazetaritza generoen artean dezenteko hibridazioa erakusten duen kazetaritza bat da aztergai dena, eta honenbestean testu bat albistetzat sailkatzerako orduan deskarte bidez egin izan da hainbatetan. Honela, prentsurrekoetatik osaturiko testuak, nahiz eta zenbaitetan sasi-elkarrizketa gisa saltzen diren, albiste diskurtsibo gisa sailkatu dira. Edo zenbait testu, hedaturaz eta interpretazio elementuak barneratzen zituztelako erreportaje labur gisa har zitezkeenak, iturrien lanketa ageriko bat jaso ezean albiste bezala sailkatu dira baita. Kronikatzat ere biharamuneko testuak bakarrik hartu izan dira, kronikaren elementu guztiak jasotzen zituztenak. Honela, kronika eta albistearen arteko hibridazioaren bat edo beste albistetzat sailkatu izan da.

Bestalde, zenbait testu, kolaborazio puntual gisa sinatuta zeudenak, iritzi artikulutzat hartu da eta ez albistetzat, informaziotik iritizitik baino dezente gertuago kokatzen ziren arren. Aitzitik, ohiko kazetariak sinaturiko zenbait testu, elementu informatzaileak gailentzen ziren arren iritizitik ere bazutena, albiste gisa sailkatu izan dira, iritzi testu izatera ez zirela iristen ulertuaz.

Andres Osa Sakonaren ‘Zortzi bertsolariren inguruan gainezka Donostiako Beldromoa’ (*Egin/Gara* 1986/03/22) izan daiteke azken kasu horren adibide bat. Kokapenez, sinaduraz eta maketazioari erreparatuta albiste bat da. Finalaren aurretik ari da, eta edukiak ere, izatez, informatzailea izan beharko luke testu ortodoxoago batean: finalistak zerrendatzea, burutu beharko dituzten lanak zerrendatzea, zein izango diren sariak, zein ETBren emankizunak...


Erabat testu heterodoxoa da, ordea. Antolaketa bera ere, xelebrea da: orrialde erdi batean zazpi tarteki sartzen ditu kazetariak, lehenengoa *lead* bat baino sarrera modura funtzionatzen duen testua bukatu bezain pronto sartzen duelarik. Horrez gain, interpretazioa eta iritzia nonahi sartzen zaizkigu. Sarrera ‘Bihar Donostia ez ezik Euskal Herri osoa kantuz hornituko da’ batekin hasten da eta ‘Rebendedoreak a ze nolako mahatsa izango luketen aukerarik balute’ batekin amaitu. Egin beharreko lanei buruzko paragrafoa, aldiz, ‘Ez da lan makala’ edo ‘Azterketa galanta bertsolariek burutu behar dutena!’ gisakoekin adornatzen da. Hirugarren paragrafoan txapela irabazteko beharko litzatekeen puntuazioaren inguruko diskisizioak eskaintzen dira: ‘Kalkuluak beti dira kalkulu eta inoiz ez fidagarri, sarritan usteak ustel bihurtzen baitira’ edo ‘... dudarik gabe, puntuazio hau lortzeko saio guztian zehar gogor eman behar’. ETBko emanaldien inguruan komentatzen du Asier Etxeberria eta Kepa Loubet kazetariak ‘egonaldi galantak’ egin dituztela saioei jarraiki, ‘Egin duten lana haundia izan da, nahiz eta gero emaitzak hain onak ez izan’. Eta testua *Egin/Gararen* gehigarri berezia iragarrik eta propaganda eginaz (‘argazki bikainak’ eta ‘tarteka marteka elkarrizketa bikainak’ izango omen ditu) bukatzen du.

Informazioa emateaz gain denetarik eskaintzen duen testua da, bada, baina bestelako ezein generotan ere sailkatzeko modurik ez daukana. Muturreko adibide bat den arren, gisa honetako joerak dituzten gehiago ere topatu izan da, eta albiste modura sailkatu.

Honenbestez, esan beharko da, albisteen inguruan emandako kopuru eta portzentajeak goi samarretik emandakoak ere izan daitezkeela.

IV.I.II Kronika

Kronika da biharamuneko errege eta estaldura osoan duen pisuari eutsi dio urteen joanean %10a eta %15a bitarteko tarte horretan kokatuaz, eta testu kopurua laukoiztuaz.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Ekitaldi bati kronika bat dagokio printzipioz. Horrela, biderkatu bada, finalari jarraipena egitera egunkari gehiago lotu direlako izan da batetik, eta bestetik, generoaren bilakaera dezente bat eman delako: eguneko kronikaren ondoan eduki xeheagoa eskaintzen duten goizeko eta arratsaldeko kronikak, giro kronikak, gaztelerazko bertsio laburtuak...



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

44. grafikoa erakusten du hamarkadaz hamarkada kronika nagusiaren ondoan, osagarri bezala sortu diren elementu horietako batek, giro kronikak, bizi izandako hazkundea. Aparte maketatuta eta giroari bakarrik erreferentzia eginez, landutako testuak dira hauek. Zaletuek saioa nola bizi izan duten, saioaz zer dioten, ze pankarta ikusi ahal izan diren, bazkalordua

nola joan den, momentu zirrargarrienak eta bertso txalotuenak zein izan diren, irteeran zer sentsazio zeuden... azaltzen dute.

Elementu osagarri hauen ondoan, kronika nagusiak ere bere bilakaera izan du, eta ezaugarri batzuk nahiz egitura bat finkatuaz joan dira bertso-kronika kasik azpigenero kategoriara eramateraino.

80an lau kronika daude, guztiak ere orrialde erdikoak eta guztietan ere antzeko informazioa helarazten dutenak: parte hartzaileen zerrenda, epaimahaikideena, bertara hurbilduriko jende kopurua, gairik aipagarrienak, sailkapena, polemikak (epaileen lanaz, herrialdeen arteko lehia, txapelketen alde eta kontra) sariak eta sari banaketa. Bertso bakarra jasotzen da, 'Amurizaren semaforo gorriak kable guztiak erre zituen' (*Deia* 1980/I/08) testuan hain zuzen ere, txapeldun berriaren azken agurra. Egunaren joanak, giroa eta publikoari buruzkoek, eta txapeldunaz haratago gainerako parte hartzaileek egindako lanaren balorazioak ez dute apenas lerrorik betetzen. Kazetariak saioaz, txapelketaz, epaileen lanaz eta abar duen iritzia da, zuzenean, zenbaitetan lehen pertsonan, eta zenbaitetan nahikoa modu gordinean emanda, aipaturiko elementu informatibo horien ondoan, protagonista nagusia. Komentariotik oso gertu dauden testuak dira guztiak, kronika ez oso ortodoxoak.

82an beste hainbeste kronika argitaratuko dira. 'Amurizaren jenialitateak kendu zion txapela Lopategiren erregulartasunari' (*Egin* 1982/XII/21) testua da berritzaileena: buruz burukoan kartzelakoan abestutako bertso guztiak jasotzen ditu, aparte batean bada ere; publikoari gehiago erreparatzen zaio (ze jende etorri den, nondik, nola erreakzionatu duten...), eta txapeldunordearen bertsokeraz ere dezente kontatzen du. Orrialde osoa betetzen du testuak, 80an aipamena egin zaionak bezala, sinadurarik ez duen arren.

86an, Andres Osa *Sakonak* euskaraz eta Joxean Agirrek gazteleraz *Eginen* sinaturiko kronikak beste kolore bat dauka: Hiru orrialde eta erdi betetzen ditu, argazki dezentekin, goizeko eta arratsaldeko saioa argi bereiziaz, banan bana finalista guztien lana baloratuaz eta, aparte batean bada ere, bertso mordo bat jasoaz. *El Diario Vascon*, berriz, Santiago Aizarna¹¹¹ batua ez den euskara batean eta nahikoa idazkera traketsarekin bada ere, testu nagusian saioko bertsorik gogoangarrienak txertatzen lehenengoa izango da. Ariketa ezberdinak harilkatuz josiko da testuaren narrazioa, lehenengoz baita...

Pixkanaka, elementu batzuk lausotzen joango dira (epaimahaiko kideen zerrendatzea, sarien zenbatekoak, kazetariaren iritzia modu zuzenean ematea, herrialde ezberdinetako zaleen arteko polemikak...) eta, esan bezala, eredia finkatuko da:

Lehen paragrafoetan kazetariari, eta zaleen interprete gisa ari denez, zaleei, finalak utzi dizkion sentsazio nagusiak laburbiltzen dira. Zenbaitetan bertsolarien azken agurreko bertsoak tartekatzen dira, hauek, nolabait egunaren sintesia gordetzen dutela suposa baitaiteke. Gero, ariketaz ariketa joan ohi da kazetaria, ariketa bakoitzean seinalagarrienak iruditu zaizkion bertsoak jasoaz eta komentatuaz, beti ere protagonismoa bertsolari ezberdinen artean banatuaz, guztien bertsoen bat jasoaz, baina paperik onena egin dutenei tarte handiagoa eskainiaz. Eguerdiko geldialdia aipatzen da, eta arratsaldekoari ekitean goizeko eta arratsaldeko saioen arteko ezberdintasunak (giroan, bertsolarien jarrera eta etorrian eta abar) seinalatu ohi dira (zenbaitetan hasierako paragrafoetan egiten da hori). Arratsaldekoan ere ariketa guztien erreposoa egin ohi da, baina buruz burukoak protagonismo berezia izan ohi du. Klimaxa egon ohi da normalean eta txapelduna izendatzen denean izan ohi diren erreakzioak ere jaso ohi dira. Egunaren balorazio berri batekin borobiltzen da, baina

¹¹¹ Sinatu gabe doa testua baina beste testu batean *Basarririk* aipatzen du kronika Santiago Aizarnarena dela.

beti ere iritziak baino inpresioak emanaz, eztabaidagarriak izan daitezkeen arrazoiketetan sartu gabe.

Kronika eredu hau da, hain justu, bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren inguruan bertsolarien balorazio kritikoenak jasotzen dituena. Honela dio Lujanbiok:

“Nik prentsa idatzian ikusten ditut gabezia handienak. Txapelketaren inguruan egiten da ahalegin handiena eta txapelketako bertso kronikak, esaterako, munduko gauzarik aspergarriena iruditzen zaizkit. Kantatu diren bertsoen transkripzioa egiten da, iritzirik ez duen kontaketa neutro batekin: hau jarri zuen eta hau erantzun zuen, bakarkako gaia hau izan zen eta azken bertsoa oso txalotua izan zen, puntuazioa horrela izan zen (...) Iruditzen zait ez duela ekarpenik egiten, eta bere testuingurutik ateratzen duela bertsoa, telebistak baino are gehiago.

Badakit ez dela erraza beste zerbait egitea baina esango nuke prentsa idatzian bertsolaritza nola tratatu ez dela/dugula/duzuela asmatu.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17).

Arzallusen iritzi txapelketako kronika mota honek nolabait mugatu egiten ditu generoak izan ditzakeen bestelako garapenak:

“Kronika egiten den saioetan bertsogintza izugarri estandarizatuta dago. Txapelketako saioak izaten dira beti, eta bertsogintzaren aportaziorako txapelketako lagin txikia hartzea, azkenean da liburu bateko orri bat hartuta autorea esplikatzea. Saio horietan, orokorrean, oso modu lotuan egiten da gainera bertsotan. Eta kronikak ere oso estandarrak izaten dira: giroaren kronika eta epaiaren justifikazio bat. Analisi artistikorik ez dago... Begirada aldatzen asmatzen ez den bitartean uste dut zaila dela kronika kazetaritza on bat (...) Beste saio mota batera joatearekin bakarrik berrikuntza bat litzateke” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21).


Kazetariak ez diote kontrakorik. Agirrek ulertzen du bertsolariei ez interesatzea: “Guk egindako kronikak seguru aspergarriak izango zirela irakurle askorentzat. Zer esanik ez saioan kantatu duen bertsolari batentzat. Kronika horiek, bestalde, futbol partidetakoa kronikak bezala, saioan entzuten egon diren irakurleentzat idazten dira, biharamunean bizi izan zituzten bizipenak berritzeko edo” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta Zamalloak aldatzen ez dena berritzeko zailtasuna seinalatzen du:

“(…) hainbat aspektutan beti oso antzekoa denaren kontakizun ezberdin bat egitea konplikatu da. Hamazazpigarren txapelketa da orain datorrena eta 17 x 4 urtean zehar fokua nagusiki hor jarri da, baina bertso mugimenduak jarrita, medioak atzetik joan ohi direlako ia beti. Txapelketa guztietan errituala, giroa eta bertsogintza bera ere nahikoa antzekoak dira. Gaiak ere orain hasi dira aldatzen, baina antzekoak izan dira denbora luzean.” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

Bakoitzak bere errezeta dauka, ordea, hain ezaguna bihurtu den platerrari beste zapore bat emateko. Agirrek norbere kontakizuna osatzearen garrantzia aipatzen du: “Saioko protagonista bat edo bi aukeratu behar dira, saioko alderdi deigarri batzuk eta haien inguruan egin behar da kontaketa, kolore pixaka bat izan dezan (...) Kronika guztietan bezala, ikuspegi eta plano aldatetak, publikoari buruzko zertzeladak... tartekatu behar dira” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Zamalloak, aldiz, kazetariak hartu beharreko distantzia seinalatzen du:

Hoztasun eta distantzia pixka bat jarri nahi izan dut. Ez naiz bertso mugimenduaren parte sentitu izan, ez naiz bertso militante sentitu, kazetari mugimenduaren parte baizik. Beste alor batzuetan, beste herrialde batzuetako kultur kazetaritza irakurri izan dut eta horietan irakurtzen nuena egin nahi izan dut bertsolaritzan. Iruditzen zitzaidan bertsolaritzaren inguruan testu onberak egiteko joera zegoela eta hori saihestu nahi izan dut. Gero, hoztasun hori batzuk zorrotzasun gisa ikusi dute.” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

IV.I.III Elkarrizketa



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Topatu den lehen elkarrizketa *Eginek* 1980ko urtarrilaren 8an Xabier Amurizari egindakoa da. Testuak ez darama sinadurarik, eta bertsolariak, txapela irabazi berritan, “Quisiera dedicarme a festivales de canto de versos con orquesta” dio izenburuan (*Egin* 1980/I/08). Egun bat beranduago, sinadurarik gabe baita, *Deiak* honakoa jasoko du titularrean berrizkoaren ahotik: “Hego haizeak jota joan nintzen txapelketara”. Biak ere ohikerietatik ihes egiten duten elkarrizketak dira, elkarrizketatuaren beraren izaeragatik ziurrenik: pertsonalitate handiko gizasemea izateaz gain ordura arteko bertsolaritzarekin haustera, berrikuntzak ekartzera, zetorren Amuriza, baita eskaintzen zituen elkarrizketetan ere.


82an beste bi elkarrizketa baino ez da argitaratuko, biak *Eginen*: ‘Sebastian Lizaso, Landetako unibertitatean ikasitako bertsolari gaztea’ (1982/XII/17) eta ‘Xabier Amuriza, txapeldun polemiko bat konfliktibo bihurtzeko bidean’ (1982/XII/18). Eta 86an *Eginek* hiru elkarrizketa dakartza. Gehigarri berezian Euzkitzeri eta emakumezko hainbat bertsolariri egindakoa bi eta egun batzuk lehenago bertso munduko hainbat pertsonaiari egindako elkarrizketa sorta. *El Correo Españolen*, Jon Mayorak, finalaren egunerako Amurizari egiten dio, tonu informatzaileago batean.

1989tik aurrera, finalaren egunerako aterako diren gehigarri berezietan klasiko bat bihurtuko dira finalista guztiei eginiko elkarrizketa banako sailak. 45. grafikoan ikus daitekeen bezala, elkarrizketa kopurua disparatu egingo da hortik aurrera (%25 inguruan estabilizatuko da azken hamarkadan), eta 41. grafikoan ikus daitekeen bezala, generorik jorratuena izango da 2005eko txapelketaren salbuespen bakarrarekin.

Pixkanaka, elkarrizketatuen abanikoa zabalduz doa. 1993an *Deiak* nahiz *Egunkariak* antolakuntzako kideak elkarrizketatuko dituzte, eta hori ere klasiko bat bihurtuko da hortik aurrera. 1993an baita, *Egunkarian* aurreko txapeldunak, Amuriza eta Lopategi, izango dira elkarrizketatuak, eta orduetik aurreko txapeldunei txapelketaren balorazioa eta finalerako pronostikoa eskatzea nahikoa ohikoa bihurtuko da. Berdintsu kanpoko adituekin 1997an *Egunkariak* eta *Eginek* elkarrizketatu ostean. Edo epaileekin, 2001ean *Diario Vascok* Jon Abril elkarrizketatu ostean. Bertso doinueta aditua den Joanito Dorronsoro da beste klasiko bat. *Egin/Garako* kolaboratzaile gisa hasiko da, baina gerora egunkari ezberdinek elkarrizketatuko dute. Edota gai-jartzaileak, ETBko emanaldia egingo duten kazetariak edota txapela jartzeko aukeratu duten pertsona ere (bertsoaren aldeko lanean egindako ibilbide bategatik, aitortza gisa, aukeratzen da pertsona hori) ... hainbatetan elkarrizketatuko dira.

Horiek guztiak, normalean finalaren aurretik agertuko dira. Asko eta asko finalaren egunerako prestatzen diren gehigarri berezietan, beste batzuk aurreko egunetan eskaintzen diren elkarrizketa solteetan. Baina finalaren biharamunak ere badauzka bere 'klasikoak'. Lehen bi hamarkadetan txapeldunari egindako elkarrizketa izango da hutsik egin ezin duena. 2001ean Maialen Lujanbiok Andoni Egaña (ordurako bi aldiz txapeldun) erabat estu hartu eta biharamunean *Garak*, *Egunkariak* eta *El Diario Vascok* elkarrizketatu zutenetik, egunkari gehienek txapeldunordeari ere (2005ean Iturriaga, 2009an Egaña, 2013ean Lujanbio) egingo diote elkarrizketa.

Eskaintzen diren elkarrizketak geroz eta luzeagoak dira. Kazetariak geroz eta ezagutza sakonagoa erakusten du gaiaren eta elkarrizketatuaren inguruan. Harrigarria da bestalde bertsolariek erakusten duten autoanalisirako gaitasuna. Amuriza maisu bat izan zen horretan, Egañak, ziurrenik garaiko kazetariak bide gehiago eman ziotelako gaintu egiten du maisua, eta hurrengo belaunaldia ez da atzera gelditzen. Hamarkada honetan ere badago berrikuntzak dakartzan ale ederrik: Amagoia Mujikak *Garan* eta Beñat Zamalloak *Berrian* egindako hainbat elkarrizketa benetan bikainak dira. Interpretazioak generoan hartu duen pisuaren adierazle erabat estilo ezberdina dute gainera. Mujika alderdi emozionalari jartzen dio azpimarra, bertsolariek, finalak eragin dioten zirrara ematen du aditzera. Zamalloa, aitzitik, hotzagoa da, baina bertsolarien lanaren inguruan eskaintzen dituen ñabardurak ordura arte ikusi ez bezalako sofistikazio bat eskaintzen dute.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

46. grafikoan ikus daitezkeenez finalisten soslaiena¹¹². geroz eta baliabide erabiliagoa izan da, 2013ko finalari buruzko estalduran kasik desagertu egin zirenez, eta hamarkada honetan bi txapelketa bakarrik izan direnez, azken urteetan beherakada bat ere eman den arren. Soslai hauek finalistei eginiko elkarrizketen osagarri gisa eskaini ohi dira, argazkiez edo finalisten karikaturez horniturik, eta euren hazkunde honek ere gaia lantzen duten kazetarien intentzio interpretatzailea azpimarratuko lukete baita, nolabait.

Hala ere alor honetan eman den aldaketa nabarmenena elkarrizketen sakontasunarena da. 1990eko hamarralditik aurrera kazetarien galderek, baina batez ere bertsolarien erantzunak bestelako sakontasun bat eta sofistikazio bat erakusten dute¹¹³. Egaña ikasketa prozesu bat eman dela aitortzen du: “Urtean 150 aldiz izan baduzu kazetari bat aurrean zure buruari planteatzen diozu zer ari zaren egiten. Beti berdina ez esateko, ez aspertzeko ere beste buelta batzuk ematen dizkiozu buruari, gauza ezberdinak probatzen dituzu...” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Eta Arzallusen hitzetan ikus daitezkeenez hurrengo belaunaldiari ere transmititu zaio ezagutza hori:

“(...) denok jasotzen dugu aurrekari hurbilenen eskolatik. Bai bertso gintza aldetik erreferenteak horiek dira eta askotan erantzunak emanez ere bai eta zure kabuz horiek irakurri eta zure kasa pentsatuz eskola horren gainean eraikitzen duzu zeure prestakuntza planteatzeko modua eta prestakuntza horretaz hitz egiteko modua ere bat (...)” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21).

Egañaren iritziz, bertsolariak bere buruaz duen kontzepzioaren aldaketa ere badago prozesu honen atzean:

“Gero badago bertsolaritza artisautzatik artera eman den jauzia ere. Garai batean bertsolariarena artisau lan bat bezala ulertzen zen baina egun, bertsolaria bila dabilen hori gertuago dago artetik artisautzatik baino. Beti da erosoagoa artisauak garela eta tarteka perlaren bat sor dezakegula esatea, baina esango nuke eboluzioa artistaren kontzepziora gerturatzen gaituen bide batetik ari dela ematen. Eta artistak buruari buelta gehiago ematen dizkio artisauak baino.” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Eta Maialen Lujanbiok kazetariei esan beharrekoaren prestakuntza txapelketa aurreko prestakuntzaren baitako lan bat gehiago izan ohi dela aitortzen du:

“Zenbaiti gehiegi ere iruditzen zaio. Nire elkarrizketaren bat irakurrita komentatu izan didate ea hainbesterako ematen duen bertsoak egiteak (...) Buelta batzuk ematen ez badizkiozu arriskua daukazu futbolista batek bezala hitz egiten bukatzeko, ‘saioz saio joango naiz ikusten nola nagoen’ eta

¹¹² Aparte maketatutako eta nolabait finalisten erretratu bat osatzeko gutxieneko eduki bat (oinarrizko lau datuez haratago) eskaintzen dituzten testuak kontabilizatu dira soslai gisa.

¹¹³ Kazetarien lana ere geroz eta espezializatuagoa da. Zentzu honetan esanguratsuak suertatzen dira Beñat Zamalloaren hitzak: Elkarrizketa on batetarako osagai nagusia aurrelana da, galdera orokorragoak beharrean elkarrizketatu horrek zehazki erantzun beharreko galderak planteatzea. Horrek denbora eskatzen du eta kazetarien lan baldintza eskasak ikusita, maila horretan ibili nahi baduzu, 24 orduak kasik horretara jarrita egotera behartzen zaitu (...) bertsolariaren momentua ere garrantzitsua izan daiteke, edo elkarrizketan bertan sor daitekeen kimika edo klimaxa” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta deigarria da Agirrek erakusten duen ezagutza eta pasioa ere: “(...) gogoan dut garai bateko Lizaso ere asko gustatzen zitzaidala, monosilaboekin erantzuten zuen Lizaso hura, kazetariak Sebastianen garunean sartu eta asmatzen ibili behar zuelako. Sebastianek burua beteta zuen (...) Norbaiten barruan sartu eta ezer ez aurkitzea da okerreana, baina bertsolari oso gutxiarekin gertatzen zen hori. Zaharragoen artean Joxe Agirre izugarria iruditzen zitzaidan elkarrizketa baterako, Joxe Lizaso eta Imanol Lazkano zer esanik ez. Amurizak ere asko ematen zuen eta gazteagoen artean Jon Maia asko ematen dakien bertsolaria da” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

horrelakoak. Eta futbolistak gauza tristea dira hitz egiten... Azkenengo txapelketan bertsolaritza idorra eta ederra egin nahi nuela esan nuen. Nik badakit horrekin zer esan nahi dudana, baina ez dakit aditzera ematen asmatzen dudana... Hausnarketa bat eskaini liteke ze gaitegi eta ze ikuspegi interesatzen zaizkizun, zein uste duzun dela bertsolarien funtzioa halako plaza handi baten. Gauza horiek bai prestatzen ditut (...) Iruzkun literario bat egitea bezala da. Hobe litzateke a posteriori egin eta ez a priori. Baina bai iruditzen zait egin beharreko ahalegin bat.” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17)

IV.I.IV Erreportajea



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean

Albisteari zegokion atalean komentatu da nahikoa zorrotz aritu garelako testu bat erreportaje gisa sailkatzerakoan. Honenbestean, erreportajeen kopuru nahiz portzentajeak baxuak izango dira. Kasu honetan jauzia beranduago ematen da, 2005eko txapelketatik aurrera. Ordura arte, gorabehera batzuekin bada ere, %4 inguruan mantenduko da portzentajea, eta ordutik aurrera bikoiztu egingo da.

Urterik urte testu kopurua handituz doala kontutan harturik, portzentajearen mantenuaren atzetik lehenik eta bikoizte horren atzetik ondoren, erreportajeen kopuru absolutuen hazkunde jarrai bat ezkututzen da. Honela, 1980ko txapelketan eta 1982koan erreportaje bana argitaratu bazen, 2005etik aurrera hamar erreportajetik gora izango dira urtero.

‘Ocho vates disputarán el Campeonato Mundial de Bertsolaris’ darama izenburuztat 1980ko lehen erreportaje hark (*El Diario Vasco* 1980/I/05). Bigarrenak, 1982koak ‘Zortzi bertsolari txapel bakarraren bila’ (*Deia* 1982/XII/19). Biak ere, finalaren bezperako lanak dira, hainbat iturriren lanketarekin honi buruzko xehetasun ezberdinak eskaintzen dituztenak. Aurrerantzean kasik txapelketa guztietan topatu ahalko da gisa honetako testuren bat.


Pixkanaka gaitegia zabalduz joango da. 1986ko txapelketaren harira, esaterako, hiru erreportaje argitaratuko dira. Lehenak, ‘Bertsogintzaren tabuak hankaz gora jarri dituzten eskolen berri’ (*Egin* 1986/II/23), bertso-eskolak izango ditu hizketa gai. Bigarrenak, ‘Euskadi mailako zortzi txapelketa jokatu dira’ (*Deia* 1986/III/23), ordura arteko Txapelketa Nagusien

berri emango du, eta aurrerantzean gisa honetako gehiago ere topatu ahal izango da¹¹⁴. Hirugarrenak, ‘Goierrri nagusi bertsolarietan (*Deia* 1986/III/25), txapelketan bertsolari goierritarrek jokaturiko paperari, eta aurreko txapelketetan jokaturikoei, erreparatuko die.

1989an Uztapideren hiru txapelei buruz ari da beste bat, 1993an bertsolarien amei buruzkoa topa dezakegu, 2005ean arreta jarraitzaile sutsuengan jartzen duena, eta aurrerago errepikatu egingo dena, 2009an egoitzari buruzkoa, 2013an atzerriko ikerketari buruzkoa...

Erdal hitzunei bertsolaritza azaltzen saiatzen den erreportajea ere klasiko bat bihurtuko da: ‘Asi funciona un bertsolari’ (*El Diario Vasco* 1993/XII/18), ‘La vida en ‘bertso’ (*El Correo Español* Domingo 1993/XII/19). Antolakuntzari buruzkoa edo ikerketari buruzkoa ere bai...

IV.I.V Iritzia



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskin ezberdinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Iritzi artikuluen bilakaeran bi jauzi nabaritzen dira, hain zuzen ere bilakaera orokorrako izandako hiru jauzietatik birekin bat egiten dutenak: 1986an portzentajeak ematen du sekulako jauzia eta 2005ean kopuruak.

1986an, jada hainbatetan aipatu den gisan, lehen gehigarri berezia kaleratzen du *Eginek*, gehigarri hau osatzeko, iritzi mailan behintzat, hainbat kanpoko kolaboratzailei tartea eskaintzen zaio, aditu gisa, eta portzentajea disparatu egiten da.

2005a izango da Iritzia genero multzoen artean gailenduko den bigarren aldia. Txapelketaren inguruko estaldurak gailur bat bizi du urte honetan, eta iritziaren eskutik ematen da neurri handi batean, hazkunde hori. Eta iritzi gehiago eskaintzeko bide naturala iritzi artikulua da. Kopuruak bikoiztu egiten da, eta portzentajeena hirugarren altuena izango da 1986 eta 1989koen atzetik.

Laugarren taulan ikus daitekeenez, sinadurei dagokionean, bertsolariak ote ziren edo Bertsolaritzaren datu basean agertzen ote ziren arakatu da. Eta iritzi artikulua egile nagusien kasuan proportzioa nabarmena da: 15 sinadura nagusietatik 14 edo bertsolariak dira edo BDBn agertzen dira.

¹¹⁴ Aurretik ere egiten zen errepasso hau, baina testu zabalago baten baitan.

4.taula. Finaletako Iritzi Artikuluak sinadurak (1980-2017)


| | K | TX | Egunkaria | BER | BDB |
|------------------------------|----|----|-------------------------------|-----|-----|
| Andres Osa <i>Sakona</i> | 10 | 5 | <i>Egin/Deia</i> | | |
| Rufino Iraola | 7 | 4 | <i>Diario Vasco</i> | | BDB |
| Joxerra Garzia | 5 | 3 | <i>Egin-Gara/Egunkaria</i> | | BDB |
| Joxe Mari Aranalde | 4 | 4 | <i>DE/El Diario Vasco</i> | | BDB |
| Xabier Perez <i>Euzkitze</i> | 4 | 4 | <i>Egunkaria/Diario Vasco</i> | BER | |
| Iñaki Aurrekoetxea | 4 | 2 | <i>Egunkaria-Berria</i> | BER | |
| Gorka Azkarate | 4 | 2 | <i>Egunkaria-Berria</i> | BER | |
| Joanito Dorronsoro | 3 | 3 | <i>Egin/Gara</i> | | BDB |
| Karlos Aizpurua | 3 | 2 | <i>Egunkaria-Berria</i> | | BDB |
| Natxi Aranburu | 2 | 2 | <i>Egunkaria-Berria</i> | | BDB |

Iturria: Egileak moldatua. Oinarria Ik. IX. EHBTN Sinaduren zerrenda (1980-2017). 03 Kontsulta

Iritzi testu gehien sinatu dituenak da hain zuzen ere kanpoan gelditzen den bakarra, Honek, Andres Osa *Sakonaren* kazetaritza egiteko moduarekin izan dezake harreman zuzena. Sei txapelketaren jarraipena egin du, lehenengo *Eginen* eta gero *Deian*, eta jarraipen horretan (zutaberik izan gabe, Iritzia Atalean idatzi gabe) hainbatetan eskainiko du bere balorazioa, gehienetan bere iritzia eskaintzeraino.

Gainerakoetatik hiru bertsolariak edo bertsolari ohiak dira. *Euzkitzek*, figura garrantzitsu gisa, bere iritzia eta bere bizipenak eskaintzen ditu; beste hiruek taulatuak zapaldu izanak emaniko eskarmentua eskaini dezaketen analisiak. BDB-n agertzen diren kideak, berriz, sei dira, guztiak ere bertsolaritzaren inguruan, alor batean edo bestean, lan garrantzitsu bat buruturikoak.

Deigarri suertatzen den beste datu bat gazteleraren presentzia faltarena da. Iritzi artikulu gehien eskaini duten hamar hauen artean, bakarrak idatzi du testuren bat gazteleraz.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoa) eranskinean.

Zutabearen kasuan ere Iritzi Artikuluaren jauzi berberak ematen dira: 86an portzentajeak gorakada garrantzitsua izaten du eta 2005ean argitaraturiko zutabe kopurua absolutuak. Bietan ere, aipatu den bezala, bat egiten da bilakaera orokorrak izandako pikoekin, eta

antolakuntzaren aldetik egindako ahalegin bereziarekin: 86an Euskaltzaindiaren eskutik Bertsozale Elkartearen eskuetara pasako da eta 2005ean komunikazio talde profesionala izango dute lehenegoz.

2005eko zutabeen eztanda bereziki harrigarria da. Iritzi Artikuluaren gorakada beste hainbestekoa izan zen, baina hau egin errazagoa da, kolaboratzaile puntualak egunkariaren eskueran jartzea, prestatutako jendea eta medioaren aldetik tokia eskaintzeko prestutasuna baino ez baitira behar. Zutabeak, ordea, kolaboratzaile finkoen esku egon ohi dira, eta hainbeste kolaboratzaile finkok gaiari heltzeko gaiak bolo-bolo ibili behar du euskal gizartean.

Berriaren kasua benetan azpimarratzeko modukoa da. Ia zutabegile gehienek egin zuten euren ekarpena. Iritzi sailekoek, ikus-entzunezkoei jarraipena egiten ziotenek... baina baita Ekonomia Atalean burtsaren jarraipena egiten zuen J.B. Anduezak edo Kiroletan Futbol Ligaren azken jardunaldiaren erreposoa egiten zuen Aitor Manterolak.

| 5.taula. Finaletako Zutabeak (1980-2017) | | | | | | |
|--|---|----|---------------------|-----------------------------------|-----|-----|
| | K | TX | Egunkaria | Zutabea | BER | BDB |
| Iñaki Eizmendi <i>Basarri</i> | 9 | 4 | <i>Diario Vasco</i> | <i>Nere Bordatxotik</i> | BER | |
| Anjel Lertxundi | 5 | 3 | <i>Berria</i> | <i>Hitz beste</i> | | |
| Pello Esnal | 4 | 4 | <i>Diario Vasco</i> | <i>Bai horixe</i> | | BDB |
| Txomin Garmendia | 4 | 3 | <i>Diario Vasco</i> | <i>Erririk-erri/Atzo eta gaur</i> | BER | |
| Xabier Amuriza | 4 | 3 | <i>Egin/Gara</i> | <i>Semaforo gorria</i> | BER | |
| Rufino Iraola | 4 | 3 | <i>Diario Vasco</i> | <i>Bai Horixe/Hitz apurrak</i> | | BDB |
| Idurre Eskisabel | 4 | 1 | <i>Berria</i> | <i>Jira/Bira</i> | | |
| Andoni Egaña | 4 | 1 | <i>Berria</i> | <i>Hitz Etzanak</i> | BER | |
| Jexux Mari Mendizabal | 3 | 3 | <i>Berria</i> | <i>Bai Horixe/Horixe Baietz</i> | | BDB |
| Fermin Etxegoien | 3 | 2 | <i>Berria</i> | <i>Ekografiak</i> | | |

Iturria: Egileak moldatua. Oinarria Ik. IX. EHBTN Sinaduren zerrenda (1980-2017). 04 Kontsulta

Kolaboratzaile finkoek ari garenez, eta ez propio testu puntual bat eskaintzeko ekarritakoak, Iritzi Artikuluarekin alderatuaz, Zutabearen kasuan zailagoa beharko luke bertsolariak edo BDBn agertzen direnak izatea. Lehen hamarren artean lau bertsolari eta BDBko hiru topatu ditugu, ordea, geroz eta bertsolari zutabegile gehiago dagoenaren seinale. Zerrenda osoari erreparatzen bazaio bai nabaritu da aldea are nabarmenagoa dela: Iritzi Artikuluaren 48 sinadura dira BDBkoak edo bertsolariak eta Zutabearenean 14.


Zutabeon artean, badago bertsolaritzari gai nagusi gisa heltzen dionik. Nolabait espezialistatzat har ditzakegunen zutabeak lirake hauek: Rankingaren lehen postuan agertzen den *Basarri*, edo Rufino Iraola, Txomin Garmendia eta Pello Esnalen zutabeak, esaterako. Urtean zehar, bestela ere, bertsolaritza zutabeko gai nagusien artean kokatzen duten sinadurak dira, guztiak ere bertsolaritza mundukoak. Zutaberik errepikatuenak ere haueri dagozkienak izango dira, gehienak ere *El Diario Vascorenak*, Basarriren *Nere Bordatxotik* hark irekitako bideari jarraituz, zutabe batzuk euskal gaietzako gordetzearen politikaren ondorio: *Nere Bordatxotik*, *Bai Horixe*, *Horixe Baietz*, *Hitz Apurrak*...

Baina, esan bezala, beste hainbat zutabegilek ez du horren harreman estua bertsolaritzarekin. Idazleak izan daitezke, erreferentziazko kazetariak, beste alor batzuetako adituak... Hauen kasuan koiunturalki heltzen diote gaiari, txapelketaren oihartzuna iritsi zaielako, eta zenbaitetan mamia finalaren balorazioa izango bada ere, askotan ez da bestelako gai bati sarrera emateko (lehen aipaturiko burtsaren zutabea edo Manterolaren Harmailetatik Begira,

esaterako), norbere gogoei edo fikziozko pieza bati distira emateko (Idurre Eskisabelek, adibidez, oso gauza politak egiten ditu zentzu honetan), edo gai zabalago bati ekarpen txiki bat egiteko (Begoña del Tesoren Donostiako kronika soziala, esaterako) aitzakia baino izango.

Bestalde, espezialistatzat har ditzakegun gutxi horiek kenduta, gainerakoan zutabegilea bertso saioaz bezainbeste arituko da bertsoak eragin dizkion sentipenetaz.

Iritzi Artikuluaren kasuan, gehiago edo gutxiago sakondu, guztiak zuten bertsoa gai nagusitzat, hain zuzen ere horretarako propio deitutako adituak zirelako. Zutabeen kasuan, rankingari begiratu bat eman besterik ez dago (Begoña del Teso, Raimundo Fitero edota Juan Carlos Ibarrek, esaterako, euskararik ikasi ezean behintzat nekez eskainiko ahalko dute horrelako iritzirik) denetarik eta denetariko testuak topatuko ditugula sumatzeko.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskin ezberdinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoa) eranskinean.

Iritzi grafikoaren inguruan jaso diren datuek, noski, ez dute zerikusirik ez kopuru absolutuei eta ezta portzentajeei dagokionean ere, aurreko generoen inguruan jasotakoekin, baina azpimarratzeko modukoa da urterik urte, hamar txapelketetan, bertsolaritzari buruzko tiraren bat argitaratu izan dela beti.

Aitzindaria *Deiako Umore tira* da. Sinatu gabeko tira hau birritan atera zen *Euskal Deia* Atalean 1980ko txapelketan. Hortik aurrera, beste zenbaitek finalistek karikaturak ere argitaratu dituen arren, *Egin/Gara* eta *Egunkaria/Berria* izango dira iritzi grafikoa argitaratuko duten egunkari bakarrak.

1982an Antton Olariagaren Zakilixutek hartuko du testigua, *Eginen* azken orrian, 86koan berak eutsiko dio eta 1989koan, *Eginen* azken orrian baita, Txema Garcia Urbinaren 'Mattin' en esku utziko du. 1993ko txapelketan Olariagaren Zakilixut berragertuko da, oraingoan *Egunkariaren* azken orrian, eta indartsu, hiru tirarekin. Eta bikote honek ez dio argitaratzeari utziko hurrengo bost txapelketetan.

Egunkaria/Berrian, Olariagarekin batera beste marrazkilari batzuk agertuz joango dira, guztiak ere Iritzia Atalaren ekarpen gisa. 1997an Iñaki Martiarena *Mattin*, 2001ean Martin

Altzueta *Martintxo*, 2005ean Martintxozen gain *Montxo* eta azken bietan Patxi Huarte *Zaldi Eroa*-ren ‘De rerum Natura’.

Esan daiteke bere sorreratik *Egunkaria/Berriak* genero honen aldeko apustu sendoagoa egingo duela *Egin/Garak* baino. *Egin* 1990ko hamarraldian mutu geldituko da, esaterako, baina azken hamarkadan argitaratuko ditu ale batzuk: 2001ean Josu Landaren bineta eta 2005 eta 2013an Ivan Landarena. Hiruak ere finalari buruzko gehigarri berezian argitaratuko dira, eta, egia esan, gertuago egongo dira ilustraziotik edo finalisten karrikatura soiletik iritzi grafikotik baino.

IV.I.VI Bestelakoak

Kazetaritza genero ikuspegitik sailkaezinak suertatu diren testu batzuekin ere egin da topo. 1982an, esaterako, ‘Amuriza: "Bigarren txapel hau lehenengoaren konfirmazioa da"’ izenburupean (*Deia* 1982/XII/21) Amurizaren pare bat adierazpenen azpian bertso bilduma bat eskaintzen da. Bertso bildumak ez dira sailkatu generoaren arabera, baina kasu honetan, bilduma baina zerbait gehiago zenez, ‘Besteak’ atal honetan sailkatu da.

1986an ‘Kriston burrundaie bertsolari txapelketan!’ titulaturiko testuarekin egin dugu topo (*Egin* 1986/III/22). Fikzio bat da, McEgin eta McEgonen andantzak eta mudantzak azpigitulutzat daramana, non punki bat finalean taulatuan kolatu eta bertsoan hasten den. Finalean parte hartuko duten bertsolari gazteei animo dei bat luzatzeko ere aprobeztatzen da ondoko zatidura. Sailkaezina.

1997an ‘Txapelbusean’ darama izenburutzat esperimenduak (*Egin* 1997/XII/14). Inazio Usarraldekin finalera bitarteko saioen errepasoak egiten du baina fikziozko bi pertsonaiaren arteko elkarrizketaren bidez, hainbat broma tartekatuz. Urte berean baita, Unai Break Gazteginen orrialdeetan gauzatu beharreko bertso saio bat planteatzen dio, gaiak eta neurriak emanaz, Maialen Lujanbiori (*Egin* 1997/XII/12). Edo txapelketako argazki bati jarritako bertsoa argitaratzen da Eskutitzen atalean (*Egin* 1997/XII/13). Edo finaleko argazki ikusgarrienen bilduma eskaintzen da (*Egunkaria* 1997/XII/14). Edo txapelketaren kartelen bilduma eskaintzen da, apenas hitzik gabe (‘Hitzetik irudira’ *Egin* 1997/XII/17). Edo Ikus-Entzunezkoen atalean gezi bat gora jartzen zaio, eta komentario labur bat egin, finalaren emankizunari (*El Correo Español* 1997/XII/16)...

Adituari galdetzeko tartea irekitzen zaie irakurleei Iritzia Atalean (*Egunkaria* 2001 ‘Galdeiozu’ izeneko hiru testu); ‘Handitzen handitzen, hasi naiz handitzen’ izenburupean finalisten aspaldiko argazki banari euren amen bi lerrotako deklarazio bat gehitzen zaie (*Deia* 2009/XII/13); duela hogeituroko argazki baten inguruko gogoeta egiten da (‘Una fotografía que no es casualidad’ *El Correo Español* 2013/XII/13), orain arteko txapeladun guztien zerrenda eta argazkiak (*El Diario Vasco Zabalik* 2001/XII/15)...


Aipatu den bezala, bertsolaritza buruzko kazetaritzak badu generoen hibridaziorako joera, eta sailkaezin hauek joera horren zantzu gisa ere har daiteke. Edonola ere kazetaritza eskaintza berritzeko gogo nabari daiteke kasu gehienetan atzean.

IV.I.VII Ohiko baliabide batzuk

Finalari buruzko testuak hainbat elementurekin hornitu ohi dira zenbaitetan. Bertsoak, porrak eta baliabide grafiko batzuk (karrikaturak, ilustrazioak, taulak eta grafikoak) ohikoak izan zitezkeelakoan arreta berezia jarri zaie azterketa egiterakoan.

A) Bertsoak

Bertso txapelketari buruzko jarraipen bat bertsoz transkribatu gabe egiteak ez luke zentzu handirik. Kroniketan txertatuta edo iritzi testuren batean txertatuta, edo finaleko bertsoz onenen bilduma gisa Txapelketa guztietan eskaini dituzte egunkariek.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskin ezberdinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

1980an eta 1982an gehiago dira iritzi testuetan jasotzen diren berreskuraturiko aspaldiko bertso solteak edo txapelketari buruz jarritako bertsoak. Txapelketen historiari errebaso bat ematen dioten erreportajeetan ere sartu ohi da jendearen memorian iltzatuta gelditu izan den txapelketa horietako ale bat edo beste.

Txapelketako bertsoz onenen lehen bi bildumak *Deiak* eskainiko ditu bi urte hauetan: 'Erregeek bertsolari txapeldun bat ekarriko digute' izenburupean aurreko kanporaketetako 18 bertso (1980/I/06) eta 'Amuriza: "Bigarren txapel hau lehenengoaren konfirmazioa da"' izenburupean txapeldunaren sei bertso (1982/XII/21).

1986an kopuruak nabarmen egiten du gora. *El Diario Vasco* eta *Egin* ere apuntatzen dira bertso hautaketaren baliabidera: *El Diario Vasco*k 'Onela kantatzen du oraingo txapeldunak' izenburupean Lizasok finalean abesturiko 22 bertso (1986/03/25), *Eginek* 'Bertso selekzioa' izenburupean aurreko kanporaketetan abesturiko 39 eskaintzen ditu egun bereko gehigarrian (1986/III/23) eta 'Goizeko saioa' izenburuarekin beste 18 biharamuneko kronika osatzeko (1986/III/24). Eta kroniken testutan bertsoak txertatzen hasiko dira¹¹⁵.

1989an berriro ere behera egiten du kopuruak, *El Diario Vasco* da bertso hautatuen bilduma eskaintzen duen bakarra, baina hortik aurrera kopuruak etengabe egingo du gora.


Azken bost txapelketatan finalaren jarraipen taxuzko bat egiten duten egunkari guztiek eskainiko dute bertso hautatuen bilduma eta kronika guztietan txertatu bertsoak¹¹⁶. Honela, 2017ko txapelketan 143 bertso eskainiko dira, 1980koan (22) baino zazpi aldiz gehiago.

¹¹⁵ Kronikaren atalean aipatu den Santiago Aizarnaren kronikak zortzi bertso jasotzen zituen.

¹¹⁶ Ohikoena da bertsoa osorik eskeini beharrean bertso erdia edo pare bat puntu eskaintzea. Honenbestez, bi erdirekin oso bat eskainiko balitz bezala kontabilizatu da.

B) Porrak/Kinielak

Lehia beti izan da txapelketaren inguruan sortu ohi den giroaren baitako elementu garrantzitsu bat ('Kamisetak, turutak eta dunbalak maitea den bertsolaria aupatzeko' *Egin/Gara* 2005/12/18) eta hainbat egunkaririk eskaini izan dituzte porrak, kinielak eta pronostikoak.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean.

Zenbaitetan egunkariek sari eta guzti antolaturiko porrak izango dira. Honela, 89an *Eginek* antolaturikoa, 'Egin kinielaren pronostikoa: Lizaso txapeldun eta Lopategi eta Egaña paretsu' (1989/XII/17) eta 'Kinielaren irabazleekin afaria trikitixa eta guzti (1989/XII/17), edo urte berean *El Diario Vascok* martxan jarritakoa, 'Martitxu Izetarentzat *El Diario Vascoren* Bertsolari-Txapelketa' (1989/XII/20). Hauek izango dira, hain zuzen, topatu ditugun lehenak; lehen hiru txapelketatan ez zen horrelakorik planteatzen.

Gerta daiteke baita egunkariak Iritzia Atalean astero berritzen den inkesta izatea, eta txapelketa garaian honen inguruko galderaren bat planteatzea: 'Txapeldun nor izango da? Inkesta' (*Egunkaria* 1993/XII/13), 'Bertsolari Txapelketa Nagusian Egañari kenduko al diote txapela? Inkesta' (*Berria* 2005/XII/18). Edo kazetariak bertso eta kultur munduko hainbat pertsonaia ezaguni deitzea pronostiko bat eskatzeko: 'Ezetz asmatu' (*Egin* 1997/XII/14), 'Gizarteko pertsona ezagunek Andoni Egaña jotzen dute faborito nagusizat bihako finalerako' (*Egunkaria* 2001/XII/15).

Azken hauen artean zenbaitetan izenak baino ez dira eskatzen, baina beste batzuetan arrazoitzeko eskatzen da, eta elkarriketa sorta gisa ere egituratzen dira batzuk.

Funtzionatu izan duen baliabide bat izan da, bada, baina ez, inolaz ere, orokortua: guztira, azken zikloko txapelketei eskainiriko testuetan 26 baino ez dira gisa honetakoak, gehienak *Egin-Garan* eta *Euskaldunon Egunkaria-Berrian* topatu direlarik¹¹⁷.

¹¹⁷ Porra edo kinielaz gain bestelako kontuak ere jasotzen dituzten elkarriketetan, ez dira porra edo kinielatzen hartu, elkarriketatzen baizik. Eta kolaboratzaile batek edo norbanako batek testu zabalago baten baitan emandako pronostikoak ere ez ditugu kontabilizatu. Esaterako, Hasier Etxeberriaren 'Txapelketaren kiniela' (*El Mundo* 1997/XII/13) edo Felix Ibargutxiren 'Kiniela erdi-sentimentala' (*El Diario Vasco* 2009/XII/12)

D) Baliabide grafikoak

Argazkiez haratago, baliabide grafiko gutxi erabili izan da finalari buruzko testuetan, eta izan zitekeen bestela ere, urteak aurrera joan ahala geroz eta testu luzeagoak lantzen baitira, eta horrelako kazetaritza lan handiak izaten baitira normalean infografiak, ilustrazioak, grafikoak edo taulak eraman ohi dituztenak.

Arruntena sailkapena eta bertsolari bakoitzak ariketa bakoitzean ateratako puntuazioak jasotzen dituen taula izan da. Aurretiaz, finalean jokatuko diren ariketak edo finalaren inguruko hainbat datu ere (ordutegiak, espero den jendea eta abar) eman izan dira taulen bidez. Topatu diren 47 elementuetatik ia bi dozena horrelakoak dira.

Hainbatetan erabili izan den beste elementu bat karikaturena da. Honela, 1989an, ‘Ocho bertsolaris pugnán hoy en Donostia por la txapela de campeón de Euskadi’ izeneko erreportajea (*Deia* 1989/XII/17) zortzi finalisten inguruko testu informatzaile labur banarekin eta bakoitzaren karikatura banarekin osatzen da (egilearen izenik ez da ageri). Edo, 1993an *Egunkarian* Jexux Mari Irazuk finalista bakoitzaz eginiko soslaia Mattinen karikatura batekin osatzen da. Gerora, Ivan Landa edo Josu Landak ere egingo dituzte finalisten karikaturak *Egin/Gararako*, irudi bakar batean bilduta eta izenburu eta guzti eman izan direnez umore grafiko gisa kontabilizatu ditugu.

Baliabide grafikoek protagonismo handiena lortu zuten testua 1989an Pello Esnalek argitaraturiko ‘Bertsolarien Taupagramak’ izan zelakoan gaude (*El Diario Vasco Zabali* 1989/XII/20): zortzi finalisten puntuazioekin kardiograma gisa apailduriko zortzi grafiko eskaintzen dira, bi orrialde betetzen dituztenak, azalpen eta guzti.

Egunkariak ere egiten du ahalegin azpimarragarri bat 1997an aurretik ateratako gehigarri berezian. ‘Txapelketa zenbakitan’ testuan (1997/XII/14) taula handi batean finalista bakoitzak aurreko kanporaketetan izandako puntuazio guztiak jasotzen dira eta azpian ariketa mota bakoitzean ateratako batzuetako seinaleak seinalatzen dira, datu horiek termometro batzuen bidez irudikatuz eta ranking ezberdinetan ordenatuz. Eta gehigarri berean, ‘Zortziko bitxia’ izenburupean koadro handi batean maketatzen dira finalistei eta finalari buruzko oinarritzko informazioak, konposizioa argazkiez gain hainbat sinbolorekin (ordutegia erlojua, telebistako emanaldiak telebista aparailu bat, bertsolari bakoitzari mikrofono bana...) osatuz.

Hortik aurrera, askorik ez: Grafiko bat finalisten batzuetako adinak izan duen bilakaerarekin (‘Hogeita lau urte bertsoak sustatuz’ *El Diario Vasco Zabali* 2001/XII/15), BECaren planoak (‘Belodromatik Becodromora’ *Berria* 2005/XII/17), Espainiakoa mapa bat Iberiar Penintsulan aurki daitezkeen gisako fenomenoak seinalatzen dituen (‘Los otros trovadores ibéricos’ *El Correo Español* 2009/XII/13), aurreko txapelketan jasotako bertso onenak kuaderno batean irudikatzea (‘Objetivo: La txapela de Egaña’ *El Correo Español* 2009/XII/13)...


IV.II HIZKUNTZA HAUTUAREN BILAKERA

IV.I.I Bilakaera orokorra

Euskaraz gorputzen den fenomeno kultural bat izanik, igorle nahiz hartzaileak euskaldunak izanik, bertsolaritzari buruz argitaraturiko testu gehienak euskaraz argitaratuko dira. Bostetik laukoa da proportzioa: %78 euskaraz, %19 gaztelera, eta %2 frantsesez.

Badago elebitan argitaratu diren testuen %0,63 bat ere. Hemen zazpi testu sartzen dira, denak ere 80 hamarraldiko lehen erdikoak: Iñaki Eizmendi *Basarriren Nere Bordatxotik* zutabeko

lau testu, egunkari berean Santiago Aizarnak argitaraturikoa eta *Egin/Garak* argitaraturiko laburpen gisa funtzionatzen zuten gaztelerazko zatidura handi bana zuten euskarazko bi testu.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean

Argitaratzen diren testu gehienak euskaraz izanik, sinatzaile gehienak ere euskaraz arituko dira, noski. Hemen lautik hirukoa da proportzioa: 219 sinadurak euskaraz bakarrik argitaratu dute, 46k gazteleraz bakarrik, 8k frantsesez eta 18k ele bitan (gehienek euskaraz eta gazteleraz).

Bateko eta besteko, argitaraturikoaren eta sinatzaileen, datuak alderatuta, bitan argitaratzen duen %6 horrek euskaraz gazteleraz baino gehiago argitaratzen duela ere ikus daiteke.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean

Argitaraturiko testuen hizkuntza hautuaren bilakaera portzentualari errepasso bat emanaz, nabarmen ikusten da lehen bi txapelketetan erdarak, zehatzago esanda gaztelerak, presentzia handiagoa zuela. Lehen bi txapelketa horietan lidergoa *Deiak* du eta *El Diario Vascok* ere


pisu garrantzitsua du. *Eginek* baino erdararako joera markatuagoa duten bi egunkari dira hauek. 1980an *Deiak* euskarazko proportzio altua dauka, baina *El Diario Vascok* 11 testutatik 6 gazteleraz argitaratuko ditu eta 2 ele bitan. Eta 82an ere, *Deiak* 10etik 4 gazteleraz, eta *El Diario Vascok* 4tik 3. Lehen txapelketa horietan testu gutxi argitaratu zenez, gutxi hauek asko igotzen dute portzentajea.

Hurrengo bi txapelketetan *Eginek* hartuko du lidergoa, testu asko aterako du, eta gazteleraren presentzia baxuago batekin. 1986an argitaraturiko testuen %49 berea da eta orri horietan argitaraturiko gazteleraren proportzioa %9koa da. Argi dago euskarari eman nahi diola presentzia egunkari honek bertsolaritzari dagokionean behintzat. 1989an, berriz, argitaraturiko testuen %62 da *Eginena* eta bere testuetatik bakarra izango da gazteleraz (%2,5). Honenbestean, gaztelerazko estaldura orokorraren portzentajeak jaitziera garrantzitsua izango du: 80ko txapelketako %40tik 1989ko txapelketako %19ra.

1993an indartsu sartuko da *Egunkaria*, hortik aurrera *Eginekin* lidergoa partekatuko du, eta pentsa zitekeen, hori horrela izanik gazteleraren presentziak are txikiagoa beharko lukeela, baina ez da horrela gertatzen. Izan ere, *Egunkariarekin* batera gaztelerari pisu handia ematen dioten egunkariak ere sartuko dira hamarkada honetan (*El Correo Español*, *El País*, *El Mundo*). *Eginek* ere testuren bat gehiago ateratzen du gazteleraz, adibidez, 1993ko azaleko nagusia: ‘Egaña fue el mejor’.

Frantsesa 2001ean sartuko da LJPBren sorrerarekin, eta hurrengo bi txapelketetan, 2005ean eta 2009an, erdaren portzentajeek gora egingo dute zerbait, bi eta lau puntu hurrenez hurren, %20-25 bitartean finkatuaz. 2005ean BECrako jauziarekin erdal komunitatera gerturatzeko ahalegina suma daiteke datu hauen atzean, baina euskarazko eskaintzak ere hazkunde garrantzitsua izan zuenez, erdal estalduraren bilakaeraren norainokoa ikusteko datu absolutuen bilakaerari erreparatu beharko zaio horretarako, portzentajeak alde batetara utziaz.

IV.I.II Erdarazko estalduraren bilakaera



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinean

55. grafikoari erreparatuta, esan daiteke, erdal estaldura garrantzitsu baten lehen zantzuak 93ko txapelketan ageri direla, 2001ekoan berriro ere badagoela interes bat eta 2005ean nabarmen egiten duela gora gailurra 2009an jotzeko.

1993an *El Mundo* azalduko da lehenengoz, bost testutik hiru gazteleraz eskainiaz. *El Correo Español* berragertuko da baita, lehen agerpen garrantzitsu bat 86an egin eta 89an desagertu ondoren, testu guztiak, sei, gazteleraz eskainiaz. Azkenik, *El Diario Vascoren* eskaintzaren sendotzeak ere erdarazko estalduraren sendotzea ekarriko du: 1989eko 15 testuetatik, gazteleraz 5, 21 eskaintzera pasako da, 15 gazteleraz.

Donostiako egunkariaren kasuan bertsolaritzari buruz aritzeko egindako hizkuntza hautua egunkariaren hautu orokorrakoak baldintzatzen duela ikus daiteke nabarmen. *Deia* eta *Egin* ere elebidunak dira, bietan nagusitzen da nabarmen gaztelera, baina bertsolaritzari, euskal kultur gai bati heltzean euskarari ematen diote lehentasun osoa. *El Diario Vascon*, bertsolaritzaz ari delarik ere, batez ere 1980ko eta 1990ko hamarraldietan, gaztelerak oso pisu garrantzitsua du, hainbat txapelketetan, 1993an bezala, euskarari nagusitzeraino. Politika horren beste zantzu bat lirateke lehen aipaturiko Basarriren eta Santiago Aizarnaren testu elebidunak. Irudi lezake, 1980ko hamarraldiaren lehen urteetan behintzat, euskaraz bakarrik argitaratzea ez dutela oso begi onez ikusten egunkari honetan.

1993 horretan, bada, estaldura informatibo duin samarra eskaintzen da finalaren inguruan. Ez behar lukeen bezainbestekoa, ordea, Garziaren iritziz:

“Ez nuke aipatu gabe utzi nahi: erdarazko ‘euskal’ hedabideek ere badute zer eginik bertsolaritzaren alorrean (eta beste hainbatetan). Bertsolaritza kultur ondare bitxi eta bakan dugu, eta Euskal Herrian bada jende multzo zabal bat (zabalegia aukeran) horren berri ez duena. Oraindik egiteke dago, adibidez, bertsolaritzaren nondik norakoak agertuko dituen bideoa erdaraz, euskaraz ez dakien euskal herritarrari ‘horra zer galtzen duzun euskaraz ez jakitearren’ edo adieraziko liokeena. ETBren bigarren katea sortu zelarik era horretako lanen zain egon ginen koitaduok etsipena hartzen hasiak gaude” (Garzia, 1993: 84-85)

1997ean kasik biharamuneko kronika eskaintzera mugatzen da erdarazko estaldura. *El Diario Vasco* eta *Deiak* behera egiten dute nabarmen (21 testutik 13ra lehenengoak eta 19tik 12ra bigarrenak) eta erdarakoari kentzen diote gehiago. *El Diario Vasco*, gainera *Basarrik* erretiroa hartzen du. Berebat, *El Correo Español* erdira jaisten da. Eta *El Mundo*-k gora egiten du, ikusgarri, kasik *El Diario Vascoren* eta *Deiaren* mailan jartzetaino, baina, Josu Torrerren eskutik, euskaraz arituko da nagusiki, nagusiki (10 testutik 9). Azkenik, 1993tik 1997ra hazkunderik handiena duen finalari buruzko eskaintza, *Eginena* (23 testutik 48ra), euskara hutsean emango da kasik. 1993an *Egunkariak* emandako *sorpasso*-aren aurrean izandako erreakzioak are gehiago euskaldunduko du Hernaniko egunkariaren estaldura.

Erdaldunei egindako eskaintza berehala hasiko da errekuperatzen, ordea. 2001ean 1993ko mailara iritsiko da berriro. 93an *Egunkariak* denei aurrea hartu ondoren, 97an *Eginen* erreakzionatu bazuen, 2001ean *El Diario Vasco* izango da, gai honen inguruan hirugarren garrantzitsuena izan den egunkaria, aurreko bien parera iristeko pausu bat aurrera emango duena. Bikoiztu egingo du argitaraturiko testu kopurua, 13tik 31ra pasatuaz, eta ohikoa duen lez gaztelera dezente sartuko du (10 testu). *El Pais*ek inoizko interes handiena agertzeak, lautik gaztelerazko hiru testurekin, eta LJPBren eskutik etorritako frantsesezko lehen testuen presentziak ere kontsolidatu egingo dute igoera hori.

Belodromotik BECrako aldaketa, neurri batean Elkarteak erdal komunitatearenganako hurbilketa irudikatzeke egin zuena, 2005ean eman zen. Jada aipatu den bezala, ahalegin komunikatibo berezia egin zen, eta saritu ere egin zuten Argia Sariarekin komunikazio kanpaina hura. Finalari buruzko erdarazko estalduran nabaritzen da ahalegin guzti hori *El*

*Correo Español*ek berriro estaldura duin bat egingo baitu, 12 testurekin (pare bat txapelketa lehenago *Deiak* edo *El Diario Vasco* eskaintzen zutenaren pare) eta ia osorik erdaraz. *Gara* eta *Deia* ere asko haziko dira, 37 testutik 55ra lehenengoa eta 13tik 20ra bigarrena, eta horrek ere erdara gehiago sartzeko aukera emango du (10 testu *Garak*¹¹⁸ eta 5 *Deiak*). *LJPB*ek ere eskaintza majoa osatuko du (8tik 6 frantsesez) eta *Sud Ouest* gehituko zaio gainera.

Euskaraz eskaintzen zena ere kasik beste hainbeste hazi bazen ere, horrek ez du kentzen erdal irakurleari askoz ere eskaintza osotuagoa egingo zaiola 2005ean.

Honela, bertsolaritza inguruko azalpenak emango dizkieten testuak aurkitu ahal izango dituzte irakurle erdaldunek: ‘El arte de la expresión oral, un país de bertsolaris y de buenos comunicadores’ (*El Correo Español*), ‘Décadas de trabajo en la improvisación oral’ (*El Correo Español*)...

Aurretikoen berri ere izan ahalko dute: ‘Los bertsos se convertirán mañana en el espectáculo más multitudinario que ha acogido Bizkaia Arena’ (*Deia*), ‘Ocho bertsolaris y una txapela’ (*Diario de Noticias de Navarra*), ‘Un abarrotado BEC de Barakaldo será hoy testigo del empuje de los bertsolaris jóvenes’ (*El Diario Vasco*) ‘Cuelgan el cartel de ‘No hay entradas’ (*Gara*). ‘Huit bertsolari et 13.000 spectateurs pour une txapela’ (*LJPB*), ‘Amets et Sustrai en Finale’ (*Sud Ouest*)...

Finalaren kronikak: ‘Egaña hace historia’ (*El Correo Español*), ‘Los jóvenes no han podido desbancar a Andoni Egaña’ (*El Diario Vasco*), ‘Andoni Egaña triunfa en la final del campeonato de bertsolaris’ (*El Mundo*), ‘Egaña, Toujours Egaña’ (*LJPB*) . Edo giro kronikak: ‘Una jornada festiva para los asistentes de todas las edades y procedencias’ (*Deia*), ‘El BEC estuvo a la altura de los bertsolaris’ (*El Diario Vasco*), ‘Barakaldo, la nueva Meca de los euskaltzales’ (*Gara*)...

Txapeldunari elkarrizketak biharamunean: “En cultura los records no tienen lugar; eso forma parte del deporte” (*Deia*), “Si otro lo hubiera hecho mejor que yo, estaría aún más contento” (*El Correo Español*), “Mi experimento ha sido pasar del bertso abstracto al concreto” (*El Diario Vasco*). Edo azpitzapeldunari: ‘Unai Iturriaga: “Estoy triste porque me he quedado cerca, pero ha sido una final bonita”’ (*Deia*). Txapeldunaren soslaiak: ‘Andoni Egaña, mucha teoría y mucha práctica’ (*El Diario Vasco*)...

Bestelako elkarrizketak: ‘Estitxu Fernandez: “Ojalá el mejor bertsolari sea una mujer”’, ‘Joseba Kamio: “Esta edición ha tenido en los medios un eco sin precedentes”’ (*Gara*)... Iñaki Muruaren ‘Tenemos ese privilegio’ (*El Correo Español*) edo Aitor Gonzalez Kintanaren “Se recortan las diferencias entre los bertsolaris’ (*El Correo Español*) gisako iritzi artikuluak... Edota Maite Ubiriaren ‘Urquijo y los bertsozales asepticos’ (*Gara*) eta Andoni Iturberen ‘El test de la intelligentsia’ (*Deia*) gisako zutabeak...

2005eko txapelketa honetan iritsiko da baita Joxerra Garziak 1993an eskatzen zuen ETB2-aren ahalegina. Julio Ibarra aurkezleak eta Jon Sarasua adituak bi orduko programa berezia eskaini zuten, zuzeneko faltsuan egina, finala bukatu ostean, eta Radio Euskadiko Javier Vizcainoren ‘Mas que palabras’ programan zuzeneko hainbat konexio egin zituzten baita.

¹¹⁸ *Egin/Garaan* nabari dira bertsolaritza erdal komunitatearengana helarazteko ahaleginaren zantzuak. Lau txapelketatan txapelduna berria nor izan denaren albistea gazteleraz eman izan du azalean, esaterako. Gaztelerazko oinarrizko estaldura bat ematera ez da inoiz iritsi, ordea. Erdaraz argitaratu ohi dituen albisteak, azalekoa salbu, bigarren mailakoak izaten dira: giro kronika bat, finalera bisitari gisa etorritako atzerriko ikerlariaren ingurukoak... *El Diario Vasco*ek, aldiz, beti eman izan du oinarrizkoena behintzat gazteleraz, eta *Deiak* ere, gehien argitaratu duen urteetan, baita.


2009an Anne Igartiburu izango da ETB2ko saio bereziaren aurkezle Jon Sarasua eta Igor Elortzaren laguntzarekin, eta aurrerago etorriko da, 2011ean, Asier Altunak zuzenduriko ‘Bertsolari’ filma, gaztelerazko bertsioa ere eskainiko duena.

2001etik 2005era ematen den hazkundea %53koa izango da, baina 1997tik emandakoa %172koa. Eta beste %8 igoko da 2005etik 2009ra. Txapelketa honetan emango da, esan bezala, gaurdaino erdaraz eskaini den jarraipen zabalena.

Urtzi Urkizuk (*Berria* 2009/12/13) ematen du estaldura osoaren berri: ETB1ek egun osoan zehar zuzenean eta osorik eskainiko du finala Josu Goikoetxea eta Estitxu Fernandezek gidaritzapean, eta gauean *Bertsolaritza gaur* dokumentala. ETB2an aipaturiko Anne Igartiburuk zuzenduriko saio berezia. Euskadi Irratian arratsaldekoa zuzenean eta goizekoaren laburpena Xabier Sukiaren ‘Hitza jolas’ programan. Radio Euskadin Javier Vizcainoren ‘Mas que palabras’ programa zuzenean BECetik, aditu gonbidatu gisa Juanjo Respaldiza bertsolaria duela. Bizkaia Irratiak finala zuzenean Iñaki Aurrekoetxea gonbidatu adituarekin, Iparraldeko Euskal Irratiak beste hainbeste Karlos Aizpuruarekin eta Argia-info7k Internet eta irrati bidez Agin Rezola, Jokin Sorozabal eta Xabier Euzkitzerekin...

2013an, aldiz, 2001eko mailetara jaisten da berriro ere erdal kazetaritzaren interesa: *Deiak* eta LJPBk behera egiten dute nabarmen orokorrean (28tik 13ra eta 13tik 4ra), *Garak* ere bai gaztelerazko estaldurari dagokionean (gazteleraz 10 testu eskaintzetik 2 eskaintzera. Bestalde, *El Correo Español* gora egingo du, 2009an baino hiru testu gehiago, guztira 16, argitaratuaz, baina lehen aldiz euskarari presentzia garrantzitsu bat eman nahiko dio, eta gaztelerazko estalduraren kaltetan izango da hori, zortzi testura mugatuaz. Eta 2017an beste %50 jaitsiko da erdarazko estaldura, 1980ko hamarraldiko kopuruetara itzuliz.

IV.I.III Hizkuntza hautua eta kazetaritza generoen arteko loturak



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBNTN datuak eta grafikoak) eranskinean

56. grafikoan ikus daitekeen bezala, euskaldunei egiten zaien eskaintzak, eta erdaldunei egiten zaienak baditu bere diferentziak¹¹⁹. Esaterako, erdaldunei iritzi gutxiago (%17) iristen

¹¹⁹ Sinaduretatik ateratako portzentajeak dira. Iritzi emaileak eta bestelako kazetari lana egiten dutenak; zutabegileak eta iritzi artikulak eskaintzen dituztenak. VIII. eranskineko 2-3-4 eta 8 kontsultak.

zaie interpretazioaren eta informazioaren aldean (%31). Jada aipatuenez, iritzia da, generikoki behintzat, eskain daitekeen eduki elaboratuena, ezagutza sakonago bat helarazi dezakeena.

Iritziaren baitan, halaber, gehiago iristen zaio erdaldunari zutabeen bidez (%27), iritzi artikuluen bidez (%11) baino. Horrek esan nahi du gaiaz puntualki ari den ohiko kolaboratzaileak esandakoak irakurtzeko aukera izango duela, iritzi ez hain kualifikatua, propio ekarritako adituena baino.

Bestalde, ikusi da erdaldunek bertsoaritzaren berri izateko modurik badutela azken txapelketetan, baina arakatu nahi izan da bertsoa bera eskaintzen ote zaien. 1990ko hamarralditik aurrera gaia itzuli eta bertsoan esan dena gazteleraz azaltzea nahikoa ohikoa da. Bertsoa bera itzulita, ordea, gutxitan jasoko dute.

Lehen, adibidea, 1980ko txapelketan sinadurarik ez daraman ‘Ocho vates disputarán el Campeonato Mundial de Bertsolaris’ (*El Diario Vasco* 1980/I/05) erreportajearen topatuko dugu. Anjel Larrañagak kanporaketa batean botatako agurra euskaraz eta gazteleraz eskaintzen da. Bigarren adibidea hamarkada bat beranduago aurkitu da. Rufino Iraolak egiten du ahalegina, 93an, ‘Asi funciona un bertsolari’ (*El Diario Vasco* 1993/XII/18) erreportaje esplikatzailearen osagarri gisa Egañaren bertso batzuk itzulita ‘Egaña responde a un telegrama’ izenburua daraman zatiduran. Eta hirugarren adibidea topatzeko, berriro ere hamarkada bat egin beharko da aurrera. Isabel Ibañezek argitaraturiko ‘A golpe de rima’ (*El Correo Español* 2005/XII/17) testuan zortzi finalistei bertso ariketa batzuk proposatzen zaizkie propio egunkarian argitaratzeko (‘el penúltimo entrenamiento’ dio kazetariak) eta itzuli egiten dira gero bertsook¹²⁰. Egile berak urte berean beste bi testutan ere eskaintzen du bertsoen gaztelerarako itzulpenik (‘Los bertsolaris crean una web para unir la tradición oral mundial’ *El Correo Español* 2005/12/18; eta kronika nagusia ‘Egaña hace historia’ *El Correo Español* 2005/XII/19). 2009an *Deiak* eta *Diario de Noticias de Navarra* Lujanbioren azken agurra itzuliko dute eta *El Correo Español*en Jon Fernandezek eta *El Diario Vascon* Felix Ibagutxik kronikaren baitan bertso onenen lerro batzuk itzuliko dituzte. Aurretikoan Jon Fernandezek 2005eko buruz burukoaren zenbait bertso ere itzuliko ditu (‘Objetivo: La txapela de Egaña’ *El Correo Español* 2009/XII/13).

2013an, Cecile Vignau da (*LJPB* 2013/XII/17), ‘Le bertsulari Hendayais Amets Arzallus coifée la txapela’ testuan, bertsoak frantsesera itzultzen lehena.

Edonola ere, badirudi bilakaera orokorrak bi mugimendu kontrajarri marrazten dituela: batetik aparraldietakoa, zabaltzekoa, testu gehiago, estaldura osoagoa eta erdaldunentzako eskaintza hobeagoarekin, eta bestetik aparraldi ondokoa, barnebildu eta sakontzeko, testu gutxiago, euskararen presentzia erabatekoa eta espezializaziorako joerarekin.


IV.III ARGITALPEN NAGUSIEN EREDU EZBERDINAK

Azken zikloaren oihartzunari eskainitako azpiatalean jaso da egunkari bakoitzak Txapelketa Nagusietako finalari buruz argitalpen bakoitzak eskainitako testu kopuruaren zerrenda¹²¹.

Testu kopuru horri egunkari bakoitzean argitaratu izan duten sinaduren zerrenda gehituta egunkari bakoitzak gaia jorratzerakoan eratu duen antolakuntza ereduak suma daiteke.

¹²⁰ Eginek ere *Gaztegin* gehigarrian antzeko zerbait egin zuen Maialen Lujanbiorekin 97ko txapelketan, baina euskarazko testu baten baitan.

¹²¹ Ik. 8.5.4 Finalari buruzko argitaratzaile eta sinadura nagusiak azpipuntuan 37. grafikoa.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI, X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eta IX. (EHBTN sinaduren zerrenda) eranskinetan.

57. grafikoan ikus daitekeen bezala, sinadura gehien eskaini izan duena *Egunkaria/Berria* izan arren, *Egin/Gara* da testu gehien argitaratu duena. Antzeko zerbait gertatzen da *Deia* eta *El Diario Vasco*ren artean ere, lehenengoak sinadura ezberdin gehiago izan dituen arren bigarrenak dezente testu gehiago eskaini ditu.


Itxura batean kontraesankorra iduri dezakeen konstatazio honen atzean egunkariaren funtzionatzeko eredu ezberdinak nabari daiteke. *Egin/Garak* eta *El Diario Vasco*k kazetari talde bat izan du urterik urte txapelketetaz arduratu izan dena. *Egin/Gararen* kasuan hasieran Andres Osa *Sakona* eta Joxean Agirre, eta gero Joxean Agirre eta Amagoia Mujika, azken bi txapelketetan Ane Arruti gehitu zaielarik. *El Diario Vasco*k, berriz, hasieran Iñaki Eizmendi *Basarri*, eta 90ko hamarralditik aurrera Felix Ibargutxi, gaiari loturiko aditu gisa baina kazetari lanak ere osatu izan dituzten Rufino Iraola eta Pello Esnalekin batera. Bianditx Iraolak ere lau txapelketa eginak ditu kazetari gisa egunkari horretan.

Egunkaria/Berrian eta *Deian* ez da horrelako talderik osatu. Ia urtero kazetari ezberdin batzuen esku utzi izan da txapelketaren jarraipena. *Egunkaria/Berrian* Koldo Aldabe eta Aitor Ugalde aritu ziren 1993an, Iñigo Olabarra 1997an, Ainhoa Oiartzabal eta Jon Martin 2001ean, Zihara Enbeita 2005ean...

Deiaren kasuan informatzaile gisa txapelketa errepikatu duten bakarrak Andres Osa *Sakona* eta Mikel Atxaga dira. Lehena bertsoaritzaren inguruko kazetaritzan beteteranoa eta bigarrena euskarazko kazetaritza garaikidearen aitzindarietarikoa bat.

Eskala txikiagoan gauza bera gertatzen da *El Mundo* eta gainerako egunkariekin. *El Mundoren* produkzioa LJPB edo *Diario de Noticias de Navarra*ren parekoa da, eta *El Pais*ren bikoitza, baina bere sinadura kopurua guzti hauena baino hiru edo lau aldiz txikiagoa

da. Izan ere *El Mundon* Josu Torrek jarraitasun bat izan du txapelketari jarraipena emango dion kazetari gisa, bere gain hartu ditu gainera testurik gehienak. Gainerako egunkarietan txapelketaz txapelketa aldatuz joan dira sinadurak.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VII.I-XI, X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eta IX. (EHBTN sinaduren zerrenda) eranskinetan.

58. grafikoan argiago ikusten da bi ereduena. Kazetari esperientziadun gisa bi txapelketa baino gehiago jarraitu edota argitaraturiko testu kopurua bi digitukoa dutenak soilik hartu izan dira. Eta *Egin/Gara* eta *El Diario Vasco* dira kasu honetan gehien nabarmentzen direnak.


Egunkaria/Berriarena ere kopuru garrantzitsua da baina ñabartu beharko da bertan argitaratu diren sei sinadura esperientziadunetatik lau beste egunkariaren batean ere sinaturikoak direla: Antton Olariagak hainbat urte egin zituen *Eginen*, Joxerra Garziak ere bertan kolaboratu izan du baita, eta Xabier Euzkitze eta Pello Esnalek *El Diario Vascon*. Alegia, esperientzia hori ez dutela osorik *Egunkaria/Berrian* pilatu.

Deia oso atzean geratzen da sinadura esperientziadunen kontu honetan. Bertako hiruak, Andres Osa *Sakona*, Josu Torre eta Joxe Mari Aranalde euren esperientziaren zati handi bat beste egunkariaren batean, *Egin/Gara*, *El Mundo* eta *El Diario Vasco* hurrenez hurren, hartutakoak dira gainera. Eta *El Correo Españolek*, esan bezala, ez du esperientziadun kazetaririk bideratu. Kontabilizatu ditugun hiruak, *El Diario Vascon* zaildutakoak dira, talde berekoa denez *El Correo Españolen* argitaratzeko euren lana bikoizten dutenak.

Bestalde, sinaduren artean BDBren baitako kide gehien eta bertsolari gehien sartu izan duena *Egin/Gara* da. *Diario de Navarraren* portzentajea altuagoa da, baina bi sinadura baino ez dituelako, tartean Mariano Izeta, BDBaren arabera, gai-jartzaile, epaile eta eragile nafarra.

Egunkaria/Berria, *El Diario Vasco* eta LJPBren portzentajeak ere altuak dira, sinadura gehien duena *Egunkaria/Berria* denez kopuru absolututan *El Diario Vascon* dezenteko aldea ateratzen dion arren eta LJPBri are gehiago. Gainerako egunkari guztiak bataz besteko orokorraren, %29aren, azpitik gelditzen dira.


59.grafikoa. Zutabegileak eta Iritzi Artikulugileak egunkariko



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI, X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eta IX. (EHBTN sinaduren zerrenda) eranskinetan.

Egunkari bakoitzak gaiari Iritzi Atalean gaiari ematen dioten espazioa egunkari horiek ematen dioten garrantziaren adierazle bat litzateke.


60.grafikoa. Presentzia Iritzia Atalean egunkarika (1980-2017)



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI, X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eta IX (EHBTN sinaduren zerrenda) eranskinetan.

60. grafikoan ikus daitekeenez *Egin/Garak*, *El Diario Vascok* eta *Deiak* ere egiten diote bere tarteak gaiari Iritzia Ataleko orrialdeetan. Baina, esan bezala, bistakoa da *Egunkaria/Berriak* beste dimentsio bat hartzen duela kasu honetan. Honenbestez, 59. grafikoan ikus daitekeen bezala, bera da zutabegile eta iritzi artikulugile gehien eskaintzen duena. Esan bezala, erredakzio guztia euskalduna izateak laguntzen du lehenengoan, baina bigarrenak inork baino iritzi gehiago eskaini nahi duenaren esfortzua erakusten du.

Deigarria suertatzen da *El País*, *Sud Ouest* eta *Diario de Navarra* Iritzia Atalean testu bakar bat ere ez eskaintzea. Sinadura esperientziadunik ez duten berak dira.



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoak) eranskinetan.

Egunkari bakoitzak gaiari eman dion garrantziaren adierazle garrantzitsua da, baita, egunkariak bere azalean eman dion presentzia. Lehen aipaturiko ponderazioa aplikaturik, datuek adierazten dute egin-gara izan dela garrantzi gehien eman diona. *Egunakaria/Berria* 93tik aurrera lidergoa lehiatu badio ere, aurretik pilaturiko testuek eta egunkari euskalduna astelehenetan kalera atera ez izanak (igandean izan ohi da finala eta astearterako azalean lehen mailako albiste izaten jarraitzea ez da horren ohikoa) alor honetan *Egin/Gara* nagusitzen da.

El Diario Vascok ere kopuru garrantzitsua pilatzen du, *Egunakaria/Berriaren* aurretik jarriaz eta *El Correo Español* trena bost aldiz baino gehiago biderkatuaz. Nabaria da, talde berdinekoak izan arren, bata Gipuzkoako irakurleari eta bestea Bizkaikoari zuzentzen zaiolarik, lehenengoak, Gipuzkoan bertsozaletasunak daukan pisu handiagoa dela eta, lehenengoak askoz interes handiagoz jarraitzen duela gaia.


Azkenik, bosgarren grafikoak ikus zitekeen bezala, *El Mundok* (26) eta LJPBek (30) item kopuru paretsua argitaratu arren, nabaria da bigarren honek askoz ere garrantzia handiagoa ematen diola gaiari (hamabost aldiz presentzia garrantzitsuagoa azalean).

Errepaso labur bat emanaz esan daiteke finala albiste nagusi bezala azalean jasotzen duen lehena *Egin* izango dela, 1982an, ‘La genialidad de Amuriza pudo con la regularidad de Lopategi’. Aurretik, 1980an, *Deiak* birritan eta *El Diario Vascok* behin eramango dute azalera baina ez da ez lehen eta ez bigarren albiste gisa jasoko.

86an, 89an, 93an eta 97an ere *Eginen* bakarrik izango da lehen albiste: ‘Lizaso, klasiko gazte bat txapeldun’, ‘Jon Lopategik irabazi zuen txapela atzo Anoetan izandako finalean’, ‘Egaña fue el mejor’ eta ‘Egañak erraz jantzi zuen bere bigarren txapela’ hurrenez hurren. Jada 2001ean *Egunakariaren* ‘Andoni Egaña: “Lau urte barru zer egingo dudana aurreratzea zaila da; urteak luzeak dira”’ batuko zaio, albiste nagusi gisa, *Gararen* ‘Andoni Egaña llega a lo más alto y Lujanbio gana el fervor del público’ri. Eta 2005ean hiru dira: *LJPBn* ‘Les huit meilleurs bertsolari en finale devant 13000 personnes’, *Garan* ‘Egañak historia egin zuen BEC-en’ eta *El Diario Vascon* ‘Egaña: “Parranda pila egin dut gazteekin, eta hori prestakuntza ona da”’.

Biderkatuz doa finalari toki pribilegiatu hori eskaintzen dioten azalen kopurua, eta 2009an bost izango dira: *Egunkaria/Berriaren* ‘Andoni Egaña: “Bosgarrena, oso berandu datorren ume bat bezala izango litzateke”’, *LJPBren* ‘Bertsu txapelketa: La fête de l’euskara’ eta ‘Première txapeldun’, *Egin/Gararen* ‘Maialen, txapeldun’, eta Deren ‘Maialen hace historia’. 2013an aldiz sei: *Deiaren* ‘Bertsoa Amets’, *El Diario Vascoren* ‘Amets Arzallus: “Aitak eragin dit gehien bertsotan”’, *Egunkaria/Berriaren* ‘Amets Arzallus: “Txapelik ederrena da beste norbaiten barrura sartu eta kilimak eragitea”’, *Gararen* ‘Bertsoaren festa handia hemen da’ eta ‘Amets Arzallus, bazetorrela ikusten zen txapelduna’, eta *LJPBren* ‘Zorionak, Amets!’.

Maila baxuagokoak askoz gehiago dira. 82an *Deian* bigarren albiste izango da ‘Xabier Amuriza txapeldun’; 1993an *Egunkariaren* ‘Bertsolarien final handiak txiki egingo du belodromoa’ eta ‘Andoni Egaña: “Ikasten ari naiz”’ eta *El Correo Españolen* ‘Andoni Egaña, campeón de bertsolaris de Euskal Herria’; 2001ean *El Diario Vascoren* ‘Triunfo de Egaña y Lujanbio’, *El Paisen Pais Vasco* edizioaren ‘Egaña consigue su tercera ‘txapela’; 2005ean *El Diario Vascoren* “Andoni Egaña: “Mi experimento ha sido pasar del bertso abstracto al concreto”’, *Egunkariaren* ‘Andoni Egaña: “Estiloa aldatu dut propio, eta oso zehatz jardun”’, *Eginen* ‘Iturriagari eta Egañari elkarriketak’, *LJPBren* ‘Andoni Egaña coiffe pour la quatrième fois la txapela’...



Iturria: Egileak moldatua. Oinarriak finalei buruzko VIII.I-XI eranskinetan eta X. (EHBTN datuak eta grafikoa) eranskinean.

Azkenik, egunkari bakoitzak gaia jorrazteko egiten duen hizkuntza hautua ere eskainiko den estalduraren ezaugarri garrantzitsu bat izango da.

Deigarriak suertatzen dira *Egin/Garak* gai jakin honetarako bera bezala elebidunak diren *El Diario Vasco* edo *Deiarekin* alderatuz gaztelerari egiten dion tarte txikia, *El Correo Español* bere talde berekoa den *El Diario Vasco* egiten duenaren kontra gaztelerazko estaldura lehenestea, *LJPBren* estalduran euskarak zuen portzentaje bajua, eta *Sud Ouestek* euskaraz testu bakar bat ere ez argitaratu izana.

Diario de Navarra euskarak duen portzentaje altua anekdotikoa da, gaiak argitaratutako testu kopurua ere halakoxea delako.

IV.IV BERTSO-KRITIKAREN GARAPENAREN INGURUKO EZTABAIDA

Bertsolaritzaren hedabideratzearen inguruan egin diren gogoetetan fundamentuzko bertso-kritikaren baten hutsunea izan da historikoki gehien errepikatu izan den gaietako bat.

Elkartea sortzeaz zela argitaratu zen lehen gogoeta kolektibo handian, Jakinek bertso-munduko hainbat lagun erreferentzialari egin zion galdetegian, Joxerra Garziak komunikabideei galdetu zitzaionean mahaigaineratu zuen gaia: “Ohizko jaialdiak "transmititzera" mugatu behar al dute komunikabideek? Bertso-kritika egin behar ote da komunikabideetan?” (Elkarlanean, 1987: 94). Eta Amurizak berrikuntzei buruz galdetu zitzaionean: “Ikerketa eta kritika –estudioak, beraz- gehitu behar dira, berrikuntza fidagarririk izango bada” (Elkarlanean, 1987: 96).

Geroztik aurrerapausoak eman direla seinatu izan da. Egaña, esaterako:

“Prensa idatziari gagozkiolarik, aurrerapausoa nabarmena izan da. Garai batean, kronika soila egiten zen, egiten zenean. Orain, kronika kritikoak egiten hasiak dira, alde batetik kritikari-labealdi bat sortuz, bestetik publikoari pistak eta norabideak emanaz eta, azkenik, bertsolariei beraiei lana profesionaltasun handiagoz har dezaten eraginez.” (Egaña, 1993: 19)

Baina ez behar bestekoak, Egaña berari urte batzuk beranduago irakurri ahal zaionez: “Asmatu izan da paperezko euskarriari dagokion motako azterketa eta kritikarik egiterakoan. Oso tarteka ordea. Ia beti txapelketek hauspotu behar izan dituzte modu horretako idazkiak. Jarraipena falta zaigu” (Egaña, 2004: 168)¹²².

Azaldu berri den bezala, iritzi testuen kopuruak eta proportzioak gora egingo du txapelketek aurrera egin ahala, baina bi gauza ezberdin dira iritzia eta kritika:

“Nikolasen [Aldai] ustez, herri honetan kritika oraindik mamu handi bat da. Kritika egiten dugula uste dugu iritzi bat ematen dugunean. Berari beti oso desberdinak iruditu izan zaizkio horiek biak. Gauza bat da kritika egitea eta bestea iritzia ematea. Iritzia normahik eman dezake. Kritika ez da hori bakarrik, kontrastatu eta paradigma onartu eta jakin batzuen arabera eginga izan behar du (...). Bidegintza horretan orain arte pauso oso urriak egin direla dio. Teorizazio guztiak egin dira bertsoaren osaketa nolakoa izan behar den jakiteko. Hor badago bide bat eginga. Kritika egiterakoan erabili beharreko irizpideetan bidea egiteko dagoela oraindik, dio.” (Azkune, 2000: 83)

Bertsolaritzaren mugimendua mugimendu zabala izanagatik mundu txikiegia izan daiteke, nonbait, ganorazko kritika bat garatzeko:

“Nik uste dut aparatu kritiko bat edozein arte edo sorkuntzak behar duela. Eta daukat inpresioa ez dugula inoiz fundamentuzko bat eduki. Beharbada talde txiki eta endogeno bat garelako, eta denak ustez helburu beraren alde egiten dugulako ba ez gera kritikatan sartzen.” (J. Sarasua, elkarrizketa pertsonala, 2017/X/06).

¹²² Kazetarien analisisien kamustasunaz ere kexatzen da testu berean: “Ez dut inon irakurri, Unai Iturriagaren marka harrigarriaren berri (...) Hogeita hamaikarekin Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren lau final jokatura egongo da ondobidez. Kirolari balitz, lau Olinpiar Jokoetan parte hartuta (...) Pasa egin zaie datua kazetariei. Guk ohartarazi behar izan genituen, txapelketa bateko finalerdietan aurrena geratzea zela finala irabazteko biderik laburrena. Alegia, finalak zeretik hasten direla puntuaketari dagokionez, baina ez direla hutsetik hasten, epaimahaiaren subjektibotasuna asko bereganatzen baitu finalerdi distiratsu batek” (Egaña, 2004: 171-172).

Kazetariak seinalatzen dute arazoa: “Zine kritikari batek Asiako zinegile baten azken lanaren aurka sekulakoak idatzi ondoren lasai atera daiteke ostiral iluntzean gaupasa egitera. Literatura kritika egiten duenak eta bertso kritika egiten duenak berdin kalean aurki dezake kritikatu duena.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27). Eta baita bertsolariek ere: “errezagoa da Sevillan atera den flamenko disko bati kritika egitea etxeko atetik atera eta kalean topatuko duzun norbaiten lanari egitea baino. Nik uste zentzu horretan gu oso kontserbadoreak izan garela eta ez garela behar bezain harkorrak izan” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21).

Badirudi, ordea, azken urteetan pixkanaka bidea egiten asmatzen hasia dela generoa. Hainbat izen aipatzen dira ikerketa honetarako egindako elkarrizketetan. Kepa Matxainek *Argian* egindako kritikari lana, esaterako. Arzallusek aipatzen du: “(...) esango nuke azken urteetan milimetroka gero eta gehixeago lantzen ari dela eta gauza interesgarriagoak ikus daitezkeela. Gogoratzen naiz Argian Kepa Matxainek egin zuen jarraipen bat, bestelako estilo bat hartuz, nire ustez oso interesgarria. Eta ez da bakarria” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21). Baita Lujanbiok ere. Edota Estitxu Eizagirrek:

“(...) egin dira gauzak. Azkeneko Gipuzkoakoan Kepa Matxainek Argiarako egin zizkigunak interesgarriak iruditu zitzaizkidan, esaterako. Hor zegoen pertsona bat bere burua literaturzaletzat duena eta saioaren argazki oso bat ateratzen saiatu beharrean saio bakoitzean xehetasun bakarria seinalatzera joan zena. Gauza askori uzten zien ihes egiten baina harrapatzen zuen horri buelta asko ematen zizkion, literaturzale baten ikuspegitik oso teorizatuta eta oinarrituta zeudenak. Oso esperimendu interesgarria iruditu zitzaidan.” (E. Eizagirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/19).

Eta badira elkarrizketa ezberdinetan errepikatu diren izen gehiago ere. Egañak Iñaki Aurrekoetxea, Beñat Zamalloa, Harkaitz Goikoetxea eta Karlos Aizpurua aipatzen ditu. Lujanbiok Karlos Aizpurua eta Josu Goiko ere bai. Eta Agirrek Beñat Zamalloa.

Egiteke gelditzen denari erreparatzen dio gehiago Joxerra Garziak:

“Ez dut ikusten estrategien esplikazioa, estrategien nobedadeak, zehar lerro diren elementuak, zer pasatzen ari den... ez dut ikusten aurreratu dugunik (...) Tesiarekin ahalegin bat egin nuen marko bat jartzeko. Eta 2003ko nahiz 2005eko txapelketei buruzko liburuetan ere ahalegina egin nuen markoa kasu konkretura ekarri eta lan mardul bana eskainiz. Prentsan, noski, ezin da horrelakorik argitaratu. Beharko litzateke batetik prentsarako iruzkin laburragoa eta bestetik formatu luzeko lan akademikoagoa (...) eztabaidagarriak dira planteatu izan ditudanak, baina eztabaidarik ere ez da piztu. Inori ez zaio interesatzen debate hori bertsolarien artean? (...) Garai batean Juan Mari Lekuona eta hauek testura mugatzen ziren, baina oso analisi finak egiten zituzten. Orain ez testuinguru eta ez testu.” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Kritikaren beharra denek aitortzen dute, baina nolako kritika da gakoa. Nolakoa behar duen bat-bateko jardun bati galdatu ahal zaionaren mailak, eta bertsolaritzaren zein mailatan egin behar den kritika:

“Sehaskatik atera berriarekin onbera izatea komeniko da, baina gainerakoan ez da bide on bat hori. Plazak badituzten bertsolarien artean ez zait iruditzen kronika batetako kritikak kalte handirik eragin dezakeenik (...) Ziurrenik eragin handiagoa dute zentzu horretan antzezlan bati, filma bati edo liburu bati egindako kritikek. Alor horietan badago kritikari kasu egiteko joera eta posible

da kritika txarra irakurri duzulako antzezlan hori edo film hori ikustera ez joatea, edo liburua ez erostea. Baina bertsolarien kasuan, ibilbide oso batean pilatutako sinesgarritasuna da funtzionatzen duena.” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

Bertsolariek eurek aitortzen dute kritikari lanaren zailtasuna:

“(…) ez da lan erraza. Futbolisten lana baloratzen duten kazetari espezializatuek futbolisten lanaren %80aren zuzeneko jarraipena egingo dute, edo literatur kritikari batek idazle baten lanen %100a kontrolatu dezake, baina gu asko mugitzen gara urtean zehar, txapelketa ez da gure jardunaren %5a ere. Eta %5a bakarrik ikusita ondo asmatzea ez da erreza” (A. Egaña, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26)

Eta autokritika egiten dute euren kritikak jasotzeko gaitasunaren inguruan: “Gero egia da kritikak jasotzen ere jakin egin behar duzula. Eta bat-batekoa idatziz kritikatzekak erraza dirudiela, baina oso zaila dela. Alegia, bertso-kritikak ezin du literatur kritikako ohiko testu azterketa izan. Beste alderdi batzuei ere jarri behar litzaieke fokua (...)” (M. Lujanbio, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/17). Bidea erraztu beharko luketela azpimarratuz: “Egia da gure sormen baldintza prekarioak kontutan hartu behar direla kritika gauzatzerakoan, baina ezin da hori eskudo bat bezala erabili. Berez, kritika normalizatu bat ona litzateke bertsolaritzarentzat, eta ondorioz kritika normalizatzen lagundu beharko genuke” (A. Arzallus, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/21)¹²³.

Kazetariak ere hausnartu izan dute euren testuetan hartu beharreko distantziaren inguruan. Amagoia Mujika, esaterako, zaletu sentitzen da kritikari baino: “Nik beti idazten dut, eta batzuetan agian gehiegi, miresmenetik. Oholtzara bat-batean sortzera igotzea gauza izugarria dela iruditzen zait eta saiitzen naiz perspektiba hori ez galtzen (...) zentzu horretan ez dut luma gehiegi zorrozten” (Agirre, 2013b: 159)¹²⁴. Beñat Zamalloak, aldiz, nahiago du distantzia gehiago jarri: “(...) uste dut kazetari sentitzen naizela gehiago. nik ere sentitzen dut miresmen hori, baina beste alde batetik irakurleari, miresmen hori dela-eta, benetan gertatu dena ez kontatzeko beldurra ere sentitzen dut...” (Agirre, 2013b: 159). Eta oreka aipatzen du Agirrek:

“Beti sentitu izan naiz bertsozale eta bertsolaritza maite nuenez, mugimenduaren parte sentitzen nintzen, baina kazetaritza ere maite nuen eta edozer gauza egiteko prest nengoen kronika eder bat egin ahal izateko. Bi pasio horien arteko oreka bat beharko da seguru asko ondo funtzionatu ahal izateko.” (J. Agirre, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27)

¹²³ Badirudi egon badagoela autokritika horretarako beharrik, kritikek eragindako haserreak azaleratu baitira ikerketarako burututako elkarrizketetan. Honela dio, esaterako, Garziak: “Beti esaten da kritika beharrezkoa dela bertsoa hobetzeko baina gero kritika egiten denean gaizki hartzen da askotan. Hau gertatu zen jartzen baduzu ez dago arriskurik, baina hau ez zait iruditzen ondo dagoenik esaten baduzu, kontuz. Nik ere egin izan ditut ahalegin batzuk eta erreakzio itsusiekin egin izan dut topo” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Edota honakoa Zamalloak: “Zenbaita kostatzen zaio kritikak onartzea. Bizkaiko Txapelketa baten dezenteko iskanbila izan nuen (...) Eta gehiago ere tokatu zaizkit... Momentuan, kezaka edo haserre etortzen zaizkizunean asaldatu egiten zara, trago txar bat izaten da eta buelta asko ematen dizkiozu, baina gerora, orain, oso lasai nago egin nuenarekin. Beti saiatu izan naiz nire ustez egia zena kontatu eta alde horretatik kontzientzia oso lasai daukat. Gainera, argi daukat kazetariak publikoarentzat idatzi behar duela eta ez oholtzan daudenei gustatzeko” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

¹²⁴ Profesioari buruzko tertulian esandakoak dira hitzok. Beraz, ez ziren zehazki bertso-kritikaz ari, eta jarrera aniztasunak zekarren aberastasuna ere azpimarratu zuen Zamalloak: “Nik uste dut gure arteko ezberdintasuna ere ona dela. Amagoiak ikuspegi bat dauka, Xabik dauka beste bat, nik daukat beste bat... bakoitzak bere ikuspegi bat du eta elkarren artean osagarriak dira, ez dago konpetentziarik. niretzat hori polita da” (Agirre, 2013b: 162).

Baita epaileen puntuazioak euren balorazioetan izaten duen eraginaren inguruan ere: “[Amagoia Mujikaren hitzak] Egia da puntuazioa eskutan idatzita beste ziurtasun bat ematen dizula, baina ez dakit oso sistema zuzena den” (Agirre, 2013b: 178).

Joxerra Garziak ganorazko kritika batek kontutan hartu beharko lituzkeenak seinalatzen ditu: “Kritikak beharko luke klabe batzuk hartu eta elementu horiek testuinguratzen saiatzea, xehetasun batzuei heldu eta hori bertsolaritzak bizi duen unera estrapolatzea. Eta adibide konkretuekin arazo estruktural bat agertzea lortzen baduzu, bada, ondo baino hobeto” (J. Garzia, elkarrizketa pertsonala, 2017/VII/26). Eta Beñat Zamalloak ondo funtzionatu izan dion formula bat aipatzen du: “Azken txapelketan kronikak elkarrizketen bidez osatu nituen proba gisa. Saioa bukatutakoan bertsolariari galdetu eta kontakizuna haren hitzekin osatu. Bertsolariak badaki noiz aritu den gaizki, non sartu duen hanka, eta normalean ez du inolako arazorik izaten hori kontatzeko” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

Agerikoa da generoaren garapena oso nekeza suertatzen ari dela, baina bistakoa da baita bertsolaritzak izan duen garapen mailarekin, bertso-munduak irabazi duen analisirako eta gogoetarako gaitasunarekin, pixkanaka emango direla eman beharreko pausuak: “Edozein kasutan etorriko dela iruditzen zait. Pixkanaka geroz eta gehiago ematen da iritzia eta geroz eta ausartagoak dira iritzi horiek. Eta produkzio hori normalizatzen den neurrian kritikaren harrera ere normalizatuz joango da” (B. Zamalloa, elkarrizketa pertsonala, 2017/IX/27).

V. ERANSKINA: ELKARRIZKETA TRANSKRIPZIOAK

V.I JOXEAN AGIRRE. ZARAUTZ, 2017/IX/27

Kazetaria. 'Egin' eta 'Garan' 30 urtetik gora bertsolaritzaren inguruko informazioaren arduradun. 'Bertsolari' aldizkariaren sortzaile eta lehen zuzendaria (1991-2007). Hainbat bertsolariren biografiaren egile Bertsolari Liburuak sailaren baitan. Rikardo Arregi Kazetaritza Sari bat eta bi Argia Sari irabazitakoa bertsolaritzari buruzko kazetaritza lanengatik.

80ko hamarraldia-Egin

| 80 HAMARKADA | 1980 FINALA | 1982 FINALA | 1986 FINALA | 1989 FINALA |
|---------------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------------|
| EGIN | 4 TESTU | 16 TESTU | 33 TESTU | 41 TESTU |
| DIARIO VASCO | 11 | 4 | 18 | 15 |
| DEIA | 16 | 10 | 12 | 9 |

Baduzu gogoan nola hasi zinen bertsolaritzarekin *Egin*en? Aurretik jarraitzen zenuen?

Umetatik izan dut harremana bertsolaritzarekin eta *Egin*-en Kultura sailean sartu nintzenean hasi nintzela uste dut kronikak egiten. Aurretik, ordea, Herrietako Berrien sailean aritu nintzen eta aurretik hilabete batzuk sailez sail euskarazko lanak egiten. Orain erredakzioetako egoera guztiz aldatuta badago ere, orduan, *Egin* sortu zenean, erredakzioak erabat erdaldunak ziren. Kazetari multzo bat, gainera, Zaragozako egunkari itxi berri batetik etorriak ziren. Eta 'euskarazkoen talde' txiki bat, hamar bat lagun, sartu zuten erredakzio barruan. Filologiatik edo filosofiatik zetorren jendea zen. Ni Historia ikasten ari nintzen orduan, ikastolan Gizarte ematen nuelako. Ondoren hasi nintzen Kazetaritza ikasten. Euskarazko Taldeko horiek agentzietako berriak itzultzen zituzten gehienbat. Talde horretan hilabete batzuk eman eta pasatu nintzen Herrietako Berrien sailera eta Donostiako Udaletxeko berri ematen eta herrietatik zetozen kronikak taxutzen jardun nuen Kulturari sartu aurretik.

Baduzu gogoan hamarkada hasieran *Deiak* gehiago eskaintzen zuela eta *Eginek* oso gutxi? Azalpenen bat topatzen diozu?

Irudipena dut *Deiak* ere ez zuela modu normalizatu batean bertsolaritzaren berri ematen eta gehiago zirela iritzi generotik oso gertu zeuden 'artikuluak'. Uste dut hala deitzen zitzaiola orduan gisa horretako lanei, pixka bat Basarrik *Diarion* egiten zuena imitatzuz edo. Ez nago seguru, baina Mikel Atxagaren edo Aranaldaren lanak gehiago zuten iritzi artikulutik tratamendu normalizatu batetik baino. Ez nago seguru, baina *Deiako* Kulturari lan egin zuen lehen kazetaria Mayora bat izan zela uste dut, eibartar bat. Zergatik decalage hori? *Eginek* Kultura saila erdaldunen esku zegoelako seguru asko. Oso kazetari onak zeuden, baina euskaraz fitzik ez zekitenak.

82tik aurrera *Egin*en arreta informatiboa asko hazten da. Badazu gogoan prozesu hori nola eman zen? Zuzendaritzatik egindako apustu bat izan zen ala naturalki eman zen prozesua? Zerikusirik izan dezake bertsolaritzak bizi zuen berrikuntzarekin?

Pentsatzen dut bertsolaritzak ezagutu zuen berrikuntzarekin zerikusi zuzena izango zuela. Kontuan izan Xabier Amurizak Bizkaiko ordezkari izan egiten zuela edo egindakoa zela eta

sail finkoak zituen egunkarian, ‘Semaforo gorria’ horien artean. Txapelduna bera nominan edukitzea bada aski motibo gaiari beste tratamendu bat ematen hasteko. Baina ni neu Kultura sailean sartzeak ere izango du eraginik. Gogoan dut Amurizak lehen txapela atera zueneko kronika neuk egin nuela. Zuzendaritzatik bultzatu al zuten? Ordurako Mariano Ferrerek dimisioa aurkeztu eta Juan Ramon Martinezek hartua zuen zuzendaritza eta ez batak eta ez besteak zuten sentiberatasunik bertsolaritzarekiko.

Egin izan zen finalerako gehigarri berri bat eskaini zuen lehen egunkaria, 86an. Baduzu gogoan hura? Nolatan hartu zen erabakia, nola landu zen...

86rako Kulturako sailburu Jon Basterra zegoen, kazetari euskaldun eta euskaltzale bat. Beraz, harekin hitzartuko nituen gehigarri hori egiteko beharko nituen egunak. Gehigarriak egunkarietan ordu libreetan egiten ziren, gainera. Basterraren aurretik Juan Pedro Bator egon zen Kulturako arduradun. Erdalduna zen, nafarra, gero *Navarra Hoy* egunkariko zuzendari izan zen, baina oso kazetari ona zen, jakin-min handikoa. Oso lagunak ginen eta badakit ez nuela egungo arazorik izan nire lana egiteko. Normalean horrelako gehigarri bat egin behar zenean gutxi gorabeherako proiektu bat zirriboratu eta aurkeztu egiten zenuen eta onartu egiten zizuten. Finaleko eszena eta bertsoaldi batzuk ditut gogoan, baina gehigarriari buruzko zertzeladarik ez. Izenburuak izango zituen deigarriak, nireak halakoak zirelako. Gerora, gehigarrietan ez dut uste, baina kronikak egiteko kolaborazioak eskatzen hasi ginen. Baina horiek geroko kontuak direla uste dut.

Bazeneukaten Eginek bertso-kazetaritzan lidergoa hartu zuenaren kontzientziarik?

Bertso-kazetaritzan lidergoa hartu genuen kontzientziarik bat ere ez, baina bertsolaritzaren inguruan kazetaritza beste modu batera egiten genuela bagenekien. Oso sinplea da kontua: Estatu mailako egunkari batzuetan, *El Pais*en bereziki, ‘kazetaritza berria’ deitzen zitzaion moldea jarri zen indarrean. Guk debozio handiz irakurtzen genituen Rosa Montero eta abarren erreportaje, elkarrizketa eta zutabeak. Zutabegintza bera izugarri aldatu zen urte horietan eta erreportajetan ikuspuntu ezberdinak erabiltzen ikasi genuen, lekukoaren esanekin jokatzeko, testuak ireki eta aberasten. Ordura arte egindakoa monokordea iruditzen zitzaigun.

86ko gehigarrian bertan estilo berri baten zantzuak topa daitezke: ‘Euzkitze, zortzi-hamar silabetan pentsatzen duen mutila’, ‘Bertsolarien gorputzaren mintzoa’, ‘Bertsolaritzaren aurpegi femeninoak’... Baina 89ko gehigarrian nabarmenagoa da: ‘Lopategi West-eko heroea’, ‘Euzkitze, gramatikoko bertsoan’, ‘Murua, txapelketak haurra ekarri dion mutila’, ‘Mikel Mendizabal, barruko bakearen bila burrukan’... Finalista bakoitzaren elkarrizketa bere bikotekide edo amaren elkarrizketarekin osatzen delarik.

Bertsolariaren eremu pertsonalenerako sartu-irten horiek, bertsolariaren izaeraren erretratu hain garatuak, titular ezohikoa bilatzea (ingeleseko hitza barne)... ez ziren batere ohikoak ordurarte. 89ko gehigarri horretan kazetaritza ikuspegitik zer bait berria eskaini daitekeenaren kontzientzia, ezta?

Bai, bai. Horren kontzientzia oso garbia genuen, ez eguneroko lanean beharbada, baina bai igandetako gehigarriarako edo gisako gehigarrietarako lanean ari ginenean. Nik bertsolari bati elkarrizketa bat egiten nionean Oteizari edo Txillidari elkarrizketa bat egiteko erabiltzen nuen grina beretsua jartzen nuen. Gogoratzen dut Txillidari lehen elkarrizketa egin nionean bere Igeldoko etxean hartu ninduela eta hain harrigarria egin zitzaidala gizonaren jarduna, hain jakintsua iruditu zitzaidala eta aldi berean hain xumea eta gertukoa ‘Un sabio con Adidas’ izenburua jarri niola. Hiru hitzeko izenburuen zalea nintzen, lau hitz gehienez. Horregatik pixka bat arrotzak egiten zaizkit goiko izenburu horiek, Mikel Mendizabali jarri niona, esate baterako, baina badakit nireak zirela. Erreportajeen eta zeharkako elkarrizketen izenburuak

jartzen espezializatu nintzen, gustatu egiten zitzaidan eta gogoan dut norbait ezinean ikusten banuen, izenburua jartzen laguntzera joaten nintzaiola. Izenburuarena arte bat da.

Nola lortu genuen bertsolariaren bizimodu pertsonalean sartu-irtenak egiteko aukera? Uste dut haiek ere familiarizatuta zeudela 'kazetaritza berria' ren lan egiteko moduarekin eta lasai asko uzten zigutela eremu pertsonaleko galdera horiek egiten. Izaerari buruzko erretratuak? Erreportaje baten osagarri nagusienetako bat da lauzpabost lerrotako argazki horiek egitea.

Nola irekitzen da ate hori? Suposatzen dut bertsolariaren konplizitatea eta nolabaiteko bertsolaritzaren ulerkera berri bat ezinbestekoak izango zirela. Bide bat ibili izanak ekarri zuen berrikuntza aukera, ezta?

Uste dut bertsolaritza tratatzeko modu modernoago horrek bertsolaritzaren ulerkera berri batekin kointziditu zuela. Lehen aipatu duzun bezala, gehigarri baten bakoitzaren amarekin elkarrizketa labur bat egitea, ez zen posible izango hogeitaz hamar urte lehenago. Egin genuen garaian ez zen inolako arazorik izan.

Ezaugarri edo elementu berritzaile gehiago bururatzen zaizu? Adibidez, suposatzen dut testu horietan jasoko zirela lenengoz gerora klasiko bihurtuko ziren bertsolariaren autoanalisiak edo entrenamenduei buruzko xehetasunak.

Idazleengan, esate baterako, ohikoak ziren orduan eta baita Flauberten garaian ere autoanalisi horiek. Sorkuntzari buruzko gogoetak izaten dira gehienetan, bakoitzak trantzean jartzeko erabiltzen dituen zeremoniak, erritoak eta lantzen dituen maniak. Barne-mundu hori agertzen saiatuko ginen.

80ko hamarraldiaren erditik aurrera *El Diario Vasco* izango da *Egin*-en konpetentzia nagusia. Urte horietan hasten da Zavala egunkari horretan bertsolari zaharrak idazten jartzen eta Basarrik ere bazeukan bere zutabea. Testu horietaz zer iritzi duzu?

Gaur dudan ikuspegia orduan izan banu, mirespenez eta kariñoz irakurriko nituen Zavalaren edo Basarriren lanak. Orduan gure lan egiteko moduaren antitesi gisa ikusten nituen. Beren idazteko moldea oso zaharkitua iruditzen zitzaidan eta irudipena nuen iraganeko bertsolaritza moldearen babestoki bilakatu nahi zutela egunkari hori. Hain zuzen ere molde zaharreko bertsolariak izan ziren Zavalaren eskutik idazten hasi zirenak (...)

80 hamarkadaren bukaeran jende gazteagoaren sinadurak agertzen hasiko dira *El Diario Vascon*. Rufino Iraola eta Pello Esnal aditu gisa, Felix Ibargutxi gaiari jarraipena egingo dion kazetari gisa. Hauen bidez *El Diario Vasco* bertsolaritzaren parametro modernoetara ekartzen da, ezta? Zer iruditzen zaizu Iraola eta Esnalen ekarpena?

Bai, bai, erabat, baina egunkariaren testuingurua kontuan izan behar da. Ibargutxik gurearen antzeko ikuspegia zuen bertsolaritzaz, baina muga handiak zituen bere lanean; alde batetik egunkari hori Gipuzkoara mugatzen zelako eta txapelketa nagusi baten jarraipena egiteko eta areago beste lurraldetako txapelketena egiteko inolako intereserik ez zegoelako zuzendaritza aldetik, eta bestetik kolaborazioen orrialdeak (Lasarte, Txomin Garmendia, Nikolas Zendoia etab.) zahar kutsu bat zuelako edukien eta idazteko moldeengatik. Hala ere, Rufino Iraolak eta bereziki Pello Esnalek lan polita egin dutela esango nuke, aditu gisa noski.

Ibargutxi izan da zurekin batera lan hauetan ibilbide luzeena egin duen kazetaria. Nolako kazetaria iruditzen zaizu? Nola konpondu izan zarete? Lehia ala konplizitatea izan da zuen artekoa?

Kultura arloko prentsaurreko, aurkezpen eta ekitaldietan elkarrekin tokatu izan gara urte askoan. Lagunak izan gara. Berak eskuineko belarria du hondatuta eta nik ezkerrekoa eta

elkarren ondoan modu desegokian parejatuta esertzen ginenean lepoa luzatuta ibili behar izaten genuen belarri onaren bila ahopeka komentarioak egin ahal izateko. Ezagutzen ez gintuzten kazetariak harrিতuta eta intrigatuta edukitzen genituen gure maniobra horiek ikusita.

1990-2000 hamarkadak-Bertsolari

91ean ateratzen da *Bertsolari*. Kazetaritza ikuspegitik jada 89ko gehigarrian ageri den berritasun horretan sakontzea izan daiteke funtsezko ideietariko bat? Bertsolariak eta euren ingurua hobeto ezagutzea, bertsogintzaren beste aldean dagoena arakatzea...

Ez dut ezer berririk esango. 80ko hamarkadaren bigarren zatiko *boom*-aren ondorioetako bat izan zen aldizkaria. Telebista izango zen seguru asko olatu handi horren eragileetako bat, baina telebistak eta irratiak landu ezin zuten esparru batean sartu ginen gu: erreportaje eta elkarrizketa luzeen esparruan. Bertsolariek eurek esan ohi dute ez direla divoak, ez direla saioa bukatu ondoren kamerinoetan ezkutatu zaleak, baina inguruan dituzten lagunez gain oso bertsozale gutxik dute haiengana gerturatzeko aukera eta horretan saiatu zen hasieran bederen aldizkaria, gertutasun horren bila, beren eguneroko bizimodua, bere baitako kezka eta ametsak, ofizioari buruzko zertzeladak agertzen. Horregatik oso gutxitan ikusiko da lehen zenbakietan eta gero ere bertsolari bat kantuan, oro har prentsa idatzian aurreko hamarkadetan ia beti mikrofonoaren aurrean kantuan agertzen zirenean.

Zein zen Bertsolari Aldizkari berri harren errezeta? Ze gai mota ukitu nahi ziren? Ze tonu erabili? Ze proportzio batzuen eta besteen artean?

Aldizkari espezializatua dela entzun izan dut tarteka *Bertsolariri* buruz. Neuk ere esango nuen hori beharbada, baina aldizkari tematikoa dela esatea zuzenagoa dela uste dut, 'espezializatua'k konnotazio akademikoak baititu. Aldizkari tematikoa zen eta da, baina nire irudipena da gero eta espezializatuagoa dela, ikerketak eta gogoetak gero eta leku gehiago dutelako bere orrialdeetan. Zer errezeta? Aldizkari tematikoen arintasuna eta espezializatu sakontasuna konbinatzen saiatu ginela esan daiteke, pitin bat handinahia gelditzen bada ere, oso tonu ezberdinetako erreportaje eta elkarrizketak sartzen baikenituen. Bi genero horietan saiatu ginen gehienbat: erreportajea eta elkarrizketa.

Mañu bizarra mozten, Peña Uliako sorginarekin, bertsolari kuadrilla kulot eta guzti Tourmaleta igotzen... Bertsolarien inplikazioa haundia izan zen, ezta? Inplikazio hori *Eginen* egindako lanarekin lortutako konplizitatearen fruitu izango zen...

Ez dakit seguru. Uste dut bertsolari belaunaldi berezi samarra egokitu zitzaigula parean, irekia, esperientzia berriak probatu zalea, eta ez zutela asko xaxatu beharrik izaten aldizkariko azalean edozein egoeratan agertzeko. Geure aldetik batzuetan behartu ere egin genituen egoerak eta kontrakarrak ere jaso genituen, normala den bezala. Aldizkariaren gainean sektore batzuetan sentsazionalismoren mamua ikusi zen.

Elkarteak hasiera batean ez zion argi berderik eman proiektuari. Pasarteak esplikatuta dago jada, anekdota gisa, baina zein izan ziren zure ustez ezezko horren atzean egon ziren arrazoiak?

Bilera asko egin genituen ezezkoa jaso aurretik eta nik behintzat garbi daukat ez zegoela proiektuaren kontrako arrazoi sendorik. Elkarteak mila proiektu zituen une hartan esku artean eta ez zuen bai gehiago bere gain hartzeko gogorik. Ez hori bakarrik, gizarte segmento berari elkartearen zerbitzu zenbait eta boletinaren truke harpidetza bat eskatu behar zizkion eta jende bertsuari aldizkari bat eskaini nahi izatea beharbada gehiegizko zama izan zitekeela pentsatuko zuten edo saturazio ekar zezakeela pentsatuko zuten... ez dakit.

Zein dira lehen garai hartatik gehien asebate zintuzten lanak?

Zaila da esatea. Lazkao Txikiren azken argazkia gurea da. Biharamunean elkarrizketa bat egitekotan gelditu ginen eta ingresatu egin zuten eta oso denbora gutxian ale berezi bat prestatzeko gaitasuna izan genuen. Uliako Sorginari egin genion bisitatik oso oroitzapen onak ditut, bidenabar neuri ere etorkizun nahikoa oparota iragarri baitzidan. Uste dut emakume baikorregia zela. Zenbakirik bitxienetako bat ‘Bertsolariak mantalarekin’ izenekoa izan zen. ‘Amaren semeak’ izeneko erreportajea. Bitxia izan zen geroago Jose Martinez eta –Antton Olariagak elkarrekin egin zuten ‘Bertsolaritzaren historia berrogeiko txikian’ hura edo eta garai bertsuko ‘Bertsolariak eta gatazka politikoa’ izenekoa. Gauza bitxi asko egin genuen. Lehen zenbakiak izan zuen harrera, Durangoko Azokan egin genituen harpidetza mordoa, lehen urtean mila harpidetara iritsi izana... horiek dira gogoan gelditu zaizkidanak.

Argia Saria ere eman zioten aldizkariari lehen urte hartan. Baduzu gogoan nola arrazoitu zuten?

Aldizkaria atera eta urte berean eman ziguten Argia sari hori. Arrazoiak? Uste dut Josu Landak lehen zenbakia ikusi eta berehala deitu zigula zorionak emateko eta, esan dudana bezala, Landa ere *Argian* ibiliko zen orduan.

‘Hitzetik Hortzera’k, ‘Hitza Jolase’k eta Bertsoa.eus-ek bertsoaldien emisioa dute ardatz. Bertsoa omen da zaletuari gehien interesatzen zaiona. Aldizkarian elkarrizketak, erreportajeak eta iritzia dira oinarria. Zer dira bestelako lan hauek egiten duten ekarpena? Bertsoaz aparte eskaintzen denak zertarako balio du?

Zalantza handiak ditut zaleari gehien interesatzen zaiona bertsoa dela diozunean. Zalea mitomanoa izan ohi da eta bertsolariaren inguruko edozein zertzelada eskertu ohi du bertsoa bezain beste. Erreportajeen eta elkarrizketen helburua oso argia zen, bertsolariak zalearengana hurbiltzea edo, alderantziz, zalea bertsolariaren etxe barruraino eramatea. Horretan asmatu genuen. Bertsolaria, hala uste dut, Txirritaren garaian, sagardotegi eta tabernako pertsonaia zenean alegia, gertuago zegoen jendearengandik Basarriren garaian baino. Oholtzara igo ahala urrundu egin zen beharbada entzuleengandik eta horrek ekarri zuen agian figura horren sakralizazio edo jainkotze bat ere. Alproja izatetik norbait izatera pasatu zen beharbada, ez dakit, inprobisatzen ari naiz. Eta urrutiramendu hori gutxitzen saiatu ginen.

Bertsolariren batek komentatu izan dit bere gaiak (bertsogintzaz eta bertsolariaz) hitz egitea interesatzen zaiola, ez duela ‘pertsonaje’ bihurtzeko (bertsolariaren atzean dagoenaz hitz egiteko) inolako interesik. Arrazoizkoa iruditzen zaizu kritika?

Beharbada intimitatearen mugan ibili ginen, baina marrarik pasatu gabe. Dena den, prentsak ez ditu bertsolariak pertsonaia bilakatu, ez du horretarako indarrik. Bertsolariek eurek eraikitzen dituzte pertsonaiak, horrek bertsotarako joko ematen dielako. Artean eta literaturan mitoak ahulagoak izaten dira, baina ez dute izaten arazorik beren baitako bizitzaz, eguneroko bizimoduaz, dituzten maniez hitz egiteko. Ez dut uste hortik aurrera gehiegi pasatu ginetik.

Joxerrak testu batean dio *Bertsolari* funtsezkoa izan zela 90eko hasieran bertsolariak izar bihurtzeko. Egañak medioen estereotipazioak bertsolariari komunikaziorako plus bat ematen diola zaletuen artean... Pertsonajeaz hitz egiteak zer aportatzen du?

Ez dut uste Joxerrak dioena egia denik. Egañarena zuzenagoa iruditzen zait: komunikaziorako plusa erantsiko genien estereotipoei. Guk ez genuen Mañuren pertsonaia eraiki, berak ondo eraikita zuen saioen rankinean buru egon zen garaian. Guk, izatekotan ere, irudi hori zabaldu egin genion publiko zabalago bati.

Egaña eta Sarasuak idatzi izan dute hedabidetzearen belaunaldia izan dela euren, hori izan dela euren obsesioa, hedabideetan ateratzeko ia eskaintza denei baietz esan izan dietela. Hurrengo belaunaldietan, ordea, iruditu izan zait medioekiko jarrera zuhurragoa dela. Nabaritu izan duzu belaunaldi arteko ezberdintasun hau? Hala balitz, nola azalduko zenuke?

Erabatekoa izan da aldaketa hori, baina ez nuke horrela, bat batean, zergatik eman zen esaten asmatuko. Sarasua eta Egañaren belaunaldian sartu behar da Murua ere eta ekarpen teorikorik ekarriko ez zuten Lizaso, Peñagarikano eta beste hainbat, proiektio nazional garbi bat izan zuten bertsolariak. Jaialdi handien urteak izan ziren eta bertsolari horiek txapeladunen ligakoak izan zirela esango nuke. Ondoren formatu berriak etorri ziren, txapelketa lokalak, genero hibridoak. Bertsolariak espresio modu berriak esperimentatzen hasi ziren eta galdu egin zutela esango nuke aurreko belaunaldiak zuen onespenez zabal hura. Bigarren belaunaldi honek bertsolaritzaz nahikoa teorizatuta zegoela kontsideratu zuen beharbada eta euren bultzatutako proiektu jakin batzuen gainean hitz egiten zuten prentsan, gehienetan formatu hibridoak. Agerpen honek ez du ezertarako balio, salbuespen asko daudelako: Amets Arzallusek edo Iker Zubeldiak gehiago daukate aurreko belaunalditik hurrengotik baino. Baina oro har, publiko zabal baten pertzepzioa da bertsolari 'gazteagoak' artista bilakatu direla (...) Egañaren belaunaldiak bertsolaritzari eta bertsoari buruzko ikuspegi berri bat kaleratu behar zuen neurrian behar zituen hedabideak. Ondorengo belaunaldiak ez du horren beharrik sentitzen.

Aldizkariaren hasierako etapa horrek noiz arte iraun zuela esango zenuke? Eliteko bertsolari belaunaldi berriaren jarrera aldaketa horrekin izan dezake zerikusirik?

Seguru asko bai. Hala izan daiteke.

Zein izan dira zure ustez aldizkariaren indargune eta ahulune garrantzitsuenak?

Indargune nagusia azpiegituran, pertsonalean eta gainontzeko funtzionamendu gastuetan eraman duen jarrera ajustatua izan daiteke: presupostuaren zati nagusia aldizkariaren kalitate materialean inbertitu da eta hori irakurleak ikusi egiten du. Irudimen handiko kazetariak ibili ditu inguruan. Horrek eragin negatiboa izan du argitalpena bere orduan kaleratzeko orduan, baina inoiz ez da aspergarritasunean erori, beti jakin izan du sorpresatxoak ematen.

Ahulguneak mila: ez du asmatu harpidetzari behar bezala erantzuten eta ez du asmatu inguruan talde sendo samar bat antolatzen ere. Aldizkariak ez du, bestalde, komunitate bat osatu beharrik sentitu, nahikoa komunitate da berez bertsozaleen mundua eta horrek bakartzeko arriskuan jarri du etengabe. Elkartearrekiko lanakidetzaren oso inprobisatua izan da eta beste hainbat kontu.

1990-2000 hamarkadak Egin-Gara

| | <i>1993</i> | <i>1997</i> | <i>2001</i> | <i>2005</i> | <i>2009</i> | <i>2013</i> |
|-----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| <i>EGUNK/BE</i> | <i>39</i> | <i>43</i> | <i>45</i> | <i>64</i> | <i>47</i> | <i>51</i> |
| <i>EGIN/GAR</i> | <i>23</i> | <i>48</i> | <i>37</i> | <i>55</i> | <i>40</i> | <i>38</i> |
| <i>EDV</i> | <i>21</i> | <i>13</i> | <i>31</i> | <i>27</i> | <i>27</i> | <i>29</i> |
| <i>DEIA</i> | <i>19</i> | <i>12</i> | <i>13</i> | <i>20</i> | <i>28</i> | <i>13</i> |

90 hamarralditik aurrera Egunkaria/Berriak, lidertza eztabaidatuko dio Egin/Garari. Bi egunkarien arteko lehia oso polita da. Eredu ezberdinak eskaintzen dituzte: Egunkaria/Berriak egunkari euskalduna izanik egunkari osoan zehar dihardu txapelketaz. Iritzi sailean, testu gehiago ditu, kolaboratzaile denak euskaldunak eta asko bertsozaleak direlako, baina burtsako adituak ere bertsolaritza erabiliko du metafora gisa ekonomia sailean. Egin/Gara erdalduna da, gainerako sailetan ez dago bertsozaletasun handirik, eta egunkariak indar gehiena gehigarri berezietan jarritz, kazetaritza berrikuntzak eskainiz (goizeko eta arratsaldeko kronikak bereiztea, esaterako) eutsi nahiko dio bere posizioari.

Izan duzue inoiz Egunkaria/Berriarekin lehia sentsazio hori?

Lehia sentsazioa ez da bertsolaritzaren arloan bakarrik izan, euskarazko kulturaren jarraipenean oro har baizik. Kultura saileko arduradunen obsesioetako bat izan da.

Kuriosoa da Egunkaria/Berriak horrelako arreta eskaini arren urte hauetan guztietan Ibagutxi zeure gisako gairako kazetari erreferentzialik ez izatea. Apenas dagoen txapelketa artean errepikatzen den sinadurarik. Deian beste hainbeste. Zergatik izan daiteke? Zertan lagundu izan dizu zuri esperientziak?

Esperientziak laguntzen du, noski. Agenda on bat edukitzeak eta batez ere bertsolari askorekin adiskidetasun harreman bat izateak. Ibagutxi batek eta nik neuk harreman hori landu dugu. Lotura gehiegizko horrek baditu bere desabantailak bertso-saioen kritikak egiteko orduan ere.

Egin/Garan ze lankide izan dituzu bertsolaritzari buruz aritu direnak? Amagoia Mujikak hartu dizu erreleboa. Nola ikusten duzu bere lana? Egin/Garan edo hemendik kanpo ona edo deigarria suertatu zaizun sinadura edo kolaboratzailearen bat?

Garatik kanpo Beñat Zamalloa nabarmenduko nuke kronikak egiteko moduagatik eta baita kritikarako duen/zuen zorrotasunagatik. Amagoia Mujikari buruz bere zaletasuna eta are pasioa azpimarratuko nituzke. Gaia tratatzeko modu edo bertsolariengana hurbiltzeko modu nolabait esateko femeninoagoa bat ekarri zuen, hori esatea bera matxismokeria bat ez bada.

Gazteleraz idaztea ere tokatu zaizu dezentetan. Gustura egin izan duzu? Zein da nabaritu dituzun ezberdintasun eta zailtasun nabarmenenak?

Bertsolaritzari buruz oso gutxi idatzi nuen gazteleraz, baina gazteleraz idazteak beti eman izan dit atsegin handi bat, euskarak ez dituen baliabideak dituelako eta batez ere kronika, erreportajea eta elkarrizketarako moldeak finkatuagoak dituelako. Euskarazko kazetaritzak, dena den, sekulako aurrerapenak egin ditu azken urteotan eta molde horiek euskaraz ere finkatu egin dira. Gazteleraz gaiaz hitz egiteak abantaila gehiago ere baditu, gaztelerazko publikoak gaiaz gutxi dakienez, zerbait berria eskaintzen ari zaren sentipena ematen baitu (...) Bertsolaritzaz gazteleraz idazteko hiztegi kontu batzuk gorabehera ez dago inolako arazorik. Arazoa egotekotan bertsozale batzuen aldetik etor daitezke, nolabait euskal munduak eskusiban duen esparrua dela pentsatzen dutelako. Gogoratzen naiz Egañak lehen txapela jantzi zuen urtean *Eginen* lehen orriko berri nagusia izan zela. 'Egaña fue el mejor' titulatu nuen eta hogeit bat lerroko berria idatzi. Biharamunean kexuak izan genituen bertsozale batzuen aldetik bertsolaritzaz gazteleraz idazten hasi ginelako.

Zein dira urte hauetan lan egiteko moduan topatu dituzun aldaketa nabarmenenak?

Aldaketak handiak izan dira. 80ko hamarkadan txapelketako kronikak egiteko orduan bertsoen transkribaketa eskuz egiten genuen. Hala egiten nuen nik behintzat, gero erredakziora joan eta idazteko orduan ez zelako astirik egoten grabazioetan bila ibiltzeko. Horrek arrisku handiak zituen eta hanka-sartzeak ere egin izan genituen. Geroxeago hasi nintzen grabaketak egin eta

bilaketa errazteko bertso haisierak eta denborak apuntatzen. Xenpelar Dokumentazio Zentrua hasi zen ondoren, oso gerora, transkribaketa idatziak kazetariei pasatzen. Txapelketak komunikabideetan presentzia gehituz joan dira eta garai batean bizpahiru kazetari baldin baginen, orain dozena bat dira.

Lan egiteko moduan kazetari bakoitzak bere trikimailuak erabili ohi ditu. Badaude kronika bat saioa entzun ahala idazten joaten direnak. Ni neuk aldian aldiko komentarioak idatziz joaten nintzen. Erredakziora bidean asmatzen nuen gidoi moduko bat eta izenburua eta ordenagailuaren aurrean oso denbora gutxian idatzi behar izaten genuen orrialdea. Baina presakako lan hori beti gustatu izan zait.

Bertsozale Elkartean komunikazio alorraren profesionalizazioak ze aldaketa ekarri ditu?

Lehen aipatu dudan zerbitzu hori, transkribaketena, oso garrantzitsua da kazetariarentzat. Eta gainerakoan ere edozein kontsulta egin edo materiala eskatzeko aukerak ematen ditu.

Bertso-kazetariaren lana

Zer da zure ustez bertsolaritzari buruzko kazetari on bat bereizten duena?

Hori kazetari on batek erantzun beharko luke. Horretara jarrita, ez da nahikoa bertsozale amorratua izatea bertso kazetari on izateko. Lagundu egingo du, baina beste hainbat gairi buruz ondo idazten duen edozein kazetarik ikasiko du bertsolaritzaz idazten. Beste kontu bat bertso kritiko izateko zer behar den. Horretako zine kritika egiteko edo musika kritiko izateko bezala, ezagutza sakona behar da.

Pixkanaka geroz eta bertsolari gehiago dabil kazetari lanetan. Ze plus izan dezake bertsolari batek bertsolaritzari buruzko kazetaritza egiteko?

Terrenoaren ezagutzak ematen duen abantailaz aparte ez dut uste beste plusik emango dionik. Zutabegile ikusten ditut bertsolari asko eta hor bai suma daitekeela halako parekotasun bat, bertsoak bezalaxe zutabeak ere egitura jakin bat behar baitu, hasiera, bukaera eta betelana.

Bertsolaritzaren jarraipena egiten duen kazetaria sentitzen da bertso mugimenduaren parte? Badago militantzia elementu bat kontu guzti honetan?

Bai eta ez. Beti sentitu izan naiz bertsozale eta bertsolaritza maite nuenez, mugimenduaren parte sentitzen nintzen, baina kazetaritza ere maite nuen eta edozer gauza egiteko prest nengoen kronika eder bat egin ahal izateko. Bi pasio horien arteko oreka bat beharko da seguru asko ondo funtzionatu ahal izateko.

90 hamarkadatik aurrera ikusten da bertsolariak ikasi egin duela bere buruaz, bere prestakuntzaz, bere bertsokeraz, bere momentuaz hitz egiten. Izan dezake zerikusirik bertsolaritzak gogoetara eta autonanalisisirako erakutsitako prozesuarekin? Zein suertatu zaizkizu elkarrizketa batetarako bertsolari onenak?

Nire garaikoen artean Sarasua eta Egaña uste dut zirela jokorik gehien ematen zutenak, baina gogoan dut garai bateko Lizaso ere asko gustatzen zitzaidala, monosilaboekin erantzuten zuen Lizaso hura, kazetariak Sebastianen garunean sartu eta asmatzen ibili behar zuelako. Sebastianek burua beteta zuen. Gerora Lizasok ikasi egin zuen galderei dotore samar erantzuten. Norbaiten barruan sartu eta ezer ez aurkitzea da okerrena, baina bertsolari oso gutxirekin gertatzen zen hori. Zaharragoen artean Joxe Agirre izugarria iruditzen zitzaidan elkarrizketa baterako, Joxe Lizaso eta Imanol Lazkano zer esanik ez. Amurizak ere asko ematen zuen eta gazteagoen artean Jon Maia asko ematen dakien bertsolaria da.

Zein dira bertsolari batekin egindako elkarrizketa on baten osagaiak?

Bertsolariak bere bizitzari buruzko kontakizun ongi prestatu bat izateak asko laguntzen du. Tarteka pasadizo on batzuk sartzen baditu hobeto. Elkarrizketak beti behar du egungotasunarekin loturaren bat, dela txapel bat, ezbeharren bat, berriren bat, ematen zaion espazioa justifikatuko duena. Esparru publikoaren eta intimoaren arteko oreka batek ere laguntzen du eta hasteko eszena edo irudi bat behar dira eta bukatzeko beste bat.

Maialen Lujanbiok komentatu dit bertso-saioei buruzko kronika gehienek kasik berdina eskaintzen dutela joan diren urte mordo batean, aspergarriak suertatzen zaizkiola. Horrela dela iruditzen zaizu?

Guk egindako kronikak seguru aspergarriak izango zirela irakurle askorentzat. Zer esanik ez saioan kantatu duen bertsolari batentzat. Kronika horiek, bestalde, futbol partidetak kronikak bezala, saioan entzuten egon diren irakurleentzat idazten dira, biharamunean bizi izan zituzten bizipenak berritzeko edo. Horiek izan ohi dira irakurle finenak eta horiei begira idatzi ohi dira kronikak eta zeharka bakarrik informazioa bila doan irakurlearentzat. Normala da, beraz, Lujanbiori ezer ez aportatzea.

Zein dira bertso kronika on baten osagaiak? Puntuazioei begiratuta idatzi behar da edo begiratu gabe? Norberak jaso duen sentimendua sentimendu orokorra ote den izango da kezketariko bat...

Saio baten kronika egin nahi duenak hautaketa bat egitetik hasi behar du, ezin da kronika txukun bat idatzi bertsoaldiz bertsoaldi kontaketa bat eginez. Saioko protagonista bat edo bi aukeratu behar dira, saioko alderdi deigarri batzuk eta haien inguruan egin behar da kontaketa, kolore pixaka bat izan dezan. Saioko alderdi batzuk nabarmentzen jakitea da gakoa. Kronika guztietan bezala, ikuspegi eta plano aldaketak, publikoari buruzko zertzeladak... tartekatu behar dira. Baina gauza horiek modu intuitiboan egiten dira edo praktikaren poderioz ikasi.

Bertsolaritzari buruzko kazetaritzaren inguruko gogoetetan urte askoan mantra bat bezala errepikatu izan den kontu bat fundamentuzko bertso kritika baten gabeziarena da. Zergatik eman izan da gabezia hau zure ustez?

Euskal literatura kritikak duen arazo bertsua dauka bertso kritikak. Zine kritikari batek Asiako zinegile baten azken lanaren aurka sekulakoak idatzi ondoren lasai atera daiteke ostiral iluntzean gaupasa egitera. Literatura kritika egiten duenak eta bertso kritika egiten duenak berdin kalean aurki dezake kritikatu duena. Bestalde, bertso kritika nolabait deitzeko akademikoak ez du tradizioarik gure artean eta gure artean kolaborazioak nola ordaintzen diren ikusita, ez dakit zein anima daitekeen ahalegin izugarri eta esker txarreko hori egitera.

Eskutik egindako bide bat

XIX. mendearen lehen erdian topatu ditut prentsan bertsolaritza jorratzen zuten prentsako hainbat testu, eta zaharrenak euskaraz prentsan argitaratu zen lehen testua baino goiztiarragoak dira. Historiako lehen euskal irratsaiora ere Zubimendi eta Arzellusek 1930eko hamarraldian bertsolariak eraman ohi zituzten. Frankismoan euskal kazetaritzak izan zituen lehen plazetan, Herri Irratietan bertsolaritza gai izar bihurtu zen. ‘Hitzetik Hortzera’ ere ETBko programa arrakastatsuen bihurtu zen estreinatu eta gutxira...

Nola esplikatuko zenuke bertsolaritza euskal hedabideetan aldiro lortzen duen presentzia garrantzitsu hori?

Gure hizkuntzan ahozko kulturak izan duen eta duen pisua izan daiteke esplikazioaren zati bat, euskal kultura agrafoa izateak eman dezake pista bat, baina egon daitezke arrazoi gehiago ere.

Euskal kultur sisteman beti nolabaiteko zentraltasun bat izan duen elementua da, ezta?

Hala dirudi eta hori ulertzeko arrazoi gehiago ere aipa daitezke: bertsoa norgehiagoka da eta herri kulturaren sekulako garrantzia du erronkak eta apustuak. Bertsoa inprobisazioa da eta ikuslearen edo entzulearen bihotza kilikatzen duen ariketa da hori. Bertsoa biren arteko kontua da eta horrek badu zerikusirik antzerkiarekin ere, elkarrizketa den neurrian. Badirudi garatu ez genituen beste kultura adierazpideen ordezkero edo dela gurean bertsoa. Eta gezurra badirudi ere, hain adierazpen kultural zaharra izanik, egungo gustuetara egoki moldatzen da.

Ze azalpen izan dezake gisako fenomenok euren herrialdeetan dutena baina askoz ere presentzia handiagoa izateak gurean?

Transmisioa eten den lekuetan desagertuko ziren seguru asko antzeko fenomenoak. Hemen transmisioa segurtatzea lortu da, baina irudika genezake bertsolaritza hondamendira eramango zuen eszenatoki bat ere: ez dut oso zaila ikusten ariketa hori eta oso argigarria izango zatekeen.

Duela mende eskas herri-kultura aurremodernoen praktika bat izatetik modernitatean sartu, eta masa kulturaren sartu irtenak egitera pasa da bertsolaritza.

Harrigarria, ia-ia mirari bat, herri kulturaren beste hainbat adierazpen bidean galdu direnean.

Hedabidetzeak berak zein puntutarainoko garrantzia izan du bertsolaritzaren garapen honetan guztian? Bertsolaritzaren garapena, instituzionalizazioa eta hedabidetzea, beti elkarrengandik oso gertu ibili izan direla esango nuke... Nola ikusten duzu zuk?

Instituzionalizazioak eta hedabidetzeak ekarri du bertsolaritza gaur eguneraino, baina kontrako ariketa ere egitea ez dago gaizki, bidean zer galdu duen galdetzea alegia. Adierazpide kultural bazterreko, irreberente eta trakets izatetik kultu samar, garbi eta errespetagarri bilakatu da eta hor galera ikustea ez dago gaizki, justizia pixka bat egiteko.

Azken hamarkadetako arreta mediatikoaren eklosioan mugimenduaren estrategiak izan dezake zerikusirik. Zertan asmatu du alor honetan Elkarteak zeure ustez?

Elkartearen merituak asko dira: lan boluntarioa eta profesionala elkartzeak sekulako indarra eman dio helburuak lortzeko orduan: transmisioa aipatu dugu lehen, hedabidetzea gero, txapelketen antolaketa gaurkotuago bat... Gizarteari, bertsozaleei partaidetza bat eskaini die lan egiteko eta oinarria zabaltzen jakin dute.

V.II NIKOLAS ALDAI. HONDARRIBIA, 2017/IX/26

Kazetaria. Alor honetan azken hamarkadetan irratian erreferentziala den Euskadi Irratiko 'Eta Hitza Jolas bihurtu zen' ('Hitza jolas' 2006tik) programaren sortzaile eta lehen gidaria. Euskadi Irratiak daukan bertsoen grabazio zaharren artxiboa, gisa honetako garrantzitsuena, berak antolatu zuen, lan ikusgarria eginez. Aurretik Loiolako Herri Irratian ere bertsoaren inguruan hainbat kazetaritza lan egindakoa.

Hastapenak Donostiako Herri Irratian

Nola sartu zinen irrati munduan?

Donostiako Herri Irratian sartu nintzen soldaduskan nengoela. Orduan aukera izan nuen eta euskarazko programazioan hasi nintzen 1970/71 urteetan.

Zein lan egin zenuen bertan?

Deitu eta esan zidaten musika aurkezten hasi behar nuela. *Arratsalde on* zen programaren izena eta musika aurkeztea besterik ez zen. Era guztietako musika aurkezten egin nuen debuta. Geroago goizetan euskal kantuen aurkezpentxo bat ere egiten nuen; 15 minutuko tartetxo izaten zen. Horretaz gain, 'Musika Sareetan' arrantzaleei eskainitako programa bat ere egin nuen, euskaraz galegoz eta gazteleraz egiten genuena. Euskarazko zatia nik egiten nuen. Itsasgizonei beraien senitartekoek kanturen bat eskaini nahi bazieten edo zoriondu nahi bazituzten, hala egiten genuen. Hor testua egiten nuen.

Kontuan hartu behar da frankismo garaia zirela eta ez zegoen informatzerik. Informazioaren eskusiba estatalak zuen eta oso kontrolatua zegoen, baina behintzat uzten zuten "notas locales" lantzeko aukera. Holakoetan ere parte hartu nuen (...) Asteburuetan 'Euskal Jai' programa egiten hasi nintzen aurrerago (...) onartuak zeuden kantuak oso gutxi ziren; ez dakit 100era iristen ziren. Indizeak zeudenak, debekaturikoak, 700 inguru ziren. Nik beti adibide esanguratsua jartzen dut: *Nere aitak amari gona gorria ekarri ezin zen emititu. Zergatik? Bigarren bueltan gona gorri gorria zazpi jostunek josia* esaten zelako eta ezin zen emititu, *zazpi jostun horiek zazpi probintziak zirela* esaten zutelako. *Gaur gabon*, gabon gaiari buruzkoa ere ezin zen emititu.

Zertara behartzen ninduen horrek? Jaialdi asko antolatzen zen garai hartan, ikastolen sorrera garaia zen-eta (...) Jaialdi haietara joan eta grabazio txarrak egiten nituen; txarrak, izan ere, zuzeneko grabazioak egitea mikrofono bakarrarekin ia ezinezkoa zelako (...) Bertsolariak ere izaten ziren jaialdi haietan eta horrela hasi nintzen bertsolariak grabatu eta emititzen.

Ze urteetako da hau guztia?

Hori 1970. urtean, lehen urtean jarri nuen hura guztia martxan. Han kantariekin eta bertsolariekin elkarrizketak egiten nituen baita ere. Hortik pasa ziren, gogoan ditut Imanol Lazkano, Lizaso, Joxe Aierbe... garai hartan plazan zebiltzan bertsolari guzti horiek pasa ziren.

Eta han hasi nintzen bertso bildumatxo bat egiten eta uste dut dezente bilduma egin nuela; pena haundiarekin esan behar dut nik alde egin eta programazio buruak denak botatzeko agindua eman zuela, Uztapideri egindako elkarrizketa bat salbu. Elkarrizketa oso laburra zen eta ez zen beste mundukoa, baina tira (...) Zuzeneko saiorik ez dut gogoan. Gero Loiolako Herri Irratiak lehenagotik martxan jarrita zuen bertso sariketa bi irratietatik eman zen eta uste dut zuzeneko behin edo bitan emango zela (...) Gotzaiarena zen Donostiako Herri Irratia eta uste

dut 71-72 inguru hartan Jesuitek erosi zutela eta tira, biak elkartu ziren. Bakoitzak bere programazioa egiten zuen eta beste batzuetan biak elkarrekin.

Nere Herri Irratiko ibilbidea 73-74ra arte luzatu zen. Bertsolaritza lantzen nuen, baina ez programa batean, 'Euskal Jai' barruan izen berezirik gabe emitzen zen atal batean baizik (...)

Grabazio zaharrenak eta grabatzaileak

Zein dira irratiko entzule gisa bertsolaritzaz dituzun lehen oroitzapenak?

Oroitzen naiz, nik hamaika edo hamabi urte nituela, 60ko bueltan 1960, 61, 62... Baionatik -ez galdetu zein irratiko- igande goizetan 8:30-9:00ak inguruan bazegoela labur-laburra zen tarte bat, bost-hamar minutukoa. Nire etxean beti izan gara oso bertsozaleak eta behin txiripaz harrapatu zutelarik igandero aitak, arrebak edo amak jartzen zuen. Mattin han entzun nuen lehen aldiz, bere ahotsarekin.

Nire etxean jarraitzen zen Basarriren saioa ere, La Voz de Guipúzcoa-n. Basarri saiatzen zen bere emanaldietan berak jarritako bertsoak edo besteren batenak kantatzen. Xenpelar eta Txirritarenak Basarrirentzako entzun nizkion lehen aldiz...

Bertso zaharrak eta berriak sartzen zituen izandako berriaren harira: aizkolari apustua bazen, aintzinako apustu bati jarri izan zitzaizkion bertsoak, adibidez. Informazioaren amaierako 'broche' modura erabiltzen zuen bertsoa.

Nere bordatxotik uste dut deitzen zela Basarriren zutabea. Programa berean han ziren Etxebeste - Gorka Etxebesteren aita-, Zurutuza albaitaria -Azpeitikoa- eta beste albaitari bat - Oñatibia, Jon Oñatibiaren anaia- María Dolores Agirre eta Fernando Artola "Bordari". Nekazal munduari zuzendutako albistegi moduko bat zen. Oroitzen dudana hori da.

Eta irratian lanean aritu zarenean esku artera iritsi zaizkizun grabazio zaharrenak?

Segura irratiko sortzaile eta buru zen apaiza Don Cesareo zeritzan. Berak 1959an egindako grabazio bat iritsi zitzaidan Jesus Lete *Ibai-Ertzen* bitartez. Ordizian 1959an jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Berrien Lehen Txapelketako bertsoak jasotzen ziren bertan. Lehen saria Txomin Garmendiak eraman zuen; bigarren, Lazkao Txiki gelditu zen. Hogei bat bertsolarik edo, hartu zuten parte (...) Oso egoera txarrean aurkitzen zen jatorrizkoa eta egin genuena izan zen ahalik eta kopia txukunena atera eta Ibaiertzi itzuli.

Zintatik jasotako zaharrena hori izango da, baina badaude beste batzuk zaharragoak, Alan Lomaxek jasotakoak. Folklore biltzaile amerikar bat zen eta pare bat urtetan uda partean Euskal Herrira etorri zen. Hainbat grabaketa egin zituen eta horien artean badago bakarren bat 47koa edo ingurukoa, 50aren mugakoa. Bilduma ikaragarria egin zuen, eta semeak digitalizatu eta CD modura atera zituen gerora (...) Tartean bertsolariak ere entzun daitezke, Uztapide bere aitagarreba Krisostomo Iturainekin bertsotan... Basarri ere badago jaso eta Jose Migel Eskudero... Eta Mattin eta Meltxorren saio bat 1947an Donibane Garazin grabaturikoa...

Zubimendik gerra aurretik egin zuen euskarazko lehen irratsaioaren arrastorik?

Entzuna daukat Basarriko bertsoak abesten zituela, Kalongek ere bai, eta Uztapidek, Donostia inguruan ibiltzen zelako... Esango nuke garai hartan ez zela grabaziorik egiten, dena zuzenean emititzea izaten zela.

Horren ondoren lehorte izugarria. Lomaxen bilduma etorri zen, gero Basarriren irratsaioa...

Ohikoagoa izango da 1960-1970 hamarkadetako materiala.

Gipuzkoako finala eman zuten zuzenean Donostiako Herri Irratiak, Loiolakoak, Arratek eta Segurak bat eginda. Hura 62-63 inguruan izango zen. Horren grabazioa badago.

Garai hartan iritsi zen magnetofonia Euskal Herrira, Telefunkien handiak, maleta moduko bat. Zavalak kontatzen duenez Pello Errotaren alabari honen bizitzaz egin zion elkarrizketa luzea horrelako batekin grabatu zuen. Handik gutxira magnetofoni txikiak hasi ziren, UER alemanak, estereoan grabatzen zuenak, baina luxu bat ziren, irriti estatalek bakarrik erabiltzen zutena. Besteok sistema zaharrarekin moldatzen ginen.

Hainbat grabatzaile ibili zen urte haietan bertsoaren inguruan. *Ibarrako Beltza* esaten zioten bat, uste dut taxista zela Ibarra, hark bilduma bat zeukan. Bertsolaritza soziala esaten zaiona, Azpillaga eta Lopategik herriz herri egindakoa... grabatuta zeuzkan. Ni ahalegindu nintzen ekar zitzan, gestioaren bat egin nuen kopiatzeko, itzuliko niola, baina ez zuen nahi izan.

Amezketan eta Alkizan erretore egondako Jose Agirre apaiz bertsolariak ere bazituen grabazio batzuk. Grabaketa horietan apaiza bera entzun daiteke Kaxiano itsuarekin, Txomin Garmendiarekin, Patxi Etxeberriarekin bertsotan herriko jaietako otordu ondorenetan...

Gero, Zavalaz beste, kontutan hartzekoa da Martin Iburguren egindako bildumatxoa ere. Soralezkoa zen Larraga bat ere bazen grabatzen ibiltzen zena...

Patxi Mujika aipatzen da asko.

Bai, bai, Euskadi Irratiko artxiboaren grabazio zaharrenen iturri nagusia Mujikarenak dira. Aldian behin bi bobina ekartzen zizkigun diru-truk... askotan oso kalitate txarrekoak. Beste askotan bere komentarioak entzun zitezkeen bertsoaren gainetik: "eskua atzera eraman du", "txapelari heldu dio"... Berak pentsatzen zuen bertsolaritza galdu egingo zela eta berak fenomenoaren altxor gisa jaso nahi zuen bere komentarioekin dokumentu etnografikoa osotuz. Ez zen konturatzen zer desastre zen hori emititzeko garaian. Edozein kasutan oso material interesgarria pasatu zigun, eta beste hainbeste bidean galdu zen: erdia bakarrik pasa zigula esan eta gutxira hil zen eta beste erdi hori ezin izan zen lokalizatu.

Euskadi Irratia

Euskadi Irratian nola sartu zinen? Noiz? Zertara?

EITB entea sortu baino 6 hilabete lehenago. Horregatik, lehendabiziko nominak kulturatik kobratzen genituen, 82an. Entea 83ko otsailean sortu zen.

Lehen bi urteak informatibo lokalak lantzen egin nituen eta gero 'Goiz Giroan' magazina egitera pasa nintzen, Beloki eta Arantxa Irastorzarekin batera.

86an ardura eman zizuten bertsolaritzaren arloan.

86an jende berritze bat eman zen, Otamendi, Arantxa Iturbe... haiek goizeko magazina hartu zuten. Orduan eman zidaten bertsolaritzaren ardura.

Joxe Mari Oterminek 83an abiarazia zuen Euskal Perlak saioa, Patxi Mujikaren grabazioetan oinarritua. Bera zen arduraduna eta ondoren aditu gisa balorazio bat egiten zuen Joxe Mari Aranaldek. Bere iritzia ematen zuen emititzen ziren bertso horietaz, bertsoa ematen hasi aurretik. Saioaren aurkezpena Oterminek eta hitza gero Aranaldek, zetozen bertsoak aurkeztu, gaia, balorea eta abar eta bere analisisa egiten zuen labor-labor.

Nik jarraipena eman nion saio honi eta 10:00etatik 11:00etara emititzen zen igande eta jai egunetan. Eta programa berri bat ere jarri nuen martxan 'Iturri Onetik Bertsotan' izenekoa. Zaldubi hasita zegoen ordurako bertsoak grabatzen, eta hark jasotakoei nik jasotakoak batuta azken asteko bertso-saioen berri ematen nuen. Uste dut asteazkenetan gaueko bederatzietan hasi nintzela, baina hurrengo urtean ostiraletara pasa zuten...

Eta geroxeago beste tartetxo bat ere jarri nuen martxan: 'Lehengoak Gogoratzuz'. Hamar minutuko tarte bat zen, bertso zaharrei buruzkoa. Hemen grabazioak beharrean liburuak hartzen nituen oinarritzat, herri memorian geldituriko bertsoak jasotzen zituzten liburuak, eta norbait ezberdina eraman ohi nuen saioko haiek kantatzera, askotan bertsolari gazteak. Hor dezente atzera joaten nintzen eta XVIII nahiz XIX. mendeko bertsolaritza dezente arakatu nuen. Oso luze iraun zuen azken honek.

1980ko bigarren erdi horretan, zureez gain zer gehiago eskaintzen zuen Euskadi Irratiak bertsolaritzaren inguruan?

Joxerra Garzia eta Pello Zabaletak *Sorginen Afaria* izeneko eguneroko programa bat zuten, ostiraletan bertsolaritzari buruzko programa bihurtzen zena *Bertso Afaria* izenarekin. Antton Haranburu ere ibili zen zerbait...

Txapelketak eskainiko zenituzten...

1986ko txapelketaren jarraipenean esango nuke bai hartu nuela parte, baina ez askorik. Ardura nagusia Joxerrak eta Pellok izan zuten.

1989koan finala eskaini genuen zuzenean goiz eta arratsalde eta hor bai ibili nintzen gidari. Pello Esnal eta Abel Muniategi izan nituen aditu gisa eta bazkalondoko tertulian Mixel Lekuonak, Juan Mari Lekuonak, Pello Esnalek eta Jon Sarasuak ere hartu zuten parte. Santi jatetxean bazkaldu genuen eta bertatik egin genuen tertulia hori.

'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen'

'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' programa kanoniko bihurtu zen 1990eko hamarraldian.

Hasi zenean nire helburua zen erabateko tratamendu integrala egitea bertsolaritzari. Zer esan nahi dut horrekin? Alde batetik ikuspegi historikoa lantzea, bestetik egunerokotasun garaikideari garrantzia ematea eta azkenik entzuleei partaidetza bat eskaintzea.

Agenda azaltzen zen, elkarrizketatuak ekartzen ziren estudioa eta entzuleen parte hartzerako tarte zatorren ondoren. Honela, bertsotarako ariketa bat jar zitekeen, adibidez, bertsolari elkarrizketatuari galdetuz bera puntu emanda edo lau oinak emanda nahiago zuen, 'Ba nik nahiago lau oinak emanda'; eskatu hari lau oinak eta telefonoa ireki jendeak bere bertsoa bota zezan. Edo lehiaketa bat egin zitekeen bertsolaritzaren historiari buruzko galderekin....

Gero aurreko astean izandako saioetako bertso hautatuak ere eskaintzen ziren.

Kolaboratzaile finkorik izan zenuen?

Ez. Kolaboratzaileak izateko dirua ordaindu behar zen eta nire saioak ez zuen sekula aurrekonturik izan. Bakarrik txapelketetan. Orduan bai, kolaboratzaileak izaten nituen, ordaintzen zitzairen eta hortaz baliatzen nintzen.

Egon zen jendea hainbat astez laguntzera etorri izan zena ere. Lehen aipatu dudana bezala 'Lehengoak Gogoratzuz'ek luze iraun zuen eta 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' en barruan ere txertaturiko atal gisa jarraitu zuen hainbat urtetan. Atal honetarako Dorronsoro etorri izan zen programa askotan bertso zaharrak kantatu eta erabilitako doinuari buruz azalpenak ematera.

Badago bereziki zapore ona utzi zizun saiorik?

Bai, tira. Lazkao Txikiri omenaldi bat egin genion 98an hil eta bost urtera. Lazkaomendiko soziedadetik zuzeneko emanaldia egin genuen, bi orduko saioa: Murua, Gorrotxategi, Iraola eta Mendizabal, esango nuke zirela bertsotan. Manuel Lasarte ere eraman genuen, 1986tik erretiratu zegoena, baina Lazkao-Txiriki berak jarritako bertso batzuk abestu zituen eta honen pasarte batzuk kontatu ere bai. Aurretik entzuleei Lazkaomendikoari buruzko bertsoak bidaltzeko eskatu genien eta hiru onenak aukeratu eta haiek ere abestu genituen, oso bertso politak. Eta Lazkao-Txikiren beraren ahotsa ere sartu genuen, Patxi Mujikak grabatu zizkion txiste eta pasadizo batzuk. Oso ederra gelditu zen.

Ba al duzu gogoan zuzeneko beste saio bereziren bat?

Bai, hain zuzen Lazkao-Txikiri 65 urte bete zituenean Beasainen egin zioten omenaldia zuzenean eskaini genuen... Beste bat Arratsain sagardotegitik egin genuen. Arratsain dago... begira, handik jaurtitako kainoi balarekin zauritu zuten Bilintx. Muñoa bertsolariak ireki berria zuen sagardotegia, eta bertan saio oso polita egin genuen bertsolarietako bazkaria ordainduta.

Artxibatze lana ere erruz egin beharko zenuen, Euskaldi Irratiak bilduta zeukan guztia gero modu eroso batean manejar ahal izateko.

Ni bertsolaritza zentratzen hasi nintzenean sekulako kaset piloarekin egin nuen topo, Patxi Mujikarenak edo Zaldubirenak, gehienak. Ehundaka ziren. Batzuetan data, tokia eta bertsolarien izena jartzen zuen baina beste batzuetan hori ere ez.

Dena entzun eta datu base bat osatzen hasi nintzen, gauzak aurkitu nahiz emititzeko erraztasunak emango zituen sistema bat antolatu nahian. Eta digitala etorri zenean dena digitalera pasa nuen, sistema dezente hobetuz. Honela erretiratu nintzenerako datu baseak aukera ematen zuen bilaketa kronologikoki egiteko, tokiaren arabera, bertsolariaren arabera, aurkezlearen arabera eta abar.

Gustura gelditu nintzen egindako lanarekin. Altxor haundi bat dago hor, oso erabilgarri, baita ikerketarako ere.

V.III XABIER AMURIZA. BERRIZ, 2017/VIII/02

Bertsolaria. Bi aldiz Euskal Herriko txapelkun (1980 eta 1982), bertsolaritzaren berritzailea eta ekarpen garrantzitsuak argitaraturikoa. Hedabideetako kolaboratzaile gisa ibilbide luzea izan du, nagusiki 'Egin' eta 'Gara' egunkarietan.

Basarriren belaunaldia-bertsolaritza soziala

Zein dira bertsolaritzarekin izandako lehen hartu emanak? Bertsolaritzari jarraipena egiteko hedabideren bat baliatzen zenuten?

Nire bertsoarekiko arreta hamazazpi edo hemezortzi urte nituela hasiko zen, 1958an Euskaltzaindiak antolatu zuen Bizkaiko lehen txapelketarekin. Ni ikaslea nintzen artean eta saioetara joaten nintzen. Niretzako hori mundu zoragarria zen, frankismoaren itomenetik ateratzeko modu bat. Aurretik etxean asko entzundakoa nintzen, aita sasi-bertsolaria baitzen kopla nahiz bertso asko buruz zekizkiena eta askotan abesten zituen, baina txapelketarekin beste kontzientzia bat hartu nuen. Gogoan daukat 1960an Xenpelar eta Txirritaren bertsoak jasotzen zituen liburu bat argitaratu zuela Euskaltzaindiak eta Bilboko Verdes liburu-dendan erosi ondoren buruz ikasi nuela.

Hedabideetatik asko jaso izanaren kontzientziarik ez daukat. Aranzazun aterako zen zerbait, edo Euskaltzaindiaren Euskara aldizkarian, baina niri ez zitzaizkidan iritsi. Seminarioan ez genuen egunkaririk jarraitzen eta ezta Irratirik ere...

Torrealdak azaltzen du gerraosteko bertsolaritza, oso maila apaleko kultur adierazpen gisa ulertzen zutenez, erraz toleratu ahal izan zuela Frankismoak, 1960ko bertsolaritza soziala iritsi arte. 1949an *La Voz de España* frankista bertso txapelketa bat antolatzen ari zen Basarriren eskutik.

Frankismoan gerra ondoan egongo zen beharbada mututasun bat baina ondoren euskaldun formalaren bertsolaritza egiten da, agintariekin errespetu osoan. Agintariak agurtzen ziren eta apaizak ere bai. Beraz, bai, maila horretan mugitu zen bitartean erraz onartu zuten.

Gainera, Basarrik bideratu zuen bertsolaritza erlijiotik gertu zebilen, erabat moralista zen. Bertsotan oso ona zen, baina bere diskurtsoa predikatzaile batena zen eta eragina izan zuen, irratian asko agertzen zelako eta irratia baserri guztietara iritsi zelako. Alde horretatik sekulako prestigioa eman zion bertsolaritzari baina prestigio katoliko, apostoliko eta erromatarra.

Suposatzen du garaira egokitu behar bat ere egon daitekeela guzti horren atzean. Sekulako kontrastea dago gerra garaian Gernikako bondardaketari buruz idatzi zuen bertso sorta eta gerra ostean idazten zituen hainbat artikuluren artean.

Txapelketak hasi zirenerako Lopategi eta Azpillaga beste gauza batzuk esaten ari ziren eta jendeak ere beste zerbait entzun nahi zuen.

Orduan hasi ziren debekuak eta isunak.

Fenomeno osoa debekatzera ez ziren ausartzen, oro har bertsolaritza ez zelako konprometitua. Bestalde, ez zen bat ere erraza harrapatzen. Ez zeukaten jende prestaturik, grabatzen zituzten saioak baina kuartelera eraman eta ez zekiten zer egin grabazio horiekin. Txibato jakin batzuren lana zela medio isun batzuk jarri zituzten baina fundamentuzko salaketa bat egiteko bitartekorik ez zeukaten.

Gogoratzen duzu kasu konkreturik?

Azpillagak eta Lopategik izan zituzten isunak eta epe jakin batean kantatzeko debekuak. Isuna ordaindu ez zuelako kartzelan ere egin zituen egun batzuk Lopategik 'arresto sustitutorio' deritzona betetzen.

Neuri ere gertatu zitzaidan Izurtzako ermita batean Santa Agedan, Abel Enbeita eta biok kantuan, ni gazte-gaztea sotanarekin, eta dantzariak ikurrina atera zutelako Goardia Zibila agertu eta arrapaladan handik ihesi joan beharra.

Bertsolaritzaren ikuspegi borrokalariago horrek zer oihartzun zuen prentsan?

Egunkarietan batzuetan kontra hitz egiten zen. Baina nahikoa prentsa ona zeukan oro har bertsolaritzak. *El Correon* Munitibar dalako batek dezentetan aipatzen zuen gaia, eta alde beti. Nik apaiz nintzela saio bakarra egin nuen Gipuzkoan, 1967an izango zen, Aizarnan balkoitik balkoira Agirre izena zuen beste apaiz baten kontra, eta hura ere atera zen *Zeruko Argian*...

Nolakoak izan ziren lehen harremanak bertsolaritzaren eragiletzan zebilen aurreko belaunaldiarekin?

Epaimahaiko izateko deitu ninduten apaiztu berritan 1966ko Bizkaikoan. Orduan jarri nintzen harremanetan Euskaltzaindian bertsoaren bueltan zebilen jendearekin: Juan San Martin, Alfontso Irigoien bera, aita Martzel, Arrue ere orduan ezagutu nuen, Bordari ere bai, Itzaina eta beste hainbat.

Arruerekin tratu gutxi izan nuen. San Martin eta Irigoien iruditu zitzaizkidan interesgarrienak. Bizkaikoan Alfontso antolakuntzan laguntzen ere ibili nintzen zerbait.

Eta Aresti. Aresti bera ere asko ibili zen saioak antolatzen eta entzuten. Kronikak idazten ere bai. Nik beti erreibindikatu izan dut Arestik bertsolaritzaren alde egin zuen lana. Bertsolari gisa ere garrantzitsua izan zen; plazan ez zuen kantatzen, baina bertso asko idatzi zuen.

Bigarren Pizkundea eta 1980 hamarraldiko ekarpenak

Bertsolaritzak ze puntutaraino hartu zuen parte 1960-70 hamarkadetako Bigarren Euskal Pizkundera? Ze harreman zenuten garaiko euskal kantagintza berriarekin?

Nire debutean bertan sei bertsolari izan ginen Gernikako Jai Alai frontoian eta gurekin Oskorri. Bi mila lagun bildu ziren. 1966an izan zen hori. Eta bakarkakoan kantatu nituen bertsoak gero Oskorrik erabili zituen 'Huelgan daude' kantuan. Eta kartzelatik atera eta gero ere, ni kantuan hasi nintzenean askotan izaten ziren kantariak eta bertsolariak

Ez Dok Amairuk talde gisa aktuatzen zuenean ez zen bertsolaririk izaten, baina bertako partaideak bakarka ari zirenean bai. Esango nuke sintonia bat eman zela, kontzientzia mailakoa mugimendu hau eta zenbait bertsolariren artean. Lopategi eta Abel Muniategik esaterako oso kontzientzia politiko argia zuten. Neuk ere gertukoa nuen hori guztia: nire meza berrirako Lopategi eta Azpillaga eraman nituen bertsolari moduan eta Abel Muniategi ere han zen.

Neure kasuan lotura gehien Oskorrirekin izan nuen. Gogoan dut espetxetik bueltan Oskorrik espainolista fama hartu zuela zenbaiten artean, baina baita Zamorako apaizok ere. Bueltan egin nuen lehen saioan norbait apuntatzen ibili zen zenbat aldiz esaten nuen 'langile' eta zenbat aldiz 'Euskadi'.

Aurretik baserri usaina zuen tradizioa zen bertsolaritza baina Oteizak ‘Quosque tandem’ekin balio sinboliko elaboratua eman zion eta kantagintza berriak ahozketasuna abanguardiara eraman.

Bizi genuen itomen hartan begi onez ikusten zen euskararen alde zetorren guztia. Bertsolariak entzutera joatea errebindikazio identitario bat zen, kolektibo bat ginela sentitu, jende pilo bat ikusi eta txaloak jotzea. Basamortu hura ezagutu ez duenak ez daki zer den hori.

Bertsolariak zerbait berria esaten hasi zirenean, 65erako, gazteria mugitzen hasita zegoen, ETA, Herri Gaztedi eta hainbat gauza zeuden martxan. Mugimendu horrek eta mugimendu kulturalak kalean nahi zuen bizirik bertsolaritza, ez baserrian. Berrikuntza handi bat ari zen ematen maila guztietan.

80 txapelketak irabaztearekin batera bertsogintza zer den azaltzen hasten zara, barrura begirako prozesuak agertzen, bertsotan ikasi egin daitekeela erakusten. Bertsolaria jaio ala egin eztabaidaren muinean sartzen zara. Zerk eraman zintuen pausu hori ematera?

Euskararen inguruko hainbat mitok indar handia izan zuten aurreko belaunaldiengan. Euskara Adan eta Evarengandik zetorrela eta gisakoak... Eta gure belaunaldiak mito horiek hausteari ekin zion.

Bertsolaritzaren inguruan esate baterako azpimarratzen zen euskarari zegokion zerbait zela, euskaraz bakarrik egiten zena. Ni seminarioan bertan hasi nintzen lehen susmoak hartzen; gurea bakarrik izatea oso bitxia egiten zitzaidan. Gogoratzen naiz ‘Martin Fierro’ literaturan ikusi genuenean ohartu nintzela haiek Argentinan egiten zutena gurearen oso antzekoa zela. Gaztelerazko poesia kultuaren baitan ere, Jorge Manriquezen ‘Rimas a la muerte de mi padre’ etortzen zait gogora, bazeuden antzekotasunak, baina ‘Martin Fierro’ n bat batean ari zirela ikus zitekeen gainera. Hamabost hamasei urterekin bertsolaritza munduan bakarra zenaren mitoa nahikoa zalantzan neukan.

Gero Abel Muniategirekin seminarioan bertsoa lantzen hasi nintzenetik asko aurreratu nuen, nahiz eta sistemarik gabe lan egiten nuen. Urteetan bertsoa ezin bukatuz ibili eta gero ikusi nuen azkena pentsatuta errazago egiten zela. Eta pixkanaka horrelako deskubrimendu gehiago egin ondoren, argi ikusi nuen ikasketa prozesu hori nolabait sistematizatuz bertsotan ikasteko metodo bat garatu zitekeela. Bertsolaritzaren etorkizunerako onuragarria iruditu zitzaidan bitarteko hori eskaintzea.

60 hamarkadatik aurrera ikastolen mugimendua martxan jartzen da eta 80tik aurrera bertso-eskolak ere bai. Baina 20 hamarkadan ere hasi ziren ikastolak irekitzen eta hamarkada hartan hasi ziren aipatzen bertsolariak trebatu beharra. Kultura ulertzeko modu modernoagoa bat da: ikasi egin daiteke, prestatu egin behar da.

Ezjakintasuna izan ohi da mitoen bazkarik onena. Normalean karrera bat egin baduzu eta ikasten saiatu bazara, badakizu gauzak ikas daitezkeela. Harritzen ninduen zen jende kultuak nola defendatzen zuen bertsolariaren berezketasunaren kontu hori.

Zu izango zinen goi mailako ikasketak izan zituen lehen bertsolaria.

Bai, Lopategirekin eta Muniategirekin batean. Eta nolabait maila intelektual horretan euskaraz trebatzeko ahalegin bat ere egin genuen. Lanketa intelektual guztia erdaraz egina zutenek euskal mundua irla galdu gisa ikusten zuten, zerbait exotikoa balitz bezala.

Euskal kulturak izan du hori, oso luzaroan kanpoko begiradatik aztertu da, gauza exotiko bezala.

Gero badago beste kontu bat. Kultura pobrea denean zerbait eksklusiboa ere gorde nahi izaten da. Ahulak gara baina bertsolaritza gurea bakarrik da. Horregatik esaten zuten hau ez dago beste inon. Berezkoa dela hausten bada, zalantzan jartzen da eksklusibitate hori ere. Mitoaren bukaera da hori.

Komunitatearen ertzekotasuna ez al da abantaila izan bertsolaritzaren biziraupenerako? Euskal Pizkunde bat egon den bakoitzean bertsolaritzari heldu behar izan zaio kultura idatzi indartsurik ez zegoelako. Aitzolen kasua nabarmena da...

Hor euskararen eredu arazo bat ere egon zen. Gure kasuan poesiak ez zuen oihartzunik izan, poetek zerabilten eredu kultura bera ere ulertezina zelako... Euskarak ere bere ikurrak eta gailurrak behar zituen biziko bazen, eta bertsolaritza zen herria biltzen zuen euskarazko kultur sorkuntza bakarra.

Beraz, kultura marginal baten ginda da bertsolaritza. Kultura handiek bestelakoak izan dituzte.

Bere kultur komunitatean lortu duen zentralitateak bai egiten du singular bertsolaritza.

Kuban eta Uruguayn ere sekulako garrantzia dute gisako fenomenoek eta hor bai daukate kultura idatzi indartsu bat. Baina salbuespena direla esango nuke.

Hemen diskurtso mailan, antolakuntzan eta beste alde askotatik oso garatuta gaude. Aintzat hartua izan da eta garatu egin da. Bai izan du bilakaera berezi bat fenomenoak.

Hedabideratzeaz

Zenbaterainoko garrantzia izan du zure ustez hedabideen alorrari jarri zaion arretak bertsolaritzak gizarte modu berrira egokitzeko izan duen bilakaeran?

Gauza bat antolatzen denean antolatu duzun horri hedapena eman behar diozu. Gogoratzen dut Alfontso Irigoienek lan izugarria egiten zuela lehen Bizkaiko txapelketa horien propaganda egiteko. Telefono gida hartzen zuen eta tabernatara deitzen zuen eta herri bakoitzean egokienak iruditzen zitzaizkion izenetara... 58an edo 59an Bizkaiko finala Bilboko zezenplazan jokatu zenean dena bete zen edo Arenalean egiten zenean ere milaka lagun biltzen ziren eta hori gertakariaren berri zabaldu gabe ezin da lortu.

Iriondok kontatu zidan berak Telenorterekin egiten zuela ‘Euskal Herria’ izena zuen astekari bat eta elkarrizketatu zituela bertsolaritzarekin zerikusia zuten hainbat jende, tartean zu. Gogoan duzu?

Bai, bai. Telenorten hiru bat aldiz egona naiz, beharbada lau. Bai Iriondorekin eta baita beste jende batekin ere. Uste dut, gainera, 1980ko finalaren irudiak programa horri esker kontserbatzen direla. 82koan ere nire txapela janztea eta beste hainbat irudi gorde dira. 1976tik bertsotan serio samar hasi eta banuen ibilbide bat, ‘Egin’-en zutabegile ere banintzen, txapelak ere etorri ziren, eta dezentetan deitu ninduten Telenortetik. Gerora, ETBtik baino gehiago.

Elkarteak berak ere sorreratik hiru lan ildo nagusi jarri zituen lan egiteko: transmisioa, ikerketa eta sustapena-hedabideak.

Lan ona egin da alor horretan: bertsolaritza antolaturik dago, elkarteak daude herrialde bakoitzean, elkarte bakoitzak du bere komunikazio arduraduna eta medioetara iristea lortzen horri eskerrak. Gero, BECeko finalak, 15.000 lagun bildu dituen gertakari batek, derrigorrean izan behar du oihartzuna hedabideetan.

1990eko hamarraldian eztabaida ugari piztu ziren ‘Hitzetik Hortzera’ programaren eta telebistako arrakastak bertsoaritzarengan izan zezakeen eraginaren inguruan.

Ez nuen nik eztabaida erabakigarrietan parte hartu, entzun bai. Ereduaz asko hitz egin genuen garai horretan: Telebistak ez du balio saioaren prozesua erakusteko, gailurrak bakarrik eskaintzen ditu; Lurraldetasuna izan behar da kontuan, adin guztiak? Genero ikuspegia? Ordu erdian gauza asko sartu nahi zituzten eta horri ikusgarritasun bat eman nahi bazaio...

Orain normalizatuago dagoela esango nuke. Bertsoara doanak badaki askotan grabagailuekin eta zenbaitetan kamerekin topo egingo duela, hurrengo batean ezingo duela antzeko zerbait kantatu, baina bertsoaritzak berdin jarraituko duela bere bidea egiten grabagailuak eta kamerak gora behera.

Askotan errepikatzen da bertso kritika ez dela nahikoa garatu.

Txapelketa baterako askotan deitu izan didate komentarista lanak egiteko eta beti ezetz esan diet. Arriskatu eta iritziak eman behar dira... Egin beharko litzateke, baina ez da erraza. Gainera pilotan adibidez industria bat dago baina bertsoaritzan ez. Ez du komentarista gisa hortik bizitzeko aukerarik ematen, eta nor hasiko da egurra ematen kritika zorrotzak eginez?

Mailak ere asko daude, ezberdina da oso Euskal Herriko finala edo lurralde mailakoa izan. Edo bestelako saio bat. Goiko mailetan uste dut eman litekeela gehiago.

Tokatu izan al zaizu gisa horretako kritika zorrotzik?

Nire kontrako kritikak bai, baina bertsoari baina gehiago ideologiari erreparatzen ziotenak. 1980ko txapelaren ondoren *Correon*, esaterako. Gehiago entzun behar izan nituen baita misterioa puskatu nuelako, dena hankaz gora jarri nuelako eta abar.

Bertso kritikatzat har daitekeena bat etortzen zait burura. Lehen txapelaren ondoren *Euskadi Siuxen*. Arantxa Urretabizkaiak elkarrizketa bat egin zidan aldizkari horretarako eta oso ondo, baina Ramon Etxezarretak eta Koldo Izagirrek kritika oso gogorra ondoren.

Kuriosoa da modernoek zirenak izatea kritikoenak bertsoaritzaren berrikuntzarekin.

‘Aita’ gaiarekin egin nituen bertsoetan betelan gehiegi egiten nuela kritikatzat zuten, besteak beste. Baina ez zeukan zentzu handirik badakienak badakielako bertsoak beti izaten duela betelana. Ni harrituta gelditu nintzen eta nola anonimoa zen, sinatu gabea, ba nori erantzunik ere ez. Gerora jakin nuen eurak zirela.

1980ko hamarkadan zein ziren prentsa eta irratiko erreferenteak?

Loiola, Segura eta Bizkaia irratietan ematen ziren saioak. *Deian* nik txapela irabazi nuenean Antton Haranburuk idatzi zuen, oso artikulua positiboa. ‘Semaforo Gorriak kableak hautsi zituen’ edo horrelako izenburu bat jarri zion. Joxe Mari Aranaldek ere kolaborazioak egiten zituen egunkari berean eta baloratzen ninduen hura ere. *Eginen* neu sortzaileetako izan nintzen eta bi jarrera zeuden barruan: Euskadiko Ezkerrakoak eta Herri Batasunakoak. Kultura Euskadiko Ezkerraren eskuetan zegoen hasiera hartan eta *Eginen* baino oihartzun gehiago izan nuen beste medioetan. 80ko txapelketaz zerbait bai, baina aurretik egin nituen ‘Larehun herri, mila bertso berri’ musikarien inguruan aipamenik ere ez zidaten egin.

Lau medio konkreturen azterketan murgildu naiz ikerketa lanean: ‘Hitzetik Hortzera’, ‘Hitza Jolas’, *Bertsolari* eta *Bertsoa.eus*. Nola baloratzen dituzu?

‘Hitza jolas’ gutxi entzuten dut, parean egokitzen zaidanean bakarrik. Badira urte dezente bertsoaritzatik aparte nabilela eta abentura exotiko batera bezala etorri naiz zure elkarrizketa

honetara. Alaba bertsotan dabil eta emaztea ere bertso eskoletan, eta, beraz, jarraipena egiten diot, baina ez daukat burua horretan.

Bertsolari aldizkaria beti gustatu izan zait. Gauza betegarriak ere baditu, baina ondo egindako aldizkari bat dela uste dut, gauza interesante asko dituela. Bertsoa.eus ez dut jarraitzen, medio digitalak jarraitzeko ohiturarik ez daukadalako.... Aldizkaria ba jarraitu izan dut, eta ikusten dut bertsolaritzaren ibilbidearen, gogoeten eta abarren ispilu izan dela. Bertsolari gazte pilo bat ere agertzen da gainera bertan. Fenomenoaren irudi orokor eder bat ematen du.

Kazetari eta zutabegile

Basarri eta zu izan zarete etapa banatako gailur eta aldi berean kazetari eta zutabegile. Badago hor lotura bat. Gerora etorri da bertsolari zutabegileen tropa. Zuk ba al zenuen Basarri bezala bertsolaritza prestigiatzeko asmorik zutabeei ekin zenienean?

Ni kazetari moduan hasi nintzen Bilboko egoitzan egun osoko lanean; titulurik gabe baina kazetari lana egiten nuen. Herrietako orrialdeak zeuden nire kargu. Herritako baseko jendearekin behar nuen harremana eta horretarako bertsolaritzak asko laguntzen zidan. Larrabetzuko saihebidetari buruzko artikulu bat idatzi nuen behin eta jendeak komentarioak egin zituen eta hasi zitzaizkidan esaten ea zergatik ez nituen horrelako zutabe gehiago idazten. Beraz, egun osoko lanean nabilela uste dut hasi nintzela zutabeak idazten. Ez nuen bertsolaritza prestigiatzeko ideiarik. Gero egunkari barruko greba eta krisi politikoa etorri zen, ekonomia aldetik oso larri zebilen proiektua eta nik egunkaririk kanpo ere bizimodua atera nezakeela esan nien arduradunei, neure burua ateratzeko boluntario gisa aurkeztuz. Orduan proposatu zidaten astean hirutan edo ‘Semaforo gorria’ idazteko eta gerora eguneroko zutabe bihurtu zen. Aurrerago ‘Arrano beltza’ zutabearekin ere tartekatu nuen. Bertsolaritzaz gutxi idazten nuen.

Gogoratzen duzu zein urtetatik zein urtetara ibili zinen langintza horretan?

78an hasi eta *Garan* ere jarraitu nuen. Beraz 2004ra arte iraungo nuen; 25 bat urte jarraian egingo nituen zutabearekin. ‘Arrano beltza’ luzeagoa zen eta txandakatu idazten nituen.

‘Punto y Hora’ n bai, bertsolaritzari buruzko gauzak gehiago idatzi nituen. Gaztekeraz idazten nituen eta gauza bitxiak izaten ziren.

Dena den, esandakoa, normalean gai sozialak eta politikoak lantzen nituen zutabe hauetan. Ezker abertzalearen barruko kontsumorako ziren gehiago. Hala ere jarraitzaile dezente nituen, baita ezker abertzalekoak ez zirenak ere. Lehen aipatu ditudan Antton Haranburu edo Joxe Mari Aranaldekin badakit irakurtzen zituztela, *Deiaren* orbitan zebiltzan arren.

Gaia atera duzunez, hainbatetan seinatu izan da bertso-mugimendua ezker abertzalearen orbitan ez ote den kokatu azken ziklo honetan. Garai batean protagonismo gehiago zutela EAJ inguruko bertsolari, zaletu eta eragileek.

Azken hamarkadetan atera izan diren bertsolari gehienak ideologiaz gertuago ibili izan dira ezker abertzaleatik. Ez dakit zergatik izan daitekeen hori. Dena den esan beharra dago EAJrengandik gertuago zeuden bertsolariak ere egon izan direla eta ez dela inolako arazorik izan horrekin. Azpillaga edo Joxe Lizasok bakarka beretik kantatzen zutenean mundu guztiak onartzen zuen, eta elkarrekin bertsotan egitea tokatu izan zaigunean, Azpillagarekin, esaterako, primeran moldatu izan naiz. Arazoak gehiago nik gai-jartzaile jakin batzuekin izan ditut, begizkoa zidatelako, probatzera edo enboskada bat jartzera etorri izan zitzaizkidanean.

V.IV AMETS ARZALLUS. ZARAUTZ, 2017/IX/21

Bertsolaria eta kazetaria. Euskal Herriko txapelduna 2013an. Kazetaritzan lizentziatua, hainbat hedabidetan kolaboratzaile, Berria eta Argian kazetari ibilbidea egindakoa eta arnas luzeko zenbait kazetaritza proiektu buruturikoa. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria ere badu.

Bertsolaria-kazetaria harremana

Tesirako 80tik 2013 bitarteko finalei buruz prentsan ateratakoak begiratzen ibili naiz. Elkarrizketetan, adibidez, nabarmena da bilakaera, txapelketek aurrera egin ala askoz luzeagoak dira, sakonagoak... Bilakaera honen atzean bertsolaritzari buruz egin izan den kazetaritzaren garapena ikus daiteke, baina esango nuke bertsolarien baitan ere egon dela aldaketa bat. Zure kasuan badaukazu prozesu hori bizi izanaren kontzientzia?

Nire kasuan 2000. urtetik aurrera hasten naiz bertsotan eta txapelketetan ere bai, eta esango nuke prozesu hori pixka bat emana etortzen zaidala, azken finean, denok jasotzen dugu aurrekari hurbilenen eskolatik. Bai bertsogintza aldetik erreferenteak horiek dira eta askotan erantzunak emanez ere bai eta zuk zure kabuz horiek irakurri eta zure kasa pentsatuz eskola horren gainean eraikitzen duzu zeure prestakuntza planteatzeko modua eta prestakuntza horretaz hitz egiteko modua ere bat (...) Amurizak jada hasten du prestakuntzaren kontzientzia beste parametro batzuetara eramatearena. Hasteko kontzientzia hartzeak hitzetara ekartzea esan nahi du. Bere ibilbide akademikoa, bere formazio intelektuala, musikala, dena eramaten du gainera bertsogintzara eta lexiko bat sortzen du. Besteak seguru asko Amuriza bezain prestatuak egongo ziren, baina modu intuitiboan. Amurizak hor bide bat hasten du, Andonik jarraitu, eta guk Andonirengandik jaso dugu.

Medioei atea irekitzerakoan ez al da zuen belaunaldia aurrekoak baino zuhurragoa?

Bai, izan daiteke. Aurreko belaunaldiek bertsogintza zabaltzeko erronka zuten. Behin zabalduz gero, hurrengo belaunaldiak, zabalpen gehiago beharrean, barruan sakontzeko ahalegin gehiago egin du beharbada. Hartu Maialen bat eta Egaña bat eta oso nabarmena da baten eta bestearen erantzuteko modua. Garaiaz aparte izaerak ere izan dezake eragina ezberdintasun hauetan... Baina bai, aurrekoek bertsolaritza medioetara eraman beharra biziko zuten eta geu kasik fokoaren azpian jaio gara bertsolari bezala. Nik uste garai bakoitzari loturiko esperientzia kolektibo horiek markatu duela belaunaldi bakoitza.

Zuk nola daramazu fokuarena?

Nik modu kontraesankorrean bizi dut hau dena, bi aldeak bizi izan ditudalako ziurrenik. Kazetaritza ikasi nuen eta bertan jardun izan dut puska bat. Beraz, ni izan naiz eskatzaile eta badakit zein trantzetan zauden eskatzaile zarenean. Aldiz, beste aldekoa ere bizi izan dut eta badakit baita nolako trantzea den erantzun beharra ere.

Egia esan nahiko distantea naiz beti bi aldiz galdetuz nire buruari zein behar dagoen edo zer nolako interesa, kolektibo nahiz pertsonala, ikusten diodan eskaerari. Txapelketa garaietan nahiko eskuragarri egoten naiz; uste dut tokatzen dela. Hortik kanpo gehiago kostatzen zait.

Badago baietza edo ezetza erabakitzerakoan kontutan hartzen duzun kriterio jakinik?

Medioaren ahalein kontzientzia jartzen dut lehenengo kriterio bezala. Medio txiki bat baldin bada, borondate handia jarriz ateratzen dena, zure aldetik ere ahalegin gehixeago egiten duzu. Difusio txikiagoarekin norbera ere sueltoago aurkitzen da gainera. Oso gutxitan urratu dudana beste kriterio bat euskara hutsez egitearena izandu da.

Medio frantsesekin izan duzu hartu emanik?

Nahiko urruti bizi dira haiek bai euskararen mundutik bai bertsogintzatik.

Egon izan da, hala ere, elkartearen ahalegin bat erdal mundura gerturatzeko.

Ulertzen dut elkarteak duen interesa, baina nik nire kriterio pertsonalak ere jartzen ditut... Euskal Herritik kanpoko erdal medioak natural zaizkit beren erderan, baina Euskal Herriko erdal medioak, segun eta zein, ez nator bat beren hizkuntz politikarekin.

Diferentzia handia dago kazetaria espezialista izan edo ez?

Bai, dudarik gabe. Oso estimatzekoa da espezializatua izatea. Ze tokatu zaizkit izugarri berde iritsitako batzuk eta egia esan norberarentzat erantzuteko ere zaila izaten da. Batzuetan iruditu izan zait irakurleak galdetzaileak baino gehiago jakin dezakeela eta sentsazio arraroa da. Kanporako bada beste funtzio bat egiten ari zara elkarrizketa horrekin baina euskal medioen aldetik ez da oso ulertzekoa.

Hala ere esan behar da normalean, nigana hurbildu diren kazetariak, gutxi gorabehera kontrolatzen dutela lantzen duten alorra.

Sinaduraren bat?

Beñat Zamalloa batzuetan zorrotza izaten da eta nik estimatzen dut. Mundu txikia da eta zorrotzasanak denok urratzen gaitu baina hori hartzeko prest ez bagaude alperrik da kazetaritza serioerik eskatzea, hor ez dago dudarik.

Gero gauza bat da elkarrizketa bat egitea eta beste bat kronika bat egitea. Elkarrizketatzaile batzuk gustatu izan zaizkit eta agian ez dira bertsolaritzan espezializatuak. Kronikagintza ariketa zailagoa da. Egiten direnei ez diet zentzu handirik ikusten, ez bada gertatu denaren argazki bat ekartzea...

Kronika egiten den saioetan bertsogintza izugarri estandarizatuta dago. Txapelketako saioak izaten dira beti, eta bertsogintzaren apartaziorako txapelketako lagin txikia hartzea, azkenean da liburu bateko orri bat hartuta autorea esplikatzea. Saio horietan, orokorrean, oso modu lotuan egiten da gainera bertsotan. Eta kronikak ere oso estandarrak izaten dira: giroaren kronika eta epaiaren justifikazio bat. Analisi artistikorik ez dago... Begirada aldatzen asmatzen ez den bitartean uste dut zaila dela kronika kazetaritza on bat egitea.

Norantz aldatuko zenuke?

Beste saio mota batera joatearekin bakarrik berrikuntza bat litzateke. Hortik aurrera... Kronikak ez dakit baina erreportaje politak egin daitezke ikuspegia aldatuz. Adibidez, udako bost saio hartu eta aztertu zein diren uda horretako gaiak eta gaiei ematen zaien tratamendua. Adibidez, Kataluniako egoera politikoa nola ikusten duten bertsolariek, edo immigrazioaren inguruan zer dioten... Soluziorik ez daukat, baina uste dut ez dela asmatu azken urteotan...

Bertsolariak zutabegile/kazetari/kritiko

Zutabegintzara jarri izan diren bertsolarien zerrenda oso da luzea. Egañak dio badutela antzekotasunik langintza batak eta besteak, eta horrek esplikatzen lezakela, neurri batean behintzat, bertsolari zutabegileen loraldia.

Bai, nik uste dut badagoela parte bat hortik eta neurri batean bat nator Andonik esaten duenarekin. Zutabegile lana egin duenak badaki nolakoa den: gai bat behar duzu, nahiko modu sintetikoan landu eta kolpe batzuk eman bukaerako batekin. Uste dut, bakoitzak bere moduan, gutxi-gehiago hortik doala eta bertsotan antzeko ariketa egiten dugula, desberdina izan arren.

Basarri, Amurizatarrak, Egaña, Iturriaga, Elortza, Maia, Silveira, Paiatarrak, Onintza Enbeita, Maialen... Lagunduko zenidake bertsolari zutabegileen zerrenda osatzen?

Agian errazagoa da ibili ez direnen zerrenda bat egitea. Noizbait ibili edo zerbait egin duena, nik Peña ere irakurri dut, derby batean nik bat eta berak beste bat egin zuen... Egongo dira bakar batzuk salbatu direnak, baina esango nuke ia denok egin izan dugula noizbait. .

Gero, polita da bakoitzaren zutabegintza eta bertsogintzaren artean antzekotasunak atzematea. Unairen bertsoak beti bere firma darama eta bere zutabeetan ere ikus daiteke. Maialenen bertsoarako pintzela ere nabari da bere zutabeetan. Edo Egañaren bertsogintzaren estrategiak hartu eta bere zutabegintzan ere erabiltzen dituela ikusten da.

Orokorrean zutabegintzako lanari oso bertsolaritzatik erantzuten diogula uste dut. Aparte esango nuke zutabegintza oso entrenamendu ona dela bertsogintzarako.

Askotan aipatu izan da bertsolariak izan zirela lehen euskal kronistak. Euskal kazetaritzaren historian lanik mardulenak egin dituen Javier Diaz Noci irakasleak euskal kazetaritzaren aurrekarien artean bertsolaritza aipatu du. Bertsolaritza eta kazetaritza, biak dituzu zeuk ogibide, ze harreman ikusten dituzu bien artean?

Antzekotasunak bilatzen hasita topa daitezke asko fortzatu gabe. Bertsolaritzak momentuko testigantza ematen du eta kazetaritzak ere bai. Orduan, biek lehengai bera dute. Ni ez naiz kazetaritza ofiziotik oso aparte sentitzen bertsotan. Hori bai, bertsotan eskatzen da oso zure ikuspegitik kontatzea eta kazetaritzan ahots neutroago bat erabiltzea.

Nik uste dut kazetaritzarako eta beste askotarako, txikitatik bertso-eskolara joan izanak eman dizkidala pilo bat muskulu mental baliagarri. Hitz jokorako gustua eta gimnasia ematen du horrek, nahiz eta batzuetan hori dosifikatu beharra dagoen.

Aparte bertsolari bezala gabiltzanean jende berri pilo bat ezagutzea tokatzen zaigu. Bertso afarian ondoan eseri zaizuna lehen aldiz ikusi duzu egun horretan, agian ez duzu berriro inoiz topo egingo berarekin, baina elkarrizketa bat sortu behar da hor... Eta ofizioa hartzen zaio horri ere. Kazetariarena antzeko lana iruditzen zait zentzu horretan ere.

Bertsolaritzaz aritzeko aurrean duzun kazetaria bertsolaria izateak zer plus dakar?

Bertsolaria bada, normalean hurbiltasuna da elkarrizketa hasi aurreko baldintza mugatzailea eta laguntzailea. Bertsolaria galdetzailea denean gaian sakontzeko lagun dezake, baina galdetzailea bertsolaria eta lagun hurbil-hurbila baldin bada, lagunaren arteko tertulia batean bihur daiteke eta uste dut hobe dela distantzia puntu bat edukitzea.

Kritikari lanerako, seguru asko bertsolari batek izan ditzake intuizio interesgarriak eta horiek kontatzeko modu politak. Baina, betikoa, hurbiltasunak mugak dakartza hor ere.

Bertso kritika ganorazko baten gabezia da izan da urteetan zehar hainbat testutan aipatu izan den beste kontu bat.

Lehenengo, esango nuke azken urteetan milimetroka gero eta gehixeago lantzen ari dela eta gauza interesgarriagoak ikus daitezkeela. Gogoratzen naiz *Argian* Kepa Matxainek egin zuen jarraipen bat, bestelako estilo bat hartuz, nire ustez oso interesgarria. Eta ez da bakarra.

Gero betiko esplikazioa, giza harremanen zientziak ematen duena: errezagoa da Sevillan atera den flamenko disko bati kritika egitea etxeko atetik atera eta kalean topatuko duzun norbaiten lanari egitea baino. Nik uste zentzu horretan gu oso kontserbadoreak izan garela eta ez garela behar bezain harkorrak izan. Egia da gure sormen baldintza prekarioak kontutan hartu behar direla kritika gauzatzerakoan, baina ezin da hori eskudo bat bezala erabili. Berez, kritika

normalizatu bat ona litzateke bertsolaritzarentzat, eta ondorioz kritika normalizatzen lagundu beharko genuke.

Sarea

‘Hitzetik Hortzera’ izan azken bi hamarkada eta erdian Bertsozale Elkartearen hedapenerako motor nagusia (energia nuklearra deitu zion bere garaian Sarasuak). Planteamendu hori egokitu beharraren lehen zantzu batzuk topa daitezke, ordea. Duela hamar urte Elkartearen eskariz burutu zen ikerketa soziologikoan esaterako hainbatek komentatzen zuen ‘Hitzetik Hortzera’k ez ote zuen ‘puncha’ galdu gazteenen artean.

Nik esango nuke -hau ere intuitiboa da, eta nire baitan ikertuta ateratzen da- oreka gehixeago dagoela. ‘Hitzetik Hortzera’ dago telebistan, baina Internetetik ere kontsumitzen da. Telebista erreferentzia bakar zenean, irratia eta prentsa ere hor zeuden baina, indar handia zuen bertsogintzaren ontzia batetik bestera mugitzeko. Telebistan agertzeak izugarritzko ikusgarritasuna zekarren eta horrek hainbat zehar ondorio zituen. Egun, dibertsifikazioarekin hori dena lausotu egin da. *Booma* kendu eta baldintzak aldatuz mamia aldatzen da.

Iruditzen zaizu egunen batean Sareak bete dezakeela urte hauetan ‘Hitzetik Hortzera’k bete duen paper hori?

Belaunaldi berriek Sarean bizi dute gehiago telebistan baino. Eta horri egokitzeko elkarteak Sarean bere medio propioa sortzeko apustua egin du. Hor Irazuren meritua aitortu beharra dago. Bere garaian saioetara kamerak eramaten hasi zenean, berde flipatu bati bezala begiratzen genion ta denborak arrazoia eman dio.

Hala ere, ez dut uste Sareak telebistak izan zuen indar sinboliko eta faktiko hori hartuko duenik. Hain zuzen ere telebistarekin elkarbizi beharko duelako.

Gehiago kezkatzen nau, esaterako, txapelketak duen gehiegizko atentzioak. Esan bezala bertsolaritza askoz ere mundu zabalagoa delako. Hor bertsogintzak badu bere buruari planteatzeko arazo bat. Eta komunikabideek beraiek ere badute.

Adibidez ideologikoki bertsolari denak patroi berekoak gabela esaten da eta nik astebururo entzuten ditut lagunak plazan eta badakit hori gezurra dela. Txapelketan, ordea, gauzatxo batzuk bakarrik ikus daitezke. Nire ustez, bertsogintzatik eta kazetaritzaatik bilatu beharko litzateke bertsogintza beste era batera erretratatzeko modua.

Bai Sarean eta bai telebistan bertsoaldia bera da elementu zentrala. Bestelako osagarriak pixka bat soberan egon daitezkeela esan ohi da hainbatetan.

Hartzaile bezala, bertsolari bezala eta lagun bezala bertsoaldiak bezain interesgarriak iruditzen zaizkit iruzkinak edo eduki erreportajeatuak. ‘Hitzetik Hortzera’ saiatu izan da hor bide bat egiten... Gauza oso interesgarriak egin daitezke zentzu horretan, bertsoaldiaren making off-a eskainiz, irristadak non joan diren, konplizitateak non sortu diren eta abar azalduaz. Amurizak 1980an bere barruan bertsoa nola osatuz zijoan azaltzen zuen dokumentala ederra zen oso...

Eskutik egindako bidea

XIX. mendearen lehen erdian topatu ditut prentsan bertsolaritza jorratzen zuten prentsako hainbat testu, zaharrenak euskaraz prentsan argitaratu zen lehen testua baino goiztiarragoak. Historiako lehen euskal irratsaiora ere Zubimendi eta Arzellusek 1930eko hamarraldian bertsolariak eraman ohi zituzten. Frankismoan euskal kazetaritzak izandako lehen plazan, Herri Irratietan bertsolaritza gai izar bihurtu zen. ‘Hitzetik Hortzera’ ere ETBko programa arrakastatsuen bihurtu zen estreinatuta eta gutxira...

Nola esplikatu zenuke bertsolaritzak hedabideetan aldiro lortzen duen presentzia garrantzitsu hori?

Ez dakit, egia esan... Arrazoi bat izan liteke garaian garaiko medio horien hartzailea zen herriak bertsolariekiko izan duen identifikazio maila. Pertsonaia publikoak izan dira bertsolariak baina aldi berean herriak bere baitakotzat hartu ditu. Eta herriak bertsolariak nahi bazituen prentsak, irratia eta abar bertsolariak eskaini behar.

80. hamarkadatik gaur egunera arte, lortu da bertsolaritza zentrala izatea.

Nire amonak alzheimerra nahikoa garatua zuelarik, Txirritaren bertsoak gogoratu eta disfrutatu egiten zuen harekin. Pentsa nolako miresmena zion Txirritari... Alegia, orduan ere zentrala zen bertsolaria nekazal munduan. Zentrala ez zena nekazal mundua bera zen, zokoraturiko, prestigiorik gabeko mundu bat baitzen.

Beraz, bere garaian zokoraturiko munduan zen zentrala bertsolaritza. 80ko hamarkadatik, edo azken belaunaldietan lortu dena euskal kultura eta berekin bertsolaritza hirigunean txertatzea izan da. Eta honela zokoratua ez den mundu batean ere bada zentrala.

Euskal kulturaren indarrari eutsi dio ahozko literaturak, estandarizazioa iritsi bitarte.

Bertsolaritzak aldiro egokitzen asmatu du, garai bakoitzean funtzio bat betetzen. Izan kanal politiko gisa, edo biziraupen linguistiko bezala, aldiro bere buruari zentzu bat bilatu dio eta jendeak ere ikusi dio. Frankismoaren kasuan, gainontzeko guztia hain itoa zegoen garian eremu libre txiki bat bihurtu zen. ‘Arte menor’ iruditzen zitzaizkien frankistei eta kontsiderazio falta horrek berak askatasun bat eman zion. Baina azpian hor zirauren tresna politiko-identitarioaren txingarrak. Eta 1960-1970 hamarkadetan berriro ere aldarrikapenerako baliatzen hasi ziren...

Beste toki batzuetan fosilagoak izan dira antzeko fenomenoak.

Iruditzen zait planteamendu hauek aztertu eta frogatu egin beharko lirakekeela, baina hipotesi gisa onargarriak iruditzen zaizkit... Maialen txapeldun zela, adineko erdaldun bat gerturatu “tu eres la campeona del mundo del euskera” esan zion. Euskal komunitatea eta bertsolaritzaren artean identifikazio maila izugarri bat eman izan dela iruditzen zait.

Duela mende eskas herri-kultura aurremodernoen praktika bat izatetik modernitatean sartu, kultura mediatuaren garaiari egokitu eta masa kulturaren sartu irtenak egitera pasa da bertsolaritza. Egindako bidaia hori harrigarria da, ezta?

Uste dut hori ezin dela ulertu figura zentral batzuk identifikatu gabe. Beste batzuk aipatu gabe, eta beste horiek ere eragina izango zutela jakitun, Amuriza eta Egañak ekarritako aldaketa funtsezkoa iruditzen zait. Amuriza izugarri haustailea izan zen, bertsozalegoaren hainbat sektoretan errezelo handiak sortzeraino. Xalbador ere bere modura bada haustailea nire ustez, eta Txirrita ere izan zitekeen bere garaian...

Elkarrizketa bukatu ondoren Arzallusek Egañarekin du hitzordua jarria elkarrekin saio batera joateko. Goiz azaldu da ordea zarauztarra eta elkarrizketan sartu da modu natural batean azken galderetan. Medioen presentziak zenbateraino baldintzatzen dituen gogoetatuz ekiten diote:

Arzallus: Luzaz askoz erlaxatuago kantatzen nuen eta, ustez, hobeto, kamerak ez zeudenean. Egia esan, orain, ahaztu egiten zait, baina urte askoan pixka bat molestia sentitzen nuen kamerak agertzean, nahiz eta ulertu horrek horrela izan behar zuela. Huts egindako saio bakoitzak askoz karga gehiago utzi izan dit kameragatik. Presio horrek. Baina norberak ikasi behar du horrekin bizitzen.

Egaña: Kamerak testua jasotzen du, baina zailtasunak ditu testuingurua jasotzeko.

Arzallus: Askotan esan izan da telebistan funtzionatzen duen bertsoa ona dela. Baina alderantzizkoa ere planteatu daiteke: telebistan funtzionatzen ez badu, testuinguruari lotuagoa dagoela uler daiteke, momentuari gehiago atxeki zitzaiola eta honenbestez hobe zela.

Agian bi balorazio eskalak aparte hartu beharko dira kontutan. Testuingururik gabea batetik eta testuingurua kontuan hartzen duena bestetik.

Ez al du Elkartearen barruan komunikazioak eta hedapenak geroz eta pisu handiagoa?

Egaña: Eguneroko bizitzan ere horrela gertatzen ari da, eta Elkartea errealitateari egokitu beharra dauka aldiro.

Arzallus: Nik uste patologikoa izateraino zabaldu dela komunikazioa gizartean. Edozein tailer txikik badu ordu batzuk komunikazioan ematen dituen pertsona bat. Komunikatzea produzitzea baino garrantzitsuago bihurtu da kasik (...)

V.V ANDONI EGAÑA. ZARAUTZ, 2017/VII/26

1993, 1997, 2001 eta 2005ean Euskal Herriko txapelkun. Lau aldiz jarraian irabazirik txapel hauekin aldi oso bat markatu duen bertsolaria. Erabile garrantzitsua Elkartearen sorreran eta hurrengo urteetan. Hedabide ezberdinetan eta prentsan, irratian nahiz telebistan kolaborazio anitz egindakoa. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa. Bertsolaritzari buruz, eta honek hedabideekin daukan harremanaz, gogoeta mamitsuak argitaraturikoa.

Hedabideratzeko apustua

Joxerrak, Jonek eta hiruok elkarrekin argitaraturiko ‘Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak’ liburuan, eta bakoitzak bere kasa idatzitakoetan askotan azpimarratzen duzue zuen obsesioetako bat bertsolaritza hedabideetara eramatea izan dela.

Orain argiago ikusten dut idatzi genuenean baino. Gure belaunaldia 80-82an plazaratzen da eta gure obsesio nagusia zabaltzea izan da. Ondorengo belaunaldiak gauzak sakontzen hasiko zen beharbada, baina gurea zabalpena zen.

Elkartea eratu berritan nolakoa zen hedabideek eskaintzen zuten arretaren panorama?

1982an Lopategik eta Amurizak abestu zuten kartzelako gaiak kartzelako gaiak “biok telebista ikusten zaudete eta batak lehen katea ikusi nahi du eta besteak bigarrena” zioen. Gaiak telebista espainolari egiten zion erreferentzia eta bertsolariek bi bizkaitarrek aldarrikatu zuten euskal telebista sortu behar zela. Handik hamabost egunera hasi ziren lehen emanaldiak.

1982ko txapelketak, nik gogoan dudala behintzat, ez zuen jarraipen handirik izan. *Egin* egunkariak emango zion pixka bat, Herri Irratiak ere bai beste pixka bat, eta *Deiak*...

Elkartek antolakuntza bere gain hartu zuenean 1986koan jarraipen handiagoa eskaini zitzaion. Belodromora joan ginelako, prentsaurrekoak ematen hasi ginelako... Jendeak esaten duenean 13.000 sartu dira BECen, ze pasada! Ba 1986an Baldan 2.000 sartzetik belodromoan 9.000 sartzera pasa ginen. Eta gaurko ikuspegitik harrigarriagoa izan daitekeena: liberatu erdi batekin egin genuen hori dena. Jexux Murua zen soldatapeko bakarra, egun erdiko soldatarekin.

Zenbateko larritasunez bizi zenuten hedabideetan presentzia gehiago lortu beharra?

Ez dakit zenbaterainoko kontzientzia genuen. Batzuetan ematen du elkartean proiektu kultural garbi bat genuela eta ez da horrela, Euskaltzaindiarekiko epaimahaiari buruz geneukan ikuspuntu ezberdintasun bat izan zen martxan jarri gintuena. Loiolan bilera batzuk egiten hasi ginen hurrengo antola genezakeen ikusteko eta hor ikusi zen elkarte baten premia.

Hortik aurrera hasten gara esaten bertsolaritza telebistagarria dela... 1986an, geuk antolatutako lehen txapelketa hori ondo ateratzen denean, arrakasta duenean, publiko eta oihartzun aldetik gauzak ondo ateratzen direnean, hasten gara pentsatzen ez ginela sindikatu bat izango bertsolarien eskubideak defendatzeko, ezta enpresa bat ere, kultur proiektu bat zela bultzatu nahi genuena. 1987 edo 1988an Joxerra, Koldo eta abar jada tartean direla, erabaki genuen gure hau telebistagarria zela eta ‘Ahotik ahora’ izeneko lehen apustu bat egin zuen Joxerrak.

Joxerrak kontatzen du programan Elkartek ez zuela zerikusirik, ETBren kontua zela.

Izan liteke ETBren kontua izatea. Gogoratzen naiz lehen aldiz bertsotan Artelekun egin genuen eguna. Joxerrari bururatu zitzaion saio atipiko bat egin behar genuela: Lazkano eta ni txerri-hiltze bat ikusten jarri eta hari buruz jardutea. Kamera bakarra zuten eta bertsolari batetik

bestera mugitzen asmatzen ez zutenez, nik lehena, hirugarrena eta bosgarrena kantatu nituen gero Imanolek tartekoak osatzeko. Antibertsolarismo totala zen, baina ikasten joaten zara...

Joxerrak 'Fernando Amezketarra' izeneko txapelketa bat antolatu zuen irratian arrakasta politarekin eta 'Ahotik ahora'rekin probatu ondoren 'Hitzetik Hartzera' etorri zen. Hor bai zebilen Elkartea tartean. Lehen bilerara Jexux Murua eta Joxerra joan zirela badakit eta Jon Sarasua ere bai beharbada. ETBko zuzendaria zen Oterminekin egin zuten bilera, hainbat planteamendu egin zizkioten eta kontatzen dute Oterminek esan zuela: "Moteilak, moteilak! Zuek bertsoaz asko jakingo duzue, baina kazetaritzaz ez dakizue ezer. Zuek ba al dakizue plano amerikar bat zer den? Bada, gerrirainoko plano bat da. Eta uste duzue ikusleak 40 segundo aguantatuko dituela plano horri begira? Hori ez da telebista". Joxerrak berearekin jarraitu zuen, Elkartek babesa eman zion eta aurrera egin zuen.

Arrakasta izan zuen apustuak.

Ordu erdiko programa nahikoa zela esaten zuten, ordu erdia baino gehiago jendeak ez zuela aguantatuko. Atera zen programa eta audientzia maila oso ona lortu zuen. Ez zegoen Internetik eta ezta oraingo kate pilarik ere. Antena 3 eta Tele 5 ere beranduagokoak dira... Gaur egungo absolutuekin konparatuta, audientzia handiak lortu zituen. Sei bat hilabete egin eta hurrengo urtekoa negoziatzera joaten garenean esan ziguten: "Ondo, eh? Funtzionatu egin dik, orain egin beha duguna da ordu eta erdiko programa". Eta orduan guk esan genuen ezetz: "Lehen ordu erdia nahi zenuten eta orain 40 minutu egingo dugu gehienez".

1993an Siadecok eginiko ikerketaren baitan hedabidetzea da puntu zentraletako bat... Bertsolaritzari buruzko multimedia proiektu bat ere aipatzen da dagoeneko bertan.

Multimedia baten planteamendua betidanik izan dugu, formatu bakoitzak eduki mota batzutarako hobeto funtzionatzen duelako eta guztiak manejatuz lanketa integral bat egin daitekeelako. Proiektu hori buruan ibili genuen, baina herri honetan oso zaila da gauza horiek burutzea, hedabideen arteko elkarlana eskatzen duelako.

Hedabideratzearen arriskuak eta eraginak

Hedabideratzeak zituen arriskuez, batez ere telebistaz, asko hitz egin zen.

Klabea guretzat zera izan da eta Joxerrak ondo teorizatuta dauka bere tesian: "bertsoa da beti testua gehi testuingurua". Orduan, testuingurua kentzen diogunean kontu handiz ibili behar dugu, oso produktu fragila bihurtzen delako. Hori izan da gure kezka nagusia. Goizeko hiruetan Urdanetako soziedadean grazioso den bertso bat eguerdiko ordu batean telebistan mezatatik etorri den amonak entzuteko izan liteke desastre bat. Eta testu bera da.

Gero, telebistaz jokaldirik onenak eman ohi dira eta horrek ekar zezakeen gero saioetan jendeak beti horrelako jokaldiak eskatzea... Aitor Mendiluzerekin bi saio egin ditut hilabete honetan bertso afaritan. Igual ordu eta hamar minutu, a ostia limpia, fin fan, kristoren mailan, batez ere bera. Baina hori ezin da telebisatu. Ordu eta hamar minutu nola telebisatuko dira? Edertasun hori ordu eta hamar minutu horiena da.

Bertsoa da gauza bat toki eta momentu jakin baten ematen dena eta hortik aterata, bai telebistarako, irratirako, Interneterako, edo prentsarako beti egongo da arrisku bat...

Beste kontu garrantzitsu bat, ez dakit arriskutzat har daitekeen, estereotipatzearena da. Telebistatik gabe hogeit hamar dira jendeak zuzen ezaugarri batzuk identifika ditzan. Telebistarekin jendeak bi urtetan jada osatu du hau horrelakoa da, bestea horrelakoa da... gero igual ez da horrelakoa izango baina estereotipoa jada eginda dago. Gure belaunaldian asko

funtzionatu zuen horrek: Sarasua, Eguzkitze, Sebastian Lizaso, Peñagarikano eta bostok oso estereotipo ezberdinekoak ginen eta jendeari gustatu egiten zitzaion hori.

Badirudi azken urteotan telebistaren arrisku horien inguruko kezka dezente baretu dela, ezta? Zergatik izan daiteke?

‘Hitzetik Hortzera’ orain Elkartek egiten duelako. Esan ohi den bezala, “contra Franco viviamos mejor”. Kontrola ETBk zeukanean beti geneukan kexa eta kezka publikoa. Orain geuk egiten dugunez, bada, etxe barruan konpondu behar kontu hauek.

Internetarako pausua ere Elkarteen eskutik eman da bertsoa.eus-ekin, eta horrek ere kontrol sentsazio handiagoa eman digu.

Eta esango nuke bertsolaritzaren izaera mediatiko hori normalizatu ere egin dela nolabait. 93-94etan bertigoa eman zigun zerbait berria zelako, hamar urte lehenagoko errealitatearekin alderatuz erabat ezberdina zelako. Urteak joan dira, ordea, eta ohitu egin gara.

1990eko hamarraldiko bertsolaritzaren boom-a bete betean bizitzea tokatu zitzaizun. Zein ziren sentsazio nagusiak?

Denborarik ere ez nuen hartzen ezer askotik pentsatzeko. Amurizarekin ados: bertsoan asko ibiltzeko gutxi pentsatu behar da, ze bestela...

Teorizatzeo astia hartu zenuten behintzat.

Esperientzia oinarrituriko gogoetatze bat egon zen, nahikoa modu kolektiboan burutua.

Zein izan ziren zure ustez boom haren gakoak?

‘Hitzetik Hortzera’ren arrakasta asko aipatu izan da, eta arrazoiz, hori izan zen gakoetako bat...

Askoz gutxiago aipatu izan den beste kontu batek hedabideekin ez du zerikusirik baina bai hedapenarekin. Fermin Muguruzak grabatu zuen Peñagarikano eta bion ‘Batetikan korroska’ haren bertso-rap hark sekulako faborea egin zion bertsolaritzari. Hor ere azti-begia izan zuen Muguruzak eta bertsoa belaunaldi gazteari hurbilagoak zitzaizkion kultur adierazpideekin uztartu zitekeela erakutsi zuen. Kanean nindoala mila aldiz abestu edo eskatu zidaten ‘Batetikan korroska’...

Badago egun hedabideratzearen inguruan kezkatzen zaituen arriskurik?

Nik uste aipatzen ziren arriskurik gehienak ongi gestionatu genituela. Agian gutxien asmatu izan dena hedabideen funtzio hezitzailearen kontua izan da.

Ez ezagutza handia ikusten dut zalego askorengan. Futboleko 4-4-2 sistema zer den denek dakite, baina etena zer den apenas konturatzen da jendea. Komentatu izan dut azken 15 urteetan bakarkakoetan, Habanera modan jarri zenetik, dena 8-8-8-8 dela, 5-5 ez egin beharrak asko zabartu gaituela harrিতa gelditzen da jendea. Eta goi mailako bertsolariek ere Ametsek edo Maialenek eten gehiagotan egiten dute huts Amurizak baino. Norbaiti irudituko zaio ez dela garrantzitsua, baina bada. Eta heziketa baten faltan galdu egingo da.

Hedapenerako teknikak bertsogintzan izan dezaketen eragina da beste gai interesgarri bat. Lekuonak aipatzen du mikroaren sarrerak eragin handia izan zuela Lazkao Txikiren kasua aipatuz.

Atzo Mendaron mikroak huts egin zuen eta Sebastianek adina ahots ateratzea lortu nuen. Horrek ze esan nahi du, mikroarekin gaudenean berak fuerte kantatzen duela eta nik ez. Mikroarekin nahiago dut suabe kantatu, batez ere bukaera iradokitzailearen bat bota nahi badut. Bukaera iradokitzaile bat ezin da mayorreko doinu batean kantatu eta errepikatu.

Lazkao Txikik asko jokatzen zuen kadentziarekin, erori eta jaiki egiten zuen ahotsarekin, eta mikrorik gabe jolas horiek ezinezkoak ziren. Ados nago, mikroak aldatu du bertsolaritza.

Telebistak mikrogestualitatea potentziatu izan duela ere komentatu izan duzu.

Esanguratsua izan zen 2013ko finalean Maialeni gertatu zitzaiona. Tentsioan zegoen eta zaletu guztiek ikusi ahal izan zuten pantaila erraldoitik. Nire ustez bere bertsoen pertzepzioan eragina izan zuen horrek, bertsoak hobekaitzak baitziren testu soil gisa pantailatik ikusita baino. Ikusten genuen ez zela erraz ari baina ondo ari zen. Hogei bat puntu galdu zituen pantailarengatik.

Bertsolaria-kazetaria harremana

90 hamarkadatik aurrera ikusten da bertsolariak ikasi egin duela bere buruaz, bere prestakuntzaz, bere bertsoeraz, bere momentuaz hitz egiten. Ikasketa prozesu hori nola izan da zure kasuan? Orokortua den fenomeno horrek mugimenduak oro har garatu duen gogoetarako eta autoanalisirako gaitasunarekin badu zerikusirik?

Esango nuke norbere jardunaren esparruan ematen den zerbait dela. Urtean 150 aldiz izan baduzu kazetari bat aurrean zure buruari planteatzen diozu zer ari zaren egiten. Beti berdina ez esateko, ez aspertzeko ere beste buelta batzuk ematen dizkiozu buruari, gauza ezberdinak probatzen dituzu...

Gero badago bertsolaritza artisautzatik artera eman den jauzia ere. Garai batean bertsolariarena artisau lan bat bezala ulertzen zen baina egun, bertsolaria bila dabilen hori gertuago dago artetik artisautzatik baino. Beti da erosoagoa artisauak garela eta tarteka perlaren bat sor dezakegula esatea, baina esango nuke eboluzioa artistaren kontzepziara gerturazten gaituen bide batetik ari dela ematen. Eta artistak buruari buelta gehiago ematen dizkio artisauak baino.

Prestakuntza prozesua modu kontzienteagoan egiten da, alegia.

Bai. Eta kontzienteagoa izatean kazetariari esplikatze ere gaitasun gehiago du bertsolariak.

Gazteagoak zuen belaunaldikoak baina zuzurrak dira kazetarietako harremanean.

Ikusi izan dut eta ondo iruditzen zait. Seguru asko beraiek egin nahi duten hori garatzeko lantze prozesuan daude eta ondo kontatzeko kapaz ez diren bitartean nahiago dute ezer ez esan.

Gero, gu gatoz ezer ez ginen garaitik, zabaldu beharra zegoen eta hedabideek eskatzen zuten edozerri baietz esaten ohiu ginen. Azken hamabost urtetan sakontzen ari dira, eta hedabideetatik eskatzen zaiona sakontzeko ez bada igual ezetz esaten dute.

Badago baietza edo ezetza erabakitzerakoan kontutan hartzen duzun kriterio jakinik?

Ez, momentuan senak esaten didanari jarraitzen diot. Batzuetan nahikoa modu arinean eskatzen dela nabaritzen dut eta horrelakoetan errazago ateratzen zait ezezkoa. Adibidez, joan naiz Euskadi Irratira kolaborazio bat egitera eta pasilloan ikusi nauen kazetari batek 'Andoni, igandean Nafarroako txapelketa da eta hitz batzuk esango dituzu txapelketaren inguruan?'. Ba harrapatu nauzu hemen pasilloan eta ez. Eta gaineratuko nioke 'nobela argitaratu nuenean ez zenidan deitu ere egin elkarrizketa bat egiteko'.

Alde handia nabaritzen da aurrean duzun kazetariak gaiaren inguruan eskarmentua izan edo ez? Zein onura dakartza kazetariaren espezializazioak?

1980tik hona dezente idatzi izan da bertsolaritza buruz, bai elkarteak egindako gogoetak, ikerketak edo baita prentsan ere. Orduan gaur egungo kazetariak bagaje hori badauka. Laxarok 77an 'Literatura oral vasca', Baserriren bi liburu eta askoz gehiago ez zuen izango bertsolaritza sakontzeko. Beraz, aukera dauka kazetariak gaia jorratzeko.

Hala ere, mailak eta mailak daude. Harrigarria da esate baterako Felix Irazustabarrena batek zenbat jakin dezakeen, eta beste batzuk nolako hutsuneak dituzten. Hau ofizioaren arteko komentario bat da, jende askoren artekoa.

Bertsolaritzaz bakarrik aritu izan den kazetaririk ez dago apenas. Beñat Zamalloa izan liteke erabat espezializaturiko kazetariaren figura horretara gehien hurbildu dena.

Muinera nik uste dut Beñat hurbildu dela. Eta bertsolariak berak.

Alde handia nabaritzen da kazetari lanetan ari dena bertsolaria denean?

Horretan oso korporatibistak gara. Bertsolari batek eskaturiko elkarrizketari beti emango diogu baiezkoa. Oholtza ganean arrisku berak konpartitu ditugu, badakigu ze lan polita eta kabroia den bertsolariarena... Horrek lotura berezi bat sortzen du.

Elkarteak komunikazio arduradunak jarri dituenetik ze aldaketa nabaritu duzue?

Modu profesional batean bideratzen da egiten den ahalegina eta honek oihartzuna handiagoa dakar medioetan. BECera aldatzea, adibidez, Joseba Kamiok proposatu zuen eta beste koska bat igotzea izan zen hura. Biharamunean esango nuke 80 bat elkarrizketa izan nituela. Astelehen goizean jaiki eta Euskadi Irratiaren unitate mugikor bat nuen etxepean. Eta egun guztia batetik bestera eman genuen elkarrizketak egiten: Zarautz-Donostia, Donostia-Bilbo, Bilbo-Donostia, Donostia-Durango... Oso oroitzapen ona utzi zidan Kamiok. Ni oso estajanovista naiz eta bera ere horrelakoa zen.

Gainerakoan kazetarietako harremana ez da asko aldatzen. Filtro lana egiten dute komunikazio arduradunek, baina Euskal Herri txiki honetan denok ezagutzen gara eta kazetariak asmatzen dute filtro hori gainditzen.

Kritikaren gabezia aipatzen da beti. Badirudi, ordea, ari dela pixkanaka bidea egiten.

Egin dira ahaleginak eta emaitzak ez dira txarrak izan beti. Ezta gutxiagorako ere. Iñaki Aurrekoetxearen kritika beti interesatuko zait niri. Edo Beñat Zamalloarena. Harkaitz Goikoetxeak asko daki, Karlos Aizpuruak ere bai. Jende dexente dago kriterioa baduena. Mejuatzen ari da.

Hala ere, ez da lan erraza. Futbolisten lana baloratzen duten kazetari espezializatuek futbolisten lanaren %80aren zuzeneko jarraipena egingo dute, edo literatur kritikari batek idazle baten lanaren %100a kontrolatu dezake, baina gu asko mugitzen gara urtean zehar, txapelketa ez da gure jardunaren %5a ere. Eta %5a bakarrik ikusita ondo asmatzea ez da erreza

Lau medio konkreturen azterketan murgildu naiz ikerketa lanean: ‘Hitzetik Hortzera’, ‘Hitza Jolas’, *Bertsolari* eta *Bertsoa.eus*. Nola baloratzen dituzu?

Hasierako *Bertsolarik* ekarri zuen bukaeran jarriak eta bat-batekoen transkripzioak zekartzan atal bat, orri horixka batzuetan. Baina aspaldi kendu zen hura eta zentzu honetan aldizkaria ezberdina da beste hiru medioetako, ez baitu bertsoa ekartzen. *Amarillistagia* zela esan izan da beti, baina niri kalitatezko eskaintza bat iruditu izan zait. Lehen zenbakian, esaterako, Sarrionaindiak idazten zuen J. M. Arrueta izenordearekin *dezima* eta *trobero*en inguruan. Urte askoan oso lan serioa egin duen argitalpen bat iruditzen zait.

‘Hitza Jolas’ faktura oneko programa bat iruditzen zait. Asko lagundu Xabier Sukia hor egoteak. Badu irizpidea eta lan on bat egiten du.

‘Hitzetik hortzera’ beste gauza bat da. Hutsunea lehen aipatu dudun funtzio hezitzaile horretan ikusten diot. Baina lan asko eta lan ona egin da hemen ere.

‘Bertsoa.eus’ erdi txiripaz hasi zela esango nuke. Irazuri txapelketa bat gaizki atera zitzaion, eta hobekuntzarako metodo gisa saioak bideoan grabatzen hasi zen. Internet martxan jartzea ere orduan hasi zen eta ikusi zuen jarri zitekeela sare horretan eta asmatu egin zuen. Elementu garrantzitsu bat da orain bertsolaritzaren hedabideratzean.

Eskutik egindako bidea

XIX. mendearen lehen erdian topatu ditut prentsan bertsolaritza jorratzen zuten prentsako hainbat testu, zaharrenak euskaraz prentsan argitaratu zen lehen testua baino goiztiarragoak. Historiako lehen euskal irratsaiora ere Joseba Zubimendi eta Ander Arzellusek 1930eko hamarraldian bertsolariak eraman ohi zituzten. Frankismoan ere euskal kulturari prentsan eskaintzen zaio leiho bakanetakoa da bertsolaritzarena... Beti egon da presente komunikabideetan.

Kanpotarrak ezagutu ditugunean eta kultura dezentetakoak ezagutu ditugu, seguru asko repentizazioak Kubak daukan protagonismoa bakarrik ezar daiteke Euskal Herrian daukanaren mailan. Telebistako programa daukate berrogei bat urte dauzkana, gureak baino gehiago.

Hala ere oso guajiroa da, oso baserritarrei zuzendua. Gureak ikuspegi modernoagoa du.

Kolonbian ez da maila horretan ematen, Mexikon, Puerto Ricon, Argentinan, Sardinian, Kanariar Irletan eta beste inon ere ez. Zergatik? Ez dakit.

Hori zen hurrengo galdera.

Hizkuntza gutxituaren kontzientzia aspalditik dago gurean. Galtzearen kulturarena. Eta agian horrek eraman izan gaitu oso aspalditik bertsolaritza bezalako fenomeno bat berri eta ez galtzen uztera.

Garai bakoitzean zeuden baldintza eta beharretara egokitzen jakin du gainera fenomenoak. Bertsolaritza foruzaleen propagandarako bitartekoa izan da herria foruzalea zen garaian, jeltzaleena gero, frankismoaren kontra hitza altxatzeko balio izan du gero...

Gerra ostean *La Voz de España* bezalako egunkari frankista bat topa daiteke bertsolari txapelketak antolatzen. Kurioso frankismoan baimendurik zegoen euskerazko kultur adierazpen bakarretariko bat bertsolaritza izatea.

Hor egon da eztabaida bat Oriok Kontxako bandera bat gehiago edo gutxiago zuten eta zarauztar batek, Xabier Alberdik, egin duen lanari esker aitortu zaio bandera hori. Frankistek gerra 1939ko apirilaren 1ean eman zuten irabazitzat eta apirilaren 10erako Kontxako estropada ospatu nahi izan zuten. Arraunlari asko udaberrian kanpora joaten zen arrantzara eta hiru tripulazio bakarrik osatu ziren, Orio, Getaria eta beste bat. Bandera horrek ‘Franco, Franco, Franco’ darama brodatu...

Irailean beharrean apirilean, gerra irabazi eta hamar egunetara estropada jokatuaztea, normaltasun itxura bat emateko helburuarekin egiten da. Bertsolaritzaren onarpenarekin ere beste hainbeste gertatu zen, 1960ko hamarraldiko txapelketak neurri handi batean Aldundietan agintzen zuten karlisten, Arrue eta abarren, parte hartzeari esker egin ahal izan ziren.

Etorkizunera begira, iruditzen zaizu egunen batean Sareak bete dezakeela urte hauetan ‘Hitzetik Hortzera’k bete duen paper hori?

Gaur gaurkoz adin tarte ezberdinak hartzen ditu batak eta besteak. Nabarmen. ‘Hitzetik hortzera’ adin batetik gorako jendeak ikusten du eta bertsoa.eus gazteagoak. Baina, jubilatutako unibertsitarioak diren garaira ari gara iristen eta pixkanaka Sareak adin guztietako erabiltzaileak izango ditu.

Gaia asko interesatzen zaionarentzat Internet egokiagoa dela iruditzen zait, produkzio osoa jaso eta eskaintzeko modua ematen baitu. Hala ere ez dut uste telebistak izan zuen zentraltasun erabateko hori hartuko duenik. Suposatzen dut biak osagarriak izango direla.

Sarea multipolarra da gainera, eta bertsolaritzaren multipolartasunaz hitz egiten da azken urteotan. Zentzu honetan fenomenoari ongi egokitzen zaio formatua.

Geroz eta bertsolari gehiago dago, eta geroz eta gehiago produzitzen da. Irratian, prentsan edo telebistan ezin da abaniko guztia eskaini, Interneten bai.

Bertsoaz gain bertsolaritzaren inguruko bestelako testuentzat ere toki egokia izan daiteke Sarea.

Bai. Dena den niri gehiago interesatzen zait Internet zabaletara baino barrurantz dagoen entziklopedia gisa. Ez dut nahi edozeinen iritzia irakurri, iritzi kualifikatuak eskura izan baizik.

Maila gutxikoa ere errazago argitaratuko da. Baina txarrari esan beharko zaio txarra dela.

Zuk ere ikusten duzu aipatzen den bertsolaritza multipolarrerako bilakaera hori?

Euskal literaturan gertatu denaren antzekoa izan da. Gaur egun, Saizarbitoria hor dago, baina Kattalin Miner ere bai. Aranbarri dago eta... Bertsoan ere sumatzen da aniztasun hori.

Bertsolariek esperimentu eta proiektu pertsonal ugari ere sortu dituzte azken urteetan.

Hala da. Dena den esperimentaziorako sukarra pixka bat jaitsi ote den nago. Esango nuke, gehiago izan zela 1990etik 2000ra bitartean. Hizkuntzaren lanketarekin esateko modu ezberdinak garatzean datza gehiago orain joerak...

Lasarten bertso talde bat eduki nuen eta galdetzen nien, 'Maialenek zer ekarri du berria?'. Denak hasten ziren feminismoa aipatzen, edo beste arteren batekin hibridatuaz burutu zuen ikuskizunen bat... Ez. Maialenen berritasuna da bere bertsoak beti gainerakoena baino lau edo bost hitz gehiago dauzkala. Trinkoa da.

Aurtengo txapelketa nagusian lehenengo aldiz bospasei hizkuntza edo kontaketa modu diferente alderatu ahal izango dira, seiak oso onak. Maialenen hitz ugaritasun hori, Ametsen joritasun sintaktikoa, Aitor Mendiluzeren joritasun 'eskaleristikoa', Elortzaren trazoak eskaintzeko daukan ahalmena, Sustrai Colinaren roletan sartzeko gaitasuna edo Beñat Gaztelumendiren euskara perfektua aditz laguntzaileekin errimak egiten dituen...

V.VI ESTITXU EIZAGIRRE. LASARTE, 2017/VII/19

Bertsolaria eta kazetaria. Argia aldizkariko zuzendaria. Urte askoan aldizkari honetan bertsolaritzaren inguruko informazioaren arduradun. 'Gari alea' bloga ere sortu zuen bertsolaritzari buruzko blogen artean ibilbide sendoena izan zuena. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa.

Bertsolaritza sarean-mapa

2003an Gari Alea izeneko bertsolaritzari buruzko bloga jarri zenuen martxan. Nondik sortu eta nola gorpuztu zen ideia?

Argian hasi berria nintzen orduan. Esango nuke oraindik ere kolaboratzaile bezala aritzen nintzela, ez nintzela plantillakoa, baina hemengo erredakzioan egiten nuen bizitza. Aldizkaria izan zen Sarean benetako lana egiten hasi zen euskarazko lehen hedabidea, Pello [Zubiria] zen orduan denetatik tiraka ibiltzen zena eta dena libre uzten zion Sarean zerbait egin nahi zuenari. Hari esan nion koaderno bat egin nahi nuela.

Orduan ere blog esango zitzaion, baina nik 'koaderno' deitzen nion. Gipuzkoako txapelketa zen urte hartan eta prestaketarako koaderno etxean zirriboratu beharrean Sarean egitea erabaki nuen: errimak landu, ariketa ezberdinak prestatu eta abar. Eta bigarren elementua zen aldizkarirako bertsolaritzari buruz idazten joaten nintzen artikulua, erreportajeak, elkarrizketak eta horrelakoak bertan pilatzen joatea.

Blog konpletoa zen: Bideo, audio eta argazkiak jasotzen zituzten atalak, bertsoaren gaurkotetasunaren jarraipena egiten zuena... Nola antolatzen zinen? Zein zen blogaren martxa?

Ez zen asko pentsaturiko gauza bat izan, alegia, ez nuen aztertu zer zen egiten zena, zer den falta zena eta nondik egin nezakeen nire bidea. Ni gehiago naiz gauzak egin, egin eta egin. Errimetan 'rra' nola eginda daukadan, bada gaur 'ta' egingo dut, eta bihar txapelketako saioaren analisi bat.

Bertsoaren sukarrak jota nenbilen eta nire burua batere behartu gabe elikatzen nuen, natural.

Kosta zitzaizun formatuari puntua harrapatzea?

Ez dut uste harrapatu nionik puntua, horregatik, ikuspegi motzekoa naizelako gauza horietan. 'Jendeak ze eskatuko luke?', 'Kanpotik zer da interesgarria?' dira galdera ohikoak baina nirea gehiago da 'Nik zer nahi dut?', bada, hortik tiratzen dut. Oso normala egingo litzaidake gaur egun, blog hori hartu eta kristoren sustoa hartzea.

Bertsolari batentzat errimen koadernoak badauka zentzu bat baina, egun, bertsoan ibili gabe eta halako lanetan ibili gabe, zer eskatuko nioke gaur egun errimategi bati? Ba seguru ez zegoela hori. Audioak entzutea interesgarria da baina konbentzituta nago jartzen nituen audioak gure entseguetakoak zirela. Bertsolari baten egunerokoa zen, bertsolari gainera kaxotx guztiekin, herriko- sasi- eta nahi dituzun aurrizkiekin: bertso-eskolako baten koaderno.

Onintza Enbeitaren 'Erpeka', Unai Elizasuren 'Gaijartzailearen aulkitik', Jon Martinen 'Sorbatza', Xabi Payaren 'Anbotoko haizorratza', Julen Zelaietaren 'Hementxe gaude'... aurreko hamarkadako bigarren erdian bertsoaren boom moduko bat eman zen, ezta? Badakizu nola piztu zen? Zein ziren aktiboenak?

Esaten dituzun horiek guztiak estilo bateko jendea da, bertso eskoletako jendea.

Zumarragako bertso-eskolak ere bazeukan.

Bai, Zumarragan oso ona zeukaten. Horiek ez dakit ez ote duten mantentzen oraindik. Horiek potenteak dira, Antxon Fernandez eta hauek. Nik uste dut serioen horiek egin dutela lana, metodo batekin, jarraikortasun batekin.

Silveirak ere bazuen bere webgune bat.

Nik uste dut gutxi gorabehera hor dauden pertsonen perfil bat betetzen dutela. Bat da bertsotan ibiltzea, bestea sare sozialetan saltseatzeko grina, kazetaritza ikasleak ere baziren batzuk... Ez dut uste bertsolari gisa profesionalki ez dakit zer ematen zielako edo salmenta puntu bezala egiten zutenik. Gehiago da saltseroa naiz batean, saltseroa naiz bestean eta orduan nire afizioa lotzen dut azkenean tresnekin. Eta egiten dut gustatzen zaidana.

Gero jaitsi eta sare sozialek ordezkatu zuten, ezta?

Esango nuke fenomeno orokortua izan zela hori, blogen olatua etorri zela lehenengo eta neurri batean hau ordezkatu egin zuen sare sozialena ondoren.

Nirea nola bukatu zen kontatuko dizut. Batetik, bertsotarako sukarra pasa egin zitzaidan eta bertsolari bezala ez neukan har hori koaderno bat elikatzeke. Bestetik, *Argiak* kanalak sortu zituen, bertsolaritzari buruzkoa ere bazegoen etiketa horrekin etiketaturiko eduki guztiekin, eta egileen bidezko bilaketa eta jarri zen martxan. Orduan nire bertsolaritzari buruzko lanen biltoki gisa funtzionatuko zuen blog bat izateak ere ez zuen zentzu handirik.

Zein litzateke egun bertsolaritzak sarean duen presentziaren mapa? Zein dira zuri interesgarrienak iruditzen zaizkizun eskaintzak?

Bertsoa.eus eta Bertsozale Elkarteak dira eragile garrantzitsuenak. Gogoratzen naiz nik bloga ireki nuenean, Irazuk planteatzen zuela bertsoaren balorea zein da?, jendeari bertsotatik zer gustatzen zaio gehien? Hau. Bada, hau nola emango dugu?. Oso ona da bera halako analisietan eta benetako muinari heltzen asmatu zuen. Egiatzko salto kualitatiboa eta ekarpena Irazuren eskutik etorri zen eta Elkarteak hori bere egiturari integratzen asmatu zuen gero.

Bertsoa jarraitzeko bertsoa.eus-era jotzen dut. Gero bertso-munduaren gaurkotasuna jarraitzeko Elkartearen webguneak ere gauza interesgarri asko dakartza.

Eta bi eragile handi horietatik haratago?

Iruditzen zait gauza asko mugitzen direla sare sozialetan, facebooken eta whatsapp taldeetan. Kazetari bezala adi egon nahi baduzu, alor hauetan ere begiratu beharra dago.

Azken urteetan hedabideen bilakaera orokorrak ekarri du hauek Internetarako eduki propioak ekoizten hastea. Berriak igotzen ditu bertsolaritzari buruzko edukiak, *Argian* ere gauza kuriosoak egiten dituzue...

Bai, egin dira gauza batzuk. *Argian* hainbat esperimentu egin dira. Eta egin diren guztiak eskaintzeko aukera behintzat ematen du Sareak. Batzuetan asmatu dugu eta txinpartak ateratzea lortu dugu. Beste batzuetan ez hainbeste eta horiek eusten saiatu arren erori egiten dira lehenago edo geroago.

Bertsolaritza sarean-potentziala

Interneten ezaugarriak aipatzerakoan multimedia, elkarreragina, berehalakotasuna, eta multipolartasuna aipatzen dira nagusiki. Bertsoa sorkuntza multimedia bat da (ahotsa, testua eta irudia ditu), berehalakoa (bat-batean sortua), interaktiboa da (gaijartzaile eta bertsolarien artean, bertsolari ezberdinen artean, bertsolarien eta publikoaren artean) eta multipolarra deitzen zion Joxerra Garziak bertsolaritzaren aldi berriari.

Horrela jarrita behintzat badirudi Interneten ezaugarriak ongi egokitzen zaizkiola bertsolaritzari. Zuk zer deritzozu?

Iruditzen zait bertsolaritzak bai duela Sarean funtzionatzeko potentziala. Asko egin daitekeela. Baina bertsolaritzan nagusi diren ulerkera batzuk dezente mugatzen gaituztela guztiok.

Dena dago bideratua puntaren puntan ibiltzeko gaitasuna izango duen bertsolariak sortzera, dena hor dago fokatua. Eta ez da gauza kontziente bat, edo inork ezartzen duena, baina bertso-eskolan, esaterako, beti gaia jarrita egingo dira ariketak, eta txapelketako edo jaialdiko formatua imitatuko da.

Ulertzen da 18 urterekin hasi eta 27 urtera bitartean badagoela hor elitera hurbiltzen asmatzeko tarte bat eta hor asmatzen ez baduzu ikusle gisa hartu beharko duzula zure tokia. Fokalizatze horren ondorioz galtzen da aukera bakoitzak bertsolaritza bizitzeko mila eredu ezberdin probatzekoa, eta Sarean ere islatzen da hori. Blogak ireki zirenetik dozena bat joan dira, belaunaldi berriak ere etorri dira baina Sarea duela dozena bat urte bezain hutsa ikusten dut zentzu honetan.

Ikuspegi zabalago bat hartuko balitz, ulertuko balitz bertsolaritza bizitza osoan zehar bizi daitekeela, mila formatu probatu daitezkeela Sarean ere beste panorama bat izango genuke.

Hala ere geroz eta bertsolari gehiago dago sare sozialetan bere istorioa kontatzen. Belaunaldi berriek asko baliatzen dituzte sare hauek.

Baina sortzen duzu Interneten? Edo egon zaren bertso-saioko argazki bat igotzen duzu? Niretzako sormena da puntuetako bat.

‘Bertsomovieda’ izan daiteke aldarrikatzen duzun eredu sortzaile horri ongi egokitzen zaion ekimen bat, ezta?

Lehiaketa hori bai saiatu dela sormena landu dadin Interneten klabeetan, ikus-entzunezkoak landuz eta parte hartzea sustatuz. Lortu du kristoren giroa sortzea, bertso eskoletan antzerkia egitea... asmatu egin dute.

Beste batzuk bertsoa sormenerako aitzakia gisa hartu dute. Esaterako, Jon Martinen ‘Zura’. Ba hori ere gustatuko zaizu gehiago edo gutxiago baina ekarpen interesgarri bat da. Edo Uxue Alberdiri Euskadi Literatur saria ekarri dion lana, besarkadari buruzko koplak, ilustratzaile baten lanarekin osatuak, sekulako bidea egin du sare sozialetan... Sarearen gakoak ulertzen dituen sormena da. Badago asmatzen duen jendea, hor terreno bat dago esploratzeko.

‘Hitzetik Hortzera’ izan da azken bi hamarkada eta erdian Bertsozale Elkartearen hedapenerako motor nagusia, energia nuklearra deitu zion bere garaian Sarasuak. Planteamendu hori egokitu beharraren lehen zantzu batzuk topa daitezke, ordea. Sarea itzala egiten hasi zaio.

Errespetu guztia diot egin den lan horri, ze iruditzen zait lan profesionala dela. Nik horretan bai aitortzen diot Elkarteari, era guztietako probak egin dituela: lantaldea berritu, era guztietako aurkezleekin probatu... sekulako lanak hartu ditu.

1990eko lehen urteetako arrakasta hori ez da berriro emango. Baina hori ez da 'Hitzetik Hortzera' ren arazoa, telebista beraren arazoa da. ETB1ean ba al dago programarik audientzia handiak dituen? Esango nuke ezetz.

Ze falta zaio 'Hitzetik Hortzera' k izan zuen paper bat betetzera iristeko?

Hasteko ez dakit helburuak 'Hitzetik Hortzera' k lortu zuen superpunch hori lortzea izan behar duen. Bestalde, formula magikorik ez dago. Nik ere ez daukat. Izango banu *Argiarekin* egingo nuen probaren bat. Alde horretatik interesgarria izan daiteke bertsoa.eus-en datuen azterketa. Internetek aukera ematen dizu segmentu jakinei dagozkien bideoak igotzekoa, eta bideo bakoitzak daukan arrakasta neurtzekoa. Eta horren arabera formulak probatzekoa...

Ez zait iruditzen hartzaileak bertsolaritzaz saturatuak daudenik. Nik uste dut falta dena dela jendea horretara jartzea inoren baimenik eskatu gabe. Burua ateratzeko, nabarmentzeko beldur handia dago euskararen mundu txiki honetan eta horrek ere baldintzatzen du Interneteko produkzioa. Jarraipena egin duen blog pertsonal bat jar daiteke martxan, astero elkarrizketa bat argitaratuko duena, edo foro bat, edo aktualitatearen jarraipena egin dut bertsoen bidez... Txapelketaz haratago ere bertsolaritza asko dagoela ikustea ere garrantzitsua litzateke eta bat-batekoaz gain jarria ere Sarean landu daitekeela planteatzea.

Gero kazetaritzatik ere ez dakit asmatzen dugun bertsolaritza nola jarraitu. Txapelketa iristean kronika egiten denok saiatu gara, edo denok lotu ditugu sinadura batzuk bere iritzia eman dezaten. Batzuetan ematen du egiten duguna dela beste epaile funtzio bat: hau ondo aritu zen, honek ez zuen bere eguna izan... Ez dakit horrek irakurlea zenbateraino ase dezakeen. Esan baduzu ez dela bere eguna esan beharko duzu zergatik. Pistak eman beharko dituzu eta abar.

Argia

1920-1930 hamarraldietan *Argia* erabat erreferentziala izan zen bertsolaritzari buruzko kazetaritzan. 1960-1970eko hamarraldietan beste hainbeste gertatu zen Zeruko *Argiarekin*. 1980tik aurrerako zikloan zein izan dira bertsolaritzaren alorrean aldizkariak egin dituen ekarpenak? Ze jende aritu da langintza horretan?

80tik hona, bertsolaritzaren arduradunik ez zegoen. Asko zebiltzan. Zaldubi ibili zen, Pello Zubiria ere bertsozalea da eta hainbat elkarrizketa egin zituen. Azken urteetan, berriz, ziurrenik ni izango naiz gaiaz gehien aritu dena.

Argiak egin duen ekarpen garrantzitsu bat hainbat hamarkadatan bertso jarriak modu jarraitu eta finko batean argitaratzea izan da. Sormenerako leiho bat zen eta jendeak aprobetxatzen zuen. Oso bertso onak argitaratu izan dira *Argiaren* orri horretan: gero Aire ahizpek eta Mikel Markezek grabatu zituzten Uxue Alberdiren bertso mundial haiek; Amets Arzallusek umeei jarriak, gero Pirritx eta Porrotxek musikatu zituztenak; Miren Amurizarenak, baita ere Pirritx eta Porrotxek hartutakoak; bere garaian Jokin Sorozabalek Olentzerori buruz idatzi zituenak, gero Mikel Markezek musikatuak; Maialen Arzallusen sorta batek ere sona izan zuen...

Duela hiru bat urte eten genuen. Dezenteko lana suposatzen zuen astero-astero orri hori betetzeak, ni ibili nintzen hainbat urtetan, baina beste gauza batzuetara jarri eta utzi egin nuen. Orditik hainbatetan esan izan didate hutsunea utzi zuela, bertso eskoletako jendeak eta jende helduak. Nik uste berriro ere martxan jartzea tokatzen zaigula.

Dezenteko arrakasta izan zuten bi proiektu sarean buruturikoak izan ziren, 2009ko txapelketaren inguruko ‘Hitzetik Hultzera’ eta 2013ko txapelketaren inguruko ‘Damutuko Zaituzte!’ webtv saioak. Nolatan animatu zineten?

Txapelketaren inguruan zerbait berezia egin nahian nenbilen ni. Agin Laburu Info7n ibilia zen komentaria lanetan, eta elkarrekin egitea erabaki genuen. Oso baliabide gutxi geuen eskura eta zorotik jotzea erabaki genuen, zerbait ganberroa egitea. Laupabost programa izan ziren, gauza oso oso txiki bat, pixka bat ‘Hitzetik Hultzera’ parodiatzen.

‘Damutuko Zaituzte!’ aurrekoak izan zuen arrakastaxoari jarraipen bat emateko ahalegina izan zen. Animatzen zenari tartea egiteko asmoa genuela zabaldu genuen eta bildu zen kuadrillak burutu zuen bere proiektua. Politia atera zitzaien.

Esperientzia positiboak izan ziren, ezta?

Positiboak baina talde txiki batentzat oso lan handia zen. Neke, aje eta desgaste handi bat utzi zigun lehen urte hartako hark, bost programa egiteak hilabeteetako lana eta hainbat gauza aparkatuta uztea eskatu bait zigun. Bigarrena beste talde batek egin zuen eta haiei ere beste hainbeste gertatu zitzaien. Izatez, ez dut uste aurten horrelako ezer egingo dugunik. Deskantsua hartuko dugu ziurrenik.

Zein da gaur egun *Argiak* bertsolaritzaren inguruan egiten duen eskaintza?

Egia esan azken aldian motz gabiltza. Berrantolatu beharra dago. Txapelketak etortzen direnean mugitzen gara, kronika batzuk ateratzen ditugu eta horraino iristen gara. Hortik aurrera kolpe txiki puntualak: elkarriketaren bat, aktualitatea, albiste txikiak... Gehiagorako ematen du eta badaukat gogoia jartzeko. Bertso-mundua badauka jendea gauza politak egingo lituzkeena eta jende hori medioetara ekartzen asmatzea izan liteke gakoia.

Kazetari lana eta eskaintza

Urteak daramatzazu *Argian* bertsolaritzaren alorra jorratzen. Zein da lan honetatik gehien gustatzen zaizuna? Eta nekezena suertatu zaizuna?

Nik gustura egin izan dut. Gainera, garai batean bertsoan zerbait ibili nintzenez bagaje horrek asko salbatzen zaitu. Azken batean kazetari batek terrenoa ezagutzen badu bidaia horri askoz probetxu gehiago aterako dio lehenengo aldiz joan denak baino.

Espezializazioa garrantzitsua da, beraz.

Bidea hori da. Bertso-munduko jendea jarri behar da lan hauetan, bide erdia egina baitaukate bai joanekorako eta baita bueltakorako ere.

Gero errespetu handia izan behar zaio lanari eta etengabe eguneratzen saiatu. Zer mugitzen den jakin behar duzu, bertsolariekin harremana izan...

Kritikaren gabezia aipatu izan da urte luzez.

Bai. Betikoa da. Oso mundu txikia da hau eta asmatu behar da gauzak esaten inor mindu gabe. Baldintza horietan norbere sinadurak oso pisu gutxi duela sentitzen du kritikariak...

Hala ere egin dira gauzak. Azkeneko Gipuzkoakoan Kepa Matxainek *Argiarako* egin zizkigunak interesgarriak iruditu zitzaizkidan, esaterako. Hor zegoen pertsona bat bere burua literaturzaletzat duena eta saioaren argazki oso bat ateratzen saiatu beharrean saio bakoitzean xehetasun bakarra seinalatzera joan zena. Gauza askori uzten zien ihes egiten baina harrapatzen zuen horri buelta asko ematen zizkion, literaturzale baten ikuspegitik oso teorizatuta eta oinarrituta zeudenak. Oso esperimentu interesgarria iruditu zitzaidan.

Bertsoa.eus, Bertsolari, ‘Hitzetik Hortzera’ eta ‘Hitza Jolas’ en inguruko iritziak ari naiz jasotzen. Nola ikusten dituzu eskaintza hauek?

Nik esango nuke bakoitzak bere funtzioa betetzen duela, positiboki baloratzen ditut. Kritikatzea oso erraza da, eta agian korporatibista geldituko da, baina esango nuke denak profesionaltasunez egindakoak direla.

‘Hitza jolas’ adibidez iruditzen zait atzean lan handia dagoela. Gustu handiaz eginda dago, mimo handiaz. Bertsolari batek egiten du eta motibazio horretatik ari dela iruditzen zait. Gero iruditzen zait nabarmen ezberdinak direla Aldairen aldia eta Sukiarena, baina biak gustatzen zaizkit. Aldaik ere mimo handiz egiten zuen. Kritikatzea erraza da, gaztea zarenean gehiago, baina sekulako lana egiten zuen hark ere... Gero iratiak badu xarma hori: kotxean zoaz edo siestan zaude eta ondo sartzen da.

Bertsoa.eus-ek ere asmatu zuen. Orain dela urte asko asmatu zuen interneten klabea zein zen eta bertsoaren klabea zein zen eta biak bateratu egin zituen. Bertsotan jendeak zer nahi du? Bertsoa bera. Orduan igo behar dena ez da horri buruzko komentario bat, igo behar dena da bertsoa. Nola? Grabatu eta ahal den azkarren. Apustu serio bat egin zuen Irazuk, inbertsio bat egin eta horretara jarri, eta erantzun ona izan zuen. Beti hor aurkitzen zenuen, oholtza inguruan grabatzen eta bertsolariek askotan aipatzen zuten: ‘Ongi etorri hemen zaudetenak eta bertsoa.com-ekoak’. Oso azkar zabaldu zen, eta gaur egun erreferentziala da.

Elkartearen apustua

Elkarteak hedabideratzeko apustu garbia egin zuen bere sorreratik. Emaitza onak eman ditu, ezta?

Bai, bai. Elkarteak sekulako lana egin du maila askotan eta oso emaitza onak eman ditu lan honek. Ongi goaz? Bai. Emozio aldetik? Izugarria da bertsolaritza. Balore aldetik? Izugarria baina hobea. Hori bizitzea ongi iruditzen zait baina gero terreno bakoitzera joaten garenean, zer hobetu daitekeen ere hausnartu beharko da. Eta ez diot ez denik hausnartzen. Diot badaudela hobetu daitezkeen gauzak.

Adibidez, Bertsozale Elkarteak ez du kode librean lan egiten. Bertsoa.eus-ek kriston lana egiten du baina guk ezin dugu bertsoa.eus-en bideo bat gurera igo. Ez da borondate txarrez izango baina guretzako konplikazio bat da. Bat da hori. Bestea da Xenpelarren kontsultatu ditzakegula bertan dauden dokumentu guztiak baina dokumentu asko ez dagoela Sarean, bertara jo behar dudala dokumentua ikustera. XXI. mendean zergatik ez dira gauzak askoz ere gehiago zabaltzen?

Erantzungo didate, arrazoiz, egile eskubideen kontua dagoela traba hauetako batzuren atzean. Baina gai horri ezin zaio irtenbide bat eman? Aspalditik bueltaka dabilen kontu bat da... Bertsolariei baimena eskatzeko protokolo bat bideratu daiteke? Batzuetan zabalkundeari beldurra ote zaion iruditzen zait, eta euskararena bezalako komunitate txiki batean zabalkundeak lehentasun bat izan beharko luke.

Gainera gaur egun edonork grabatu dezake mugikor baten bidez eta Sarera igo. Hor bai egon daiteke arrisku gehiago: egin baduzu ‘Libre’k antolatutako bertso-saio bat gaztetxe batean goizeko ez dakit zer ordutan, leku horretan kantatzen den edozein bertso kontestuz aldatuta eta facebooken jarrita, esaterako. Agian, saio batzuk momentuan bakarrik gozatzekoak izan behar dute eta antolakuntzaren aldetik adierazi behar da ezin dela grabatu...

Ez dakit. Horrelako gauza batzuk oraindik ere lantzeko daude. Eta baita bertsolaritzaren proiektio publikoarekin zerikusia duten bestelako gehiago ere.

Adibidez?

Adibidez, bertsolaritzaren historia. Aita Zavalak sekulako lana egin zuen. Zer izan zen? Pertsona bat jendeak ikusten ez zuen tokian altxor haundi bat zegoela ikusi zuena. Eta nola egin zuen? Elkarrizketak egin, ikertu eta elkarrizketa gehiago egin, guzti hori ehundaka liburutan argitaratzeko.

Barkatu bertsolariak. Konturatzen gara zuek duzuen historia aberats hori dela pertsona bakarrak idatzi duena? *Toma filtro*. Eta Xenpelar Dokumentazio Zentroan zenbat paper dagoen jasota, baina emakume bertsolarien inguruan ez dago ezer. Zergatik? Aita Zavala zen filtro horrek ez zituelako baloreen jarri.

Honekin, ez nuke Zavalaren meritua apaldu nahi. Sekulako meritua izan zuen beste inork baloratzen ez zituen bertsolari gizonezko batzuek baloratzen jakin zuelako. Baina, garaia zela edo dena dela zela, emakume bertsolarien berririk ez zuen inon jaso.

Geroztik egon da Aita Zavala bat emakumeen lanketa egin duena edo egingo duena? Eta zeri begira gaude? Zentzu horretan ikuspegi serio bat falta zaigu. Zer dago bilduta eta zer ez? Zavala hil zenetik nork hartu du historia osatzeko lan hori bere gain?

Bertsolari aldizkarian daude bilduta azken 25 urtetako gauza asko...

Ba begira... Pozten naiz. Kontua da emakume bertsolarien historia egiteko zailtasun handiak ditugula, eta historia garaikidea ere nahikoa herren ikusten dudala. Hori dena ere landu beharko litzateke...

V.VII ESTI ESTEIBAR. VILLABONA, 2017/VII/27

Eragilea. Elkartearen komunikazio arduraduna 2006tik. Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak antolatutako Euskal Kazetaritza Saria jaso zuen 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren komunikazioak.

Profesionalizazioaren ibilbidea

Komunikazio arduradun bat kontratatzen den lehen aldia 2005eko txapelketarako da, Joseba Kamio. Gero, zeu sartzen zara 2006an. Aurretik ardura hauek nola eta nork betetzen zituen iritsi izan zaizu?

Ni 2006ko irailaren 1ean hasi nintzen. Eta lanean jartzerako Elkartearen komunikazioaren martxa hartzeko behar nituen kontu guztien transmisioa egin zitzaidan, momentu hartan esku artean zuten guztia azaldu zidaten. 2006ko gogoeta martxan zegoela sartu nintzen eta Zarauzko jardunaldietan parte hartu ahal izan nuen. Hor aurrera begirako ildo garrantzitsuenen inguruko eztabaidan ere hartu ahal izan nuen parte.

Pasatu ez zidatena, eta inoiz ez naiz horretara jarri ni ere, historiko bat izan zen. Aurreko hamarkadetan egindako bidea, nor aritu ziren eta abar.

2006ko gogoeta prozesu horrek belaunaldi aldaketa batekin kointziditu zuen. Aurreko belaunaldian urte luzez talde txiki batek eraman zuen Elkartearen egunerokotasuna: Koldo Tapia, Jexux Murua, Arantxa Mariskal... Komunikazioa arlo berezi bezala 1997an uste dut hasi zela funtzionatzen. Idazkaritzari lotua zegoen eta idazkariak, Koldo Tapiak bere dedikazioaren parte bat eskaintzen zion. Batzorde horretako buru Jon Sarasua hasi zen. Interneten bidea irekitzeko lanak Koldo Tapiak eta Arantxa Mariskalek hartu zituzten beren gain. Jexux Murua, ni hasi eta gerora ere ibili zen hedabideekiko hitzarmenekin...

Badakit txapelketetan, 1990eko hamarkada erdialdetik aurrera behintzat, beti izendatzen zela komunikazio arduradunen bat. Ez dakit ze punturaino izaten zen ordaindua eta ze punturaino borondatezkoa. Bai entzun izan ditut Imanol Epeldek parte hartu izana, edo Imanol Minerrek.

Bestelako ekitaldi handietan ere zaintzen zen, noski, komunikazioa. 2003ko Kultur Artekoan, esaterako, badakit Estitxu Eizagirre, Zihara Enbeita eta Joana Mendiburu ibili zirela lan hauetan eta Kultur Atelier enpresak ere parte hartu zuela.

Ni sartu nintzenerako hedabideen alorrean gauza asko estrukturatuta zeuden, eta komunikazioan ere bazeuden gauza batzuk eginda. Ez zegoena zen profesional bat hortara dedikazio osoz. Hortik aurrera lan funtzionamendua aldatu egin dugu eta asko aldatu da komunikazio saila. Baina bazeuden zedarrirituta ardatzak.

Zu zaudenetik zein izan dira egindako ibilbidearen pausu nagusiak?

Alor ezberdinak gehiago definitu dira, bertan lanean gabiltzanok espezializatu egin gara, eta Elkarteak asko hazi da.

Komunikazio alorrean, pertsonalari dagokionean, komunikazio teknikari bat kontratatzea izan da aurrerapauso garrantzitsua. 2015eko apirilean hasi zen Amaia Goikoetxea. Beraz, Euskal Herriko Elkarteak biok ari gara komunikazioan, ni arduradun gisa eta bera teknikari.

Tarte horretan 2009ko eta 2013ko txapelketak ere izan dira. 2009ko txapelketan, txapelketaren komunikazioan aritzeko Izaskun Ellakuriaga kontratatu zen. 2013an Gontzal Agote kontratatu

zen, eta 2017korako errepikatu egin du. Eta herrialdeetako txapelketa batzuetan ere, beste hainbeste egin izan da. Honela, Gipuzkoako txapelketa Gipuzkoako Elkarteak antolatzen du eta azkenekoan, 2015ekoan, Gontzal Agote kontratatu zuen komunikazioa eramateko. Aurrekoren batean Riki Idiakenez aritu zen, eta gehiago ere ibili izan dira. Bizkaian ere normalean kontratatzen da, Maddi Ibaibarriaga aritu izan da. Araban ez da soldatapekorik ibili, Iparraldean inoiz kontratatu da baina normalean ez. Nafarroakoan Gontzal ibili izan da baita, baina beste ardura batzuk ere hartu izan ditu eta azkenengoan Ander Perez kontratatu da komunikazio lan batzuk egiteko .

Hori lanketa profesionalari, soldatapekoari, dagokionean. Borondatezko komunikazio arduradunak ere ibili izan dira herrialdeetako elkarteetako egunerokoa edota txapelketak eramaten. Araban, esaterako, azken urte hauetan Asier La Fuente eta Xabi Igoa ibili dira...

Zein izaten dira komunikazio lan profesional hauetarako bilatzen dituzuen perfilak?

Guk baloratu izan dugu horrelako lanetan eskarmentua izatea, kazetaritza eta komunikazioan nozio batzuk izatea. Eta bertsolaritzarekiko sentsibilitate bat izatea, baita. Hizkuntzak ere baloratzen ditugu. Komunikazio teknikari posturako ingelesa eskatu genuen, Kultur Arteko topaketetan edo atzerriko ikerlariekin moldatu izateko. Atzo bertan ingelesez aritu behar izan zuen kazetari batekin.

Akademikoki Kazetaritza edo Ikus-entzuneko lizentziatura izan daiteke perfil egoki bat. Humanitatea eta Komunikazioa izena duen lizentziaturako jendea ere aurkeztu izan zaigu.

Elkartean komunikazioan gabiltzan batzuk HUHEZiren Komunikazio Korporatiboko master bat egin genuen, espezializazioan sakontzeko. Bizkaiko komunikazioan aritutako Iñaki Iturriotz eta biok Elkartearen komunikazioari buruz egin genuen graduondoko lana. Jon Sarasua izan genuen gainera zuzendari, bere garaian Elkartean komunikazio ardurak izandakoa.

Igor Elortza eta Jexux Muruak ere HUHEZiko graduondoko bat egin zuten baita, Elkartean komunikazio lanak egindakoak biak. Kasu honetan Kulturgintzaren Transmisioari buruzkoa zen eta graduondoko lana bertsolaritzaren hedabideratzeaz egin zuten, Sukiarekin batera.

Hedapenerako ekoizpenean ere geroz eta gehiago sartu da Elkarteak, eta hor ere profesionalizazio bat eman da.

Bai. Batetik 'Hitzetik Hortzera'ren ekoizpenean geroz eta pisu handiagoa hartuz joan da Elkarteak. Ni sartu nintzenean Lasarteko ekoiztetxe batek estudioak eta errealizadore edo kameralariak bezalako perfil teknikoko langileak jartzen zituen. Programaren diseinua, gidoia, aurkezpen lanak eta abar hemengo jendeak egiten zuten: Felix Irazustabarrena, Martin Aramendi, Amaia Agirre... Eta gero Lankuren bidez gauzatzen zen formalki ETBrekiko harremana, kontratua Lankuren bidez egiten zen.

Orain, ordea, Elkarteko jendeak egiten du produktu osoa, hasi eta buka.

Bestetik, Interneterako eskaintza ere zabaldiaz joan da. Elkartearen irudi eta proiektu korporatiboekin loturiko webguneak edo sare sozialak Elkarteko komunikazio taldearen bidez eramaten ditugu, baina 2008tik aurrera bertsolaritzari buruzko edukiak emititzeko bertsoplaza.tv gisako kanal bat sortzea ere erabaki zen. Hor ere soldatapeko langileak hartu izan dira proiektua gauzatzeko: Jon Ansa lehenengo, Eneritz Urkola gero... Zerbait lehenagotik Irazuk bertsoa.com sortua zuen bere kasa, profesionalki horretara jarri zelarik eta denborarekin onena bi proiektuek bat egitea zela ikusi da, egun, bertsoa.eus elkarlanean lantzen dutelarik.

Hain zuzen ere aurten pausu bat gehiago eman nahi izan da egituraketa guzti honetan: lehen Sustapen sailetik eramaten ziren hedapen kontu guzti hauek baina Hedapena izeneko sail berezitu bat sortu da. ‘Hitzetik Hartzera’ eta bertsoa.eus bertatik egiten dira. Eta bi produktuen sorkuntzan parte hartzen duten zazpi profesionalak osaturiko lan taldea aritzen da horretan: Jexux Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi, bertsoa.com-etik datozenak; Felix Irazustabarrena ‘Hitzetik Hartzera’ n ibilbide luzea egindakoa; Eneritz Urkola bertso plaza.tv-n hasi, ‘Hitzetik Hartzera’ tik pasa eta orain Hedapen talde horretako eragile eta koordinatzailea dena; eta soslai teknikoago bat duten Luis Gurrutxaga, Haritz Arrizabalaga eta Gaizka Azkarate. Besteak bertso mundutik komunikazioan murgildu baziren hiru hauek komunikazioaren mundutik murgildu dira bertso larritan, kameralari, errealizadore edo editore gisa egindako lanagatik kontratatu dira.

Esan daiteke hedabide bihurtu dela Elkartea bera. Edo bere hedabideak sortu dituela.

Bai. Alde batetik funtsezkoak diren eremu batzuetan, telebista eta Internet, ez da besteen eskuetan utzi nahi izan hedapenaren muina. Hedabideek edo bestelako agenteek eskaini dezaketena errespetatuz, baita sustatuz ere ahal den neurrian, geure eskaintza izatea garrantzitsutzat jo da.

Bestalde, hedabideen eta ikus-entzunezkoen alorrek izandako bilakaerak berak ere behartu gaitu gure emisore funtzioa indartzera. Garai batean ETBk gehiago ekoizten zuen, edo bestela ekoiztetxeak kontratatzen ziren. Guzti horrek beheraka handi bat izan du, eta bestelako hedabideak ere askoz okerrago daude. Beraz, duela urte batzuk erakundeetan ez zegoen komunikaziorako eta ikus-entzunezkoetarako ekiporik, baina gaur egun edozein erakunde ertainek dauka horrelako egitura bat.

Elkartearen Hedapena ez da ‘Hitzetik Hartzera’ edo bertsoa.eus sortzera mugatzen. Hedabideak geroz lantalde txikiagoekin egiten dute lan, geroz eta gaitasun txikiagoa dute gurea bezalako fenomeno baten jarraipena behar den bezala egiteko. Ondorioz, zeuk bidali behar duzu ikus-entzunezkoa telebistara, audioa irratira edo testua prentsara.

Lanku aipatu duzu lehen. Hor ere badago bertso larritaren komunikazioarekin lotutako hainbat zerbitzuren profesionalizazioa. Argialetxe gisa funtzionatzen du, esaterako.

Ni sartu nintzenerako Lanku martxan zegoen. Txapelketen eta oro har bertso-saioen antolakuntzarako zerbitzu profesionalak eskaintzeko sortu zen enpresa bat da hau. Enpresa bat denez Elkartetik kanpo dago organikoki, eta autonomia da bere funtzionamenduan, baina Elkartearen adar bat da, nolabait, eta koordinaturik egiten dugu lan.

Lanku sustapenerako erreminta bat da, ezer baino gehiago. Normalean Elkarteko Sustapen saileko eragileak daki Lankun hartzen diren erabaki guztien berri. Baina egia da argialetxe bezala ere funtzionatzen duela, eta hori ere badela hedapena. Gero, guk Komunikazioan behar ditugun kartelak eta Txapelketarako euskarriak Lankuk egiten dizkigu. Hor ere badago bai, komunikazio lan batzuren profesionalizazioa.

Egituraketa eta funtzionamendua

Zein da Bertsozale Elkarteko Komunikazio arduradunaren lana?

Nire lana da estrategia osoa eta bisio osoa edukitzea eta horiekin bat datorren lana eragitea. Euskal Herriko Elkartearen egitura sail ezberdinetan banaturik dago batetik, eta bestetik, herrialdeek ere beren elkarteak dituzte. Barne funtzionamendu eta kohesiorako, eta kanpora begira eskaintzen ditugun mezuak koherenteak izan daitezten, denon artean irizpide eta balore

batzuk adostu behar dira eta horien arabera funtzionatu. Beraz, talde lan horren funtzionamendua eta gidaritza bideratzea tokatzen zait.

Euskal Herriko Elkartearen, esan bezala, bi langileren artean gauzatzen dugu funtzio hori. Ni eragile gisa aritzen naiz eta Amaia Goikoetxea teknikari gisa. Hasteko, Euskal Herri osorako irudi korporatiboa lantzen dugu. Horretarako bitarteko oso garrantzitsu bat Euskal Herriko Elkartearen bertsozale.eus webgunea da. Elkartearen Ikerkuntza sailari eta Elkartea parte garrantzitsu den Mintzola fundazioari lotuta dagoen mintzola.eus ere guk eramaten dugu.

Barne komunikazioa ere gure ardura da. Alor honetan erreminta garrantzitsu bat Elkartearen barne buletina da: 'Bertsozalea: Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen berripapera'. 1997tik Elkartearen bazkide guztiei banatzen zaie. Une honetan 2350 bazkide ditugu eta urtean hamar zenbaki argitaratzen ditugu. Hilabetekaria da baina udako bi hilabetetan atsedean hartzen dugu.

Hilero eskuartearen zer daukagun bazkideei ezagutaraztea da helburua. Kohesioa eta talde sentimendua indartu nahi dira eta Elkartearen lanaren ikuspegi oso bat eskaini. Gurekin elkarlanean ari diren entitateei ere bidaltzen diegu. Amaia arduratzen da koordinazioaz baina kazetari ikuspegi bat emango dion jendeari esleitzen zaio erredakzio lana, idazkera eta ikuspegi fresko baten bila. Gontzal Agote aritu izan da horretan, Beñat Gaztelumendi ere bai eta orain Maddi Ibaibarriaga ari da.

Elkartearen sail bakoitzak eta herrialdeetako Elkarteek burutzen dituzten proiektuetan komunikazio alorreko koordinazioa burutzea da egiten dugun beste lan bat. Proiektu hauek eurek exekutatzeko dituzte, eta horretarako euren komunikazio arduradunak izan ditzakete, baina estrategia osoarekin bat egin ahal izateko gure aholkularitza eta laguntza izango dute.

Bestalde, koordinazio lan horretaz haratago, etengabe ari gara erreminta bateratuak garatzen, irizpide bateratuak definitzen, estrategiak komunean jartzen eta abar. Adibidez, aurreko bazkideetza politika landu dugu: zein dira bazkide berriak erakartzeko daukagun bideak eta zein jada bazkideak direnei egiten zaizkien eskaintzak edo eskaintzen zaien tratua. Ibilbidea aztertzen dugu, bazkideetza nondik nora joan den, nola fluktuatzen duen, herrialde bakoitzean zer... Edo hizkuntza irizpideak. Normalean Elkartetik aurkezpenetarako, ekitaldietarako, webgunetarako irizpide batzuk ditugu, ibilbide bat egin da historikoki, emaitza batzuk eta besteak eman dituen. Hori aztertu eta proposamen batzuk landu ditugu aurreko, aldiro eguneratu behar baita.

Adierazpen politikaren alorrean egindakoa izan da beste lanketa bat. Atxikimendu eskaera pila bat jasotzen ditugu, izan politikoak, izan sozialak. Etortzen direnean eskaerak gure irizpideetatik aztertzen ditugu. Datuen babeserako daukagun irizpideak, egile eskubideen politika, heriotza eta omenaldietan historikoki egin izan dena.... Sarean daukagunaren errebaso bat ere bukatu berri dugu. Nola gauden webguneetan, nola gauden sare sozialetan. Eta Elkartea ezberdinek eta egitura ezberdinek Sarean dutena dena mugimendu beraren baitakoa dela ikustarazteko estetikoki zer elementu amankomun izan behar ditugun eta zein irizpiderekin lan egin zehazten aritu gara.

Egiturako sail ezberdinekin buruturiko lana aipatu duzu. Azal zenezake egitura?

Sustapena, Transmisioa, Ikerkuntza, Komunikazioa, Administrazioa eta Hedapena dira sailak. Gero genero gaiak lantzen dituen taldea ere badago, sail izaera izan gabe izaera propioa duena.

Ardatz nagusiak Sustapena, Transmisioa eta Ikerkuntza dira eta gainerakook, Komunikazioa, Administrazioa eta Hedapenak zeharkako sail gisa funtzionatzen dugu.

Sustapenak bertsogintzaren plazaratzea darama: gai jartzaileen formazioa, epaileen formazioa, bertsolariei baliabideak ematea, saioen antolaketan laguntzea. Lanku hor integratzen da, saioen edo txapelketen antolakuntzarako zerbitzuak eskainiz (argiztapena, soinua, sarrerak eta abar) eta bertsogintzaren alderdi administratiboa kubrituz (bertsolarien papeleoa, egile eskubideak eta abar). Eta Bertsolaritzarekin zerikusia duten proiektuei (bertso-musikatuak, bertsolaritzari buruzko liburua eta abar) ere eskaintzen die bere azpiegitura.

Orain arte 'Hitzetik Hortzera', bertsoa.eus, grabazioak, hedabideei eman beharreko zerbitzuak eta hedapen estrategia ere Sustapenaren ardura ziren, baina, esan bezala, 2017ko urtariletik sail autonomo gisa funtzionatzen hasi den Hedapenak daramatza orain horiek guztiak.

Transmisio sailaren bidez hezkuntza arautuan bertsolaritzari buruzko klaseak emateko sarea osatzen da, eta baita hezkuntza araututik kanpoko bertso eskolen sarea ere. Soldatapeko hogeita hamabost irakasle dauzkagu hezkuntza arauturako zerbitzu hori eskaintzen, herrialdeetako Elkarteetatik akordioak egiten dira Udaletxeekin eta ikastetxeekin, ikas-materiala sortzen da...

Ikerkuntza sailak, berriz, bertsolaritzaren ikerketa bultzatzen du. Horretarako Mintzola fundazioaren baitan txertaturik dago Elkartea, eta Mikel Laboa katedra bezalako egitasmoetan ere parte hartzen du. Xenpelar Dokumentazio Zentruaren zerbitzua eskaintzen zaie ikerlariei, ikerlarien arteko topaketak bultzatzen dira. Bertsolaritzaren inguruko gogoeta garatzeko Bertsolamintza bezalako jardunaldiak antolatzen dira. Kantu inprobisatuak munduan zehar dituen gisako fenomenoetako sortzaile eta adituekin topaketak antolatzen dira...

Sail bakoitzak Batzorde bat du. Batzorde horretan herrialdeetako Elkarteetan sail horri dagozkion ardurak dituen kide bana egon ohi da. Horrela Elkarte bakoitzaren gorabeheren berri dugu Euskal Herrikoan eta Euskal Herrikoaren berri dute herrialdeetakoetan. Soldatapeko eragile batek eta borondatezko arduradunak koordinatzen dute batzorde bakoitza. Honela, Sustapenean Jon Agirresarobe da eragilea eta Jone Uria arduraduna, Ikerkuntza Karlos Aizpurua eragilea eta Beñat Gaztelumendi arduraduna... Batzorde horien bilerak dira Elkartearen funtzionamenduaren oinarria.

Komunikazio sailak hiru sail nagusi horiekin egin beharko du. Horrek, praktikan zer suposatzen du?

Komunikazio sailetik bi mailatan txertatzen dugu gure lanetan Elkartearen funtzionamenduan. Batetik, bisio orokorra partekatzeko bilerak daude eta bestetik, proiektu ingurukoak.

Lehen maila horren lanketa hainbat batzordetan burutzen da: Batetik, hilean behin biltzen den Zuzendaritza Batzordea dago, lan ildo nagusiak ezartzen dituena; bestetik, Koordinazio Batzordea eragile guztiak bildu, elkarren berri izan eta Euskal Herri mailako proiektuak adosteko baliatzen dena; Kudeaketa Batzordean Koordinazio Batzordea eta herrialdeetako eragileak sintonian jarri eta proiektu handienen lehen pausuak zirriborrotzen dituena; eta, azkenik, Batzorde Ttikia deitzen dioguna ere biltzen da tarteka, Zuzendaritza osoa bildu artean honi dagozkion eremuko lanketak burutzeko.

Bilera horietan guztietan egotea tokatzen zait. Eta guztietan komunikazioari dagokion ikuspegia txertatu, adostu eta lantzea.

Gero bigarren maila hori ere badago. Proiektu jakinen inguruan eratzen diren taldeekin burutu beharreko lanketa. Adibidez, 2017ko Txapelketa Nagusia antolatzeko talde bat eratu da, eta talde horretan komunikaziotik Amaia, Gontzal eta hiruok hartzen dugu parte. Guk horra

komunikazio gaiak landuta eraman behar ditugu: Txapelketako irudia, sintonia, aurkezpen ekitaldiak, prentsaurrekoak...

Eta taldeetako kide iraunkor izan gabe ere hartzen dugu parte proiektu konkretuetan.

Etengabeko elkarlana da, beraz, egiteko modua.

Bai. Adibide bat. Transmisioetik eskatzen da proiektu baten komunikazioa lantzeko, eta aipatzen digute bideo bat zabaldu nahiko luketela. Komunikazioa eta Hedapena elkartzen gara eta planteamendu orokorra adosten dugu, Hedapenekoek bideoa ekoizten dute, horretarako Xenpelarrekoek pasatako materiala erabiliz, eta bukatutakoan Transmisioari ez ezik Xenpelarri ere pasatzen zaio artxibatu dezan. Aurrerago agian Ikerkuntzak eskatuko dio Xenpelarri, ikerlarien esku jartzeko.

Beste bat. Iaz antolatu genituen 'Europa bat-batean' kultur artekoetan sail guztiek hartu zuten parte. Topaketen antolaketa orokorra Ikerkuntzaren esku zegoen, baina bat bateko saioak ere egon ziren eta hori Sustapenaren ardura izan zen, hitzaldiren bat Transmisioetik proposatu eta lotu zen, eta guztiaren komunikazioan Komunikazioa eta Hedapena aritu ginen.

Erreza suertatzen da elkarlan hori? Baloratzen da komunikaziotik egiten den ekarpena?

Denbora behar izan da errutina guzti hauek sortzeko. Bestalde, kristoren lan pila egiten dugu Komunikaziotik baina askotan ez da produktu zehatz baten ekoizpena izaten. Gehienetan zerbait kontzeptualagoa da, edo koordinazio eta harmonizazio funtzioak dira... Eta hori ikustea konplikatuagoa izaten da.

Esango nuke kostatzen dela Elkartean komunikazioak nola funtzionatzen duen, baina borondaterik onenarekin egin izan dut topo beti eta ari gara bidea egiten.

Zeintzuk osatzen duzue Komunikazio saila?

Batzordea elkartzen dugunean herrialde bakoitzeko Elkartean komunikazioaren ardura duena etorri ohi da, izan soldatapekoa edota borondatezkoa, eta halakorik balego txapelketetako komunikazio arduradunak. Lankuko norbait ere etorri ohi da, Xenpelar Dokumentazio Zentrotik Oihana Aranburu, kazetaritza egindakoa eta komunikazio kontuetarako sentsibilitate bat baduena, eta Euskal Herriko Elkartearen koordinatzailea, Aritz Zerain. Hedapenetik Eneritz Urkola etorri ohi da, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan saileko jende gehiagorekin.

Ez daukagu gainerako sailek bezala borondatezko arduradunik. Arduraduna eta eragilea, bi funtzioak nik betetzen ditut. Eta Amaia ere etorri ohi da Batzordera.

Harremanik estuena Hedapenarekin izango duzue, ezta?

Astelehenero euren erredakzio batzordeko bileran egoten gara. Planteatu dezakegu, esaterako, aste horretan Elkarrekin prentsaurreko bat egin nahi duela. Etorriko zarete? Nola grabatuko dugu? Noiz igoko duzue? Noiz pasako diguzue material hori hedabideetara pasatzeko?

Sinkronizatuta lan egin behar dugu, guk manejatzen ditugun webguneetan eta euren eskaintzaren artean distortsiorik ez egoteko eta sinergiak aprobetxatzeko. Euren edukien berri ematen dugu guk bertsozale.eus-en edo boletinean, edo gure sare sozialean edo newsletterrean. Eurak edukiak Elkartearen behar komunikatiboen arabera moldatzen dituzte, bestalde.

Beraz, erredakzio batzordean agenda bateratu bat osatzen da, Komunikaziotik finkatzen den estrategiari eta Hedapenaren beharrezkoen arabera, eta herrialdeetako komunikazio arduradunei ere zabaltzen zaie, aldi berean, euren ekimenak ere bertan barneratuz.

Gero euren proiektu zehatzetan ere parte hartzen dugu. Bertsoa.eus-en berrikuntzan, adibidez, Komunikazio sailaren lana izan da estetika lantzea eta eduki informatiboa perfilatzea. Horretarako lan talde bat sortu dugu, deialdi bat eginez. Beñat Gaztelumendi, Eneritz Urkolak, Oihana Aranburu Xenpelarrekoa, Amaia Goikoetxea, beste bi lagun eta neuk osatu dugu.

Hedapen taldea arduratzen da hedabideei ikus-entzunezkoen zerbitzua eskaintzeaz eta Komunikazio saila Elkartearen zein berak antolatutako ekimenen komunikazioaz, hedabideekin etengabeko hartu emanean Elkartearen eta honek antolatutako guztiaren berri emateaz. Elkarlana ezinbestekoa da.

Zein dira Bertsozale Elkartearen komunikazioaren estiloaren ezaugarri nagusiak?

Aurrera eramandako proiektuen bitartez ematen dugu Elkartearen eta honek bere baitan dituen helburu eta balioen berri. Hor ez dago marketing ariketa konplikaturik, egiten duguna da gauzak egin, ondo egin ahal dela eta egindakoa komunikatu. Zentzu horretan nahikoa soilak gara, bere hogeita hamar urteko ibilbidean dezenteko sinesgarritasuna pilatu du Elkartearak, eta ildo beretik jarraitzen saiatzen gara, artifizio ikaragarriak eraikitzen ibili gabe.

Gure estilo nagusia elkarlana da, bai proiektuak gauzatzekoan zein hedabideekin harremanetan. Publizitatean inbertitzeko dirurik ez daukagunez publizitate akordioak ere trukean eta elkarlanean oinarrituta egiten dira. Bai saiatzen gara, borondatezko lanak mugimenduan duen pisua bistaratzeko, gure bozeramaleak, kanpora begira aurpegia ematen dutenak borondatezko jendea izatea. Eta epe luzeko eta ertaineko prestigioa lehenesten ditugu, epe motzeko aparaldi ikusgarria baino.

Norbait berria etorri izan denean, esaterako txapelketaren inguruan komunikazioan lan egitera, saiatzen gara hori argi uzten. Ideia fresko eta oso onak eduki ditzake, baina ordaindutako publizitatean oinarrituriko marketing estrategia batera bideratzen bada hori, ez digu balio.

Hedabideratze apustua eta hedabideekiko harremana

Elkartearak bere sorreratik hedabideratzearen aldeko apustu garbia izan du. Zein puntutan aurkitzen da apustu hori 2000ko hamarkadaren erdialdetik lekukoa hartu zenuten belaunaldikoon artean?

Aurrekoek markatutako ildotik segi dugu. Elkartearen egiteko garrantzitsuenetako bat da bertsolaritzak hedabideetan duen presentzia bermatzearena. Gero, Elkartearen ibilbide guztian zehar gertatu den bezala, ñabardura garrantzitsu batzuk ere egiten ditugu: ez du balio edozein modutan egitea. Ez dugu jendea aspertu behar, presentzia hori dosifikatu egin behar dugu.

Bide horri jarraitu zaio eta esango nuke lan on bat egin dela: ‘Hitzetik Hortzera’n emititzen zenarekiko eskua izan nahi izan du historikoki Elkartearak eta gaur da eguna osorik Elkartearak ekoizten duela; garai berrietara egokitzeko Sarean murgildu beharra aipatzen zen eta presentzia garrantzitsu bat lortu da, eduki propio mordo bat eskaintzen delarik; hedabideekiko elkarlanak ere garapen on bat izan du...

Zein lirateke aurreko belaunaldiarekiko diferentziarik nabarmenenak?

Gogoan daukat 2006ko gogoeta haietan kazetarien iritzia ere jaso zela eta Elkartea hermetikoa zela esaten zutela. Gehiago komunikatu behar zuenaren iritzia aipatzen zen dezentek. Esango nuke, hori modu jarraituan profesionalik ez egotearen ondorio bat baino ez zela. Ni nagoenetik ez da horrelako kritikarik izan eta harreman onak ditugu hedabideekin.

Beste kontu bat da barruko krisi eta gogoeten berri zenbateraino eman behar dugun. Kontu delikatuak izaten dira, ez dut uste gizartearentzat edo hedabideentzat bereziki interesgarriak izan daitezkeenik, eta asko neurtzen dugu kontu horien berri zenbat eta nola eman. Hotik aurrera, komunikatu behar duen horretan, Elkarteak erabat irekia da hedabideekin.

Komunikazioaz haratago, ikuspegi orokorrago batetik, jada azaldu dugun profesionalizazioa izan daiteke azken hamarkada eta erdiko aldaketarik garrantzitsuena. Profesionalizazio horrek edukiak zuzenean geuk landu eta emititzeko askoz ere gaitasun handiagoa eman digu, eta honek, bertsolaritzaren proiektio publikoaren kontrol zuzenago bat dakar. Oso interesgarria da hori Elkarteak bertsolaritza nahi duen bezala garatu ahal izateko.

Internet ere bada elementu berri bat aurreko belaunaldiarekiko. Haiek hasi zuten bidea, baina pausurik gehienak azken hamarkada eta erdian eman dira.

Gehiegi kontrolatzea ere ez ote da kaltegarria izango.

Ez da gure asmoa ere. Badakigu eremu publikoan bertsolaritzaz ateratzen den guztia Elkarteak egindakoa izatea kaltegarria litzatekeela.

Elkarteak erakunde handi bat da, kontsentsu bidez funtzionatzen duena. Bertso-munduak behar ditu bertsolaritzaren tratamendurako ikuspuntu eta estilo pertsonalak, iritzi ez kontsentsuatuak edota eztabaida irekiak ere. *Bertsolari* bezalako proiektu txiki eta autonomo batek, esaterako, geuk baino errazago eta freskotasun gehiagoz azaleratu ditzake horiek guztiak. Bestalde Elkarteak ezin ditu gauza arinak egin, erakunde serio bat delako, eta gauza arinak ere behar ditu bertsolaritzak.

Alde horretatik, Elkartetik kanpo egiten den bertsolaritzaren inguruko hedapen eta komunikazio lanari ere erraztasun guztiak ematen saiatzen gara.

Horrek ez du esan nahi Elkarteari edozer eskatu eta baietz esango duenik. Adibidez, txapelketa garaian epailetzaren inguruan mahainguru bat planteatzen digu hedabide batek, eta gure bidez egin nahi du epailetzan dabilzanekin kontaktua. Guk badakigu harreman delikatu dela une horretan epailetzen ari direnen eta epaituak izaten ari direnen artekoa, hanka sartu eta zauriren bat eragitea erreza dela. Hortaz, hedabideari aholkatuko diogu une horretan epailetzan dabilzanekin beharrean aurretik ibilitakoekin osatzeko mahainguru hori, eta horretarako bai pasako dizkiogu kontaktuak.

Edo laguntza eskatzen bazaigu txapelketa bai vs. txapelketa ez mahainguru bat antolatzeko ba ezetz esango diogu hedabide horri, une horretan ez zaigula interesatzen. Dena den hedabide hori libre da bere kasa nahi duena antolatzeko. Guk ez dugu bertsolaritzaren komunikazioa zuzentzen, Elkartearena baizik. Kazetaria abila bada handik edo hemendik lortuko du saltsa zapoetsuren bat.

Zein puntutaraino egiten duzue kazetari eta bertsolarien arteko bitartekotza?

Abeslariak, aktoreak eta abar managerra izaten dute zenbaitetan. Guk ez dugu management funtzio hori egiten. Gurea ez da bertsolari jakinen komunikazio lana, Elkartearen proiektuena baizik. Bertso Eguna baldin bada eta horren harira, elkarriketa bat gestionatu behar bada guk bideratzen dugu. Elkarteak sustaturiko proiektu bat baldin bada, Txapelketa, Bertso Eguna, udalekuak... hor bai jartzen gara topera bitartekari lanetan.

Txapelketan, adibidez, filtro lan bat ere burutzen dugu, sekulako erauntsia izaten delako hedabideen aldetik, eta bertsolariak oso barne prozesuetan eta prestakuntza lanetan zentratu egin nahi izaten dutelako. Honela, finalera bidean kargak eta protagonismoak banatzen

saiatzen gara, bertsolari ezberdinak azal daitezten, finalista guztiak azal daitezten eta abar. Eta txapeldunaren biharamuna ere geuk kudeatzen dugu. 2005ean komunikabide batetik bestera ibili behar izan zuen txapeldunak, eta hori beharrean eskariak aurretik hartu txapelduna toki batean kokatu eta hedabideak etorrarazten ditugu. 2009an Maialenekin [Lujanbio] Hernanin jarri genien hitzordoa eta 2013an Ametsekin [Arzallus] Hendaian. Hurrengo egunean eta hurrengoetan ere txapeldunaren ondoan egoten gara behar duenerako. Post-parto moduko batean egoten dira normalean, eta behar dute laguntza hori.

Txapelketa oso tresna indartsua da mediatikoki, sekulako hauspoa izaten da mugimenduarentzat, baina pertsona bat ere badago hor, eta irizpideak berak markatzen ditu. Eskaini diren elkarrizketak planteatzen zaizkio eta txapelduna da bai ala ez erabakitzen duena?

Hortik aurrera, eguneroko martxan, askoz gehiago ez. Ez bada hedabideari kontaktua pasatzea, bertsolariak hala nahi badu. Zenbaitetan, hedabidearekin daukagun hitzarmenaren arabera, emaila pasako diogu, eta beste batzuetan baita telefonoa ere.

Egiten duzue bertsolariari arreta eskaintzen duten medioen jarraipena? Zein da mapa?

Xenpelar Dokumentazio Zentroan dena jasotzen da, eta adi egoten gara.

Irratian Xiberoko Botzak ‘Punttuka’ irratsaioa egiten du Xan Alkatek. Iparraldeko lau euskal irratietan zabaltzen da eta gero Arrosa sarearen bidez baita bestelako tokiko irrati batzuetan ere. Radio Vitorian ‘Errota’ egiten du Beñat Zamalloak Arabako Elkartarekin eta gurekin elkarlanean. Hala Bedin ‘Bertxoko’ egin izan da, bertsoa eta umorea uztartuz, eta Arabako Elkartarekin lankidetzan baita. Ez dakit jarraitzen duen. Bilbo Hiria irratian ‘Potxo’ irratsaioa eskaini dute. Bizkaia irratian umeek egiten dute ‘Zortziko Txikia’ irratsaioa, oso aspalditik datorrena. Euskaldi Irratian ‘Hitza Jolas’ Xabier Sukiak. Garai batean astean bitan zein baina orain astean behin. Xorroxin irratian Julen Zelaietak ‘Bertsoinka’ saioa eskaintzen du. Tolosaldeko Atarian Ari Naizela bertako bertso-eskolak ekoizturiko irratsaio bat eskaintzen dute, Imanol Artola da gidaria...

Telebistan ETBn ‘Hitzetik Hortzera’z txapelketaren jarraipen berezia egingo duen ‘Aulki Jokoa’ programa aurkeztuko dugu aurki. Hamaika telebistak ‘Bat-Batean’ saioa eskaintzen du Beñat Garzia, Joxerraren semea, gidari duela. Guk zerbitzatutako bideoak eta beraiek ekoiztutako batzuk tartekatzen dituzte... Tokiko telebistetan badaude beste batzuk ere...

Prentsan *Deian* eta jarraipen handia egiten digute *Ortzadar* gehigarrian, *Berrian* zer esanik ez, *Garan*, *El Diario Vascon*, tokiko aldizkarietan eta abar.

Hedabidetan kasu asko egiten digute, ez daukagu kexatzeko motiborik.

Akordioak dituzue zenbait hedabiderekin.

Urte osorako akordioak izaten dira. Telebistan, esaterako, ETBrekin eta Hamaika telebistarekin akordio bana daukagu. ETBn guk egiten dugu programa, ‘Hitzetik hortzera’, eta hor daude egile eskubideak eta diru transakzio bat. Hamaika Telebistan, aldiz, grabazio trukea da tratua.

Irratian, berriz, Euskadi Irratiarekin, Xorroxinekin, Hala Bedirekin, Radio Vitoriarekin eta Bilbo Hiriarekin daukagu hitzarmenak. Batzuetan guk zerbitzatzen ditugu bertsoaldiak eta kobratu egiten dugu, eta beste batzuetan trukea da. Bigarren kasu honetan hedabideak bere inguruko saioetako grabazioak eskaintzen dizkigu.

Krisi bolada bat egon da eta ezinean ikusi izan ditugu hedabide asko, txikienak batez ere, baina orain ilusioa eta gogoarekin ikusten ditut. Hedapenekoak bertso-eskola dinamikoek eskualdeko irrati edo webguneekin kolaboratzeko bidea ari dira egiten. Adibidez, orain,

Tolosaldeko Atariarekin hitzarmen bat egin dugu, Tolosako bertso-eskola eta Elkartek irratsaio bat egin ahal izateko. Ikusten dugu bide bat hori dela. Gu tokian tokiko eragileak bultzatzen ibili beharrean, bertso eskolei bide hori egiteko erraztasunak ematea.

Hedabideratzearen arriskuen inguruan gogoeta asko egin zen 1990eko hamarraldian. Orain ez da horrelako kezkarik nabaritzen. Zein puntutaraino jorratzen duzue?

Bertsolaritza hedabideratzeko ez daukagu horrelako kezkarik. Elkartearen proiektuen berri zabaltzen dugu eta listo. Kezka gehiago sortzen du bertsogintzaren hedabideratzeak, eta bereziki telebistaren bidez egiten denak.

Egia da garai batean alarmak piztu zirela eta orain ez dela hori egoera. Baina lantzen da alor hori. Sustapenak egin izan du azken urteetan eta orain Hedapen sailaren ardura da. Irizpide batzuk dauzkate markatuta bertsogintza hedabideetan nola eman finkatzen dutenak.

Hedabideek testuingurua emateko zailtasunak dituzte eta zenbait bertsok bere testuingurutik at zentzua galtzen dute. Hori saihesten saiatzen dira, esaterako. Honenbestez, saioak ez dira bere horretan eskaintzen, ez badira txapelketen inguruko zuzeneko emanaldiak. Saio bera etengabe errepikatzea ere saihestu nahi izaten da, emisio kopuruak adostu edo mugatuz.

Zaindu beharrekoak dira kontu horiek.

Sarea

Sarean egindakoa da azken urteotan komunikazio prozesuetan Elkartek buruturiko ekarpen berritzaileena. Elkartearen webguneei dagokionean, esaterako, zein da ibilbide horren kronologia?

Euskal Herriko Elkartearen webgune korporatiboa, orain bertsozale.eus dena 2001ean jarri zen martxan eta 2005ean nahiz 2013an goitik behera berritu zen.

Kanal tematikoak, orain bertsoa.eus denak, 2006an eman zituen bere lehen pausuak eta 2008, 2010 eta 2017an berritu da.

Lankuren webgunea sortu zen hurrena, 2009an, eta 2016an berritu zen. Mintzola.eus ere 2009an sortu eta 2016an berritu zen. Bertsozale.eus-en ondotik hau da webgune korporatibo garrantzitsuena, Mintzola Fundazioak ikerketa eta kultur-artekotasunaz sustatzen dituen proiektuen erakusleihoa. Eta bertsozale.eus ere, sarrerak Sarean erosteko erreminta, 2009koa da baita. 2017an berritu da.

Sortu genuen hurrengoa bdb.bertsozale.eus izan zen, 2011 urtean. Bertsolaritzaren datu basea da hau, Xenpelar Dokumentazio Zentroak jaso eta atonduriko edukiak eskaintzen dituena.

Eta martxan jartzen azkena, bertsoeskolak.eus izan da, 2012an.

Kuriosoa suertatzen da, sorrerarako eta berrikuntzetarako datak askotan Euskal Herriko txapelketarekin kointziditzea: 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017. Ez da kasualitate hutsa izango.

Ez, noski. Txapelketek beharizan berriak eragiten dituzte. Diru ekarpen bat ere izaten Euskal Herriakoa, bestela ez da dirulaguntza handirik izaten gauza hauetarako, eta inbertsio aukera orduan izaten dugu. Txapelketak nahikoa lan ematen du eta estra bat izaten dira baina horrela tokatzen da.

Zein da webgune hauetako bakoitzaren ekarpena? Zeinek elikatzen ditu? Oinarrizkoena.

Bertsozale.eus da Elkartearen eta bere proiektuen komunikazioa egiteko tresna garrantzitsuena. Euskal Herriko Elkartearen Komunikaziotik egiten dugu gehiena, baina herrialdeetako Elkarteen webguneak ere bertan txertaturik daude eta horiek eurek elikatzen dituzte.

Denetarik eskaintzen da bertan. Baita asteroko berriekin bidaltzen dugun newsletterrera harpidetzeko aukera ere. Edota txapelketa bakoitzari dagozkion azpi atalak ere bertan garatu eta eskaintzen dira.

Bertsoa.eus Hedapen sailak elikatzen du, nahiz eta Komunikaziotik berrikuntzan, diseinuan eta abar parte hartu. Plazetako produkzioa eta bertsolaritza nahiz bertsogintzaren inguruan dagoen edozein albiste, izan Elkartearen zerbait edo ez, eskaintzen dute.

Lanku.eus Lankuk bere zerbitzuen berri emateko daukan ataria da. Beraiek elikatzen dute.

Mintzola.eus geuk eramaten dugu, Euskal Herriko Komunikaziotik. Fundazioaren komunikazio korporatiboa egiten da, eta bertsolaritzaren ikerketa jorratzen duen ‘Bertsolaritzaren Ikertegia’ atala (Ikerkuntza plana, abian dauden ikerketak, ikerketa kontratu eta sariak eta abar), ahozkotasanarekin zerikusia duten beste alorrekin burutzen den elkarlana azaltzen duen ‘Ahozko Elkargunea’ atala (Ahoa Bete Hots jardunaldiak, XDZ jardunaldiak, Antzerkigintzarekin burutzen ari den egitasmoa...) eta ‘Kulturarte’ atala (jardunaldiak, mapa, liburutegia, dokumentalak) eskaini.

Bertosarrerak.eus, esan bezala sarrerak Saretik erosteko erreminta, Administrazioaren eta Komunikazioaren artean eramaten dugu.

BDB.bertsozale.eus Xenpelarrek kudeatzen du. Lehen bertsozale.eus-en barruan zegoen eta elkarlanean egiten genuen baina orain diseinu irizpideak baino ez ditugu ematen. Agenda, bertsolaritzari ekarpenen bat egindakoen biografiak, doinutegia eta liburutegia eskaintzen ditu.

Azkenik bertsoeskola.eus bertso-eskolak dinamizatzeko helburuarekin jarri zen martxan. Bertso eskolen mapa bat dauka, bertso eskoletan erabiltzeko erremintak eta abar eskaintzen ditu. Transmisio sailak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak elikatzen dute.

Hurrengo pausoa seguruasko hurrengo urtean transmisiorako komunikaziorako sarean daukagun eskaintza berrikustea izango da. Ikusten ari gara transmisiorako baliabide gehiago jarri behar ditugula sarean. Hezkuntza jada digitalean egiten da lanik gehiena eta bertso eskoletan material faltan daude.

Etengabeko gogoeta eta berrikuspina eskatzen du webguneetan daukagun eskaintzak.

Zein da sare sozialetan daukazuen eskaintza?

Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube astintzen ditugu. Herrialdeetako Elkarte bakoitzak ditu bere perfilak, baita Euskal Herrikoak ere. Euskal Herriko Komunikaziotik azken hauek eramaten ditugu eta baita herrialdeetakoak harmonizatzeko irizpide komun batzuk ezarri.

Berriena Instagram da. Bizkaiak eta Gipuzkoak daukate aktibo eta Euskal Herrikoa aktibatzean.

Lankuk ere baditu bereak eta Mintzolak ere bai. ‘Hitzetik Hortzerak’ facebook orria dauka eta bertsoa.eus-ek facebook eta twitter.

Proiektu konkretuen inguruan ez ditugu sortzen. 2009ko txapelketan bai zabaldu genituen, baina gero konturatu ginen txapelketa bukatutakoan hor gelditzen zirela eta ez zuela itxura onik ematen.

Zein dira trafikoaren inguruan dituzuen datuak?

Azken urteetan denboraldika jaso ditugu. Bertsozale.eus-en iazkoan 70.000 erabiltzaile inguru izan genituen. Aurten, txapelketa urtea izanda, askoz gehiago izango dira. Bikoitza agian. Eta sare sozialei dagokienean facebooken 6.500 jarraitzaile inguru ditugu eta twitterren 4.000tik.

Gainerako webgune eta sare sozialenak ere pasako dizkizut, baina buruz ez nituzke bota nahi.

Elkartearen eskaintzatik haratago ze puntutarainoko mugimendua ikusten duzue?

Bertsolari aldizkariaren webgunea. *Bertsomovieda* ere interesgarria da. Albeko bertso-eskolakoak, Algortakoak daukan webgunea. Autonomia eta dinamismo handia duen bertso-eskola bat da hau... Azpeitiako Uztarriaren webgunean txertaturik Erriarrantz bertso-eskolak ere badu berea. Jaurlaritzaren Kulturklik atariak ere jarraipen handia egiten dio bertsolariari. Euskal Kultur Erakundearen webgunean atal bat eskaintzen zaio eta guk bidalitako edukiak nahiz eurek landurikoak igotzen dituzte. Bizkaia atariak jarraipen handia egiten digu eta tarteka elkarrizketa batzuk ekoizten dituzte. Nontzeberrik ere jarraipen handia egiten dio bertsolariari. ETBk 'Hitzetik Hortzera' dauka Nahieran eta bertsolariari buruz lantzen dituzten bestelakoak ere horra igotzen dituzte. Etxepare Institutuak ere badauka zerbait...

Hauk guztiek sare sozialetan ere funtzionatzen dute, eta gero badaude bertsolariak sare sozialetan modu pertsonalean oso aktiboak direnak. Garai batean gehiago ziren blogak, bertsolariaren zentratuagoak, eta orain gehiago dira twitter nahiz facebook, bertsolariaren bestelako interesak ere agertzera bideratuak. Igor Elortza, Josu Goiko, Zihara Enbeita... oso aktiboak dira.

Txapelketa

Zenbaterainokoa da, komunikazioari dagokionez, txapelketaren garrantzia?

Mediatikoki botere handia ematen digu. Euskal hedabide guztietan gaude eta erdal hedabideek ere kasu egiten digute. Leihotxo bat irekitzen digute eta elkarrizketa bat egiten digute. Momentua aprobetxatzen dugu elkartearen berri eta proiektuaren berri emateko. Bertsolariaren urrutiko egiten zaien horientzat ere gerturatzeko ahalegina egiten da. Eta Elkartearen sostengu ekonomikorako ere iturri oso garrantzitsu bat izaten da.

Elkartearen proiektua izeberg bat balitz txapelketa izebergaren punta litzateke. Jauzi handia egiten dute bai bertsolariak, bai epaileak, bai gai jartzaileak, energia berezi bat sortzen da eta horrek mediatikoki eragin bat izaten du. Gero, egia da kulturalki lau hilabetetan gertatzen den kultur ekimen oso garrantzitsua izaten dela eta hedabideek ere ez dutela bazterrean gelditu nahi izaten. Bestelako entitateak ere gerturatu ohi dira, ikusgarritasun hori baliatuz, babesle gisa.

Zenbat denbora eskatzen du horrelako ekitaldi baten antolakuntzak?

Normalean urte eta erdi lehenago hasi izan gara. Aurtengoan zerbait beranduago hasi ginen, iazko iraila-urrian, udan Kulturartekoa izan genuelako eta lan handia eskatu zigulako.

Zein dira ibilbide luze horretako fase ezberdinak?

Iazko udazkenean lehenengoa taldea egitea izan zen. Gero komunikazio plana egin zen: egin beharko diren lanen zerrenda, hauen hurrenkera, banaketa eta kronologia bat.

Zerrenda horren baitan eman nahi dugun irudia erabakitzea da lehenengoa. Aurreko txapelketako ildoari jarraituko zaion edo ez. Adibidez, 2013an soiltasunaren aldeko apustua egin nahi izan genuen. 2005ean eta 2009an lelo bat izan zuten txapelketek eta honen inguruko diskurtso bat. Herrialdeetakoetan ere egin izan da. Bada, 2013an erabaki genuen ez genuela mediatizatuko ez dakit zerri buruz hitz eginda baizik eta fokoa nahi genuela jarri bertsolariek egiten zuten ekarpenean. Eta 2017korako erabaki da 2013ko ildo horretatik jarraitzea.

Behin filosofia horretan kokatuta txapelketa jantziko duten irudiaren eta sintoniaren garapenarekin hasi ginen. Eta hori bukatutakoan txapelketari buruzko webguneari ekin genion. Bertsozale.eus-en txertaturiko webgunea egitea erabaki zen, eta lehen esan dudana bezala, sare sozialetan propio horretarako kontu berri batzuk ireki beharrean betikoetatik eragitea. Berrikuntza teknologikorik behar ote genuen ere erreparasatu genuen eta erabaki zen bertsosarrerak.eus hobetu beharra zegoela. Irailean, txapelketaren bigarren fasea hastean, estreinatuko da berrikuntza hori.

Hedabideetan erronda bat ere egin genuen, udaberrian saioak hasi aurretik. 25 bat hedabiderekin egon ginen, nazional mailakoak, herrialdekakoak eta eskualdekakoak eta hainbat hitzarmen lotu genituen. Txapelketa jarraitzeko gogo handiarekin egin genuen topo, asko agertu zineten lankidetzarako eta publizitate trukea egiteko irekita. Oso jarrera ona.

Sustapenekoek urte hasierarako saioak lotuta zituzten herri ezberdinekin eta saio horien diseinuan ere hartu genuen parte. Gero, udaberrian aurkezpen prentsaurrekoak egin genituen eta lehen kanporaketen komunikazioari ekin genion. Eta orain bigarren faserako komunikaziorako euskarriak bukatzen ari gara: ploterrak, oholtzako atzekaldeak, aldizkaria... Aldizkaria oraintxe itxi dugu. Eta aldi berean bigarren erronda bat egiten ari gara hedabideetatik lotutako hitzarmenak fintzeko.

Lan asko dira aldi berean egitekoak.

Egunotan ni ibili naiz hitzarmenak ixten hedabideetan, Gontzal-eta ibili dira irudia fintzen, edukiak sortzen aldizkarirako, Amaia webgunea garatzen ari da. Udatik bueltan gatozenez izango da azkeneko iragarkiak prestatu, sarrerak bidali, bertsosarrerak aktibatu, prentsaurrekoa antolatu, aurkezpen festa antolatu... Eta gero saioak hasten direnean asteroko zikloak dira.

Azken txanpa horretan nola izaten da funtzionamendua?

Astehenero koordinazio bilera bat egiten dugu aurreko asteburuko saioak erreparasatu eta ikusteko zer daukagun hobetzeko. Gero hurrengo asteburuari begira, erreparasatzen da zer gauza dauden berrikusteko, zer eskaera berezi ditugun, hurrengo saiorako sarrera salmenta nola dagoen, zer potentziatu behar dugun komunikatiboki...

Hedapenekoak ere topera ibiltzen dira aste horietan. Saiotara joan, grabatu, hurrengo egunean saioretako bertsoaldiak igo, hedabideetara zerbitzatu, telebistarako programa bereziak ekoitzi... Haiekin koordinaturik ibili behar izaten dugu, guk hedabideekin itxitako hitzarmen batzuetan euren lana dagoelako tartean, edo Elkartearantz ekoizten dutenak guk ezarritako komunikazio irizpideekin koherentea izan behar duelako. Eta finalera begira jartzen gara.

Prentsako zenbat akreditazio eskatzen dira finalerako?

2009an eta 2013an 120 bat izan ziren. Aurtengoan oraindik ez dira eskaini, baina hedabideekin izan ditugun hartu eman horietatik lotuta daude batzuk: *Berrian* Zamalloak utzi egin du eta Miren Garatek egingo du jarraipena *Berriako* kultura saileko kazetaria eta bertsozalea dena; *Garatik* Amagoia Mujika eta Maider Iantzi ibiliko dira; *El Diario Vascon* Bianditz Iraolaren errefortzua izango du Felix Ibargutxik; *Correoren* berri zehatzik ez dugu, *El Diario Vascorekin*

alderatuta distantzia gehiagorekin tratatzen du gaia; *Noticiasen* kultura saileko Juan de Andresek jarraituko du...

Lehertuta bukatuko duzue, ezta?

Komunikazio lana oso txingurri lana da. Urte eta erdi lehenago hasten gara txapelketarekin eta bukatu ondoren ere dezente luzatzen da, balorazioak, memoria eta horrelako kontuekin. Oso luzea da eta eskatzen du pazientzia, konstantzia eta erritmo jasangarri batean lan egitea.

V.VIII JOXERRA GARZIA. DONOSTIA, 2017/VII/26

Kazetaria, eragilea eta aditua. Kazetari gisa hurbildu zen bertso mundura Euskadi Irratian 'Sorgin Afaria' programan bertsoari tartea eginez eta Fernando Amezketarra herri arteko lehiaketa antolatuz. ETBko 'Hitzetik Hortzera' bertso programaren sortzailea, lehen aurkezle eta zuzendaria, izan zen ondoren. Eragile garrantzitsua Elkaratearen sorreran eta hurrengo urteetan, aurkezle, gai-jartzaile eta epaile gisa ere aritutakoa. Bertsolaritzari buruzko doktorego tesiarekin EHUn hainbat urtez komunikazio alorrean irakasle. Bertsolaritzari buruz, eta honek hedabideekin daukan harremanaz, gogoeta mamitsuak argitaraturikoa.

Hastapenak irratian

Irratian hasi zenuen zure kazetari ibilbidea. Noiz eta nola iritsi zinen Euskadi Irratira?

Hasiera-hasierakoak izan ziren ikastaro berezi bat egin zutenak. Izaskun Barriola, Martin Tejeria, Jon Aizpurua... 82 bukaeran hasi ziren. Ni horiek hasi eta gutxira sartu nintzen. Martxan jarri eta bost hilabetera lehen oposaketak egin ziren, ni Tolosako ikastolan nentzen filosofia irakasten, kasualitatez jakin nuen oposaketen berri, presentatu eta atera egin nituen.

Albistegietan hasi nintzen, 83ko maiatzean. Antton Haranburu zen buru. Goizean iritsi eta Deiako albiste bana ematen zigun. Euskarara itzuli, berari pasa eta gidoia prestatzen zigun... Bolada batean albistegi batzuk bertsoan eman behar genituela ere tematu zen. Gogoan daukat San Juan bezperan horrela egin genuela. 'Eguerdikoa koplata egin behar dugu', berak. Bion artean osatu genituen koplata batzuk, trikitixa musika jarri genuen lagungarri eta horrelaxe joan zen. Beste behin koplata egin behar genuela agindu zidan berriro baina Guardia Zibil bat hil zutela iritsi zela albistea eta alde batera utzi behar koplak. Bat baino gehiago joan ziren koplata.

'Debaldeko Festa' eta 'Sorgin Afaria' izan ziren urte haietan gauzatu zenituen bi programa sonatuenak. Zein zen bertsolaritzak programa hauetan zeukan tokia?

Uda bitartekoa informatibotan pasatu nuen eta handik bueltan Oterminek gaueko bederatzietatik hamarretara egunero egiteko kultur programa bat eskatu zidan. Pello Zabaletarekin egin nuen, 'Sorgin Afaria' jarri genion eta nahikoa durunda atera zuen. Izena Julian Alustizak baserriari buruz egindako liburu oso on batetik atera genuen: auzo lanean zutik jateko hartzen zen tarteari deitzen zitzaion sorgin afaria. Ez du zerikusirik sorginekin. Erdizkako esan nahi du, jatordu arina, erdizkako loari sorgin loa esaten zaion bezala.

Bolada hartan egunero hamalau ordu lan egiten nituen. Saltsa denetan sartzen ginen. Eta Pello Zabaleta oso ona zen idazten, beti testu bikainak egiten zituen, nahiz eta presakako lanak izan, jakintsu bat zen... Martin Otazo ere ibili zen laguntzen erredakzioan. Zati txikiekin egindako gauza bat zen. Puzzle moduko bat.

Programa horretan, ez bazan albiste potoloren bat, bertsolaritzari ez zitzaion aipamenik egiten. Oso garai beretsuan, ordea, Oterminek esan zidan zerbait egin beharra zegoela bertso kontuetan, erreferentzialtasun guztia Herri Irratiak zuela eta hori ezin zitekeela horrela izan. Hortaz, 'Debaldeko Festa' jarri genuen martxan. Astelenetik ostegunera 'Sorgin Afaria' egiten genuen eta ostiraletan, tarte hori bera 'Debaldeko Festa'ri eskaintzen genion. 84ko urtarrietik aurrera hasi ginen horrekin.

Kareta geronek abesturiko kantu batekin sortu genuen: 'Ostiral iluntzean beatziak alde/ ostiral iluntzean beatziak alde/ nahi duenak badauka festa bat debalde /ai, oi, ai festa bat debalde.

Grabaturiko bertso hautatuak jartzen genituen. Gero, *feedback* handia geneukan entzuleekin. Galdera mordo bat egiten genuen bertsoen inguruan entzuleek erantzun zitzaten. Eta gai bat ematen genuen bertsoak jarri zitzaten. Hilean behin irabazle bat izendatzen genuen eta irabazle horrentzat bertso afari bat antolatzen genuen berak aukeraturiko bertsolari bikotearekin. Azkenik zuzenean emititzen genuen afari hori. Gogoratzen afari horietako Anoetan antolatu genuela Peña eta beste batekin, Mañukortarekin Larruskain inguruan beste bat...

Entusiasmoa eta naturaltasuna kristorena genuen hasiera hartan Euskadi Irratian. Hilero egiten genuen mozkor afari bat lankide mordo batek.

Fernando Amezketarra herri arteko txapelketa ere jarri zenuten martxan.

1984/1985ean denboraldian ere egin genuen ‘Sorginen afaria’. Eta hor ‘Debaldeko Festa’z gain herri arteko txapelketa egitea erabaki genuen. Asmoa zen azaroan hasi eta finala San Juan egunean Tolosako plazan egitea. Parte hartzeko baldintza bakarra zen bertsolaria urtean gehienez hamar plaza egindakoa izatea. Andoni [Egaña] ere sartzen zan garai hartan. Soldaduskan zegoen eta Inazio Jauregi eta Luis Otamendirekin osatu zuen Zarauzko taldea.

Espero baino askoz gehiago apuntatu ziren eta azkenean hogeita hamaika talde izan ziren. Asteburu bakoitzean hiru lau saio egin behar izan genituen eta hurrengo larunbatean laburpena eskaintzen genuen. Eskerrak tokian tokiko jendeak antolatzen zuela: tokia hartu, afaria... Sekulako giroa sortu zen. Lehenengoa Itsasondo eta Zaldibiaren artekoa izan zen. Gaiak geuk jartzen genituen, aurkezle ere gu, geuk grabatu, bertsoak aukeratu, montatu... 1985eko ekainaren 24ean izan zen finala Tolosan. Segurak irabazi zuen, Intxausti eta abarrekin.

Lagun nituen bertsolariak hartu nituen epaimahaiko: Sebastian [Lizaso], Mikel Mendizabal, Telleria, Imanol Lazkano, Iñaki Murua eta Peña. Ez genien ordaintzen, afari truke zen, baina, klaro, hainbeste afarirekin Otermin larritzen hasi zen. Getari inguruan bazen saioa Elkanora joaten ginen... Txapelketa horretan puntuazioa bistara ematen hasi ginen. Nolabait laboratorio modura funtzionatu zuen, bertsolariek egin nahi zituzten hainbat gauza probatzeko balio izan zuelarik. Hain zuzen ere 85 horretan hasi zen Euskaltzaindia frankismo osteko hirugarren txapelketa antolatzen eta bertsolariek planto egin zioten, gurean hartutako esperientziatik eurek antolatzeko ardura hartuz. Eta hain zuzen geurea ere ez zen berriro egin hurrengo denboraldian bertsolariek nahikoa lan baitzeukaten eurek antolaturiko txapelketarekin.

1986ko txapelketa hori eman zenuten irratitik?

Zabaleta eta biok finalaurrekoak eta finala eskaini genituen irratitik. ETBk finala eman zuen.

Gogoan daukat ETBk kantxa handia eman ziola txapelketari. 1985-1986 denboraldian Jose Ramon Belokik debate programa bat egiten zuen ETBlean publiko eta guzti, eta 86ko txapelketaren jiran Amuriza eta Lizasorekin bertsoak kantatuz zuzenean bertsolaritzari buruzko debatea egin zuen.

1980ko hamarkada horretan Euskadi Irratian bertsolaritzari buruz egindako gehiago?

Ba egia esan geuk egin genuenaz aparte askorik ez. Hamarkadaren bukaeran Nikolas Aldaik ‘Mujikaren Euskal Perlak’ egiten zuen Patxi Mujikak aurreko hamarkadatan grabaturiko materialarekin.

Gurea, ‘Debaldeko Festa’ bi denboraldi izan ziren. 1986-1987 denboraldian goizeko magazinera pasa nintzen ni. Pello Zabaleta gelditu zen ‘Sorgin Afaria’ bakarrik egiten eta hark segi zuen bertsolaritzaren berri ematen, baina ‘Debaldeko Festa’rik gabe.

‘Hitzetik Hortzera’ martxan

Hitzetik Hortzera hasi aurretik ‘Ahotik ahora’ izeneko programa bat emititu zuen ETBk. Zer dakizu programa hari buruz?

Ezer askorik ez. Esango nuke hilean behinekoa zela, eta Hasier Etxeberriak mugitu zuela. Baina ez nago seguru. 1987an izango zen... Hobe duzu ETBren artxiboan begiratzea.

Bertso-saio bat grabatu eta osorik eskaintzen zen. Depuratuta baina osorik.

1988-1989 denboraldian hasi zen ‘Hitzetik Hortzera’, nola eta nondik iritsi zitzaizun Hitzetik Hortzera zuzendu eta aurkezteko proposamena?

ETBk ez zeukan batere gogorik bertsoaren alde apustu egiteko eta hasiera izan zan Elkarte sortu berriaren presio latza. ETBk baiezkkoa esan zuenean ez zuen esan zer eta nola. Hasieran ibili ginen Euzkitze jarriko ote genuen aurkezle, baina Euzkitzek ez zuen nahi eta nola ni irratan ibilia nintzen bertso kontuekin ba niri tokatu zitzaidan. Euskadi Irratia eta ETB bi enpresa diferente ziren erakunde berdinarekin baita eta ez zen erraza batetik bestera aldatzea. Jarri nuen baldintza bakarra izan zen gutxiago ez kobratzea.

ETBk erabaki zuen hilean behin egitea. Telebistan proba egin nuen, Hasier Etxeberriak zuzendu eta Jon Aizpuruak aurkezten zuen ‘Arkupe’ izeneko kultur programan ‘Paperezko Arkupea’ izena zuen kolaborazio bat egiten nuen literaturari buruz, baina hortik aurrera bideo bat zer zen ez nekien.

Lehen urtean erabat bakarrik aritu zinela kontatua duzu. Etzenaukala errealizadorerik, postproduktorerik... Askok ikasi beharra eta larri ibili beharra tokatuko zitzaizun.

Ez neukan ez talderik, ez toki bat erredakzioan, ez platorik... Sincro produkzio etxea jarri zidaten oso jende majoa baina erdalduna. Jaialdi batean grabaturikoa montatzen hasi eta konturatu nintzen gaiak ez zeudela hartuta. Eta Sincrokoak “ah, es que como es de bertsolaris yo pensaba que cuando hablaban no interesaba”. Beste batean, puntua emanda zen bertsoa, puntua ez zuten grabatu eta neuk grabatu behar izan nuen. Aurkezlea puntua ematen lehor samarra gelditzen zela eta gitarra joaz egin nuen...

Platorik ez neukanez, bideo batetik besterako trantsizioak kalean grabatzen nituen, Miramarreko eskailerak, 31 de Agosto kalea eta horrela. Eta teknikoki desastre hutsa zen. Dena nik egiten nuen eta ez nekien nola egiten zen. Gogoan daukat programa horietako batean kredituetan ideia originala, zuzendari, aurkezle, errealizadore, denetan Joxerra Garzia jarri nuela. Amatiñok deitu zidan “hi, hori horrela jartzea itsusia dek” esanez, eta “itsusiagoa izango dek hori horrela izatea, ez?” erantzun nion.

Eskerrak Xanti Etxeberria errealizadorea lagun egin nuen. Hark, ahal zuenean lagundu egiten zidan, bere lanorduetatik kanpo. Kareta bion artean egin genuen: Oteizaren Xenpelarren irudia hartu eta bueltaka jarri eta bertso baten audioa azeleratuta jarrita.

Produktore nagusia Iñaki Behobide zen. Nik Etxeberriari galdetzen nion ze behar nuen eta hark “postproduktoria” eta Behobideri esan eta hark “zertako behar dek?”. “Esango diat hurrengo bileran” esan behar izan nion, ez nekien zer zen. Hurrena ‘fundidoak’ egin beharko genituzkeela Etxeberriak, eta “Fundidoak? Ba, ‘mariconadas’” Behobidek.

Programaren izena nondik dator? Nork erabaki zuen?

Elkarteak interesa bazuen baina programaren diseinuan zero hartu zuen parte. Izena neurea da.

Egia esan 'Debaldeko Festa' jarri nahi nion hasiera batean, Xenpelarren bertsoetik hartua zen eta gustatu egiten zitzaidan, baina haurrentzat 'Galde Debalde' izeneko programa bat emititzen zen garai hartan eta ezezkua eman zidaten ETBkoek. Buelta pare bat eman eta 'Hitzetik Hortzera' planteatu nien.

Hilean behin emititzetik asteroko izatera pasa zen programa gutxira.

Bai, hasierako hori hamar programa baino ez ziren izan. Eskerrak!

89ko udan oso ondo funtzionatu zuen ideia bat izan genuen. Koro Lasarte ere tartean zen. Pentsatu genuen polita izango zela hogeit bat bertsoarekin afari bat egitea eta unitate mugikorarekin, alegia ohikoa baino bitarteko gehiagorekin, egitea jarraipena. Liernin egin genuen, Laxaro eta hauek bakoitzak gai bat jarri zuen eta hor atera zen Lazkao Txikiren ispiluarena. Gainerantzean, hilean behineko honek, ez zuten batere iragartzen gainera, ez dut uste audientzia handirik izango zuenik, baina Lierniko afari horrek sekulako oihartzuna izan zuen. ETBk ikusi zuten merkea zela eta funtzionatzen zuela eta astero egitea proposatu zidaten.

Lehen programa haietan bizi izan nuen egoera prekariora ikusita beharrezkotzat jo zuten talde baten laguntza. Maite Odriozola, Olatz Egia eta Ana izeneko bat laguntzailea jarri zizkidaten erredakzioan laguntzeko, lujo totala. Guk editatzen genuen baina Pello Elizasu jarri ziguten errealizadore laguntzaile eta Xanti Etxeberria errealizadore. Hala ere platorik ez genuen eta jarraitu genuen nire aurkezpenak kalean grabatzen.

Denboraldi bukaerarako platoa lortu genuen eta Joxe Mari Gabiria ere sartu zen erredakziora. Besteek telebistaz bazekitan baina bertsoaz zekien lehenengoa bera izan zen eta laguntza handia izan zen niretzat. Ordura arte bertsoari buruzko erabaki guztiak neuk hartu behar izan nituen, oso bakarrik, eta Joxe Marirekin beste gorputz bat hartu zuen taldeak. Felix Irazustabarrena ere batu zen laister eta hura ere bertsozalea bazen.

1990 hamarraldi hasierako booma eta arriskuak

Hortik lasterrera bertsoaritzaren boom famatua, *bertsomania*, ematen da. Gogoan duzu noiz hasten zireten boom hori nabaritzen?

Audientzia daturik ez zidaten pasatzen niri, baina ETBko jefeen aurpegietan nabaritzen zen ongi ari zela funtzionatzen. Emisio orduarekin ez geunden konforme Elkarte eta ni baina egia esan asteroko horrek igande eguerdian audientzia pilatu zuen. Baserrietan ikusi egiten zen.

Pixkanaka kalean ere hasi nintzen nabaritzen jendeak ikusi egiten zuela. Bertsolari askok komentatzen zizkidaten programaren gora-beherak... Gogoan daukat hasieran neuk bakarrik egiten nituen programa horietan enbarazu baino ez zuela egiten telebistak: Irratiarekin mikro bat sartzen duzu eta bost minuturako ahaztuta dago jendea baina telebistarekin 2000 watio sartu beharra dago eta giroan ezaguna zen ez zuela inolako graziaz egiten. Pixkanaka, ordea, alderantzizko fenomeno eman zen: bi urtean pasa ginen traba egitetik saiora joan ez baginen eskean etortzera.

Bertso-saioak ere ugaritzen hasi ziren. 1988an eta 1989an larri ibiltzen ginen eduki aldetik. Gogoan daukat Gabonetara justu-justu iristen ginela eta desiratzen egoten ginela otsailean Zestoako saio haundi hori ondo ateratzeko ea horrekin tiratzen genuen. 1991tik aurrera, ordea, perretxikoak bezala hasten dira saioak sortzen... Esango nuke 1991 hasierarako puri-purian zegoela hura guztia.

Zer ekarpen egin zuen ‘Hitzetik Hortzera’k bertsolaritzaren boom horretan?

Nik uste boomaren handiena 1991tik 1993ra izan zela. Konjuntzio bat izan zen: batetik bozgorailu gisa funtzionatu zuen bertso programa audientziatsua, baina bestetik sekulako maila zuen bertsolari multzo handi bat Egaña, Sarasua, Amuriza, Sebastian, Lopategi, Peñagarikano, Euzkitze eta abarrekin, gizarte molde berriarekin konektatzeko gai izan zena. Alegia, bertsolariak Garmendia eta Egileor eta gisakoak izan balira, eta niri gustatzen zaizkit bertsolari horiek ere, telebistak izan zezakeen bozgorailu funtzioa alferrik izango zen.

1980 hasieran oraindik ere publiko homogeen bat zuen bertsolaritzak. Horien kultur kontsumoa kasik bertsozara mugatzen zen, eta konpartitzen zituzten balio batzuk aipatzearekin kasik nahikoa zuen bertsolariak arrakasta izateko. Baina euskal jendartea beste puntu batean zegoen ordurako, kultur kontsumo askotarikoa eta sofistikatu ari zen nagusitzen, literatura, komikia, musika... Beraz, sofistikazio maila horren pare jarri beharra zeukan bertsolaritzak edo jai zeukan. Eta bertsolari hauek lortu zuten maila horretara igotzea. Telebistarik gabe hauen iraultza ez zen hain haundia izango baina hauek gabe telebistako arrakasta ere ez.

Bertsozalea ez zen jendea ere harritu zuen aldaketak. Gogoan daukat nola behin Saizarbitoria etorri zitzaidan eta ‘jode, bertsolaritza hori izan zitekeen ere...’. Eta bertsolaritzaren berrikuntzarekin kritikiko azalduetakoa zen Saizarbitoria, baina berrikuntza hori ontzat hartu beharrean aurkitu zen.

Guzti horrezaz gain garrantzitsua izan zen Elkartearen inguruan burutu zen gogoeta eta hartu ziren erabaki estrategikoak. Barne irizpideekin funtzionatzen hasi zen mugimendua eta ez ordura arte bezala Euskaltzaindiak kanpotik jartzen zizkionekin.

Sortu zen olatu hark egonezina eragin zuen, eta telebistako arrakastak zekartzan arriskuen inguruan asko gogoetatu zen. Gaiari buruzko testuetan gehien errepikatzen direnak arrakastaren arriskua (moda iragankor bihurtzekoa), saturazio arriskua (hedabideetan hainbeste aterata jendea aspertzekoa), desitxuratzekoa (‘jokaldirik onenak’ bakarrik gustatzen zaizkion zaletua sortzea), fokua nagusiki elitean jartzea (merkatua monopolizatuz) eta eskaintzak beharko lukeen elementu hezitzailearen gabezia lirarteke. Nola ikusten zenituen zuk arrisku hauek eta nola ikusten dituzu denborak ematen duen distantziatik?

Nire sentazioa zen hasierako abandono totaletik, arrakasta hasi zenean, kasik gehiegizko fiskalizaziora pasa zela Elkartea. Eta denborarekin geroz eta garbiago daukat gehiegi eskatzen zitzaiola programari.

Millan Telleria eta Juanjo Hernanikoa etortzen zitzaizkidan Elkartearen izenean kontsigna batzuk ematera. Baina ez zegoen kontsigna guztiak betetzerik. Herrialdeen arteko oreka, eskolartekoak ere sartzea, erakargarria izatea baina aldi berean pedagogikoa... Ukitu pedagogikoak, esaterako, geneukan ordutegiarekin eta ordutegi horretan izan genezakeen publikoarekin, niretzat ez zuen zentzu handirik.

Elitea gehiegi atera izanarekin ere beste hainbeste. Nik oso garbi daukat telebista zertako dan. Begiratu beste alorretan, kiroletan eta abar zer egiten den. Telebistak lortu behar du bikaintasuna erakutsiz zaletasuna areagotzea eta gero hor sortzen den mugimendu hori kudeatu behar da telebista ez dan leku batetik. Elitekoak ez diren jardunak eman behar direla tarteka bai, baina eskolarteko finala zuzenean emititu behar dela ba ez, ze kalterako da eta puntu. Alegia, telebista erabiltzen bada telebistarenak ez diren lanetarako, okertu egiten da gauza.

Horrek ez du esan nahi, bertsolaritzari dagozkion irizpideak baztertu behar zirenik. Telebistako teknikoekin, adibidez, beste aldera izaten nituen borrokak. Askotan EMG batekin grabaturik kalitate txarrekoa izan zitekeen bertso-saioko bideoa, audioak ere ez ziren puntakoak zenbaitetan, eta errealizadoreak ‘hau ezin da emititu’ esaten zidan horrelakoetan. Baina bertsoa ona bazen, ba tematu eta emititzea lortzen nuen. Bertsolaritzari buruzko programa batean bertsoaren kalitatearen irizpideari eutsi behar zaio kosta ala kosta.

Honenbestez, nahikoa garbi nuen bertsozale gisa zenbaitetan ETBren kontsignak jarraitzen ez nituen bezala, Elkartearen kontsignak ere, kazetari bezala konbentzitzen ez baninduten behintzat, ez nituela jarraituko. Hala ere interlokuzio interesgarria izan nuen Koldo Tapiarekin. Problema bat zegoenean laguntzeko zegoen, eta bere iritzia ere ematen zuen, hor tentsio bat bazegoen, baina normala ere bazen eta elkar ulertzea lortzen genuen.

Bestalde, ez dut uste garai hartan piztu ziren alarmak alferrikakoak zirenik. Nire ustez gerta zitekeen kataklismo bat. Gerta zitekeen txapelketakoak ez ziren saioak ere gisa horretara planteatzea intentsitate bila. Oreka zaila zan, eta nire ustez kontu handiarekin ibili ginelako eutsi zitzaion.

Nondik nora gorpuztu zen arriskuen inguruko gogoeta hori?

Koldok ‘Zaharren Kontseilua’ deitzen ziona urtean hirutan edo gelditzen ginen, sortzen zenean. Bazkaltzeko gelditu eta eguneko ordenarik eta bukatzeko ordurik gabe aritzen ginen, Koldo [Tapia], Andoni [Egaña], Sarasua, Iñaki Murua eta ni. Pentsamendu estrategikoaren gunea hori zen, eta hor sortu ziren arriskuaren ingurukoak ere.

Gero Siadecori ikerketa handi bat eskatu zitzaion, hamarkada baterako estrategia finkatzeko balioko zuen ikerketa bat. Bertan hainbat elkarrizketa eta mahainguru egin zituzten, eta hor ikusi zen kezka garrantzitsuenetako bat telebistaren eta arrakastaren eraginen ingurukoa suertatu zela. 1993an izan zen hori.

Haustura ETBrekin

1993ko udan programa bat emititzera behartzen zaituzte ETBk Elkartea eta zeure iritziaren kontra. Gutxira uztea erabakitzen duzu.

‘Hitzetik Hortzera’ irailetik ekainera izaten zan. Eta 1993ko uda horretako hutsunea betetzeko antologia bat prestatzeko eskatu ziguten. Elkartean ikusten genuen apustua ez egitetik behia zukutzerara pasa zela ETB. Programa ona izan zen, ‘Bertsoak Udan’ jarri genion izena eta Alaitz eta Mainerrekin grabatu genuen ‘kareta’ ‘Loreak udan ihintza bezala...’ kantuan oinarrituz.

Oso nekatuta nengoen ordurako. Telebistara pasa nintzenean irratiko soldata bera mantendu zidaten eta tira. Baina programa hileroko izatetik asteen behin egitera pasa nintzenean ere ez zidaten igoerarik egin. Lau urte neramatzan horrela eta Amatiñori eskatu nion edo kontratua egiten nuen lanaren parera igotzen zela edo bestela hilean behin bakarrik egin beharko nukeela. Ez zidan inongo kasurik egin eta uztea erabaki nuen, 93ko udazkenean. Irratira bueltatu nintzen. Baina Elkartetik egunero neuzkan hoska, 1993ko txapelketa orduantxe ari zen martxan jartzen, eta ez zela uzteko momentua. Hamar egun baino ez nituen egin irratian. Itzuli eta txapelketarekin jarri nintzen. ETBkoek ez zidaten soldata igo, eta gainera, hilean behin beste programa bat egitera behartu ninduten. Zuzeneko bat zen eta horri bai lortu nuen ‘Debaldeko Festa’ jartzea. Uzten zidaten bakoitzean izen hori jartzen nuen (barreak).

Programa horretan gertatu zen bertsolari gazteen zentsurarena, ezta?

Bai, hirugarren programan izan zen. 1994ko otsailean hasi nintzen eta apirilekoan gertatu zen.

Aldiro bi bertsolari eta bestelako gonbidatu bat eramaten nituen. Lehenengoan Amuriza eta Andoni [Egaña] eramane nituen bertsolariak eta Juan San Martin gonbidatua. Bigarrenean Sebastian [Lizaso] eramane nahi nuen bertsolariak, hark Jokin Sorozabal aukeratu zuen bertsolari eta gonbidatu gisa Manuel Lasarte elkarrizketatu nuen. Hirugarrenean Bernardo Atxaga zen gonbidatua eta bertsolari gazteak eramatea erabaki nuen. Bista ona izan nuen: Irazu, Maialen [Lujanbio], Igor [Elortza] eta Unai [Iturriaga] eramane nituen, nahiz eta oraindik ez ziren oso ezagunak.

Esan zidaten kritika egingo zutela, eta esan nien inor iraintzen bazuten neronek moztuko nuela. Espiraia atera eta ‘Kalea guztiona da’ egin zuten pintada. Ikusgarria izan zen, baina ez zitzaidan ezer larria iruditu. Gero bertsolari oso gauza graziosoak esan zituzten; batean ‘desinformazio gehiago orduoro Euskadi Irratian’ bukatu zuen Unai. Publizitaterako etena zetorren jarraian eta iragarkien tarte horretan zalaparta nabaritu nuen baina erredakzio taldekoa zen Martikorenak denak lasaitu zituen eta aurrera jarraitu genuen. Publizitateratik bueltan Atxagaren elkarrizketa neukan eta oso majo zegoen, *sembrau*. Konturatzeko, ordea, Maite lankidea azaldu zen Atxagaren atzean paper batean zuzendaritzaren aldetik mozteko agintzen zidatela idatzita zeukala. Burutik pasa zitzaidan ‘*Cacique* hauek...’ baina Elkartearen ere bazegoen tartean eta txukun egiten saiatu nintzen. Atxagari galdetu nion “Oso fuertea iruditu zaik bertsolari gazteena?” eta berak, gero Unai eta hauek asko mindu zituen erantzun zidan: “Fuertea? Ez, batere ez. Aukeran ortodoxoegiak, agian”. “Ba itxuraz ez dago segitzerik eta hemen moztuko dugu” esateko beta eman zidan, eta zapla moztu zuten zuzen-zuzenean Afrikako lehoien erreportaje bat sartzeko.

Zer iruditu zitzaizun zuri?

ETB barregarri gelditu zela. Horrelako zerbait jasateko gai ez denak ez dauka talentua sobran.

Ehun bat lagun zeuden publiko gisa, oholtzan Joseba Tapia eta musika talde bat bertso-jarri batzuekin prestatu zuten emankizuna eskaintzeko prest... Atxaga bera. Denak aho zabalik gelditu ziren. Eta ETBren ikusleekin ere beste hainbeste gertatu zen.

Ordurako nahikoa tentsio zenuten Elkartearen eta ETBren artean ‘Hitzetik Hortzera’ren inguruan, ezta?

Programa ateratzeko akordioa urtero berritzen zen. Eta Elkartearen finantzaketa iturri nagusi bilakatua zen ordurako. Siadecorekin egindako gogoeta 92an burutu zen eta ETBekin egiten zen akordioaren azken bi berrikuntzetan tentsio puntu bat nabaritu zen, Elkarteak gogoeta horietan ondorioztatu ziren irizpideak planteatzen zituelako eta ETBk ez zituelako oso aintzat hartzen. Adibidez, programa gehiegitan errepikatzen zela esaten zitzaien eta are gehiago errepikatu zuten. Edo udarako antologia hori egitera behartu gintuen.

Bertsolari gazteen zentsuraren kapitulu honen ondotik are gehiago tenkatu ziren harremanak. Gazteenetik aurrera sugerentzia bat egon zen zuzendaritzatik esanez ‘Hitzetik Hortzera’ emititu aurretik eurak ikustea komeniko litzatekeela esanez. Ordura arte niri hori ez zidaten sekula esan. Neronek banekien zer emititu zitekeen ETBn eta zer ez. Inoiz tokatu izan balitz bertso bikaina eta emititu ezinezkoa ez dakit zer egin izango nuen, baina zorionez ez zen tokatu. Otermini esan nion: “Orduan aurretiazko zentsura jarri didazue?”. Eta berak, “ez, ez, ez, begiratu bat emateko bakarrik”.

Legebiltzarrera ere iritsi zen kontua HBk nahiz Eak eramanda eta Zarraoak EITBko zuzendari orokor gisa bere azalpenetan esan zuen gidoia ez zutela jarraitu bertsolariek. En fin.

Ni, jada, nazkatua nengoen telebistako lanarekin. Unibertsitatean hasi berria nintzen gainera. Urte bukaera arte segi behar izan nion, ordea, apiriletik abendura telebistan lan egiteaz gain klaseak emanez. Bitartean, 1994ko udan Añotako bilkura egin zuen Elkarteak eta erabaki zuen ETBekin zuen harremana etetea. Urtea bukatu zenean akordioa ez zen berritu eta nik telebista utzi nuen.

Zein izan ziren zure ustez hausturaren zio nagusiak?

Nik esango nuke programaren diseinua printzipioz ETBri ez zitzaioala asko inporta. Ni egon nintzen urteetan ez zen horretan sartu. Kantitatearekin geneuzkan gora behera gehiago... Baina une jakin hartan bere agintea erakutsi nahi izan zuen. 1993a eta 1994a urte gogorak izan ziren giro soziopolitikoari zegokionean. Telebistan ez zen presoan aipamenik egiten, Korrikaren berri ere ez zen ematen... Eta bertsolariak ideologikoki lerratuegi ikusi zituzten ETBko agintariak. Planteatu zuten zuzendaria eta saioaren eredia berak ezarriko zutela: kasik erabat bertsoz osatutako eredia nahi zuten, bestelako adierazpen gutxikoa; bertso-saioak lau-sei bertsolariekin antolatu eta saioa bere horretan ematea, euren filtroa pasa ondoren.

Elkartea, aldiz, beste planteamendu batzuekin zebilen: programa hezitzaileagoa, fokua elitetik haratago zabalduko zuena eta abar. Bestalde, programagatik ordura arte ematen zen baino diru gutxiago eskaini zuen ETBk, eta Kultura Sailburuak, Joseba Arregik, Xenpelar Dokumentazio Zentruarentzat aurrez agindua zuen diru bat ere ez zen iritsi. Honela, 1994ko ekainean, irailean eta urrian egin ziren gogoeta jardunetan telebistari ezetz esatea erabaki zen. Erabaki honekin bere diru iturri nagusia galdu zuen Elkarteak eta bi liberatuak langabezira joan ziren.

Bertsolaritza telebistaraten

Zuzendari eta aurkezle lanak utzita ere jarraitu zenuen programarekin kolaboratzen, bolada batean behintzat elkarrizketak eginez. Ze ekarpen egiten dute zure ustez bertsoaz bestelako edukiek?

Garrantzitsuak dira, noski. Bertsolaritzaren ezagutzan sakontzeko garrantzitsuak dira. Hala ere, programa neuk eramane nuen bitartean eduki nagusia bertsoa bera izan zen. Hasiera batean beste ezertarako gaitasunik ez geneukalako. Lehen urteetan nahikoa geneukan bertsoa egoki eskaintzearekin. Eta gerora, zerbait bai ateratzen genuen, baina ez nuen tentazio handirik izan elkarrizketa eta erreportaje asko sartzeko. Emisio orduak asko baldintzatzen ninduen. Iluntzean izan balitz ez dakit hori sentituko nuen. Bestalde, ez dira genero errazak. Elkarrizketetan, esaterako, gertatzen zena da jendea kameran aurrean moztu egiten zela eta bukatzen genuenean orduantxe hasten zela interesgarria jartzen. Eta ez geneukan bitartekorik lau ordu grabatu eta zatirik onenak emateko.

Dena den, programaren ardura hartu zuenean, 1999an, Josu Goikok hilean behin elkarrizketa bat eginez parte hartzera animatu ninduen. Eta kolaborazio hori bai hartu nuen gustura, gozatu egin nuen.

Baduzu gogoan 'Hitzetik Hortzera'rako zuk egindakoetatik bereziki gustura utzi izan zaituen elkarrizketa eta erreportajerik?

Niretzat elkarrizketa indartsuena Josu Goikoren etapa horretan Euzkitzeri eginikoa izan zen. Ordu laurden bat izaten zen eta gordin-gordin azaldu zuen arrazoi ideologikoengatik baztertuta sentitu zelako utzi ziola plazaz plaza ibiltzeari. Juan Mari Lekuonari egindakoak ere oso gustura utzi ninduen, baina hau potenteagoa izan zen.

Gogoan daukat baita ‘Hitzetik Hortzera’ko nire azken urtean amore eman nuela nolabait ukitu pedagogikoaren kontuarekin eta Andoni eta Jon Sarasua jarri genituela astero bertsoaldi baten komentaria. Dosi txikietan egiten genuen, hiru minutuko bertsoaldiei hiru minutuko iruzkinak tartekatuz. Ederra izan zen... Akordatzen naiz esaten niela ezin zituztela gauza onak bakarrik azpimarratu, kritikak txarra ere seinlatu behar zuela. Hori gehiago kostatzen zitzaien.

Zuk utzi zenuenetik zein izan dira deigarrienak iruditu zaizkizun aldaketak?

Asko berritu da. Josu egon zen bitartean asko segitu nuen. Iruditu zitzaidan puntu ona harrapatu ziola, asko gustatzen zitzaidan aurkezterakoan zeukan puntu lakonikoa eta ikusten nuen nik hasitako proiektu beraren luzapena zela.

Gerora gauza bategatik edo besteagatik oso ikusle intermitentea izan naiz. Tarteka saiatzen naiz jartzen, hilean behin edo, baina ez dut nahikoa ezagutzen. Batzuetan iruditzen zait nahi dugula modernizatu baina gero agian ahaztu egiten zaigula modernizatu nahi dugun hori bertsolaritza dela. Inpresioa daukat ikus-entzule berriak irabazi direla baina betikoak posmodernitate horrekin ez daudela eroso... Ez dakit xede taldea eta lortu nahi diren helburuak oso garbi dauden. Hala ere aitortu behar dut estetikoki eta teknikoki *virgería* bat iruditzen zaidala ikusten dudanean.

Badirudi telebistaratzek gaur egun ez dituela garai bateko kezkek eta eztabaidak pizten. Oreka bat topatu da?

Nik uste dut alarmak pizteko motiborik egon zela bere garaian. Ez genekien telebistara sartuta bertsogintzari zer pasako zitzaion, hor harreman dialektiko bat jartzen baitzen martxan. Hala ere bertsolaritzak garrantziren bat izaten jarraitu nahi bazuen egin beharra zegoen. Egin zena edo antzeko zerbait. Eta esperientziak erakutsi du asmatu egin zela, orain arte behintzat bertsoa ez delako desnaturalizatu. Batua eta euskalkien arteko aferarekin gertaturiko gogorarazten dit: baturik gabe ez zegoen etorkizunik, eta aldi berean batuak euskalkien dinamismoaren galera ekar zezakeen; berez batuak ez du zertan euskalkia suntsitu, ordea.

Gaur egungo baretasuna neurri batean konstatazio horrek ematen duela iruditzen zait. Beste alde batetik barealdia izan daiteke nolabaiteko konformismo baten eta sakontzeko nagi puntu baten ondorioa ere. Alegia, ez dugu asmatzen, beraz, bego. Espero dut hori ez izatea.

Internet neurri batean garai batean telebistak zuen audientzia bereganatzen ari da. Iruditzen zaizu hor gailur berri bat etor daitekeela?

1990eko hamarraldian telebistak izan zuen bezalako olatu bat sortzea zaila ikusten dut. Internetekoak bertsolaritzaren komunitatearen baitan ez dauka telebistak zeukan zentraltasuna. Adin tarte batzuk ihes egiten diotelako, eskaintza orokorra oso zabala delako...

Bertso kritika

Bertso kritika ganorazko baten gabezia da izan da urteetan zehar hainbat testutan aipatu izan den beste mantra bat. Zergatik eman izan da gabezia hau zure ustez?

Beti esaten da kritika beharrezkoa dela bertsoa hobetzeko baina gero kritika egiten denean gaizki hartzen da askotan. Hau gertatu zen jartzen baduzu ez dago arriskurik, baina hau ez zait iruditzen ondo dagoenik esaten baduzu, kontuz. Nik ere egin izan ditut ahalegin batzuk eta erreakzio itsusiekin egin izan dut topo. Izenik aipatu gabe egin eta bera izan zitekeela ikusi duen baten bat ere haserretu izan zait. Eta horrela konplikatua da.

Nolakoa behar du bertso kritika batek?

Saio batera joan, eta han zer gertatu den eta zer gustatu zaizun kontatzea, niri hori ez zait interesatzen. Hori da egun normalean egiten dena. Hau oso gaizki aritu zen besterik gabe esateak ere ez du, noski, ezer aportatzen, baina ez dut uste hori inoiz egin denik.

Kritikak beharko luke klabe batzuk hartu eta elementu horiek testuinguratzen saiatzea, xehetasun batzuei heldu eta hori bertsolaritzak bizi duen unera estrapolatzea. Eta adibide konkretuekin arazo estruktural bat agertzea lortzen baduzu, bada, ondo baino hobeto.

Beti ezingo da hainbeste eskaini, baina izpiritu horrekin ahaleginduz gero beti izango ekarpen bat. Musika kritikak primeran funtzionatzen du, zine kritikak ere bai, eta haien eredia hor daukagu. Begoña del Tesok zineari buruz iritzi argumentatuak ematen ditu, eta orokortuz, aurrekariak aipatuz...

Egia da bertsolaritza mundu txikiagoa dela zinearena edo musikarena baino. Euskal literaturaren kritikari antzeko zerbaite gertatzen zaio. Baina taxuz egindako kritika batek ez luke inor mindu behar. Gogoan daukat Egunkarian Getxon egindako saio bati buruz aritu nintzela. Nahikoa puntuazio txarra atera zuen Unaik [Iturriaga], eta jarri nuen: bale, ez du asmatu baina azpimarratzeko modukoa izan da hizkera kolokiala bertsotan txertatzeko egin duen ahalegina; gero potaje handiegian sartu da eta ez zaio ondo atera baina saioak ekarri duen elementu berritzaileena berea izan da. Esango nuke estimatu egin zuela kritika hura.

Hobetu da azken urteotan?

Ez dut ikusten estrategien esplikazioa, estrategien nobedadeak, zehar lerro diren elementuak, zer pasatzen ari den... ez dut ikusten aurreratu dugunik.

Egia da egun bertsolari denak teknikoki ia perfektuak direla, askoz ere aspergarriagoak garai batekoak baino (garai batean bazeuden euren hanka sartzeekin izugarritzko algarak eragiten zituzten batzuk), baina bertsoak ongi kuadratzen dituen bertsolariak ere izan dezake zertan hobetua. Koadratzeko tranpa gramatikalak edo sintaxi hutsegiteak saihestea, hizkuntzaren zuzentasunak oinarritzakoa izan behar baitu. Baina ezin bazaio hori esan, bada, jai daukagu.

Lehen aipatzen nituen arazo estruktural horiek, egon badaude, nire ustez. 2001eko txapelketan azentuazioaren kontuarekin tematu nintzen, esaterako, ikusten nuelako bertsolari askorengan desnaturalizatzen ari zela. Beti esan izan da bertsolaritza berrikuntzak ezin duela esentziaren galera ekarri, bada, irizpidea belarritik begira pasatzea, bertsolaritza ahozkotasunetik idatziaren eredura makurtzea, arriskutsuagoa iruditzen zait telebistaratzea bera baino...

Tesiarekin ahalegin bat egin nuen marko bat jartzeko. Eta 2003ko nahiz 2005eko txapelketei buruzko liburuetan ere ahalegina egin nuen markoa kasu konkretura ekarri eta lan mardul bana eskainiz. Prentsan, noski, ezin da horrelakorik argitaratu. Beharko litzateke batetik prentsarako iruzkin laburragoa eta bestetik formatu luzeko lan akademikoagoa.

Ziurrenik eztabaidagarriak dira planteatu izan ditudanak, baina eztabaidarik ere ez da piztu. Inori ez zaio interesatzen debate hori bertsolarien artean? Ukatzeko besterik ez bada ere. Argi dagoena da beharrezkoa dela berri emate hutsetik, edo 'primeran aritu ziren' horretatik gehiagora pasatzea.

Garai batean Juan Mari Lekuona eta hauek testura mugatzen ziren, baina oso analisi finak egiten zituzten. Orain ez testuinguru eta ez testu.

Hedabidetzeko apustua

Sarasua, Egaña eta hiruo behin baina gehiagotan irakurri dizuet hedabidetzearen belaunaldia izan dela zeuena. Elkartea eratu berritan hain tristea zen bertsolaritzari hedabideek eskaintzen zioten arretaren panorama? Zenbaterainoko larritasunez bizi zenuten hedabideetan presentzia gehiago lortu beharraren kezka?

Elkartearen sorreran modu oso anekdotikoan agertzen zen bertsolaritza telebistan. Irratian presentzia handiagoa zuen baina ez zen argi ikusten irrati genero bat egitea lortzen zenik. Idatzian ez bezala bertsoa gozagarri gisa eskaintzeko modua ematen zuen, baina, aldi berean, telebista baino formatu malguagoa izanik, hor bai sar zitezkeen formatuak eta analisiak. Horrelako gutxi egiten zen.

Hala ere genero zehatz eta definitu baten beharra idatzian zegoen. *Argian* Zaldubik egiten zuena zen kasik garrantzitsuena eta kronika lehengo gai hau gero hurrengo soil bat zen. Horrekin oso kezkatuta egon ginela gogoratzen naiz. Gehiago eta diferente atera beharra hitz egiten zen.

Elkarreak apustu garbia egin zuen hedabidetzearen alde. Gaiari buruzko literatura aztertuz honako gakoak identifikatu daitezke: Txapelketa arretagai nagusi gisa; ‘Hitzetik Hortzera’ bitarteko nagusi gisa; bertsolariaren ulerkera (framing) berria salgai nagusi gisa; eta Elkartearen komunikazioaren profesionalizazioa neurri tekniko nagusi gisa.

Nola ikusten duzu planteamendu hau?

Aipatu duzun hirugarren gakoari gehituko nioke bertsolaria ikusteko modua aldatzeaz gain bertsoa bera, formalki nahiz mamiz, beste kultur produktuen sofistikazio mailan jartzeko ahalegina egin dela.

Bertsolarien *background*-a aldatu da eta orain bertsoa da produktu bat kultur produktu modernoekin ohituta dagoen jendea ere asetzeko modukoa. Garai bateko bertsogintzak ezingo zion eutsi zinema, komikia, Internet eta abar ere eskura dauzkan kontsumitzaileari.

Elkartearen komunikazioaren profesionalizazioak ere izango zuen garrantzirik...

2005eko txapelketan hasi zen hori. Joseba Kamiok ekarri zuen iraultza. Nire ikaslea izandakoa zen. Koldo Tapiari esan nion komunikazio arduradun plazarako ikasle on batzuk bidaliko nizkiola eta tartean bat oso ona. Bera hartzen bazuten sekulako lana egingo zuela baina tentsioak ere izango zituztela. Eta halaxe gertatu zen.

Komunikazio plan bat aurretik ez zen egiten. Hor bai egin zan. Kronograma batekin eta lan haundiarekin.

Aurretik ere egiten zen modu amateurrago batean, baina hortik aurrera beste dimentsio bat hartuko du. Bai, garrantzitsua izan da baita.

Duela mende eskas medioen arretarik etzuen herri-kultura aurremodernoen praktika bat izatetik modernitatean sartu, kultura mediatuaren garaiari egokitu eta masa kulturaren sartu irtenak egitera pasa da bertsolaritza. Bidaia harrigarri bat da, ezta?

Hedabideratzearen apustuarekin bertsolaritzak zentraltasun bat lortu du, eta aldi berean betiko bertsolaritzaren esparru batzuk gordetzen asmatu da. Irabazitakoa jarri balantzaren alde batean eta galdu omen dana bestean eta nik zalantzarik ez daukat apustua ongi atera dela.

Garbi dago modernitaterako bidea tradizioan sakontzea izan ohi dela. Baina ez tradizioa gurtzeko, egurtzeko eta unean uneko behar komunikatiboetara egokitzeko baizik. Horixe da

bat-batekoarekin egin dena eta bidaia harrigarri bezain ederra burutzea lortu da. Pena da bertso jarriekin, kopla zaharrek, esaera zaharrek eta ahozko ondare kulturalaren beste zenbait elementuekin ez dela bidea osorik egiten asmatu.

Badago berrikuntzarekin oso konforme ez dagoela azaldu izan duen jendea ere.

Nik ulertzen ditut lehengoaren mirarekin daudenak, baina hedabideetan hainbeste ateratzen ez bada ere lehengo horrek baditu bere zirkuitoak. Sagardotegian ere egiten da bertsoan eta bertso afarrietan edo lagunartean. Librekoak ere funtzionatzen du eta abar.

Intelektual batzuentzat askoz ere erosoagoa litzateke bertsolaritza garai batekoa izango balitz, eurekiko konplexuz betea, alegia, maisutzat hartzen dituen eta marginala. Erakusteko polita, modernitateak ukitu gabeko zelebrekeria etnografikoa.

Apustua beste bat izan da, ordea. Bizirauteko bertsolariak eurak jarri dira mugimenduaren buru, garai berriei egokitzea erabaki da eta zentraltasuna irabazten saiatzea. Museoan baino nahiago izan da eguneroko mugida kulturalaren erdian egon. Horixe da hain zuzen moderno izatea, eguneroko mugida kulturalaren erdian egotea.

Argi dago Elkarteak sekulako bultzada eman diola bertsolaritzari, baina aurreko belaunaldietan arituriko eragileek ere ekarpen garrantzitsuak egin zituzten, ezta?

Bai. Manuel Lekuonaren ekarpena, esaterako, funtsezkoa izan zen bere garaian. Edo Basarrik ere, izan duen atzerakoi famarekin, oso ikuspegi modernoak dauzka. Baita Aitzolek ere... Basarrik Arestirekin daukan eztabaida ikusgarria da. Bertsolariak ez direla poetekin nahastu behar defendatzen du, eta marko propioaren aldarrikapen horrek sakontasun handia dauka.

Egin den guztia ez da ongi egindakoa izan, noski. Aitzolek, esaterako, formazio klasiko handia zuen eta nahi zuen Txirrita Ovidio izatea. Ahozkotasanari idatzitik begiratzea da hori, Basarrik esango lukeen bezala bertsolaria poetarekin nahastea, eta begirada horrek luze iraun du, Euskaltzaindiak ere bere egin baitzuen, epaitzeko irizpideak, gaiak jartzeko moduak eta abar baldintzatu dituelarik.

Saiakera hauetan ere bertsolaritza bezalako ahozko fenomeno bazterreko bat bultzatzeko ahaleginak berak ere meritu handia dauka, ordea, inguruko kulturetan ahozkotasanari balio handirik ematen ez zizaion garaietan egindakoak baitira.

Olerkigintzarekin egindako saiakerak huts egin ondoren iritsi zen Aitzol bertsolaritzara. Alegia, euskal kultur sistemaren ezaugarri bereziek ere, idatzia behar bezala garatzeko behar diren baldintzak oso berandura arte eman ez izanak, eragin dute ahozkoari ohikoa ez den indar batekin eutsi izana.

Horrela da, ahozkotasuna indartzen ari da berriro mundu mailan, laster ordenagailuak teklaturik gabe funtzionatuko dute, diktatuta, eta gu atzerapenaren atzerapenez toki pribilegiatuan harrapatuko gaitu horrek. Baina, neurri batean bakarrik da horrela. Alegia, ahozkotasanak gurean duen indarra baldin badu horretan sinestu egin delako eta aldeko apustua eta lana egin direlako ere izan da.

Zein dira, zure ustez, etorkizuneko erronkak?

Ikerketa garatu beharra funtsezkoa ikusten dut. Berrikuntza eta bilakaera bera orekatuak izan daitezkeen ezinbestekoa da ezagutza sakona eta horretarako ikerketa behar da. Aspaldidanik egin izan dira hainbat planteamendu baina ez dira gauzatzera iritsi.

V.IX JEXUX MARI IRAZU. VILLABONA, 2017/IX/28

Bertsolaria eta kazetaria. Euskal Herriko Txapelketa Nagusian finalista hainbatetan. Hernaniko Kronikan urte luzez kazetari ibilitakoa, bertsolaritzari buruzko lehen hedabide digitala jarri zuen, bertsoa.com, 2007. Horretan dabil orain ere (bertsoa.eus da orain), Elkartearen baitan, 'Hitzetik Hortzera'n ere kolaboratzen. Argia Saria birritan irabazitakoa, bigarrena bertsoa.eus-en lanagatik.

Sarean irekitako bidea

Bertsoa.com martxan jarri aurretik kazetari lanetan ibili zinen. Zein izan zen ibilbidea?

Lehen probaren bat Euskaldunon Egunkarian egin nuen. Akordatu naiz 1993ko Euskal Herriko txapelketaren inguruan finalista guztiak elkarriketatu nituela eta soslai moduko bat ere egin nuela bakoitzarekin. Gero zutaberen bat ere idatzi nuen egunkari berean.

Gero, 2000 urtean Hernaniko Dobera Euskara Elkartek Kronika sortu zuen Arrasate Pressek eta ireki zuten ildotik tokiko aldizkari euskaldun eta herrikoi gisa, eta bertan aritu nintzen lanean hasieratik. Denetik egitea tokatu zitzaidan eta zazpi urte egin nituen bertan.

Nolatan animatu zinen bertsoa.com martxan jartzera?

2006an hasi nintzen lehen probak egiten. Egia da oraindik ere Internet berri samarra zela eta beldur pixka batekin hartzen zuela jende askok, baina baziren urte batzuk zabaltzen hasia zela. *Kronikan* ere baguenen gure webgunea, beraz, ideia ez zen berritasunaren liluratik sortu.

Gehiago etorri zen bertsogintzaren inguruko kezkatik. Garai hartan plazetan bertsoan nabilen eta Elkarteko zuzendaritza ardura batzuk ere banituen, eta nire pertzepzioa zen bertsolaritzak hedabideetan presentzia irabazi arren, bertsoa berak, eduki bezala geroz eta protagonismo gutxiago zuela. Batez ere produkzio garaikideak behar besteko islarik ez zuela ikusten nuen. Adibidez, Euskadi Irratiak duela 50 urtekoak eskaintzen zituela kasik gehiago berriak baino.

Pentsatuta bertsoak ikus-entzunezko euskarria eskatzen duela eta Internetek horretarako espazio mugagabe bat eskaintzen duela eta hartzailak bere hautua libreki egiteko aukera ematen duela, bitarteko interesgarria iruditu zitzaidan gabezia horri aurre egiteko.

Eskaintzak zertan zetzan?

Gerora, handik urte batera edo, proiektua garbi samar ikusi banuen ere, hasiera horretan itsumustuan egindako proba mordoa egin nuen.

Batzuk, gaurtik ikusita, surrealista samarrak ere baziren. Adibidez, bertso-eskola digital baten ideia ibili nuen bueltara. Aparteko webgune bat zen, itxia, pasahitzarekin sartu beharrekoa, eta kontsultak egiteko aukera, ariketa batzuk egiteko bitartekoak eta abar eskaini ote zitezkeen aritu nintzen. Skype bidezko hartu emana ere baliatu zitekeela iruditzen zitzaidan... Azkenean lehen fase batean gelditu zen, garatu gabe.

Bertsotube izeneko kanalarekin jendeari bertsolaritzaren inguruan grabatzen zituen bideoak igotzeko aukera ireki eta erreferentziala izatera iris zitezkeen biltoki irudikatzen nuen. Baina hainbat arazo tekniko eman zituen eta ez zuen mugimendu handirik sortu. 2008an itxi nuen.

Bertso Plaza Digitala zen proiektuaren izen osoa eta lehen planteamendu hartan bertso plaza batean topa zitezkeen elementu guztiekin osatu nahi izan nuen egitura: bertsolariak, gaiak, emanaldi bereziak... Hori ere ez zen eramangarria.

Hala ere, erantzun polita izan zuen, ezta?

Bertso-saio mordoa grabatu eta bertatik eskaintzen nituen. Edo streaming bidez ere eskaintzen nituen saio batzuk. Astero saiorik erreferentzialenak sarean aurki zitezkeen. Albisteak ere jartzen nituen. Eta eskaintza horrek bai funtzionatu zuen.

Hasieran beldur pixka bat baneukan, beste egile eta bertsolarien kontuetan sartzea ere bazen eta proiektu berrietan badakizu zer gertatzen den. Nik baimena eskatu nien denei, esanez erabilera zein izango zen. Esan nien bideoak ezin izango zirela deskargatu, autoretza nolabait errespetatzeko. Denek oso ondo hartu zuten. Nik uste dut alor berri bat ikusi zela bertsolaritza landu eta zabaltzeko.

Urtebetera bertsoplaza.tv jarri zuen Elkartek martxan.

Nik bertsoa.com-ekin lehen pausuak ematen nituen garai beretsuan Elkartek sekulako lana egin zuen bere webgunea goitik behera berritzen. Hura bukatu zutenerako nirea jada martxan zebilen eta interesgarria iruditu zitzairen. Bidea proiektu pertsonal gisa hasi nuenez une hartan ez nuen garbi ikusten Elkartearen eskutan jarri behar zen edo nirea izan behar zen. Bazuen puntu pertsonal bat kontuak eta horri segida emateak dezente tentatzen ninduen.

Elkartek bere proiektua abiarazi zuen. Ion Ansa jarri zuten proiektuan lanean ordurako sustapenerako eragile zebilen Jon Agirresarobe *Torrotxo* eta Jexux Muruaren laguntzarekin.

Bestalde, nire proiektuan Beñat Gaztelumendi sartu zen, hasiera batean administrazio lanetan eta kudeaketan laguntzeko baina gerora hainbat lan eginez, eta Librean Kooperatiba Elkarte Txikia eratu genuen.

Noiztik egon da elkarlana?

Inoiz ez da lehiarik izan. Hasieratik trukatu genuen informazioa Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin. Eta 2009an bat egitea erabaki genuen. Bi proiektuen eskaintza oso antzekoa zen eta ikusi genuen hobe zela eskaintza on bat, bi sakabanatuta baino. 2010ean hitzarmena egin eta ordutik talde bateratu gisa funtzionatu dugu.

Bertsoa.eus berritua

Txapelketara begira ataria berritu duzue. Zein izan dira aldaketa nabarmenenak? Zenbatgarren berrikuntza da?

Diseinua berritu eta triapak aldatu ditugu. Batez ere bertsoaldien eskaintzari eman nahi izan diogu protagonismoa. Ikusten genuen hamar urtetako ibilbidean bildutako materiala genuela, Xenpelar Dokumentazio Zentroak are gehiago zuela bilduta, eta guzti hori ez zela behar bezain ongi aprobetxatzen. Beraz, artxiboa Xenpelarrekoekin aberastu eta berrantolatu egin dugu eta bilatzailea hobetzea izan da lehentasuna. Honela, bertsolarikako atala gehitu dugu: bertsolariaren izena sartu eta hark eskainiriko bertsoaldien multzoa agertuko da. Baita doinuen atala ere: doinu berarekin eskainiriko bertsoaldiak elkarrekin multzokatuta ageri dira.

Bideo bakoitzak hainbat etiketa ditu eta etiketa horien bidez bideo horrekin harremanen bat duten bideoen zerrenda ere iradokitzen da. Alegia, bertsolari berdinen bideo gehiago, gai berari buruzko gehiago, saio bereko gehiago, doinu bereko gehiago eta abar. Hori ere berrikuntza garrantzitsua da.

Informazioa atalaren baitan albisteak, elkarrizketak eta agenda eskaintzen dituzue. Bertsoaldi historikoak ere ageri dira atal honetan. Bertsoak atalaren baitan bertsoaldiak bertsolarika, saioka edo doinuaren arabera antolaturik. Bereziak atalean bertsoaldi gehiago, txapelketa ezberdinen arabera multzokatuak. Ikus daitekeen gisan, eta aipatu duzun bezala, bertsoaldia jasotzen duten bideoak dira nagusi.

Bertsoaren beraren eskaintza zabal bat beste inork baino hobeto egiteko bitarteko guztiak izanda indarrak hor jartzea erabaki da. Alegia, bertsolaritzaren beste hainbat alderdi hedabide askotan lantzen dira, eta horretara jarriko bagina nolabait bikoizketa bat emango litzateke

Zein irizpideren arabera aukeratzen dira saioak eta emitituko diren bertsoaldiak? Zenbat saio eta bideo izaten dira astean? Bideoen iraupenaren inguruko irizpiderik?

Astero bi saio grabatzen ditugu gutxienez. Hortik aurrera ahal dena eta saioa aukeratzekoan irizpide asko hartzen dira kontutan: Erreferentzialtasuna, kalitatea, herriak, generoa, jende berria sartzea... Lokalegiak ez izatea ere bai.

Gero, saio bakoitzeko, ahal den neurrian parte hartu duten guztiak sartzen saiatzen gara. Ez dugu osorik saiorik ematen; gure unitatea bertsoaldia da, hasi eta buka. Saioko sei edo zortzi bertsoaldi izaten dira: baten agurra, bestearen lehenengo ariketa, hurrenaren bigarrena...

Txapelketetan bertsoaldi gehiago sartzen da saioko logika desberdina delako: puntuaketa dago eta horretara nola iritsi garen esan behar da.

Zuek grabatzen duzue guztia edota XDZren biltzaileek jasotakoaz ere baliatzen zarete?

Urtean 200 saio inguru sartzen ditugu, 150 inguru guk grabatutakoak. Ahal den gehiena ateratzen da, baina filtro bat pasatu ondoren. Grabazioak bidaltzen dizkigutenean, adibidez, herrietako txapelketak, lau inguru aukeratzen ditugu, berdin Gipuzkoako herri artekoekin. Agian 50 saio izan dira eta dena ezin da sartu... Formatuak tartekatzeari ere garrantzia ematen diogu. Alegia, tarteka afariak eta gisakoak sartzeari.

Guztira 2000 saio inguru izango ditugu etiketatuta.

Zer balio erantsi eskaintzen dute bertsoaz gain eskaintzen dituzuen edukiek?

Albisteek eta agendak plazako mugimenduaren jarraipen informatibo bat eskaintzen dute. Elkarrizketek sorkuntzaren atzean dagoen motibazioa eta gogoeta. Denak dira garrantzitsuak, sorkuntza testuinguratzeko eta hobeto ulertzeko balio dute.

Kazetaritza ikuspegitik lan elaboratuenak elkarrizketak izango dira. Edo ez? Kazetari gisa horrelakoak gehiago sartzeko tentaziorik ez duzue izaten?

Tira, zuzenekoak ere badu bere indarra. Urtero laupabost saio streaming bidez ematen ditugu eta poza ematen du gauza bat ondo ateratzen denean eta zure zerbitzuaren bidez jendeari egoki helarazi diozunean.

Baina bai, egia da elkarrizketak ederrak izaten direla, batez ere etorritako jendeak hitz egiteko gogoak daukanean. Astero gai nagusi bat lantzen saiatzen gara, elkarrizketak eta erreportajeak txandakatuz. Gero zatikatuta eskaintzen ditugun arren elkarrizketak luzeak izaten dira normalean, 40 minututik ordubetera bitartekoak, eta askotarako ematen dute. Proiektu eta ibilbide pertsonalari erreparatzen zaio, motibazioak azaldu eta abar, beti bertsolaritza eta bertsogintzaren ikuspegitik. Bestalde, bertsolaritzak nora joan beharko lukeen eta abar ere lasaitasun handiz jorratu ohi da. Zintzotasunetik eta naturaltasunetik aritzen dira elkarrizketatuak, dezente biluzten dira eta polita izaten da hori bizitzea eta gero edizio lanarekin borobiltzea: sintesi moduko sarrera bat egin, aukeraketa egin, musika sartu...

Taldeko proiektu bat denean, harrapatu ezin izan den ekimenen bat azaltzeko edota produktu berriren bat edo ikerketaren baten emaitzak aurkezteko erreportajea egin ohi da. Elkarrizketa txikiak egin, bestelako irudiak bildu... Hor ere gustura ibiltzen gara.

Iritzia, genero berezitu gisa, ez duzue lantzen.

Gogoeta egin dugu zutabeak eskainiz landu beharrean elkarrizketetan galdetuz lantzea. Zer esan handirik ez duena zerbait esateagatik esatera behartzen du zutabeak askotan. Bestalde zutabeetan badago joera gai pertsonalak jorratzeko edo idazten dituen eguneroko kontuetan kokatzeko. Hori ez zaigu interesatzen. Elkarrizketak, aldiz, iritzi interesa non dagoen antzeman eta hari galdetzeko aukera ematen du. Eta ez dugu gai pertsonalei edo bertsolaritzaz kanpo dagoen gaurkotasanari buruz galdetzen.

Hala ere ez gaude itxita. Web berri genuenean horrela egitea erabaki zen baina beharra ikusten badugu irekiko dugu bide hori ere. Orain datorren txapelketari begira, adibidez, bai sartuko ditugu iritzi testuak.

Funtzionamendua

Zein da egun Bertsoa.eus-en lantaldea? Badago funtzioen espezializazioen bat?

Zazpi lagun gaude lantaldean eta batzuk gehiago jartzen dira errealizaziora, besteak ediziora, hurrengoak erredaktore lanetara... baina denok egiten dugu denetik. Ardura banaketa dago baina alor guztiak kontrolatzen ditugu guztiek. Eneritz Urkola da koordinatzailea.

Kudeaketa eta administrazio lanak zuek egiten dituzue? Eta komertzial lanak?

Kudeaketa eta administrazio lanak azken bolada luze batean neuk egin izan ditut baina aurrerantzean Eneritzek egingo ditu.

Komertzial lanik ez dugu egiten. Elkarrekin Sustapenean kokaturik dauka komertzial alorra. Garai batean neroni saiatu nintzen publizitatea lortzen, baina dirua ematen zuenik ez zitzaidan atera. Trukeko batzuk sartzen ditugu eta babesle orokorrak.

Zenbatekoa da urteko aurrekontua?

Finantziarioa Elkarrekin hedapenerako daukan aurrekontutik ateratzen da. Proiektu zehatz honen kostuari buruzko datu xeherik neuk behintzat ez dut manejatzen. Kalitatezko materialarekin ari gara orain, kamerak eta abar, eta horrek guztiak produktua garestitu egin du, inbertsio garrantzitsuak egin behar izan dira.

Ze plangintzarekin funtzionatzen duzue? Urtekoa-hilabetekoa-astekoa?

Astero bilera egiten dugu lan taldeko guztiek. Hilabeteko aurrikuspena egiteko hilerokoa ere badugu eta urteko plangintza egiteko urtekoa ere bai. Urteko horretan hiru-lau urterako ikuspegiak ere egiten dira estrategia orokorrean: zabalkundea, sare sozialen bilakaera...

Zein dira 'Hitzetik Hortzera'ko taldearekin, Elkarrekin Komunikazio Sailarekin edota Sustapenekoekin dituzuen lankidetzak esparru eta sinergiak? Zenbaterainoko autonomia du bertsoa.eus-ek bere gaiak aukeratzeko?

Hitzetik Hortzera-koekin harreman zuzena dugu. Bileretan bi produktuak jorratzen dira eta bien inguruko erabakiak hartzen dira.

Elkarrekin barneratuta dauka bere komunikazioa eta bi eskaintza hauek plano diferentetan daudela eta guk hedabide izaera dugula. Beraz, autonomoak gara eta erabakiak geuk hartzen

ditugu. Dena den koordinazioa ezinbestekoa da, gauza bakoitzak non joango beharko lukeen jakiteko eta antzeko edukiak ematen direnean ikuspegi desberdinak lantzeko.

Aldaketa garrantzitsua izan dugu urte hasieran Sustapena eta Hedapena sail autonomo gisa banatuz. Bolumen handia hartzen ari zen gauza eta antolaketa berriak baliabide gehiago eman dizkigu. Orain gure koordinatzailea daukagu eta ikuspegi orokor horrekin lan eginda hobeto funtzionatzen du guztiak..

Zein dira gehien asebate izan zaituzten lanak? Eta nekezena suertatzen zaizuna?

Koldo Tapiari egindako elkarrizketa oso gogoan gelditu zait. Aitortza asko egin zizkidan eta horiek dira gehien eragin didatenak. Berriki Sotori egindakoak ere sekulako zirrara eragin zidan. Harritu egin ninduen izandako esperientzia gogorrari buruz, anaiaren heriotza, nolako soseguearekin hitz egin zuen.

Buruhauste gehienak, berriz, oholtzaren bi aldeetan ibili beharrak eman zizkidan, bertsolari eta aldi berean kazetari izateak. Biak bateratzeak baditu abantailak, jendea ezagutzea eta abar, baina baditu zailtasunak ere. Kantuan aritu ea streamingak ongi funtzionatuko duen kezkatu-rik zauden bitartean...

Sarearen potentzialitateak

Sarearen baliabideak baliatzeko ahalegina badago bertsoa.eus-en. Hipertestualtasuna garaturik duzue, multimedialtasuna ere bai, memoria... Baliabide hauen jabetze eta baliatze prozesua nola izan da? Hasieratik kontrolatzen zenituzten denak?

Ez naiz informatikaria, ezta Interneten potentzialitateez inolako ikastarorik egindakoa ere, beraz beti ibili behar izan dut nire kasa ikasten. Gehienbat bertsolaritzatik eta kazetaritzatik kontrolatzen nuena sarera eramaten hasi nintzen. Pixkanaka. Besteek zer egiten zuten ikusi, beste webguneek nola antolatzen zuten eta edukiak nola ematen zituzten begiratu...

Sareko telebista bat da esku artean duguna eta esperimentu eta proba asko egiteko aukera dago, baina baliabideak behar dira horretarako. Internet medio merkea dela esan ohi da, eta horrela izango da beste batzuekin alderatuta baina lanketan sakontzea garestia izaten da beti.

Foroak, irakurleen komentarioak, irakurrienak eta gisakoak, elkarreragintasunari dagozkionak ez dituzue baliatzen. Zergatik?

Filosofia izan da, iraun behar badu, izan dadila bertsogintzari eta bertsolaritzari baliagarri izateko neurrian, bestela kendu. Gogoeta maila bat eragiteko ez zuen ematen, lanak ere ematen zituen eta erabaki hori hartu da azkenean.

Izango al du Sareak telebistak izan duen zentraltasuna?

Ez. Hala ere, erantzunak bi plano ditu. Batetik, bertsogintzaren biziberritzean, bertso-munduaren barne dinamika elikatzeko, bai hartu du Sareak garai batean bertso-jarriek edo beste hauspo batzuk bete zuten tokia

Gizarte mailako planoan kanal aniztasun bat da egun funtzionatzen duena, eta aurrerantzean ere horrela izango dela iruditzen zait. Gizartera begira guk Sarean egin dezakegun lanaz gain ezinbestekoak izango dira irratia, prentsa eta zer esanik ez telebista ere. Neurri horretan telebista publikoak ez dezala esan 'Sarekoa badagonez horrekin nahikoa da'.

Zein da daukazuen *feedbacka*? Iristen zaizue jendea gustura dagoenik?

Azkena egin dugun berrikuntzarekin gustura agertu da jendea... Webguneak berak 200.000 sarrera ditu urtean, Google-en estatistiken arabera, Google-ek esaten duena sinistu beharko dugu. Eta gero, erabiltzaile bakar bezala, 70.000-75.000 tartean. Sare sozialetakoa, nahi duen bezala kontatzen baditu ere, Youtuben daukagun kanalean, amu gisa saioko mustraren bat edo elkarrizketan sarrerak jartzen ditugu hor, beste 100.000 bisita inguru.

2007tik, hamar urtean, ia bi miloi bisita izan ditu webguneak. Beraz, erantzun bat duen eskaintza bat dela esan daiteke. Urtero 400.000 bisitatik gora ibiltzen gara, webgunea, Yotutube eta facebook batuta, urte horretan tokatzen den txapelketa kopuruaren arabera zerbait gorago edo beherago. Hori da feedbackik garrantzitsuena.

‘Hitzetik Hortzera’ puri-purian zegoen garaian saturazio arriskua, errealitatea deformatzeko arriskua, elitea bakarrik islatzekoa eta beste hainbat aipatzen ziren. Sarean lanean ari zaretenean presente dituzue kontu hauek?

1990eko hamarkadan entzuten ziren gehiago kontu horiek eta uste dut gure buruetan zegoen zerbait izan zela gehiago errealitatean eman zen zerbait baino.

Saturazio arriskurik ez dut ikusten. 2000ko hamarraldian bertsolaritzaren apar hori pixka bat jaitsi zenetik ez dugu kezka hori izan.

Gero, egia da grabaziorako irizpideek mugatzen gaituztela zenbaitetan. Bideo batean eskaintzeko errazagoak dira jaialdiak bestelako formatuak baino, eta, honenbestez, askoz ere jaialdi gehiago eskaintzen dugu. Errealitatean urtean 2000 saio badira, 300 izango dira jaialdiak, eta guk eskaintzen dugunak alderantzizko proportzioa izango du gutxi gorabehera. Errealitatearen desitxuraketa bat dago hor, baina ezinbestean ematen da. Batetik, beste formatuak gehienetan eremu pribatutik oso gertu mugitzen dira eta interes publikotik gehiago daukanetik hartu behar duzu. Bestalde, esan bezala, bestelako formatu horien laburpena, edizioa eta abar askoz ere konplikatua dira.

Hala ere, saiatzen gara bestelakoak ere eskaintzen, telebistan azaltzen ez direnei Sarean toki bat egiten. Telebistara bertsozale arruntak gehien goza ditzakeenak eramaten dira eta bertso-munduko jendeak, zaletu amorratuak Sarean beste alternatiba bat izango du. Banaketa honekin medio batak besteari karga kentzen dio eta bakoitzak bere profil propioa indartzen du.

Oso presente daukagu aniztasuna zaindu behar dugula, medio orokorrek eskaintzen ez dutena eskaini behar dugula, eta bertsozale gazteenentzat erakargarri izaten asmatu behar dugula. Egia da txapelketa garaian txapelketa bakarrik ematen dugula, ez garelako denera iristen. Hipoteka hori badaukagu, baina hiru hilabetekoa da. Txapelketa bukatzean bestearekin jarraitzen dugu.

V.X FELIX IRAZUSTABARRENA. VILLABONA, 2017/IX/19

Kazetaria eta eragilea. Programaren bigarren urtetik gaurdaino, ia 30 urte 'Hitzetik Hortzera'n egin ditu hainbat funtzio beteaz, tartean baita zuzendari postua ere. Bertsoa.eus-en ere egiten du bere ekarpena egun Hedapen taldeko kide bezala. Bertso-saioetan antolatzaile, aurkezle, gai-jartzaile eta epaile ibilitakoa.

Bertsolaritza eta telebista: aurrekariak

Gogoratzen duzu ikus-entzunezko zaharren bat bertsolariak azaltzen direna? telebistarako izan gabe ere, dokumentalen bat, artxibatu ahal izan den irudiren bat...

Badaude batzuk. Adibidez albistegietan 1980 inguruan Amuriza HBko mitin batean bertsoa botatzen. Pedro Mari Goikoetxeak eta Iriondok aurrez aurre egin zituzten elkarrizketa zahar batzuk ere badaude.

Bertso Egunean 1980 hamarraldi hasieran egin ziren omenaldi batzuk, Loidisaletxerena, esaterako. Ez dakit inon emititzera iritsi ziren baina badaude grabatuta. Baserriri egindako omenaldi haundi bat ere badago ETBk hartutako irudiekin.

Beñat Gaztelumendik *Bertsolari* aldizkarirako 'Hitzetik Hortzera'ri buruz egindako erreportajea komentatzen da ETBra bertsolaritzaren inguruko lehen lanak Hasier Etxeberriak ekarri zituela. Ez du gehiago zehazten. Badakizu zuk zerbait?

1986an txapelketa nagusia eskaini zuen ETBk. Orduetik telebistan zerbait eman nahian hasi ziren eta 1988an 'Ahotik Ahora' programa hasi ziren emititzen. Zuzendaria Hasier Etxeberria izan zen.

Hilean behin saio bat antolatu, grabatu eta osorik eskaintzen zuten. Telebistako aurkezlerik ez zeukan. Esango nuke lau bertsolari zirela, Arantzazu Loidi, Abel Enbeita... saio bat jende aurrean Lizarrakoa zine batean. Ordiziako zinean ere egin zuten beste bat eta Gasteizen Villa Suson. Uste dut hauek direla denak, bederatzi hauek [Bederatzi saioen datuak jasotzen dituen dokumentu bat pasatzen dit]. Grabatu eta piska batera ematen ziren. Hilean behin.

Elkarteak ez zeukan esku hartze handirik. Bakarrik eskatzen zuen zerbait oso gaizki ateratzen bazen kentzeko aukera izatea.

Gogoratzen duzu 'Hitzetik Hortzera'ra eraman zuen bidea nola egin zen?

Gogoratzen naiz saltsa pixka bat egon zela aurretik bertso programa bat ateratzearen inguruan. 'Eztabaida' izeneko eztabaiden programa bat emititzen zen eta hor norbaitek esan zuen ea bertsolariek ordubete egingo al zuten segidan kameran aurrean eztabaidarako gai bat emanda. Noski, egiten zutela, baina dezenteko parafernalia montatu zen, Amuriza eta Lizaso eraman zituzten eta erloju bat ere jarri zuten. Arrakastatsua izan zen. Eurek ere egin zuten antzerki pixka bat: saioaren erdialdera Lizasok puru bat piztu zuen deskantsua hartzeko...

Bigarren saio bat egin zen 'Eztabaida' horretan eta hor jada gaia seriotasun gehiagorekin landu zuten. Joxerra Garzia, Imanol Lazkano eta besteren batek defendatu zuten bertsolaritzaz programa batek funtzionatuko zukeela.

Edozein kasutan bidea ez zen erraza izango 1988ko abenduan, 'Hitzetik Hortzera' ren lehen programari honela ekiten baitio Joxerra Garziak: "bueno, kosta zaigu baina azkenean hemen gaude...".

'Hitzetik Hortzera': aldiak

Noiz sartu zinen zu?

1990ean egin nituen lehen sartu irtenak. Erredaktore gisa.

Ordutik gaurdaino hor egon zara beti?

Bai, modu batean edo bestean bai.

Lehen aldian Joxerra Garzia aritu zen zuzendari eta aurkezle. Lehen hamar programa hilean behin eta bakarrik egin ondoren 1989ko urritik aurrera asterokoa bihurtuko da eta talde bat bilduko zaio. Ze martxa eta izen gogoratzen dituzu garai hartatik?

Maite Odriozola, Olatz Egia, Joxe Mari Gabiria... zebiltzan erredakzioan. Pello Elizasu zen errealizadorea. Eta teknikari gehiago ere bazebiltzan, kamerekin, errealizazioan laguntzen eta abar. Gogoan daukat saio batzuk kamera bakarrarekin grabatzen zirela, baina beste batzuetan bi kamera eta errealizatzailea ere joan izan zirela saiora.

Saioa komentatzeko ere eraman izan zen jendea. Rufino Iraola, adibidez. Baita Andoni Egaña eta Jon Sarasua ere. Gogoan daukat errimen margaritaren kontua azaldu zutela eta horrek ere dezetenko oihartzuna izan zuela.

Hausturaz denetik dago jaso. Zuk ze oroitzen duzu?

Aurreko udan Joxerra urteko antologia moduko bat egitera behartu zuten. Elkartek ez zuen horrelakorik nahi: deskantsua inportantea zela esaten zuen, ez zirela saioak hainbeste errepikatu behar eta abar. ETBk ez zien kasu handirik egiten. Joxerra bera ere bat zetorren kontu horietan Elkartearekin, nahikoa erreta zebilen gainera programarekin eta ez zion graziarik egin udako hark. Egun batean hamar sarrera grabatu eta aurreko saioen *refrito* bat ateratu zen. Hori izan zen etenaren hasiera.

'Debaldeko Festa' programa ere jarri zioten eta bertsolari gazteen zentsurarena hor gertatu zen. Horren ondoren harremanak gaiztotu eta Elkartek hitzarmena haustea erabaki zuen.

Elkartea eta ETBren arteko harremanen etenak markaturiko aldia dator ondoren 1995 eta 1996 urteetan. Tarte horretan Maite Odriozola zuzendari zuen 'Bertsoz Bertso' emititu zen, artxiboko irudiekin. Bazen aurkezlerik? Noiz emititzen zen baduzu gogoan?

Ba egia esan ez zait gogora etortzen... Gogoan daukadana Lazkao Txikiren omenaldian bertsolariek ETBri egin zioten plantoa da. ETBk grabatu egin nahi zuen, bertsolariek esan zuten telebista agertzekotan eurak ez zirela joango, eta, bueno, joan egin ziren baina kantatu ez.

1997an itzultzen da 'Hitzetik Hortzera'. Maite Odriozola izango da zuzendari eta Iñigo Aiestaran aurkezle. Zer ekar zenezake aldi horretako taldeari eta programaren ezaugarriei buruz?

Txapelketa urtea zen 1997a. Txapelketa emititzea interesatzen zitzaion telebistari eta ezin zuen egin Elkartearekin akordio batera iritsi gabe. Elkartek ere nahi zuen 'Hitzetik Hortzera' itzultzea. Akordioa erdi itxita zeukaten baina aurkezlea adostu gabe. ETBk filtratu zuen Joxe Mari Iriondok aurkeztu behar zela eta harremana eten egin zen berriro. Azkenean Iñigo Aiestaranen inguruan lortu zen adostasuna.

Osatu zen taldean banenbilen ni ere. Gogoan daukat Unai Loidi eta Luis Oiartzabal aritu zirela erreportari eta arrakasta polita izan zuen atal bat egiten zutela: ‘Egin zaidazu bisita’. Bertsolari zaharrei joaten zitzaizkien bisitan. Pablo Txikiarengana joan ziren, edo Juan Inazio Begiristaini Aralarreko bere artzain bordan egin zioten elkarrizketa.

Gainerakoan esango nuke Joxerrak egiten zuen ereduari jarraitzen zitzaiola. Agian grafismo aldetik izango zen landuagoa. Astean bi edo hiru saio grabatzen genituen eta hori zen oinarria. Ordutegia ere berdina zen, igande bazkalondoan, boladaren batean ostiral iluntzera aldatu bazen ere.

Maite Odriozola, Martin Aramendi eta hiruok ibiltzen ginen gehiena erredakzioan. Karlos Aizpuruak ere egin zuen bolada bat bertan.

Beste nobedade bat Aitor Mendiluzek egiten zuen bertso-eskolaren atala izan zen. Elkartek funtzio didaktiko bat eman nahi zion programari eta horri erantzun nahian sortu zen atala. Arbel baten aurrean azaltzen zen Mendiluze. “Ba al dakizu zer den potoa?” botatzen zuen galdera eta azalpenak eman.

1999an hasten da programaren hirugarren etapa. Josu Goiko izango da zuzendari.

Lehen urtean Arantza Hirigoien eta biak aritu ziren aurkezten eta bigarren denboralditik aurrera Josuk bakarrik egin zuen.

Hor lehenengoz ETBk uzten du programa gure esku tartean ekoiztetxe baten laguntzarekin. ETB platoan grabatzeko bakarrik erabiltzen genuen, eta gainerako lanketa tekniko guztia Lasarteko Digital Moviles ekoiztetxeak jartzen zuen.

Lan taldean Jon Elortza zen errealizadore, Amaia Tejeria ekoizpen laguntzaile eta erredakzioan Amaia Agirre, Martin Aramendi, Patxi Egurrola, Josu Goiko eta neu ibili ginen.

Joxerra ere itzuli zen, elkarrizketak egiten zituen kolaboratzaile gisa. Platoan grabatzen ziren eta elkarrizketa ederrak egin zituen: Juan Mari Lekuona, Sarasua, Euzkitze...

Erreportajeak eta elkarrizketak txandakatzen hasi ginen. Denboraldiko hamar bat erreportaje eta beste hainbeste elkarrizketa emititu genituen. Sakon eta luze samarrak izaten ziren gainera, hamar hamabost minutukoak... Egun jada arraro ikusten dira horrelako luzerak... Garai hartan dezente entzun genuen bertso gehiago eta berriketa gutxiago nahi zuela jendeak.

Nobedade handiena hori izango zen, erreportaje eta elkarrizketa luzeak eskaini genituela, eta baita bertso musikatuekin egin zen ahalegina ere.

Joxerrak aurretik ere egin izan zuen Xabier Leterekin, esaterako, baina beti platoan. Etapa honetan platotik kanpo hainbat emanaldi antolatu genituen, Oiartzungo Pagoan adibidez. Hasieran bertsolariak jarri genituen abesten, baina gero kantariak ekartzen hasi ginen Kantuzale Elkartearen bidez. Thierry Biscari etorri zitzaigun, Gorka Knörren semea ere bai, Oreretako Arrate...

Jarri berriekin ere egiten zen. Amets Arzallusen batzuek arrakasta handia izan zuten. Eta publikoa ere eramaten genuen saio horietara, hamabosten bat lagun.

Zein zen emisio ordua? Zuzenekorik egin zenuten? Bertso kritikarik?

Betiko ordua mantetzen zen baina errepikapena astearte iluntzean eskaintzen zen, eta zuzenekoren bat ere egin genuen, 2001eko eta 2005eko txapelketen finalak, esaterako.

Kritika, gogoan daukat 2005eko txapelketan Martin Aramendi eta Anjel Mari Peñagarikano jarri genituela horretara. Aramendik urtean zehar ere egiten zituen ekarpenak kritikari gisa.

Eta hartatik grazia gehienetakoa egiten didana ‘Zirika’ izeneko atal bat da. Umorezko pieza ganberro samar batzuk ziren. Bertsoaldi zahar bat hartu eta irudi zaharrekin josten genuen. Bertsolariak zein animalien antza zuten kontatzen zuen bertso batekin egin genuen behin...

Laugarren etapa 2006an hasten da. Zeu jartzen zaituzte zuzendari eta Saroi Jauregi eta Martin Aramendi aurkezle.

Digital Movilesekin jarraitu genuen. Errealizazioan Izaskun eta Erguin ibiltzen ziren. Erredakzioan Amaia Agirrek jarraitu zuen eta Jon Ansa ere sartu zen bukaera aldera. Talde txikiagoa zen aurrekoa baino, aurrekontuak txikitzen joan baitziren. Beherako joera hori izan da tonika normalena 1999an programa hartu genuenetik...

Berrikuntzetako bat izan zen aurkezleak eurak jarri genituela saioak iruzkintzen. Bestela, txapelketen inguruan bai lortzen zen norbait komentarioak egiteko baina jaialdi arruntetan askoz ere zailagoa zen. Beraz, asteroko saioen inguruan platoan bertan aurkezleek iritzia emateko ahalegin bat egin genuen.

Geure buruari jarri genion beste helburuetako bat jaialdien ohiko egituratik ateratzen zirenen jarraipena egitea izan zen. Oso modan zegoen bertso-poteoa eta atera genuen; Bertso Showa, GR7, GR9...

Artxiboa gehiago erabiltzen hasten gara, aktualitateari jarritako bertsoak eskatzen, ‘asteko bertsoa’ ere azpimarratzen genuen, bertsolariak platora eramaten ditugu euren bertsoaldiak komentatzera, agenda oso landu bat eskaintzen da...

Hala ere asteroko saioetako bertsoaldi hautatuak izango dira beti programaren oinarria.

Bai, bai. Etapa honetan agian badago filosofia aldaketa bat eta da saio gehiagotara joan beharrean asteen bi bakarrik grabatzea baina horiek ondo grabatzea. Kontzienteak gara hor gertatzen dena ahalik eta hoberen jaso behar dugula, eta kamera gehiago eramaten ditugu publikoaren erreakzioak eta abar grabatzeko... Hiru kamera eta furgonetarekin larunbatean saio bat eta igandean beste saio bat grabatzea izan zen martxa ohikoena.

Bestalde, erreportajeak esango nuke gutxiago eskaintzen ditugula. Telebistaren eskakizunak dira, gero eta patxada gutxiago dago.

Bosgarren aldian, 2009tik aurrera, Jon Artano izango da zuzendaria.

Lehen urtean Amaia Uribe bizkaitarra aritu zen aurkezle, uste dut telebistan badabilela oraindik, eta bigarren urtetik aurrera Jon Artano bera.

Dinamikoagoa eta telebisiboagoa egin nahi da. Honela, batetik programa osoa gonbidatu batekin egingo da: idazle bat bertsozalea zena, aktore bat, edo musikari bat edo horrelako zerbait. Lehen urtean harekin interaktuatu eta harekin ikusten zuen programa aurkezleak, platoan bertan egonda. Bigarren urtetik aurrera, ordea, gu joaten ginen haren etxera, eta gonbidatuarekin paseatuz, trago bat hartuz eta abar eramaten zen programaren haria.

Bestetik, eskaintzen diren edukiak laburragoak dira. Pildora moduan eskaintzen dira. Baita asteen zehar bertso-saioetan grabaturikoak ere. Zati are zatituagoak dira, nahasiagoak, batetik pixka bat eta bestetik beste pixka bat, dinamikoagoa. Beste estilo bat da.

Bertsolaritzaren aktualitatearen jarraipena alde batera uzten da nolabait. Ordurako Elkarteak Interneten ere egiten du aktualitate horren jarraipena, bertsoa.com eta bertsoplaza.tv martxan daude, eta ikusten da ez dela hain beharrezkoa 'Hitzetik Hortzera'k ere funtzio hori betetzea.

Aurretik zenbateraino egiten zen aktualitatearen jarraipen hori?

Elkarteak prentsaurreko bat eman duela, hitzarmen bat egin dela, Basarri bertsopaper lehiaketa... hemendik aurrera gero eta gutxiago. Egia da dinamismoa moztu egiten duela...

Uria eta Casabalen lehiaketak izan zuen arrakasta polita.

Bai. Aurretik ere egingo zen lehiaketaren bat, baina bakarren bat. Eta Uria eta Casabalen hau sartu genuenean ikusi zen oso ongi funtzionatzen zuela. Bertso eskolen arteko lehiaketa bat ere egin zen. Bertsoa ardatz hartuta ikuskizun bat montatu behar zuten.

Egia esan dezente esperimendu egin genituen etapa honetan. Urte batean kamera ezkutu moduko bat ere egin genuen. Mintzolan bertan egin genuen, erredakzio gelan, eta taldekoak ateratzen ginen. Eneko Dorronsoro sartu zen erredakzioan, Amaia Uribe ere bazebilen, Jon Artano bera, ni... Gionizatu egiten genuen baina dezente bat-batekoa zen. Bat sartzen zen eta "ekarri dizuet eh, kriston bertso-saioa.."; edo txapelketaren bat ere tokatu zenez garai hartan "egingo al dugu porra bat", "ze esango du jendeak 'Hitzetik Hortzera'koak porra bat egin dugula enteratzen badira", "tira, inor ez da enteratuko"... Polita izan zen.

Urteren batean emisio ordua ere aldatu zen, ezta?

Bueno. Urte batean edo bitan izan zen. Igande eguerdikoa mantendu zuten baina igande eguerdiko hori bertsio laburtuago bat zen. Programa osoa ostegun iluntzetan eskaintzen zen.

Alderdi teknikoa ere pixkanaka zuen esku gelditzen joan da.

2011n Lasarteko ekoiztetxearekin moztzen da eta alderdi tekniko horren ardura Elkarteak hartzen du bere gain. Lankuk kamera batzuk erosten ditu eta guk aukeraturiko kameralari batzuk kontratatzen dira, Lankuren bidez baita. Orain jarraitzen duten Haritz Arrizabalaga eta Luis Gurrutxaga aukeratzen ditugu. Gu ere Lankuk kontraturiko langile bezala arituko gara.

Gero montajea ETBn egiten da, garai batean horretan ibilitako Pello Elizasuren esku uzten lan hori. Geure erredakzioa ere Miramonera aldatzen dugu urte batzuetan.

Nolatan ematen da aldaketa hori?

Erabakitzen da pixkanaka prozesu osoa geuk egitea dela onena. Eta egia esan hoberako izango da. Lankuk erosten dituen kamerak, esaterako, oso txukunak dira. Objektibo handia dute eta horrek argitasunerako edo publikora gehiago gerturatzeko aukera emango digu...

'Hitzetik Hortzera': azken etapako garapena eta funtzionamendua

2013an uzten du Artanak. Zein izan dira ordutik gaurdaino emandako pausu nagusiak?

Garrantzitsuena izan da ikus-entzunezkoekin lanean ari ginen Elkartearen inguruko jendea talde berean egituratu garena. Batetik bertsoa.com eta bestetik bertsoplaza.tv zeuden, Sarean lanean ari zirenak, eta batu egin ziren bi proiektuak. Sarea eta telebista ere bakoitza bere aldetik genbiltzan eta hurrengo pausua bi alorrak batzea izan da. Denok denean gabiltza orain. Hedapen taldea deritza Elkartearen ikus-entzunezkoen ekoizpenaz arduratzen garen taldeari.

Hedapena Sustapenetik bereizi izana lagungarri izan da zentzu honetan?

Bai, antolaketa argiagoa da eta taldea dezente indartu da. Zazpi lagun gabiltza taldean: Irazu, Beñat Gaztelumendi, Eneritz Urkola, Luis Gurrutxaga, Haritz Arrizabalaga, Gaizka Azkarate

eta ni. Ez gara denok egoten urte osoan eta ezta dedikazio osoarekin ere baina talde indartsu bat dela esango nuke.

Lehen Sustapenaren ardurapean geundenean eragileak geureaz gain askoz lan gehiago zituen, orain Eneritz daukagu koordinatzaile guretzat bakarrik. Sarea eta telebistaren artean egon zitezkeen sinergiak ere pixka bat galdu egiten ziren, beste modu batera egituratua zegoelako.

Ekoizpen osoa etxetik egitearen prozesu horretan ere aurrepausuak eman dira.

Bai, perfil teknikoena zutenak taldera integratzen joateko prozesu bat eman da. Denok batzen gara orain erredakzio bileretan. Eta administratiboki denok Elkarteko langileak gara, ez Lankuren bidez kontrataturikoak. Lehen erredakzioa bai jotzen zen Elkartekotzat, nahiz eta formalki Lankuko kontratua izan, baina teknikoak profesional autonomo gisa ulertzen ziren. Eta perfil sortzaileagoa dugunok ere ahalduntze bat izan dugu teknikari dagokionean ere. Aurretik erredaktore ginen batez ere, orain kamerarekin ere ari gara, edizio lan batzuk egin...

ETBrekiko autonomia ere geroz eta handiagoa izan da. Denboraldi hasieran beti adosten dugu eurekin programa nolakoa izango den, baina askatasun handia ematen digute. Suposatzen dut txarregia egingo bagenu jarriko luketela baldintza gehiago, baina ez da horrela izaten.

Beraz, jada ez gara 'Hitzetik Hortzera' edo bertsoa.eus. Bi produktu horiez gain Hamaika telebistarentzat, telebista txikiagoentzat, Euskadi Irratiarentzat edo Elkartearekin hitzarmena duten irratitxikiagoentzat ere ekoizten duen Hedapen taldea gara.

Nola antolatzen zarete? Zein da funtzionamendua?

Asteburuan grabatzen dugula, errealizazioan asteartean entregatu, asteazken-ostegun erredakzio eta montaketa lanak, baita hurrengo asteburukoa prestatzea ere, ostiralean jai eta asteburuan berriak grabatzera. Hori da martxa orokorra. Gero, esan bezala, denok denetik egiten dugu baina egia da baita espezializazio bat ere badagoela. Honela, esaterako, denon artean erabakitzen dugu, komunikaziokoekin batera astero egiten dugun bileran, nor elkarrizketatu eta abar, baina erredakzio lanik gehienak, gidoiak eta abar Beñat Gaztelumendi eta biok egiten ditugu. Gainerako funtzioekin ere antzera gertatzen da: zuzenekoetaz nagusiki Irazu arduratzen da, errealizazioaz Haritz Arrizabalaga...

Gidoiari dagokionean aldaketa bat izan da grabatzera joan aurretik lehen zirriborro bat egitea eta gero grabaketak jasotakoan behin betikoa finkatzea. Kamerak ere aldatu dira. Black Magic batzuk erosi ditu Elkartek inbertsio garrantzitsua eginez eta honek kalitate gorakada ekarri du.

Edukiei dagokionean zein dira azken etapa honen ezaugarri garrantzitsuenak?

Artano joan zenetik aurkezlerik ez dago. Azken urteotan Off-ahotsarekin egin izan dugu. Bestalde gonbidatuarengana joan izan gara Artanok egiten zuen bezala, baina gure presentzia erakutsi gabe. Aste batean Itziar Ituñok, hurrengoan Eider Rodriguezek, hurrengoan txirrindulari batek... bere burua eta bertsolaritzarekiko duten harremana aurkezten dute eta hori izaten da programaren haria. Osasunako jokalariek ikusten ditugu euren aldagelan eta protagonistak noiz bertsoaletu zen kontatzen dio bere taldekideren bati...

Kanpoko jendea hori ekartzeak arnasa emango dio programari.

Bai. Eta jarrera oso ona izaten dute gurekin. Pazientzia eskatzen diegu eta oso ondo portatzen dira. Bertsolaritzak sinpatia handia sortzen du eta nahiz eta ez den hain erraza ikuslearentzat esanguratsua izan daitekeen pertsonaia euskaldun eta bertsozale bat topatzea astero, oso gustura gabiltza.

Hala ere grabaturiko bertso-saioen baitako bertsoaldi hautatuak dira programaren muina.

Bertsolaritza eta telebista: edukiak

Joxerra Garziak bertsolaritzari telebistan irekitzen zitzaizkion aukeren inguruan gogoetatzen zuen 1993an *Jakin* aldizkarian. Bere planteamenduak zure iritziekin erkatu nahi nituzke. Esaterako, telebistako platoak plaza gisa ez zuela ongi funtzionatzen seinalatzen zuen, hobe zela telebista plazara eramatea telebista plaza bihurtzea baino.

Nik uste hor batez ere telebistaren tranparen beldur hori egon daitekeela, alegia, platoan egindakoa bat-batekotasun kamuflatu bat izan daitekeenaren errezeloa sor daitekeela. Plazan egindakoak sinesgarritasun gehiago du.

Bestalde platoa askoz ere hotzagoa da, nahiz eta publiko eta guzti egin.

Ez da asko erabili izan den bitarteko bat izan, eta nik uste bi arrazoi horiengatik izan dela.

Zuzenekoa txapelketako azken saiora mugatzen zela ere seinalatzen zuen.

Sarearekin aldatu da hori pixka bat. Aurtengo txapelketa nagusian, esaterako, finalaurreko guztiak eskainiko ditugu bertsoa.eus-en bidez. Eta bestelako emanaldiren bat ere egin izan da.

Telebistan gehiago zabaldu dena zuzeneko-faltsua da. Nagusiaz haratagoko txapelketak emateko baliatu izan da edo Bertso Eguna eskaintzeko. Saioa edo ekitaldia bostetan hasten bada, egun berean iluntzeko bederatzietan eman zatiren bat kenduta eta pittin bat editatuta.

Beste baliabide bat, bertsoaldi hautatuak dira. Joxerrak dio gaika, jaialdiz jaialdi, modu guztiak probatu izan direla eta ez dagoela argi zein den egokiena. Zer deritzozu zuk?

Guk ia beti jaialdiz jaialdi egin dugu, pixka bat behartuta ere bai: urtebete grabatu eta ondoren gaika montatuko bagenu tira, baina astez astekoa izanda oso zaila da tematikoa izatea.

Sekulako altxorra izan behar duzu grabatuta gaika egiteko. Eta dezente daukagu, baina ez dut uste lauzpabost tematiko baino gehiago egiteko emango lukeenik. Gaurkotasuna galduko litzateke gainera.

Bertsoaldi hautatuetan jaialdien eta bestelako saioen artean desoreka handi bat ematen dela ere aipatzen du, afari eta abarretako tempusa ez delako telebistarako egokiena. Aurreratu da horretan?

Errazena jaialdia da, gai-jartzaileak egiten duelako kokapen lan guztia. Bertsoen maila hobea izaten dute gainera normalean. Librean, afarietan, zailagoa da. Hala ere dezente eskaini izan dira horrelakoak ere. Gehiago kosta arren lortzen da. Iturengo Ganbaren egiten zen saioa datorkit akordura. Magikoa izan zen eta ongi islatu zen pantailan.

Esperimenturen bat egin genuen Artanorekin bertso afarian egongo den norbaiti aurretik jarraipena egin bere etxean eta abar. Gero saioa nola jarraitzen duen ikusten da eta agian bertsoen bat ere eskainiko diote. Eta ondoren komentatu egiten du...

Zein erizpide jarraitzen dira saioak eta bertsoaldiak hautatzerakoan?

Saioak aukeratzean aniztasuna zaintzea da irizpide nagusia. Jaialdi asko egin badugu elitekoekin, bada, saiatuko gara bertsolari gazteen bertso-poteo bat ere sartzen. Edo ikusten badugu aspaldi ez dugula Araba edo Iparraldea grabatu, bada, hurrengoa Araban edo Iparraldean egingo dugu.

Saio bateko bertsoaldiak aukeratzerakoan ere oso kontutan hartzen da aniztasuna, bertan parte hartu duten bertsolari guztiak, edo ahal diren guztiak bistaratzea. Hortik aurrera kalitatea da irizpide nagusia.

Bertso jarriak eta musikatuak litzateke beste elementu bat. Joxerrak dio gaurkotasuna bilatu beharko litzatekeela, bertso berriak eginarazi.

Esango nuke jarriei toki gehiago eskaini izan diegula telebistan paperean eskaini izan zaiena baino. Funtzionatu duela esango nuke, gainera. Ezin da programaren corpus zentrala jarriak izan daitezkeela planteatu, pildora gisa sartu behar dira, baina horrela eginda ikusleek estimatzen dute.

Elementu hezitzailea ere aipatzen du. Esaten du bertsoak eskaintzean bidenabar egiten diren azalpen teorikoez haratago dagoen corpus teoriko bat ematen ez dela asmatu.

Galdetu beharko da ea telebista den horretarako bitartekorik egokiena. Nik esango nuke ezetz, sortzaileek eurek edo adituek emandako pisten bidez, zeharka egin daitezkeela, baina zuzenean teorizazioekin hasteak ez duela funtzionatzen.

Gaur egun beste mila bide badaude horretarako: bertso-eskolak, material didaktikoa, Internet... Telebistari karga hori ez zaio jartzen, jada.

Lehen aipatu duzu erreportaje eta elkarrizketak ugaritu izan dituzuenean jendearen kexak entzun behar izan dituzuela. Zer eskaintzen diote programari bestelako lan hauek? Iritsi zarete estandar batzuk ezartzera?

Neurrian dago gakoa. Bertso-saioa besterik gabe eskainiz gero, lehor samarra geldi daiteke. Bestelako lan hauek bertso ezberdinen arteko haria osatzen lagundu dezakete eta programari arnas pixka bat eman. Dena gidoi batean integratuz gero asko irabazten du produktuak.

‘Hitzetik Hortzera’: ekarpena

Hainbat testutan irakur daitekeenaren arabera Elkartearen hedapen estrategiak bi puntal izan ditu: txapelketak eta ‘Hitzetik Hortzera’. Bertsolaritzak azken hamarkadetan izan duen bilakaeraren, hazkundearen baitan, zenbaterainoko garrantzia izan du ‘Hitzetik Hortzera’k?

Handia, batez ere lehertu zen garaian. Kointziditu zuen telebistak, belaunaldi berri batek ekarritako aldaketak, eta baita ere Elkartearen lanak. Leherketa handi bat izan zen, bertsolaritzak koska bat egin zuen gora gizartean zeukan presentzian eta prestigioan eta esango nuke telebistak ere lagundu zuela.

Bertan lanean aritu zaretenentzako karga bat izan da hori? Joxerrak dio gehiegi eskatu izan zaiola ‘Hitzetik Hortzera’ri, zeuden behar guztiak asetzeko bide bakar gisa ikusi dela zenbaitetan.

Egin den lana beti egin izan da Elkartearen irizpideen arabera. Zuzendaritza horretatik denetik eskatu izan zaigu eta batzuetan pendulu efektua ere bizi izan dugu: batean heziketa eskatu izan digu eta hurrengoan entretenimendua, derrepente inon ematen ez ziren bertsoak bistaratu behar ziren eta derrepente kalitatean jarri behar zen fokua... Honek nahasmendua ere sortu izan digu tarteka, baina bere alde ona ere badauka, ez baitigu utzi inoiz lo hartzen. Etengabeko iraulketa batean bizi izan da programa, onerako eta txarrerako.

Audientziek gailurra jo zuten 90 hamarraldiko hasieran. Gero pixkanaka behera egin dutela esaten da. Azken urteotan, gazteenen artean ez duela arrakasta handirik. Zuek manejatutako izan dituzuen audientzia datuek hori diote? Zer dela eta bilakaera hori?

Ez dut uste jaitsiera etengabea izan denik. Bilakaera ETBk izan duen bilakaera orokorraren antzekoa dela esango nuke: beherako joera baina oraindik ere indar bat mantenduz. Alegia, argi dago telebistak ez duela garai bateko eraginik eta audientzia daturik, baina programa

20.000 lagunek bakarrik ikusten badute ere, 20.000ko plaza batek plaza inportantea izaten jarraitzen du. Txapelketa garaian gorakada garrantzitsua izaten dugu gainera.

Gaur egun BEC beteko denik ez du inork dudarik egiten, baina bete egin behar da. Eta BEC ez ezik bestelako plazak ere bete beharra dago. Horretarako oraindik ere garrantzitsua da telebista.

Izan daiteke Internet ‘Hitzetik Hortzera’k bete duen papera etorkizunean beteko duena?

Gazteak Internet gehiago jarraitzen dutela esaten da. Nik datu horiek ez dauzkat. Garai batean bai egin izan ziren inkesta batzuk horren inguruan...

Egia da Internet geroz eta jende gehiago hartzen ari dela eta telebista ikusteko modua ere aldatzen ari dela, baina zaila ikusten dut Internetek erabateko zentralitea hartzea. Audientzia dispartsoagoak dira orain, batetik bestera dabiltzanak, eta gerora ere horrela izango dela iruditzen zait.

90eko hamarraldian asko hitz egin zen telebistaratzeko apustuaren arriskuei buruz. Egun, ordea, ez dira hainbeste aipatzen. Zergatik izan daiteke?

Arrazoi garrantzitsu bat izan daiteke medioa gehiago ezagutzen dela. Probatu da eta ikusi da zenbaterainokoa izan zitekeen hori guztia. Normalizatu egin da eta gehiago kontrolatzen dugu medioa. Kontrol haundiagoa ere badu Elkarateak produktuarekiko.

Orain beste batzuk dira arriskuak. Gaur egun edozeinek grabatu dezake edozer gauza eta sarean jarri.

Hala ere badago esaten ziren haietatik kontuan hartu beharrekorik?

Badago halako kultura bat kontuz ibiltzekoa. Adibidez, ETBrekin beti hitzartzen da zenbat errepikapen eman daitezkeen, eurek gehiegi errepikatzeke joera baitute.

Fokua elitean jartzea aipatzen zen, edo jokaldirik onenak bakarrik ateratzearena...

Esan bezala aniztasuna asko zaintzen dugu. Jaialdietako antolatzaileek egiten dute guk baino gehiago fokua elitean jartzearena. Eta jokaldirik onenaren kontu hori... zentzugabeagoa litzateke jokaldirik txarrenak ematen hasia.

Zein izan daiteke ‘Hitzetik Hortzera’k emititutakoaren bolumen osoa?

Denboraldiko 32 programa emititu izan dira normalean, bolada batean 30 programara jaitsita ibili izan baginen ere. Ia 30 denboraldi dira, beraz, guztira 900 programa inguru izan daitezke. Bestalde, iraupena 55 minutukoa izan da gehienez. Beraz, 800 ordu gora errez.

Jakineko artikuluan telebistako presentzia dibertsifikatu beharra ere aipatzen du, bertsolaritza ‘Hitzetik Hortzera’tik kanpo ere magazinetan, eztabaida programetan eta abar txertatzen asmatu beharra. Baduzu gogoan bertsolaritzak bestelako programetan sartu irtenak egin izana?

Ez da askorik egin. Azken urteetan ‘Herri Txiki Infernu Handi’ programan egin izan da, ‘Mihiluze’n ere egiten zen zerbait, Alkainek eta egiten zuten beste programa batean Aitzol Barandiaran agertzen zen bukaeran gonbidatuei bertso batzuk egitera... Sarerako jauziarekin bai dibertsifikatu da bertsolaritzari buruzko ikus-entzunezkoa, eta Hamaika telebistara nahiz tokiko telebistetara ere zabaldu da.

Bertsolaritzari dedikazio osoa eskaini eta horretara bakarrik jarrita hainbesteko ibilbidea osatu duen lehen kazetaria zeu izango zara, ezta?

Bueno, izan daiteke. Egin dudak apurra horretan egin dut behintzat.

V.XI JOXE MARI IRIONDO. ZARAUTZ, 2017/VII/18

Kazetaria eta eragilea. Loiola Irratian, Telenorten, Euskadi Irratian eta ETBn ibiliatakoa besteak beste, Euskadi Irratiko eta ETB1eko zuzendari izandakoa. Loiola Irratiko hainbat programatan hasi zen bertsolaritzari tarte bat egiten, txapelketak zuzenean emititzen eta bertsolari gazteen irratiko sariketa antolatzen, irratian bertsolaritzari buruzko eredu garatu bat estreinatu zuelarik. Gai-jartzaile eta aurkezle ibilbide luze eta oparokoa, eragiletzan ere aritu izan da, besteak beste, Euskaltzaindiaren eskutik, 1980ko eta 1982ko txapelketen antolakuntzan. Bertsolariei buruzko hainbat lan argitaratu ditu Auspoa sailean.

Bokazioa eta hastapenak

Bertsoarekiko zaletasuna nondik zertorkizun?

Bertsolariak lehenengoz Aratzerrekan ikusi nituen, San Isidroan, zortzi-bederatzi urte nituela. Sakristaiko bi balkoitan, Txapel eta Joxe Lizaso ziren. Hango umeek hurrengo egunetan jolas hori egin genuen etxe batetik bestera, atletik atera. Handik aurrera beti izan dut bertsolaritzaren mirespen bete hori.

Bertso zaharrak ere entzuten genituen, *Santa Genobebarenak* esaterako. Gero Gabirian ikasle nerabe nintzela, irakasleen liburutegian Baserriren bertsoak topatu nituen Zarauzko Kulixkak ateratakoak. Bere entzutea banuen lehendik ere, Ameriketara geneukan osaba baten bidez. Liburua irakurri eta guztia eskuz kopia eta buruz ikasi nuen. Oraindik ere gai nahiz bertso haietako batzuk buruz kantatzeko... Liburu hura deskubritu nuenetik Basarriren idatziak eta irratian egiten zuen lana oso-osorik jarraitzen nituen.

Koldo Sarasola irakasle Pasiotarrak erakutsi zidan silabak kontatuz bertsoak nola neurtu, eta bertso batzuk jartzen hasi nintzen, eta zuzendarien urtebetetzea zala eta abar bertsoak eskatzen zizkidaten, eta nik egin, nola-halakoak. Trikiti koplak batzuk ere egin nituen, erreazionario samarrak, emakumeen pinturen kontra eta gisakoekin.

Geroago, soldaduskan nengoela, Txapelen seme Migel zen Azpeitiko *Olatz* aldizkariko zuzendariak bertsoak eskatu ohi zizkidan. Dozena erdi bat sail bidali nion. Edo Gabiriatik Eguberrietan etxera idatzi nuen lehenengo karta ere, koplata idatzi nuen. Gordeta daukat gutun hori. Koplak kaskarrak dira, baina gustatzen zaizkit.

Eta kazetaritzarako zaletasuna?

Ni Aitzumariagan bizi nintzen gure ama zena hil zenetik, baina gure jaiotxean irratia zeukaten eta liluratu egiten ninduen. Gogoan daukat behin lubizi batek Errezilen baserri bat azpian hartu zuela eta hildakoak izan zirela entzun nuela, eta lo egin ezinik aparatuari begira pasa nuela gaua handik lau pertsonen nola hitz egin zezaketen asmatu ezinik.

Gabirian, bestalde, Euskara ikasgaia geneukan eta hilean behin idatzi bat egiten genuen. Idatzi horietako batekin, ‘Noiz amatxo?’ ipuinarekin Agora saria irabazi nuen Donostian eta Orixek argitaratu egin zuen *Euzko-Gogoan*. Idazteko harra orduan sartu zitzaidan.

Ikasketak buruturikoan aurrezki kutxa edo banku baterako prestatu nintzen, eta bi oposizio irabazi ere bai; baina irratia aukera egin nuen soldaduskatik itzultzean, eta ez daukat damurik. Afrikan soldaduska egiten ari nintzela Radio Juventud de Sidi Ifni ezagutu nuen kasualitatez. Denbora-pasa joaten nintzen bertara, ez lanera. Baina irati txiki baten “barrunbea” orduan ezagutu nuen lehenengo aldiz, eta enamoratu nintzen lehenaz gainera.

Nola hasi zinen Loiolako Herri Irratian?

Soldaduskan nengoela andregaiak Loiolako Herri Irratia irekitzekotan zirela eta jende bila zebiltzala kontatu zidan eskutitz batean, eta bueltatu bezain pronto, 1961eko abuztuan, bankura lanera beharrean irratira jo nuen lan eske. Administrazioa eramaten eta horrelakoetan jarri ninduen hasieran, baina hilabete gutxira Juan Lekuona zuzendari jarri zenean galdetu zidan ea ausartuko nintzen ordura arte Luis Terrado Mayorrek gazteleraz egiten zuen ‘Beti-Jai’ programa euskaraz egiten.

‘Beti Jai’ hau izan zen hainbat urtetan gidatuko zenuen programa erreferentziala.

Beste irratsaio asko ere egin nuen Loiolan, baina “Beti Jai”ren arrastoa gelditu da, bereziki. Magazine bat zen; 1962ko azaroan hasi nintzen eta 1983ko martxoaren 30ean Loiolatik despeditu nintzen arte, astero-astero egin genuen. Euskal kantu berriak emititzen genituen, antzerki bat idazten nuen astero eta irratiko langile guztion artean antzeztzen genuen, asteburuko agenda ere eskaintzen zen, igandeko ebanjelioari buruzko hitzaldia, aita Patxi Altunak eskaintzen zuena... 21:0etatik 22:00etara egiten genuen, horixe zen eta irratiko benetako *Prime Timea*, azkenengo urteetan irratiko orduak asko aldatu baziren ere, telebistak indarra hartu ahala.

Loiola Irratian garaturiko eredia

Bertsolaritzari ze tarte eskaintzen zenion?

Eusebio Eizmendi Txapel zen ezagutzen nuen bertsolari bakarra eta haren bidez egin nituen lehen kontaktuak. Lehen bileratik hiru-lau egunera prest agertu zitzaidan bera kantatzeko, eta ‘Jarri alcahuetea martxan’ esan zidan, zazpi bertso kantatu zizkidan Gernikako arbola gai hartuta. Irratiz eman eta, badaezpada ere, zinta etxera eraman nuen. Denuntzia izan zen, baina zintarik ez zutenez topatu, libre.

Txapelen bidez hiru azpeitiarrak etorri ziren ondoren. Eta gero, aurrez gaia emanda moldatzen ziren mordoa zeuden inguruetan eta horrela jarraitu genuen luzaroan. Gaiak aldeztu aurretik ematen nizkien bertsolariei, baina bat-batekoak ziren, nahiz eta bertsolari bakoitzak astia izaten zuen bertsoak barruan egosi eta zuzentzeko. Hamar-hamabi minutuko tartea izaten zen, beti bakarka, eta aurrez grabatuta.

Horrekin hasi aurretik Inaxio Zubizarreta *Errementeik* bertso zaharrak kantatu ohi zituen ‘Beti Jai’ irratsaioan, baina bertsolariak deitzen hasi nintzenean nirekin haserretu zen eta akabo.

Programa gehiagotan ere sartzen zenuen bertsoa?

Astean zehar, albistegi eta bestelako irratsaioetan ere begirunez aipatu eta tratatzen genituen bertsolarien gaiak, jaialdiak, eta han-hemen jasotako bertso-saioak eman. Jaialdi askotako gai-emaile eta aurkezle izan nintzen, eta gehienetan jaialdiak grabatu egiten nituen gero bertso-aukeraketa bat egin eta irratiz emateko.

Bertso-gose handia zegoen gure entzuleen artean, eta egarri horri erantzuten saiatu ginen beti. ‘Saski-Naski’ irratsaioan, adibidez, igande goiz-eguerdietan beti emititzen ziren bertsoak.

Bertsolariei eginiko elkarrizketarik emititzen zenuten?

Bai, bertso-saioen ondorenetan grabatzen nituen normalean. Elkarrizketak ia beti kanpoan, beren giroan. Askok. Urte batean Areatzako bertso-eskolakoekin Enbeita aita eta hiru seme, Lopategi, Ireneo Ajuria, Sardui anaiak... Grundig handia hankartean hartu eta haraino joan

nintzen nire Vespan ‘Beti-jai’rako bertsoak jasotzera; baina argia joan eta esku hutsik etorri nintzen etxera. Enbeita eta Lopategiri elkarrizketa bana grabatuta etorri nintzen, ordea.

Txapelketei ze jarraipen egiten zenieten?

1962ko Bertsolarien Txapelketa nagusiaren finala, 1965eko final aurrekoak eta finala, eta 1967ko final aurrekoak eta finala zuzenean eman genituen.

Ez zen lan erraza. 1962koan baimena eskatu genion, zuzendariak esanda, Euskaltzaindiari. Inazio Maria Etxaide zan buru, integrista bat, Aste Santuan etxeko oilategian oiloak eta oilarrak aparte jartzen omen zituena, eta jokoz kanpo harrapatu genituen; ez zekiten zer erantzun. Ordurako justu ezagututa nengoen Antonio Zavala, banekien Arrue, Asteasu Beltza, ezagutzen zuela, eta harekin hitz egin ondoren baietz erantzun zidaten. Erregimeneko gizona zen Arrue baina sui generis samarra, karlista foruzalea zelako. Euskara eta bertsolaritza maite zituen eta oso hiztun ona zen... Información y Turismotik gai guztien zerrenda behar zutela etorri zitzaigun, ordea, hurrena. Jakina gairik ez geneukan, txapelketa Euskaltzaindiak antolatzen zuen... Berriro ere Arruek lortu zuen traba hori gainditzea.

Egunero Informacion y Turismori gidioiak bidali behar izaten genizkion, probintziakoak izanda bentaja autobusean bidaltzen genituela, eta erantzuna zetorrenerako jada emitituta zegoela....

Suposatzen dut txapelketetan ere egingo zenituztela elkarrizketak eta iruzkinak.

Irabazlearekin beti egin ohi genituen elkarrizketak. Eta ahal genuela gehiago ere bai...

‘Hamar urte Xalbadarren itzalean’ liburuan kontatzen dut, pena daukadala ez nintzelako ausartu Xalbador elkarrizketatzen. Ez nintzen kazetari bezala portatu egoera hartan. Hain egoera surrealista zen hura, ikaragarri sufritu nuen... Ez nekien txistuak disimulatu irratirako ala ez... Erabaki nuen komentarioekin ateratzea, ‘ikaragarri gogorra da hau, zer pasatu behar du’... Pena ez nintzela ausartu elkarrizketatzera... Ez zuen nahiko seguru asko, baina neu izutu nintzen. Beti izan dut koldarkeria horren damua, nire ausardiaren muga. Nik errespetu handia edo handiegia izan diet bertsolariei. Haiek neuri baino handiagoa, seguruenik.

Badaukazu gogoan bereziki gustura utzi zintuen saio edo elkarrizketaren bat?

Xalbadorrek azkena egindako elkarrizketa, nirekin izango zen, 76an Xenpelar saria irabazi zuenean, Donostian. Begitik operatuta zegoen, eta “Farolak konpodu dizkidate baina moto zaharrak motorra gaizki badauka, alferrik”, esan zidan.

Jubilatu nintzenean Azpeitiko *Uztarrian* galdetu zidaten zenbat elkarrizketa izango ziren nire ibilbidean zehar egindakoak. 4000, esan nien, baina 8000 ere izango dira. Hoiien artean aukeratzea... Gehien sufrituarazi zidana 62an Uztapidek txapela irabazi zuenean egin niona izan zen. Bere etxera joan nintzen eta planteatu nion bost bat galdera bertsotan erantzutearen ideia. Galdera egiten nion, hasten zen bertsoak idazten eta ezin idatzi. Zenbat sufritu zuen, eta nik ere bai.

Irratiaren ibilbidea osatzen

Zeuek zineten txapelketak eskaintzen zituen kate bakarra edo bazegoen gehiago?

Gogora datorkidan bakarra 1965ekoa da. Lotsagarria izan zen. Donostiko Radio Popularrak Hernaniko Aitor Zineman egin zen saiora Luis Mari Bereziartua euskalduna eta Onofre Gomez Nisa izeneko galego bat, frankista totala, bidali zituen eta geuk hartuta geneukan tokian jarri nahi izan zuten. Bertsoen ondoren erderazko komentarioak egiten zituzten...

Eta txapelketatik kanpo zer emititzen zuten gainerako irrati-kateek?

Inoiz edo behin Segurak edo Arratek bertsoak ematen zituzten. Horretarako jarraipen finkorik gabe, ordea. Bizpahiru laguneko enpresak ziren eta gu hamazortzi ginen.

La Voz de Guipúzcoa ez zuen sekula ezer egin Basarri, Oñatibia, Zurutuza eta horiek egiten zuten irratsaiotik aparte. RNE-k eta Radio San Sebastianek ezta horixe ere. Donostiako Herri Irratia 1972tik aurrera hasi zen tajuzko zerbait egiten, gurekin bat egiten zuenetik. Aldai, Zubizarreta eta horiek ere hasi ziren orduan.

1970eko hamarralditik aurrera Bilboko Herri Irratian Pedro Mari Goikoetxeak ere eskaintzen zuen bertso tartea. Herrietako saioak grabatzera joaten zen eta tratua egin genuen trukerako.

Zu hasi aurretik irratian bertsoaren inguruan zer egin izan zen arrastorik topatu duzu?

Euskarazko lehen irratsaioak Union Radion Zubimendi eta Luzearek gerra aurretik egindakoak dira eta han bertsoan ibili ziren Basarri eta Matxin Irabola. Ez ziren grabatzen baina garaiko *La Voz de Guipúzcoa*n iragartzen ziren saioen edukiak.

Gerra ondoren 1949an hasi ziren berriro Basarri eta horiek Radio San Sebastianen. Agricultura y Pesca-ko Aldundiko Roke Aranbarri Epeldek ireki zien atea (APren, sortzaileetakoa izango zena gero). Horren aktak daude Gipuzkoako Diputazioan. Esaten du Aranbarririk baserritarrak abandonatuta dauzkatela eta irratian zerbait egin beharko litzatekeela euskaraz. Jose Artetxe, Basarri, Maria Dolores Agirre eta abarrek egiten zuten astean ordubete. Basarrik “Nire Bordatxotik” egiten zuen hor, apustuak eta kultura, eta albiste bakoitza bertsoekin bukatu.

1959an La Voz de Guipúzcoa-ra pasatu ziren, ‘Movimiento’ko irrati katera. Talde bera eta oso antzeko programa. Agirrek etxeoandrentzat gauzak, Enrike Zurutuza beterinario ataundarrak eta Manu Oñatibiak antzerki moduko bat lehenengoak baserritar ezjakinarena eta bigarrenak beterinario jakintsuarena eginez, baserritarrentzat albisteak eta abar. Basarrik berak eskaintzen zituen herri kirolei edo kulturari buruzko albisteen inguruko bertsoak eskainiko ditu.

Radio Parisek 1958an zuzenean emandako saio bat ere badago. Teodoro Hernandorenak antolatu zuen sariketa Parisko Euskal Etxean. Horko grabazioa Jokin Zaitegik egin zuen lehenengotako zintatan. Gero, Euskaltzaindian entregatu zituen zintak, eta San Martinek edo Irigoienek hartu zituen *Eganen* zenbaki batean argitaratu zen transkripzioa egiteko. Teorian San Martinen fondoan, GFAan, edo Irigoienenean, BFAan, egon behar dute zinta horiek.

Loiola Irratiko bertsolari gazteen sariketa

Zeruko Argian idazten zuen Joxe Agirre *Alkiza* apaizaren gutun bat izan omen zen ideia martxan jarri zuen txispa. Nola izan zen hura?

Guk buruan geneukan igandero bat bestearen kontra eginez eta bozketa entzuleek karta bidez bideratuz seiko talde batekin liga moduko bat egitea. Joxe Agirre “Alkiza”k aita Bergara jesulagunari idatzi zion esanez jakin zuela zer asmo genuen irratian, eta bera ere horixe lantzen ari zela. Juan Lekuona Urrutia irratiko zuzendariak esan zidan karta bat egiteko bere izenean Joxe Agirre “Alkiza” jaunari, eta bilera bat prestatzeko. Halaxe egin nuen. Onena pentsuen babesletza zekarren honek, Biona pentsuena ere lotuta genuen guk eta bozkatzuz parte hartuko zuten entzuleentzako sari bat lotzea erabaki genuen. Fagor etxeko Lorentzo Peña jaunarengana publizitate eske joan eta enteratu zenean euskaraz egingo geniola publizitatea, sukalde oso bat jarri zuten irabazlearentzat.

Sei bertsolarirekin astero buruz-burukoa antolatuz aurrera egitea erabaki genuen. Apirilaren lehen egin genuen lehen saioa, Txomin Garmendia eta Koxme Lizasoren artekoa. Astearen ehunen bat eskutitz iritsiko ote ziren esperantza geneukan, eta ia 1000 iritsi zitzaizkigun lehen aste hartan. Lekuonak zioen ‘pero estos chavales tienen tanta capacidad de convocatoria?’ ‘Pues, ya ve’. Harrituta geu ere. Mundu bat ireki zitzaigun.

Beste bost saio egin genituen ligaren baitan, egunero jendearen partehartzea eskatzen zuten iragarki laburrak aineratuz, larunbatero aurreko asteko emaitza argituz, eta 10.000 eskutitz iritsi zitzaizkigun guztira, asko eta asko euren bozka bertsotan ematen zutenak. Lehen saioa irratiko estudioan egin genuen, zuzenean emanaz, baina publikorik gabe aritzea bertsolarientzat hotzegia suertatzen zenez hurrengoak Loiolatxo soziedadean egitea erabaki zen. Loiolatxoko soziedadean bazegoen tablatur bat. Bete-bete egiten zan eta han grabatzen genuen igandero 11etatik 12etara, gero irratian 13etatik 14etara emateko.

Finala Azpeitiko Zelaitxo antzokian egin genuan, maiatza bukaeran. Ligan aritu ziren sei bertsolariek hartu zuten parte, baina bi bozkatuenen artean aukeratu behar zuen epaimahaiak.

Ikasi genuen entzule bakoitzari hastean boto bakarreko topea jarri behar zitzaiola. Entzule batek Jauregiren alde berak kantatu aurretik 600 boto bildu zituen Orion, letra berdinarekin eta *matasellos* berdinarekin. Bigarren gelditzera zioan eta uko eginarazi genion.

Garmendiak irabazi zuen. Eta izandako arrakasta ikusita urtero antolatzea erabaki genuen.

Zenbat antolatu zenituzten? Bukaeran boikot bat egon zela ere irakurri izan dizut.

Jasota dauzkat ekitaldi bakoitzeko parte hartzaileak, irabazlea, sariak eta abar. Boikotaren inguruan argitaratu nuen testuren bat ere bai. Pasako dizkizut.

Dena den buruz esan dezaket 1972ra arte antolatu genuela. 1966an ezin izan zen egin irratia itxita zegoelako. 1965eko udan itxi zuen gobernadoreak eta urte bete egin zuen itxita. 1970ean ere ezin izan zen egin Gipuzkoa Salbuespen egoeran zegoelako eta 1973an ere berdin. Boikotarena 1974ean izan zen.

Urte hartan lehen aldiz partaideak entzuleek aukeratzeko bozketa bat jarri genuen martxan aurretik. Zortzi bozkatuenekin egitea erabaki genuen, baina aukeratuei deika hasi ginenean Sebastian Lizaso izan zen ezezkoa eman zigun lehenengoa. Aittolak Sebastianekin bat egin zuen eta gero goierritarrek, Muruak, Iraolak eta Igartzabalek. Ematen zuten lehen arrazoia zen ez zeudela sartuta bertsolari gazte guztiak, alegia, ‘denak ala inor ez’. Baina hori ezinezkoa zen guretzat, handiegia esku artean geneukan liga formatuan egiteko. Bestalde, bestelako formatu batekin ezinezkoa zitzaigun entzuleen bozketak bideratzea, azpiegiturarik ere ez geneukan bertsolari askoren arteko saio asko antolatzeko... Bigarren arrazoi bat ere gaineratu zuten orduan: ‘Gure herria borrokan ari den bitartean, bizi den egoera politiko eta sozialarekin, horrelako lehiaketa batean parte hartzea fribolitate bat da’. Orixe saria Añorgan, Osinalde Saria Gabirian Murua eta Igartzabalek antolatua... horiek ere garai hartan martxan zeuden baina ez zitzaizkien fribolitate iruditzen. Horrela bukatu zen gurea. Min handia eman zidan hark.

Aldizkariaren proiektua Markinako bertsolarien batzarrean

Irakurri dut bertsolariek urtero Markinan egiten zuten Bertsolarien Batzarretako batean ‘Bertsolari’ izeneko aldizkari bat martxan jartzeko proiektua aurkeztu zenuela. Nola izan zen hori?

1970ean izan zen. Giroa pil-pilean zegoen, bertsolariak ere hasita zeuden Lopategi eta Azpillaga batez ere bertsoa protestarako erabiltzen eta agintariak geroz eta traba gehiago

jartzen zuten. Honela, publikoan aritzeko karnet bat eskatzen zuten, ‘artista karnet’ moduko bat. Esamina egin behar zen, aurkezpen bat erderaz, erreza, eta kuota bat ordaindu. Nik baneukan. Eta bertsolariei eskatzen hasi ziren.

Urtero pare bat hitzaldi antolatzen ziren Markinako batzar haietan, urte hartan niri eskatu zidaten, eta bi plateamendurekin joan nintzen. Bat, zer egin karnetaren kontu hori gainditzeko, eta bi, zer egin abesten zena zerbait idatziz gelditzeko.

Aurreko astean Santi Onaindiak bertsolaritzari buruzko liburua atera zuen, elkarrizketa bat egitera joan nintzen irratirako eta aldizkariarena bota nion. ‘Lengo Bertsolariyaren bidetik Bertsolari izeneko aldizkari bat egingo balitz? 1000 soziorekin, huskeri bat ordainduz, ateratzeko modua ikusten nuen, gainera Onaindiak erraztasun handiak zituen inprimatzeko. Diru-laguntza publikoren bat lortzeko modua ere egin genezakeen.

Zuzendari zein izan daiteke? Eta hasteko behintzat bera eskaini zen. Markinako bileran, bada, proiektua aurkeztu nien bertsolariei: aldizkari horretan artikulua batzuk joango ziren baina batez ere bertso hautatuak. Horretarako Gipuzkoatik bost bat orri betetzeko prest ni saioetan grabatzen nuenetik, eta Bizkaian beste hainbeste egiteko prest izango zela Pedro Mari Goikoietxea. Aipatu nien zuzendaritza aita Onaindiak hartuko zukeela, euskara batura joko genukeela ere bai. Eta artikulua bakoitzak nahi zuen euskaraz egin ahalko zituela.

Eman zenitzake xehetasun gehiago proiektuaren inguruan?

Hitzaldia gordeta daukat eta han nahikoa xehe dago azalduta. Pasako dizut. Dena den esango nuke hilabetekaria edo bihilabetekaria egitea zela asmoa. Sinadurak, berriz, bertsolarien artean, medioetan publikatu izan zutenak: Lopategi, Muniategi, Basarri, Iparraldekoak... Eta noizean behin artikuluren bat idazteko animatuko lirateken Antonio Zavalala bat, Juan San Martin bat...

Zergatik ez zen aurrera atera?

Proiektuaren defendatzaile nagusiak Prudentzio Egiguren *Artañola* errezildarra eta neu izan ginen, eta aita Migel Mari Juaristi. Baina ez zen beste gestiorik egin, eta hartan ito zen ordukoz... Bertsolariek berek ere ez zuten berotasun handirik erakutsi...

Hitzaldia eman, bazkaldu eta bazkalondoan, zein animatzen da? Inortxo ere ez. Bakarrik gelditu nintzen. ‘Donde no hay mata no hay patata’ izan zen nire sententzia. Etxera bidean Prudentzio Egiguren *Artañolari* galdetu nion zer iruditu zitzaion eta esan zidan: “Joxe Mari, ez hadi alferrik nekatu”.

Gerora Santi Onaindiarekin bildu nintzen gertaturikoa azaltzeko eta esan zidan ‘zergatik ez duzu aurrera egiten?’. Eta erantzun nion, “batetik ez daukat astirik, bestetik ez da nire eginkizuna, honetarako bertsolariak inplikatu beharko lirateke”. Horretan gelditu zen dena.

Gero *Principe de Vianak* bertsolaritzari eskaini zion atal batek hartu zuen nolabait proiektu horren lekukoa, ezta?

Egia esan ez dakit nola izan zen hori. Dena dela *Principe de Vianak* lan ederra egin zuen, Mariano Izeta eta abarren bultzadari esker. Jose Mari Satrustegi ere laguntzaile ona izan zen. Baina zabalkunde eta indar txikia zuen aldizkari horrek, Gipuzkoan eta Bizkaian behintzat. Nik jasotzen nuen, baina egingo nuke apustu Gipuzkoa-Bizkaian ez zituela beste hamar harpide baino gehiago.

1960-1970 hamarraldietako giroa

Ez Dok Amairuren sorreran egon zinen, bai ideari forma eman ziotenen artean eta baita abeslarien kantuak irratian grabatuz eta emitituz, edo emanaldien antolatzaile nahiz aurkezle gisa. Bertsolarien mundua eta euskal kantagintza berriarena ongi ezagutu zenituen. Zenbaterainoko harremana zegoen batzuren eta besteen artean? Emanaldi asko egin zituzten elkarrekin?

Bertso-saio asko egin ziren taldeko kideen jaialdien osagarri. Lurdes Iriondoren osagarri, edo Lourdes eta Xabierren jaialdien osagarri. Benito eta Mikelen osagarri gutxiago. Eta Ez Dok Amairu talde bezala aritzen zenean nik behintzat ez dut gogoratzen bertsolariekin aritzen zirenik. Nestor Basterretxea eta Larruquerten *Pelotari*, *Ama Lur*, *Alquerzar* eta horrelakoak bai eman ziren jaialdien osagarri, baina bertsolaririk ez.

Otañori egin zitzaion omenaldi batean Miren Auzmendi urnietarrak bertso batzuk egin zituen eta Lourdesek abestu Zizurkilen, eta gogoan daukat Garmendia, Basarri eta Uztapide Urnietako aingerua gora eta behera ibili zirela. Letek ere estimu handia zien bertsolariei. Urnietan urtero egiten zen San Migeletako bertso-saioa antolatzen Xabier ibili zen asko.

Zein izan ziren Ez Dok Amairukoekin harreman gehien izan zuten bertsolariak?

Ez Dok Amairu taldeko askok harreman bete-betea genuen bertsolariekin. Baina Joxanton Artze, Xabier Lete eta besteren bat kenduta, ez dut uste benetako harremanik izan zenik bertsolarien eta taldearen artean. Ez dok Amairuko kide batzuk eta bertsolari batzuekin harreman pertsonalak baziren, baina talde bezala oso gutxi. Bertsolariak ere ez ziren asko saiatu hurbiltzen.

Euskal kantagintza berriarekin harreman gehiena izan zutenak Azpillaga eta Lopategi izango ziren. Ez Dok Amairurekin baino gehiago Herrikoi izeneko taldearekin ziurrenik. Maite Idirin, Bittor Egurrola, Beti-Alaiko neskak, txalapartari bat, albokaria... 1968an sortu zen talde hau, egurra eman zuen eta ez zuen asko iraun.

Gehiago ikusten zena bertsolari eta trikitilarien arteko harremana zen. 1950eko hamarraldi bukaeratik dezente ibili ziren Basarri eta Uztapide soinu-joleekin. Soinu handiarekin ibiltzen ziren Angiozarko Itsuarekin eta Pepe Yanzirekin batez ere. Eta aurkezten ia beti Pello Kirten. Bizkaian, berriz, Txomin del Regato jartzen zuten emanaldi hauen aurkezle, baserritar arlotearena egiten.

Honezkero aipatu dituzu bertsolaritzaren inguruko zentsura eta debeku batzuk. Puntu hau gehiago zabaltzerik bai?

Gipuzkoan Salbuespen Egoeran ez zegoen bertso jaialdirik. Debekaturik egon ziren Lourdes, Xabier, Benito eta Mikel ere. Eta bolada batzuetan Bizkaira joatea ere debekatuta zuten Gipuzkoako bertsolariek.

Kasu konkretuak oroitzen hasita 1972ko apirilaren 30ean Donostiako Anoeta pilotalekuan Zeruko Argiaren alde egin genuen jaialdia datorkit burura. Egun hartan gelditu zen Uztapide mutututa eta laster erretiroa hartu behar izan zuen. Uztapide bera, Joxe Lizaso, Gorrotxategi, Azpillaga eta neuri isuna ezarri ziguten. Gaia zera zen: “Odolkiak ordainetan”, eta itzulpena egiterakoan, “una tradición antiquísima en el país” jarri nuen. Uztapide zen hasten, eta “nola egingo ditugu ba odolki onak, zerririk haundienak Madrilen daude eta” bota zuen, eta Lizaso-Gorrotxategi-Azpillagak bide berdinari jarraitu zioten. Garai hartan Carlos Claveria zen Gipuzkoako Delegacion y Turismoko buru zebilena eta ez zen inor bakean uztekoa. Ez dut

esango nor zen, baina badakit “txibatazioa” zein “euskaldun jatorrek” sinatu zuen bakoitzarentzat berrehun pezetako isuna proposatuz.

Zarautzen egin zen bertso jaialdi batean, Iparraldetik Mattin eta Xalbador etorri eta Xalbadorri ez zion kantatzen utzi Guardia Zibilak. Edo Lazkao Txikiren pasadizo ezaguna Getariako saio batera bidean gertatua. “¿A donde van, y a qué?”- Guardia Zibilak. “A cantar”- Lazkao Txikik. “¿A cantar qué?”. “Ah, eso no sabemos”. “Pues menudos cantaores son ustedes que no saben qué van a cantar”.

Giro aldrebes horretan lan egitea nekeza suertatuko zitzaizun.

Bai, kontu handiarekin ibili beharra zegoen. Kantariekin ere hainbat arazo izan genuen irratian. Zenbat aldiz joan gidoiarekin eta abestiekin Información y Turismok Andia kaleko hirugarren pisuan zuen bulegora, Lasarteko neskazahar lotsagabe batek hartzen zizkigun, eta “vuelva mañana” beti... ‘Conjuntos y cantantes recomendados’ zerrenda ere bidaltzen ziguten...

1963an susto galanta izan nuen gainera. Txikia, Goiburu eta Basakarte ihesi joanak ziren mendira eta trenbideari jarraika Azpeitiara iritsi zirenean ezkutatzeko eskatu zidan lagun batek eta Loiolako Basilika azpian ezkutatu. Sukaldariari pasa nion abisua jatekoa emateko eta astebete egin zuten horrela. Sanjuandegi inguruan ibili zen Guardia Zibila baina ez zituzten harrapatu. Hala ere zerbaiten susmoa bazeukaten eta irratiko zuzendariari iritsi zitzaion ETArekin harremana ote neukan. Esan omen zioten botatzen ez baninduten emisora itxiko zutela. Nik esan nion ez nintzela ETAKoa, horrela zen, eta defenditu egin ninduen.

Guardia Zibilarekin arazoak izan genituen Arrasateko jaialdi batean ere. Pantxoa eta Peioren kontzertu bat antolatu genuen Gurea aretoan, eta bertara sartu zen dozena erdi bat guardia ‘tienen cinco minutos para desalojar la sala!’ ohikatuz. Lau minutu sobratu zitzaizkigun. Mondragoiko kuarteleko teniente gazte bat agintzen, eta Gipuzkoan kuartel hau egin zen ezagunena bere ankerkeriagatik. Bizkaian, berriz, Durango, Santutxu eta Ondarruko kuartelak ziren famatuena.

Horrelako trago txarrak pasata edozein huskeriak jartzen du bat pixka bat urduri. Bergaran Pentekostesetako jaialdi baterako, amerikanoak arraza berezi bat egin nahi zutela eta tipo puntakoenen haziarekin banku bat egiten ari zirela zebilen egunkarietan, eta gaia jarri nien Lopategi zebilela puntako har horiek aukeratzen eta Joxe Agirre izan zela aukeratuetariko bat. Oso saio polita egin zuten. Ba hurrengo egunean kristorena eta biko artikulua *La Voz de España*n gai-jartzaile eta bertsolarien moralitate falta aipatuz. Egunak egin nituen multaren baten edo salaketa ofizialen baten zain, baina hartan pasatu zen hura.

‘Telenorte’n eta txapelketen antolaketan

1975ean Herri Irratia utzi gabe TVEko Telenorte-n hasi zinen lanean.

1975eko abuztuaren 20an deitu ninduten bilera batera Manu Oñatibiak eta Jose Mari Etxebestek, norbaitek esan omen ziela eta nirekin kontatzeko. Telenorteko zuzendari Maximiliano Alonso zegoen garai hartan, Aragoiko mutil gazte bat. Bilera egin genuen eta baiezkota eman nien, baina irratia ez uztekotan. Maximiliano honek bukatutakoan apartera eramanez ninduen eta “¿La h es marxista?” –galdetu zidan. “¿Quieres que me haga el gallego?” esan nion eta, “No. En castellano es marxista la H?”. “No”. “Pues en euskera tampoco, por mucho que te hayan dicho; el marxismo no tiene nada que ver en esto”. “Eske aqui en el grupo dicen...” hasi zitzaidan. “Ya se, aqui la careta que teneis propuesta es ‘Euskalerrria’ sin ‘h’...”. H-arena mito bat egin zuten batzuk, egin genuen denok, Euskaltzaindia ere tartean...

‘Euskalerrria’ zen egokitu zidaten saioa. Astean behin zen eta ostegunak hartu ohi nituen horretarako. Gero larunbat arratsaldetan aritu izan nintzen elkarrizketa eta erreportaje batzuk egiten... ‘A fondo, el hombre’ izenarekin emititu ohi ziren elkarrizketa hauetako batzuk.

‘Euskalerrria’, Franco hil baino justu hilabete bat lehenago emititu zen lehen aldiz. Erreportajeak denak 16 mm-an egiten genituen, zeluloidean. Guk saioa muntatuta bidaltzen genuen Bilbotik, baina grabatu Madrilen grabatzen zuten...

Saio horretan eskaini zenion tarterik bertsoaritzari?

Bertsolaritzari buruzko albisteak eta elkarrizketak eman genituen behin baino gehiagotan.

Hala ere, elkarrizketak gehiago ‘A fondo, el hombre’ horretan Basarri, Uztapide, Hernandorena, Kepa Enbeita, Lopategi, Amuriza txapeldun bezala ere eraman nuen 1980an, eta bertsoak bota zituen elkarrizketaren bukaeran... 40 minutuko emisioa zen. Konpromisoa zen erderaz eta euskaraz egitekoa, eta nik orduan egiten nuen hasieran lau lineako aurkezpena erderaz eta beste dena euskaraz. Koloretan zen. Pena dena galdu dela. Ez zuten ezer gorde.

1980 hamarraldi hasierako txapelketa nagusiak eman zenituzten?

1982ko finala bi kamerarekin grabatu genuen osorik, zeluloidean, eta astelehen eta astearte osoa hartu nituen postprodukzioa egiteko tekniko “moviolo” baten laguntzarekin. Ordubeteko emanaldia eskaini genuen, laburpen bat.

Tamalaz ez dut uste Telenortek artxibatu ere egin zuenik hainbat kosta zitzaigun saio hura.

Txapelketan antolaketan ere ibili zinen Euskaltzaindiak 1980ko hamarraldi hasieran antolatu zituenetan.

Antton Haranburu eta biok izan ginen 1978an Euskaltzaindiaren Ahozko Literatura Batzordean proposatu genuenak. Juan Mari Lekuona, Joxe Mari Aranalde, Jesus Mari Etxezarreta, Antonio Zavala etab zeuden batzorde horretan, eta balekoa eman ziguten. Lekuonak zuzendaritzan aurkeztu zuen proposamena eta han ere aurrera.

1980koa horrela atera zen Haranburu eta biok kamikaze batzuk bezala lana eginda. Amurizak sorpresa polita eman zuen, eta hiru urtean behin egitea erabaki zen. 1982koa ere antzera joan zen. Eta eskolarteko bertsolari gaztetxoek txapelketa ere jarri genuen martxan.

1985ean txapelketa nagusia antolatzeko talde bera jarri ginen lanera: Aranalde, Lekuona, San Martin, Irigoien, Juanjo Zearreta, Iñaki Behobide, Etxezarreta, Haranburu... Oinarriak egin, bertsolariak konbokatu Loiolako Kiruri jatetxean, eta problemak jartzen hasi ziren. Lehen bilera hartan esango nuke Lopategi izan zela epaimahaian bizkaitar gutxi zegoela eta planto egin zuena. Hurrengo bilerarako talde haundi samarra zegoen ezezkoan. Euskaltzaindiak dirua ateratzen zuela zioten, baina guk ez geneukan Jaurlaritzaren, Diputazioen, Udalen eta abarren laguntzarik, sarreretatik egiten genuen dena. Hori entzun eta erabaki genuen, bale, antolatu zeuok txapelketa. Euskaltzaindiari esan zitzaion eginkizun hura bertsolarien esku uzten zela eta hortxe bukatu ziren Euskaltzaindiaren txapelketak.

Minduta utziko zintuen honek ere.

Ez pentsa. Elkartearen sorrera guretzat lasaitasun bat izan zen. Sartuta nenbilen gai batzordean, administrazio batzordean, antolakuntza batzordean, aurkezle... Eta xentimo bat kobratu gabe gehienetan. Urtean zenbat egun etxetik kanpora, ze neke... Etorri zirenean, nik sentitu nuen guk egin dugu zer bait, ahal genuena, eta orain etorri daitezela beste batzuk. Ikaragarritzko lasaitua hartu nuen.

Antton Haranburuk ere berdin esango dizu. Logikoena euren eskuetan gelditzea zen. Beste ezer ez zegoen garaian Euskaltzaindiak egiteak bazuen bere logika, baina gerora, eurek hartu nahi bazuten eurek hartzea logikoena.

Bertsoa Euskadi Irratian

1983an EiTBN hasten zara lanean Herri Irratia utzita. 1985ean ETBko zuzendari izendatu zintuzten. 1989tik 1998ra bitartean EITBko irratietako burua izan zinen. Suposatzen dut ardura kargu horiek izanda bertso kontuak uztea tokatuko zitzaizula.

Bai, aurkezle eta gai-jartzaile lanak asko jaitsi nituen 1985etik aurrera, ez neukalako batetik bestera horrela ibiltzeko astirik. Ondorioz grabatzeari ere utzi nion. Eta eragiletza ere Elkarteak bere gain hartu zuenez, beste distantzia batetik hasi nintzen bizitzen bertsoari.

Bi hamarkada luze egin zenituen erakunde publikoan. Bertsoari egiten zenari jarraipena egingo zeniola suposatzen dut.

Bai, bai. Beti interesatu izan zait gaia eta normalean banekien etxe barruan gaiaren inguruan zer egosten zen.

Euskadi Irratian, esaterako, zein izan ziren bertsoari buruzko eskaintzaren gako nagusiak 1980ko hamarraldian?

Joxerra Garzia eta Pello Zabaletak 'Sorginen afaria' programa egiten zuten eta astean behin bertsoari buruzkoa izaten zen. Fernando Amezketarra izeneko txapelketa ere antolatu zuten, pixka bat guk Loiola Irratian antolatu izan genuenaren traza batzuk bazituen. Programa polita egiten zuten eta arrakasta handia izan zuen. Oroitzen dut Zabaleta oso idazle ona zela, euskaldun bikaina.

Antton Haranburuk ere egin zuen ekarpen zelebreren bat. Gogoratzen naiz informatiboak bertsoan eman behar zirela tematu zela bolada batean eta bat baino gehiago eman zutela horrela. Baina ez zuen ematen... Bertsoan konplikatu da informatibo bat, minutu bat behar da zortziko nagusi bat botatzeko eta denbora gehiegi da hori informatibo batean. Bertso bidez eman daitekeen informazioa ere nahiko mugatua da. Euskadi Irratiaren oso hasieran izan zela esango nuke. Otermin zen irratiko buru orduan eta nahikoa pazientzia izan zuen.

Euskaltzaindiako Ahozko Literatura Batzordeko Aktak bertsoan jasotzen ere saiatu zen Haranburu. Artista izan da... Gogoratzen dut EITBn pasa aurretik Herri Irratiak eta *Deiak* bi bertsolari eta Haranburu bidali zituztela Andaluziara, Sevillara eta abar. Han ikusten zutenaren kronika bertsoan egin behar zuten bertsolariak irratirako eta hitz lauz Haranburuk egunkarirako. Urte batean Lazkao-Txiki eta Txomin Garmendia joan ziren. Beste urte batean Lazkao-Txiki eta Patxi Etxeberria... Taulatu batean dantzan ibili zirela eta horrelako kontuak ekartzen zituzten... Gehitxo esatea izango da, baina Haranburukeria bat izan zen.

Oso bertsozalea da. Gai jartzen ere ibiltzen zen asko garai batean. Gai jostariak jartzea gustatzen zitzaion. Ez zen gai-jartzaile makala.

Gero, galderara itzuliaz, Basarriri ere egin zitzaion tarte bat lehen urte haietan. La Voz de Guipúzcoa-koan 1970 hamarraldiraino jarraitu zuen, eta utzita zegoen urte batzuetan, baina pixka bat bajatzen hasita ere, baina Nire Bordatxotik eskaini zuen bolada luzean, betiko eskema jarraituz.

Txapelketen jarraipena ere egingo zen.

1980 eta 1982koena ez, Euskadi Irratia oraindik martxan jarri gabe zegoelako, baina 1986tik aurrerako guztietan jarraipen osoa: kanporaketak, finala, elkarrizketak, adituen iritziak...

Eta herrietan egiten zirenei ere jarraipena egiten zitzaien: Orixe saria, Añorgan; Osinalde saria, Gabirian; Artxanberri saria, Zaldibian eta abar.

Mujikaren artxiboa eskuratu ahal izan zuen Euskadi Irratiak.

Oterminen meritua izan zen hori. Segituan hasi zen gainera: 82ko azaroaren 30ean hasi zen Euskadi Irratia emititzen, eta 83an hasi zen Mujikaren atzetik. Sekulako aguantea dauka Oterminek. Oso ona izan da horretan, etsitzen ez duena.

Mujikak sare bat osotua zuen garai batean. Bera ez ezik, andrea eta beste mutil bat ere ibiltzen ziren grabatzen herriz herri. Jaso bai, baina ematea kosta egiten zitzaion. Gogoan daukat Uztapideren 'Lengo egunak gogoan' idazteko bertso batzuk eskatu zizkiola endoiarrak; honek ukatu eta bertsolariek ezin zutela ikusi ere egin, baina berebiziko artxibo gotorra egin zuen. Arazoa zen bere komentarioak grabatzen zituela bertsoekin batera eta honekin alferrik galtzen zuela hainbat grabazio.

Nahiko lan eman zion Otermini. Dena batera pasa beharrean pixkanaka-pixkanaka joan zen pasatzen, diruaren trukean, noski. Beltzean eskatzen zuen gainera, baina Euskadi Irratiak ezin zuen horrelakorik egin, urtero bi auditoria pasatzen baitzituen...

Zure artxiboa ere irratitari pasa zenion?

Bai, 1993 edo 1994an. Zalantzak izan nituen, bertsolarien eskubideen kontua zela eta abar. Debalde utzi beharra nuela ere ikusten nuen... Eta horrela egin nuen.

Beste irratikatek zer eskaintzen zuten urte horietan?

Herri Irratian nik utzi nuenean Laxaro Azkune eta Alberto Gorritiberea sartu ziren. Martxoaren 30ean despedida egin zidaten eta apirilaren 1ean sartu ziren bi hauek. Gorritibereak informatiboak eta nire bestelako pare bat programa hartu zituen eta kultur arloan egiten nituenei Laxarok eman zien segida. Bertsolaritzaren jarraipena azken honek egin zuen urtetan.

Azkenik, Arrate, Segura eta Bizkaia Irratietan ere bertsoak tarte onak izan ohi zituen.

1990eko hamarraldian Aldairen 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' izango da erreferentziala.

Aldaik aurretik Donostiko Herri Irratian egin zuen lana, eta han ere jorratu zuen bertsolaritza. Euskadi Irratian hasi zen gero eta hemen ere egin zituen gauza batzuk programa honi ekin aurretik. Batez ere lan ikaragarri ederra egin zuen irratiko artxiboa ordenatzen. Eta programa ere oso txukuna zen.

1980ko hamarraldian esango nuke bertsolaritzari buruzko irratsaioen lidergoa Herri Irratiek mantendu zuela, Euskadi Irratiaren aurretik, baina Aldairen programak aurrea hartu ziela hurrengo hamarkadan.

Orain esango nuke entzunena Sukiaren 'Hitza Jolas' dela. Ondo dago, baina Aldairena gehiago gustatzen zitzaidan.

Bertsoa Euskal Telebistan

Baduzu gogoan ‘Hitzetik Hortzera’ martxan jarri aurretik ETBn bertsolaritzari ze eskaintzen zitzaion?

ETBn asteburuetakoinformatibo eta kiroletako erredaktoreburu/zuzendari izan nintzen 1983ko apiriletik 1985eko irailera. Informatiboetan sartzen genituen bertsolariei buruzko albisteak eta laburpenak. Pedro Mari Goikoetxea taldean neukan garai hartan, eta guk nahi adina eman ez arren, lankide horrek egiten zuen bertsolaritzaren jarraipena.

Txapelketak ere eman ziren 1986koan Elkarte sortu berriarekin nahikoa gorabehera izan bagenuen ere. Dirua eskatzen ziguten, eta guk dirurik ez.

Hortik aparte ez dut nik gehiago gogoratzen.

Gogoan duzu ‘Hitzetik Hortzera’ nola jarri zen martxan? Audientzia ikarragarriak izan zituen, ezta?

Ba, egia esango badizut ez daukat arrasto handirik. Ni 1985etik 1987ra izan nintzen ETBko zuzendari, 1988tik aurrera Euskadi Irratia, Radio Vitoria, Radio Euskadi eta Euskadi Gaztea koordinatzea eta Radio Euskadiko zuzendaritza ziren nire ardurak. Baina esango nuke Joxerra Garziaren ekimenez jarri zela martxan. Arrakasta ikaragarria izan zuen, bai.

EiTB eta Elkartearen arteko liskarrak eta programaren etenak oihartzun handia izan zuen bere garaian. Elkartearen posturaren berri irakurri dut han eta hemen. Zein zen EiTBren posizioaren azalpena?

Esandakoa, hori ez dakit zehazki, baina 1990eko hamarraldiaren erdialdean izan zen edo eta irratietan nenbilen buru-bihotz. Ez nuen asko jarraitu borroka hura. Badakit gairen batekin arazoak izan zituztela, eta emanaldiak bertan behera gelditu zirela.

Gehiago eragin zidana geroxeago etorri zen. ETBk bere kasa, alegia, Elkartearekin akordio batetara iritsi gabe, programa berriro martxan jarri nahi izan zuen nonbait, eta niri proposatu zidaten gidaritza. Zarraoa zuzendari nagusiak proposatu zidan hori, eta ezezko borobila eman nion, ez nuela ezer jakin nahi saltsa hartan, kolpeak baino ez zizkidala ekarriko horrek batetik eta bestetik. Biharamunean, ordea, *Correo Español*en eta *Deian* programa berria nik aurkeztuko nuela argitaratu zuten. Sutan jarri ninduen horrek. Eta mingarriena hurrengo egunetan etorri zen, hainbat kaskarinek nire kontra idatzitakoak. Orduko erreorte asko daukat jasota. Hainbeste urtean hainbeste lan egin eta oso esker txarrekoa irudi zitzaidan esan zirenak esatea, gezur batean oinarriturik gainera. Ez erantzutea erabaki nuen. Izan zen bere babesa emanez deitu zidanik ere: Azpillaga, Lopategi, Amuriza, Joxe Lizaso... Baina dezenteko nazkatua hartu nuen kontu guzti honekin.

Basarri eta Zavala

Zeuk sakondu izan duzu gehien, Auspoarako apailatu duzun hainbat lanen bidez, Basarrik egindako ekarpenetan. Nola laburbilduko zenuke ekarpen hori?

Euskara azken hamarkadetan normalizatzen hasi den arte bertsolaritzaz gehien idatzi duena Basarri izan da eta euskaraz gehien idatzi duena ere bai. Paulo Iztuetak esan zidan behin, “Orixek baino gehiago?”. Bai, noski. Beste kontu bat da nolako euskara erabili izan duen batek eta besteak, baina kantitatez gehien argitaratu duena Basarri bera izan da. 1930eko hamarraldiaren hasieran hasi zen prentsan kolaboratzen eta 1990eko hamarraldiraino jarraitu zuen. Dozenaka argitalpenetan kolaboratu zuen, eta asko idatzi zuen gai askori buruz. Produzitzeko gaitasunari dagokionean munstro bat izan zen.

Kazetari gisa bertsolaritzaren inguruan egin zuen lanak zenbaterainoko garrantzia izan zuen erreferentzia nagusi izan zen hamarkada horietan bertsolaritza iraunarazi, hauspotu eta garabidean jartzeko?

Zaila da oraingo ikuspegitik hori neurtzen, baina Basarriren zutabeak ez ziren ahuntzaren gauerdiko eztula. Jendeak irakurri eta entzun egiten zituen, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, Iparraldean, edo Nafarroan ere. Eman zaion baino garrantzia gehiago izan zuen Basarrik bertsolaritza eta euskal kulturaren esparruetan.

Uztapideren ‘Lengo egunak gogoan’ gisako bat ez zitzaion egin.

Antonio Zavalak bazeukan kezka Basarrik ez zuela begi onez ikusten eta pena zuen ez zirela garbi hitz egitera iritsi. Uztapideren ‘Lengo egunak gogoan’ euskaraz prosaz urteetan gehien saldu den liburuetakoa bat izan zen, eta Basarrirekin ez zen egin. Uztapidek haren salmentarekin etxe berria egin zuen, 13 miloi pezeta atera zituen. *Odolaren mintzoa* ere ikaragarri saldu zen.

“Basarri eskatu izan banio, ez bertsoa, prosa”, esan ohi zuen Zavalak. Pena zeukan. Eta Basarrik ere sufritu egin zuen ez egitearena. Baina Basarri estresatuta ibili zen. Bera ere ez zen jarri, baina kontatzeko asko zuen, garai bateko herri kirolariekin edukitako harremanak eta abar. Berak aitortzen du prentsako elkarrizketa batean baduela pena elkarrizketa liburu on bat egin ez izana.

Zavalaren eta Basarriren proiektuak, neurri batean behintzat, ezberdinak ziren, ezta?

Zavala etnografoa zen. Lehengo bertsolaritza nahi zuen, herrikoa, naturala. Txirrita gehiago maite zuen Pedro Mari Otaño baino. Eta Xenpelar...

Basarri justu kontrakoa zen, bertsolaritza sagardotegitik ateratzea zen bere xedea... Otaño eta Kepa Enbeita Urretxindorra ziren bi jainkoak. Txokerik ez zuten izan, ordea. Basarri gozoa zen harremanetarako, berekoa ere bai. Eta Zavalak maitasunez tratatzen zituen bertsolariak.

Basarrik hainbat polemika izan zituen, ordea.

Jenio bizikoa zen bai, eta ez zen isilik gelditzekoa. 1962an txapela Uztapideren burura pasa zenean, esaterako, polemika izan zuen Ayalderekin.

Final hartan azkenengo bertsoarekin oso ondo gelditu zen esanez “nire lagunik maiteenari eman diot txapela”. Barrutik erreta egongo zen, agian, baina dotore gelditu zen. Gero *Goiz-Argiren* inguruko kuadrillak zirikatatu egin zuen, Oñatibiak eta, eta Ayalderekin saltatu egin zuen. Isilik gelditu izan bazen beretzat askoz hobe.

Arestirekin ere izan zituen batzuk.

Bai, bai. Aresti bera ere polemika zalea zen. Gogoan dut urte batean Markinako bertsolarien bilkura haietako batean hitzaldia eman zuela eta dena hankaz gora jartzen saiatu zela. Baina ez zuen ezagutzen plazako bertsolaritza.

Basarrik bere buruan frantziskotarren sermoilarien nostalgia ere bazuen. Oso itxia zen erlijio eta moral kontuetan, beti zebilen bere moralinarekin, eta jende dezente nekatu egin zuen horrekin. Ehun mila pezetako sariketarekin egin zuen itzulera ere polemiko samarra izan zen... Ayalderekin izan zuen polemika hartan txapelketak utzi egiten zituela iragarri zuen eta halaxe egin zuen, baina 1968an sariketa handi bat antolatu zen, eta horretara bai aurkeztu zen. Aurreko urteetako txapelketetan izan ez ziren bertsolariak bildu nahi zituzten 68ko antolatzaileek, ondo ordainduta, eta esamesek zioten Basarrirentzat propio antolaturiko zerbait izan zela. Halaxe zen, baina ez ziren konturatu Urepeleko “berdotza” ere tartean zela. Basarrik lortu zuen puntuaziorik handiena, baina Xalbadorrek sekulako saioa egin zuen, eta hamar

puntu baino gutxiagoko tartearekin gelditu. Hain tarte txikia zenez, bi sariak batu eta erdibana eman zieten azkenean, aurrez horrela erabakita zegoen eta.

Hor ere egon zen polemika. Basarriekin bazegoen halako kontra egiteko gogo bat, baina oso ikuspuntu interesgarriak defendatu zituen, gehienez behintzat, bertsolaritzari zegokionean.

Bukatzeko, ze nolako garrantzia izan du, zure ustez, bertsolaritzak hedabideetan lortu duen oihartzunak bertsolaritzaren garapenerako?

Hedabideek garai berrietara eguneratzen lagundu diote bertsolaritzari ere. Ez zeukan beste erremediorik bizi nahi bazuen, medioetan egon beharra zeukan. Denetan sartzen asmatu du, baina nire ustez egokiagoa da irratirako telebistarako baino. Telebistarako apur bat motela dela iruditzen zait...

Eguneratu egin da, jakin du pausuak ematen. Nik uste gerra aurretik egin zen ahalegina funtsezkoa izan zela. 1935 eta 1936ko txapelketak egin izan ez balira baserritarren fenomeno bezala gelditu eta desagertuko zen, agian. Eta, azkenik, bertso eskolekin beste dimentsio bat eman zaio baita. Pozten naiz, benetan.

V.XII MAIALEN LUJANBIO. HERNANI, 2017/VII/17

Bertsolaria. Euskal Herriko egungo txapelduna (bigarren txapela izan du 2017koa 2009koaren ondotik). Bertsozale Elkartean hedabideen harremanarekiko jarraipena egiten zuen Sustapen alorrean ardurak izandakoa. Hainbat hedabidetan kolaboratzaile izandakoa.

SUSTAPENA

Bertsozale Elkarreak bertsolaritzaren hedabidetzeari arreta handia jarri zion bere sorreratik bertatik. Hain zuzen ‘Sustapena’ (garai batean ‘Hedapena’) izan da barne antolaketarako hiru sail nagusietako bat eta hemen bi alor nagusi landu dira: txapelketen antolaketa eta hedabideetan bertsolaritzak duen presentzia zaintzea.

Sustapen sailaren arduradun ibilitakoa zara. Nola hartu zenuen ardura hori?

Nire aurretik Jon Maia zen arduraduna. Aurretik Igor Elortza izan zen urte pila baten eta gero Jonek egin zuen holako sartu-irten txiki bat. Niren ondoren, Sustrai aritu zen. Eta gerora Oihana Iguaran eta Jone Uria ere ibili direla esango nuke.

Niri Igorrek eta Jexux Muruak proposatu zidaten. Borondatezko zeregin bat da, militantzia kontu bat, eta lehenesten da sustapenean bertso plazatan dabilen pertsona bat izatea arduraduna. Plazetan gabiltzala hainbat gauza ikusi eta komentatzen ditugu geure artean eta horiek Elkartera eramatea da arduradunaren egitekoa. Gero sustapen lanen buru Elkarteko langile bat ibili ohi da. Nire garaian Torrotxo zen eta berak jarraitzen du gaur egun ere.

Esango nuke aurreko hamarkada bukaeran edo aritu nintzela horretan. Nahikoa egin nuenean Sustrairi proposatu nion eta horrela dijoa katea osatzen...

Transmisioa edota Jakintza alorretan ere egin zenezakeen zure ekarpena. Zergatik aukeratu zenuen Sustapena? Gehiago interesatzen zaizu besteak baino?

Bai Bertso Eguna, bai Txapelketa, bai hedabideak, horiek sustapenaren barruan daude. Orduan da pixka bat plazetako jardunarekin zuzeneko harremana daukan saila.

Transmisioa espezializatuagoa da, pedagogiaz edo didaktikaz aritzen dira... Ikerketa ere beste kontu bat da. Sustapenak Bertso Eguna, txapelketak eta hedabideak barneratzen ditu. Nireagoa sentitzen nuen, horko eztabaida naturalagoa suertatzen zitzaidan.

Zenbateko taldea zen? Nola funtzionatzen zenuten?

Elkarteetako sustapen ordezkariak, bost edo sei, eta Lankuko ordezkaria biltzen ginen. Gaur egun, bertsoa.eus-eko ordezkaria ere bertan izango dela pentsatzen dut eta litekeena da Sabino San Sebastian bezalako perfil batzuk ere bertaratzea... Bilera hilabetean behin izaten zen.

Dinamika nagusia, nire kasuan behintzat, eragileak zeraman. Gu kontsultarako ginen gehiago baina erabaki guztiak taldean hartzen ziren.

Zu buru egon zinen aldi horretan hedabideekiko alor horretan tokatu zen aldaketa edo berrikuntzarik? Zerk eman zizuen buruhauste gehien?

Gure gai potoloetako bat ‘Hitzetik Hortzera’ izaten zen. Elkarrearen kezka nagusietako bat hori izan da: kalitatea kantitatearen aurretik jartzea, nola, non, zer eratan eta nor aurkeztu gai bakoitza... Sarasuarengatik datorren politika hori: bertsoa hauskorra da eta zaindu egin behar da. Ezin da edozein eratan eman eta ezin da edozein kantitatetan eman.

Herri telebisten akordioak ere eman ziren orduan eta irrati txikiekin ere akordio bat egin zen. Beti bazegoen kezka hori, zenbat aldiz emitituko ziren saioak eta ze kondiziotan.

Buruhausterik gehien ‘Hitzetik Hortzera’k ematen zigun. ‘Hitzetik Hortzera’ niretzako nahi eta ezin baten historia amaigabe bat da. Aurrena motela delako, dinamismoa behar duela; gero dinamismoa bilatzen duzu eta pixka bat friboloa dela; orduan eduki pedagogikoak falta dituela, edo bertso gutxi dagoela, edo bertso gehiegi eta erreportaje gutxiegi... Etengabeko autokritika baten istorioa da. Izatez Elkartea ere horrela da.

Beti horrela izango dela iruditzen zait, inoiz ez garela konforme egongo. Inoiz ez du erabat transmitituko guk nahiko genukeena. Etengabe kuestioan dagoen zerbait da. Horregatik Sustapenean ere pisua hartzen du.

Ongi funtzionatu izan duen saio bat ere bada, ordea.

Bai, bai. nire ustez, gauza oso txukunak egin dira, eta egiten dira. Esaten dudana ez diot modu etsitu batean.

Sarasuak energia nuklearra deitzen zion bere garaian, eta bertsolaritza eta hedabideratzearen inguruan motorra, pieza klabea izan da. Garaiak aldatzen ari dira, ordea, eta jada aurreko hamarkadako ikerketa soziologikoan gazteengana iristeko zailtasunak zituela planteatu zen.

Egun gazte jendearen erreferentzia nagusia bertsoa.eus da. Egia da telebista jaisten ari dela, baina aldi berean oraindik badago jende bat telebista erreferentzia nagusizat duena.

Ni bien artean mugitzen naiz. Telebista gure belaunaldian bada zerbait. Ezin dugu gutxietsi ere. Internet ondo dago baina besteak ere badu pisua. Gainera telebista publikoan presentzia izateak ere badu bere esangura.

Nola ikusten duzu bertsoa.eus-en lana?

Oso ondo dago. Erreferentziala da erabat. Egia da Sarean ikusten direla bestelako formatu batzuk gure betiko zuhurtzia horregatik landu ez ditugunak... Nik uste zuhurtziaren espiritu horrek jarraitzen duela eta ni horren oso aldekoa naiz.

Prudentziak batzuetan berrikuntzak ere oztopatu ditzake, ezta?

Bai. Berrikuntza esaten denean niri etortzen zaidana gauza arin, fribolo, jolasti bat da. Oso ona ere izan liteke baina ikara pixka bat eragiten dit.

Argiak egin izan ditu txapelketen inguruan umore tonua nagusi duten saioak.

Oso gauza politak egin izan dituzte.

Egia da Elkartean batzuetan serioegi jartzen garela gure neurtu nahi horrekin. Nire nortasunarekin oso bat egiten du horrek gainera. Niri normalean hedabideek ez didate konfiantza handirik eragiten, beti izan ohi dut errezelo edo nagi puntu bat hedabideekiko...

Horrekin ez dut esan nahi jolastu behar ez denik. Saiotetan ere publiko berrietara iristeko bestelako gauzak egitera jotzen dugu: piruetak, jolasak... Oso ondo dago ze jende horrengana iristen zara, baina oso neurri jakinean egin behar duzu bestela bertsoa dena jolas, dena txorakeria bihurtzen baita.

Sailak jorratzen dituen gainerako alorrei erreparatuta ikusten da txapelketak paper garrantzitsua duela hedabideratzean eta sustapenean. Nola azalduko zenuke paper hori?

Txapelketaren helburu nagusia bertsolaritza plazaratzea, gizarteratzea, sozializatzea da. Bertso lehiaketa horren bidez, funtzio kultural, linguistiko eta bertsolaristikoak bilatzen dira, eta baita proiektu orokorraren sostengu ekonomikoa ere.

Badira tentsioan dauden bi joera. Batetik, txapelketa eta hedabideak sustapenerako baliatzekoa, eta bestetik, ‘kontu hauek utzi, gure berezkora bueltatu gaitezen’ dioena. Nola ikusten duzu bitasun hori?

Esango nuke funtsezkoa dela, oreka mantentzen laguntzen digula.

Bertsolaria-kazetaria harremana

Egiten ari naizen ikerketan ikusten da 1990 hamarkadatik aurrera bertsolariak ikasi egin duela bere buruaz, bere prestakuntzaz, bere bertsokeraz, bere momentuaz hitz egiten. Ikasketa prozesu hori nola izan da zure kasuan?

Andonik eta komentatzen zuten lehen ez zela apenas ezer komentatzen bertsolarien artean saioaren ondorenean. Denborarekin hasten gara komentatzen, kezkatzen, bueltak ematen, bai saioa orokorrean bai bakoitza bere buruari. Esango nuke Andoni eta hauek hasi zirela horretan eta haiengandik gugana norberak bere lanaren irakurketa geroz eta sakonagoa egiten duela. Are gehiago txapelketako jardunean. Orduan ez da hainbeste kazetarietako eboluzioa baizik eta gauza paralelo bat.

Bertsolariak askoz autokritikoago eta autoanalistago gara, gero eta gehiago, eta orduan zer galdetu gehiago ere badago. Gero, gaurko kazetariak, agian gehiago daki bertsolaritza buruz. Eta orduan elkarrizketak sakonagoak izan daitezke...

Zenbaiti gehiegi ere iruditzen zaio. Nire elkarrizketaren bat irakurrita komentatu izan didate ea hainbesterako ematen duen bertsoak egiteak. Kanpotik begiratuta harrigarria suertatzea normala iruditzen zait: Gorpil bat aldatzeko lan hori dena? Ahal duzun ondoen egiteko intentzioarekin, dotoreziaz eta kezkaekin lantzen baduzu, bada, bai.

Lan berri bat sortu zaizue txapelketa garairako: Prentsari esan beharrekoaren gogoeta.

Lanketa hori ere badago. Nik behintzat egiten dut. Bueltak ematen ez badizkiozu arriskua daukazu futbolista batek bezala hitz egiten bukatzeko, ‘saioz saio joango naiz ikusten nola nagoen’ eta horrelakoak. Eta futbolistak gauza tristea dira hitz egiten... Azkenengo txapelketan bertsolaritza idorra eta ederra egin nahi nuela esan nuen. Nik badakit horrekin zer esan nahi dudana, baina ez dakit aditzera ematen asmatzen dudana... Hausnarketa bat eskaini liteke ze gaitegi eta ze ikuspegi interesatzen zaizkizun, zein uste duzun dela bertsolarien funtzioa halako plaza handi baten. Gauza horiek bai prestatzen ditut.

Bertsozaleak berak ere informazio gehiago dauka, gehiago gozatzeko eta baloratu ahal izateko. Zure analisi horrek aberastu egiten du entzulearen perspektiba.

Iruzkina literario bat egitea bezala da. Hobe litzateke a posteriori egin eta ez a priori. Baina bai iruditzen zait egin beharreko ahalegin bat.

Nola daramazu medioetako harremana? Nekosoa egiten zaizu ala aise moldatzen zara...

Ez da gehien gustatzen zaidan gauza. Azkenean inoiz ez zara islatua sentitzen zure hitzetan, ezta irratiz zure ahotsez ari zarenean ere. Edo islatua sentitzen zarenean ‘baina’ pila bat jarriko zenizkieke esandako horiei.

Gero segun zein den kazetaria. Dakienarengana lasaiago joango naiz...

Alde handia nabaritzen da aurrean duzun kazetariak gaiaren inguruan eskarmentua izan edo ez? Zein onura dakartza kazetariaren espezializazioak?

A priori behintzat beti interesgarriagoa izango da. Gaiari ertz gehiago bilatuko dizkio, zuk buruan daukazun korapilo horietara errazago hurbilduko da, gutxi galdetzen diren eta benetan kezkatzen zituzten kontuez galdetuko dizu...

Espezializatua ez denak oso *grosso modo* egingo dizkizu galderak. Betiko galderak izango dira, mila aldiz erantzun dituzenez aspertua zauzkatzen horiexek berak.

Aurrean duzun kazetari hori bertsolaria izateak ekar lezake plus bat?

Bertsotan ibili denak errazago identifikatu ditzake zure kezkak eta zure jarrera batzuren zergatia. Egoera horretan egon da eta badaki zer den. Gero, bere ajeak ere izan ditzake, gauza batzuk errazago galdetzen dira distantziatik, esaterako.

Egaña eta Sarasuak idatzi izan dute hedabideratzearen belaunaldia izan dela eurena. Hori izan dela euren obsesioa. Hedabideetan ateratzeko ia eskaintza denei baietz esan izan diotela ere komentatu izan dute. Hurrengo belaunaldietan, ordea, iruditu izan zait medioekiko jarrera zuhurragoa dela. Nabaritu izan duzu ezberdintasun hau? Hala balitz, nola azalduko zenuke?

Gu ere atera gara prentsan, asko. Niri hamabost urte neuzkala egin zidan lehen elkarrizketa zure aitak. Betidanik bizi izan dugu foko hori eta agian horregatik, ez dugu fokoa lortu beharraren premia hori sentitu. Zabaltzea baino gehiago kezkatu izan gaitu agian zaintzeak.

Gero nik uste gure belaunaldiaren baitan ere pertsonatik pertsonara asko aldatzen dela. Nire belaunaldiko batzuek ez daukate inongo nagirik prentsan ateratzeko. Niri esan bezala kosta egiten zait. Nire kasuan beti izan da kezkagaia prentsan non, nola eta zenbat azaldu, ez bazterrak aspertzeko. Eta ahal bada nahiago ez azaltzea.

Zein hedabideetan atera erabakitzerakoan zein irizpide erabiltzen duzu?

Irizpide nagusia da ateratzekotan bertsolaritzari, egiletzari edota euskal kulturgintzari buruz hitz egiteko izatea. Ez zait gustatzen nire afizioak zein diren kontatzera ateratzea. Niretzat ez du interesik prentsako edo kultura munduko pertsonaia bat izateak. Nik nahi dut fokua jartzea egiten ari naizen horretan.

Gero unearen arabera ere izaten da askotan. Badakit txapelketa garaian derrigor ateratzea tokatzen zaidala. Edo kazetariaren arabera ere izan daiteke... Nire kasuan komunikabide txikiei errazago esaten diet baietz, medio nazionaletan oso justifikatuta egon behar du. Tartean behin atera eta zure berri ematea ongi dago baina kontatzeko fundamentuzko zerbait izanda.

Elkartean komunikazio alorraren profesionalizazioa eman da azken hamarkadan. Aldaketarik ekarri du horrek bertsolariek hedabideekiko duzuen hartu emanean?

Batez ere txapelketaren buelta horretan. Niri behintzat txapeldun atera nintzenean oso lagungarria suertatu zitzaidan. Dezenteko saltsa izaten da eta bideratzen lagundu zidaten.

Bertsolariak zutabegile

Zutabegintzara jarri izan diren bertsolarien zerrenda oso da luzea. Egañak dio badutela antzekotasunik langintza bata eta besteak, eta horrek esplikatu lezakeela, neurri batean behintzat, bertsolari zutabegileen loraldi hau. Nola ikusten duzu zuk kontu hau?

Idazle eskola bat dago baina ez dago inon beste entrenamendu lekurik ideiekin eta hizkuntzekin lan egiteko. Bertso-eskolak hori dira azkenean. Orduan normala da hor dabilen jendea prentsa idatzirako edo irratirako edo iritzi emailtzarako entrenatuta ateratzea. Zergatik?

Ikasi duzulako informazio dosifikatzen eta ordenatzen. Hizkuntza zaindu eta eraginkor bat erabiltzen ikasi duzulako eta ideiekin, arrazoiekin egiten duzulako lana.

Jende asko dago ondo idazten duena. Baina zuk behar baduzu norbait euskaraz aktualitateari buruz ondo idatziko duena egin dezakezu banan-banan bilatu eta hor bilatuko dituzu perla ederrak edo egin dezakezu, non dago saila? Bada, hemen. Gero ederra litzateke beste hainbeste jende egotea eta ez hainbeste bertsolari. Hala ere bertsolari gehiegi ateratzeak, *Berrian* esaterako, gure alde hitz egiten du, ez gure kontra. Ze askotan entzuten dut ‘bertsolari hauek toki guztietan daude’, eta gure kontra bihurtzen da. Baina gehiago da besteen gabezia gure akatsa baino.

Pertsonaje publiko bezala ere garrantzitsuak zarete.

Ezagunak gara Euskal Herrian, beste jardun batzuetan dabiltzanak baino gehiago. Hori ere egiten asmatu dugulako izango da, baina zenbaiti ez dio grazia handirik egiten. Ez du zentzu handirik.

Zu ere zutabegile aritutakoa zara, *Berrian*, ‘Jira eta Bira’ zutabe bikoitzean, 2003an. Nola bizi izan zenuen esperientzia hura? Zein ezberdintasun zituen bertsolaritzatik?

Ezberdintasun nagusia da idatzizkoa dela. Bistakoa da baina... Esate baterako gero irratian egin dudanarekin alderatuta oso diferentea da. Irratikoa askoz gertuago dago bertsotik niretzat. Ahozkoa da, zuk kontrolatzen dituzu enfasia eta esateko moduak... Prentsa idatzian bat-batekotasuna edo ‘bote pronto’ hori galdu egiten da. Horrek umorean eta beste zenbait gauzetan eragin egiten dizu. Paperean aguantatuko duten txisteak egitea, esaterako, ez da erraza... Antzekotasun asko ikusten diot estrategia aldetik baina idatzizkoa bistan denez, beste erregistro bat da, eta agian gakoa hori da: erregistroak bereiztea.

Feedbacka edukitzen zenuen? Bertsozaleak ziren? Beste publiko bat iritsi zitzaizun zutabegintzatik?

Edukitzen nuen, baina orduan ez zegoen, zorionez, twitterrik eta facebook-ik. Gero irratian izan nuen zutabean bai. Ni ez nago facebooken eta twitterren baina dabilenean iristen zait. Hamabost urteko diferentzia dago batetik bestera. Lehen sare sozialik gabe zabalkundea txikiagoa zen. Baina iristen zitzaidan. Bertsotan gabiltzala jendearekin egotea tokatzen zait aldiro eta esaten zizkidaten: ‘Irakurri dut hau’, ‘ez nago ados’ edo ‘gustatu zait’.

Publiko berria gehiago nabaritu nuen irratikoarekin.

Antzekotasunekin jarraituz, esango nuke zutabegintzan bertsotarako daukazuen estiloaren zantzuak nabari daitezkeela.

Bai, bai. Gainerako bertsolarien zutabeak jarraitzen ditut eta ikusten ditut lotura horiek. Miren irakurtzen dut eta ikusten dut bera. Andoni irakurtzen dut eta baita.

Norbere bertso jarriek ere badute antza norberak bat-batean bilatzen duenarekin, eta zutabeek ere bai. Antzeko trukoak erabiltzen ditugu askotan batean eta bestean.

Bertsolariak sortzaile

Bertsolaritzak medioen irabazitako presentziaren atzean arrazoi posible asko egon daitezke. Interesgarria iruditzen zaidan bat azken urteetan bertsolariok bestelako sorkuntza alorretan egin dituzuen sartu-irten eta hibridazioena da. Batetik, presentzia irabazten da bertsolaria gehiagotan delako albiste, eta bestetik, sorkuntza horien nahiz kolaboratzaileen maila dela eta prestigioa ere irabazten du bertsolaritzak, presentzia gehiago ziurtatzen duen prestigioa.

Prozesu honek izan dezake zerikusirik bertsolariaren aro berrian ematen den bertsolariaren ulerkeraren transformazioarekin?

Hibridazio edo bilaketa hori, ez nik ezagutu dudalako baina nik uste dut Amurizarekin hasten dela. Amuriza hasten da Josu Zabala eta beste hainbatekin pixka bat saltseatzen. Figura bezala ere, Amuriza mugarrietako bat da jarrera aldetik. Idatzi egin du, bertso musikatuak egin ditu, saioen formatua aldatzea proposatu du... Bilatu izan du beti beste zerbaitekin. Edadeak edade eta belaunaldiak belaunaldi bere jarrera beti izan da kritikoa, bilatzailea, berritzailea. Horretan oso ausarta izan da.

Amuriza eta gero, gure aurreko belaunaldia den horretan Andoni [Egaña] eta Jon [Sarasua] ere ibili ziren. Jonek 'Fauna txiki bat' kaleratu zuen eta Andonik ere bere diskoa. Ordurako Jon Maia eta Unai [Iturriaga] eta hauek ari ziren Tapiarekin 'Azken ziegaraino' egiten. 'Azken ziegaraino' da gauza bat gogoan geratu zitzaidana. Musikariekin lankidetzan normalizatzen ari zen. Gero Negu Gorriakekin kolaboratu zuen Jonek [Maia], Hertzainaken kontzertuetan hainbatekin kantatu genuen...

Hor gertatzen den aldaketa nire ustez da, bertsolariok ere hasten garela kide bihurtzen bestelako sorkuntza jardunentzat. Baserri munduari lotzen zitzaien irudi bat izatetik Amuriza eta gero Egaña eta Sarasuara badago aldaketa bat eta aldaketa horrek kultur munduan beste toki bat hartzen lagundu du. Inguruko jardunekin parekotasunezko harreman bat lortu da, harreman pertsonalak ugaritu egin dira, kezka partekatuak agertu dira eta ondorioz modu natural batean sortzen da proiektu batzuetarako bat egitea.

Bestetik, lehen esan dugun gure autoanalisi horretan bat-batekoak izan ditzakeen mugak kontzientzia argiago batekin bizi ditugu, eta bide horretatik adierazi ezin dituzunak beste bide batzuetatik espresatzeko beharra sortzen zaizu. Artista edo egilearen gogo batetik sortzen da zabaldu behar hori, alegia, 'asmatuko al nuke bat-batean ezin ditudanak idatziz adierazten?'.

Nik esango nuke azken hau gehiago izan dela gure belaunaldian garatu den zerbaitekin. Borroka artistikoaren emaitza gisa eman izan diren esperimenduak. Behin bide hori irekita, orokortu egin da hurrengo belaunaldietan, eta hor, pixka bat gaiztoa izanda, denetarikoa motibazioak egon direla esango nuke, probatu nahia, plazer hutsa edota baita norbere publikoa osatu beharra ere. Dena iruditzen zait zilegi.

Zure kasuan zein izan da alor honetan egin duzun bidea?

Guk lehenengo Tapiarekin egin genuen zerbaitekin, eta Mikel Markezekin ere bai. Bertso musikatuak. Bertso-eskolan ere egin genituen esperimendu batzuk baina modu informal batean.

Niretzat egin dudak gauzarik potenteena 'Orniturrinkus' izan da. Benetako ahalegin apurtzaile bat izan da niretzat. Prozesuan asko sufritu nuen eta baita asko gozatu ere, kristoren zabaltze mentala eta ikasketa izan zen. Hortik etorri ziren irratiko performance moduko 'Txori mugariak' eta 'Egiak egiak'. Soinuaren artearen alorrean ibili naiz jolasean. Orain dela gutxi 'Niño de Elche'ekin ere egin nuen beste esperimendu bat.

Ni beti bertsoari lotuta sentitu naiz, hor sentitzen naiz etxean. Baina zenbaitetan zurruntasun formal horretatik eta egiteko modu horretatik ateratzeko gogo bat ere sortzen zaizu barrenean. 'Ornitorrincus' kabitu ezin horretatik sortzen da, bestelako dentsitate batekin aritzeko beharretik, bestelako gai batzuk landu nahi izatetik. Oso ederra izan da.

Hor ikusitakoek balio izan dizute gero bertso gintzarako? Lan egiteko moduak, formatu aldaketaren bat...

Probatutako hartatik doinu berri bat edo ariketa berri bat ekartzearena ez da eman. Horrelako ondorio zuzenik ez du izan. Baina bertsogintza ulertzeko moduan bai nabaritu dut bilakaera bat. Sortzaile bezala garapen bat dakar bide berriak probatzeak eta horrek gero, bertsogintzara jarritakoan beste puntu batetik aritzea daka

Arte Ederrak ikasi izanak ere lagunduko zizun parametro berri horietara jartzen.

Ez dakit zenbat eragin didan horrek. Agian bai. Baina ez naiz gai esateko. Lan egiteko moduan agian bai. Ideia baten bueltan modu patxarosoan idazteko ohitura hortik etorriko zen ziurrenik.

Hedabideratzearen eragina eta arriskuak

Juan Mari Lekuonak dio mikrofonoa agertu izana aldaketa garrantzitsua izan zela bertsogintzaren bilakaeran. Bestalde, Joxerra, Sarasua eta Egañak telebistak bertsolariaren intentsitatea potentziatu dutela diote, edo kamerek eskaintzen duten hurbileko bisioak, mikro-mimika, aurpegiko keinuak zaintzera eraman beharko lukeela bertsolaria.

Medioaren ezaugarri teknikoek edo arauak izan dezaketen eraginaren gogoeta ildo honek zer iradokitzen dizu zuri?

Gaur egun telebista kameraren presentziak ez du nahasmendu handirik suposatzen, ohitu egin gara. Izatekotan, estandarizazio joera bat indartu lezake. Alegia, demagun Ereñozun dela saioa, kamerarik gabe errazago egingo duzu gipuzkera itxian, edo errazago arituko zara oso lokala den gai bati buruz. Horrelakoetan saiatzen naiz nire buruari gogorarazten bertara etorri direnentzat egin behar dudala, kamerak ahaztu behar nituzkeela.

Gero tempoan ere eman dira aldaketak. Ariketa bakoitzean hiruna bertso eskaintzen ditugu normalean, badirudi ez dugula pazientziarik saioa kolpeetan oinarritu beharrean bertso-afariaren logikan pixkanaka eraikitzeke ariketei hamarna bertso eskainiz. Baina, esango nuke txapelketak jarritako ereduak ekarri duela hori hedabideek baino gehiago.

Dena den, esandakoa, gaur egun dezente lausotu dira 1990eko hamarraldian ‘Hitzetik Hortzera’ren arrakasta izugarri hark eragin zituen kezkek. Gaur egun edozeinek grabatu dezake mugikorarekin eta sarean jarri. Gaur egun dena da telebistagarri. Naturalizatu egin dira kontu hauek guztiak.

Medioen estereotipoziorako joerak zaletuen espektatibatan duen eragina da dezente aipatzen den beste kontu bat. Honela azaltzen du Egañak: “Oso urte gutxian bertsolarisail bat definitu egin da, estereotipatu, lan hori hiru erpinetatik abiatu delarik: bertsolaria bere buruaz egin eta saldu duen imajina, komunikabideek bertsolariaz saldu duten erretratoa eta publikoak bertsolariaz egin duen ustea (...) Eta hori da egungo bertsolaritzaren ezaugarri nagusienetarikoa: entzulea, halako bertsolari nolakoa den jakinik, halako gaiari edo halako unean nola erantzun duen jakin-minez joaten da”.

Esango nuke gure irudia eta estereotipoak nagusiko saioen bidez, plazaz-plaza eraikitzen direla. Sustrairen zurtasunaren topikoarekin horrela gertatu izan da: gogoratzen naiz lehen aldiz noiz atera zen eta gero zenbatetan abestu diogun kontu horri. Guk asko egiten dugu lan estereotipo horiekin.

Izan liteke hedabideek estereotipo horiek azpimarratzen laguntzea, baina esango nuke hori ere eragin indartsuagoa izango zela ‘Hitzetik Hortzera’ren arrakasta handieneko urteetan. Gero, azken urteotan badago hor elementu berri bat eta da bakoitzaren estereotipoaren kraziaioa bakoitzaren sare sozialen bidez. Bertsolari dezente dabil twitter, facebook eta gisakoetan. Beti dago estereotipoen edo zure irudien eraikitze bat eta iruditzen zait bitarteko hauek badutela eragin bat plano horretan.

Badirudi, esaten duzunaren arabera, eta topatu ahal izan dudaren arabera, hedabideen inguruko azterketa 1990eko hamarkadan agortu zela.

Garai hartan kezka handia zegoen, baita ere *boom* garaia zelako. Igande arratsaldetan 15:00etan kalera ateratzen zinen eta eta leiho guztietatik ‘Hitzetik Hartzera’ entzuten zen. Jendeak bazkaritarako ordua aldatu egiten zuen saioa familian ikusteko. Bolada bat izan zen ‘Hitzetik Hartzera’ pasada bat zena, pasada bat gure txikian. Toki guztitan zegoen, eta saioa fenomeno bat izan zen bere garaian.

Orain ez da hori egoera. Gutxiago hitz egiten dela? Ziurrenik bai kanpora begira. Gauzak asentatu egin dira. ‘Hitzetik Hartzera’k ez dauka dimentsio hori eta finkatuta dago, bertsoa.eus a la carta kontsumitzen den zerbait da eta ez da hil ala biziko eztabaiden iturburu...

Egun eztabaida gehiago da zer egiten dugun gazte jendearengana hurbiltzeko, bertsoa.com-ek zein rol jokatzen duen, irratian nolako programa egin behar dugun, prentsa idatzian zerbait berria nola egin eta abar. Ez da askotik argitaratuko baina lantzen da gaia. Hori bai, garai hartan telebista uztera eraman gintuenaren mailako eztabaidarik ez dago.

Gaiari buruzko testuetan gehien errepikatzen direnak arrakastaren arriskua (moda iragankor bihurtzekoa), saturazio arriskua (hedabideetan hainbeste aterata jendea aspertzekoa), desitxuratzekoa (‘jokaldirik onenak’ bakarrik gustatzen zaizkion zaletua sortzea), fokua nagusiki elitean jartzea (merkatua monopolizatuz) eta eskaintzak beharko lukeen elementu hezitzailearen gabezia lirateke.

Sustapenean pentsatzen dut baietz landuko direla horiek oraindik. Sobredosi arriskua, momentu honetan ez dut uste ematen denik. Igual txapelketa efektuarekin egon liteke halako kezka bat baina ‘Hitzetik Hartzera’, ‘bertsoa.com’ ‘Hitza Jolas’ eta abar ez dira kuestionatzen. Lehen ETBk botatzen zuen noiznahi, edozein ordutan, mila aldiz errepikatzen zuen. Gaur egun, ez da hori ematen.

Elitea bakarrik agertzen dela batzuek baietz esango dute, baina nik uste dut, oro har, zaintzen dela ikuspegi integral bat ematearena, ‘Hitzetik Hartzera’k zaintzen duela lurraldetasuna, saio diferenteak eta jende diferentea grabatzearena. Gero beti batzuk gehiago azalduko gara. Kezka hori beti izan behar da kontutan, baina ez dut uste une honetan oso larria denik.

Moda iragankorarenean baino beste fase batean gaude. *Boom*-a pasatu da, demostratu da ez dela moda bat izan, eta bertsolaritzak oinarritzako egitura zabal bati eta proiektu pilo bati eusten die. Aurrera begira kezka da lorturikoa mantentzen asmatzea, euskararen egoerarekin harremanetan eta pixka bat maila estrategikoko batean. Proiektua ez da ikusten arriskuan baina Euskal Herriko panorama, hizkuntzari dagokionez eta kultura mailan, dagoena da, eta aurrera begirakoa guzti hori kontutan hartuz egin nahi da, zabaltasun batekin eta epe luzera.

Eskaintzaren analisia

Zertan hobetuko zenuke hedabideetatik bertsolaritzari buruz egiten den eskaintza?

Nik prentsa idatzian ikusten ditut gabezia handienak. Txapelketaren inguruan egiten da ahalegin handiena eta txapelketako bertso kronikak, esaterako, munduko gauzarik aspergarriena iruditzen zaizkit. Kantatu diren bertsoen transkripzioa egiten da, iritzirik ez duen kontaketa neutro batekin: hau jarri zuen eta hau erantzun zuen, bakarkako gaia hau izan zen eta azken bertsoa oso txalotua izan zen, puntuazioa horrela izan zen. Niri behintzat ez zait batere interesatzen. Iruditzen zait ez duela ekarpenik egiten, eta bere testuingurutik ateratzen duela bertsoa, telebistak baino are gehiago.

Badakit ez dela erraza beste zerbait egitea baina esango nuke prentsa idatzian bertsolaritza nola tratatu ez dela/dugula/duzuela asmatu.

Aspalditik aipatu izan da bertso kritikaren gabezia.

Txapelketan Karlosek [Aizpurua] eta Josu Goikok idatzi izan dute, eta hori askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait. *Argian* ere oso gauza polita egin zuen Kepa Matxainek, pertsonaia bat asmatuz eta gauza ironiko batzuk argitaratuz. Edota garai batean txapelketaz kanpoko bertso-saioen kronikak ere bultzatu nahi izan ziren eta esperimendu polita izan zen...

Gero egia da kritikak jasotzen ere jakin egin behar duzula. Eta bat-batekoa idatziz kritikatzek erraza dirudiela, baina oso zaila dela. Alegia, bertso-kritikak ezin du literatur kritikako ohiko testu azterketa izan. Beste alderdi batzuei ere jarri behar litzaieke fokua, ikuspuntu hautuari eta abar... Inprobisatzen ari naiz orain ere, baina uste dut badagoela zer asmatua hor, prentsa idatzian ez dugula asmatzen.

Lau hedabideren eskaintza pixka bat xeheago aztertzeotan nabil. Zuen iritziak jaso nahi nituzke, zer egiten duten ondo eta zertan hobetu dezaket.

Bota.

***Bertsolari* aldizkaria.**

Bertsolarikoa zaila egiten zait. *Bertsolarik* dauka bere garaian prentsa horira gerturatzen zela zioen irudipena zabaldu zela gure artean. Metabertsolaritza egitea tokatu zaio aldizkariari, gu gure buruaz hitz egiten, eta ni pixka bat saturatu egin ninduen kontu horrek. Ni neroni atera izan naiz udaran egin dudana bidaia kontatzen... Eta horren aurrean sortu izan zaidan gogoeta da ni ez naizela pertsonaia bat, ez naizela, nolabait esanda, famatu bat, eta ez dudala kontatu nahi nora bidaiatzen dudana uda honetan.

Hura egin nuen eta oso ondo. Gainera argazkiak oso politak ziren, eta propio sortu nuen testu bat, eguneroko bat, argitaratu zen... Gaur ez nuke egingo, baina egia esan pieza polit bat zen.

Egia esan gure artean jarri genion fama hori ez da oso justua izan. Denboraren joanean aldizkariak erreportaje pila bat argitaratu ditu kontsultarako oso baliagarriak eta erreferentzialak suertatu zaizkidanak. Esango nuke *Bertsolarik* askotan asmatu izan duela mamia daukaten gauzak ateratzen ere. Azkenekoa irakurri dudana, 'Europa bat-batean' jardunaldiei buruzkoa, oso potentea da. Eta Kanarietara joan gineneko erreportaje bat ere badut gogoan, gerora askotan kontsultatu dudana... Elkarrizketa onak ere atera izan dira, guretzat hain ezaguna ez zen jendea eta ekarpenak egiten zituena ezagutaraziaz.

Estetikoki izugarri gustatzen zait, eta gero Conny [Conny Beireuther, aldizkari argazkilaria] izugarri ona da, pasada bat. Alde horretatik ez dauka inolako aitzakiarik.

Oso ale politak egon izan dira bai estetikoki eta bai edukiz. Baina arintasunera jo duten lan batzuek markatu dute bere irudia, jolas irudi horrekin gelditu izan da. Ez dakit sakonera egin behar duen edo arinera, ez dakit buelta bat behar duen ere, baina esango nuke zabaldu den irudipen horrek, neurri handi batean egiazkoa ez dena, ez diola onik egin.

'Hitza Jolas'

Irratia oso bateragarria zaio bertsoari. Nik uste dut Sukiak orain egiten duena nahiko txukuna dela. Azkenean saio horiek oso bertsoaren menpe daude. Saio ona baldin badaukazu programa ona egingo duzu, eta saio txarra baldin badaukazu onaren izenean saldu beharko duzu txarra.

Baina esandakoa. Iruditzen zait programa on bat dela eta ongi funtzionatzen duela.

‘Hitzetik Hortzera’ eta bertsoa.eus-en inguruan jada esan dituzu gauza batzuk.

‘Hitzetik Hortzera’ ere grabaturiko bertsoen kalitate mailaren menpe dago. Batzuetan igartzen zaie jada zer asmatu ere ez dakitela: gidoi eta gonbidatu zelebretatik eta abar, nondik buelta eman. Medio zaila da telebista, are zailagoa da denen gustua egitea, eta etengabe berritzailea izatea ezinezkoa da, baina beti programa txukun bat eskaini izan dela iruditzen zait.

Sustapenean ibili ginenean zerbait dinamikoagoa egin eta telebistaren parametroetan gehiago sartzea izan zen apustua. Bertsoaren tempoak ezin zen galdu, ordea, eta anfibio moduko bat izan zen azkenean.

Bertsoa.com

Oso erreferentziala da, gure inguruan behintzat jendeak asko segitzen du. Bertsoa gozatu dezakezu, kopuru handian, sailkatua baina kasik diskriminatu gabe jasoa. Tarteka elkarrizketak egiten hasi ziren eta nik uste hori ere badela ekarpen bat.

Ziurrenik beste mila gauza egiteko aukera egongo da, baina soiltasunaren aldeko apustu bat egin da niri gustatzen zaidana. Ez du jotzen gauza gustagarrietara, gusta errazetara, fororik ez dauka... Txukuna ikusten dut. Gainera duela gutxi berriro dute erabat. Bazuen premia ere.

Belaunaldi gazteenarekin konektatzen jakin du behintzat.

Baleko apustua

Bertsolaritzak asmatu du presentzia garrantzitsu bat izaten mediotan. Zure ustez zein izan dira klabeak?

Asmatu baldin bada ez da izan medioak eman dionarengatik bertsoari baizik bertsoak eman dionarengatik medioari. Ez da izan kristoren telebista programa egin dugulako edo *Bertsolarik* egindako ekarpenengatik edo berriro kristoren saila egin izan delako. Izan da mugimenduak berak indarra izan duelako. Mugimenduak indarra izan du eta mediotan islatu da indar hori.

Mugimenduaren indarra eta bertsoaren indarra. Alegia, jendeak bertsolaritza segitzen zuen, pixka bat modan jarri zen, zaleak ez zirenak ere ikusten zuten telebistan baina ez kristoren programa zelako baizik bertsoengatik.

Gaur egun medioak ikusten ditut beste euskarri bat bezala gure mugimendu honetan. Oso inportantea. Baina inportanteena mugimendua bera eta bertsoa dira.

Elkartearen partetik apostu bat egon da, garrantzia eman zaio hedabideetan agertzeari. Horrek garrantzia izango zuen lortu den presentzian.

Bai. Dosifikatzeko kezka horrek edo zaintze horrek arrakasta izan du. Ez dakit bestela nola izango zen baino ez fribolizatzea eta jendea nazkatu arte ez ematea oso egokia izan zen bere garaian. Garapen jasangarri horri esker egun ez gaude arrakasta momentu horretan medioetan, baina mugimendua indartsu dago. Hiru hamarkada dira bertsolaritza telebistan eta irradian indartsu dabilela, Interneten ere bere medio propioa dauka Elkarteak. Inork ez du zalantzan jartzen guzti hau. Bertsolaritzaren hedabideratze hori asentatuta bezala ikusten dut.

V.XIII JON SARASUA. ARETXABALETA, 2017/X/06

Bertsolaria, eragilea eta aditua. Eragile garrantzitsua Elkartearen sorreran eta hurrengo urteetan, urte luzez bertako komunikazioaren ardurak izandakoa. Kazetaritzan doktore, euskarazko kazetaritzari buruzko lanarekin eta MUn komunikazio alorrean irakasle hainbat urtez. Bertsolaritzari buruz, eta honek hedabideekin daukan harremanaz, gogoeta mamitsuak argitaraturikoa.

Bertsolaritzaren metamorfosia

Mende eskasean herri-kultura aurremodernoen praktika bat izatetik modernitatean sartu, kultura mediatuari egokitu eta masa kulturaren sartu irtenak egitera pasa da bertsolaritza. Egindako bidaia hori harrigarria izan da, ezta?

Bueno, nik uste dut gustura egindako bidea izan dela, baina aldi berean beste bide-erreak zabalago baten parte izan dela, ezta? Ez dut uste bertso mugimenduko jendea protagonista izan garenek edo izan direnek zerotik asmatutako historia bat izan denik, euskararen biziberritzearen aro modernoa deituko niokeen honetan egon den aldarte eta joera nagusia baizik. Azken finean, gerra bat galdu ondoren, frankismoaren azken hamarkadetan pizten da halako prozesu bat, hasieran oso intuitiboa eta bere osotasunean urte asko pasa ondoren hauteman duguna baina euzkara argia izan duena. Gure gurasoen belaunaldiak esan zuen “mundu garaikidea dator”, ez hitz horiekin, baina “dator mundu bat telebistarekin eta abar gure gurasoen mundutik oso desberdina dena eta guk egiten dugun apustua da gure seme-alabak euskaraz eta euskaratik garatu ahal izan dezaten mundu hori aldi berean tradizioari eutsiz”. Uste dut amets hori ez dela izan bertsolaritzarena baizik eta XX. mende erditik aurrera erretzen den euskal mugimenduarena. Eta uste dut bertsolaritza amets horren patroian eraiki dugula baita ere. Amets horren emaitza enblematikoenetako bat izan da agian.

Nik bi kontzeptu aipatzen ditut, jarraidura eta irekidura, edozein kulturak eta batez ere kultura minorizatu batek, egiten duen ariketa ulertzeko. Batetik jarraidura, iraganetik datorkigun nortasun fluxuari eustea. Eta, bestetik, irekidura, garaiari eta garaiak ematen dizkizun aukera teknologikoei zabaltzea. Uste dut hori dela historiaren laburpena eta uste dut aztertzeke moduko kasua dela gurea.

Bertsolaritzaren bilakaeran eman izan diren eztabaida gehienak ez al dira tradizio eta modernitate ardatzaren inguruan bueltaka ibili? Adibidez, bertsolaria jaio ala egin famatu hura. Edo txapelketen inguruan aldiro piztu ohi direnak: ikuskizun bihurtuta herri kulturaren esentzia galtzeko arriskua, garai bateko bertsolaritzaren nostalgia...

Ez zait iruditzen izan denik eztabaida bat batzuk argi tradizioaren alde eta beste batzuk argi modernitatearen alde. Iruditzen zait transmititu izan den aldarte dela biak konbinatu behar direla. Beste gauza bat da nola konbinatu behar diren, hor bai egon daitezke planteamendu ezberdinak. Joera berriei egokitzearena uste dut denok asumitu dugun zerbait dela, kontua da nola, zein terminotan, zein abiaduran...

Nik orain ere alde batean jarriko nuke azentua, baina ez dut uste bi bide horietako bat denik ona eta bestea gaingitu beharrekoa.

Jaio ala egin korapiloa askatu ondoren etorri den bilakaerarako klabea izan zenaren irudipena daukat: Bertsolaria egin egin badaiteke nekazal girokoa bezain kaletarra izan daiteke, gizonezko bezain emakumezko, tradizional bezain berritzaile... Edozein artista bezala trebatzeko eta garatzeko aukera ere irekitzen da... Nola ikusten duzu zuk?

Bai, baina iruditzen zait gure belaunaldiak ez genituela ile asko galdu edo zauri asko izan borroka horretan, gainditzat bezala genuelako, nahiz eta eztabaida horren hazien hondarrak harrapatu gintuen.

Txapelketak, bestalde, bertsoa ikuskizun modernoaren parametroetara ekartzeko estrategia gisa erabili direlakoan nago. Hedabideetan ongi funtzionatzen dute, masa fenomeno bihur daitezke... Modernitateko bertsogintza, gaijartzailearekin, propio prestaturiko aretoan eginikoa, txapelketek jarritako eredia jarraituz garatu da neurri handi batean... Zer deritzozu?

Nik uste dut baietz. Ikuskizun modernoaren tankera txapelketei esker hartu du. Jaialdien eredia ere txapelketen ereduaren garapen bat da.

Ez dakit aurrerago edo aterako den galdera hori. Ikusten dena hori da, segun zein paradigmatan kokatzen garen desberdin ikusten gara eta, Lizardik esan zuen moduan, ni hemen kokatzen naiz: “Nire hizkuntza larreakoa, nahi haunat ere noranaikoa”. Hori gerra aurretik esanda dago Lizardiren aldetik eta izan da gure mugimendu moderno horien matriza. Eta zentzu horretan kokatu ditugu, larreakoa den noranahikoa bihurtzeko, berritzeko, txapelketa eta guzti horiek.

Perfekto, guztiz beharrezkoa eta ados. Baina nire ustez hori ez da angelu bakarra, badago beste angelu bat: bai, baina aldi berean, batetik bertsolaritzak baditu elementu batzuk mundu moderno honen, espektakuluaren gizartearen, masa kulturaren eta guzti horietan ez direnak oso tipikoak eta kontrapuntuan datozenak piska bat. Gogorarazten digutelako, bazen gizarte modu bat eta baziren baita gauza interesgarriak gizarte modu horretan. Ondorioz olatu modernizatzaile honi begiratzen zaio, kritikoki, edo ironikoki edo erresistentzia piska batekin. Beraz, guk modernizazioaren apustua egingo dugu, baina interesatzen zaigu baita horren kritika edo nolabaiteko desafekzio puntu bat. Interesanteena angeluetatik begiratzea: txapelketa bai baina gehiegi behartu gabe.

Honakoa diozu ‘Hiztunpolis’-en: “Mundu aurre-moderno, moderno eta posmoderno aro bakarrean nahasi zaizkien belaunaldiak izatea tokatu zaigu Euskal Herrian. Horrek azaltzen ditu gure miseria batzuk. Gure aukera zapoetsu batzuk ere azal ditzake”. Zirriborra zenitzake miseria horietako batzuk?

Gure aitona-amonarik zaharretan ikusi dugu Barandiaranek zioena, neolitikoaren azken belaunaldia. Badago gauzak egiteko modu bat gizaldi pilo batean iraun duena eta horren hondarra izan dira gure aitona-amonak, baita nik ezagutu ditudan bertsolariak batzuk ere: denboraren patxada ulertzea, hitzak zuen presentzia... Beraz modernitatea oso berandu deskubritu duen gizarte bat gara. 1960ko hamarkadatik aurrera etorri ziren tsunami bat bezala, ideologia eta egia berriak.

Europar patxada gehixeagorekin nahastu ziren tradizioak eta ideia modernoak, baina hemen berandu ibili garelako, bereziki berrizaleak izan gara gero. Beti aipatzen dut Frantziako bizikleten kontua. Frantzian bizikleta zahar mordo bat topa daiteke eta eta hemen bizikleta guztiak bost urtetik beherakoak dira, tabernetan baldosa zaharrik ere ez duzu ikusten... Berriarekiko lilura ikaragarria izan da. Aberats berrien zera horren moduko zerbait... Oier Araolaza eibartarrak idatzi du AEBetan egiten den folklore jaialdirik garrantzitsuena euskal folkloreari eskaini ziotela, eta euskal ikerlariak aurkeztu zituzten ponentzia guztietan ‘berrikuntza’ hitz-gakoa zela, geure kultura zaharra izan arren berrikuntzaren puntan gaudela frogatu beharra izango bagenu bezala. Hori izan liteke gure miseriaren parte bat. Bertso-munduan ere batzuetan ikusi izan dudana.

Aukera ere hor daukagu: gure aitona-amonen eskutik lehen pertsonan jaso ahal izan ditugu mundu aurremodernoarekin batera galdutzat eman izan diren zenbait elementu oso interesgarri. Aurremodernitateak zer erreskatatu daitekeen kontzientzia izatea, modernitateak eskaintzen dituen ideia eta bitarteko berriak eskura izatea eta postmodernitatearen balore ironikoak ere gertuko izateak perspektiba zabalago bat ematen ditu.

Nekazaritza ere berdina gertatu da. Aurremodernoa, industrialaren eta orain garatzen ari den nekazaritza ekologikoa nekazaritza oso segidan etorri zaizkigu. Honela, industrialaren ajeak konpontzera datorren ekologiko horrek aitona-amonen ezagutza aurremodernotik ikas dezake. Ez teknikari dagokionean bakarrik, baita bizitza ulertzeko moduan ere. Hor badago aukera bat.

Bertsolaritzak egindako bidea euskal kulturaren bilakaeraren testuinguruan egin behar izan du. Logika horri jarraituz, bertsolaritzak emandako aurrerapausuek euskal kulturaren bilakaeraren bertuteekin izan beharko lukete zerikusirik.

60 hamarkadan loratzen da ikastolen mugimendua. 80koan bertso-eskolena. Jaio ala egin eztabaida gainditu zuten bertso-eskolek zenbat zor diote ikastolen mugimenduari? Bertso-eskolen sortzaile izan zirenen kultura ulertzeko moduan, jarreretan...

Almen ikastola izan zen hemengo bertso-eskola sortzen lehenengoetako bat. Ez ziren oso intelektual jantziak, fabrikako langileak ziren, baina ikusi zuten ikastolak sortu zirela eta horiek zirela herriaren etorkizuna. Bertsozaleak izanik ildo beretik eman nahi izan zuten hurrengo pausua: “Ikastolarekin egin dena guk egin behar dugu bertsoarekin eta gainera ikastolaren olatua aprobetxatuz”.

60ko hamarkadan euskal kulturaren aldeko ahaleginak gizarte mugimenduen ezaugarriak hartzen ditu. 80ko hamarkadan gizarte mugimendu gisa antolatzen da bertsolaritza. Elkartearen inguruko mugimenduak, bertsolaritzaren modernizazioa azken burura eraman ahal izan zuenak, zenbat zor dio bi hamarkada lehenago martxan jarritako mugimendu zabalagoari? Elkartekideen kulturagintza ulertzeko moduan, jarreretan...

Koldo Tapia funtsezkoa izan zen Elkartek bere sorreran hartu zuen norabidea hartzerakoan eta Koldo 60ko hamarraldiko kultura politiko horretatik dator. Herri Gaztedin parte hartu zuen, euskal elizaren bueltan eman zen urte haietako kulturagintza berrian, eta Barakaldon hasi zen lanean gero, bertako langile mugimenduak parte hartuz. Esperientzia horietatik zetorkion gero Elkartean txertatu zuen ikuspegia.

Ni neu ere oso gaztea nintzen Elkartearen sorreran, baina bai hartu nuen parte, eta esperientzian oinarrituta baino intuizioz aritu nintzen nire planteamenduetan. Bailara honetako semea naiz eta bertan hainbesteko indarra duen autogestioaren marka barruan daramat. Bertso-mugimendura aplikatu behar zela esan zenean niri oso naturala suertatu zitzaidan.

Beraz, bagara aurreko mugimenduen zordun baina bertsolaritzarekin askotan gertatzen den bezala, bagaje horrekin egiten den proposamena da berezi samarra suertatu da. Oso erradikal ezarri dugu modu autoeratuan antolatu beharra eta kulturako alor konkretu batekin hori egitea ez da hain ohikoa.

Ez balitz guzti hau modu irmo batean planteatu Euskaltzaindiarekin hautsi eta enpresa moduko batera generamatzen inertiak, txapelketak antolatzen mugatuko zen egitura bat sortzera. Eta hori horrela eginda Eusko Jaurlaritzak eta ETBk gidatuko zuten azkenean bertsolaritzaren eraberritzea. “Nola antolatuko dugu bertsolaritza oso gurea dena eta piska bat lagundu behar duguna” esango zuen Jaurlaritzak, eta, “nola lor ditzakegu audientziak bertsolaritzarekin?”

ETBk. Diferentzia da ez dela utzi bertsolaritza indar publikoen, ez indar mediatikoen, eta ez merkatuko indarren eskuetan, baizik eta gizarte mugimendu bat antolatu dela kultur proiektu bat duen elkarte batean egituratua.

Hedabidetzearen garrantzia eta arriskuak

Honela dio Josu Amezagak bere tesian: “Eskolaren bidez edota komunikabide eta ikuskizun masiboen bidez lorturiko hedapenak, bertsolaritza euskal kultura herritar eta garaikidetzat ikustea ahalbidetzen digu” (1994: 22). Baita Ana Gandarak ere: “Denbora berrietara egokitze horretan, medien munduan sartzen jakin izanak sostengu garaikidea eman zion bat-bateko arituari; iraganeko elementu ukiezina baino gehiago, adierazpide kultural garaikide bihurtuz joan zen” (2015: 184). Ados zaude hedabideratzeari ematen zaion garrantzia honekin?

Egia esan, gu garai hartan ez ginen pertsona oso jantziak erreferentzia aldetik, gazteak ginen, baina intuizioak genituen eta intuizioek esaten ziguten, kultura mediatu batera gindoazela. Ikusten zen hedabideen pisua handia zela gizartean eta handiagoa izateko bidean gindoazela. Azken helburua, noski, ez zen hedabideratzea. Ideia zen hedabideen espazioa bertsolaritza sustatzeko erabiltzea, baina bertsolaritzaren balore funtsezkoenei inoiz uko egin gabe.

Alegia, oraingo gaztea bertsoari lotzen zaio komunitate sentimendu bategatik. Igurtzi pertsonala dago hor, aurrez aurrekoa, eta hedabideak edo Internet gero horren osagarriak dira. Beraz, hedabideen bidez jaso eta emititua osagarri bat da, ez aurrez aurrekoaren ordezkotzat.

Gaztetxean elkartzen dira, jende batekin harremanak dituzte, bertsoaren aitzakian. Igurtzi pertsonal fisiko guzti hori gabe bertsoa.eus-ek ez dauka soporterik. Eta inkluso gertatu daiteke ondo pasatzen ari direla egun jakin batean kamerarik nahi ez izatea. Oraindik dialektika hori badago. Beraz, hedabideetako esfera garrantzitsua da, baina komunitate erreala bati bere transmisiorako eta sustapenerako garrantzitsua den oihartzun bat emateko, komunitate erreala horren zerbitzura.

1980 hamarraldi bukaeran eta 1990 hasieran argi genuen medioen bultzada ez bagenuen, telebistan ez bazegoen, gizartean ez zela existitzen. Planteamendua oso amateurra zen, telebistaren atea jo eta: “begira, guk gehiago nahi dugu; zer iruditzen zaizue, prestatuko dugu elkarrekin programa bat?”.

Mugimendu euskaltzale zabalago baten barruan ulertzen genuen gainera hori guztia, arriskuan zegoen hizkuntza bat eta kultura bat biziberritzeko ametsaren baitan, eta oportazio partzial bat egin nahi izan zen bertsolaritzarekin: “ Bertsolaritza zenbat eta indartsuago izan bi gauza lortzen ditugu, bertsoa maite dugunok gehiago izatea, baina baita ere hizkuntza eta kulturaren biziberritzean oportazio partzial baina interesgarri bat egitea.

Zein zen garai hartan bertsolaritzari eskaintzen zitzaion arretaz zenuten pertzepzioa?

Irratiak bazuen zer bait, Joxerra Gartzia eta Laxaro, eta ikusten zen horrek garrantzia zuela. Prentsan bazegoen jarraipen bat... Ez zen egin halako analisi sendo bat, telebistak ez digu kasurik egiten eta abar, baizik eta gu hizkuntza amets batean kokatu ginen eta telebistari heldu behar diogu erabaki.

1980ko hamarkadako ametsa zen guk ikusi nahi genuela handik 30 urtera bertsoa eta bertso-eskolak hedatzen, herri-eskualde gehienetan bertsolari eta bertso gai jartzaile gehiago sortzen, ikusi nahi genuen bertsolaritza hedabideetan leku nabarmen bat izaten, ikusi nahi genuen bertsolaritza masa kulturaren bere tokia egiten. Bertsolaritza jakintza bideetan ere ikusi nahi

genuen, unibertsitatean ikerketa gai. Hori zen ametsa. Eta gutxi gorabehera hori da 30 urte beranduago ikusten ari garena.

Hedabideratzeko apustua egin zenuten, telebistan sartu zineten ‘Hitzetik Hortzera’rekin eta 90eko hamarkadaren hasierako booma etorri zen. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Gu saiatu ginen bereziki jende gehiagorekin konektatzen eta jende horri esanguratsua zitzaizkion gauzak egiten. Eta erantzuna ikusgarria izan zen.

Nik uste dut osagaiak arreta edo zaletasun handia sortzeko baldintza mediatikoak eta aski dibertsitate sortu zuen belaunaldi bat izan zirela.

Gero egia da pixka bat gaintu egin gintuela erantzun horrek. Eta gaurdaino iristen dira orduko haren olatu urrun batzuk. Adibidez, nik garai hartan modu defentsiboan bizi nuen ospearena, sentitzen nuen jende batentzat ‘la ostia’ ginela eta ariketa pertsonal bat egiten nuen nire buruari azpimarratzeko, hori ez zela erreala, zerbait zirkunstantziala zela. Baina oraindik, eta hamazazpi urte daramatzat foko hartatik aldendua, jendeak gelditu egin izan nau kalean esateko zu niretzat edo nire amarentzat eta aitonarentzat ‘la ostia’ zinen. Ez naiz gai erabat ulertzeko garai hartan gertatu zena, ez dauzkat klabe guztiak.

Oso kontziente zineten guzti hark zituen arriskuez ere. Aipatu izan duzu telebista energia nuklearra zela. Eta telebistarekin etena ere egin zenuten, beharbada *boom* guzti hura kontrolpean jartzeko.

Boom handi bat sortzen da eta gainera gu boom handi horren protagonista gara. Boomaren aparrean “zein famatuak garen” pentsatu eta horri eusten tematu beharrean mesfidantza bat sortzen da fenomenoak hartu zuen abiadura horrekiko. Andoni, Koldo, Jexux Murua, ni neu, askotan ari ginen gure artean “ez ote du erre behar bertsolaritzak”, “ez ote da agortuko produktua”, “ez ote du erakutsiko bertsolaritza bat, elitekoa, benetako osotasuna desagertaraziaz”. Honela, lehen apustuari buelta bat ematen diogu eta planteamendu dialektiko inportante bat egiten da: “bai, baina”. Gu kokatzen gara masa eta espektakulu kultura horren barruan, baina esaten dugu: “Garena ez da hori edo ez da hori bakarrik, eta parte bat osotasuna jaten hasten bada kontrolatu egingo dugu”.

ETBri planteatzen zaio kezka hori badugula, bertsolaritza beste erritmo batean garatu nahi dugula, bertsolaritzaren ekologiaren beste landaretxo batzuk ere kontuan hartuta... Nahiago dugu audientzia gutxiago eduki baina zale horiek sendagoak izatea eta horien hezkuntzan inbertitu, kritikan inbertitu, ulertu dezatela bertsolaritza barrutik. Egin dezagun programa luzeago bat, kritikoago bat, jende gehiago erakutsiko duena, bapateko zalego handia sortzea alferrik zaigu gero berehala desagertuko bada. ETBren erantzuna zen programa eurena zela. Eta guk esan genuen ezetz, *pinchamos el balón*.

Ez zen erabaki erraza izango.

Elkartearen gogoeta sofistikuena izan zen eta momentu oso delikatua, ze bi urte izan ginen hori gabe, barruan tentsioekin. Langabeziara bota behar izan genituen langileak, zerga antzeko bat jarri behar izan genuen Elkartea aurrera ateratzeko. Elkartearentzat desastre ekonomiko bat izan zen, baina nahiago izan genuen hori, aurrera egin baino.

Agian gaur egun telebista asko dispertsatu da eta ez du aktualitatea debate horrek, baina uste dut Elkartearen historiako pasarte emozionante eta sakonenetako bat izan zela.

Egia da azken urteetan eztabaida hori ez dela publikoki behintzat ematen. Bertsolaritza eta hedabideen arteko harreman orekatu bat lortu delako izan daiteke?

Neurri batean telebistak utzi dio energia nuklearra izateari, ez duelako audientzia kuantitatiboki hain garrantzitsua. Ez bakarrik ‘Hitzetik Hortzera’, telebistaren audientzia oro har jaitsi egin da, beste aukera askorekin lehiatu beharra tokatu zaio eta diluitu egin da zeukan pisu hori.

Bestetik Elkartek programaren kontrola eskuratu du. Kontrola izanda ez du zentzurik kontrolaren inguruko eztabaidak.

Aipatzen ziren arrisku haietatik ba al dago oraindik kezkatzen zaituenik?

Momentu hartan egindako gogoetaren izpirituak nik uste oraindik balio duela. Ez zaiola arrakasta kuantitatiboari bakarrik erreparatu behar. Nik uste dut gogoetaren matriza interesgarria dela baina ikusten dut baita orain ez dela hori kezka nagusi bat eta ulertzen dut. Gero ez dakit garai hartako koiuntura berriro biziko bagenu gaur egun berriro gogoeta hori egingo ote litzatekeen. Esango nuke aldaketa txiki bat izan dela hor nire belaunalditik hurrengora, mentalitate mediatikoago bat edo nartzisistago bat dela oraingoa.

Agurretan fíjatu eta pixka bat Bauman ikusten dut nik. Baumanek esaten du arlo pribatua arlo publikoa inbaditzen hasi dela. Lehen esparru publikoetan gai publikoak jorratzen zirela eta pribatuan pribatuak eta sozialismoak publikoak pribatua inbaditzeko arriskua bazekarren orain alderantziz gertatzen dala. Agur batean ama agurtzeko aprobetxatzen da orain, baina, jode, ama gero ikusiko duzu etxean eta han agurtu dezakezu... Gure belaunaldian agurrak gehiago ziren herria gora eta behera eta gaur gehiago da nire kuadrilla...

Gertatzen diren aldaketa soziologiko orokorrak bertsolaritzan ere ematen dira.

Eraginak eta eskaintza

Juan Mari Lekuonak dio mikrofonoaren agerpena aldaketa garrantzitsua izan zela bertsogintzaren bilakaeran. Egañak kamerek eskaintzen duten hurbileko bisioak, mikro-mimikaren zaintza ekarri duela gaineratzen du, edo hedabideen estereotipazioak zaletuen espektatibak zenbateraino baldintzatzen dituen azaldu... Medioaren ezaugarri teknikoek edo komunikatzeko arauak artearen bilakaeran izan dezaketen eraginaren gogoeta ildo hau zenbateraino iruditzen zaizu mamitsua?

Nik uste dut badagoela zerbait. Ez nioke beste munduko garrantzirik emango baina mikroaren eragina nabarmena da. Mikroarekin beste ñabardura bat ematen zaio kantuari, esan nahi duzunari... Keinuarena ni ez naiz oso kontziente izan baina iruditzen zait baietz. Aurpegia erabiltzen dut, modu naturalean bada ere, baina beharbada jendea urruti balego edo telebistarik ez balego beste modu batera izango zen.

Estereotipoena... Esango nuke hori ere izan daitekeela. Hala ere badu buelta bat. Izan ere nire burua gogoratzen dut nire estereotipo hori puskatu nahian ziklikoki. Estereotipoarekin eroso ez nengoelako, nire barrukoa ateratzeagatik.

Bai iruditzen zait hedabideratzeak berrikuntzarako joera indartu egiten duela eta azeleratu egiten duela bertsolaritzaren kalitate gorakada. Errimak, ideiak, teknikak berriro beharra dago, hedabideek azkarrago zabaldu eta errepikatzen dituztelako.

Tesian formatu bakoitzeko medio banaren kasu azterketak sartu nahi ditut: ‘Hitzetik Hortzera’ (telebista), ‘Hitza Jolas’ (irratia), *Bertsolari* (idatzia) eta Bertsoa.eus (Internet). Zertan asmatu izan dute medio hauek zure ustez? Zertan hobetu ahalko lukete?

Telebistan hainbat gauza probatu dira, ‘Hitzetik Hortzera’ n ez dira lo egon. Apustu interesgarriak egin dituzte eta belaunaldi gazteenari hurbiltzen saiatu dira. Bertso hautatuen

formula ez dakit askoz gehiago hobetu daitekeen. Galdetzekoa da ez ote lirakeen beste posibilitate batzuk esploratu behar: zuzenekoak, gai espezifiko baten inguruan bi bertsolarirekin hogeit minutuko saio bat publiko aurrean... Baina ez naiz gai proposamen pisuzkorik egiteko.

Irratian bai iruditzen zait gehixeago arriskatu daitekeela. Diala zabalagoa da, audientziak diluituagoak... Monografikoak egin daitezke, gai beraren inguruan Txirritak abesturikoa eta Andonik abesturikoa alderatu. Nik uste hor dagoen *corpus* guztiarekin gauza onak egin daitezkeela. Zuzeneko bertsogintza hemen ere oso gutxi egin da... Herri Irratiak 1980ko hamarraldi hasieran hiru bertsolari Andaluziara bidali zituen eta handik kronikak egiten zituzten bertsotan. Polita izan zen.

Sentsazioa daukat irratian gehiago esperimentatu eta esplotatu zitekeela. Baina igual eskaintza klasikoa da egin daitekeen gauzarik txukunenetako bat. Funtzionatu egiten du behintzat.

Bertsolari aldizkariari, berriz, kolekzio gisa ematen diot nik balioa. Etxean balda luze bat hartzen du eta kolekzioak berak duen balioa handia da. Gauza asko atera dira, bertsolaritzaren dimentsio gutxi faltako dira zuen aldizkari horretan.

Azkenik, prentsa idatzian edo kronika, edo kritika egin izan da. Kritika aparatua hobetu beharra bai ikusten dut baina baita zailtasun handiak ere. Ea nor ausartzen den. Epaille errazagoa da kasik, anonimoagoa delako.

Hain zuzen kritika fundamentuzko baten gabezia aipatu izan da hainbat urtetan. Nola ikusten duzu hori? Nolako behar du bertso kritika batek? Ze ezaugarri izan beharko lituzke bertso kritikariak?

Nik uste dut aparatu kritiko bat edozein arte edo sorkuntzak behar duela. Eta daukat inpresioa ez dugula inoiz fundamentuzko bat eduki. Beharbada talde txiki eta endogeno bat garelako, eta denak ustez helburu beraren alde egiten dugulako ba ez gera kritikatan sartzen.

Ikusten dut bertsozaleak asko estimatu eta eskertu lezakeen zerbaite izan daitekeela. Zirkulu txikian nabaritzen ditugun gauza batzuk zirkulu handiagoan, bertsozale arruntarenean oharkabean pasatzen direla konturatzen naiz. Maia ze ondo ibili den entzuten duzu, zerbaite esatearren, eta pentsatu, "ostias, ondo saldu bai, baina..."

Eskutik egindako bidea

Ze azalpen izan dezake gisako fenomenok euren herrialdeetan dutena baina askoz ere presentzia handiagoa izateak gurean?

Zergatik azpimarratu da hainbeste eta hainbeste garatu modu anormal samar batean gurean. Ba oso ondo erantzuten ez dakidan galdera bat da. Ba betikoa, idatzizkoa ahula izan delako gurean, pizkundean idatzikoaren alde egin zuten apustua ez zelako ongi atera... Euskaraz alfabetatu gabeak izan gara kasik gaurdaino, beraz funtzionatzeko zailtasunak zituen idatziak, eta funtzionatzen zuena hau zen. Aitzoli ere horixe gertatu zitzaion...

Nik uste dut kontua hortik doala. Esplikatzeko zailagoa dena da azken 40 urtean zergatik izan duen izan duen garapena.

Euskal kulturgintzak pizkunde ezberdinetan ikur gisa hartu izana izan daiteke bertsolaritzak egun daukan indarra azaltzeko beste faktoreetariko bat?

Izan daiteke hori ere. Kontua da ez dela hori bakarrik. Kalitate bat eman behar da, mugimendu bat sortu behar da... Nik uste ikur izateak lagundu digula baina funtsa beste gainerako guztia izan dela.

Matias Mujikaren libeloa etortzen zait burura. Hark esaten zuen ikur hutsa, liturgia soila zela bertsolaritza, azpian ez zegoela ezer, eta hori ez da egia. Zaletuari benetan mugitzen dio zerbait, benetan egiten du barre edo negar. Ikerketa polita litzateke, saioan kamarak ezkutatua publikoaren reakzioak grabatzen jarri eta ea ze muskulo mugitu diren, ze muskulo horiek barruan mugitzen denaren ispilu dira. Eta gero antzerkian, zinean, jazzaldian, musika hamabostaldiko kontzertuan... berdina egin. Eta goazen aztertzerara non dagoen simulakroa, non liturgia, non emozioa...

Zenbait euskal idazleren aldetik ere egon izan da kritikarik.

Batez ere Xabier Amurizari egurra eman zitzaion idazle batzuren aldetik. Zer ari zarete plazara ateratzen tabernan egon behar duena, edo horrelako zerbait zen hauen postura. Eta geroztik ere egon da horrelako zelopatia prozesu bat luze iraun duena literatura eta bertsolaritzaren artean.

Kontu hauen aurrean gure jarrera izan da, guri funtzionatzen digula, igual oso tontoa naiz baina obserbatzen dut funtzionatzen duela, ez dela simulakro bat, eta aurrera egitea.

Ametsen bertso bat Iban Zalduaren ipuin bat bezain geniala izan daiteke. Eta baten prestigiatzeak ez dio ezer kentzen bestearen kalitateari.

Bertso-munduaren bilakaerak izan ditu albo-kalte horiek. Basarrik bertsolaritza sagardotegietatik atera eta prestigiatzeko egin zuen ahaleginak bertsolari zuriago bat ekarri zuela salatzen da batzuetan, sagardotegiko bertsolaritza horren, Txirritaren nostalgia ageri da tarteka, eta Patziku Perurena batek, esaterako, oraingo bertsolari guztiak Basarriren ildoaren jarraipena zaretela dio.

Perurenak arrazoi pixka bat badu esaten duenean Txirrita bertsolari hobea zela Basarri baino. Baina Andoni Egañaren bertsoak antz gehiago du Txirritarekin Basarriekin baino.

Gu Txirritaren bertsoetatik elikatu izan gara eta ez Basarriren bertsoetatik. Nik Basarriren bertso bakar bat ere ez dakit buruz. Txirritanak bota ditzaket laurogei bat. Zergatik? Patzikuk esaten duen bezala Txirrita Basarri baino hobea delako. Horrekin ez dut esan nahi Basarri txarra danik, Txirrita memorablegoa dela baizik. Memorian geldituko diren bertsoak botatzeko gaitasuna Txirritak gehiago zuen, eta Xenpelarrek edo Amurizak...

Elkarteak hedabideratzeko egindako apustua garrantzitsua izan da bertsolaritzaren modernizazioan eman den bide honetan.

Nik neuk esan beharko banu Elkartearen apustu garbiena zein den, ados egongo ginake toki hori transmisioari aitortzean. Dena erortzea tokatuko balitzateke ere, bertso eskolei eutsi beharko litzaieke bai edo bai. Eta bigarrena sustapena izan da, txapelketa eta hedabideak binomioan oinarritua. Hedabideratzea eta txapelketak ezin dira ulertu bata bestea gabe.

2005ean erdal komunitatera iristeko egindako apustua ere sonatua izan zen. Inplikazio interesgarriak dauzkan apustua da, ezta? Zenbaterainoko lehentasuna dauka?

Nire ustez ez da lehentasuna baina horrek ez du esan nahi inportantea ez danik. Bertsolaritzak nire ustez bere garapena beti espiral moduan planteatu du. Espiral horretan erdian daude geruzarik inportanteenak eta horiei ondo heldu die, bertsolaritzari bizia ematen dion bertsozale, gaijartzeile, bertsolari komunitate trinko hori ondo zaindu da. Ondoren dago bertsozaletasun zabalago bat, gero euskal komunitatea, eta azkenik euskaraz ez dakiten euskal herritarren

geruza, gizarte ikuspegitik garrantzitsua, gizartearen zati oso handi bat direlako. 2000ta pikuan gogoeta batzuk egin ziren ikusiaz bageneukala heldutasun puntu bat, bageneukala gaitasun mediatiko bat eta egiten ari ginena interesgarria zela publiko horri helarazten saiatzea.

Egin ditzagun telebistan irudi erakargarri eta homologagarri batzuk azpitoluekin zertuz, eta iristarazi dezagun bertsoaren funtsa. Goazen saiakera bat egitera ikusezinak garen horien artera sartu-irten txiki batekin. Ez du izan agian beste munduko garrantziarik baina autokonfiantza pausu bat izan da.

Gizarte mugimenduen bilakaeran ohikoak dira profesionalizazio-instituzionalizazio joerak, eta aurrerago burokratizatorako arriskua. Euskararen inguruko mugimenduan gertatu da neurri batean. Gerta liteke bertsolaritzarekin ere? Zein izan dira profesionalizazio hori ekarri duten faktoreak? Eta profesionalizazioaren ekarpenak?

Elkartea profesionalizatzeak ez du ekarri bertsoaren eguneroko martxa profesionalizatzea. Martxa hori duela 40 urte zenaren berdina da. Orain beharbada deklaratu beharko da bukaeran, autonomo izan beharko da bertsolaria, zerbait formalizatu da baina funtsean betiko moduan funtzionatzen du.

Gero, Elkartearen tamaina bada eztabaida bat. Pare bat liberatu izatetik hirurogeitik gora izatera pasa gara, eta bai egon liteke burokratizazio puntu bat... Baina etengabeko gogoeta eman da arlo honetan ere, zerbitzu profesionalak eskaini arren mugimendu bat izateari ez uzteko. Mugimenduaren gidaritza boluntarioek osaturiko zuzendaritza batek darama eta asko zaindu da hori horrela izateko.

Elkartea eta bertsolaritza bultzatzeko proiektua egitura profesionaletan oinarritzeak baditu bere onurak. Lan gaitasun handiagoa da gaur egun duela urte batzuk zegoena baino, eta bilakaera hori eman bada, beharra zegoelako ere izan da.

V.XIV XABIER SUKIA. DONOSTIA, 2017/VII/14

Bertsolaria eta kazetaria. Euskadi Irratiko 'Hitza Jolas' programaren gidaria 2006tik.

Aldairen lekukoa eta artxiboa

'Hitza Jolas' jarri zenion izena duela hamaika urte Euskadi Irratiak bertsolaritzari eskaintzen dion programari. Aldairen 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen'aren jarraipen gisa.

Irratian 2005eko udan sartu nintzen bekadun, Manu Maritxalarrekin batera arrauna ematera, eta 2006ko urrian eskaini zidaten programa. Gorka Etxebeste izan zen: "Nikolas erretiratzea doa, interesatzen zaizu?". Noski baietz. "Nahi dekena, egin ezak; Izena mantendu, aldaketa egin..." esan zidan. Ikusten nuen 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' Nikolasen programa zela eta, beraz, izena aldatu beharra zegoela, baina maitasun handia nion programa horri, ez nuen aurrekoarekin hautsi nahi eta horregatik 'Hitza Jolas'. Aldaketa bai, baina hausturarik ez, berrikuntza bai baina jarraipen gisa.

Ez dakit erabaki ona izan zen. 'Eta Hitza Jolas Bihurtu Zen' izena niretzako gaindiezina da, eta zeukan kareta ere oso ona zen: garai bateko lehen gizakia entzuten zen, "uuu, uuu", komunikazioaren bilakaera adierazten zuten soinuak zeuden, txalaparta ere entzuten zen, eta bilakaera hori 'eta hitza jolas bihurtu zen' batekin bukatzen zen.

Aldai beraren eskutik egin zenituen lehen hilabeteak, ezta? Zertzuk irakatsi zizkizun?

Nikolas 2007ko udaberrira arte egon zen hemen, elkarrekin sei bat hilabete edo egon ginen. Bera hemen zen bitartean esan nion "Nikolas, bada, tarte bat egin ezazu". Agur historikoei buruzko hamar hamabost minutuko tarte batean murgildu zen, 'Gaur agurrak': Sarasuak 1991ko Gipuzkoakoan kantaturiko hasierako agurra, Egañak 93an lehen txapela irabazi zuenean botatako bukaerakoa... Horrelako gauza tematikoak egiten genituen, eta efemerideak ere bai asko...

Luxu bat izan zen, eta gauza pila bat irakatsi zizkidan. Hasteko, alde guztietatik nabari zitzaion zerbitzu publikoaren bisioa. Artxiboan sekulako lana egin zuen, grabatzen eta bertan jasota zegoen guztia antolatzen, eta sekulako ilusioa egiten zion niri altxor horren sekretu guztien lekukoa pasatzeak. Bestalde, Elkartearrekin harremanak goxatuta zeuden ni iritsi nintzenerako, akordio bidez funtzionatzen zen eta horrekin ere oso pozik zegoen. ETB eta Elkartearen arteko haustura hartan, berak inolako zerikusirik izan ez bazuen ere, asko sufritutakoa zen.

Euskadi Irratiko bertsolaritzaren alorra mimo guztiz zaindu eta egoera onean uzten zuenaren sentsazioa jaso nuen.

Zein dira, bada, artxiboaren sekretuak?

Hemen Aldaik antolatu duena harrigarria da. Ikusten ez den eta diruz ordaindu ezin den lan bat da, garai batean monastegietan egiten zenaren parekoa. Egon da orduak eta orduak entzun, apartatu, jaso eta editatu. *Nozis* sisteman egin zuen. Kristoren programa da gauzak bilatzeko: fetxa, bertsolari zehatza, gaia... hainbat irizpideren arabera funtziona daiteke.

Oso ezagunak ez diren bertsolari askori ere ekarpenik onenak apartatu eta artxibatu egiten zizkion, 'hau ere existitu zen' esateko. Lagin horretan ere pentsatzen zuen. Berak egin du lan bat hemen oraindik inork eskertu ez diona.

Zein izan ziren artxiboa elikatu zuten biltzaileak?

Mujikaren grabazioak daude batetik, sekulako bolumena. Bestetik, Joxe Mari Iriondorenak, urteetako lanaren emaitza hau ere. Jose Antonio Gesalaga Zaldubi zarauztarrak ere hainbat urtetan saio mordoa grabatu zuen Bertsozale Elkarteari eta EiTBri kopia bana pasa ziolarik. Eta Nikolas berak ere saio dezente grabatu zituen. Nik Oñatin kantatu nuenean Gipuzkoako aurreneko txapelketan, 1995ean, 19 urte nituen, Nikolas bera joan zen grabatzera.

Esango nuke garai bateko biltzaile handien material gehiena dagoela hemen jasota. Aita Zavala ere ibiltzen zen grabatzen eta harenak faltako dira. Besteren batzuk ere bai, seguru.

Horri, Nikolasen antolaketak ematen dion plusa gehitu behar zaio. Gauza bat da grabazioa eta bestea bertsoaldi hautatuak etiketatuta izatea. Artxiboa bertsoaldi hauek osatzen dute.

Berez, *masterrak* ere, grabazio gordinak, jasota daude. Hortik ere atera liteke gehiago...

Jarraitzen duzu artxibo lan horrekin?

Grabatzen ez naiz ibiltzen. Garai batean saio bakoitzean hiru grabatzaile egon zitezkeen, Xenpelarreko bat, EiTBraiko ari zen norbait eta auzoko hirugarren bat. Gaur egun Xenpelarretik bideratzen da hori dena; akordioa daukagu Elkartearekin, eta digitalki astero hainbat bertso-saioren lagina eskaintzen digute. Saio bakoitzaren fitxa ere bidaltzen dute: eguna, lekua, bertsolariak, antolatzaileak eta arrazoa zehaztuz eta gaiak idatzita eskainiz. Hala ere saioren bat gertu tokatzen zaidanean, edo zaletu bezala joan naizenean, batzuetan nire borondatez grabatzen aritzen naiz.

Programaren artxiboari bai eskaintzen dizkiot orduak. Igandean programa bukatu, 'Nahieran'era igo eta lan horretara jartzen naiz. Emitituriko bertsoaldiak, saioka, gaiaren arabera eta bertsolariaren arabera sailkatzen ditut, baita emititurikoa bertso bakarra denean ere, eta programa bakoitzari fitxa bat irekitzen diot gidoi eta guzti gordetzeko. Sistema berria jarri dute EiTBn eta badaukat pena, Aldaik zerabilena hobea iruditzen zaidalako, baina berri horrekin egin behar izaten dut. Beraz, zaharrak bilatzeko Aldairenean ibiltzen naiz eta berriak bilatzeko nirean.

Dezenteko lanak ematen dizkit baina iruditzen zait merezi duela, lanerako tresna on bat delako batetik, bilaketa azkarrak egiteko, eta bestetik etorkizun batean bertsoak berreskuratzeke.

'Hitza Jolas': funtzionamendua

Zein izango litzateke 'Hitza Jolas' en oinarritzko egitura?

Oso aldakorra izan da denboran zehar. Erritmoa eta bizitasuna izan da beti nire obsesioetako bat, gidoietan zerbait berria egitea bilatzen dut askotan, eta ondorioz etengabe aldatzen ari naiz.

Azken aldian hasierako formula batzuk bai ari naiz errepikatzen. Adibidez, hasieran kareta, gero nire esaldiren bat, bertso bati edo zerbait bixiari sarrera emanaz, gero sintonia, sintoniarekin batera zerbait kontatzeko, horri lotuta bertso-saio bat eta horren ondotik 'Bederatzikoa'.

Atal finko bat da 'Bederatzikoa'.

Bai, astero bertsolari bati eskatzen diot puntua jartzeko eta bertsolarien artean kate moduko bat osatuz bederatziko bat osatzen dute.

Oso erritmo biziko atala da eta horren ondoren bakarkako bat eskatzen dit gorputzak. Ez dakit hala behar duen baina normalean hala egiten dut. ‘Bederatzikoa’ren ondoren Maialenen [Lujanbio] hiru bertso. Eta gero berriz bizia. Saiatzen naiz tartekatzen.

Izan duzu edo badaukazu beste atal finkorik?

‘Oroitzapenen Kaxoia’ izango da gehien luzatu dudana. Efemerideekin jolasteko baliatzen dut tarte hau. Artxiboan begiratzen dut gaurkoa bezalako egun batez abesturiko bertso baten grabaziorik zaharrena zein den. Azken boladan 50 urte betetzen dira grabazio horietatik, asko Mujikak 1960ko hamarraldian grabaturikoak baitira. “Lizartzan gaur 50 urte Uztapidek honakoa kantatu zuen” aurkeztu eta bertsoak jarraian. Beti musika bera erabiltzen dut osagarri gisa, beraz, atal gorpuzkera dauka.

Bestelako mordo bat ere egin izan dut hamaika urtean, baina gehien luzatu dena hori izan da.

Kolaboratzailerik izaten duzu?

Batez ere txapelketetan komentaria lanak egiteko. Sartu nintzenean lehenengo Gipuzkoako txapelketan hiru izan nituen txandan etortzen zirenak: Imanol Lazkano, Alaitz Sarasola eta Karlos Aizpurua. Aurrez lotzen genuen bakoitzak zein saio komentatuko zuen eta gero elkarrekin adosten genuen saio horren inguruan zein bertsoaldi aukeratu, azkenik komentarioak telefonoz egiteko.

Karlos Aizpurua gehiagotan ere etorri izan da. Askok daki bertsolaritzaz eta txorrotx eskaintzen ditu bere iritziak. Xilabaren jarraipena birritan egin dut eta baita duela zortzi urteko txapelketa nagusia ere. Final laurdenekotatik hasi zen... Duela lau urteko txapelketa nagusian Uxue Alberdi izan nuen komentaria baina finalean bakarrik.

Beste behin Aitor Mendiluze, hain zuzen berak irabazi zuen Gipuzkoako txapelketan. Pixka bat egoera delikatua zen kode etikoaren aldetik. Jexux Muruak deitu zidan propio ‘Hi, kontuz horrekin’ esateko. Klaro, txapelketan parte hartzen ari zen, txapeldun ateratzeko aukera handiak zituen gainera eta eguneroko moduko bat egiten zuen programan parte hartzaile guztien lana epaitzen.

Ez nuen gaizki hartu deia. Nere terrenoa defenditu nuen eta aurrera jarraitu zuen esperimenduak. Eta ondo atera zen.

Zeure bertsoak emititzeko orduan ere konplikatua izango da, ezta?

Nik nire bertsoak ez ditut sekula emititu. Behin gertatu zitzaidan bigarren geratzea saio batean, eta irabaztea ere bai, baina egun hartaz gogoratzen naiz gehiago, Irazu lehenengo eta ni bigarren Gipuzkoako txapelketako Azpeitiako saio batean. Torrotxo zegoen hemen orduan bekadun bezala eta berari esan nion, txapelketaren gora beherak zeuk aurkeztu. Egund hartan saihestezina zen nire bertsoak ateratzea, txapelketa eman behar genuen eta txapelketan nire bertsoak ziren albiste. Horregatik berak aurkeztu zuen txapelketa hura.

Dena den, nire bertsoak ez sartzeagatik ez da ezer pasatzen. Izango balitz Maialenek [Lujanbio] egiten duela programa eta berak ez duela bere bertsoak botatzen, ba hor bai edukiko genuke arazo bat, baina nireak ez entzuteagatik inork ez du ezer galtzen.

Kolaborazio guztiak txapelketa garaian izan dira orduan.

Gehienak bai. Denak ez. Aitzol Barandiaran denboraldi oso batean izan nuen kolaboratzaile. Izenik ez bazuen ere atal finko bat zuen, ordu laurden batekoa. Tematikoa egiten zuen: Gaur presoak, bihar inauteriak eta abar.

Nola antolatzen duzu astea?

Urterik gehienak astelehenetik ostiralera lan eginez aritu naiz. Astelenean grabazioak begiratzeko hasi eta ostiralean astebururako programa prestatu uzten nuen. Orain, ordea, asteburutan ari naiz lanean, eta ostegunetik igandera egiten dut. Eta gustura nago, horrek programa zuzenean egiteko aukera ireki baitit.

Ostegunetan bertsoa.eus, egunkariak eta abar erreparatu ditut pixka bat eguneko egoteko eta Xenpelarretik bidali dizkidaten bertsoaldiak entzuten hasten naiz. Aurreko asteko eduki batzuk ere zabaltzen ditut sare sozialetan, aurreko txandan atera ez zirenak. Ostiralean bertsoak aukeratu, editatu eta gidioarekin hasten naiz. Gure artxiboko gauzak gehitzen dizkiot eta musika ere aukeratu dut. Larunbatean horri guztiari forma definitiboa eman eta teknikariari pasatzen diot. ‘Amarauna’ programan ere parte hartzen dut igande goizetan eta hori prestatzen ere aritzen naiz egunotan.

Azkenik, igandea izaten da egunik potenteena. Goizean ‘Amarauna’ egin, eguerdian ‘Hitza Jolas’, eta programaren ondoren zabalkunde. Programa ‘Nahieran’era igotzen dut, ‘Bederatzikoa’ eta saioko bertsoaldirik onena, eitb.eus-era. ‘Hitza Jolas’-en facebookeko kontuan ere zabaltzen ditut edukiak eta baita nire facebook eta twitter pertsonaletan. Eta hori dena egindakoan artxiboarekin jartzen naiz.

Programaren zuzeneko emisioarekin aurten hasi zarela komentatu duzu. Ze diferentzia nabaritzen duzu ohiko emanaldiarekin alderaturik?

Bertso den gauza freskoarekin enlatatu sentsazioa izaten nuen grabatua egiten nuenean. Orain zuzenekoan beste girotxo bat sortzen zait. Igor Martinez de Lezea teknikaria aurrean dudala egiten dut, gainera. Oso ona da, gustatzen zaio egiten duguna eta *feeling* bat sortzen da, talde lana. *Rafagak*, tartean sartzen ditugun musika labur batzuk berak aukeratu ditu eta errealizazioari ere beste ukitu bat ematen dio. Askotan zuzeneko batean “hi, honen ondoren kantu hau jarri behar diagu” planteatzen dit. Ona ideia! Teknikoa entxufatuta badago gauza horiek aportatzen ditu.

Bestalde, zuzenekoarekin esperimendu batzuk ere egin ditugu. Ekaineko azken programan bertsoak eskatu genizkien entzuleei whatsapp bidaltzeko. Aspalditik nengiz horrelako gauzak egiteko gogoz.

Sare sozialetatik jendearen *feedback*a iristen zaizu?

Zenbaterik ikusi duten azaltzen da datua. Txapelketa garaian zortzirehunek ikusi zutela agertzen zen, orain berrehunek ikusi dutela. Ez dakit horrek zehazki zer esan nahi duen. Puntu bateraino behitatu iristen dela sare sozialetatik ere.

Kalean jendeak zerbait komentatzen dizu?

Gutxi, gertuko jendeak gehiago. Gero badaukat Orion emakume bat zerbait komentatzen didana, eta dezentetan “Hombre Sukia, ‘Hitza Jolas’!” agurtu izan naute. Bertsolari lagunak gustatzen zaiela esan izan didate. Askoz gehiagorik ez.

Telebistan oso gutxitan atera naiz, baina atera izan naizenetan askoz gehiago sumatu izan dut. Irratiak indar gutxiago dauka.

Ez nuke nahi askoz indar gehiago izatea ere, bestalde.

Zure ustez zer dakar irratiak, telebistak edo prentsak ekarri ezin duenik?

Ahotsa. Irudimena. Telebistak ere ematen du ahotsa baina telebistak beste arreta mota bat eskatzen du. Irratiak bertsoa bere soiltasunean eskaintzen du eta ederra da hori.

Tradizio handia izan du bertsoak irratian.

Bertsoa eskaini eta gozatzeko oso medio egokia da.

Urteko diseinua planteatzean, zenbateraino baldintzatzen du zuzendaritzaren iritziak?

Etxeak esaten du bi programa egingo diren edo bakarra, edo larunbatean ala igandean izango den. Nire iritzia entzuten dute, noski. Txapelketak daudenean ere eseri eta hitz egiten dugu. Nik neure planteamendua egiten diet: zenbat saiotan egon beharko genukeen eta abar. Eta adostu egiten da.

Hortik aurrera, edukiei dagokienean, zuzendaritzan ardura duen inork ez dit inoiz ezer esan. Lankideren batekin eduki izan dut noizbait anekdotaren bat baina zuzendaritzarekin ez.

Baliabideak-edukiak

Joxerra Garziak 1993an gogoeta interesgarria argitaratu zuen ‘Jakín’ aldizkarian bertsolariaren hedabidetzeari buruz. Bere esperientzian oinarriturik formatu bakoitzean landu daitezkeen formula ezberdinen inguruan gogoetatzen zuen. Irratirako planteatzen zituen batzuk aipatuko dizkizut, ea zer punturaino baliatu dituzun edo baliagarriak iruditzen zaizkizun.

Esaterako, irratiako estudioa bertso plaza bihurtzea.

Nikolasek gehiago egiten zuen nik baino. Dezente egin zuen elkarrizketa batetarako deitu, bertsoa eskatuko zaiola jakinaren gainean aurretik jarrita, eta elkarrizketa bukatzeko gai bat jarri bertsoetarako.

Nik Sebastianekin [Lizaso] uste dut egin nuela behin. Ez zait asko gustatzen, ziurrenik bertsolaria naizelako. Badakit estudio batean bertsoan hastea edo telefonoz bertsoan hastea zeinen nekeza den... Dena den funtzionatu izan du. ‘Mezularia’n, adibidez, Maite Artolarekin, astero joaten zen Maddalen Arzallus asteko errepassoa egitea eta polito egiten zuen. Gaztelumendi anaiak ere ibili izan dira antzeko zerbaitek egiten...

Bai burutik pasa izan zait bertso eskolen mugimendua hain indartsu ikusita, bertso-eskolaren batera joan edo bertso-eskola irratiara ekartzea eta haiekin hainbat ariketa egitea.

Elitekoekin delikatuagoa iruditzen zait. Proiektu bat bada adostua eta hitz egindakoa eta Elkartek babesten duena egin liteke.

Bertso jarriak irratiatzeko zein litzateke zure ustez formula egokiena?

Nik normalean jartzen ditudanak kantuak izaten dira. Nik nire baitarako ‘Kantu Doinuak Eta Kantu Paperak’ deitzen dudana atal bat ere badut irratsaioan. ‘Kantu Doinua’ da bertsolariak kantu ezagun batetik bertsoetarako doinua hartzea. Xabier Silveirak Amy Winehousearekin edo Beberekin egin zuen, Lujanbiok Laboaren ‘Martxa baten lehen notak’ kantuarekin, Elortzak Manu Chahorekin... mila adibide daude. Hor egiten dudana da bertsolariari aukeraketa horren azalpena eskatu eta gero bertsoaldiarekin batera jarri.

Kantu paperak, berriz, bertsolarien bertsoekin edo letrekin sorturiko kantuak dira. Hor jatorria aipatzen dut kantua jartzearekin batera: ‘Arkaitz Estiballesena da kantu honen letra’. Edo bertsoaldia baldin badaukat, egin daiteke bertsoaren eta kantuaren arteko mix bat ere.

Gisa honetakoak ere mila daude. Azken urteetan oso letragile ugariak izan dira bertsolariak.

Bertso jolasak ere aipatzen ditu Garziak.

Hori ere gehiago egingo zuen Nikolasek. Puntua jarri eta entzuleek bertsoa osatzea, bertsoari oinak kendu eta entzuleek asmatzea... Esaera zaharrak gai gisa erabiltzea ere egiten zuen. Guri deitu zigun oso gazteak ginela eta ‘gustuko lekuan aldaparik ez’ edo horrelakoren bat jarri zigun hiru bertso osatzeko. Artxiboetan dago Sarriegi eta belaunaldi guzti hori ariketa hori eginez, bakoitza bere esaera zahar eta hiruna bertsoekin.

Neuk ‘Bederatzikoa’ daukat, esan bezala, orain martxan. Gero ‘Hitza Jolas’etik kanpo egin izan ditut gehiago horrelako ariketak, ‘Amaraura’n edo ‘Faktoria’n kolaboratzen aritu izan naizenean. Bertsoa osa dezaten puntua jartzen ari gatzaizkie orain ‘Amaraura’n.

Entzuleentzako lehiaketarik egin al duzu inoiz?

Bai. Sari gisa eskaintzeko zerbait izan dudan bakoitzean, bertsolaritza inguruko libururen bat edo sarrera batzuk, beti egiten dut. Bertsolaritza buruzko galdera bat bota eta erantzuten duenari saria.

Programa monografikoak.

Artxiboak aukera handiak eskaintzen ditu horretarako. Adibidez, pare bat udatan, uda giroko gai bat hartu, horri buruzko bertsoak atera artxibotik eta programa osatzen nuen: hondartza, San Ferminak, zezenak... Bestalde, bertsolari bati buruzko monografikoak ere bai. Bertsolarietara omenaldiak egin izan zaizkienean, adibidez, omenaldiko audioak, artxiboko bertsoak eta bertsolariari buruzko iritziak jasoaz: Joxe Agirre, Imanol Lazkano... Heriotzean ere bai, Joxe Agirrerri buruzkoa, Manuel Lasarteri buruzkoa... Joxe Lizasorena oso hunkigarria izan zen, baita Azpillagari buruzkoa ere... Beste sail bat bertsolari klasikoaren inguruan egindako monografikoak izan dira: Txirrita, Uztapide... Eta pasadizoekin ere egin izan dut bat edo beste. Imanol Lazkano oso kontalari ona da eta hainbat grabatu nizkion. Lazkao-Txikiren txiste batzuk ere baneuzkan, eta txisteak eta pasadizoak tartekatuz aleren bat.

Kazetaritza genero ezberdinak nola landu izan dituzu? Esaterako, albistea.

Niri iruditzen zait jendeak entzun nahi duena bertsoak direla. Horrek ez du esan nahi programak hasi eta buka bertsoa bakarrik izan behar duenik. Interesgarria iruditzen zait momentu puntaletan bertsolarien iritzia edo testigantza jasotzea, bertsolariaren bat elkarrizketatzea... baina bertso-saioren agenda ematea, adibidez, ez dut egiten...

Ez zait iruditzen jendea bertso-saiora irratian entzun duelako joaten denik. Joaten gara inguruko saioetara ohituragatik edo lagun batek animatu gaituelako, edo oso sutsua denak Elkarteko webgunean topatuko du agenda.

Albisteekin ere antzeko zerbait pasatzen zait. Albiste potoloak jarri izan ditut, eta Elkartek garrantzia handia ematen dien ekitaldi batzuren berri ere ematen dut, baina ez zait iruditzen programaren entzulea horren bila datorrenik... Gehiago egin izan dudana da eguneko bestelako albiste bat bertsoa eskaintzeko aitzakia gisa erabiltzea. Adibidez, gaur ‘Uraren eguna’ da munduan. Eta bertsoak jarri Egañarenak urari buruz, eta jarraian Uztapiderenak ardoari buruz.

Emitituko diren bertsoaldiak aukeratzekoan erreparatzen diozu genero arteko orekari, lurraldetasunari eta gisako irizpideei?

Saiatzen naiz. Hala ere Xenpelarrek pasatzen didanaren gainean ari naiz aukeraketa egiten. Material horretan badaude bertsolari batzuk, Andoni, Maialen eta abar mamuak bezala toki guztietan agertzen zaizkizunak. Normala da, saio pila bat egiten dituzte. Baina badaude beste batzuk oso bertsolari onak direnak baina nik behintzat grabazioetan nahi baino gutxiago topatzen ditudanak.

Hor grabazio sarearen irismenean sartzen gara: Bizkaiak hobea dauka, Gipuzkoak justuagoa...

Zenbateraino errespetatzen duzu bertsoaldia unitate gisa?

Lehen hamar urteetan oso talibana izan naiz horretan. Azken bi urtetan hasi naiz nire buruari esaten: “sei bertso ziren, baina azken biak ez ziren hain onak; orduan’ ba ez bota”.

Horrek ematen du aukera beste bi hobeak sartzeko, programaren maila igo egiten da eta entzulearentzat ere ona da. Egia da azken aldian borroka horretan nabilela nire buruarekin.

Esan didazu iruzkinak egitera kolaboratzaileak ekarri dituzula. Zeuk egin izan dituzu?

Ez, nik ez dut nire burua bertsolaritzaren kritiko bezala kontsideratzen. Ez naiz sartuko zein bertso den ona eta zein den txarra eta zergatik esatera. Bereziki zein den txarra esatera. Iruditzen zait ez duela ezer aportatzen. Ni joaten banaiz bertso-saio batera nire lana da bertso-saio horretako momenturik onenak jendeari transmititzea, jendeak horrekin gozatu dezan.

Horrekin ez dut esan nahi bertso kritikarik egin behar ez denik. Iruditzen zait, txapelketetan, esaterako, baduela bere tokia, hor lehia bat dagoelako eta puntuazio batzuk eta abar. Hala ere, kasu horretan aditu bati deituko diot kolaboratzaile gisa. Aditu batek, Joxerra Garzia batek edo Karlos Aizpurua batek egindako kritika, bai izan daiteke baliagarria kasu horretan.

Elkarrizketak nola eta zenbateraino landu izan dituzu?

Bolada luze batean egin nuen bertsolaria estudiora ekarri eta artxiboan topaturiko bertsoak entzunaz osatzea elkarrizketa. Ordubeteko saioa formula horrekin. Xabier Amurizari egin nion bat, Sustrai Colinari beste bat, Igor Elortzari, Beñat Gaztelumendiri, Aitor Sarriegiri... Batzuk egin nituen, eta oso politak ateratzen ziren.

Elkarrizketa luze haiek beti berdin hasten nituen: artxiboan topatu nuen elkarrizketatuaren bertso zaharrenarekin. Gogoan daukat Mendiluzerena laurogeita pikukoa zela grabazioa, ume ahotsarekin oraindik. “Hor izango nituen ez dakit zenbat urte” hasten zitzaizkizun. Entzuten zuten ahotsa eta euren ganaino iristen zinen lehen segundutik.

Formula goxo bat zen. Elkarrizketa erasokorrak ez zaizkit inoiz gustatu. “Nolatan esan zenuen hau?” eta horrelakoak.

Gero elkarrizketa laburragoak asko. Aktualitateari lotuagoak.

Erraza suertatzen zaizu elkarrizketa hauek lortzea?

Ez dut elkarrizketa asko egiten baina esango nuke ez dela bereziki zaila. Errespetuarekin tratatu izan ditut beti eta bueltan errespetu hori etortzen zaidala sentitzen dut.

Orain bezala txapelketa garaian gabiltzanean kontu gehixeagorekin ibiltzen naiz, norengana gerturatu eta zer galdetu. Bakarrik eta barrura egoteko beharra dute, asko daukate jokoan eta ulertzen diet. Badakit aste hauetan bakea behar dutela eta errespetatzen ditut. Elkartean 23an jarri du aurkezpen data eta orduan fusilatuko ditut denak galdera mordo batekin.

Ze jarraipen egingo diozu aurtengo txapelketari?

Oraindik ez dugu erabaki irratian, ze baliabide jarriko diren, ze saiotatik aurrera joango naizen bertara, baina irailetik aurrera txapelketari begirakoak izango dira saio guztiak. Erabakitzen dugun datatik aurrera saio guztietara joango naiz, konexioak eskaini eta kronikak egitera.

Txapelketak, hasten denetik, astean ordubete betetzeko errez ematen du. Egia da betekada izaten dela guretzat eta esango nuke entzuleentzat ere horrela izaten dela esango nuke.

Euskal Herriko finalaren jarraipenarena izango da intentsitate handieneko laneguna, ezta? Zein izaten da Euskadi Irratiaren eskaintza?

2013koan ‘Amaraura’rekin konexioak eginez goizeko saioaren zati handi bat eman genuen, eta arratsaldeko saioa eta ondorengo prentsaurrekoa zuzenean eman genituen. 2009koan berdin.

Bestelako finalak, herrialdeetakoak, larunbat arratsaldetan izaten dira eta ‘Hiru Erregeen Mahaia’ kirol programarekin egiten ditut konexioak. Futbol partiduekin egiten dituzten konexioen tartean niri ere “Sukia zer giro?”, eta nik ba gori-gori dagoela edo horrelakoren bat esan, gaia aipatu eta zuzenean abesten ari diren pare bat bertso jarri. . Hauek dira aita-semeak ... ‘ eta zuzenean bi bertso eman. Formula hori Txetxu Urbietarekin hitz eginda asmatu genuen. Berari bertsoa gustatzen zaio eta ez dakit oso ortodoxoa den egiten dugun hori baina ohitura bihurtu da. Dezentetan egin izan dugu.

Herrialdeetako hauetan bukatutakoan finalista guztien hitzak jaso eta iluntzean kronika luze bat eskaini ohi dugu, euren hitzekin eta bertsoekin josia. Sailkapena eta informazio orokorra emateko baino ez da sartzen nire ahotsa, gainerakoan atribuziorik ere ez dut egiten, entzuleek ondo ezagutzen baitituzte bertsolarien ahotsak. Beñaten ahotsa entzuten da “oso ondo hasi naiz Alaiarekin batera egin dudana zortziko handiko ariketarekin...” eta dator jarraian.

Finala larunbatean denean, igande goizean ‘Amaraura’n txapeldunari elkarrizketa egiten zaio baita. Neuk egin izan dut askotan. Euskal Herrikoaren kasuan, berriz, igandean izaten denez, astelehenean egiten da elkarrizketa hori, ‘Faktoria’n. Ametsi [Arzallus] Maite Artolak egin zion eta Maialeni [Lujanbio] Joxe Juan Ugaldek...

Euskal Herriko finalaren egun hori bai izaten da, esan duzun bezala, intentsitate handikoa. Goizean, aipatu dudana bezala, konexio mordo bat egitea tokatzen da. Gero eguerdian ‘Hitza Jolas’ berezi bat dator goizeko onenarekin. Eta arratsaldekoa nahiz prentsaurrekoa zuzenean. Prentsaurreko horretan Euskadi Irratiaren izenean galderaren bat egin beharra dago, noski... Gero, gogoia eta indarraren arabera astelehen iluntzean final osoaren kronika egiten duen ‘Hitza Jolas’ berezi bat ere egin izan dut. Duela zortzi urte egin nuen; duela lau ez.

Ikusten dut Euskadi Irratiko beste hainbat programetan ere egiten zaiola tartea bertsolaritzari. Zure ekimenez izaten dira?

Batzuetan tarte horietako aurkezleen ekimenez ere sortzen dira, baina normalean kontsulta egiten didate. Baita elkarrizketaren bat prestatzeko ere. Aurreko batean Patxi Etxeberria eta Ane Labakari elkarrizketa bat egin nahi zieten eta aurkezlea etorri zitzaidan pista eske. Patxik liburua duela esan nion, bertan bere bertsoak biografia eta gaztetako argazkiak ateratzen direla eta abar. Oso gustura egiten ditut horiek denak.

Kazetari-bertsolari harremana

Komunikazioa egindako zara, Deuston. Ikasketa horiek balio izan dizute gero lanerako?

‘Humanidades y comunicación’ egin nuen, Giza Zientzien Komunikazioa. Bai, asko balio izan didate.

Nire kasua berezia da ze ni unibertsitatean 26 urterekin hasi nintzen. FP nuen egina, elektrizitateko adarretik, eta oso gustura eta harro. Obran, ostalaritzan, fabriketan ibili nintzen eta horretan jarraituko nuen neskalagunak animatu izan ez banindu: “benga zuk ikasi egin behar duzu”. Ordura arte egun osoan lanean ibilia, goizez ikasi eta arratsaldean Lankun lan egitera aldatu nintzen. Ikastea halako oparia iruditu zitzaidan, emozionatu eta zentzu guztiak biderkatu egin zitzaizkidala.

Adin horrekin sartzen bazara benetan ikasteko gogoz zaudelako izaten da. Irakasleek ere nabaritzen dute, motibatu egiten ditu horrek eta beste begirada batekin hartzen zaituzte. Erasmusa ere egin nuen ingelesa ikasteko. Tarteka kezkatu ere egiten nintzen, “ezinezkoa da nik neure buruari hainbeste denbora dedikatzea” pentsatzen nuen. Baina *a tope* aprobetxatu nuen, plazer bat izan zen lau urte unibertsitatean egotea.

Unibertsitate aurretik eta ondoren pertsona erabat ezberdina nintzen eta gaur egun irratiko profesionala banaiz ikasketa horiei esker da.

Berezkoa ere izango da zerbait, ezta? Bertsolaria izatearen eta irratirako soltura izatearen artean egon daiteke loturaren bat ere.

Irakasle izandakoek hori esan izan didate gerora: “Zu ikusita argi geneukan zuk irratian bukatuko zenuela”. Nik ez nekien. Haien bai: mutil honek ahozko komunikazioa bideratu beharko luke, mutil honek hitzekin egin behar du lan..

Zer sentitzen zara gehiago, bertsolaria edo kazetaria?

Ni ez naiz kazetari kontsideratzen. Espero dut kazetariak ni baino hobeak izatea euren lanean. Zu, adibidez, bazara kazetaria. Dokumentatu, irakurri, kontrastatu...

Zuretzat zein abantaila ematen ditu halako programa bat eramateko bertsolaria izateak?

Abantailak? Batetik, ofizioaren ezagutza. Hor ematen diren egoera asko, nahi gabe bada ere, ulertzeko erraztasun handiago bat.

Bertsolariekin enpatia esan nahi duzu?

Bai. Nire bertsolari karrera beste askorena bezala ez da oso urrutira iritsi, baina balio izan dit mundu hori barrutik ezagutu eta ulertzeko. Gaia asko sentitzen dut eta baita bertsolariek eurek bizi duten momentua ere.

Egia esan batzuetan izugarri moztan nau guzti horrek. Gogoratzen naiz duela zortzi urteko txapelketa nagusian Gasteizen Europa jauregian egin zen saio batean Iturriagak oso egun txarra izan zuen. Ia, ia txapelketatik kanpo geratu zen, eta saio bukaeran mikrofonoa sartu nion. Ikusten nuen egoera zein zen. Ze esan behar zidan hark? Ba egun txarra izan zuela. Bale, sartu nion mikrofonoa eta nik lortu nuen bere ahotsa. Batzuentzat primizia bat izango da hori baina nik gaizki pasa nuen eta ez nuke berriro egingo. Iruditzen zait momentu batzuk ez dutela ezer aportatzen... Gero sekulako saioa egin zuen hurrena eta finalera iritsi zen behintzat.

Igor Elortzari ere gertatu zitzaion. Gernikan galdu zuen bere azken aukera, Jai-Alain. Ikusi zuen “buena aurren ez naiz finalean egongo” eta bota zuen agur zoragarri bat, antologikoa, eskerrak emanez denei. Hor bai, gogorra egin zitzaidan baina uste dut hor tokatzen zela.

Gentleman bat bezala portatu da, kristoren agurra eman du, ba eman aukera. Baina Iturriagarena...

Bertsolari izateak kalte ere egiten dizu orduan.

Ez dakit bertsolaria naizelako den. Izakera kontua ere izan daiteke. Baina bai da egia errespetu handiarekin eta pudore puntu batekin gerturatzan naizela bertsolariengana segun eta zer konturekin. Galdetuko diot ala ez diot galdetuko? Gero agian hurrengo egunean igual entzuten dut norbait horixe bera galdetzen eta bertsolariak kristoren erantzuna eman dio eta ‘Dioss, galdetu egin behar nion’.

Aitor Mendiluzek Gipuzkoan azkena irabazi zuen txapelketan bakarkako saioan kantatu zuela neska bat eskuz esku dabilen paketea zela. Gaia ez dakit zein zen, baina *ligoteo* kontuaz ari zen, ez zen oso espresio zuzena izan hainbat ikuspegitatik eta alarma guztiak piztu ziren.

Hurrengo egunean elkarrizketa egin nuen, eta bukatu ondoren harrিতa hartu ninduen Gorka Tolosak: “zergatik ez diozu galdetu paketearena?”. Ba polemika sortu duelako eta errespetuagatik. Egun horretan, ordea, galdetu egin behar nion, seguraski berak hitz egiteko gogoia izango zuelako. Agian, aurretik komentatu behar nion: “Hi Aitor honek sortu dik halako polemika bat eta nahi dek hitz egin honen gainean?”. Eta seguraski esango zidan bai galdetu, ze argitu egin nahi dut. Nik zer egin nuen? Tabu. Ertzetik pasa.

Abantaila handirik ez, beraz.

Bai, bai. Nik gehien somatzen dudana gidoigintzan da. Gidoiak egiteko orduan, hitzekin jolastea asko gustatzen zait, gehiegi agian. Badaukat halako jario moduko bat eta oso erraz ateratzen zaizkit gauzak. Ez da nire buruari loreak botatzeagatik, baina uste dut ‘Hitza Jolas’ekin gauza ezberdin bat egin dudala gidoietan. Izan beharrean “jarraian Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio entzungo ditugu Gernikan urtero antolatzen den saioan”, “aste honetan asko entzun da patera hitza, arrainak ere badira itsasoan baina...” aterako zait. Saiatzen naiz esplizituegia izan gabe, zubiak, bertso-saioen artean zubitxo batzuk montatzen. Entzulearentzat opari bat egiten saiatzen naiz programa bakoitzarekin eta iruditzen zait horrela josita politagoa dela.

Esango didazu ez dagoela bertsolaria izan beharrik hori egiteko, irudimen pixka batekin nahikoa dela...

Nire ustez bertsolariak baduzue hitzekin jolasteko gaitasun berezi bat...

Nire lanerako positiboa da dudarik gabe. Ziurrenik positiboa askoz gehiago negatiboa baino.

Kazetari bezala bertsotatik kanpora beste zerbait lantzeko beharra sentitu izan duzu?

Tokatu izan zait probatzea. ‘Hitza Jolas’ astean bi aldiz zenean hori bakarrik egiten nuen baina astean programa bakarra izan denean bestelako gauzak ere egin behar izan ditut.

Bolada batez ‘Iluntzero’ izeneko hiruzpalau minutuko tarte bat izan nuen egunero. Gogoeta moduko bat egiten nuen. Asko gustatzen zitzaidan, egunero gai baten inguruan zerbait sortzeko aukera ematen zidalako. Iaz, kultura atalean ere ibili nintzen, euskaraz eta gaztelera, Gasteizen. Eta aurten ‘Amarauna’n kolaboratzen dut. Gustora batean eta bestean.

Gustatzen zait bestelako zereginak edukitzea ere.

Bertsolaritzaren inguruan egiten duzun lanetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta nekosoena suertatzen zaizuna?

Nekosoena? Hitzik gabe utzi nauzu.... Egia da bertsoaldiak hautatzerakoan urte luzez bakarrik eta kontrasterik gabe ari naizenez, tarteka pixka bat aldapa gora egiten zaidala. Perkspektiba galtzeko arriskua handia da. Ari zara sartzen bertsolari bat besteak baino gehiago bertsoak hobeak direlakoan baina agian zure buruan bakarrik dagoen zerbait da hori...

Errazena ere hori bera agian. Bakarrik nola lan egiten duzun nahi duzuna jartzen duzula. Azkenean bi alderdiko txanpona da.

Bertsoa nire pasioa izan da beti eta bertso on bat entzuten dudanean barruraino sartzen zait. Barruak mugitzen dizkit bakarkako on batek edo ofizio on batek. Hori sentitzen dudanean bitartean seinale ondo dagoela gauza, ezin naizela asko kexatu nire lanagatik.

V.XV BEÑAT ZAMALLOA. BILBO, 2017/IX/27

Kazetaria. Prentsan, irrastian nahiz telebistan (Berria, Radio Vitoria, Euskadi Irratia, Hamaika telebista...) bertsolaritzaz aritutakoa eta Bertsolariren zuzendari izandakoa. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazitakoa bertsolaritzaren inguruan burututako lanagatik.

Ibilbidea

Non eta noiz ekin zenion bertsolaritzari buruzko kazetaritza egiteari?

Berrian pasa nituen uda batean bi hilabete lanean, 20 urterekin, praktika modukoa batzuk egiten. Udakoa bukatuta kolaboratzaile gisa jarraitzea eskaini zidaten, astean orri bat eginez. Antzerkia ikasten nenbilen tarte hartan eta antzerkiari buruz egin nezakeela planteatu nien. Ezetz esan zidaten, nahiago zutela bertsolaritzari buruz egiten banuen. Horrela hasi nintzen, oso modu akzidentalean.

2007ko Gipuzkoako txapelketa izan zen jarraipen bat egin nion lehenengo txapelketa.

Suposatzen dut bertsozalea izango zinela ordurako. Nondik datorkizu zaletasuna?

Familian osaba, Juanito Akizu, Almengo bertso-eskolaren sortzaileetako bat izan zen. Idazkari lanak egiten zituen, logistika kontuak zaindu... Gure familian beti kantatu izan da bertsoren bat denak elkartu izan garenean. Beraz, zaletasuna banuen, 'Hitzetik Hortzera' ikusten nuen, baina ez nintzen amorratua ere. Gerora zaletu naiz askoz ere gehiago, kazetari bezala egin behar izan ditudan lanetatik.

Ze mediotan eta ze programatan aritu izan zara bertsolaritzaz informatzen?

Berrian zazpi urte egin nituen gaia lantzen 2007ko Gipuzkoako txapelketa hartatik 2014ko Bizkaiko txapelketara. Bizkaia irrastian 'Punttua' irratsaioa egin nuen, 2012an hasi eta 2014ko Bizkaiko txapelketa horretaraino baita. Hamaika telebistarako 2013ko Euskal Herriko txapelketaren jarraipena egin nuen. Eta *Bertsolarin* aurretik kolaborazioen bat egin ondoren 2015a eta 2016a egin nituen zuzendari gisa.

Azkena Radio Vitoriakoa utzi dut. 2013an hasi nuen 'Errota' irratsaioa eta oraintsu arte aritu naiz. Euskadi Irratian sartu nintzen duela hilabete gutxi eta hasiera batean programarekin jarraitzeko asmoa zegoen, baina lau urtetan zehar asteroko saioa eginda elkarrizketatu behar ziren guztiak elkarrizketatuta neuzkala ikusten nuen, formatua agortuta zegoela azaldu nien zuzendariei eta bertan behera uztea erabaki zen.

Bertsolaritzara bakarrik emana aritu den kazetari bakanetako bat izango zara, ezta?

Hamar urte hauetan beti jarraitu izan dut bertsolaritza batean edo bestean, baina ez da egia horretatik bakarrik bizi izan naizenik. Txapelketa Nagusiek iraun duten hilabeteetan, 2009koan eta 2013koan bai, baina bestela ez. Beste lan eta gai batzuekin uztartu behar izan dut soldata bat osatzeko.

Zer da zure ustez bertsolaritzari buruzko kazetari on bat hain ona ez den batengandik bereizten duena? Zein dira zuk bidean ikasi behar izan dituzunak?

Nik egin nahi izan dudana izan da zintzoa izan, niretzat egia zena esaten saiatu. Elkarrekin antolatu izan dituen kazetarietzako ikastaroetan esaten ziguten gauza onak azpimarratu behar zirela, horretan jartzen zuten azentua eta nik hori ez nuen erabat garbi ikusten. Kazetari bati ezin zaio esan zer jarri behar duen eta hori asko gerturatzen zitzaion. Bertsolari batengan ez pertsonalizatzen saiatu izan naiz, baina saioa eskasagoa tokatu bada esan egiten nuen. Alegia,

txapelketako saio batean lehenengo atera duenaren eta beste saio batean lehenengo atera duenaren artean 100 puntuko distantzia badago, esplikatu beharko da zergatik den alde hori.

Izan duzu erreferenterik horretarako? Badago sinaduraren bat jarraitu izan duzuna?

Hasiera batean imitazioz funtzionatzen nuen. Juan Luis Zabala gustatzen zitzaidan asko, erredakzioan haren ondoan egiten nuen lan gainera eta pixka bat haren estiloa jarraitzen saiatzen nintzen. Gero, pixkanaka ziurtasuna hartzen hasten zara eta, alferrikako apaingarriak kentzen. Bizitzan ere horrela izaten dela esango nuke, adinarekin alferrikako apaingarriak gutxitzen joaten da bat, eta berezkoagoa duena azaltzen.

Pixkanaka geroz eta bertsolari gehiago dabil kazetari lanetan. Zer plus izan dezake bertsolari batek bertsolaritzari buruzko kazetaritza egiteko?

Nire ustez ez da abantaila bat. Alderantzizkoa bai. Ni ez naiz bertsolarien laguna izan, oso harreman interesgarria izan dut zenbaitekin baina lagun izateraino ez gara iritsi: ez diet ezer zor izan, beraz, askeagoa izan naiz alde horretatik.

Formatu guztiak probatu dituzu. Zer da formatu bakoitzean lan egitetik gehien gustatu zaizuna?

Sakontzeko prentsa idatzia iruditzen zait egokiena. Erreportajeetan edo elkarrizketa luzeetan irradian edo telebistan nekezagoak diren lanketak burutu daitezke. Irratia giroa transmititzeko da oso egokia. Telebistan irudia daukazu, baina bertsolaritzaren kasuan ez da erraza ohiko eskema batzuetatik haratago zerbait berritzailea egitea.

2013ko txapelketaren jarraipenagatik Rikardo Arregi Sari Nagusia jaso zenuen. Zein ziren epaiak azpimarratu zituen alderdiak? Zure ustez zein ziren lan haren alderdi azpimarragarrienak?

2013an pausu kontziente bat eman nuen kazetaritza politikoago bat egitera bidean. Politiko zentzu zabalago batean esan nahi dut, alegia, kulturgintzarekin. Nire kazetari lan horrekin zer bilatzen nuen hasi aurretik finkatu nuen eta horren bila joan nintzen.

Apaingarriak kentzen saiatu nintzen, zehatzagoa eta soilagoa izaten saiatu. Saria jaso nuenean sekulako poza hartu nuen pentsatuz pausu horri ematen zitzaiola saria baina gero saria motibatzerakoan idazkera poetikoa zen gehien aipatzen zena. Poztu ninduen hala ere, noski...

Sare sozialetan egindako jarraipena ere azpimarratu zen.

Berrian zuzeneko jarraipena egiteko erabili genuen twitter. Twitterren hastapenak ziren eta proba bat izan zen, gaur egun zentzurik ez lukeena baina garai hartan probatu nahi izan zena: puntuz puntu bertsoak zuzenean erretransmititzen genituen. Euskal Herriko hartan ez genuen osorik eman baina Gipuzkoako txapelketaren bat, ez dakit Euskal Herriko haren aurrekoa edo ondorengoa, osorik dago twitterrez igorria.

Ba al dago bertsolaritzari buruz egin dituzun beste lanen artean asebeteta utzi zaituen lanik edo arrastoa utzi dizunik?

Elkarrizketekin gozatu izan dut gehien. Unairi [Iturriaga] egindako batekin gustura gelditu nintzen. Txapelketara bizibideari eusteko bakarrik aurkezten zela esan zidan eta zeresan handia eman zuen. Gehiago ere badaude: Julio Sotorena, Maialenekin izandakoak...

Bertsolari-kazetari harremana eta eskaintza

Sarean geroz eta presentzia garrantzitsuagoa du bertsolaritzak. Nola baloratzen duzu eskaintza?

Bertsoa.eus berritua asko gustatu zait. Produziturikoaren jarraipen bat egiteko tresna interesgarria da. Gero sare sozialetan dabilzan bertsolari batzuk ere jarraitzen ditut. Oso aktibo dabilza batzuk: Igor Elortza, Onintza Enbeita, Oihana Bartra... Euren interesen ikuspegi osotu bat eskaintzen saiatzen dira, beste kultur alorretan egiten denaz duten iritzia, beste alorretako artistekin dituzten elkarlaneko proiektuak... Bertsolaritzaz haratago dihoan zerbait da baina oso interesgarria.

Zein dira bertsolari batekin egindako elkarrizketa on baten osagaiak?

Elkarrizketa on batetarako osagai nagusia aurrelana da, galdera orokorrakoak beharrezan elkarrizketatu horrek zehazki erantzun beharreko galderak planteatzea. Horrek denbora eskatzen du eta kazetarien lan baldintza eskasak ikusita, maila horretan ibili nahi baduzu, 24 orduak kasik horretara jarrita egotera behartzen zaitu.

Gero bertsolariaren momentua ere garrantzitsua izan daiteke, edo elkarrizketan bertan sor daitekeen kimika edo klimaxa.

Eta bertso kronika on batenak?

Bertso-kroniketan lortu da jada hizkera jakin bat garatzea. Saioa txukuna izan dela idazten bada irakurleak jada badaki horrek zer esan nahi duen. Badago estandar bat eraikia, generoaren berezko elementu eta ezaugarri batzuk finkatu dira, eta ez da gutxi, horrek esan nahi baitu, bertso-kronika dezente argitaratu dela, medioek horri tarte bat eskaini diotela eta hainbat kazetarik landu dutela.

Kronika horiek ekarpen handirik ez dutela egiten komentatu dit hainbat bertsolarik.

Nik esango nuke bertsozaleen gehiengoa, kronika horiek irakurtzen dituenak ez dela super-aditua. Eskaintzen zaien hori gustura kontsumitzen dutela esango nuke eta zerbait askoz espezializatuagoa eskainiz gero agian eskapatu egingo litzaiekela.

Bestalde, hainbat aspektutan beti oso antzekoa denaren kontakizun ezberdin bat egitea konplikatu da. Hamazazpigarren txapelketa da orain datorrena eta 17 x 4 urtean zehar fokua nagusiki hor jarri da, baina bertso mugimenduak jarrita, medioak atzetik joan ohi direlako ia beti. Txapelketa guztietan errituala, giroa eta bertsogintza bera ere nahikoa antzekoak dira. Gaiak ere orain hasi dira aldatzen, baina antzekoak izan dira denbora luzean.

Kazetariak ikusten duena kontatu behar du eta txapelketa ezberdinetan gertatzen den hori, aspektu askotan, oso antzekoa denez, kontakizuna ere antzekoa izango da.

Kronikak planoegiak direla ere esaten da, iritzi eta analisi ausartagoak falta direla. Bertso kritikaren gabeziekin lotuko litzateke hau.

Hala ikusi izan dut neuk ere, eta saiatu izan naiz beste zerbait egiten.

Hoztasun eta distantzia pixka bat jarri nahi izan dut. Ez naiz bertso mugimenduaren parte sentitu izan, ez naiz bertso militante sentitu, kazetari mugimenduaren parte baizik. Beste alor batzuetan, beste herrialde batzuetako kultur kazetaritza irakurri izan dut eta horietan irakurtzen nuena egin nahi izan dut bertsolaritzan. Iruditzen zitzaidan bertsolaritzaren inguruan testu onberak egiteko joera zegoela eta hori saihestu nahi izan dut. Gero, hoztasun hori batzuk zorroztasun gisa ikusi dute.

Ez da lan erraza, ezta?

Ez. Zenbaiti kosta egiten zaio kritikak onartzea. Bizkaiko Txapelketa baten dezenteko iskanbila izan nuen eta, egia esan, ez naiz gertatu zena erabat ulertzera iritsi. Esango nuke gaizki ulertutako metafora baten gainean sortu zen *bulo* bat izan zela hura. Eta gehiago ere tokatu zaizkit... Momentuan, kexaka edo haserre etortzen zaizkizunean asaldatu egiten zara, trago txar bat izaten da eta buelta asko ematen dizkiozu, baina gerora, orain, oso lasai nago egin nuenarekin. Beti saiatu izan naiz nire ustez egia zena kontatu eta alde horretatik kontzientzia oso lasai daukat. Gainera, argi daukat kazetariak publikoarentzat idatzi behar duela eta ez oholtzan daudenei gustatzeko.

Jarri behar zaio nolabaiteko baldintzaren bat kritika horri? Bertsolari hasi berri bati edo eliteko bati ezingo zaie berdina eskatu, adibidez.

Sehaskatik atera berriarekin onbera izatea komeniko da, baina gainerakoan ez da bide on bat hori. Plazak badituzten bertsolarien artean ez zait iruditzen kronika batetako kritikak kalte handirik eragin dezakeenik. Jon Maiak azkenengo Gipuzkoakoan Oiartzunen saio txarra izan zuen eta hori esateak ez dut uste dauzkan plaza kopuruetan eragingo zionik.

Ziurrenik eragin handiagoa dute zentzu horretan antzezlan bati, filma bati edo liburu bati egindako kritikek. Alor horietan badago kritikari kasu egiteko joera eta posible da kritika txarra irakurri duzulako antzezlan hori edo film hori ikustera ez joatea, edo liburua ez erostea. Baina bertsolarien kasuan, ibilbide oso batean pilatutako sinesgarritasuna da funtzionatzen duena.

Nola gainditu liteke bertso kritikak duen arazo hau?

Azken txapelketan kronikak elkarrizketen bidez osatu nituen proba gisa. Saioa bukatutakoan bertsolariari galdetu eta kontakizuna haren hitzekin osatu. Bertsolariak badaki noiz aritu den gaizki, non sartu duen hanka, eta normalean ez du inolako arazorik izaten hori kontatzeko.

Beste gauza bat da berak esan beharrean kazetariak esatea gaizki ibili dela edo hanka sartu duela. Hori zailagoa suertatzen da, eta esango nuke bertsolariak eurak baino bertso mungimenduko jende batek daukala arazo gehiago hori onartzeko. Ez zara bertso mundu horretakoa, irudituko zaie ez duzula nahikoa ibilbiderik, ezagutzarik edo autoritate moralik...

Edozein kasutan etorriko dela iruditzen zait. Pixkanaka geroz eta gehiago ematen da iritzia eta geroz eta ausartagoak dira iritzi horiek. Eta produkzio hori normalizatzen den neurrian kritikaren harrera ere normalizatuz joango da.

V.XVI ARITZ ZERAIN. VILLABONA, 2017/IX/22

Bertsolaria eta eragilea. Elkartearen koordinatzaile nagusi 2008tik.

Apustu berritua

Egaña eta Sarasuak euren ‘hedabidetzearen belaunaldia’ izan dela esaten dute ‘Zozoak beleari’ liburuan, bertsolaritza erdigunera eramatea izan zela euren apustu nagusienetarikoa bat, atzetik egon zitezkeen arriskuez jakitun hartutakoa.

Hurrengo belaunaldiak Zarautzen 2006ko udazkenean eginiko gogoetekin hartu zuen erreleboa, eta gogoeta haietan bertan Elkartearen baitan Komunikazio Saila sortzeko erabakia hartu zen. Hedabidetzeko apustua berritzeko modu bat izan zen hori, ezta? Nola eta zergatik hartu zen erabaki hori? Ze onura ekarri ditu?

Aurreko belaunaldiak hamar urtean behin hamarkada batetarako ildoak finkatuko zituen gogoeta prozesu parte-hartzaile bat burutu behar zela ere erabaki zuen, eta gogoeta horrek ikerketa soziologiko handi batean oinarritua beharko lukeela. 2006an burutu zen lehen aldiz gisa horretako prozesu bat.

Gogoeta horietan ikusi zen Elkartearen hainbat urtetan komunikazioaren inguruko eztabaida eta ahalegin nagusiak telebistako programaren inguruan zentratu ondoren, afera hori bideratuta zegoela, ongi asmatu zela hori dena bideratzen, eta pausu berriak eman beharra zegoela, Elkartearen komunikazioa profesionalizatuz.

2005eko txapelketan komunikazio arduradun profesional bat aritu zen lehen aldiz, eta bide horri jarraitasun bat eman behar zitzaioela erabaki zen. Bestalde, teknologia berrietan sakondu beharra ere ezarri zen helburu garrantzitsu gisa.

Gutxira Irazuk bertsolaritzari buruzko bertsoa.com jarri zuen martxan bere kasa, eta kasik aldi berean Elkartek bertsoplaza.tv. Debate haundia sortu zen, barruan ala kanpoan egon behar zuen, eta argi ikusten zen bitasun horrek ez zuela zentzu handirik. Azkenean bi proiektuak integratu eta Elkartearen barruan txertatu dira. Ikusi da telebistak ez duela garai batean bezala publiko guztietara iristeko gaitasunik, Sarean ere eskaini beharra dagoela. Eta telebistaren esperientziak erakutsi digu Elkartearen esku hartzearekin hobeto gauzatzen direla zenbait funtzioa. Beraz, hortik ari gara bidea egiten.

Zertan da Elkartearen barruan vs kanpoan eztabaida hori?

Askotan esaten da Elkartek dena kontrolatzen duela eta hori ez dela ona. Ez dakit ze puntutaraino hori horrela den, badakidana da Elkartek ez duela dena kontrolatzeko interes berezirik. Beste kontu bat da bere kasa eusten ez denari Elkartek bere laguntza eman behar diola.

Adibidez, bertso-eskolen kasua. Ahalik eta autonomoen izan behar dute, argi dago. Baina zenbait herritan Elkartek ez badu eragiten ez da bertso-eskolarik sortzen, eta behin zuk sortu duzunean zure ardurapean gelditzen da. Egia da berez interesgarriago dela zuk sortu, baina gero beraiek kudeatzea, baina normalean ez du funtzionatzen horrek.

Eztabaida horiek gora behera Interneteko eskaintza barrutik hainbat gauza egin beharra zegoela ikusi genuen.

Ze puntutaraino dira estrategikoak zeuentzat bertsoa.eus eta bertsozale.eus? Zein dira eskaintza honen indargune nagusiak?

Eman den azken pausua ‘Hitzetik Hortzera’ egiten duen jendea eta bertsoa.eus egiten duena elkarrekin talde gisa lanean jartzea izan da. Horrela sinergiak aprobezka daitezke, eta guztiak bietan aritzeko trebatuta hedabide bat nahiz bestearen atzean jende gehiago jartzen da.

Bi mundu horiek kontrolatzen dituen jendea aberastasun bat da. Eta hasi eta buka, eskainiko denaren ekoizpen prozesu osoa hasieratik bukaeraraino jende horrek egin ahal izatea ere aberastasun bat da. Garai batean ‘Hitzetik Hortzeran’, esaterako, alderdi teknikoa Elkartean kanpoko hainbat ekoiztetxerekin egiten zen, eta gerta zitekeen hauek soziedade bateko saioa grabatzera bidaltzen zuten kameralaria erdalduna izatea, edo errealizadoreari Uxue Alberdiren irudiak jartzeko eskatu eta honek ez jakitea...

Esango nuke bide bat egiten asmatu dugula oro har, eta Interneten Elkartearen webgune ezberdinek eta bertsoa.eus-ek eskaintza interesgarri bat osatzen dutela. Hobetzeko, noski, beti egongo da, baina jende asko dabil horrekin lanean eta badakit bidea egiten jarraitzeko gaitasuna egongo dela.

Kanpo komunikazioari ez ezik barne komunikazioari ere garrantzia handia eman izan diozue. Hainbat bilera, buletina...

Kasik lan gehiago ematen du horrek kanpora begirakoak baino. Sei elkarte barneratzen ditu Elkartek, Euskal Herrikoa eta errealitatea desberdina da Gipuzkoan, Bizkaian, edo Iparraldean, bertsolaritza bera egoera desberdinean dago edota euskara bera egoera desberdinean dago. Hortaz bakoitzaren egoera ezagutu behar da, bakoitzaren egoera ulertu behar da, guztien arteko oreka mantendu behar da, Euskal Herrikoak zerbait egiten duenean guzti hori kontutan hartu behar du eta abar. Bateratze prozesua deitzen zaio horri. Hemen ere ikuspegi orokorra ematen dugu, baina bakoitza ahalik eta autonomoen izatea da helburua.

1990eko hamarkadan ‘Hitzetik Hortzera’ren arrakastak eragin zitzakeen albo kalteekin alarmak piztu ziren. Badirudi egun kezka horiek dezente baretu direla.

Horrela da, egoera egonkortu egin da. Ikusi da bertsolaritzak garai hartan lortu zuen oihartzuna ez zela moda iragankor bat. Hala ere, garai hartan landu ziren hainbat irizpide oso presente dauzkagu. Ez dugu saturaziora iritsi nahi, esaterako. Eta zenbait praktika zaindu beharra etenik ez duen ardura bat da. Oraindik ere zenbait tokiko telebistatan ikus daiteke saio bera etengabe errepikatzen dutela. Tokiko telebisten egoerak berak dakartza horrelakoak, baina hori konpontzen saiatu beharra dago.

Elkartearen organigraman eman diren aldaketa esanguratsuenetakoak Komunikazio saila sortzea eta Sustapena-Hedapena bereiztea izan dira. Komunikazioak eta hedabidetzeak egun hartu duten garrantziaren erakusle izan daiteke hau?

Sustapena deitzen zitzaion sailak bi ardura nagusi izan ditu urte luzez: batetik hedabideekiko harremanak lantzea eta bestetik saioak, bertsolaritzaren plazak lagundu eta bultzatzea. Pentsatzen aritu gara lehenengoak hartu duen pisuagatik bigarrena ez ote zen apur bat bazterrean gelditzen ari eta saila bitan banatzea erabaki da.

Ikusten zen txapelketetara jende asko hurbiltzen zela baina saio arruntetara ez hainbeste, zenbait lekutan antolatzaileak erretiratu eta erreleborik ez zegoela eta abar. Orain, sustapena hedapenetik banatuta hobeto ari gara lanketa hori egiten, indartzea lortu da. Bestalde, hedapena sail gisa jarrita hor ere beste aldaketa batzuke egin ahal izan dira, komunikazioan ardurak zituztenak, telebistarako lanean ari zirenak eta Sarerakoak talde moduan funtzionatzen jarritz.

Elkartearen garapena eta erronkak

Azken hamarkadetan bertsoaritzaren antolakuntzarako printzipio nagusienetariko bat autoeraketa izan da. Gauza askotan gizarte mugimendu baten ezaugarriak hartu izan ditu bertsoaritzak. Zuen belaunaldiarekin, gizarte mugimenduen garapenean ohikoa izaten da hori, profesionalizaziorako pausuak eman ditu Elkartek. Zenbat langile ditu egun Elkartek?

Euskal Herriko Bertsozale Elkartean hamabost inguru izango dira soldatapekoak. Sei elkarteak kontuan hartuta, 74. Borondatezkoak askoz gehiago. Zuzendaritzako kide gehienak, esaterako, borondatezkoak dira.

Beste eztabaida bat hori da, elkarte gisa sortu zena, enpresa profesional izatera pasa dela eta hori nola uztartzen den, nola kudeatzen den: gerente baten bidez egin behar den, borondatez ari den jendeak ze paper bete behar duen eta abar.

Profesionalizazioak burokratizazio arriskua ekarri ohi du (gizarte mugimenduen garapenean ohikoa izaten da hori ere) eta Elkartek horren kezka aipatu izan da, adibidez, ‘Beste 80 urtian liburuan’. Zenbaterainokoa da kezka hori?.

2018an hamarkadari dagokion gogoeta prozesua burutuko dugu, aurreko hamarkadaren erdialdean lehena egin ondoren bigarrena, eta gogoetarako gai nagusietako bat hori izango da.

Kezka horrekin gabilta. Saiatzen ari gara hori kudeatzen. Adibidez, hasieran Lanku bertso-saioen antolaketatarako bideraturiko Elkartearen adar bat zen, baina ikusi zen horrek ezin zuela Elkartearen ardura izan, eta adar horretatik bere kasa funtzionatzen duen enpresa bat sortu zen.

Momentu hauetan eztabaida hori hezkuntza arautuan bertso-eskolak ematen dituzten langileen inguruan ere sortu da. Elkartearen soldatapeko 74 langile horietatik asko eskola hauek ematen dituztenak dira. Elkartek ba al dauka egiturarik hori kudeatzeko? Elkartek bere indarrak kudeaketa horretan xahutu behar ditu? Horrelako kezkek badaude.

Bertso Egunarekin geldialdi bat egitea erabaki da, eta berriro martxan jartzean urtero tokiz aldatzen joatea. Azalduko zeniguke?

Herrialdeen arteko oreka hobetearren hartu da erabakia. Zergatik beti Donostian? galdetu izan digute askotan beste herrialde batzuetatik. Tradizioaren inertziak zekarren Donostian egite hori, eta ikusi dugu tradizio hori hautsi beharra zegoela, arrazoi zutela beste herrialdeetan ere egin beharko litzatekeela planteatzen zutenek.

Bertsoaritzari beste zonalde batzutan bultzada bat emateko modua ere izan daiteke gainera.

Erdal komunitatera hurbiltzeko ahalegin bat ere egin zen 2005ean. Zertan da hori?

2005ekoa, finala Donostiatik BECera aldatzea keinu sinboliko garrantzitsua izan zen. Egin zen gehiago ere: ariketa ausarta egin zen ETB2an bertsoak itzultzen zituen finalari buruzko programa berezi bat eskainiz. Erabaki guztiek dituzte bere ertzak; itzulpen lan hori ez zen batere erraza eta zenbait ez zen gustura gelditu emaitzarekin.

Gerora ez da lehentasunezko kezka bat izan, baina bai eman izan zaizkio buelta batzuk: erdal komunitate horri eta erdal medioei zer puntutaraino eman behar diegun dena egina eta zer puntutaraino eskatu behar zaien euren aldetik ere ahalegin bat. Berriki hizkuntza irizpide aldaketa batzuk ere egin ditugu, hurbilketa hori errazteko...

Gero kultur arteko topaketetan ere landu izan dugu bestelako erdal komunitate batzueganako hurbilketa eta erdal trukea. Hor ere egin da lanketa bat.

Zer da orain esku artean dabilkizuen lanik potoloena?

2018ko gogoeta prozesuan lehengai gisa baliatuko dugun ikerketa soziologikoarekin gabiltza orain. Hiru fase dauzka honek: 2015ean Arkaitz Zubirik 32 elkarrizketa sakon egin zituen eta kontrasteko mahai inguruak egitea falta zaio; 2016an plazaz-plaza 600 galdeketa egin zituen eta horren txostena urtarrilerako egongo da; azkenik, txapelketaren bueltan inkesta handi bat egingo da.

Guzti hori osotuta gogoeta kolektiboari ekingo diogu. Datorren urteko udazkenean izango da ziurrenik. Hortik ateratzen dena interesgarria izango da.

Bertsolaritzaren bilakaeraz

Ikerketarako 1980tik 2013ra bitarteko txapelketetan egunkariak finalari eskainirikoa aztertu da eta testu kopuruari buruzko datuaren bilakaerak hazkunde ikusgarria erakusten du. Eta gaiari buruzko literatura aztertuz hazkunde hori esplikatzen duten hainbat gako nabarmentzen dira: Txapelketa arretagai nagusi gisa; ‘Hitzetik Hortzera’ bitarteko nagusi gisa; bertsolariaren ulerkerak (framing) berria salgai nagusi gisa; eta Elkartearen komunikazioaren profesionalizazioa neurri tekniko nagusi gisa.

Nola ikusten duzu planteamendu hori?

Zuk aipatutakoez gain, esango nuke bertso eskolen papera garrantzitsua dela. Oraindik pentsatzen da bertso eskoletan bertsolariak ateratzea bakarrik dela helburua eta bertsolariak bakarrik ateratzen direla. Baina gai-jartzaileak ere ateratzen dira, edo eragileak, edo txapelketetan epaimahaiko dabilen jendea... eta baita bertsolaritza idazten duten kazetariak ere. Jende asko dabil bertso eskoletan tartean baita kazetaritza ikasten ari den jendea ere, eta horietako batzuk hedabideetan lan egitera iristen dira. Ikusten duzu gaur egun komunikabideetan nor ari den hitz egiten edo idazten eta kasu askotan bertso eskoletan ibili den jendea da.

Ekosistema deitzen diogu horri, bertsolariaren ekosisteman beharrekoak diren elementuak nagusiki bertso eskoletatik elikatzen dira.

Horrek aukera bat ireki dezake bertsolariari buruzko kazetaritza espezializatuari bultzada bat emateko ere.

Hori da. Bertsolariari buruz aritzen diren kazetariak dagoeneko badute izen bat, hain zuzen ere, horretan espezializatu direlako. Gero, egiten dituzten planteamenduekin ados egon zaitezke edo ez, baina, egun, hedabideetan bertsolaritza ari denak normalean badaki zertaz ari den, eta batzuk erreferentzialak ere badira.

2005etik hona nolabaiteko estankamendu bat ikus daiteke. Testu kopuruak zerbait behera egiten du, orrialde kopurua hortxe-hortxe mantentzen da. 2007ko azterketa soziologikoan jasotako adituen iritzietan, eta beste testuren batean ‘Hitzetik Hortzera’ren eraginaren estankamendu moduko bat ere aipatzen da. Eta 2008ko Elortza-Sukia-Murua lanean esaten da hedabideen interesa zerbait jaisten ari dela...

Nabaritu duzue zuek estankamendu hau? Baduzue horren kezka? Gogoetatu duzue zergatik izan ote daitekeen?

Agian bere garaian ahalegin berezi bat egin genuen erdal komunikabideen bidez, gero eten egin zena eta horrek esplikatzen dezake nolabaiteko atzerakada hori. Hala ere, esango nuke ez dela atzerakada nabarmen bat detektatu, oro har pozik gaudela bertsolaritza duen zabalkundearekin eta hedabideratzearekin.

VI. ERANSKINA: BERTSOLARITZAREN HEMEROGRAFIA HISTORIKOA. ZERRENDA (1823-1979)

VI.I ETIKETAK

SINADURA

ERKN—ERAKUNDEA **INZL**—INIZIALEKIN **IZRD**—IZENORDEAREKIN

HIZKUNTZA

ALMN—ALEMANA **ESR**—EUSKERA **FRN**—FRANTZESA **GLG**—GALEGOA
GZT—GAZTELERA **KTL**—KATALANA **NGLS**—INGELESA

PROTAGONISTAK

ARZK—ANTONIO ARZAK **ARZM**—MIKEL AROZAMENA
BLET—BALENDIN ENBEITA **BRBR**—JEAN BARBIER
BRDL—JOAN ETXAMENDI *BORDEL* **ELZB**—JOAN BAUTISTA ELIZANBURU
FBA—FERNANDO BENGOETXEA ALTUNA *FERNANDO AMEZKETARRA*
FLAL—FRANZISKO LOPEZ ALEN **FPRX**—FRANTZISKO PETRIARENA *XENPELAR*
GBER—GAINERAKO BERTSOLARIAK **IBB**—INDALEZIO BIZKARRONDO *BILINTX*
IEBS—IÑAKI EIZMENDI *BASARRI* **INB**—JON ENBEITA
JBO—JOXE BERNARDO OTAÑO **JDVU**—JEAN DUVOISIN
JJAU—JUAN JOSE ALKAIN *UDARREGI* **JLP**—JON LOPATEGI
JMI—JOSE MARI IPARRAGIRRE **JMLT**—JOSE MANUEL LUJANBIO *TXIRRITA*
JZAP—JOSE ZAPIRAIN **JZP**—JON AZPILLAGA
KNB—KEPA ENBEITA **LZTX**—JOSE MIGEL IZTUETA *LAZKAO TXIKI*
MLSR—MANUEL LASARTE **MOUZ**—MANUEL OLAIZOLA *UZTAPIDE*
MTT—MATTIN TREKU **MTXLN**—JOSE JOAKIN MITXELENA
MTXR—MATXIN IRABOLA **OXLD**—JOANES OXALDE
PBEI—PIERRE BORDAZARRE *ETXAHUN-IRURI* **PEE**—PATXI ERAUSKIN *ERROTARI*
PJEMPE—PEDRO JOSE ELIZEGI *PELLO ERROTA* **PMO**—PEDRO MARI OTAÑO
PTTH—PIERRE TOPET *ETXAHUN* **XBD**—FERNANDO AIRE *XALBADOR*
ZPP—AKILINO IZAGIRRE *ZEPAI*

GAI NAGUSIA

35BG---35EKO BERTSO GUDUA **36BG**---36KO BERTSO GUDUA **60TX**—60KO TXAPELKETA
62TX—62KO TXAPELKETA **65TX**—65EKO TXAPELKETA **67TX**—67KO TXAPELKETA
68ON—ONENA SARIKETA **80TX**—80KO TXAPELKETA **APLR**—AUSPOA LIBURUA
APS—AIPAMEN SOILA **ATF**---ATZERRIKO FENOMENOAK
BBB--BERTSOLARI BATI BURUZ **BBJ**--BESTELAKO BERTSO JARRIAK
BBOML—BERTSOLARI GARAIKIDEAREN OMENEZ **BBS**—BESTELAKO BERTSO-SAIOA
BDBK---BERTSOLARITZA DEBEKUAK **BGL**--BERTSOEKIN GAI BAT LANDU
BGTX—BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA **BHI**---BERTSOLARITZA HISTORIRAKO ITURRI
BHTZ—BERTSOLARITZAZ HITZALDIA **BJLH**—BERTSO JARRIEN LEHIAKETA
BPL---BERTSOLARITZAREN INGURUKO POLEMIKA **BRL**—BERTSO ERAGILEA
BTX—BIZKAIKO TXAPELKETA **BKUROM**----KLASIKOEN URTEURREN
FKZ—FIKZIOA **GOAZL**--GOGOETA/AZALPENA
GTX—GIPUZKOAKO TXAPELKETA **HRSK**—HERNANDORENAREN SARIKETAK
LBR—LIBURUA **LRE**--LORE JOKOAK
LVTX—*LA VOZ DE ESPAÑA*AREN TXAPELKETA **MBLK**—MARKIÑAKO BILKURAK
MMK---BERTSOLARI EMAKUMEZKOA **NFTX**—NAFARROAKO TXAPELKETA
PSAT—PASADIZO ETA ATERALDIAK **STSK**—SANTA ESKEA
XDH—XALBADORREN HERIOTZA

VI.II ZERRENDA

XIX. MENDEA

LEHENENGOAK

1823

+ 1823 urtarrila. *Journal des voyages, découvertes et navigations modernes*, 17. Liburukia, 51. Kuadernoa, 5-34 orr (bertsolaritzaz 14-22). 'Souvenirs du pays Basque et des Pyrénées en 1819 (troisième lettre)'. M. Boucher (Boucher de Crèvecoeur, Etienne) **FRN GOAZL**

1828

+ 1828/VIII/21. *Mémorial Bearnais*, 3 or.. 'Assassinat commis par méprise' (Etxahunen epaiketari buruz). **FRN PTTH BBB**

+ 1828/VIII/27. *La Gazette des tribunaux*. 'Assassinat commis par méprise' (Etxahunen epaiketari buruz). **FRN PTTH BBB**

1838

+ 1838. *Revue des Voyants*, 71-90 or.. "Une existence de Barde: Histoire du Poète Etchaon de Barcus'. Chaho, Jean Baptiste. **FRN PTTH BBB**

1841

+ 1841 urtarrila. *Album Pirénéen, Revue Béarnaise*, 1 or.. 'Des basques et de leur poésie'. Duvoisin, Jean. **FRN GOAZL**

1844

+ 1844/VIII/11. *Trilby, journal non politique*, 5 zbkia.. 'Chants Basques'. Chaho, Agosti. **FRN GOAZL**

1845

+ 1845/III/02. *Ariel*, 3 or.. 'Poésie Cantabre' ('Chori erresiñula'ri buruz). Chaho, Agosti. **FRN BBJ**

+ 1845/III/09. *Ariel*, 3 or.. 'Poésie Cantabre' ('Leen Floria'ri buruz). Chaho, Agosti. **FRN BBJ**

+ 1845/IV/27. *Ariel*, 2 or.. 'De la véritable origine des Basques'. Chaho, Agosti. **FRN GOAZL**

+ 1845/VI/08. *Ariel*, 1 or.. 'Aïtor - Légende cantabre'. Chaho, Agosti. **FRN FKZ**

+ 1845/VI/15. *Ariel*, 1 or.. 'Aïtor - Légende cantabre'. Chaho, Agosti. **FRN FKZ**

+ 1845/VI/22. *Ariel*, 1 or.. 'Aïtor - Légende cantabre'. Chaho, Agosti. **FRN FKZ**

+ 1845/VI/29. *Ariel*, 1 or.. 'Aïtor - Légende cantabre'. Chaho, Agosti. **FRN FKZ**

+ 1845/VIII/05. *El Castellano*, 3 or.. 'Noticias de la Corte' (Tolosan ongi etorria egin diote Isabel II.ri tartean bat-bateko bertsoekin). **GZT APS**

+ 1845/VII/06. *Ariel*, 1 or.. 'Aïtor - Légende cantabre'. Chaho, Agosti. **FRN FKZ**

+ 1845/VIII/07. *La España*, 1 or.. 'Viage de S.M./Tolosa 2 de idem'. (Tolosan ongi etorria egin diote Isabel II.ri tartean bat-bateko bertsoekin). **GZT APS**

+ 1845/VIII/13. *Le Phare des Pyrénées*. 'Chanson de. d. Vicente Etchegaray' (passage du duc de Nemours à S. Sébastien). **FRN BBJ**

+ 1845/VIII/20. *Le Phare des Pyrénées*. 'Deux couplets supplémentaires à la chanson précédente'. **FRN BBJ**

+ 1845/VIII/24. *Ariel*. 'Un couplet basque, à la occasion de la visite du duc et la duchesse de Nemours'. **FRN BBJ**

+ 1845/IX/14. *Ariel*, 2 or.. 'Poésie cantabre' ('Icazketaco Mandoa'ri buruz). Chaho, Agosti. **FRN GOAZL**

- + 1845/IX/17. *Le Phare des Pyrénées*. 'Chant en l'honneur du duc et de la duchesse de Nemours daté du 9 sep. 1845 par Larralde Bordachouri de Hasparren (six couplets). FRN BBJ
- + 1845/IX/08. *Le Courrier de la Gironde*. 'Poème basque en quatre couplets de huit vers (zorcico) sur les fêtes du 4 sep. à occasion du voyage du duc et de la duchesse de Nemours et du duc d'Aumale'. FRN BBJ
- + 1845/X/05. *Ariel*, 3 or.. 'Poésie Cantabre' ('Iruñeco berstac'i buruz). Chaho, Agosti. FRN BBJ
- + 1845/XI/09. *Ariel*. 'Les journalicules'. Chaho, Agosti. FRN BBJ
- + 1845/XI/15. *Journal des Landes*. 'Cour d'Assises des Landes' (Etxahuni epaiketa berria). FRN PTTH BBB

1846

- + 1846/III/25. *Le Cabinet de lecture, le Voleur et le Cerle réunis, 248 or..* 'Poésie populaire des basques'. Brunet, Gustave. FRN GOAZL
- + 1846/X/30. *L'Adour Journal de Bayonne*. 'Chanson en neuf couplets, par M. Larralde dit Bordachouri, de Hasparren sur le mariage du duc de Monpensier'. FRN BBJ

1849

- + 1849/X/16. *Ariel*. 'Herritar ezinago maitiak'. Chaho, Agosti. ESR BBJ

1850EKO HAMARKADA

1850

- + 1850/I/04. *Ariel*. 'Au gui L'an Neuf'. Olivier, Georges. FRN FKZ
- + 1850/I/05. *Ariel*. 'Au gui L'an Neuf'. Olivier, Georges. FRN FKZ
- + 1850/I/06. *Ariel*. 'Au gui L'an Neuf'. Olivier, Georges. FRN FKZ
- + 1850/XII/17. *Ariel*. 'Michel de Bourges et l'Ariel' (bertsolariaren heriotza). Chaho, Agosti. FRN BBB GBER

1851

- + 1851/III/02. *Memorial des Pyrénées*. 'Cour d'Assises des B.-P' (Etxahuni epaiketa berria). FRN PTTH BBB
- + 1851/III/03. *Memorial des Pyrénées*. 'Cour d'Assises des B.-P' (Etxahuni epaiketa berria). FRN PTTH BBB
- + 1851/VIII/25. *La Presse*, 1 or.. 'Feuilleton de la Presse/International Paris-Londres' (Iparragireri buruz). Gautier, Theophile. FRN JMI BBB
- + 1851/VIII/31. *Ariel*. 'Mainie D' Urrugne-Fête locale'. Le Maine, Etcheverry (alkatea). FRN LRE
- + 1851/VIII/31. *Ariel*. 'Mainie D' Urrugne-Fête locale'. Chaho, Agosti. FRN LRE

1852

- + 1852/III/19. *Ariel*. 'Herritar ezinago-maitiak!'. Chaho, Agosti. ESR BBJ
- + 1852/IX/30. *Le Messenger de Bayonne*. (1852ko Urruñako lore jokoan kontakizuna). FRN LRE

1853

- + 1853/VI/09. *Le Messenger de Bayonne*.. 'Annonce du Concours d'Urrugne'. FRN LRE
- + 1853/VII/11. *Le Mémorial des Pyrénées*. (1853ko Urruñako lore jokoetarako deia eta baldintzak). FRN LRE
- + 1853/VI/16. *Le Messenger de Bayonne*.. 'Concours d'Urrugne: nouveaux juges'. FRN LRE
- + 1853/VI/16. *Le Messenger de Bayonne*. 'Annonce de la publication et de la distribution du 'Montebideoco berriac'. FRN LRE
- + 1853 ekaina. *Bulletin de Paris*. 'Concours d' Urrugne'. FRN LRE
- + 1853/VII/02. *Le Messenger de Bayonne*.. 'Note sur le Concours d'Urrugne'. FRN LRE

- + 1853/VII/14. *Le Messenger de Bayonne*. 'Conseils sur le Concours d'Urrugne'. FRN LRE
- + 1853/IX/01. *Le Messenger de Bayonne*. (Sariaren eta ekitaldiaren inguruko xehetasunen berri). FRN LRE
- + 1853/IX/08. *Le Courier de Bayonne*. 'Fête et Concours d'Urrugne'. FRN LRE
- + 1853/IX/10. *Le Messenger de Bayonne*. 'Fete d'Urrugne. Compte rendu du concours'. FRN LRE
- + 1853/IX/13. *Le Messenger de Bayonne*. 'Variétés/Rapport sur le concours d'Urrugne'. FRN LRE MMK
- + 1853/IX/15. *Le Messenger de Bayonne*. 'Variétés/Rapport sur le Concours d'Urrugne. FRN LRE
- + 1853/X/06. *Le Messenger de Bayonne*. 'Eskualdun baten bihotzminak Montebideorat joanez' (sorta irabazlea). FRN LRE

1854

- + 1854/VI/06. *Le Messenger de Bayonne*. 'Concours d'Urrugne, deuxième année. Annonce et appel aux poètes'. FRN LRE
- + 1854/VI/06. *Le Messenger de Bayonne*. 'Fêtes d'Urrugne'. FRN LRE
- + 1854/XII/30. *Le Messenger de Bayonne*. 'Compte-rendu du Concours d'Urrugne de 1854'. FRN LRE

1855

- + 1855/IV/29. *La España*, 4 or.. 'Gacetilla/Concierto' (Iparragirren kontzertua). GZT JMI BBB
- + 1855/VI/05. *La España*, 4 or.. 'Variedades/Crónica de la Capital' (Iparragirren kontzertua). GZT JMI BBB
- + 1855/VI/20. *La España*, 4 or.. (Iparragirri buruz). GZT JMI BBB
- + 1855/VI/13. *La España*, 4 or.. 'Gacetilla/Bardo vascongado' (Iparragirre Euskal Herrira dator Madriletik). GZT JMI BBB
- + 1855/VII/01. *La España*, 4 or.. 'Gacetilla/Cantor popular' (Iparragirre Euskal Herrira dator Madriletik). GZT JMI BBB
- + 1855/VII/04. *La Iberia*, 4 or.. 'Cantor popular' (*La España*-tik hartutako testua-laburra). GZT JMI BBB
- + 1855/VIII/08. *La España*, 2 or.. 'Artistas' (Iparragirre eta Martin Sarasateren kontzertua Donostian). GZT JMI BBB
- + 1855/XII/06. *Le Messenger de Bayonne*. 'Compte rendu de la fête d'Urrugne et du Concours de 1855'. (Urte hortako lore jokoaren berri, bat-bateko saioaren aipamena). Duvoisin, Jean. FRN LRE

1856

- + 1856/IV/15. *Le Messager de Bayonne*. (Lore Jokoetarako gaiaren aurkezpena). FRN LRE
- + 1856/IV/19. *Le Messenger de Bayonne*. 'Lettre au sujet du Concours d'Urrugne'. Urruñarra. IZRD FRN LRE
- + 1856/VI/15. *Le Messenger de Bayonne*. 'Herrico besta, la fête du pays' par le Dr. Larralde'. FRN LRE
- + 1856/IX/04. *Le Messenger de Bayonne*. (Urte hortako lore jokoaren deialdia eta programa). FRN LRE
- + 1856/VI/15. *Le Messenger de Bayonne*. 'Souvenir de la fête d'Urrugne par A. d'Abbadie'. Abbadie, Antoine. FRN LRE
- + 1856/XI/16. *Le Messenger de Bayonne*. 'Compte-rendu de la fête d'Urrugne'. FRN LRE

1857

- + 1857/VI/01. *La España*, 3 or.. 'Antiguos cantos vascongados'. Goizueta, Jose Mari. GZT GOAZL
- + 1857/VI/09. *Le Messenger de Bayonne*. (Oxaldek Garroko baroiaren inguruan egindako bertsoak). M.H.P. Hiden. FRN OXLD BBJ
- + 1857/IX/22. *Le Messenger de Bayonne*. (Lore Jokoetan aurkezturiko bertsoak). FRN LRE

1858

- + 1858/VIII/05. *Le Courier de Bayonne*. 'Poésie basque. Compte-rendu du concours de 1858'. Duvoisin, Jean. FRN LRE
- + 1858/XI/07. *Le Courier de Bayonne*. (Urte hortako lore jokoan inguruko iruzkina). Duvoisin, Jean. FRN LRE
- + 1858/XI/15. *El Nacional* (Argentina). 'El Tocador Iparragirre'. GZT JMI BBB
- + 1858/XI/19. *El Nacional* (Argentina). 'El Trovador español'. GZT JMI BBB
- + 1858/XI/19. *La Tribuna* (Argentina). 'Célebre guitarrista'. GZT JMI BBB
- + 1858/XI/25. *El Nacional* (Argentina). 'Concierto de Iparragirre'. GZT JMI BBB
- + 1858/XI/26. *El Nacional* (Argentina). 'El Trovador Iparragirre'. GZT JMI BBB
- + 1858/XI/27. *El Nacional* (Argentina). (Iparragirrerri buruz). GZT JMI BBB
- + 1858/XI/29. *El Nacional* (Argentina). (Iparragirrerri buruz). GZT JMI BBB

1859

- + 1859/VI/24. *La América*, 11 or.. 'Antiguos cantos vascongados'. Goizueta, Jose Mari. GZT GOAZL
- + 1859/VIII/05. *Le Courier de Bayonne*. 'Concours de Poésie Basque'. Duvoisin, Jean. FRN LRE
- + 1859/XI/13. *Le Messager de Bayonne*. 'Concours d'Urrugne'. Larralde, Jean Baptiste. FRN LRE

1860KO HAMARKADA

1860

- + 1860/VI/03. *Wiener Zeitung*, 22 or.. 'Neber die Basken und ihre Volkslied' (Jarraian euskalduna eta bere abesti herrikoiak/Michelen liburuaz). Bon Adolph Wolf. ALMN LBR
- + 1860 iraila. *Le Courier de Bayonne*. 'Concours de Sare – Compte-rendu'. Duvoisin, Jean. FRN LRE
- + 1860 iraila. *Le Messager de Bayonne*. 'Concours de Sare. Compte rendu par J. Duvoisin". Duvoisin, Jean. FRN LRE

1864

- + 1864/VI/17. *La Época*, 1 or.. 'Cortes' (Iparragirre aipatzen dute parlamentuan). GZT JMI BBB
- + 1864/VI/17. *El Pensamiento Español*, 4 or.. 'Senado'. (Iparragirre aipatzen dute parlamentuan). GZT JMI BBB
- + 1864/VI/17. *El Contemporáneo*, 4 or.. 'Cortes'. (Iparragirre aipatzen dute parlamentuan). GZT JMI BBB
